

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

ENPLEGU, INTERES
ETA DIRUARI BURUZKO
TEORIA OROKORRA

J. M. KEYNES

Enplegu, interes eta diruari buruzko teoria orokorra



Jatorrizko izenburua:
The General Theory of Employment, Interest and Money
Euskaratzailea: Carmelo Busturia
Berrikuslea: Mertxe Iñigo
Hitzaurregilea: Axel Leijonhufvud

Lehen argitalpena: 1998ko azaroan

© 1936, Harcourt, New York
© Itzulpenarena: Carmelo Busturia
© Klasikoak, 1998
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren
pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta
trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren
bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1998-XI-4

ISBN: 84-88303-43-2
Lege gordailua: BI.-2722-98

Fotokonposaketa: ABA, O.E.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Badira hamarkada batzuk ekonomia-teorizatzaileak John Maynard Keynesen *General Theory of Employment, Interest and Money* obraren mezuarekin tira eta bira ari direla. Eskuarki onarturik zegoen pentsamendu makroekonomikora «iraultza» ekarri zuela, baina ez da adostasun orokorrik lortu ideia berezi bat hala ideia batzuk izan diren hain iraultzaile bihurtu dutenak erabakitzeko —nahiz eta «Keynes eta Klasikoak» izeneko eztabaidak gaur egun ia barne hartu ezin daitekeen adinako bibliografia sortu duen.

Gaur egun **Teoria Orokorrera** iristen diren belaunaldi berrientzat, inoiz baino zailagoa da hori ulertzea. Gainera, hori ulertzen ahalegindu nahi duenari ez zaio laguntzen. Teorizatzaile gailen askok uste dute gaur egun Keynesen obra hain dagoela narriatuta, errorez nahasita, non aztertzea ere ez baitu merezi. Izan ere, politika makroekonomikoan Keynesek egindako iraultza jadanik gainditu den parentesialdia besterik ez den iritzia zabal-tzen ari da.

Keynes ulertzeko eragozpen intelektualak gaur egun lehen baino handiagoak dira, eta irakurlearen trebaketa zenbat eta eguneratuagoa den, hainbat eta handiagoak. Azken hamarkadetako teoria ekonomikoaren bilakaerak Keynesen tradizioetik kanpora atera

gaitu. **Teoria Orokorra**ren oinarri kontzeptualak arrotz bihurtu zaizkigu.

Keynes Britainiar Eskola Klasikotik sortu zen teoria moldakor eta ebolutiboaren tradizio handian kokatzen da. Tradizio klasiko hori bereizi beharra dago Modernotik, zeinaren ezaugarriak hautapen hoberentzailea eta oreka baitira. Keynes, berez, Teorizatzaile Klasiko handietako Azkena izan zen. Zuzena da bere **Teoria Orokorra** teoria Klasikoaren orokortze gisara ulertzea. Huts egiten da —ez dago ulertzerik— teoria Modernoaren kasu berezi bezala hartuz gero.

Britainiar Teoria Klasikoak gizartearen *mugimendu-legeak* deduzitu nahi zituen (ikus 1. taula). Oinarrizko portaera-proposizioak ekuazio diferentzial berbal gisara formulaturik daude: «Biztanleria hazi egingo da soldata errealak biziraupena gainditzen duen bitartean» edo «kapitalistek metatu egingo dute mozkin-tasa positiboa den bitartean» eta abar. «Dinamika handitzailea» («magnificent dynamics») da Baumol-ek (1951) aspaldi izendatu zuenez. Portaera moldakorra da. «Agenteek maximizatu egiten dute irabazia edo mozkina» esamoldeak, adibidez, motibazioari buruzko uste bat adierazten du, ez burutzapenari buruzkorik. Negoziozaleak «irabazien mendietara igotzeko» ahaleginak egiten imajinatzen ditugu, ez haien gailurretan betiko kokaturik. Ez dira atzera lerratzetik salbu. Enpresak zahartu, nagitu, eraginkortasuna galdu eta hondoa jo dezake.

Gizarte-testuinguru batean, maldan gora igotzea saiatze- eta hutsegite- prozesua da, norbanakoa ekinean aritzen da, (hobeki esan, besteekin elkarrekintzan aritzen da), ebaluatu egiten du emaitza, eta iraganeko jarduera hobetzen ahalegintzen da. Atzeraelikaduraz gobernaturiko prozesua jendea elkarrekintzan ari den arau sozial eta legalek gidatzen dute. Erabakigileak ikasten duena, nagusi diren instituzio eta merkatu-antolakuntza nagusien izaeraren menpean dago. Instituzioek eratzen dute agenteak mugitzen diren egokitasun-paisajea eta ez dute arrakasta bera lortuko beren elkarrekintzak gobernatzen dituzten arauetatik kanpo. Horien ezagutza-gaitasunak mugak izatea normaltzat hartu izan da teoria klasikoan. Eszena klasikoko aktoreak *ibili ahal a ikasten dute* eta oso azkar bihurtzen dira ezagun

zaizkien testuinguruetan. Baina Esku Ikustezinaren gidaritzaren menpean daude. Merkatu-emaitez informazio berria ematen diete partehartzaile batzuei —eta zenbaitetan partehartzaile guztiei— eta ingurunearen ulerkuntza aldatuaren arabera moldarazten diete portaera. (Tokiko) maximizaziorako behar den informazioa merkatu-elkarrekintzan zehar sortu eta egoten da. Teoria-tipo hau «dinamiko» da gauzak gertatzen diren ordenaren zentzuan, eta bereziki, erabakiak sekuentziatzearen gaian. Agente baten ekintzak ematen du beste batek jarduteko behar duen informazioa. Merkatu-prozesua «garaian bertan» gertatzen da.

Teoria modernoak esleipen eraginkorraren printzipio logikoa hartzen du ardatz gisa. Portaera *ex ante* da hoberentzailea. Baldin eta teoria Klasikoan, agenteek ibili ahala ikasten badute, hemen dena ezagutzen dute eta alde z aurretik ezagutzen dute, hau da, ezagut dezaketen eta behar duten guztia ezagutzen dute egintzaren ibilbide alternatiboen baliagarritasunerako munta duten ondorio guztiak ateratzeko. Beraz, *ez dira merkatu-sistemako komunikazio-kanal guztietan barrena darion informazioaren menpeko*. Iristen zaien informazio «berri» bakarra loteria-txartelen emaitzen izaera da, baina horrek ez dizkie planak aldatuko, zeren loteria guztien probabilitateak ezagun eta aldaezinak baitira. Horien gaitasun ezagutzailea «arrazionalitate mugagabe» gisa ezaugarritzen dugu eta ondorioz irabazi edo mozkina maximizatzen dutelako baieztapena buruturiko jokaerari buruzko proposiziotzat hartzen da, ez asmo edo anbizio-tzat. Teoria horretan, instituzioak arazotsu bihurtzen dira funtsezko bainoago. Zer egiten dute hor? Zergatik erabiltzen du jendeak dirua? Erantzunak ez dira konbentzigarriak. Zergatik daude enpresak? Zergatik arautzen ditu gizarteak merkatuak?

Marx, Marshall eta Keynes tradizio Klasikoko teorizatzaileen eredu dira. Arrow, Debreu eta Lucas bistan dago Modernoen eredu direla, gaur egungo zentzuan. Modernoei sarritan «neo-Walrastar» etiketa jartzen zaie, baina, Walras-engandiko garapen-lerro analitikoa argia bada ere, Walras bera «Moderno goiztiarra» izan zen, ez dago hain garbi. Seguraski bere burua sistema ekonomikoen mugimendu-legeez arduratzen zenetako bat bezala ikusiko zuen. Jakina, Pareto, Lausanneko eskolaren beste protagonista handi bat izan zen hura, tradizio Klasikoaren barrukotzat

I. taula: Bi tradizio

	Klasikoa	Moderno
Teoriaren helburua	Sistemaren mugimendu-legeak	Esleipen eraginkorraren printzipioak
<u>Ezaugarriak</u>		
Banakako motibazioa	Baliagarritasuna edo irabazia maximizatu (ahalegina)	Baliagarritasuna edo irabazia maximizatu (jarduera)
Banakako portaera	Moldakorra (sarri maldan gorako igoera)	Hautapen hoberentzailea
Ezagutza-gaitasuna	Ikasteko gai «Tokira» ongi moldatua	«Mugagabea»
Instituzioen zeregina	Funtsezkoa portaera gidatzeko iragarri ahal izateko beste batzuen portaera	Arazotsua: Zertarako erabili dirua? Zergatik daude enpresak?
Oreka-kontzeptua	Iraupena (interes-erakartzailea)	Planen elkarrekiko kontsistentzia

Eredu klasikoak: Marx, Marshall, Keynes

Eredu modernoak: Arrow, Debreu edo Lucas

Zangalatrabakoak: Hicks, Samuelson

baino ez daiteke deskriba. Haren kontsumitzaileak «irabazien mendietan gora igotzen dira» eta esperientzia handia daukaten testuinguruetan bakarrik esan liteke «arrazionalak» direla eta egintza-kausa eta baliagarritasun-efektua era sinple eta zuzenekoan begiztaturik dauden tokian.

Hala ere, modernismoaren hazia Walrasengan bazegoen. *Éléments* behin eta berriz argitaratuta *tâtonnement*-aren inguruko hipotesiak zorrotz egin zituen, «negozio faltsuak» debekatuz eta *bons*¹ baldintzazkoak sartuz prezioen erakuntzan histeresia eragozteko eta horrela hasieran planifikaturiko tratu hoberenak gauzatu ahal izatea

bermatzeko. Baliteke berak, hau, xehetasun tekniko gogaikarri bat gainetik kentzeko nahiko modu kaltegabea zela pentsatu ahal izatea. Baina merkatuko partaideak prezio parametrikoen oinarriaren gainean planifikatzeko gai izateari eta planek alde zuretik edozein konpromisorekin bateratzeari ematen zion jarraipena gerora ez zen xehetasun bihurtu, eraikin Moderno zentralaren arkitektura-planoa baizik.

Aitzindari Modernoetan, Slutsky-k (1915) nabarmentzea merezi du, hautapenaren teoria termino argi modernoetan formalizatu zuelako. Baina eragin Modernoaren hazkuntza Hicks eta Allen-en (1934) artikuluko pare batekin hasi zen benetan, zeinak Slutskyren berraurkikuntza eragin baitzuen. Ordutik aurrera ereduak eraikitzeke era Modernoa pixkanaka hedatu egin zen. Baina teorizatzeke modu Klasiko eta Modernoaren arteko oreka oso astiro aldatu zen. «Teoria pentsatzeko» modu Modernoa nagusitzeko beharrezkoa izan zen ekonomialari-belaunaldi bat, zeinaren trebakuntza ia eredu Modernoak bakarrik ikasiz oinarritu baitzen.

Teoria pentsatzeko modu Klasikoak eta ereduak eraikitzeke era Modernoa bizikide izan ziren hamarkadatan, ondorez intelektual nabarmenik eragin gabe. Mendearen erdian, ekonomialarien mundumailako irakasle handiak Hicks eta Samuelson ziren. Biek zeukaten oin bat alor banatan. Samuelson-en *Foundations* (1947) obraren lehen erdia erabat Modernoa zen, bigarren erdia Klasikoa. Urtemordo bat geroago, Nobel saria hartzeke hitzaldian Samuelsonen buru-lasaitasun handi samarraz aldatu egin zuen martxa, optimizazioa mintzaldiaren erdi aldera bertan behera utziz, eta azeleragailua sakatu zuen «sistema dinamiko baten adibidea zela, inolako zentzu baliagarrian arazo handi batekin erlazioa ezin zitekeena» esanez (1970, 13. or.). Keynesen kontsumoaren biderkatzailea izango zen beste adibideetako bat.

Hicksen kasua interesgarriagoa da. *Value and Capital* (1939) obraren I. atalak oreka orokor atenporala era Moderno hutsean eraiki zuen. Liburuaren gainerakoa eraikuntza hibridoa lortzen saiatu zen. Hicks denborarteko oreka orokor Modernoaren eraikuntzen bidetik abiatu zen etorkizun-datako ondasunak sartuz. Baina eredu denborarteko oreka orokorraren baldintza batekin ixteke aldendu egin zen, zeinek denboraren sorreran erabaki guztiak hartzera eta bateratzera behartuko baitzuen. Alabaina, Erik Lindahli jarraitu zitzaion ekono-

mia bururatzen, denborazko oreken sekuentziatik pasatuz, zeinetan benetan existitzen diren merkatu guztiek irabazten duten, baina negoziogileei beren aurreikuspenak egunerarazi eta planak berrikus-tarazten dizkieten emaitzekin. Oreka tenporalaren metodo hau ahale-gina zen ibilian ikasiz doan portaera moldakor Klasikoari oreka oro-kor Modernoaren markoaren barruan lekua egiteko. Obraren parte Moderno hutsak eragin izugarria izan zuen. Eraikuntza hibridoak oso txikia.

Ondorengo urteetan Hicks gero eta kezkatuago agertu zen pentsatzeko era Moderno eta Klasikoaren artean sortzen zen tirabi-ragatik eta ekarpen-sail luze batean borroka egin zuen «garaiz kanpo» dauden eta «garaiko» eta historia berregokitzeko gai diren teoriaren arteko funtsik ezaren aurka (Leijonhufvud 1984, 1994). Hicks ia bakarrik gelditu zen auzi horiei garrantzia emanez. Ekonomialari gehienentzat oso erosoak izan zen 1960. eta 1970eko hamarkadetan pentsatzeko era Klasiko eta Modernoaren artean zangalatraba egotearen postura. Anbibalentzia hori da atzeoihal intelek-tuala eta horren aurka ulertu behar da gerra ondoko Keynesen ekar-penari buruzko eztabaida.

Mikroteoriaren gune komuna, garai hartan nonahi irakasten zen prezioaren teoria, benetan atenporala zen. Atzera begiratzuz, hori egoeraren alderdi garrantzitsu bat zen. Eredu egonkor hauek bi inter-pretazio gutxi-asko elkartrukagarri zituzten. Atsedeen-baldintzak Marshallen agente moldakorrentzat bereiztezinak ziren Walrasen hoberentasun-baldintzetatik. Interpretazio batean agente moldako-rraren arteko elkarrekintza-prozesu dinamikoaren «interes-erakarle» bezala ikusten zen soluzioa. Bestean, berriz, transakzio-plan hobe-rentzaile anitzen aldi bereko asetzea agertzen zen. Irakasleak atzera eta aurrera mugitzen ziren bi interpretazioen artean erosotasunik handienarekin, bata erakarmen intuitiboa besteari gehitzeko erabil-tzen zutelarik.

Paul Samuelsonen hornidura matematikoaren jabe zenarentzat, argi eta garbi zegoen eredu egonkorrak interpretatzeko bi erak ez zire-la hemen elkartrukagarriak. Baina *osagarriak* izan beharra zuten. Samuelsonek proposaturiko «Korrespondentzia Printzipioa» laster ikusi zen oro har ez zela sostengagarria. Baina ikuspuntu historikotik, horrek ez du garrantzirik. Garrantzia, aldiz, Samuelsonen korrespon-

dentzia-printzipioa lehen postuan baieztatzeko eman zuen motibazioan datza, hau da, eraikuntza Modernoaren oreka egonkor (konparatibo) «esanguratsu» izan daitezen, prozesu dinamiko Klasikoren baten erakarle direla frogatu behar da.

Keynesen prezioaren teoria Marshalldarra zen, ez Walrastarra. Beraz, ekonomia Klasikoa, zeinetan «ihes egiteko borroka» burutu baitzuen, Marshallen ekonomia zen. Keynesengana errazago hurbiltzen da abiapuntu moldakor/ebolutibo Klasikotik Moderno hoberentzaile/orekazkotik baino. Horregatik komeni da merkatu bakar isolatuaren Marshallen ikusmoldetik hastea.

Marshallen agenteak moldakorrak dira, ez *ex ante* hoberentzai-leak. Denborako edozein unetan, horietako gehienak doitze-prozesuan bide daude. Familiek gehitu egiten dituzte erosketak beren eskari-prezioek (beren diru-sarrerara gauzatutan kalkulaturik) merkatu-prezioa gainditzen duten guztietan, eta murriztu merkatu-prezioa eskari-prezioaren gaineratik igotzen denean. Ekoizleek hedatu egiten dute beren ekoizpena merkatu-prezio gauzatuak bere hornitze-prezioa gainditzen duenean, eta uzkurtu alderantzizko kasuan. Merkatarari-artekariak gorantz doitzen dituzte prezioak salmentek beren stockak murrizten dituztenean, eta beherantz, merkantziak saldu gabe biltegian metatzen direnean. Eta horrela behin eta berriz. Agente gehienak «mugimenduan» daude, hazkuntza-indizeren bat dagokienez (tokiko) hoberenentzantz igoz.

Irakurle modernoak berehalaxe konturatzen da honela deskribaturiko agente elkarrekintzaileen sistemak portaera konplexu, eta agian, kaotikoa oso erraz sor lezakeela. Bere aurreko Britainiar Klasikoak bezala, Marshall ez zen gauza ekuazio diferentzial partzial-leko sistemekin analitikoki aritzeko, baizik eta onartu beharra zeukan fedeko artikulua gisa ikerturiko prozesuak zuzenean joango zirela ongi definituriko interes-erakarleren batera. Baina Marshallrek epe luzeko egoera egonkoraren (Carlyleren «zientzia goibela»ren) ordeaz, bazuen trikimailu bat askozaz garrantzi praktikoa handiagoko arazoak tratatzeko aukera ematen ziona. Trikimailua doitze-abiadurak lerrokatzea zen: utzi prezioei koalitatiboki output-tasei baino bizkorrago mugitzen, eta output-tasei stock fisikoen doiketari baino bizkorrago. Emaizta interes-erakarlearen hierarkia da: merkatu-eguna, epe laburreko eta epe luzeko orekak.

Marshallen oreka kontzeptuak aldagai (gauzatu) behagarri batzuen iraupenaz definitzen dira, ez plan guztien elkarrekiko kontsistentziaz. Merkatu-eguneko oreka-baldintzak prezioaren aldaketa-indizea berdin zero du, output-ren baldintza iraunkorra delarik. Epe laburreko orekak industri output (agregatua)aren aldaketa-tasa berdin zero du, kapital-stockaren baldintza iraunkorra delarik.

Adierazgarri den enpresa ez da ahaleginduko sortu duen kostu marjinala merkatuan gauzaturiko prezioarekin parekoa denean bere errendimendu-tasa aldatzen. Merkatu-ahalmenik ez duen enpresaren portaeraren kontzeptualizazio moldakor honek libratu egiten du analista alferreko zama askotatik. Marshallen enpresa lehiakorrek ez dauka aurre egin beharrik *ex ante* eskari-kurba horizontalari, eta horregatik bere orekak ez dauka agenteen continuuma, ekoizkin perfektuki homogeneoak, prezio-eratzeko zentralizatua, edo negozio «falsua»ren debekua asumitu beharrik. Konkurrentzia inperfektuaren teoria hipotesi horietatik ihes egiteko asmatu zen. Erakarmen handia izan zuen 1930eko hamarkadan Cambridgen. Baina Keynesek ez zuen horren premiarik izan eta ez zuen erabili.

Marshalldar merkatuak ez dauka «enkantegile» exogenorik prezio bakarra ezartzeko, zeinen alderdi bata edo bestea gauzak ongi ez doazenean «razionatu» egiten diren. Saiatze- eta hutsegite-prozesu kolektiboak, zeinaren bidez merkatua orekaren bila haztamuka aritzen baita, partaide batzuen aurreikuspenak ez betetzea dakar berekin eskuarki. Baina merkatu-prozesua ez da aldizka eteten den *tâtonnementa*, zeinean alde laburrak menperaturiko burutzapenak behatuko baitira. Enpresa Marshalldarrek output-erabakiak hartu beharra daukate outputa zer prezio izatera iritsiko den jakin gabe. Oreka-outputa baino gehiagoa ekoiztean, outputaren eta eskulanaren merkatuen beste aldean jartzen dira.

Beraz, «enkantegilearengandik libratzea» beharrezkoa izan liteke Keynes ikuspuntu neo-Walrastar Modernotik ulertzen ahalegindu nahi duen norbaitentzat². Baina Keynesek ez zuen bere mentore Klasikoa zuen Marshallengandik «ihes egiteko borroka» egin.

Marshalldar atzeoihal horren kontra, orain Keynesen egoe-ra honela adieraz dezakegu: tamaina handiko langabezia iraunkorra zergatik sortzen zen eta horren kontra zer egin zitekeen, ulertu nahi zuen. Nahi den azalpenak agente guztiek moldatze-arau sin-

ple, ulergarri eta gidaritza sendokoei men egiteko ildotik jo beharko luke: «Hartutako prezioak kostu marjinala estaltzen ez badu, ekoizpena eta enplegua murriztu»; «Salmenten tasa nahi baino apalagoa bada, eskari-prezioa murriztu», eta abar. Portaera-arau horiek agente guztiei ezarri beharko litzaizkieke, langileak barne. Horrela, erreserba-soldatek langabeziari erantzun beharko liokete beste prezio guztiek gehiegizko eskaintzari erantzuten dioten era berean.

Baldin eta agente batzuk portaera lehiakorreko arau horien araberak jokatzeko ez badute, edota horrela portatzen ez balitzaie utziko, bistan dago —eta ondorioz, ez da oso interesgarria— sistemak huts egingo lukeela merkatu guztiek irabaziko luketen erakarle baterako bidea aurkitzen. Horregatik Keynesek ezabatu egin zituen nahitako eragozpen horiek guztiak doiketarako bere ikerketatik langabezia «borondatezkoaren» kategorian ezarri (Teoria Orokorra, 6, 8, 16. orr.) Horrek «borondatezko lan gabezia» (op. cit. 15-16 orr.) *explandum* bezala utzi zuen. Egin zuen terminologia-aukera oso zorigaitzekoa gertatu da, zeren «nahitaezkotasun» nozioa, funtsean ulergaitza baita hautapenean oinarrituriko teoria Modernoan. Baina Keynesek ezin izan zuen aurreratu ekonomialariek hamarkada batzuk geroago zer terminologia bultzatuko zuten.

1968ko nire liburuan argudiatu nuen Keynesek enkantegilea alde batera uzteaz gainera, sarritan deitoratu dudanez, «Marshallen prezioa eta produkzioaren doitze-abiaduren lerrokatzea» bera ere gainazpikatu egin zuela. Garai hartan honek bazirudien bide ulergarria zela Teoria Modernoaren enkante-merkatuaren ingurunetik irten eta Keynesar ekonomia³ itxura hurbilagokoa zuen zerbaiteira iristeko: baina Keynesek ez zuen alderdi horretan Marshall aldatu beharrik izan. Marshallen enpresak hedatu, uzkuritu edo geldi egotea erabakitzen duenean, bere kostu marjinalaren egitaraua, eta ondorioz, eskulanaren prezioa emandakotzat hartzen ditu. Horregatik Marshallengan, Keynesengan bezala, soldatak astiroago doitzen dira output-tasak baino eta prezioak, ekoizpen-indizeak bezain bizkor edo bizkorrago. Bai Marshalllek, bere bizitzan zehar, eta Keynesek, Lehen Mundu Gerraren ondoko inflazioen estabilizazioaren ondoren, mone-ta-araubideak egonkortasun nominalaren aurreikuspenak arrazional bihurtuko zituela uste zuten. Horregatik ez bata eta ez besteak ez

zuten bereizkuntza handirik egin alokairu erreal eta nominalen artean testuinguru horretan.

Arazo berria zen merkatu-anitzeko sistema dinamikoa nola mugituko zen analizatzea. Hain zuzen ere, maila horretan Keynesen aurkikuntza erradikalak merkatu-sistema «librearen» buruarautze-gaitasunaz zeuden iritzi nagusiak, hau da, *eskari ef ektiboaren porrotak*: erabat aldatu zituela ikusten dugu: merkatu batean gehiegizko eskaintza egoteak ez dauka derrigor kontrakturik beste nobaiteko gehiegizko eskarian. Beraz, sistemaren parte bateko uzkurtze-bulkadak ez du estimulu hedatzaileaz beste nonbait kontentsatu beharrik.

Agente moldakorren portaera gidatzen duen burutzapenen atzeraelikadura jende hori elkarrekintzan ari den instituzioek taxutzen dute (1. taula). Ekonomia kapitalista garatuan, aurrezkiak eskuarki ez du kapital-metatzearen forma hartzen aurreztailearengan. Aurreztaileak ez du bestalde kontsumo-ondasunetarako eskuratzeko agindurik ematen etorkizunari begira. Horregatik etorkizuneko eskariaren kalkuluak ez dira sendo oinarrituak izaten eta inbertsio-aurreikuspenek ager lezakete, beraz, noizbehinka egonkortasunik eza. Artekari finantzarioak eta kapital-merkatuak bitartekotzan aritzen dira aurreztaile eta inbertitzaileen artean, horrela bankari zentralak eta beheranzko edo goranzkoek kontsumoaren eta kapital-metakuntzaren koordinazio denborartekoan burtsan eragina izan dezaten. Horrela **Teoria Orokorra**ren lehen komunikazio-porrot potentziala denborartekoa da: ez «banakoaren aurrezte-egintzak»an (*Teoria Orokorra* 210 hh.), ez inbertsioko beherakadak, biak oraingo ondasunen eskaria murrizten dutenak izaki, ez dute sortuko etorkizuneko ondasunen gehiegizko eskari efektiborik, zeinetara sistema moldatuko baita (ikus 2. taula).

Eskari agregatuaren aurrezki-inbertsioaren analisisa, hasieran Keynestar ekonomiaren gune nagusitzat irakatsi ohi zena, termino errealetan egiten da ongien: Baldin X^* «enplegu beteko ekoizpena» bada, eta $S(X^*) > I$, emaitza eskari agregatuaren urritasuna da enplegu betean. Ekonomiak erantzun egingo dio eskari-eskasia horri ekoizpenaz prezio-mailaren doiketaz baino areago. Interes-tasa *errealak* —edo berdin dena, prezio erlatibo denborartekoak—

2. taula

Eskari-porrot efektiboa: Denborartekoa

Suposatu $r > r^*$, ondorioz $S(X^*, r) > I(r)$ gerta dadin

	Oraingo datako ondasunak	Etorkizuneko datako ondasunak	Doiketa-joera
Walrastar merkatuaren egitura	gehiegizko eskaintza	gehiegizko eskaria («nozionala»)	$dr/dt < 0$
Keynestar merkatuaren egitura	gehiegizko («efektiboa»)	zero	$dr/dt = 0$

ez du lortu ekonomian esleipen-erabaki intenporalak koordinatzea. Aurrezkiak langabeziaren tasa naturalean inbertsioa gainditzen duenean, merkatuko interes-tasa errealak ere gainditu egiten du interes-tasa naturala. Interes-tasa errealean porrot horren atzean erabaki denborartekoak bai doitu eta bai koordinatzeko, ekonomiako sektore batzuetan erabakiak hartu edo likidezia-posizioak berrezarri beharko dira. Errenta errealeko beherakada indusitua gertatuko da halako puntu-raino, non egin nahi izan den aurrezki-zenbatekoak jadanik ez baitu gauzatzen ari den inbertsioa gaindituko. Puntu horretan, ez da izango gehiegizko eskaririk etorkizuneko datako ondasunekiko interes-tasan presioa egiteko eror dadin. Beraz, denborarteko desorekak iraun egin dezake.⁴ Keynesen teoriako prezio guztietan (epe luzeko) interes-tasa da astiroen doitzen dena: «Hamarkadak eman ditzake kronikoki garaiegia den mailaren inguruan gorabeherak izaten».(*Teoria Orokorra*, 204. orr, kurtsiboa gehitua)

Keynesen **Idazti Bildumaren** XXIX liburu berantiarrean *Teoria Orokorren* sarrera-zirriborroak ageri dira, Keynesek gerora bertan behera utzitakoak.⁵ Zirriborro horiek oso sendo frogatzen dute Keynesek honakoa guztiz argi ulertu zuela suposizio instituzional horiek hil edo bizikoak zirela sistema moldakor merkatu anitza nolako erakarpen-sakanean zehazteko orduan koka daitekeen. Lau sistema hipotetikorekin kontrastatzen du, zeinetarik interesgarrienak hurrenez

hurren «Kooperatiboa» eta «Enpresariala» baitira. Kooperatiba-ekonomian eskulanaren eskaintza eskulan-zerbitzuak enpresaren outputaz aldatzeko eskaintza da. (Pentsatu beharra dago enpresak kontsumo-ondasunen saski zabala sortzen duela). Kooperatiba-enpresak ahaleginak egiten ditu sal dezakeen ekoizpen-kopurua maximizatzen, eskulanak bere partea jaso ondoren. Horrelako ekonomia batean, ezin daiteke «nahi gabeko langabeziarik» gerta, zeren eskulanaren eskaintza ekoizpenaren eskari efektiboa baita. Enpresa-ekonomian, enpresa produkzioan espezializatzen da eta aurreikusten duen mozkina maximizatu egiten du, eskulanaren eskaintza alokairu nominalen eskari bat da, eta dirua irabazi egin behar da soldata-ondasunen eskari efektiboa gauzatu aurretik. Hauxe da nahi gabeko langabezia gerta litekeen testuinguru instituzionala.

Pentsa bedi (3. taula) alokairu nominala oreka orokorrean nagusituko litzatekeen mailan dagoela: $w = w^*$. Baina $r > r^*$, beraz, inbertsioa alokairu horrekin enplegu beteak izateko behar dena baino urriagoa da. Kapitalak ondasunak ekoizten dituzten industrietatik kanpora bidalitako langileek murriztu egin beharko dute beren kontsumogastua, enpleguan murrizte sekundarioa eraginez. Hau da Keynesen prozesu biderkatzailea. Baldin eta eskulanaren eskaintza kontsumogaietarako gehiegizko eskari efektiboa balitz, ez litzateke horrelakorik gertatuko. Aitzitik, kontsumo-gaietarako eskari-prezioa mantendu egingo litzateke nahiz eta alokairu nominala jaitsi, eta horrela alokairu errealek jaisteko joera izango lukete. Keynestar ekonomia «enpresarial»eko instituzioekin, eskulanak ezin ditu zuzenean alokairu errealak negoziatu (cf. bereziki *Teoria Orokorra*, 19).

3. taula

Eskari-porrot efektiboa: «Nahi gabeko langabezia»

Pentsatu $r > r^*$ (2. taulan bezala) aldiz $w = w^*$. Pentsatu, halaber enplegurik gabeko pertsonak eskuarte likidorik edo kreditu erabilgarririk gabe daudela.

Walrastar merkatuaren egitura	Kontsumo-gaiak gehiégizko eskaria («noziala»)	eskulan-zerbitzuak gehiégizko eskaintza	doitzeko joera $d(w/p)/dt < 0$
Keynestar merkatuaren egitura	zero	gehiégizko eskaintza («efektiboa»)	$d(w/p)/dt > 0$

kapitulua, Eranskina). Aitzitik, eskulan-zerbitzuak dirutan saldu beharra dago kontsumo-gaietarako eskari efektiboa sortarazteko erabili baino lehen. *Teoria Orokorraren* ereduan konkurrentziak tira egiten die behera kontsumo-gaien prezioei soldatak enplegu-kontratu diren heinean baino areago. Hortik dator atzeraldian alokairu dator soldata errealak igotzeko joera izatea⁶.

Goiko analisiak argitzen du Keynesen teorian, diruaz baliatzen den sisteman batean agenteen pixkanakako elkar-moldaketak baldintza batzuetan⁷ eskari-porrot efektiboetara nola eramán dezakeen. Horrek eragiten du merkatu-prozesu moldakorrek bidetik saihestu eta elkarrekintza sozialean *nahi gabeko emaitza* ekoiztea, Keynesek «nahi gabeko langabezia» izendatu zuena.

Zergatik da teoria hau ulergaitzasun handiago eta txikiagokoa eskolatze modernista duten ekonomialarientzat? Erantzun laburra honetan datza: hoberentze esplizituaren oinarrietan finkaturiko oreka-ereduen eraikuntza nola hobetu ikastean, ekonomialariek, aldi berean, analisi moldakor eta ebolutiboaren aztura mentalak ahaztu izatean.

Teorizatzeko eredu Klasiko eta Modernoen bizikidetzak bake-tsua, 1960eko hamarkadan zehar ia termino beretan nagusitu zenak, ez zuen asko iraun harrezkero. Teoria Modernoak teoria Klasikoari albora nola eragin zion azaltzea istorio luze eta konplikatuégia da oraingo honetarako. Hala ere, arrazoiétako batzuk aski begi-bistakoa dira.

Lehenik, pixkanaka aurkitu zen eredu moldakor eta hoberentzaileen arteko «korrespondentzia» sinple eta orokorrik ez zegoela frogatzerik. Dena interes-erakarleetara biltzen delako tradizio Klasikoaren fede sinplea oinarririk gabea zen. Ekonomialariak ez zeuden Keynesek marratu zuena bezalako ekonomia merkatu-anitzaren sistema moldakor konplexuak tratatzeko prestaturik. Izaera sinpleeneko portaera moldakorrek suposatzea ere konplikazio teknikoek eta ahalmen dinamikoek adore guztiak hozteko moduko nahaste-borraste batera eramateko adinakoa zen. —eta analistak hori guztia gáinditzea lortzen bazuen ere, haren emaitzen aurrean objektzio sinple bat egin zitekeen, hots, jendea hain ergela ez dela. Horregatik bertan behera utzi zen *tâtonnement* erabateko ordezpén kasua baino munta enpiriko handiagoko oreka orokorraren egonkortasun-teoremaren bilaketa.

Bestalde, teoria Modernoaren denborarteko orokortzea garapen kritikoa zen. Azken hamarkadetan aurrerapen handia egin dugu kapital-teoria eta finantza-teoria ulertzearen bidetik. Sistema moldakorren hurbilbideak «ondoeza besterik» agintzen ez zuelarik, portae-ra hoberentzailearen gainean eraikitako teoriaren orokortze horrek ia amaiera gabeko arazo bikainen saia sortu zuen teknikoki trebaturiko ekonomialarien belaunaldi berriek lan zitzaten.

Baina denborarteko hoberentzerako orokortzeak ere nahi ez bezalako ondorioak izan ditu. Hautapen hoberentzailearen logika funtsean denboragabea da. Hala ere, erabaki alternatiboen baliagarritasunerako muntadunak diren ondorio guztiak kontuan hartzea eskatzen du. Testuinguru denboragabetik denboradunerako pausoa ematen denean, horrek betiko etorkizun alternatibo posible guztiak hartzea esan nahi du. Ez dago denbora-ikusmuga trenkatzeko, zeinen gainean agenteak planifikatu duela uste baita, edo bestela kontsideratu behar duen espazioaren dimentsionalitatea murrizteko era atseginiak. Analistak zehaztu egin behar ditu munta duten dimentsio guztietan (hautapen-arazo jakin bat izateko) agenteak ezarriak dituen ahalbideak, eta horrek agenteari dagokion informazio guztiaren ezagutza egozten zaiola esan nahi du. Horrela, denborarteko hoberentzeak etengabe behartzen du ekonomialaria arrazoizkoak ez diren informazio-suposizioak egitera.

Norbanakoaren hoberentze-arazoak soluzioa izan dezan beharrezko informazioak bere baitan hartzen ditu etorkizuneko merkatu (kontingente) guztietarako oreka-prezioak. *Guztien hautapenak adiskidetu beharra dago inoren hautapena egin aurretik!* Eredutze-estrategiak, John Hicks-ek esan duenez (1977, VII. or.), «berariazko bortxa egiten dio mundu errealean (edozein mundu errealean) jazoerak gertatzen diren ordenari».

Erabakiak hartzeko ordenan dago benetako kakoa. Kontua da ea A-k bere erabakia hartzean ba ote dakien B-k zer erabaki duen, horrela A horretara moldatu ahal izateko. Horregatik ideia bikaina litzateke Hicksen analisi dinamikoaren definizio sonatua aldatzea «datatuak izan behar duten ondasunen» arazoak dioen lekuan «datatuak izan behar duten erabakien» arazoak tratatzen dituela irakurtzeko (Leijonhufvud, 1984). Arrow-Debreu-ren ereduetan ez dago erabakiak hartzeko horrelako ordenarik. Guztiak denboraren jatorrian har-

tzen dira, seguraski dena besarkatzen duen *tâtonnement*-motaren baten ondoren oraingo eta etorkizuneko merkatu guztietarako oreka-prezioak aurkitzeko.

Aurreikuspen razionalak dira gauzak gertatu behar duten ordenari «berariazko bortxa» egitearen Hickstar salaketaren aurkako defentsa Modernoa. Aurreikuspen arrazionalazko ereduetan, agenteek merkatu-elkarrekintzak sortuko lukeen informazio-beharrik ez dutela suposatzen da, zeren iraganeko esperientziek gertatuko dena iragaritzeko ahalbidetzen baitituzte. Beraz, ez dago ibili ahala ikasi beharrik. Izan ere, batere ez da ardura (denborarteko) merkaturik existitzen den ala ez prezio-informazioa transmititzeko. Existitzen ez diren horientzat, bakarrak besterik gabe ordeztzen baititu arrazionalki aurreikusitako prezioak. Eta aurreikuspen arrazional horien berorien ikaskuntza bera baztertzen da konbentzioz iraganera aspaldidanik iraungi den (hala uste liteke behintzat) dinamika igarokorraren gisara.

Keynestar eskari-porrot efektiboak sistema batean gertatzen diren komunikazio-porrotak dira, zeinetan jendeak bere portaera eskuarki jasotzen duen informaziora moldatzen duen. Komunikazio-porrot horiek gertatzean sistema moldakor konplexua sozialki erakargarriak ez diren erakarpenaren sakanetara mugitzen da. Denborarteko oreka orokorreko ereduetan, ez da gertatzen besteen portaera pixkanaka moldatze hori. Ondorioz, informazio-transmisioan porrot potentzialak ez dira muntadunak eta ez dago aztertu beharrik.

Labur esateko, Modernoek ezabatu egin dute Keynes.

Teoria Orokorrak orain hirurogei urte ditu. Aspaldidanik itzalia dauka makroekonomiak garatzeko duen eran zuzeneko eragina izateko ahalmena. Baina bere irakatsietako batzuk gogora ekartzekoak dira. Gaur egun, langabezia iraunkorra eskulan-merkatuaren zurruntasunei zor zaielakoa beste behin nagusitu da politika-eztabaidan. Nahiz eta «Keynestar ekonomia» «soldata zurrunak» langabeziaren erantzule bihurtzeraino pixkanaka narriatu zen, Keynes bera teoria horren kontrako zen erabat. Teoria horretan, denborarteko koordinazioaren porrotek eutsi egin diezaiokete langabeziari bere «tasa naturalaz» gaineretik. Behar adinako likidezaren falta eta interes-tasa altuak, baliteke enplegu-gabeziaren erroan soldata altuak baino areago egotea. Eskulan-merkatuaren zurruntasunak hazkundearen etsai bide dira, baina horiek ez dira beti makroekonomiak behar bezala ez funtziona-

tzearen argibide zuzena. Baliteke arazoak finantza-sektorean sortzea.

Tradizio analitiko klasikoa praktikan lugorri egon da zenbait hamarkadatan. Baina oreka orokorraren teoriaren eta joko-teoriaren barruan oreken aniztasuna arazo kritiko bihurtu da, moldatze-prozesuari, ikaskuntzari eta (egonkortasunaren) orekarako konbergentziari berriro arreta eskaintzera behartzen duelarik. Makroekonomialariek obra laburbiltzen dutenez, berpiztu egingo dute ekonomiaren teoria Klasikoa sistema moldakor konplexu gisara. Ekonomia-lanbideak horrela berriro irabaziko luke orain neurri handi batean galdua duen estimazioa, John Maynard Keynesen ekarpen teorikoei esker.

Axel Leijonhufvud
Trentoko Unibertsitatea

Oharrak

¹ Ikus D.A. Walker (1987)

² Bereziki Leijonhufvud-entzat (1968).

³ Pentsamendu bera otu zitzairen Solow eta Stiglits-i. Beren osagaie-tako bat dute (1968).

⁴ Denborarteko arazoaren azterketa sakonagoa egiteko, ikus Leijonhufvud, «The Wicksell Connection» in idem (1981).

⁵ Barends-ek (1990) Wittgensteinen aipua dakar: « Er muss sozusagen die Leiter wegwerfen, nachdem er

auf ihr hinaufgestiegen ist» — «Nolabait esan bota egin behar du eskailera igotzen erabili eta gero».

⁶ *Teoria Or okorraren* ereduaren propietate berezi hau Keynesek berehala aldatu zuen Dunlop eta Tarshisek (1939) egindako kritika enpirikoki oinarrituei erantzunez.

⁷ Baldintzak Keynesek garai hartan uste zuena baino orokortasun txikiagoak dira. Cf. Leijonhufvud (1973), in *idem* berrinprimatua (1981).

Bibliografia

INGO BARENS (1988): «The Rise and Fall of the 'Entrepreneur Economy': Some Remarks on Keynes's Taxonomy of Economies,» in Donald F. Moggridge, de., *Keynes, Macroeconomics and Method*, (Perspectives on the History of Economic Thought, Volume IV), Aldershot: Edward Elgar.

WILLIAM J. BAUMOL (1951): *Economic Dynamics*, Londres: Macmillan.

ROBERT W. CLOWER (1965): «The Keynesian Counter-Revolution: A Theoretical Appraisal: in F.H. Hahn and F.P.R. Brechling, eds., *The Theory of Interest Rates*, Londres: Macmillan.

JOHN R. HICKS (1939): *Value and Capital*, Oxford: Oxford University Press.

JOHN R. HICKS (1977): *Economic Perspectives: Further Essays on Money and Growth*. Oxford: Oxford University Press.

JOHN R. HICKS and R.D.G. ALLEN (1934): «A Reconsideration of the Theory of Value», *Economica*, Part I: February, Part II: May.

JOHN MAYNARD KEYNES (1939): «Relative Movements of Real Wages and Output,» *The Economic Journal*, berriz inprimatua *The Collected Writings VII: The General Theory*, Appendix 3, Londres: MacMillan for the Royal Economic Society, 1973.

JOHN MAYNARD KEYNES (1979): *The Collected Writings XXIX: The General Theory and After— A Supplement*, London: MacMillan for the Royal Economic Society.

AXEL LEIJONHUFVUD (1968a): *On Keynesian Economics and the Economics of Keynes: A Study in Monetary Theory*, New York: Oxford University Press.

AXEL LEIJONHUFVUD (1973): «Effective Demand Failures», *Swedish Journal of Economics*, berriz inprimatua Leijonhufvud (1981).

AXEL LEIJONHUFVUD (1981): *Information and Coordination*, New York: Oxford University Press.

AXEL LEIJONHUFVUD (1984): Hicks on Time and Money,» *Oxford Economic Papers*, Azaroa, Gehigarria.

AXEL LEIJONHUFVUD (1994): «Hicks, Keynes and Marshall» in Harald Hagemann and Omar F. Hamouda, eds., *The Legacy of Hicks*, Londres: Routledge.

EUGENE SLUTSKY (1915): «Sulla teoria del bilancio del consumatore,» *Giornale degli Economisti*, uztaila.

PAUL A. SAMUELSON (1947): *Foundations of Economic Analysis*, Harvard: Harvard University Press.

PAUL A. SAMUELSON (1970): Maximum Principles in Analytical

Economics,» in Robert C. Merton, de., *The Collected Scientific Papers of Paul A. Samuelson*, Vol III, Cambridge, Mass.: MIT Press, 1972.

ROBERT M. SOLOW eta JOSEPH E. STIGLITZ (1968): *Quarterly Journal of Economics* LXXXII (4), 537-560 orr.

DONALD A. WALKER (1987): «Walras's Theories of Tâtonnement,» *Journal of Political Economy* 95 (4), 758-74 orr.

EGILEAREN HITZAURREA

Liburu hau, batez ere, ekonomia-kide ororentzat da, gainerakorentzat ulergarria izatea espero badut ere. Liburuaren helburu nagusia teoriako gai korapilotsuei heltzea da, eta teoriak praktikan dituen aplikazioak bigarren mailan utzi dira. Izan ere, ekonomia ortodoxoa gain-behera badago, horren arrazoia ez da gainegituran bilatu behar, gainegitura hau logikaren sendotasun handienarekin kontu handiz landua izaki; aitzitik, bere premisen argitasunik eta orokortasunik ezera jo beharko genuke. Beraz, ekonomialariak teoriaren oinarritzko suposamenduak ikuspegi kritikoaz berriz aztertzeraz bultzatzeko dudan asmoa, oso argudio abstraktuez baliatuz eta eztabaida ugariren bidez baizik ezingo dut gauzatu. Eztabaidei dagokionez, azkenean nahi baino gehiago izan dira, baina garrantzitsuak iruditzen zaizkit, nire ikuspegia azaltzeko baliagarriak izateaz gain, ikuspegi hau eta une honetan gailentzen den teoria zertan bereizten diren aditzera emateko. «Teoria Klasikoa» izendatuko dudan horrekin lotura estua dutenek oker nagoela edota ezer berririk esaten ez dudala iritziko diote. Beste batzuen esku dago, beraz, arrazoia bietako -edo bestelako- zeinek duen erabakitzea. Eztabaida-tarteen helburua erantzun ahal izateko elementuez hornitzea da eta, bereizketak ahalik eta argien utzi nahian nire eztabaidei gehiegizko indarra eman badiet, barkamena eskatzen

dut. Nik neuk ere, urteetan defendatu izan ditut, erabat sinetsita, orain hemen eraso egiten diedan teoria horiek, eta uste dut bere puntu nagusiak ezagutzen ditudala esateko moduan nagoela.

Beldur gabe esan dezakegu hemen aztertzeraz goazen gaiak sekulako garrantzia duela. Baina, nire azalpenak zuzenak badira, lehenik eta behin nire ekonomia-kideak dira, eta ez gizarte osoa, konbentzitu beharrekoak. Eztabaidaren une honetan, norbera eta beste ekonomialarien artean dagoen irizpide-tarte handiari irtenbide bilatu nahian dabilen ekonomialariari begira dagoen ikusle hutsa besterik ez da gizartea, eztabaidara ongi etorria bada ere. Esan beharra dago, bestalde, aipatu tarte handi horiek teoria ekonomikoari ia eragin praktikoa guztia kendu diotela, eta hala jarraituko dutela irtenbiderik ematen ez zaion bitartean.

Liburu honen eta duela bost urte argitaratu nuen *Treatise on Money* liburuaren arteko erlazioa argiago izango da, seguraski, nirentzat, besteentzat baino. Eta nirentzat hainbat urtetan jarraitu dudana pentsamendu-ildoaren bilakera naturala dena, irakurleentzat ikuspegi-aldaketa nahasgarria izango da, batzuetan. Zailtasun hau areagotu egingo da, egitea egoki iruditu zaidan terminologi aldaketaren ondorioz. Idazlanean zehar aldaketa hauen berri ematen da, baina bi liburuaren artean dagoen erlazio orokorra ondoren laburki adierazitakoa da. *Treatise on Money* idazten hasi nintzenean, artean diruaren eragina eskaria eta eskaintzaren teoria orokorrarekin zerikusirik ez duen faktore gisa hartzen duen ikuspegi tradizionalen murgilduta nengoen. Liburua amaitutakoan, zerbati aurreratu nuen diruaren teoria outputaren teoria bihurtuz, oro har. Baina aldeztu aurretik jasotako hainbat ideia ez nituen behar bezala baztertu, eta horren ondoriozkoak dira, nire iriziz, lanaren alde teorikoaren zatirik ahulenak (III. eta IV. liburuak), hauetan ez baintuen outputaren *maila-aldaketek* izan ditzaketen eraginak behar adina aztertu. Nik «oinarrizko ekuazio» gisa izendatu nituenak output jakin batekin ateratako bat-bateko argazkiak ziren. Horien bidez output jakin baten abiapuntutik beti ere, irabazien oreka hausten zuten hainbat indar nola sorraraz zitezkeen erakutsi nahi nuen, horrela output mailaren aldaketa beharrezkoa zelarik. Baina

bat-bateko argazki horiei kontrajarriz, deskribapen dinamikoa osatugabea eta guztiz nahasgarria zen. Honako liburu honek, ordea, output eta enpleguaren maila-aldaketak, oro har, eragiten dituzten indarrak aztertzen dituen idazlana izanik bukatu du; eta diruak sistema ekonomikoan oso modu berezian funtsezko tokia betetzen duela ikusi bada ere, diruari buruzko xehetasun teknikoak bigarren mailan geratu dira. Ikusiko dugunez, ekonomia monetarioa funtsean, etorkizunari buruzko ikuspegi-aldaketek, enpleguaren norabidean ez ezik, enplegu-bolumenean eragin dezaketeneko ekonomia da. Baina etorkizunari buruzko ikuspegi-aldaketek oraingo jokamolde ekonomikoetan duten eragina aztertzeko gure metodoa, eskari eta eskaintzaren elkarrekintzaren menpe dago, eta hori dela eta, balioari buruzko gure oinarritzko teoriarekin loturik agertzen zaigu. Beraz, teoria orokorragora gerturatzen gara eta, horren barne, kasu berezi gisa, jada ezaguna zaigun teoria klasikoa dago.

Tankera honetako liburuaren idazleari ezezagun zaizkion bideetan zehar ibiltzera behartuta, kritika eta ideia-trukaketak guztiz baliagarriak zaizkio, akats gehiegi egin nahi ez badu behinik behin. Harrigarria da zenbaterainoko zentzugabekeriak onar daitezkeen denboraldi batez, tarte luzeegian norbere buruaz bakarrik pentsatzen egon ondoren, ekonomia batez ere (gainerako zientzia moraletan bezalaxe), arlo honetan ezinezkoa izaten baita, sarritan, formalki nahiz espereintziaren bidez ideiak behin betiko frogatzea. Liburu honetan, *Treatise on Money* idaztean baino are lagungarriagoak izan zaizkit, agian, R.F. Kahn jaunaren etengabeko aholku eta kritika eraikitzaileak. Liburu honen zati handi batek ez luke izango hemen erakusten duen itxura, haren sugestioengatik ez balitz. Laguntza handia eman didate, halaber, liburuaren proba guztiak irakurri dituzten Joan Robinson andreak eta R.G. Hawtrey eta R.F. Harrod jaunek. Aurkibidea Cambridge-ko Kings College-ko D.M. Bensusan-Butt jaunak bildu zuen.

Liburu hau burutzea egilearentzat ihes-borroka luzea izan da, ohiko pentsamolde eta adierazpideetatik aldentzeko borroka; eta irakurle gehientsuek era halako borroka gainditu beharko dute egileak haienganako arrakasta izango badu. Hemen guztiz landuta agerrarazi

diren ideiak erabat sinpleak dira, eta begi-bistakoak izan beharko lukete. Zailtasun nagusia ez da ideia berriak ulertzea, zaharretatik ihes egitea baizik, hauek gutako gehienok jaso dugun heziketaren adar guztietan ageri direlako, azken burmuineraino barneratu baitzaizkigu.

1935eko abenduak 13
J.M. Keynes

LEHENENGO LIBURUA

Sarrera

LEHEN KAPITULUA

Teoria orokorra

I

Enplegu, interes eta diruari buruzko teoria orokorra izena ipini diot liburu honi, *orokor* hitzean indarra eginez. Izenburu honen arrazoia, nire argudio eta ondorioak teoria *klasikokoekin*¹ konparatzea da, hain zuzen ni hezi ninduten eta azken ehun urte honetan bezala, belau-naldi honetako gobernari eta akademikoen pentsamendu ekonomikoa, praktiko zein teorikoa, menperatzen duten horiekin. Teoria klasikoaren postulatuak kasu berezi batean besterik ez direla aplikagarri defendatuko dut, hau da, ezin direla orokorrean erabili, kasu bereziaren egoera oreka-egoera posible guztietan muturreko kasua delako. Are gehiago, teoria klasikoak suposatzen dituen kasu bereziaren ezau-garriak ez dira egun bizi garen gizarte ekonomikoan betetzen, eta egiazko gertaerei aplikatzen saiatuz gero, teoria klasikoaren irakas-gaiak guztiz oker eta engainagarriak suertatuko lirateke.

BIGARREN KAPITULUA

Ekonomia klasikoaren postulatuak

Ekoizpen eta balioaren teoriari buruzko tratatu gehienak erabileraren desberdinetan enplegatutako baliabide-bolumen *jakinaren* banaketaz dihardute batez ere; baita, baliabide-bolumen horren enplegua suposatuz gero, bere ordainsari erlatiboak eta bere produktuen balio erlatiboak mugatzen dituzten baldintzez ere.²

Baliabide *erabilgarrien* bolumenaren arazo bera ere, populazio enplegarriaren tamainari, aberastasun naturalaren mugei eta kapital-ekipamenduaren metaketari dagokienez, sarritan era deskriptiboaz hartu izan da. Baina baliabide erabilgarrien *benetako enplegua* finkatzen duen teoria hutsa gutxitan aztertu da sakonki. Ez luke zentzurik, jakina, inoiz ere aztertu ez denik esateak. Hain zuzen ere, enpleguaren gorabeherari buruzko edozein eztabaida, eta asko izan da, teoria horrekin lotuta dago. Ez dut esan nahi benetako enpleguaren finkapena baztertu egin denik, baizik eta sostengatzen deneko funtsezko teoria guztiz sinple eta jakintzat jo delarik, gehienetan, aipamen txiki bat baino ez duela merezi izan.³

I

Enpleguari buruzko teoria klasikoa —sinplea eta jakina, ustez— ondoko funtsezko bi postulatuetan oinarritu da, ene ustez, ia eztabaidatu gabe:

I. Alokairua eta lanaren produktu marjinala berdinak dira

Hau da, enplegua unitate bat murriztuko balitz galduko litzatekeen balioa eta pertsona enpleguaren alokairua berdinak dira (ekoizpenaren beherapen honek sahestuko lukeen beste edozein kostu kenduta); hala ere, zenbait printzipiok bultzatuta, berdintasun hori alda daiteke, baldin eta lehiakortasuna eta merkatuak perfektuak ez badira.

II. Alokairuaren baliagarritasuna, lan-bolumen jakin bat era-biltzen denean, eta enplegu-kopuru horren baliagarritasun marjinal eza berdinak dira

Hau da, pertsona enplegu baten benetako alokairua, benetako eskulan-bolumenaren enplegua merkaturatzeko doi-doi nahikoa den alokairua da (enpleguak dauden ustez); beti ere, lan-unitate erabilgarrien konbinazioek eskulan-unitate indibidual bakoitzaren berdintasuna alda dezaketenaren baldintzapean, lehiakidetasunaren perfektiorik ezak lehenengo postulatur baldintzatzen zuen moduan. Baliagarritasun eza delako kontzeptua, gizaki batek edo gizaki-talde batek berarentzat muga batetik behera dagoen baliagarritasuneko alokairuaren truke lan egitea onartu baino lehen bere lana alde batera uzteko eduki dezakeen edozein arrazoiren gisara ulertu behar da.

Postulatu hau langabezia «frikzionala» dei daitekeenarekin bat dator, zeren eta mundu errealean egin daitekeen interpretazioak enplegu bete jarraituaren egoeran dauden doikuntza-akats batzuk zilegiztat onar baititzake: esaterako, baliabide espezializatuen aldi baterako desorekaren ondoriozko langabezia, kalkulu-akatsak edo eskariaren etenaldiak direla-eta; edota aurreikusigabeko aldaketen ondoriozko denboratzerapenak; edo lan batetik bestera aldatzeko behar den derrigorrezko denbora. Beraz, estatikoa ez den gizartean beti egongo da «lanpostuen artean» enplegu gabeko baliabide-proporzio bat. Langabezia «frikzionalarekin» bat etortzeaz gain, postulatu hau «borontatezko» langabeziarekin ere bat dator, lan-unitate batek gaitasunik ez duelako produktibitate marjinalari dagokion produktuaren balioari legokiokeen ordainsaria onartzeko, edo ordainsari hori errefusatu egingo lukeelako, hainbat arrazoi direla medio: legeria edo gizarte-praktikak, negozioazio kolektiboaren elkarrekintza, aldaketa ekonomikoetara egokitzeko geldotasuna, edota, besterik gabe, gizakiaren seta direla medio. Izan ere, bi langabezi mota horiek, alegia, langabezia «frikzionala» eta «borontatezko» langabezia, ulergarriak dira, baina postulatu klasikoek ez dute

hirugarren kategoriaren aukera onartzen; hain zuzen, aurrerago «nahi gabeko» langabezia gisa definituko dudana.

Salbuespen hauek kontuan harturik, bi postulatuak argi eta garbi finkatzen dute, teoria klasikoaren arabera, enplegatutako baliabideen bolumena. Lehenengoak enpleguaren eskari-kurba ematen digu, eta bigarrenak enpleguaren eskaintza-kurba; bestalde, produktu marjinalaren baliagarritasuna eta enplegu marjinalaren baliagarritasun-eza berdintzen diren puntuak enpleguaren zenbatekoa adierazten du.⁴

Esandakotik, enplegua areagotzeko lau modu besterik ez dardela ondoriozta liteke:

(a) Langabezia «frikzionala» murrizten duen antolakuntza edo aurreikuspena hobetzea;

(b) Lanaren baliagarritasun marjinal eza murriztea (oraindik ere eskulan erabilgarria duen benetako alokairuak adierazitako moduan) «borontatezko» langabezia jaitsi dadin;

(c) Lanaren produktibitate marjinal fisikoa handiagotzea langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten diren industrietan (diru-alokairuaren baliagarritasuna baldintzatzen duten prezioei dagokien ondasun-motentzat aplikagarria den Pigou Irakaslearen termino ego-kia erabiliz) edo (d) Langileentzako kontsumo-ondasunak ez direnak, badirenen prezioekiko igotzea, eta horrekin batera, alokairurik irabazten ez dutenen gastuak langileentzako kontsumo-ondasunak direnetik ez direnetara pasatzea.

Hau da zinez, nire ustetan, Pigou irakaslearen *Langabeziaren Teoria*-ren edukia —gaur egun dagoen enplegu-teoria klasikoaren deskribapen zehatz bakarra.⁵

II

Populazioak oraingo alokairuekin nahi izango lukeen bezain-beste lan-kopurua gutxitan egiten duela kontuan hartuta, egia al da arestiko bi langabezi motak langabeziaren kasu posible guztiak barne hartzen dituela? Zeren eta ia-ia ez baita zalantzan jartzen eskulanaren eskaria handiagotuko balitz eskulan-kopuru handiagoa ere eskainiko

litzatekeela gaur egungo alokairu nominaletan⁶. Eskola klasikoak baieztapen hori bere bigarren postulatuarekin adosten du, hau da, baldin eta eskulanaren eskaria aseta badago, egungo alokairu nominaletan lan egin nahi duten pertsona guztiak enplegatuta egon baino lehen langileak aitoritutako edo aitortu gabeko akordio batera iritsi direlako da, hots, alokairu txikiagoaren truke lanik ez dutela egingo esan nahi du, eta baldin eta langileek, oro har, alokairu nominalen jaitsiera onartuko balute, enplegu-kopuru handiagoa eskainiko litzateke. Aipatu gertaera horrela balitz, mota horretako langabezia, nahiz eta azaletik begiratuta nahi gabekoa irudit, ez litzateke berez halakoa, eta arestian aipatutako «borondatezko» langabezi mota gisa sailkatu beharko litzateke, hau da, negoziazio kolektiboaren eta abarren ondoriozkoa.

Azalpen honek bi ohar behar ditu: lehenak ez du funtsezko garrantzi teorikorik, eta langileek alokairu nominalekiko eta alokairu errealekiko duten jarrerari buruzkoa da, hurrenez hurren; bigarrenak, berriz, funtsezko garrantzia du.

Pentsa dezagun, oraingoz, eskulana ez dagoela alokairu nominalaren truke lan egiteko prest, baldin eta alokairu hori merkatuan dagoen alokairu nominalen maila baino txikiagoa bada, eta greba nahiz beste zerbaiten ondorioz maila horren jaitsierak gaur egun enplegatuta dagoen eskulanaren zati bat lan-merkatutik kanpo geratzea bultzatzen duela. Hori dela eta, ondoriozta al daiteke merkatuan dauden benetako alokairuen mailak lanaren baliagarritasun marjinal eza zehazki neurtzen duela? Ez da hori derrigorrezko ondorioa, zeren eta, baldin eta merkatuan dauden alokairu nominalen jaitsierak lan-kopururen bat merkatutik kanpora bultzatzen badu, horrek ez baitu esan nahi merkatuko alokairu nominalen balioaren jaitsierak, langileen kontsumo-ondasunetan neurturik, kontsumo-ondasun horien prezio-igoeragatik izango litzatekeen ondorio berdina sortuko lukeenik. Bestela esan, muga batzuen barruan, gerta liteke langileek eskatzen dutena gutxieneko alokairu erreala menpe ez egotea, baizik eta gutxieneko alokairu nominalaren menpe egotea. Eskola klasikoak tazituki suposat du gertaera horrek ez lukeela bere teoriarik aldaketa sendorik eragingo. Baina hori ez da horrela, zeren eta benetako alokairua lan-eskaintza azaltzeko aldagai bakarra ez bada, bere argudioa goitik behera jausten baita eta enpleguaren bolumena zenbatekoa izango denari buruzko galdera guztiz erantzun gabe uzten du.⁷ Eskola

horretako ekonomialariek dirudienez ez dute ikusi lan-eskaintzak ez duela benetako alokairuaren funtzio hutsa izan behar, bere kurba, lanaren eskaintza-kurba, prezio gorabeheraren bat gertatzen denean, oso-osorik desplaza ez dadin. Beraz, beren metodoa guztiz lotuta dago beraienak diren oso hipotesi bereziekin, eta ezin da kasu orokorrean erabiltzeko egokitu.

Berriz ere, eguneroko esperientziak honakoa esaten digu: normala dela, inolako zalantza-izpirik gabe, langileek beren alokairuak alokairu nominalertan (muga batzuen barruan) erabakitzen dituztela, eta ez dutela alokairu errealei dagozkien erabakirik hartzen. Beraz, alokairuei nominaiei buruz hartzen diren erabakiak ez dira aukera bat gehiago, egoera normalena baizik. Langileek ez dute ohituratzat langileen kontsumo-ondasunen prezioak igotzen diren bakoitzean beren lana uztea eta, aitzitik, alokairu nominalen jaitsierari normalean kontra egiten diote. Batzuetan esan ohi denez logikaz kanpokoa da langileek alokairu nominalen jaitsierari kontra egitea, eta alokairu errealean jaitsierari ez egitea. Aurrerago azaltzen diren arrazoiak direla eta (46. or.), agian, ez da hasieran pentsa daitekeen bezain logikaz kanpokoa; eta, geroago ikusiko dugunez, ona da horrela izatea. Edonola ere, logikoa ala logikaz kanpokoa izan, esperientziak berez eskulanaren portatera hori dela erakusten du.

Are gehiago, ekonomiaren beheraldiarekin batera gertatutako langabeziaren arrazoiak langileek alokairu nominalen jaitsiera ukatzearen ondoriozkoa dela esateak, ez du oinarri sendorik. Ez da guztiz egia Estatu Batuek 1932an bizi izandako langabeziaren jatorria alokairu nominalen jaitsieraren aurka langileek erakutsitako setarengatik izan zenik esatea, edo makina ekonomikoaren produktibitateak eman lezakeen benetako alokairua baino handiagoaren eskaera setatsuagatik gertatu zenik. Enpleguaren bolumenean gorabehera handiak suertatzen dira, eskulanak eskatutako gutxieneko alokairu errealean eta, ezta produktibitatean ustezko aldaketarik izan gabe. Langilea ez da oldarkorragoa beheraldian susperraldian baino, ezta gutxiago ere. Halaber ez da egia krisialdietan bere produktibitate fisikoa txikiagoa denik ere. Egunerokotasunetik ikasten diren gertaera horiek dira, *prima facie*, analisi klasikoaren oinarria zalantzan jartzeko arrazoiak.

Interesgarria izango litzateke alokairu nominalen aldaketen eta alokairu errealean aldaketen artean errealitatean dagoen benetako erla-

zioari buruzko inkesta estatistikoaren ondorioak ezagutzea. Alokairuaren aldaketa industria bakar bati dagokionean, alokairu errealean aldaketak eta alokairu nominalenak zentzu berdinean aldatzea espero daiteke. Baina aldaketak alokairuen maila orokorraren daudenean honakoa gertatuko da, ene ustez: alokairu nominalen aldaketekin batera etorri ohi den alokairu errealean aldaketak, ia beti, alderantzizko norantza izango duela, eta inola ere ez dela norantza berekoa izango. Bestela esan, alokairu nominalak igotzen direnean alokairu errealak jaitxi egiten direla ikusiko litzateke eta, alokairu nominalak jaisten direnean, alokairu errealak igo egiten direla. Arrazoiak honakoa da: epe laburrean eta hainbat arrazoi direla kausa, alokairu nominalen jaitziera eta alokairu errealean igoera enpleguaren murrizketarekin batera joan behar dutela; eskulanak errazago onartzen du alokairua murriztea enplegua txikiagoa denean, eta horrekin batera, egoera berdinean, alokairu errealek handiagotzeko joera edukiko dute, zeren eta, kapital-ekipamendua aldatzeke geratzen bada, eskulanaren produktibitate marjinala handiagotu egiten baita enplegua eta ekoizpena murrizten diren neurrian.

Benetan egungo alokairu erreala minimoa dela eta horren azpitik egun enplegatutakoa baino eskulan gehiago erakarri inola ere ezin g litzatekeela egia izango balitz, «frikzionala» alde batera utzita ez litzateke nahi gabeko langabeziarik egongo. Baina zentzugabea litzateke beti horrela dela suposatzea, zeren eta, zentzu orokorrean, gaur egun enplegatua dagoen eskulan-kopurua baino kantitate handiagoa eskaintzen baita indarrean dauden alokairu nominaletan, nahiz eta langileen kontsumo-ondasunen prezioaren igoera gertatu, eta beraz, alokairu erreala jaitxi. Hau egia bada, indarrean dauden alokairu nominalen baliokide diren langileen kontsumo-ondasunek ez dute zehatz-mehatz lanaren baliagarritasun marjinal eza neurtzen, eta bigarren postulatuak, beraz, ez du balio.

Baina funtsezkoagoa den beste oztopo bat ere bada. Bigarren postulatuak alokairu errealak langile eta enpresarioen arteko alokairu-negoiazioen menpe daudelako ideiatik sortzen da. Onartu egiten da, jakina, gaur egun negoziazioak alokairu nominalenak egiten direla, eta horrekin batera, eskulanarentzat onargarriak diren alokairu errealak ez direla guztiz independenteak, baizik eta dagozkien alokairu nominalen mailaren menpe egon daitezkeela, neurri batean, behintzat. Hala ere,

horrela zehaztutako alokairu nominala hartzen da alokairu erreala kalkulatzeko oinarritzat. Horrela, teoria klasikoak honakoa suposatzen du: langileek beren alokairu erreala beti murriz dezaketela, beren alokairu nominalen murrizketa onartuz gero. Alokairu errealak lanaren baliagarritasun marjinal ezarekin bat etortzeko joera duela esaten duen postulatuak, argi eta garbi kontsideratzen du langileek berek beren alokairu erreala finka dezaketela, nahiz eta alokairu horretatik ondorioztatzen den enplegu-kopurua finkatzea ezinezkoa izan.

Laburki esan, teoria tradizionalak sostengatzen duenez, *langile eta enpresarioen arteko alokairu-negoziazioek finkatzen dute alokairu erreala*; beraz, enpresarioen arteko libre-konkurrentzia eta langileen aldetik konbinazio-murriztatzailerik ez dagoela suposatuz, azken hauek, nahi izanez gero, alokairu errealek eta enpresarioek alokairu horretan eskaintzen duten enplegu-kopuruari dagokion baliagarritasun marjinal ezat bat egitea lor dezakete. Hori egia ez bada, lanaren baliagarritasun marjinal eza eta benetako alokairua berdintzeko joerarik itzaroteko ez dago arrazoirik.

Gogoratu beharra dago ondorio klasikoek eskulanarentzat oro har izan nahi dutela aplikagarri, eta horrek ez du besterik gabe gizabanako bakar batek bere lagunek bertan behera utzitako alokairu nominalaren murrizketa onartuta enplegua lor dezakeela esan nahi. Sistema itxi nahiz irekian modu berean aplika daitezkeela, eta sistema ireki baten berezitasunen edo herri bakar baten alokairu nominalen murrizketak kanpo-merkataritzan eragiten dituen ondorien menpe ez daudela kontsideratzen da. Azken puntu hori hori eztabaida-eremu honetatik guztiz kanpo geratzen da, jakina. Ez daude banku-sistema eta kredituaren egoeran alokairu nominalen murrizketak sorrarazten dituen erreakzio batzuen zeharkako eraginetan ere oinarrituta, eragin horek 19. kapituluan xeheki aztertuko ditugularik. Ondorio horien oinarria, hain zuzen, sistema itxi batean alokairu nominalen maila orokorraren murrizketa, epe laburrean eta garrantzi txikiko salbuespenak salbuespen, alokairu errealean nolabaiteko murrizketarekin batera gertatzea da, beti proportzionalki ez bada ere.

Dena den, alokairu errealean maila orokorra enpresario eta langileek egiten dituzten alokairu nominalei buruzko negoziazioen menpe omen dagoelako hipotesia ez da egia nabarmena. Harritzekoa da zinez baieztapen hori onesten ala gaitzesten horren gutxi saiatu

izana. Baieztapen hori eta teoria klasikoaren izpiritu orokorra oso urruti daude bata bestearekiko, zeren eta teoria horrek erakutsi baitigu dirutan neurturiko lehenkostu marjinala dela prezioak finkatzen dituen, eta alokairu nominalak delako lehenkostu horretan funtsezko eragina dutela. Horregatik alokairu nominalak aldatzen badira, norberak pentsa lezake teoria klasikoarentzat erraza litzatekeela prezioak proportzio beretsuan aldatuko liratekeela pentsatzea, eta alokairu errealean eta langabeziaren maila ia-ia lehen bezala geratzea, enpleguaren edozein murrizketa edo gehikuntza txiki ere kostu marjinala osatzen duten beste elementuen gorabeheren menpe ipinita, hau da, aldatzeke utzi diren elementuen menpe ipinita.⁸ Hala ere, badirudi eskola klasikoa pentsamendu-lerro horretatik desbideratu egiten dela, hein batean eskulana bere alokairu erreala finkatzeko egoera ezin hobean dagoela irmoki uste duelako, eta hein batean, agian, prezioak diru-kantitatearen menpe daudela dioen ideiak kezkatzen duelako. Eta lana, beti, bere alokairu erreala finkatzeko egoeran dagoela onartu delarik, uste hau beste proposizio batekin nahastu eta, beraz, mantendu egin da, hain zuzen, lana beti enplegu *betea* zein alokairu errealarik dagokion finkatzeko —hau da, alokairu erreal jakin batekin bat datorren enplegu-kopuru *maxima* finkatzeko— egoeran dagoela esaten duenarekin.

Laburbilduz, teoria klasikoaren bigarren postulatuak bi objektu ditu. Lehenbizikoa lanaren egiazko jokabideaz arduratzen da. Alokairu nominalak konstante direlarik, prezioen igoerak eragindako alokairu errealean murrizketak, ez du, legea bailitzan, gaur egungo alokairuan erabil daitekeen eskulanaren eskaintza prezioen igoera baino lehen egiazki enplegatua zegoen eskulanaren azpitik murrizten. Hori suposatzeak honakoa adieraziko luke: gaur egun enplegurik gabe dauden eta egungo alokairuen truke lan egiteko prest dauden pertsonak beren lan-eskaintza erretiratu egingo luketela, baldin eta bizi-kostua oraingoaren gainetik pixka bat igoko balitz. Hala ere hipotesi bitxi honen gainean oinarritzen omen da Pigou Irakaslearen *Theory of Unemployment* liburua⁹, eta hori da eskola ortodoxaren kide guztiek tazituki onartzen dutena.

Baina bigarren objektua, funtsezkoagoa eta hurrengo kapituluetan garatuko duguna, alokairu-negoiazioen izaerak alokairu-maila orokorra zuzenean finkatzen duela dioen hipotesiaren eztabaidatik datorkigu. Alokairu-kontratuek benetako alokairua finka ditzaketela

kontsideratuta, eskola klasikoak irrist egin eta zilegitasunik gabeko hipotesira erori da. Izan ere, langileek, oro har, *ezin* dute langileentzako kontsumo-ondasunetan emandako alokairu nominalen maila orokorraren baliokidea eta egungo langabezi bolumenaren baliagarritasun marjinal eza uztartuko dituen inolako bitartekorik izan. Beharbada ez dago inolako prozedurarik langileek, oro har, beren alokairu *erreal*a enpresarioekin eginiko negoziazioetan agertzen diren klausula monetarioak berraztertzearen bidez kantitate zehatz batera murrizteko. Hori izango da gure tesia. Alokairu errealean maila orokorra finkatzen funtsezko pareta beste faktore batzuek dutela frogatzen saiatuko gara. Gure helburu nagusietako bat arazo honi erantzutea izango da. Bizi gareneko ekonomiak eremu honetan benetan eragiten duen moduari dagokionez funtsezko nahaste bat gertatu dela mantenduko dugu.

III

Nahiz eta sarritan benetako alokairuen maila orokorra finkatzen duena gizabanako edo giza taldeen arteko alokairu nominalen inguruko gatazka dela uste izaten den, berez beste helburu bat dauka. Lanaren mugikortasun ez-perfektua dagoen unetik, eta alokairuek lanbide desberdinetan abantaila neto berdin-berdinak sortzeko joerarik ez dutenez, besteekin alderatuz beren alokairu nominalen murrizketa onartzen duen edozein gizabanako edo giza taldek, bere alokairu errealean murrizketa *erlatiboa* jasango du, eta hori nahikoa dute hari aurre egiteko. Bestalde, ezinezkoa litzateke, langile guztiei era berean eragiten dien diruaren erosahaltenaren aldaketa dela medio, alokairu errealean murrizketa guztiei aurre egitea; eta berez, horrela eratzen diren alokairu errealean murrizketei ez zaie, oro har, aurre egiten, oso handiak ez badira behintzat. Are gehiago, alokairu nominalen murrizketari aurre egiteak, zenbait industria partikularri aplikatuta, ez dio enplegu osoaren gehikuntzari, alokairu errealean murrizketa guztietan antzeko aurre egiteak egingo lukeen moduan, gaindiezinezko muga bera ezartzen.

Bestela esan, alokairu nominalen inguruko gatazkak, lehenik eta behin, lan-talde desberdinen artean alokairu errealean guztizkoaren

banaketan eragiten du, eta ez lan-unitatearen batez besteko kopuruan, berau, ikusiko dugunez, hainbat indarren menpe dago eta. Langile-talde bat elkartzearen ondorioa, beren alokairu erreale *erlatiboa* babes-tea da. Alokairu erreale maila *orokorra* sistema ekonomikoaren beste indarren menpe dago.

Beraz, zorionez, langileak, inkonszienteki bada ere, senetz eskola klasikoa baino ekonomialari argiagoak dira, alokairu nominalen murrizketei aurre egiten dieten neurrian. Murrizketa horiek gutxitan edo inoiz ez dira orokorrak izaten, ezta alokairu horien egungo baliokide erreala gaur egungo enplegu-bolumenaren baliagarritasun marjinal eza baino handiagoa denean ere; hain zuzen ere, enplegu osoaren gehikuntzekin loturik dauden eta alokairu nominal erlatiboak aldatzeke uzten dituzten alokairu erreale murrizketei ere ez diete aurka egiten, murrizketok alokairu erreala egungo enplegu-bolumenaren baliagarritasun marjinal ezaren azpitik jartzera iristen ez badira. Sindikatu orok egingo dio aurre alokairu nominalen murrizketari, murrizketa oso txikia izanik ere. Baina sindikatu batek berak ere bizi-tzaren kostua igotzen den bakoitzean grebara deitzeko asmorik izango ez lukeenez, bidenabar ez dute, enplegu-bolumen osoaren edozein gehikuntza dela eta, eskola klasikoak leporatzen dien moduan, oztoporik jarriko.

IV

Oraingo honetan, hirugarren langabezi mota definitu behar dugu, zentzu hertsian «nahi gabeko» langabezia deiturikoa hain zuzen ere, teoria klasikoak onartzen ez duena.

Argi dago «nahi gabeko» langabeziaren bidez ez dugula lan egiteko ahalmen agortezina izate hutsa aditzera eman nahi. Zortzi orduko lanaldia ez da langabezia, nahiz eta giza ahalmenaren lan egiteko muga hamar ordukoa izan. Era berean, ezin dugu «nahi gabeko» langabezia gisa hartu beharginen korporazio batek, benetako ordainsari batetik behera lan egiteko prest ez dagoelako lanari uko egitea. Are gehiago, komenigarria litzateke langabezia tradizionala «nahi gabeko» langabeziaren gure definiziotik landa uztea. Nire definizioa, beraz, honako

hau da: *Gizakiak nahi gabeko langabezia dauke, baldin eta langile -
entzako kontsumo-ondasunen prezioa alokairu nominalerikiko zerko -
baiti gogoz direlarik, or aingo alokairu nominalaren truke lan e giteko
prest dagoen eskulanaren eskaintza osoa eta alokairu horretan dago -
en eskulanaren eskari osoa e gungo enplegu-maila baino handiag oak
badira.* Hurrengo kapituluaren beste definizio bat emango dugu, gauza
bera adieraziko duena, bestalde (ikus geroago 57. or.)

Definizio horretatik honakoa ondorioztatzen da: bigarren pos-
tuluak auresuposatutako enpleguaren baliagarritasun marjinal eza-
ren eta alokairu errealean arteko berdintasuna, modu errealistan inter-
pretaturik, «nahi gabeko» langabeziarik ez egoteari dagokiola. Egoera hau enplegu «bete» gisa deskribatuko dugu, langabezia «frik-
zionala» eta «borondatezko» langabeziak horrela definitutako enple-
gu «betearekin» bat datozelarik. Eta ikusiko dugunez, hori ados dago
teoria klasikoaren beste ezaugarriekin. Teoria hori, hobeto aztertuta,
enplegu beteko egoeraren banaketa-teoriaren gisara ulertu beharko
litzateke. Postulatu klasikoek balio duten neurrian, arestiko zentzuan
nahi gabekoa den langabezia egoterik ez dago. Beraz, ageriko langa-
beziak «lan batetik bestera» aldatzeagatik gertatzen den aldi batera-
ko lana galtzearen ondoriozkoa izan behar du, edo goi-mailan espe-
zializatutako baliabideen aldizkako eskariarena, edota lan libreko
enpleguaz sindikatu batek enpresekin eduki dezakeen «sindikatura-
koen lantegia» delako akordioarena, hau da, sindikaturik dauden lan-
gileak besterik kontratatzen ez dituen lantegiko akordioarena. Tradizio
klasikoko idazleek, beren teoria oinarritzen deneko hipotesi
berezia ahantziz, derrigorrean ondorio batera gidatu dira, beren hipo-
tesiaren arabera guztiz ondorio logikora, alegia, ageriko langabeziak
(onartutako salbuespenak salbuespen), azken batean, erabili gabeko
faktoreek beren produktibitate marjinalari legokiokkeen ordainsaria
ukatzearen ondorio izan behar duela. Ekonomialari klasikoa langile-
arekin bat etor daiteke honek bere alokairu nominalaren jaitsierari
aurre egiten dionean, eta onartu egingo du agian ez dela oso zuhurra
langilea aldi baterako baldintzen menpe jartzera behartzea; baina
zientziarekiko zintzotasunak arazoaren ardatza, hala eta guztiz ere
ukapen hori dela aitorraraziko dio.

Dena den, argi dago teoria klasikoa enplegu beteko kasuan bes-
terik aplikatu ezin bada, engainagarria dela nahi gabeko langabeziaren

—horrelakorik balego (eta nork ukatuko du badagoenik?)— arazoetara aplikatzea. Teoriko klasikoek gogora ekartzen dizkigute mundu ez-euklidearreko geometrialari euklidearrak, zeintzuek errealtatean ustez paraleloak diren lerroak elkarrekin sarritan elkar ukitzen zutela ikusi zutenean, lerroak kritikatu egin baitzituzten beren zuzentasun ezagatik; ez zuten beste iretenbiderik bilatu errealtatean suertatzen diren zoritxarreko oztopoak azaltzeko. Izan ere, benetan, ez dago beste irtenbiderik, paralelotasunaren axioma euklidearra pikotara bidaltzea ez bada behintzat. Gaur egungo zientzia ekonomikoak antzeko zerbait eskatzen du. Doktrina klasikoaren bigarren postulaturik alde batera utzi behar dugu eta nahi gabeko langabezia, zentzu hertsian, posible litzatekeen sistemaren portaeraren teoria eraiki beharra dago.

V

Sistema klasikoaren pentsamoldearekiko urrunketa azpimarritu badugu ere, ezin ahanitz dezakegu bat dugun puntu garrantzitsua, zeren eta lehenbiziko postulaturik orain arte bezala mantendu egingo baitugu, teoria klasikoari egindako zuzenketa berdina baizik ezarri gabe; eta, une batez, horri buruzko gogoetak egiteko atsedena hartuko dugu.

Postulatu horrek honakoa esan nahi du: antolakuntza, ekipamendu eta teknika jakin bat dagoenean, alokairu errealean eta output-bolumenaren artean (eta ondorioz, enpleguaren artean) erlazio unibokoa dagoela, eta beraz, oro har, alokairu errealean tasaren jaitzieraekin batera besterik ezingo du enpleguak gora egin. Hortaz, ekonomialari klasikoek (arrazoi osoarekin) ezeztazintzat jo duten funtsezko lege hau ez dut zalantzan ipintzen. Antolakuntza, ekipamendu eta teknika-ren egoera jakin batean, lan-unitateak irabazten duen alokairu erreala erlazio unibokoa (alderantzizkoa) du enplegu-bolumenarekin. Beraz, enplegua hazten *baldin* bada, epe laburrean, lan-unitate bakoitzagatik ordainsaria, langileentzako kontsumo-ondasunetan neurturik, normalean jaitsi eta mozkinak igo egingo dira.¹⁰ Hau proposizio ezagun baten atzeko aldea besterik ez da, hau da, industriari errendimendu beharrezkoekin lan egiten duela epe laburrean, ekipamendua

eta abar, konstante mantentzen direla suposatzen denean; horrela, ekoizpenaren bolumen marjinala langileentzako kontsumo ondasunak egiten diren industrietan (alokairu errealak gidatzen dituztenak) nahitaez murriztu egingo da enpleguak gora egin ahala. Proposizio honek egia izaten jarraitzen duen bitartean, enplegua handiagotzeko erabiltzen den *edozein* bitartekok produktu marjinalaren murrizketa eragingo du beraz, produktu horren gaitan neurturiko alokairu-tasaren murrizketa ere bai.

Baina bigarren postulatua alde batera utziz gero, enpleguaren jaitsiera, nahiz eta eskulanak *jasotzen* duen langileentzako kontsumo-ondasunen kantitate handiagoaren baliokidea den alokairuarekin lotuta egon, ez da nahitaez, eskulanak ondasun horietako kantitate handiagoa *eskatzearen* ondoriozkoa; eta alokairu nominal txikiagoak ezartzea, eskulana prest baldin badago ere, ez da langabezia konpontzeko nahitaezko irtenbidea. Enpleguarekiko alokairuen teoria, jadanik hementxe aipatzen ari garena, ezin da guztiz argitu 19. kapitulura eta bere Eranskinera iritsi arte.

VI

Say eta Ricardoren garaiaz geroztik, ekonomialari klasikoek eskaintzak bere eskari propioa sorrarazten duela irakatsi dute; horrek honakoa esan nahi du: adierazkorra den, baina guztiz definitu gabeko zentzuan, kostu guztiak, zuzenean ala zeharka, osorik gastatu behar direla produktua erosiz.

J.S. Mill-en *Principles of Political Economy* lanean doktrina hori honela jaso da:

Salgaien ordainketa-bitartekoak salgaiak besterik ez dira. Hirugarren lagunaren ekoizpena ordaintzeko norberak eskura dituen bitartekoak beste produktu batzuk dira. Saltzaile guztiak derrigorrezko erosleak dira, hitzaren berezko zentzuan. Erresumaren produkzio-ahalmena bat-batean bikoiztu ahal izango balitz, era berean, salgaien eskaintza ere bikoiztu egingo litzateke merkatu guztietan, baina horrekin batera erosahalmena ere bikoiztuko litzateke. Jende guztiak bere

eskaria bere eskaintzarekin batera bikoiztu egingo luke; jende oro bi bider gehiago erosteko gai izango litzateke, horren truke bi bider gehiago eskaintzeko gai izango litzatekeelako.¹¹

Doktrina beraren ondorio gisa, honakoa suposatu da: kontsumoarekiko abstentzioaren edozein ekintza indibidualek kontsumorako gehiago behar ez ziren salgaiak eta lana kapital-aberastasunen ekoizpenean inbertitzera eramaten duela, eta gauza bera adierazten duela. Marshall-en *Pure Theory of Domestic Values*¹² lanaren ondoko pasarteak ikuspegi tradizionala azaltzen du:

Gizaki baten sarrera osoa salgai eta zerbitzuen erosketan gastatzen da guztiz. Egia da normalean gizaki batek bere sarreraren zati bat gastatzen duela eta beste bat aurreztu egiten duela esan ohi dela. Baina ekonomiaren axioma ezaguna dugu gizakiak aurrezten duen sarreraren zatiarekin salgaiak eta lana erosten dituela; gastatzen duen zatiarekin egiten duen gauza bera, hain zuzen. Gizaki batek erosten dituen salgai eta zerbitzuen bidez berehalako gozamena lortzen saiatzen denean, gastatu egiten duela esaten da. Eta gizaki horrek erosten dituen lan eta salgaiak gozamen-bideak lortzeko itxaropenean aberastasunaren ekoizpena bideratzen dituenen, etorkizunean, aurreztu egiten duela esaten da.

Egia da horrelako pasarteak nekez aurkituko direla Marshall-en geroko lanetan¹³ edo Edgeworth eta Pigou Irakaslearenetan. Doktrina hori ez da sekula adierazi gaur egun hain gordin. Hala ere, oraindik ere teoria klasikoaren oinarria da, doktrina hori gabe goitik behera eroriko bailitzateke. Mill-en doktrina onartzeko zalantzak lituzketen gaur egungo ekonomialari batzuek zalantzarik gabe onartzen dituzte bere ondorioak, premisa gisa doktrina hau eskatzen duten ondorioak. Pigou Irakaslearen ia lan osoan, adibidez, diruak ez duela benetako garrantzirik azpimarratzen da, frikzionalaren ondorioei dagokienez izan ezik; eta produkzioaren eta enpleguaren teoria «benetako» elkartruketen gainean guztiz eraiki daitekeela aipatzen da (Mill-en teorian bezala), dirua azken kapitulu batean azaletik baino aipatzen ez delarik; eta iritzi hau da tradizio klasikoaren era modernoa. Pentsamendu garaiki-deak oraindik ere ondorengo funtsezko ideia du, alegia, dirua era batera gastatzen ez bada beste modu batez gastatuko dela.¹⁴ Gerra ondoko ekonomialariek, benetan, arrakasta gutxi izan zuten ikusmolde hauei modu *koherentean* eusten. Horren arrazoia honakoa da, bere gaur

egungo ideien gainean alderantzizko ideiek eragin handia izatea eta esperientziako gertaerak argie ta garbi bere aurreko ikuspuntuekin bat ez datozelako.¹⁵ Baina ez dute behar adinako irismeneko ondoriorik atera, eta ez dute bere funtsezko teoria berrikusi.

Lehenik eta behin, ondorio hauek gaur egun bizi garen ekonomia-motari aplikatu ahal izan zaizkio, hain zuzen ere, Robinson Crusoeren elkartrukerik gabeko antzeko ekonomia-motarekin analogia faltsua egin delako; azken ekonomia-mota honetan, beren jarduerara produktiboaren emaitza gisa gizabanakoek kontsumitzen edo aurretzen duten sarrera, benetan eta bakar-bakarrik, jarduera horrek *jenerotan* dituen produktuek osatzen dute. Baina, hau alde batera utzita, eskaritik sortzen diren salmenta-produktuek produkzioaren *kos-tuak* erabat beti estaltzen dituztelako ondorioa oso onargarria da, hain zuzen ere, antzeko forma, eta, zalantzarik gabe, egia den beste proposizio batetik bereiztea zaila delako. Honako hau da proposizioa: produkzioaren *balioak* eta herri batean jarduera produktiboan parte hartzen duten herrikideek lortzen duten guztizko sarrerak zehatz-mehatz berdinak izan behar dutela dioena.

Era berean, beste gizabanako bati itxuraz ezer hartu gabe aberasten den gizabanakoaren ekintzak herri osoa ere aberastu behar duela suposatzea naturala da; beraz, (Marshall-engandik hartutako pasartean bezala) gizabanako baten aurrezkirako ekintzak, derrigorrez, inbertsio-ekintza paralela eragiten du. Izan ere, beste behin, zalantzarik gabe, gizabanakoen aberastasunaren gehikuntza netoen baturak eta herriaren aberastasunaren gehikuntza neto osoak zehatz-mehatz berdinak izan behar dute.

Honela pentsatzen duten guztiak ilusio optiko baten biktima dira, funtsez desberdinak diren bi jarduera berdinak bailiran ikusten dituztelako. Oker suposatzen ari dira berehalako kontsumoa ez egiteko erabakiek eta etorkizuneko kontsumoaren erabakiek elkarrekin lotura dutela; baina, lehena finkatzen duten zioak eta bigarrenarenak ez daude inolako era sinplean loturik.

Beraz, begiratu behar dena, produkzio-eskariaren prezioaren eta bere eskaintzaren prezioaren arteko berdintasunaren hipotesia da, eta hori hartu behar da teoria klasikoaren «paralelen axiomatzat». Hori onartuz gero, beste guztia berez dator —aurrezki pribatu eta nazionalaren gizarte-abantailak, interes-tasarekiko jarrera tradiziona-

la, langabeziarekiko teoria klasikoa, monetaren teoria koantitatiboa, kanpo-merkataritzan *laissez-faire*rek dituen duda-mударik gabeko abantailak eta zalantzan jarri beharko ditugun beste asko.

VII

Kapitulu honetako zenbait tokitan teoria klasikoa, ondoz ondo, hurrengo hipotesietan oinarritu dugu:

(1) benetako alokairua eta indarrean dagoen enpleguaren baliagarritasun marjinal eza berdinak direla;

(2) nahi gabeko langabeziaren tankerakorik ez dagoela, bere zentzu hertsian ulertuta;

(3) eskaintzak bere eskari propioa sorrarazten duela, hau da, eskari osoaren prezioa eta eskaintza osoaren prezioa berdinak direla, enplegu eta outputaren bolumen eta maila guztientzat.

Nolanahi ere, hiru hipotesi hauek gauza bera esan nahi dute, hirurak batera izango baitira egia ala gezurra, eta horietako edozeinetatik beste biak logikoki ondorioztatzen baitira.

III KAPITULUA

Eskari efektiboaren printzipioa

I

Ezer baino lehen, geroago zehazki definituko ditugun termino batzuk argitu behar ditugu. Teknika, baliabide eta kostuen egoera jakin batean, eskulanaren enplegu-bolumen zehatzak bi motako gastuetara bultzatzen du enpresarioa: lehenik, produkzio-faktoreei (beste enpresarioak sartu gabe) beren ohiko zerbitzuengatik ordaintzen dizkien zenbatekoak daude, enplegu-bolumenaren *faktore-kostua* izendatuko ditugunak; eta bigarrenik, dagoen enplegu-bolumenaren *erabil-kostua* beste enpresarioei erosi behar dizkien gauzak ordaintzeko erabiltzen dituen zenbatekoak, batetik, eta ekipamendua erabiltzeke utzi gabe, erabiltzeagatik egiten duen sakrifizioa, bestetik barne hartzen dituelarik.¹⁶ Enplegu-bolumenaren bidez sortzen den ekoizpenaren balioari bere faktore-kostua eta bere erabil-kostua kenduta, enpresarioaren *sarrera* kalkulatu da. Jakina, enpresarioaren ikuspuntutik begiratu-ta, faktore-kostua eta ekoizpenaren faktoreek beren sarreratzat jotzen dutena gauza bera dira. Beraz, faktore-kostuak eta enpresarioaren mozkinak, biek batera, enpresarioak sortzen duen enplegu-mailatik ondorioztatutako *errenta oso* gisa definitzen duguna osatzen dute. Beraz, honela definituta, enpresarioen mozkinak zein enplegu-bolumen eskaini erabakitzen ari denean maximora igo nahi duen kopurua izango da enpresarioaren mozkinak. Enpresarioaren ikuspuntutik mozkinari begiratzen dugunean, batzuetan komenigarria izaten da enplegu-kopuru zehatz batetik sortzen den sarrera osoari (hau da, faktore-kos-

tua *gehi* mozkina) enplegu-kopuruaren *ekoizpena* deitzea. Bestalde, enplegu-bolumen jakin baten outputaren eskaintza-prezio osoa,¹⁷ lortzea espero diren emaitzena da; hain zuzen ere, enpresarioei enplegu-maila horrek duen kostuari aurre egiteko aukera emango diena.¹⁸

Beraz, teknika, baliabide eta enplegu-unitateko faktore-kostuen egoera jakin batean, enpresa edo industria indibidual batean nahiz industria bere osotasunean harturik, enplegu-kopurua enpresarioek beren outputaren bidez jasotzea espero duten ekoizpenaren menpe dagoela ondorioztatzen da.¹⁹ Izan ere, enpresarioak enplegu-kopurua faktore-kostuaren gainetik geratzen den soberako ekoizpena maximotzea espero duten mailan finkatzen saiatuko dira.

Izan bedi Z , N pertsonen enpleguari dagokion output-bolumenaren eskaintza-prezio osoa eta Z eta N -ren arteko erlazioa $Z = f(N)$, *eskaintza osoaren funtzioa* izendatuko duguna.²⁰ Era berean, izan bedi D , N pertsonen enplegutik enpresarioek jasotzea espero duten ekoizpena, D eta N -ren arteko erlazioa $D = f(N)$ izanik (*eskari osoaren funtzioa* izendatuko dugu azken hau).

Baina N balio jakin batentzat espero den ekoizpena eskaintza osoaren prezioa baino handiagoa bada (hau da, $D > Z$ baino handiagoa bada), N baino enplegu-kopuru handiagoa sortzeko pizgarria izango dute enpresarioek eta, beharrezkoa balitz, elkarren artean lehia egingo lukete produkzio-faktoreengatik, beren kostuak N balioak adierazten duen Z eta D -ren arteko berdintasuna lortu arte igoaraziz. Beraz, enplegu-bolumena eskari osoaren funtzioaren eta eskaintza osoaren funtzioaren arteko ebaki-puntuak ematen digu; zeren eta puntu horretan maximotu egiten baitira enpresarioen mozkinen itxaropenak. Eskari osoaren funtzioak eta eskaintza osoaren funtzioak elkar ebakitzen duten puntuan, D -k duen balioa *eskari efektiboa* izendatuko dugu. Hain zuzen ere garatu nahi dugun Enpleguaren Teoria Orokorren funtsa hau denez, hurrengo kapituluetan bi funtzio horietan eragina duten hainbat faktoreren azterketari buruz luze eta zabal arituko gara.

Bestalde, doktrina klasikoak, «Eskaintzak bere Eskaria sorrarazten du» baieztapenaz laburbildu ohi zenak, eta teoria ekonomiko ortodoxo guztiaren euskarri izaten jarraitzen duenak, bi funtzio hauen arteko erlazioarekiko hipotesi berezia darama bere baitan. Izan ere, «Eskaintzak bere Eskaria sorrarazten du» baieztapenak N -ren balio *guztientzat* $f(N)$ eta $f(N)$ berdinak direla adierazi behar du, hau da,

output eta enplegu-maila guztientzat berdinak direla; eta $Z (= f(N))$ delakoan gehikuntza gertatzen denean, N -ren gehikuntzari dagokiolarik, $D (= f'(N))$ ere nahitaez Z -ren zenbateko berdinez gehitzen da. Teoria klasikoak, beste hitzetan, eskari osoaren prezioa (edo ekoizpena), berez, eskaintza osoaren preziora beti egokitzen dela suposatzen du; beraz, N -ren edozein balioarentzat, D ekoizpenak lortzen duen balioa eta N -ri dagokion Z eskaintza osoaren prezioa berdinak dira. Honek ondoko hau esan nahi du: eskari efektiboak oreka-balio bakarra eduki beharrean balio-sorta infinitua duela, balio guztiak ere, era berean onargarriak direlarik; eta enpleguaren kopurua zehaztugabea dela ere bai, lanaren baliagarritasun marjinal ezak goiko muga ezartzen dionean izan ezik.

Hau egia balitz, enpresarioen arteko lehiak beti eragingo luke enpleguaren hazkundera, outputaren eskaintza erabat harturik malgua izateari uzten dion puntura iritsi arte, hau da, eskari efektiboaren hazkunde berriak outputaren hazkundera eragingo ez lukeen puntura iritsi arte. Argi dagoenez, egoera hori enplegu betearen parekoa da. Aurreko kapituluan, enplegu beteaz jardutean, langileek duten jarreraren arabera definizioa eman dugu. Oraingo honetan bigarren irizpidera iritsi gara, aurrekoaren baliokidea bada ere; alegia, enplegu bete, batez ere, eskari efektiboaren hazkundeari dagokion outputaren aurrean enplegu osoa malgua ez denean lortzen dela. Horregatik, Sayren legeak (hots, edozein output-mailarentzat, bere erabateko outputaren eskari osoaren prezioa eta bere eskaintza osoaren prezioa berdinak direla dioenak), badu bere baliokidea ondoko baieztapenean, alegia, enplegu bete lortzeko oztoporik ez dagoela. Aitzitik, eskari osoaren funtzioa eta eskaintza osoaren funtzioa lotzen dituen egiazko legea hori ez bada, teoria ekonomikoari buruz berebiziko garrantzia duen kapitulua idaztear dago, eta hori gabe enplegu osoaren bolumenari buruzko eztabaidek ez dute zentzurik.

II

Irakurlearentzat, agian, lagungarria izan daiteke hurrengo kapituluetan landuko dugun enpleguaren teoriari buruzko laburpen txiki bat ematea, baina baliteke guztiz ulergarria ez izatea. Bertan erabiliko

diren terminoak, geroago, kontu handiagoz definituko dira. Laburpen honetan enplegatutako lan-unitate bakoitzeko alokairu nominala eta beste faktoreen kostuak konstanteak direla kontsideratuko dugu. Baina sinplifikazio hau azalpena errazteko baino ez dugu erabiliko, eta beraz, gero alde batera utziko dugu. Argudioaren funtsezko izaera ez da ezertan aldatzen diruzko alokairuak eta beste faktoreen kostuak aldatu ala ez.

Gure teoriaren nondik norako nagusiak honela adieraz daitezke: enplegua handiagotzen denean benetako sarrera osoa ere handiagotu egiten da. Komunitatearen psikologiaren arabera, benetako sarrera osoa handiagotzen denean kontsumo osoa ere handiagotu egiten da, baina ez sarrerarenaren tamainan. Hortaz, enpresarioek galerak edukiko lituzkete enpleguaren gehikuntza osoa berehala kontsumitzeko ondasunak ekoizteko erabiliko balitz. Beraz, jakineko edozein enplegu-kopuru gerta dadin, behar adinako inbertsio-kopuruak egon behar du komunitateak enplegua maila horretan dagoenean aukeratzen duen kontsumo-bolumenaren gaineko gehiegizko outputa irensteko. Izan ere, inbertsio-kopuru hori ez badago, enpresarioen sarrerak enplegu-bolumen horren eskaintza egiteko beharrezkoa den kopuruaren azpitik egongo dira. Aurrerantzean komunitatearen kontsumitzeko joera deituko duguna jakinekoa bada, enpleguaren oreka-maila (hau da, enpresarioek, oro har, enplegua handiagotzera nahiz txikiagotzera bultzatzen ez dituen maila) ohizko inbertsioaren menpe egongo dela ondorioztatzen da. Ohizko inbertsioaren kantitatea, bestalde, aurrerantzean deituko dugun inbertitzeko pizgarriaren menpe egongo da; eta inbertitzeko pizgarri hau, gerora ikusiko denez, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbaren eta epe eta arrisku desberdinetako maileguentzako interes-tasen arteko erlazioaren menpe egongo da.

Beraz, kontsumitzeko joera eta inbertsio berrirako tasa emanik, orekarekin bat datorren enplegu-maila bakarra egongo da, zeren eta beste edozein mailak outputaren oro har eskaintza osoaren prezioaren eta bere eskari osoaren prezioaren arteko desberdintasuna sorrazaziko bailuke. Maila honek ezin du enplegu beteak baino *handiagoa* izan, hau da, alokairu erreala ezin du lanaren baliagarritasun marjinala eza baino txikiagoa izan. Baina normalean, enplegu betearen *berdina* izatea espero izateko arrazoirik ez dago. Eskari efektiboak enplegu betearekin duen lotura kasu berezia da, eta kontsumitzeko joera eta inber-

titzeko pizgarria elkarrekiko erlazio berezian daudenean izaten da. Erlazio berezi hau, teoria klasikoaren hipotesiei dagokiena, neurri batean erlazio optimoa da. Baina, halaberharrez edo patuaz, ohizko inbertsioak hornitzen duen eskariaren kantitatea eta enplegu betetik sortzen den outputaren soberakinaren eskaintza osoaren prezioa guztiz berdinak badira besterik ezin da gertatu, eta horren gainean erabakiko du komunitateak kontsumoan gastatuko duen kantitatea (enplegu betearen egoera horretan dagoenean).

Teoria hau ondoko proposizioetan laburbil daiteke:

(1) Teknika, baliabide eta kostuen egoera jakin batean, sarrera (bai diruzko sarrera, bai sarrera erreala) N enplegu-bolumenaren menpe dago.

(2) Komunitatearen sarreraren eta kontsumoan gastatzea espero duenaren arteko erlazioa, D_1 deitua, komunitatearen ezaugarri psikologikoen menpe dago, eta horri *kontsumitzeko joera* deituko diogu. Hau da, kontsumoa sarrera osoaren mailaren menpe egongo da, eta beraz, N enplegu-mailaren menpe, kontsumitzeko joeran aldaketa bat edo beste dagoenean izan ezik.

(3) Enpresarioek enplegatzea erabakitzen duten N lan-bolumena bi kantitatearen arteko baturaren (D) menpe dago, hau da, komunitateak kontsumoan gastatu nahi duen D_1 kantitatearen, eta inbertsio berrian erabiltzea espero duen D_2 kantitatearen menpe. D , arestian *eskari efektiboa* deitu duguna da.

(4) $D_1 + D_2 = D = (N)$ denez gero, eskaintza osoaren funtzioa izanik, eta, aurreko (2) puntuan ikusi dugun moduan D_1 N -ren funtzioa denez (N) idaz dezakegu) kontsumitzeko joeraren menpekoa hain zuzen, honakoa ondorioztatzen da: $(N) - (N) = D_2$

(5) Beraz, enplegu-bolumena, orekan dagoenean, ondokoen menpekoa da: a) eskaintza osoaren funtzioarena, ; b) kontsumitzeko joera, ; eta c) inbertsioaren bolumenarena, D_2 . Hau da Enpleguaren Teoria Orokorren funtsa.

(6) N -ren balio ororentzat, lanaren produktibitate marjinalak bere baliokidea du langileentzako kontsumo-ondasunen industrietan, eta hau da alokairu erreala finkatzen duena. (5), beraz, baldintza baten menpe dago; alegia, N -k ezin du alokairu erreala lanaren baliagarritasun marjinal ezarekin berdintzen duen balioa baino *handiagoa* izan.

Honek ondoko hau esan nahi du: D -n gertatzen diren aldaketa guztiek ez dute zertan bat etorri alokairu nominalak konstanteak direla dioen gure behin-behineko suposizioarekin. Beraz, suposamendu hau alde batera uztea funtsezkoa da gure teoria osorik adieraziko badugu.

(7) Teoria klasikoan, non $D = (N)$ N -ren balio guztientzat betetzen den, enplegu-bolumena oreka neutroan dago N -ren balio maximotik behera dauden balio guztientzat; beraz, enpresarioen arteko lehiarako indarrek N balio maximo horretara bultzatzea espero daiteke. Teoria klasikoarentzat puntu honetan besterik ez daiteke oreka egonkorra egon.

(8) *Enplegua handiagotzen denean, D_1 handiagotze gingo da, baina ez D bezainbeste;* izan ere, gure sarrera handiagotzen denean gure kontsumoa ere handiagotu egiten da, baina ez neurri berean. Gure arazo praktikoaren giltzarria lege psikologiko honetan bilatu behar da, zeren eta hortik ondorioztatzen baita enplegu-bolumena zenbat eta handiago izan dagokion outputaren eskaintza osoaren prezioaren (Z) eta enpresarioek kontsumatzaileen gastutik lortzea espero duten zenbatekoaren (D_1) arteko diferentzia hainbat eta handiagoa izango dela. Hortaz, kontsumitzeko joeran aldaketarik ez badago, enpleguak ezin du gora egin, Z eta D_1 -en artean gero eta handiago den tarte bat betetzeko D_2 ere aldi berean eta beharbesteko neurrian hazten ez bada behintzat. Beraz (teoria klasikoaren hipotesiak alde batera uzten baldin badira, hau da, enplegua handiagotzen denean Z eta D_1 -en arteko aldea estaltzeko D_2 handiagoa izatera behartzen duen indar berezia agertzen dela dioena), sistema ekonomikoa oreka egonkorrean egon daiteke enplegu betea baino txikiagoa den N enplegu-bolumenarekin, eta bereziki, eskari osoaren kurbaren eta eskaintza osoaren kurbaren arteko ebaki-puntuaren mailari dagokionarekin.

Beraz, lanaren baliagarritasun marjinal ezak, alokairu errealetan neurturikoak, ez du enpleguaren bolumena finkatzen, eskulan erabilgarriaren eskaintzak, alokairu erreal jakin batean, enplegu-maila *maximoa* ezartzen duenean izan ezik. Kontsumitzeko joerak eta inbertsio berriaren tasak, bien artean, enplegu-bolumena finkatzen dute, eta enplegu-bolumena alokairu errealean maila bakar batekin lotuta dago - eta ez alderantziz. Kontsumitzeko joerak eta inbertsio berriaren tasak eskari efektibo urria eragiten badute, gaur egungo enplegu-bolumena

murritzitu egingo da, oraingo alokairu erreal erabilgarria eskulanaren eskaintza potentzialaren azpitik jarri arte, eta orekako alokairu erreala enplegu-bolumenaren orekako baliagarritasun marjinal eza baino *handiagoa* izango da.

Analisi honek oparotasuneko txirotasunaren paradoxa azaltzen digu. Eskari efektibo urria egote hutsak enpleguaren gehikuntza enplegu betearen mailara iritsi baino *lehen* geldiaraz dezake, eta sarritan hala egingo du. Eskari efektiboaren urritasunak ekoizpen-prozesua geldiarazi egingo du, nahiz eta, oraindik ere, enpleguaren baliagarritasun marjinal ezaren balioa eskulanaren produktu marjinala baino txikiagoa izan.

Are gehiago, komunitatea zenbat eta aberatsagoa izan, hainbat eta zabalagoa izateko joera egongo da bere ekoizpen errealdaren eta bere potentzialaren arteko aldea; eta horrela, gero eta argiago eta izugarriagoak izango dira sistema ekonomikoaren akatsak, zeren eta komunitate txiroak bere outputaren zati handiena kontsumitzeko joera edukiko baitu, eta beraz, inbertsioaren oso kantitate txikia nahikoa izango da enplegu bete erdiesteko; komunitate aberatsa, aitzitik, askoz ere inbertsio-aukera zabalagoak aurkitzera behartuta dago, herriko bizilagun aberatsenen aurrezkirako joera txiroenen enpleguarekin bateragarria izan dadin. Aberatsa izan daitekeen komunitatean inbertitzeko pizgarria ahula bada, aberastasun potentziala izanagatik ere, eskari efektiboaren printzipioak bere output erreala murritzera behartuko du aberastasun potentziala izanagatik, komunitatea nahiko txiroa izan arte, hau da, bere kontsumoarekiko gehiegizko ekoizpena inbertitzeko pizgarriaren ahultasunari dagokiona izateraino jaitsiko da.

Are okerrago. Komunitate aberatsean kontsumitzeko joera marjinala²¹ ahulagoa izateaz gain, bere kapital metaketa handiagoa denez, beste inbertsio batzuetarako aukerak ez dira hain erakargarriak izango, interes-tasa nahiko azkar jaisten ez bada; horrek interes-tasaren teoriara eta maila egokira berez ez jaisteko arrazoietara eramaten gaitu; hain zuzen ere, IV. Liburuan ikusiko ditugunetara.

Hortaz, kontsumitzeko joeraren analisia, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren definizioa eta interes-tasaren teoria dira gure gaurko jakintzan bete beharreko hiru hutsune nagusiak. Hori konponduz gero, prezioen teoria bere toki egokian dagoela ikusiko dugu, gure

Teoria Orokorraren gai lagungarri gisa. Hala ere, egiaztatu egingo dugu monetak funtsezko zeregina duela gure interes-tasaren teorian; eta moneta beste gauzetatik bereizten duten ezaugarri bereziak argitaratu ekartzen saiatuko gara.

III

Mende bat baino gehiagoz irakatsitako guztiaren oinarria den Ricardoren ekonomian, eskari osoaren funtzioa arazorik gabe alde batera utz dezakegula dioen ideia funtsezkoa da. Egia esan, Malthus gogor altxatu zen eskari efektiboa urriegia ezin izan daitekeela dioen tesi ricardotarraren aurka, baina arrakastarik ez zuen izan. Malthus-ek ezin izan zuen argi eta garbi azaldu (edozeinek ikus zitzakeen gertaeraz dei egiteaz kanpo) nola eta zergatik izan zitekeen eskari efektiboa handiegia ala urriegia, eta ez zuen eraikuntza teoriko alternatiborik erakustea lortu; eta Ricardok Ingalaterra Inkisizio Santuak Espainia bezalaxe konkistatu zuen. Teoria hau onartu zuten bakarrak ez ziren City-a, estatu-politikariak eta mundu akademikoa izan, baina eztabaia da gelditu egin zen, beste ikuspuntua guztiz desagertu egin zen eta ez zen inor gehiago auzitan aritu. Malthus-ek aurre egin zion eskari efektiboaren buruhauste handia literatura ekonomikotik ezabatu egin zen. Marshall, Edgeworth eta Pigou irakaslearen lan guztietan ez da horri buruzko aipamenik ere egiten, teoria klasikoa ongien gorpuztu dutenak izan arren. Era erdi ezkutuan, lurrazpian, bizi izan zen Karl Marx, Silvio Gesell edo Major Douglas-en azpimunduetan.

Garaipen ricardotar erabakigarri honek nolabaiteko misterioa eta jakinmina sorrarazten du. Hau ulertzeko, bere doktrinaren eta hau igorri zeneko esparruaren arteko elkarrulertze ezin hobia egotea beste azalpenik ez dago. Berak erdietsitako ondorioak kaleko pertsona ezjakin arruntak espero zuenarekiko nahikoa bestelakoak zirenez, dirudienez bere ospe intelektuala areagotu egin zuen. Praktikan erabiltako bere irakaskuntza latza eta, sarritan, desatsegina izateak bertutea eman zion. Gainegitura logiko, zabal eta koherenteari eusteko egozia izateak edertu egin zuen. Gizarteko injustizia asko eta ageriko kudelkeriak aurrerakuntza ekonomikoaren nahitaezko gertaera gisa aur-

kezteak, eta egoera hori aldatzeko saioak, oro har, gauza onak baino txarrak sorrarazteko aukera gehiago zituela esateak agintaritzaren alde jarri zuen. Eta, azkenik, kapitalismo indibidualaren zenbait jarduera libre nolabait zurituz, agintaritzaren atzean zegoen gizarteko indar nagusiaren babesa bereganatu zuen.

Baina nahiz eta ekonomialari ortodoxoek duela gutxi arte doktrina bera sekula zalantzan jarri ez, aurreikuspen zientifikoak egiteko gaitasun falta nabarmenak bere jarraitzaileen ospea erabat murriztarazi du. Izan ere, Malthus-en ondoren, ekonomialari profesionalak beren teoriaren emaitza eta gertaeren arteko desadostasunaren aurrean dirudienek erantzunik ez zuen eman. Aitzitik, jende arrunta desadostasun horretaz ohartu egin da, eta horrek azaltzen du ekonomialariekiko begirunea gero eta txikiagoa izatea. Izan ere, beste talde zientifikoe-kin gertatu ohi denez, ondorio teorikoak errealitateko egiteei aplikatzen zaizkien bakoitzean esperientziak ondorio teoriko horiek egiazta-
tu egiten ditu.

Teoria ekonomiko tradizionalaren *baikortasun* ospetsuari dagokionez (hain zuzen ere, ekonomialariak Kandido bailiran hartze-
ra eramán dituená, mundu hau beren jardínak zaintzeko utzi ondoren, dena era onenean, mundu ezín hobean, suertatzen dela irakasten bai-
tute, baina mundua bere horretan, askatasunean funtzionatzen utzi
behar dela esanez), baikortasun horren jatorria, nire ustez, ezjakinta-
sun batean bilatu beharra dago; hain zuen ere, eskari efektiboaren
urritasunak oparotasunari jar diezaiokeen oztopoa ez ezagutzean. Izan
ere, postulatu klasikoen arabera funtzionatuko lukeen gizartean bali-
bide produktiboak era optimoan erabiltzeko joera naturala egongo
bailitzateke, jakina. Beharbada teoria klasikoak deskribatzen duena
guk geure ekonomia jokatzeari nahiko genukeen modua da. Baina erre-
alitatean horrela jokatzeko duela suposatzea, gure zailtasun guztiak
konpondu direla suposatzea besterik ez da.

II LIBURUA

DEFINIZIOAK ETA IDEIAK

IV. KAPITULUA

Unitateen aukeraketa

I

Kapitulu honetan eta hurrengo hiruetan gure ikerketaren helburu diren arazoekin zerikusi berezia edo bakarra ez duten zalantza batzuk argitzen saiatuko gara. Beraz, kapitulu hauek digresioaren itxura izango dute eta pixka batean ezingo diogu gure gai nagusiaren azterketari heldu. Gai hauek hemen jorratzeko arrazoia beste inon landu ez izana da, ez behintzat, ene ustez, nire ikerketa partikular bereziaren premiek eskatzen duten moduan.

Liburu hau idaztean hiru oztopo nagusi aurkitu nituen, eta hauei ebazpide aproposa aurkitu arte ez nintzen behar bezala aditzera emateko gai izan: lehena, ekonomi sistemak oro har planteatzen dituen arazoetara egokitu beharreko unitate koantitaboen aukeraketa zen; bigarrena, aurreikuspenak ekonomi analisisan jotatzen duen papera; eta hirugarrena, sarreraren definizioa.

II

Ekonomialariek unitateak erabili ohi dituzten era ez da batere egokia, eta horren adibide ditugu, besteak beste, Dibidendu Nazionalea, benetako kapitalaren stocka eta prezio-maila orokorra:

1) Dibidendu Nazionalak, Marshall-ek eta Pigou²² irakasleak definitutako eran, ohizko ekoizpenaren bolumena edo sarrera erreala neurtzen du eta ez ekoizpen horren balioa edo sarrera nominala.²³ Are gehiago, hein batean, ekoizpen *netoaren* menpe dago; hau da, kapital-stock gisa kontsumitu edo gordetzeko den komunitatearen baliabide erabilgarrien batura netoaren menpe, kapital-stock hori oraingo denboraldiaren sakrifizio eta jarduera ekonomikoen ondoriozkoa izanik (denboraldiaren hasieran zegoen benetako kapital-stockak jasandako higadura kontuan hartu eta gero). Oinarri honen gainean zientzia koantitatibo bat ezarri nahi izan da. Baina horrela erabilita, definizio horrek eragozpen larria du, hau da, komunitate baten ondasun eta zerbitzuen ekoizpena neurtezina den multzo ez-homogeneoa da, zehatz hitz eginda, kasu berezi batzuetan izan ezik, esaterako, ekoizpen bateko unitate guztiak beste ekoizpen batean proportzio berdinetan sartzen direnean.

2) Zailtasuna are eta handiagoa da ekoizpen netoa kalkulatzeko, kapital-ekipamenduaren batuketa netoa neurtzen saiatzen garenean; zeren eta konparaketa koantitatiboa egiten dugunean, oinarriren bat aurkitu behar baitugu denboraldian zehar produzitutako ekipamenduaren unitate berrien eta higadurak suntsitu dituen unitate zaharren artean. Dibidendu Nazional netora iritsi nahian, Pigou Irakasleak²⁴ higadura eta abarreatatik, ahultze-tasaren kenkaria hartzen du, horrela «normalizat hartu ahal izateko; eta bere normaltasunaren irizpide praktikoak nahiko erregularra izan behar du ahultzea aurreikus dadin (zehatz-mehatz ez bada, zentzu orokorrean bai behintzat.» Baina kenkari hori moneta-unitateetan egiten ez denez, kantitate fisikoetan aldatarik egon daitekeela suposatu behar da, aldaketa fisikorik gertatu ez bada ere, hau da, inplizituki, *balioaren* aldaketak sartzen ditu. Bestalde, ekipamendu berria zaharrarekiko neurtu ahal izateko formula²⁵ egokia aurkitzeko ez da gai, teknikaren aldaketak direla eta, biak berdinak ez direnean. Nire ustez Pigou irakasleak azpimarratzen duen konzeptua ekonomi analisia egiteko kontzeptu zuzena eta aproposa da. Baina unitate-sistema eroso hartzen ez den artean, bere definizio zehatza ezinezko eginkizuna izango da. Bi ekoizpen errealekin konparatzea, ekipamendu zaharren higadura ekipamendu-unitate berriekin konpentsatuz, eta gero ekoizpen netoa kalkulatzek, ebazpiderik ez duten igarkizunak sorrarazten dituela ziur esan liteke.

3) Hirugarrenik, denon iritziz prezio-maila orokorrak duen zehazgabetasun-elementu ezaguna baina ezinbestekoa dela eta, termino honen erabilera oso deserosoa izaten da analisi kausala egiteko, horrek zehatza izan behar baitu.

Hala ere, zailtasun hauek igarkizunak bailiran hartzen direla esateak badu bere arrazoia. Zailtasun horiek «gutziz teorikoak» izanik, ez dituzte inoiz negozio-arduradunak kezkatzen, edo ez dute sekula enpresaren erabakietan parte hartzen, eta beraz, ez dute garrantzirik ekonomi gertaeren sekuentzian, berauek gardenak baitira, kontzeptu hauen zehazgabetasun koantitatiboa tartean egon arren. Beraz, ondorio gisa, zehaztasunik ez izateaz gain, beharrezkoak ere ez direla esan daiteke. Argi dagoenez, gure analisi koantitatiboa ez da inola ere adierazi behar adierazpen koantitatibo zehazgabea erabiliz. Eta benetan, adierazpen horiek baztertzen saiatzen garen heinean egoera hobean egongo gara. Horixe frogatu nahiko nuke.

Neurtezinak diren objektu desberdinetako bi multzok analisi koantitatiboa egiteko materiala ezin eskaini izanak ez du, jakina, gutxi gorabeherako konparazio estatistikoak sortzeko oztopo izan behar, nahiz eta horiek iritzi zabaleko elementuetan oinarritu, eta ez esanguratsuak izan zitezkeen muga batzuen barruko kalkulu zorrotzetan. Baina ekoizpen erreal netoa edo prezioen maila orokorraren tankerako kontzeptuen berezko lekua, deskribapen estatistikotiko eta historikoaren barruan geratzen dira, eta bere helburuak jakinmin historiko edo soziala asetzea izan beharko luke; helburu hori dela eta, zehaztasun perfektua ez da ohizkoa, ez eta beharrezkoa ere, gure analisi kausalak ezinbestean eskatzen duen bezala, kantitate esanguratsuen benetako balioez dakiguna guztiz zehatza edo osoa izan arren ala ez izan arren. Gaur egungo ekoizpen netoa orain dela hamar urte edo urtebete baino handiagoa eta prezio-maila txikiagoa dela esatea eta Victoria Erregina Elizabeth Erregina baino erregina hobea baina zorigaitzokoagoa zela aipatzea antzeko baieztapenak dira. Azken proposizio honek interesa eta zentzua sobera ditu, baina erabilgaitza da kalkulu diferentzialean. Gure zehaztasuna barregarria litzateke kontzeptu ez-koantitatiboak eta zehaztasun gabekoak analisi koantitatiboaren oinarri gisa erabiliko bagenitu.

III

Edozein egoera partikularretan, gogora bedi, enpresarioek erabaki behar dute beren kapital-ekipamendua lanean zein eskalatan ipiniko duten; eta eskariaren gehikuntzarekiko, hau da, eskari osoaren funtzioaren handitzearekiko aurreikuspenak ekoizpen osoaren gehikuntza eragingo duela esaten dugunean, kapital-ekipamenduaren jabe diren enpresak kapital horri eskulan gehiago eranstera bultzatuko direla esan nahi dugu. Salgai homogeneoa ekoizten duen enpresa edo industria indibidual batean, zilegi zaigu, nahi izanez gero, ekoizpenaren handiagotze eta txikiagotzeei buruz hitz egitea. Baina enpresa guztien jarduerak batzen ditugunean ezin dugu zehatz hitz egin, ekipamendu jakin bati aplikatzen zaion eskulan-kopuruari buruz ari garenean izan ezik. Hortaz, ekoizpen osoaren eta prezio-mailaren kontzeptuak ez dira beharrezkoak testuinguru honetan, ez baita ohizko ekoizpen osoaren neurri absoluturik behar (hots, gure ekoizpenaren zenbatekoa eta beste enplegu-bolumen bati beste ekipamendu bat aplikatuz lortuko genukeena elkarrekin konparatu nahiz izanez gero beharrezkoa izango litzatekeenaren tankerakoa ez da behar). Deskribatzeko edo oro har konparatzeko, ekoizpenaren gehikuntzari buruz hitz egin nahi dugunean, suposamendu orokorra erabili behar dugu, hau da, kapital-ekipamendu jakin batek berekin duen enplegu-bolumena lortzen den ekoizpen-zenbatekoaren indize aproposa dela —bi faktoreok (ekipamendua eta berekin duen enplegu-bolumena zenbakizko proportzio zehatzean ez bada ere batera igo edo jaitsiko direla suposatuz.

Enpleguaren teoria orokorraz aritzean, hala ere, *kantitatearen* funtsezko bi unitate besterik ez erabiltzea proposatzen dut: monetalioiko kantitateak eta enplegu-kantitateak. Lehenak guztiz homogeneoak dira, eta bigarrenak ere homogeneo bihur daitezke. Lan eta enplegu alokatuak maila eta mota desberdinetan gutxi gorabeherako ordainketa erlatibo finkoa jasotzen duten neurrian, gure helburuarentzat nahikoa erraz defini daiteke enplegu-kantitatea, enplegu-unitate gisa eskulan arruntaren enpleguaren ordu betea hartuz eta bere ordainketarekiko ordu beteko eskulan espezializatuaren enplegua proportzionalki haztatuz, hau da, tarifa arruntaren bikoitza ordaintzen den espezialistaren ordu beteko lana bi unitate gisa zenbatuz. Enplegu-kantitatea neurtu den unitateari lan-unitatea deituko diogu;

eta lan-unitate baten alokairu nominalari alokairu-unitatea deituko dugu²⁶. Beraz, baldin E alokairuen (eta soldaten) batura bada, W alokairu-unitatea, eta N enplegu-kantitatea, honakoa dugu: $E = N \cdot W$.

Lanaren eskaintzarekiko homogeneousunaren hipotesi hau ez da aldatzen langile indibidualek trebetasun espezializatueta eta lan-postu desberdinetarako duten egokitasunean dauden desberdintasun handiak direla eta. Eskulanari ordaindutakoa bere produktibitatearekiko proportzionala bada, desberdintasunak desagertu egiten dira, gizabanakoek jasotako ordainketen arabera proportzionalki laguntzen baitute eskulanaren eskaintza agerrarazten; eta, produkzioa handiagotu ahala, bere helburu bereziak lortzeko, enpresa jakin batek alokairu-unitateko gero eta eraginkortasun gutxiagoko eskulana enplegatu beharrean egongo da, eta, besteak beste, arrazoi bat izango da ekipamenduaren errendimendu koantitatiboa jaisteko gero eta lan-kantitate handiagoa aplikatzen zaionean. Kapital-ekipamenduari egotzi egiten diogu, nolabait, kantitate berdinez ordaintzen diren lan-unitateen heterogeneotasuna, ekoizpena handiagotzen den heinean lan-unitate erabilgarriak enplegatzeko gero eta desaproposagoa dela kontsideratuz (lan-unitate erabilgarriak ekipamendu homogeneousoa erabiltzeko gero eta gaitasun txikiagoa dutela kontsideratu beharrean). Beraz, eskulan espezializatu edo koalifikatuaren soberakinik ez badago eta hain egozia ez den eskulanak ekoizpen-unitate bakoitzeko lan-kostua igoarazten badu, honakoa esan nahi du: ekoizpena handiagotu ahala ekipamenduaren errendimendua azkarrago jaisten dela, soberakinarekin gertatuko zatekeena baino.²⁷ Muturreko kasua ere bideragarria da, beren espezializazio handia dela eta lan-unitate desberdinek elkar ordezkatu ezin dutenean; horrek du, besterik gabe, kapital-ekipamendua berezi batetik eratortzen den ekoizpenaren eskaintza-malgutasuna zeroraino bat-batean jaisten dela esan nahi, ekipamendu mota horretan, jadanik, eskulan erabilgarri espezializatu guztia enplegatu denean.²⁸ Beraz, lan-unitate homogeneousoaren suposamenduak ez du aparteko zailtasunik eragiten, lan-unitate desberdinetako ordainketa erlatiboan desegonkortasun handia ez badago behintzat; eta zailtasun hau ere, agertuko balitz, gaindi daiteke lan-eskaintzan eta eskaintza osoaren funtzioan aldaketak azkar gerta daitezkeela suposatzen bada.

Sistema ekonomikoaz, oro har, aritzen garenean, nire ustez beharrezko ez den nahasmendu asko albora daitezke bi unitateok,

moneta eta enplegua, besterik erabiltzen ez baditugu eta ekoizpen eta ekipamendu berezien unitateen erabilpena banan-banako enpresa edo industria isolatuen ekoizpena aztertzen dugunerako uzten badugu; kontzeptu zehaztugabeak erabiltzea, hala nola ekoizpen osoaren kantitatea, kapital-ekipamendu osoa eta prezio-maila orokorra, konparazio historikoak egiten ditugunerako utzi beharko litzateke, konparazio horiek, muga batzuen barruan (agian nahikoa muga zabalen barruan) bada ere, zehaztasunik gabe eta hurbilketaz egiten baitira.

Beraz, honakoa ondoriozta daiteke ohiko ekoizpenaren aldaketak neurtu egingo direla dagoen ekipamenduan erabiltzeko ordaintzen diren (dela kontsumatzaileak asetzeko, dela kapital-ekipamendu berria ekoizteko) lanorduen arabera, lanordu koalifikatuak ordainsarien arabera proportzionalki haztatzen direlarik. Ez dugu konparazio koantitatiboak egin beharrik ekoizpen honen eta langile-multzo desberdinari egotzitako kapital-ekipamendu desberdinetik lortuko litzatekeen ekoizpenaren artean. Ekipamendu jakin bat duten enpresarioek eskari osoaren funtzioaren desplazamenduarekiko nola erantzungo duten aurrez esateko ez dago sortutako ekoizpenaren kantitateak, bizi-mailak eta prezio-maila orokorrak beste garai batekoekin edo beste herrialde batekoekin duten zerikusia jakin beharrik.

IV

Erraz frogatu daiteke eskaintzaren kurbak adierazi ohi dituen eskaintzaren baldintzak, eta ekoizpena eta prezioak harremanetan ipintzen dituen eskaintzaren malgutasuna, eskaintza osoaren funtzioaren bidez maneia daitezkeela arestian aukeratutako bi unitateen arabera, ekoizpenaren kantitatei begiratu gabe, enpresa edo industria bakar batekin aritu nahiz ekonomi jarduera osorik kontsideratu. Enpresa baten eskaintza osoaren funtzioa (eta, era berean, industria batena edo industriarena oro har) honela idazten da:

$$Z_r = \quad_r(N_r)$$

Z_r errendimendua edota «emaitza» (erabil-kostuaz garbi) izanik, eta bere lorpenarekiko aurreikuspenak N_r enplegu-maila emango

duela. Beraz, baldin eta enplegu eta ekoizpenaren arteko π_r erlazioa dela eta, N_r enplegu-mailak O_r ekoizpena ematen badu, edota, bestela esan, $O_r = \pi_r(N_r)$ baldin bada,

$$p = \frac{Z_r + U_r(N_r)}{O_r} = \frac{\pi_r(N_r) + U_r(N_r)}{\pi_r(N_r)}$$

eskaintzaren ohizko kurba izango da, non $U_r(N_r)$, N_r enplegu-mailari dagokion erabil-kostua (aurreikusia) den.

Beraz, $O_r = \pi_r(N_r)$ balio zehatza duen edozein produktu homogeneorentzat, $Z_r = \pi_r(N_r)$ delakoa ohizko moduan azter dezakegu; baina orduan N_r kantitateak batu daitezkeen modua ezin da O_r kantitateak batzeko erabili, zeren eta O_r ez da zenbakizko kantitatea. Are gehiago, baldin eta ingurune zehatz batean enplegu jakin bat industria desberdinen artean modu posible bakar batean banatuta egongo dela suposa badezakegu (horrela N_r N -ren funtzio bihurtuz), gehiago sinplifikatu ahal izango da.

V. KAPITULUA

Aurreikuspena, outputaren eta enpleguaren finkatzaile gisa

I

Ekoizpen ororen azken helburua kontsumitzailea asetzea da. Normalean, ekoizleak kostuak bere gain hartzen dituenetik (kontsumitzaileari begira) azken kontsumitzaileak outputa erosi bitartean denboraldia egoten da -tarte luzea, sarritan-. Bien bitartean, enpresarioak (halakotzat jotzen dugu, bai ekoizlea eta bai inbertsorea) ahalik eta aurreikuspen²⁹ hoberenak egin behar ditu, luzea izan daitezkeen denboraldi horren ondoren, kontsumitzaileak zuzenean edo zeharka hornitzen dituenek hauek ordaindu behar dutena zehazteko; eta bere produktuen ekoizpen-prozesuak denbora behar badu, aurreikuspen horiei jarraitzea beste aukerarik ez du.

Negozioei buruzko erabakiak, bi taldetan bana daitezkeen aurreikuspen hauen menpe egoten dira. Negozioetan dabilzan norbako edo enpresa batzuk lehen aurreikuspen-mota lantzen espezializatuturik daude, eta beste batzuek bigarren mota lantzen dute. Lehen mota, ekoizleak produktu hori lortuko duen prozesua hasteko garaian bere output «bukatuaren» bidez eskura dezakeen prezioari dagokio; outputa «bukatutzat» hartzen da (ekoizlearen ikuspuntutik) hura erabiltzeko edo beste bati saltzeko prest dagoenean. Bigarren mota, aldiz, enpresarioak bere kapital-ekipamendua gehitzeko «bukatutako» outputak erosten (edota ekoizten) baditu etorkizuneko errendimenduen bidez irabaztea espero dezakeenari dagokio. Lehenengoei *epe lab urreko aurreikuspenak* deritzegu, eta bigarreniei, *epe luzeako aurreikuspenak*.

Beraz, bere eguneroko³⁰ outputari buruz erabakitzeko enpresa bakoitzaren jokabidea, *epe laburreko aurreikuspenen* arabera da —outputen kostuei buruzko hainbat eskala posibleko aurreikluspenen, eta output hauek izan ditzaketen salmenta-emaitzei buruzko aurreikuspenen arabera—; dena den, outputak kapital-ekipamenduaren gehigarria edota banatzaileentzako salmenta izan behar duenean, enpresarioaren epe laburreko aurreikuspen hauek, hein handi batean, beste batzuek egindako epe luzekoen (edo epe ertainekoen) menpe egongo dira. Hain zuzen, enpresek eskaintzen dituzten enplegu-bolumenak aurreikuspen hauen guztien arabera izango dira. *Benetan lortutako* outputaren emaitzak eta salmentak, ondorengo aurreikuspenak alda ditzaketen heinean baizik ez diote enpleguari eragingo. Bestalde, enplegua ez da egongo hasierako aurreikuspenen menpe ere, zeintzuek enpresa bultzatu baitzuten kapital-ekipamendua eta tarteko produktuen stockak eta erdibukatutako salgaiak bereganatzera, guztiak ere hurrengo eguneko outputa erabakitzeko orduan bere esku izango dituelarik. Beraz, tankera honetako erabaki bat hartzeko orduan, ekipamendu hori eta stock horiek izaten dira kontuan, baina *etorkizuneko* kostuei eta outputen salmentei buruzko *gaur egungo* aurreikuspenen argitan.

Dena den, oro har, aurreikuspenetan (epe laburrera edo epe luzera) gerta daitekeen *aldaketak*, epe handi samar baten ondoren baino ez luke enpleguan erabateko eraginik izango. Aurreikuspenen aldaketa horren ondorioz enpleguan izaten den aldaketa, ez da berdina izango aldaketaren osteko bigarren egunean eta lehenengoan, ezta hirugarren eguneko bigarrenengoaren berdina ere, eta abar, nahiz eta aurreikuspenetan beste aldaketarik gertatu ez. Aurreikuspenak epe laburrekoak direnean, normalean, aldaketak nahikoa bortitzak edo azkarrek ez izatearen ondoriozkoak dira, eta beraz, aldaketa horiek aldekoak ez izan arren, ez dituzte, berriz aztertutako aurreikuspenen argitara oker abiarazi zirela ikus daitezkeen ekoizpen-programa guztietako lanak geldiaraziko. Aldiz, aldaketak aldekoak direnean, nahitaezkoa da prestaketa-epe bat egotea, aurreikuspenen egoera lehenago aldatu izan balitz enpleguak edukiko zukeen maila berbera lortu ahal izateko. Epe luzeko aurreikuspenei dagokienez, ordezkatzan ez den ekipamenduak enplegua ematen jarraituko du, harik eta erabat agortu arte; eta, aldaketa aldekoa bada, enplegua handiagoa izan daiteke

hasieran, ekipamendua egoera berrira egokitzeke denbora izan duen ondorengo garaian baino.

Demagun aurreikuspenaren egoera zehatz batek behar besteko denbora irauten duela, eta enpleguan erabateko ondorioak sorrarazten dituela, oro har, egoera berria beti halakoa izan balitz egongo ez lirartekeen enpleguaren elementuak, egoera berrian ere egon ez daitezen; horrela lortutako enplegu-maila egonkorra, aurreikuspenen egoera honi dagokion epe luzeko enplegua izenda dezakegu. Aurreikuspenak³¹ maiz alda badaitezke ere, eta ondorioz, enpleguaren bolumen efektiboak aurreikuspenaren une horretako egoerari dagokion epe luzeko enplegu-mailara heltzeko sekula denborarik ez badu ere, aurreikuspenaren egoera orori epe luzeko enplegu-maila zehatz bat dagokio.

Azter ditzagun, lehenik eta behin, aurreikuspenaren aldaketa baten ondorioz epe luzeko egoerara bideratzen duten prozesuak, bien bitartean aurreikuspenen bestelako aldaketaren ondoriozko etenik edo nahasmenik gertatzen ez delarik. Pentsa dezagun lehenengo, aldaketaren izaera dela eta, epe luzeko enplegu-maila berria zaharra baino handiagoa dela. Oro har, hasieran eragin nabarmena jasango duen bakarra inputa izango da, hau da, ekoizpen-prozesu berriaren hasierako etapetako lan-bolumena. Bitartean, kontsumo-ondasunen outputak eta aldaketa baino lehen abiarazitako programen azken etapetako enplegu-bolumenak, lehen bezalakoak izaten segituko dute. Erdilandutako produktuen stockik balego, horrek agian ondorio hau aldaraziko luke, baina, hala ere, ziur aski hasierako enplegu-gehikuntzak txikia izaten jarraituko luke. Dena den, denborak aurrera egin ahala, enplegua gradualki igoko litzateke. Are gehiago, erraz pentsa ditzakegu egoera batera iritsita epe luzeko enplegu berria baino *gora* -go igoaraziko luketen baldintzak zeintzuk diren. Izan ere, aurreikuspenen egoera berriak eskatzen duen kapital-ekoizpenaren prozesuak enplegu gehiago eta kontsumo handiagoa sorraraz dezake, epe luzeko egoera lortuta eskuratuko litzatekeena baino. Beraz, aurreikuspenaren aldaketak enplegua gradualki gailurreraino igoaraz dezake, eta geroa, berriz ere, epe luzeko mailaraino jaitsarazi. Gauza bera gerta daiteke epe luzeko maila berria zaharraren *berdina* izanik ere, baldin eta aldaketak eskariaren norabide bereberean aldaketa eragin, eta ondorioz, egungo hainbat prozesu eta horiei dagozkien ekipamenduak

baliogabeko bihurtzen baditu. Halaber, epe luzeko enplegu berria zaharra baino maila baxuagokoa bada, aldaketa gertatu bitartean enpleguaren maila denboraldi batez epe luzeko maila berriak gerora lortuko lukeenaren *azpitik* jar liteke. Beraz, aurreikuspenen aldaketa huts batek izan ditzakeen ondorioen bidez, mugimendu ziklikoaren itxura bereko oszilazioa sorraraz dezake. Hain zuzen, tankera honetako mugimenduak aztertu nituen *Treatise on Money* liburuan, aldaketaren ondorioz kapital zirkulatzailerik eta likidoaren stockak izan dezakeen hazte edo agortzeari buruz.

Etenik gabeko trantsizio-prozesua, aurrekoaren antzera epe luzeko egoera berrirantz jotzen duena, xehetasunetan korapila daiteke. Baina benetako gertakizunak oraindik ere nahasiagoak dira. Aurreikuspenen egoera etengabeko aldaketen eraginpean dago; aldaketa zaharra erabat garatu baino lehen, aurreikuspen berria gainezarri egiten zaio. Horrela, makina ekonomikoak, une oro, bata bestearen gainean zamalkatutako hainbat ihardueratan dihardu lanean.

II

Honek guztiak, oraingo eztabaidak gure helburuarekin duen lotura erakusten digu. Lehenago esandakoak argi utzi du enplegu-maila ez dela beti aurreikuspenaren benetako egoeraren araberakoa bakarrik, baizik eta aurreko epe zehatz batean egon diren bestelako aurreikuspen-egoeren menpe dagoela ere bai. Dena den, oraindik ere erabateko eragina izan ez duten aurreko aurreikuspen guztiek egungo ekipamenduan sartuta daude, eta honakoa kontuan izan behar da: enpresarioak oraingo erabakiak hartu behar dituztenean aurreikuspen horiek ez dutela erabaki horietan ekipamenduan sartuta dauden heinean baizik eragiten. Beraz, esandakoa esanik ere, oraingo enplegua gaur egungo aurreikuspenek finkatzen dutela ondoriozta dezakegu, aurreikuspen horiek oraingo kapital-ekipamenduarekin batera hartuta.

Gutxitan utz dezakegu epe luzeko jadaneko aurreikuspenari buruzko aipamen berezia egiteke. Baina sarritan alboratu ahal izango dugu *epe labur*eko aurreikuspenari buruzkoa, zeren eta, praktikan, epe laburrekoen berrazterketa gradualki eta jarraian egin ohi baita, eta

hein handi batean, eskuratutako emaitzen argitan; hortaz, espero ziren eta eskuratu diren emaitzak, bat egin eta elkarri gainezartzen zaizkio beren jardunean. Egia da ekoizpena eta enplegua ekoizleen epe laburreko aurreikuspenek finkatzen dituztela, eta ez lehenagoko emaitzek, baina bestalde, normalean emaitza berrienak eragile nagusi izaten dira aurreikuspen horiek finkatzeko. Buruhauste handia izango litzateke ekoizpen-programa abiarazi behar den bakoitzean aurreikuspenak *de novo* egin beharra; bestalde, denbora alferrik galtzea litzateke, zeren eta normalean, egun batetik bestera baldintza gehienek beren horretan aldaketarik gabe irauten baitute. Honen arabera ekoizleek zentzuz jokaten dute beren aurreikuspenak egiteko, emaitza berrienek etorkizunean ere berdintsu jarraituko dutela kontsideratuz (beti ere aldaketa espero izateko arrazoi zehatzik ez dagoenean). Praktikan ordea, gainezarketa handia izaten da azken outputaren salmentaren emaitzak enpleguan dituen ondorioen eta jadaneko inputaren salmentatik espero den emaitzak izan ditzakeenen artean; eta ekoizleek beren aurreikuspenak gradualki aldatzen dituztenean, sarriagotan egiten dute eskuratutako emaitzen argitan, balizko aldaketei aurrea hartuta baino³².

Nolanahi ere, ezin ahanztz dezakegu ondasun iraunkorrak direnean ekoizleen epe laburreko aurreikuspenak inbertsorearen epe luzeko aurreikuspenetan oinarritzen direla; eta epe luzeko aurreikuspenen izaeragatik, ezin dira hauek eskuratutako emaitzen argitan berriz aztertu. Are gehiago, 12. kapituluan ikusiko dugunez, bertan epe luzeko aurreikuspenak xehekiago aztertu baitira, epe luzeko aurreikuspenak noiznahi berriz azter daitezke. Beraz, epe luzeko jadaneko aurreikuspenen faktorea ezin da inola ere kendu edo eskuratutako emaitzez ordezkatu.

VI KAPITULUA

Diru-sarrera, aurrezki eta inbertsioaren definizioa

I

Diru-sarrera

Edozein epealditan enpresario batek bukatutako produktuak salduko dizkie kontsumitzaile nahiz beste ekoizle batzuei, A izendatuko dugun diru-kopuruaren truke. Halaber, eta epealdi horretan, A_1 deitutako dugun diru-kopurua gastatuko du enpresario horrek, beste enpresario batzuei bukatutako outputa erosteagatik. Eta, bukaeran, G izeneko kapital-ekipamendua izango du, ekipamendu horretan barne, bai bukatu gabeko izakinak, edo kapital zirkulatzaila, eta bai bukatutako izakinak sartuko direlarik.

Dena den, $A + G - A_1$ balioaren zati bat ez dagokie ekitaldi horretako iharduerei, ekitaldiaren hasieran enpresarioak zuen kapital-ekipamenduari baizik. Beraz, oraingo ekitaldiko *sarrera* gisa ulertzen duguna ezagutzeko, $A + G - A_1$ balioari kopuru bat kendu behar diogu; hain zuzen, aurreko ekitaldiko ekipamenduak (neurri batean) ekoizten lagundu duen outputaren zatiari dagokion balioa. Sarreraren definizioaren arazoa konponduko bada, dedukzio hau kalkulatzeko, nahitaez, metodo egokia aurkitu beharko dugu.

Bi printzipio har ditzakegu hori kalkulatzeko, eta biek dute garrantzia: bata produkzioarekin du zerikusia, eta besteak kontsumoarekin. Banan-banan azter ditzagun.

1. Ekitaldiaren bukaeran, kapital-ekipamenduaren balio erreala, G , alderantzizko bi eragiketa-multzoren emaitza netoa da. Batetik, enpresarioak ekitaldian zehar bere ekipamendua mantendu eta hobetu egin du, bai beste enpresario batzuei egindako erosketen bidez eta bai berak egindako lanaren bidez; bestetik, ekipamendua outputaren ekoizpenean zehar higatu egin da edo balioa galdu du. Enpresarioak outputa ekoizteko ekipamendua *ez* erabiltzea erabaki arren, oraindik ere diru-kopuru optimoa izango du; hain zuzen, ekipamendu hori mantendu edo hobetzearen ordaina. Demagun, aldi berean, B' kopurua eman duela bere ekipamendua mantendu eta hobetzeko, eta gastu honen ondorioz epealdiaren bukaeran ekipamenduaren balioa G' dela. Hau da, $G' - B'$ izango da, gehienez, aurreko epealdiko ekipamendutik gorde ahal izango litzatekeen balio netoa, baldin eta A ondasunak ekoizteko erabili ez balitz. Ekipamenduaren balio potentzial honek $G - A_1$ erlazioaren gainera duen soberakina da, hain zuzen, A ondasunak ekoizteko (aldeztu edo moldeztu) erabili den kantitatea ematen diguna. Kantitate hori honela izendatuko dugu:

$$(G' - B') - (G - A_1)$$

eta honek, A ondasunak ekoizteko balioak jasan duena neur-tzen du, hau da, A -ren *erabil-kostua*. Hau U idatziko dugu.³³ Enpresarioak beste ekoizpen-faktore batzuei, beren zerbitzuen truke, ordaindutako kopuruari A -ren *faktore-kostua* deituko diogu, faktore horientzat kopuru hori beren sarrera delarik. Eta, F , faktore-kostua eta, U , erabil-kostuaren arteko batura, A , ekoizpenaren *lehenkostua*³⁴ izendatuko dugu.

Beraz, enpresarioaren *sarrera*³⁵, epealdian zehar bukatu eta sal-dutako produktuen balioaren eta lehenkostuaren arteko diferentzia gisa defini dezakegu. Horrela definituriko sarrera, bestela esan, ekoiz-pen-eskalaren arabera, enpresarioa gehien lortzen saiatzen den kanti-tatearen berdina da, hau da, irabazi gordinarena, ohizko esanahian ulertuta (zentzuzkoa da, noski). Ondorioz, gainerako komunitatearen sarrera eta enpresarioaren faktore-kostua berdinak direnez, sarrera osoa eta $A - U$ erlazioa berdinak izango dira.

Horrela definituriko sarrera, inolako zehazgabetasunik gabeko kantitatea da. Are gehiago, enpresarioak, beste ekoizpen-faktoreei eskaini beharreko enplegu-bolumena finkatzen duenez geroztik, kan-

titate honen eta beste faktoreei egin beharreko ordainketen artean ahalik eta diferentzia handiena egon dadin bilatzen duenez, aipatu kantidadea da enplegurakozioei begira garrantzia duena.

Onargarria da, noski, $G - A_1$ kantitatea $G' - B'$ baino handiagoa izatea, eta beraz, erabil-kostua negatiboa izatea. Hori ongi baino hobeto gerta liteke, epe jakin batean inputa handiagotu bada baina outputak handiagotzeko denbora izan ez badu eta bukatu eta saltzeko egoerara iritsi ezin izan bada. Gauza bera gertatuko da inbertsio positiboa dagoen bakoitzean, beti ere, industriaren integrazio-maila garaia bada eta enpresarioek beren ekipamenduaren zati handiena berek ekoizten badute. Dena den, erabil-kostua negatiboa izateko, nahitanahiez, enpresarioak bere ekipamendua bere lanez handiagotu behar duenez, erabil-kostua normalean positiboa dela pentsarazten digu ekipamendua, gehienbat, beste enpresa batzuek fabrikatzen duten ekonomian, enpresa horiek berroiek erabiltzen ez dutelarik. Are gehiago, zaila da A -ren hazkundeari dagokion erabil-kostu *marjinala*, hau da, dU/dA , positiboa ez den egoeran irudikatzea.

Agian, kapituluaren azken zatiari dagokion gaia izan arren, egokia izan daiteke hemen, herriarentzat, oro har, epealdiko kontsumo osoa, C , $(A - A_1)$ -en berdina dela eta inbertsio osoa, I , $(A_1 - U)$ -ren berdina dela adieraztea. Horrez gain, U , enpresario indibidualak bere ekipamendu propioan egindako desinbertsioa da (eta $-U$, enpresarioaren inbertsioa), beste enpresario batzuei erositako ekipamendua alde batera utzita. Erabateko integrazio-sisteman (non $A_1 = 0$), kontsumoa A -ren berdina da eta inbertsioa $-U$ -rena, hau da, $G - (G' - B')$ -rena. A_1 sartzeak nahasmen txiki bat sortzen badu ere, integrala ez den ekoizpen-sistema orokorrenari aplikatu ahal izango zaion formula orokorra lortzeko ezinbestekoa da.

Horrez gain, *eskari efektiboa* enpresarioek jasotzea espero duten sarrera osoa besterik ez da (edota ekoizpenaren emaitza), horren barnean oraingo enplegu-bolumenetik hartuta enpresarioek ematea erabakitzen duten eta beste ekoizpen-faktore batzuen eskuetara pasarazten dituzten sarrerak sartuz. Eskari osoaren funtzioak enpleguaren hainbat kantidad potentzial eta enplegu horrek sortuko lukeen outputaren atzetik etorri beharko luketen ekoizpenaren emaitza erlazionatzen ditu; eta eskari efektiboa, eskari osoa efektibo egiten deneko puntua da, hain zuzen, eskaintzaren baldintzak kontuan

hartuta, enpresarioen irabazasmoak gehien handiagotzen dituen enplegu-mailari dagokiolako.

Definizio-multzo honek beste abantailarik ere badu, alegia, emaitza (edo sarrera) marjinalak eta faktore marjinala berdindu ahal izatea; horrela proposizio-sorta batera irits gaitezke, eta horien bidez, aipatutako emaitza marjinalak faktore-kostu marjinalarekin harremanetan ipin ditzakegu, hau da, ekonomialari batzuek finkatu duten moduan, erabil-kostua alde batera utzita edo zerotzat hartuz, eskaintza-prezioa³⁶ faktore-kostu marjinalarekin³⁷ berdintzera iritsi dira.

2. Azter dezagun orain arestian aipatutako bigarren printzipioa. Orain arte, enpresarioak bere etekin maximoa lortzeko hartzen dituen *borondatezko* erabakien ondorioz, epealdiaren hasiera eta bukaera bitartean kapital-ekipamenduan sorrarazten diren balioaren aldaketaz arduratu gara. Baina gerta daiteke, berak kontrola ezin ditzakeen eta jadaneke erabakiko independente diren arrazoiengatik, bere kapital-ekipamenduaren balioak *nahi ga beko* galerak (edo irabaziak) izatea ere esaterako, merkatuko balio-aldaketa batek, narriadurak edota zaharkitze hutsak sorrarazitako baliogaleragatik, edo, are gehiago, gerrate, lurrikara edo antzeko hondamendien ondoriozko suntsiketatik. Nahi gabeko galera horietako zati bat, denak saihestu ezinekoak izanik ere, ez dira guztiz aurreikusi ezin direnak, epe luzeko zentzuan ulertuta bederen; hori gertatzen da, hain zuzen, denboraren ondoriozko galerekin, ekipamenduaren erabilera alde batera utzita; halaber hori gertatzen da baliogalera «normalaren» baten ondoriozko galerekin, hau da, Pigou irakaslearen formularen arabera, «nahikoa erregularrak izan ohi direnez, xehetasun osoz ez bada ere, oro har aurreikus daitezkeen galerak dira». Hauen barnean sar genitzake, halaber, komunitate osoan zehar nahikoa erregularrak direlako «arrisku ziurtagarriak» izenda ditzakegun galerak. Alde batera utz dezagun, oraingoz, aurreikusitako galeren zenbatekoa aurreikuspenak egin direneko garaiazen arabera delako. Ekipamenduaren nahi gabeko, baina ez aurreikusi gabeko, baliogalerari *kostu g ehigarria*³⁸ deituko diogu, hau da, erabil-kostutik espero zen baliogaleraren soberakina, eta kantitate hau *V* izendatuko dugu. Agian ez da azaldu beharrik egongo, baina kantitate hau ez da Marshall-en kostu gehigarriaren berdina, nahiz eta autore honen ideiak oinarri berbera izan, hau da, lehenkostuan sartzen ez den baliogalera aurreikusiazen zatia kontuan hartu beharra.

Beraz, enpresarioaren *sarreraneta* eta *irabazi netoa* kalkulatzeko, sarrera eta irabazi gordinetatik (arestian definitu ditugun moduan) kostu gehigarriaren soberakina kendu beharko genuke. Izan ere, enpresarioak gasta edo aurrez dezakeen kopurua kontuan hartuta kostu gehigarriak beregan duen ondorio psikologikoa, eta kostu hori bere irabazi gordinari kenduta izango lukeena, berdinak dira. Enpresarioak *ekoizle* gisa diharduenean, ekipamendua erabiliko duen ala ez erabakitzen duenean, lehenkostua eta irabazi gordina dira baliagarri zaizkion kontzeptuak, lehen definitu ditugunez. Baina, *kontsumitzaile* gisa, kostu gehigarria, subjektiboki, zenbateko hori lehenkostuaren zati bailitzan hartzen du. Ondorioz, erabilera arruntarra ahalik eta gehien hurbiltzeaz gain, kontsumo-bolumenerako garrantzia duen kontzeptura heldu gara, zeren eta sarrera *neto* osoa definitzean, kostu gehigarria eta erabil-kostua, biak kentzen baditugu, sarrera osoa $A - U - V$ formularen berdina izango baita.

Oraindik ere aztertzeke ditugu merkatuko aurreikusi gabeko balio-aldaketen, aparteko higaduraren edota hondamendizko suntsiketaren ondorioz ekipamenduan sortzen diren balio-aldaketak. Aldaketa hauek, aldi berean, nahi gabekoak eta, oro har, aurreikusi gabekoak dira. Gertaera honek eragiten duen benetako galera, *aurreikusi ga beko galera* (*windfall loss*) izenda dezakegu, eta normalean sarrera netotik alde batera utzi eta kapitalaren kontuari gehitzen diogu.

Sarrera netoaren garrantzi *kausala*, V -ren balioak ohizko kontsumo-bolumenean izango duen eragin psikologikoan datza, zeren eta gizaki arruntak ohiko kontsumoan gastatuko duena erabakitzen duenean, *sarreraneta* hartzen baitu bere sarrera erabilgarritzat. Hau ez da, jakina, zenbat gastatuko duen erabakitzean kontuan izaten duen faktore bakarra. Maila batean edo bestean eraginik izango dute kapitalaren zenbatekoan izandako aurreikusi gabeko irabazi edo galerak ere. Beraz, alde handia dago kostu gehigarria eta aurreikusi gabeko galeraren artean, hain zuzen, kostu gehigarriaren aldaketek gizaki arruntarengan duten eragina, bere irabazi gordinaren aldaketek dutenaren *berdin-berdina* da. Ohizko outputaren emaitzak lehenkostu eta kostu gehigarriaren *baturaren* gainetik duen soberakina da enpresarioaren kontsumoaren eragile nagusia; aurre ikusigabeko galerak (edo irabaziak) ere izango du eraginik bere erabakietan, baina ez du indar berbera izango; zenbateko jakin bateko aurreikusi gabe-

ko galerak ez du maila berdineko kostu gehigarriak izango lukeen ondorio berbera sorrarazten.

Dena den, kostu gehigarrien eta aurreikusigabeko galeren artean dagoen mugarria, hau da, sarreratik kentzea normal deritzogun saihestu ezinezko galeren eta kapital-kontuari dagozkiola deritzogun aurreikusi gabeko galeren (edo irabazien) arteko mugarria, hein batean konbentzionala edo psikologikoa da, kostu gehigarriak zenbatesteko normalean hartu diren irizpideen arabera. Izan ere, ezin baita printzipio bakarra erabili kostu gehigarria kalkulatzeko, eta kostu horren zenbatekoa, aukeratutako kontabilitate-metodoaren arabera izango da. Kostu gehigarriaren aurreikusitako balioa kantitate zehatza da ekipamendua jatorriz ekoiztu zenean. Baina geroago berriz ere zenbatetsi bada, gerta liteke ekipamenduaren gainerako bizitzari dagokion zenbatekoa aldatzea, hain zuzen, epealdi horretan zehar gure aurreikuspenak izandako aldagaitaren ondorioz, eta kapitalaren aurreikusigabeko galera $U + V$ itxarondako serieen aurreko eta berriz aztertutako aurreikuspenen arteko diferentziazatik deskontatutako balioa izango da. Negozio-kontabilitatean oso onartua dagoen eta «Inland Revenue-ko»³⁹ agintaritzak sarritan onesten duen printzipioa da, alegia, ekipamendua eskuratzaren denetan kostu gehigarriaren eta erabil-kostuaren batura gisa zifra zehatz bat ezartzea, eta zifra hori ekipamenduaren bizitza osoan zehar aldatu gabe mantentzea, aurreikuspenean gertatzen diren ondorengo aldagaitak gertatuta ere. Horrelakoetan, edozein epealдитako kostu gehigarria, aurretik finkatutako zifra honek benetako erabil-kostuaren gainetik duen soberakin gisa hartu behar dugu. Metodo honek abantailarik badu, hain zuzen, ekipamenduak oro har bizitzan zehar, aurreikusigabeko irabazi edo galera zero izango dela ziurtatuko du. Baina, aldi berean, hainbatetan bidezkoa da arbitrarioki aukeratutako epealdian, esaterako urtean behin, ohizko balio eta aurreikuspenen oinarrietatik kostu gehigarriari dagokion kenkaria zenbatestea. Izan ere, negoziotan dihardutenak ez datoz bat metodoa aukeratzeko. Ekipamendua eskuratu denetan, komenigarria izan daiteke kostu gehigarriaren hasierako aurreikuspenari *oinarriko kostu g* ehigarria deitzea, eta kantitate berdina, une jakin batean egungo balio eta aurreikuspenen oinarrian berriz ere zenbatestean, *egungokostu g* ehigarria izendatzea.

Beraz, ezin dugu kostu gehigarriaren definizio koantitatibo hobia izan, hots, enpresario arruntak bere sarrera *netoari* egindako

kenkariak kontuan hartzen dituen, dibidendu bat aitortzerakoan sarrera netotzat hartzen duena zenbatestean (sozietatea denean), edo bere ohizko kontsumoaren zenbatekoa finkatzerakoan (norbanakoa denean). Kapital-kontuaren aurreikusi gabeko kargak alde batera utzi ezin daitezkeenez, zalantza kasuetan argi dago kontu honen zati bat gorde eta kostu gehigarriari ziurtasun osoz dagokiona bakarrik gehitzea dela egokiena. Izan ere, kapital-kontuan egon daitekeen gainkarguzko edozein errore erraz zuzen daiteke, hain zuzen, kontu honek ohizko kontsumoaren zenbatekoan bestela izango lukeena baino eragin handiagoa duela egotziz.

Ikus daitezkeenez, *sarrera netoari* buruz egin dugun definizioak antz handia du Marshallen *sarrerari* buruzko definizioarekin, honek *Income Tax Commissioners* ⁴⁰ direlakoan praktiketan babestu eta -orokorrean-, komisionario hauek beren esperientziaren baitan sarrera gisa hartzen zutena, berak ere hala hartzea erabaki zuenekoarekin. Izan ere, beren erabakiak ahalik eta azterketa zorrotz eta zabalenen ondorioak baitira, eta beraz, zilegi da horrela interpretatzea, praktikan sarrera netotzat hartzen dugun hori. Gure sarrera netoa, halaber, Pigou irakaslearen Dibidendu Nazionalaren balio nominalaren definizio berrienarekin bat dator.⁴¹

Hala ere, sarrera netoak ondo zehaztutako terminoa izaten jarraitzen du, zeren eta, oinarritzat irizpide nahasi bat daukalarik, agintari bakoitzak nahi bezala interpreta baitezake. Esaterako, Hayek irakasleak iradoki duenez, kapital-ondasunen jabe den norbanako batek, bere ondasunetatik eratorritako sarrerak konstante mantentzera jo lezake, sarrera horiek kontsumoan erabiltzeko aske izan gabe, harik eta inbertsiora zuzendutako bere sarreraren behe-rantzko joerari aurre egingo liokeen kopurua gorde arte.⁴² Horrelako norbanakorik ote dagoen zalantza dugu; dena den, argi dago halako ondorioa sarrera netoaren irizpide psikologiko posible gisa erabiltzeko ezin zaiola inolako objekzio teorikorik egin. Aitzitik, Hayek irakasleak aurrezki eta inbertsio kontzeptuak zehazgabetsunez josita daudela esaten duenean, *aurrezki neto* eta *inbertsio netoaz* ari bada baino ezin zaio arrazoia eman. Enpleguaren teorian agertzen zaizkigun *aurrezki* eta *inbertsio* kontzeptuak, ordea, akats horretatik libre daude eta, arestian azaldu dugunez, objektiboki defini daitezke.

Beraz, gaizki jokatuko genuke arreta guztia *sarrera netoan* jarriko bagenu, horrek kontsumoari buruzko erabakietan baino ez baitu eragiten, eta gainera, kontsumoari eragiten dioten gainerako kontzeptuetatik lerro zehazgabe eskas batek banantzen baitu; oker ibiliko ginateke, halaber, *sarrera* kontzeptua bera alde batera utzita (askotan egin ohi den bezala), ohiko ekoizpenaren erabakiak horren arabekoak izaten baitira eta inolako zalantzarik ez baitu sorrarazten.

Arestiko sarrera eta sarrera netoaren kontzeptuak erabilera arruntari ahalik eta gehien gerturatu nahi izan zaizkio. Hori dela eta, irakurleari *Treatise on Money* lanean sarrera zentzu berezi batean definitu nuela gogorarazi behar diot. Nire lehenagoko definizio horren ezaugarria enpresarioek eskuratzen duten sarrera osoaren zatia zego-kion, ez baintuen, ez beren ohizko eragiketetatik lortutako jadaneko irabaziak (gordinak zein netoak) eta ez beren ohizko eragiketekin hasi aurretik aurreikusitako irabaziak kontuan hartzen, nolabaiteko (orain uste dudanez, nahikoa zehaztu gabekoa, outputaren eskalak izan ditza-keen aldaketak kontuan izanik) irabazi normal edo orekatua baizik; ondorioz, definizio horren arabera aurrezkiak inbertsioa gainditzen zuen, hain zuzen, irabazi normalak benetako irabazian gainetik duen soberakinaren kantitate berean. Beldur naiz termino hauen erabilerak nahasketa handia sortu ote duen, batez ere, aurrezkiaren erabilera korrelatiboari dagokionez; ondorio batzuk (batez ere aurrezkiak inbertsioaren gainetik duen soberakinari dagozkionak) nik emandako zen-tzu berezian erabilita baino balio ez zutelarik, sarritan zentzu arrunte-an erabili izan dira eztabaida orokorretan. Arrazoi horregatik eta nik erabilitako terminoak nire pentsaeraren adiera zehatzean besterik ezin-bestekoak ez direlako, horiek albo batera uzteko erabakia hartu dut, eta biziki sentitzen dut horiek nahasteak sortu ahal izan dituen arazoak.

II

Aurrezkia eta Inbertsioa

Atsegina izan ohi da terminoen erabilera dibergenteen ur nahastuetan puntu finko bat aurkitzea. Nik dakidanez, denok ados

gaude *aurrezkia* ren esanahiaz, hau da, sarrerak kontsumo-gastuen gainetik duen soberakina izateaz. Beraz, *aurrezkia* ri buruz egon daitekeen zalantza bakarra, *sarrera* edo *kontsumo* kontzeptuei dagozkien zalantzetatik eratorria izan behar du. Dagoeneko *sarrera* definitu dugu. Kontsumoaren gastuek edozein epealditan zehar, epe horretan kontsumitzaileei saldutako ondasunen balioa izan behar dute, eta honek, kontsumitzaile/erosle delakoaren esanahia bilatzera garamatza. Kontsumitzaile/erosle eta kontsumitzaile/inbertitzailearen arteko mugari buruzko edozein definizio baliagarri izango zaigu, baldin eta era koherentean aplikatzen bada. Sarritan eztabaidatu izan da honek sorraraz ditzakeen arazoei buruz, esaterako, ea zilegi den ibilgailua erostea kontsumorako erosketa gisa hartzea, eta etxea erostea, inbertsiorako erosketa gisa hartzea, eta nik ez dut eztabaida honi gehitzeko funtsezko ezer. Irizpidea, noski, kontsumitzaile eta enpresarioaren arteko muga ezarri dugun puntuak izan behar du. Beraz, A_1 enpresarioak beste enpresario bati erositakoaren balio gisa definitzean, arazoa inplizituki ebatzi dugu. Kontsumoko gastua, zalantzarik gabe, $(A - A_1)$ gisa defini daitekeela ondorioztatzen da, non A -k epealdian zehar eginiko salmenta guztien zenbatekoa adierazten duen, eta A_1 -ek, enpresarioak beste enpresario bati eginiko salmenta guztien zenbatekoa. Aurrerantzean komenigarria izan daiteke zeinua alboratu eta mota guztietako salmenta osoak adierazteko zuzenean A idaztea, enpresarioen arteko salmenta osoak adierazteko A_1 idaztea eta enpresarioen erabil-kostuaren zenbateko osoa adierazteko U idaztea.

Sarrera eta *kontsumoa* definitu ditugularik, *aurrezkia* sarrerak kontsumoaren gainetik duen soberakina izanik, *aurrezkiaren* definizioa beste bienetik eratortzen da. *Sarrera* $A - U$ izanik eta kontsumoa $A - A_1$, *aurrezkia* $A_1 - U$ dela ondoriozta dezakegu. Halaber, *aurrezki netoa sarreranetoak* kontsumoaren gainetik duen soberakina izango da, hain zuzen, $A_1 - U - V$.

Sarreraren gure definizio honek, lehenik eta behin, *inbertsio arruntaren* definizioa garamatza. Izan ere, honek epealdiko ekoizpen-ihardueratik lortu den kapital-ekipamenduaren balioarentzako gehigarri arrunta adierazten du. Argi dagoenez, hori guztia *aurrezkiaz* egin dugun definizioaren berdina da, zeren eta kontsumorako erabili ez den epealdiko sarreraren zatia adierazten baitu. Arestian ikusi dugunez, edozein epealditako ekoizpenen emaitza gisa, enpresarioek, elka-

rri egiten dizkioten A_1 erosketak kontuan izanik, A balioko produktu bukatuak saldu dituztela eta A -ren salmentak eta ekoizpenak U -k neurtutako kaltea (edo $-U$ -k neurtutako hobekuntza, U negatiboa izanik) sorrarazi dioten kapital-ekipamendua dutela bukatzen dute. Epealdi horretan zehar, $A - A_1$ balioko output bukatua kontsumituko zen. $A - U$ delakoak $A - A_1$ -en gainetik duen soberakina, hau da, $A_1 - U$, epealdiko ekoizpen-jardueretatik ondorioztatutako kapital-ekipamenduarentzako gehigarria izango da, eta beraz, epealdiko *inbertsioa* da. Halaber, $A_1 - U - V$, hau da, ekipamenduaren balioarentzako gehigarri *netoa* izango da epealdiko *inbertsio netoa*, aldeztatik bere erabileraren edo kapital-kontuari gehitu behar zaizkion ekipamendubalioaren aurreikusigabeko aldaketan ondoriozkoa ez den baliogalera normala kendu ondoren.

Hortaz, aurrezkiaren zenbatekoa kontsumitzaile indibidualen jokabide kolektiboaren emaitza izanik, eta inbertsioaren zenbatekoa enpresario indibidualen jokabide kolektiboarena, bi zenbateko hauek berdinak izan behar dute, nahitaez, beraietako bakoitza sarrerak kontsumoaren gainetik duen soberakinaren berdina baita. Are gehiago, ondorio hau ez dago inola ere lehenago eman den sarreraren definizio horren inolako berezitasun edo bitxikeriaren menpe. Sarrera ekoizpen-balio arruntaren berdina dela onartzen badugu, inbertsio arrunta kontsumitu gabeko ekoizpen arruntaren zatiaren berdina eta aurrezkia sarrerak kontsumoaren gainetik duen soberakinaren berdina —hau guztia bat dator sen onarekin eta ekonomialari gehienek ohizko erabilerarekin—, aurrezki eta inbertsioaren arteko berdintasuna ondorioztatu behar dugu, nahitaez. Laburbilduz:

$$\text{Sarrera} = \text{outputaren balioa} = \text{kontsumoa} + \text{inbertsioa}$$

$$\text{Aurrezkia} = \text{sarrera} - \text{kontsumoa}$$

$$\text{Eta beraz, aurrezkia} = \text{inbertsioa}$$

Beraz, aurreko baldintzak betetzen dituen definizio-sorta *orok* ondorio berdinerak garamatza. Horietako bata edo besteak izan dezakeen baliotasuna ukatuz baino ezin da ondorioa ezeztatu.

Aurrezki-kantitate eta inbertsio-kantitatearen arteko baliokidetasuna, alde bateko ekoizlearen eta beste aldeko kontsumitzaile edo ekipamendu-eroslearen arteko eragiketen *aldebiko* izaeran sortzen da.

Sarrera, ekoizleak saldutako outputetik lortzen duen balioak erabil-kostuaren gainetik duen soberakinagatik sortzen da; baina, ekoizpen hau guztia, nahitaez, kontsumitzaile zein beste enpresario bati saldu behar izan zaio; bestalde, enpresario bakoitzaren inbertsio arrunta beste enpresario batzuei erosi dien ekipamenduak bere erabil-kostuan gainetik duen soberakinaren berdina da. Ondorioz, oro har, sarrerak kontsumoaren gainetik duen soberakina, hain zuzen guk aurrezkia deitzen duguna, eta ekipamenduaren gehigarria, hain zuzen guk inbertsioa deitzen duguna, ezin daitezke desberdinak izan. Gauza bera esan daiteke aurrezki neto eta inbertsio netoari buruz. Aurrezkia, izan ere, hondar hutsa baino ez da. Kontsumitzeari buruzko erabakiak eta inbertitzeari buruzko erabakiak dira, biak batera, sarrerak finkatzen dituztenak. Inbertitzeko erabakiak gauzatuz gero, nahitaez, kontsumoa murriztu ala sarrerak gehitu egingo dira, bietako bat. Beraz, inolako inbertsio-ekintzak ezin dezake saihestu, guk aurrezkia deritzogun hondar edo marjina hori zenbateko berdin horretan gehitzea.

Gerta daiteke, jakina, norbanakoak aurreztu edo inbertitu beharko luketen zenbatekoei buruzko beren erabakiak buru-belarri aurrera eramatearen ondorioz, eragiketak burutzeko oreka-preziorik ez egotea ere. Halakoetan, gure terminoak ez lirateke, jada, baliagarriak izango, zeren eta outputak ez bailuke merkatu definituaren balioa izango, eta hortaz, prezioek ez lukete zeroa eta infinituaren artean oreka-kokagunerik topatuko. Dena den, esperientziak benetan ez dela horrelakorik gertatzen erakusten digu, eta badirela, ordea, oreka lortzeko aukera ematen duten jokabide edo erreakzio psikologikoak; hain zuzen, erosteko nahia saltzeko nahiaren berdina bihurtzen dutenak. Output-merkatuaren balioa bezalako zerbait egotea beharrezko baldintza da, bestalde, sarrera nominalak balio zehatza izan dezan, eta baldintza nahikoa, aurreztaileek beren kabuz aurreztea erabakitzen dituzten zenbatekoak guztira, eta inbertitzaileek beren kabuz inbertitzea erabakitzen dituzten zenbatekoak guztira, berdinak izan daitezen.

Agian, gai honi buruzko ideiak argiago izango ditugu gure gogoetak kontsumitzeko (edo ez kontsumitzeko) erabakiei buruzko arrazoietara bideratzen baditugu, aurrezteko erabakiei buruzkoetara bideratu beharrean. Kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko erabakia norbanakoaren ahalmenaren baitakoa izaten da, eta gauza bera gertatzen da inbertitzeko edo ez inbertitzeko erabakiarekin. Sarrera osoa-

ren eta aurrezki osoaren zenbatekoak norbanakoek kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko aukera libreen *emaitzak* izan ohi dira; halaber inbertitzeko edo ez inbertitzeko aukera libreenak ere; baina bi zenbateko oso hauetako batek ere ezingo luke erabaki partikularren ondoriozko balio independentea lortu, hain zuzen kontsumo eta inbertsioari dagozkien erabakiak kontuan izan gabe. Printzipio honekin bat etorritik, hemendik aurrera *kontsumitzeko joera* erabiliko dugu, aurrezteko joeraren ordean.

ERABIL-KOSTUARI BURUZKO ERANSKINA

I

Nire ustez, balioaren teoria klasikoan sarritan arrotza den erabil-kostuak eman izan ez zaion garrantzia du. Honi buruz gehiago esan daitekeen arren, ez da hau horretarako toki egoki edo aproposa. Hala ere, eranskin honetan horri buruzko xehetasun gehiago emango ditugu, gogoeta moduan besterik ez bada ere.

Definizioz, enpresario baten erabil-kostua honako honen berdina da:

$$A_1 + (G' - B') - G,$$

non A_1 gure enpresarioak beste enpresarioei eginiko erosketen zenbatekoa den; G , ekitaldiaren bukaeran bere kapital-ekipamenduaren benetako balioa; eta G' , ekipamendu horrek ekitaldiaren bukaeran izan zezakeen balioa, baldin eta enpresarioak hori erabili izan ez balu eta B' -ren zenbateko optimoa ekipamendua mantendu eta hobetzeko gastatu izan balu. Dena den, $G - (G' - B)$, hau da, bere ekipamenduari balioak aurreko ekitalditik jaso zuenaren balioaren gainetik duen soberakina, enpresarioak bere ekipamenduan eginiko ohiko inbertsioaren adierazlea da, inbertsio hori I izenda dezakegularik. Beraz, U , A salmenta-bolumenaren erabil-kostua, $A_1 - I$ -ren berdina izango da, non A_1 -ek beste enpresarioei erosi diena, eta I -k, ekitaldian zehar bere ekipamenduan bertan inbertitu duena adierazten duen. Hausnarketa txiki

bat eginez gero, hemen esandako guztia sen onaren baitan dagoela ikusiko dugu. Beste enpresarioei eginiko erosketen zati bat, bere ekipamenduan bertan burutu duen inbertsio arruntaren balioarekin orekaturik dago, eta geratzen den gainerakoak, saldutako outputaren ekoizpenak eragin dion sakrifizioa adierazten du (ekoizpen-faktoreen truke ordaindu duen zenbateko guztian). Irakurlea ideia hauen funtsa beste era batera azaltzen saiatzen bada, honako modu honek duen abantailaz ohartuko da, kontabilitate-arazo konponezinak (eta beraz, balio gabekoak) saihesten baititu. Nire ustez, ez dago beste erarik egungo ekoizpenaren emaitzak zalantzagarritasunik gabe aztertzeko. Industria erabat integratua bada, edota enpresarioak kanpoan ezer erosi ez badu, hau da, $A_1 = 0$, erabil-kostua ekipamenduaren erabilerrak sorrarazten duen desinbertsio arruntaren baliokidea izango da; baina oraindik ere beste abantailarik badugu: gure azterketan zehar ez dugu, saltzen diren ondasunen eta gorde den ekipamenduaren artean, faktore-kostuaren banaketa egin behar. Beraz, enpresa integratu zein indibidualak erdiesten duen enplegua erabaki bakar baten menpe dagoela kontsidera dezakegu, hau da, denboraldian zehar saldutako ekoizpenaren eta ekoizpen osoaren artean dagoen berezko elkarloturari dagokion prozeduratzat jo dezakegu.

Erabil-kostuaren kontzeptuak, are gehiago, enpresa baten output salgarriarekiko eskaintako kantitatearen prezio unitatearentzat, eta epe laburrentzat, normalean eman ohi den definizioa baino are eta argiagoa emateko aukera ematen digu, zeren eta epe laburreko eskaintza-prezioa, faktore-kostu marjinalaren eta erabil-kostu marjinalaren arteko batuketa baita.

Dena den, balioaren teoria modernoaren arabera ohitura arrunta izan da epe laburreko eskaintza-prezioa faktore-kostu marjinal bakarrarekin berdintzea. Hala ere, argi dago horrelako ohiturak zuzena izateko erabil-kostu marjinalak zero izan behar duela, edota, bestela, erabil-kostu marjinala alde batera utziz, eskaintza-prezioaren definizio berezia egin behar dela, hain zuzen, nik neuk «emaitza» eta «eskaintza osoaren prezioa» definitzean egin dudana bezala (54. orria), hau da, bi kontzeptu hauek erabilera osoaren kostua kontuan izan gabe definitu ditudanean. Baina, batzuetan, *output osorik* aztertzean, erabil-kostua kentzea eroso gerta badaiteke ere, metodo hau enpresa edo industria bakar baten outputari normalean (eta tazituki) aplikatzeak

gure azterketa erabat urrunaraziko du errealitatetik, zeren eta desberdintasunak sorrarazten baititu artikulua baten «eskaintza-prezioaren» eta bere «prezioaren» artean, beti ere, hitzaren zentzu arruntean; eta honen ondorioz, nolabaiteko nahasketa sortu ahal izan da. Badirudi «eskaintza-prezioaren» esanahiak inolako zalantzarik ez duela sortu termino hau enpresa indibidual baten ekoizpen salgarriari aplikatu zaionean, eta beraz, ez da eztabaidagai izan. Baina beste enpresa batzuei erosten zaienari edota, unitate marjinalaren ekoizpena dela eta, enpresaren ekipamenduak berak jasaten duen baliogalerari buruz jardutean, orduan bai, sarreraren definizioari dagozkion nahasketekin topo egiten dugu. Beste enpresa batzuei egindako erosketetan, output-unitate gehigarriaren salmentari dagozkion erosketen kostu marjinala salmentaren enpresaren eskaintza-prezioa delakoa lortzeko emaitzari kendu behar zaiola onartzen badugu ere, oraindik ere kontuan hartu beharrekoa da unitate marjinalaren ekoizpenak enpresaren ekipamenduari berari sorrarazten dion desinbertsioa. Ekoizpen osoa enpresa integral batek egingo balu ere, ezingo genuke erabil-kostu marjinala zerotzat hartu, hau da, ekoizpen marjinalak ekipamenduan sorrarazita-ko desinbertsio marjinala, oro har, alde batera uzteko modukoa da.

Erabil-kostua eta kostu gehigarriaren kontzeptuek, halaber, epealdi luzeentzako eskaintza-prezioaren eta epealdi laburrentzako eskaintza-prezioaren arteko erlazioa argiago ikusteko aukera ematen digute. Bere barnean, epe luzeko kostuak, argi dagoenez, zenbatekoren bat eduki behar du ondoko elementuek osatua; alegia, oinarritzko kostu gehigarria eta aurreikusitako lehen kostuari dagokion ekipamendua, ekipamendu horren batez besteko bizitzan behar bezala zenbatetsia. Bestela esan, lehenkostua eta kostu gehigarriaren artean itxarondako batura eta ekoizpenaren epealdi luzeentzako kostua berdinak dira; are gehiago, irabazi normalak izateko, epealdi luzeentzako eskaintza-prezioak epealdi luzeentzako kostua baino handiagoa izan behar du, eta kostuaren zenbateko hori kalkulatzeko, epe eta arrisku konparagarriko maileguren interes-tasa arruntaren ehunekoa ekipamendu-kostuari aplikatuko zaio. Edota, kasu guztietan aplikatu daitekeen interes-tasa estandar «garbia» hartu nahi izanez gero, epealdi luzeentzako kostuari hiru garren kontzeptua gehitu beharko diogu, *arriku-kostua*, hain zuzen, arrazoi ezezagunen ondorioz, aurreikusitako «emaitzaren» eta benetako «emaitzaren» artean sor daitekeen aldea estaltzeko. Hortaz, epealdi

luzeentzako eskaintza-prezioa honako osagaien batura litzateke: lehen-kostu, kostu gehigarri, arrisku-kostu eta interes-kostuaren batura. Epealdi laburrentzako eskaintza-prezioari dagokionez, hori lehenkostu *marjinalaren* berdina da. Enpresarioak bere ekipamendua erosi edo eraikitzean, horren kostu gehigarria, arrisku-kostua eta interes-kostua estali nahi izango ditu, lehenkostuaren balio marjinalak bere batez besteko balioaren gainetik izandako soberakinaren bidez; beraz, epealdi luzeentzako oreka-egoeran, lehenkostu marjinalak batez besteko lehenkostuaren gainetik duen soberakina, kostu gehigarriaren, arrisku-kostuaren eta interes-kostuaren, hiruren, arteko baturaren berdina da⁴³.

Batez besteko lehenkostu eta kostu gehigarriaren batura eta lehenkostu marjinala berdinak direneko outputaren mailak aparteko garrantzia du, zeren eta hori baita enpresarioaren ustiapen-kontuak erakusten duen puntu hila, hau da, sarrerak eta urteko kostuak berdintzen diren puntua. Hau da, puntu horretan irabazi netoa zero da; output horretatik behera ustiapenak galera netoa izango du.

Lehenkostuaz gain, kostu gehigarrira iristeko bete beharreko tarte oso desberdina da ekipamendu-mota batetik bestera. Hona hemen muturreko kasu bi:

1. Ekipamenduaren mantenuaren zati bat, nahitaez, erabilera-egintzarekin batera, hots, *pari passu*, burutu behar da (esaterako, makineriari koipea eman). Honi dagokion gastua (kanpoko erosketez gain) faktore-kostuan barne sartzen da. Arrazoi fisikoak direla eta, balio galera arrunt osoaren zenbateko zehatza horrela konpentsatu behar bada, erabil-kostuaren zenbatekoa (kanpoko erosketez gain) kostu gehigarriaren berdina eta alderantzizkoa izango litzateke, eta epe luzeko oreka-egoeran faktore-kostu marjinalak batez besteko faktore-kostua gaindituko luke; hain zuzen, arrisku-kostuaren eta interes-kostuaren arteko baturaren zenbatekoa gehiago luke batez besteko faktore-kostutik.

2. Ekipamenduaren higaduraren zati bat ekipamendu bera erabiltzean baino ez da gertatzen. Zati hori erabil-kostuari atxikiko zaio, zeren eta ez baita erabilera-egintzarekin batera *pari passu* konpentsatzen. Ekipamenduaren balioaren galera horrela besterik gertatzen ez bada, kostu gehigarria zero izango da.

Agian baliagarria izan daiteke honakoa azaltzea: enpresarioek ez dituztela lehenengo beren ekipamendu zaharrenak eta okerrenak hauen erabil-kostua txikiagoa delako bakar-bakarrik erabiltzen; izan

ere, hauen eraginkortasun falta erlatiboak, hau da, bere kostu-faktore handiagoak, konpentsa dezake bere erabil-kostu txikiagoa. Horregatik, enpresarioek lehenago erabiliko dute output-unitateko ahalik eta faktore-kostua *gehi* erabil-kostuaren zenbateko txikiena eskuratuko duen ekipamenduaren zatia⁴⁴. Hemendik ondoriozta dezakegunez, delako emaitzaren edozein output-bolumeni erabil-kostu jakin bat dagokio⁴⁵, baina erabil-kostu osoak ez du inolako erlaziorik erabil-kostu marjinalarekin, hau da, ekoizpen-mailaren gehikuntzaren ondoriozko erabil-kostuaren gehikuntzarekin.

II

Erabil-kostua orainaldiaren eta etorkizunaren arteko pasabide-etako bat da. Berez, enpresarioak, bere ekoizpen-eskala erabakitzean, bi aukera ditu: bere ekipamendua berehala erabiltzen hastea, edo gero erabiltzeko gordetzea. Berehalako erabileran eragina duen etorkizuneko mozkinen buruz aurreikusitako sakrifizioa da erabil-kostuaren zenbatekoa finkatzen duena, eta sakrifizio horren zenbateko marjinala da, faktore-kostu marjinala eta aurreikusitako emaitza marjinalarekin batera, ekoizpenaren eskala finkatzen duena. Nola kalkula dezake, beraz, enpresarioak ekoizpen-egintza baten erabil-kostua?

Guk erabil-kostua definitu dugun moduan, ekipamenduak erabiltzeaz jasaten duen balioaren galera gisa kontsideratuko litzateke, erabiliko ez balitz izango lukeen galerarekin konparatuta, mantenua eta egitea komeniko liratekeen hobekuntzak eta beste enpresario batzuei egindako erosketak kontuan hartu ondoren. Erabil-kostu hau hala ere, eta beraz, ekipamendua berehala erabiliko ez balitz eta etorkizunean, alderantziz, erabiltzean erdietsiko litzatekeen errendimendu gehigarri probablearen egungo balioa izango litzateke. Dena den, balio hau gutxienez ekipamendua erabili gabe utziz gero sorrarazten den ordezkapena atzeratzeko aukerari dagokion gaurko balioaren berdina izango da, edota handiagoa ere izan daiteke.⁴⁶

Soberakinik edo gehiegizko stockik ez badago, eta ondorioz, zaharrei urtero erantsi edo haiek ordezkatzeko antzeko ekipamendu-unitate berriak ekoiztu behar badira, erabil-kostuaren kalkulua, argi dagoenez, ekipamenduak izango lukeen bizi- edo eraginkortasun-

murritzeta eta ordezkatzeko kostu arruntaren arabera egingo da. Aitzitik, soberako ekipamendurik balego, halaber, interes-tasak eta kostu arrunt gehigarriak (hau da, berriz ere zenbatetsiak) erabil-kostuaren menpe egongo dira, erabileragatiko higadurak soberakina zurgatu baino aurreko epealdian, etab. Horrela, interes-kostua eta kostu arrunt gehigarria zeharka sartzen dira erabil-kostuaren kalkuluan.

Kalkulua modu erraz eta ulerkorrean egiten da faktore-kostua zero denean, esaterako, kobreak edo antzeko lehengaien gehiegizko stocka dagoenean, nire *Treatise on Money*, II. Lib., 19. kap. an adierazi nuen bezala. Har ditzagun kobreak etorkizuneko hainbat garaitan izan ditzakeen balio ezberdinak, zeintzuk soberakina zurgatu eta, gradualki, normalizat hartutako kosturantz jotzen duen abiaduraren arabera izango diren. Kobre-tona soberakin baten erabil-kostuaren oraingo balioa, etorkizuneko edozein garaitan kobre tona horrek izango duen balio handienaren berdina izango da, egun eta etorkizuneko data hori bitartean izandako interes-kostua eta kostu arrunt gehigarria kendu ondoren.

Ildo beretik, untzi baten, lantegi baten edo makina baten erabil-kostua, ekipamendu-mota hauen eskaintza soberakoa denean, birjarpen-kostu gisa zenbatetsi zaie egungo balioa da, soberakina zurgatua izango dela aurreikusitako datari dagozkion interes-kostu eta ohiko kostu gehigarrien tasaren ehunekoa kenduta, jakina.

Lehenago suposatu dugunez, une egokian ekipamendua antzeko beste batek ordezkatzeko du. Higatu denean beste guztiz antzeko batek ordezkatzeko ez badu, ordea, bere erabil-kostua ekipamendu berriaren erabil-kostutik proportzio bat hartzen, zaharra baztertuko denerako bere lana egiteko instalatzeko dena, kostuaren proportzio bat hartuta kalkulatu behar da, ekipamendu berriaren eraginkortasunak, zaharrenekin konparatua, proportzioa markatzeko duelarik.

III

Irakurlea ohartuko denez, ekipamendua zaharkiturik egon gabe epe batez sobera besterik ez dagoenean, erabil-kostuaren balio efektiboaren eta bere balio normalaren (hau da, ekipamendu-sobera-

kina ez dagoenean berorrek duen balioaren) arteko aldea, soberakina zurgatu aurretik zenbat denbora igarotzea espero denaren arabera da. Beraz, hartutako ekipamendu-mota, dena batera edo aldi berean amaitu ordez, pixkanaka gastatzen doazen horietakoa bada, eta ekipamendu horren zati handi bat urte bakoitzaren amaieran bertan behera geratzen bada, erabil-kostu marjinala ez da asko jaitsiko, soberakina sekulako maila altura iristen ez bada behintzat. Beheraldia orokorra denean, erabil-kostu marjinala enpresarioek krisiari ematen dioten iraupen probablearen arabera da, eta beraz, egoera hobetzen hasten denean, eskaintza-prezioaren igoera erabil-kostu marjinalaren gehikuntza handi batek eragin dezake, beren aurreikuspenetan aldaketak egitearen ondorioz.

Negoizozaleek beste iritzi bat izan arren, batzuetan argudiatu izan da soberako ekipamendua deusezteko antolatzen diren programak ezin dezaketela nahi den prezioen igoera lortu, horiek soberako ekipamendu *osoari* aplikatuta gertatuko litzatekeen bezala. Baina erabil-kostuaren kontzeptuak erakusten digunez, besteak beste, soberako ekipamenduaren erdia (esate baterako) deuseztatzeak berehalako prezio-igoera eragin dezake. Izan ere, soberako ekipamenduaren zurgapen-data gerturatzean, horrelako politikak erabil-kostu marjinala igo egiten du, eta ondorioz, baita eskaintza-prezio arrunta ere. Negoizozaleek, beraz, badirudi erabil-kostuaren kontzeptua dutela beti buruan, nahiz eta zehazki azaltzen jakin ez.

Kostu gehigarria handia bada, gehiegizko ekipamendua dagoenean erabil-kostu marjinala txikia izango dela ondoriozta dezakegu. Are gehiago, ekipamendua sobera dagoenean faktore-kostuaren eta erabil-kostuaren balio marjinalak aukera gutxi dute beren batez besteko balioak gainditzeko. Bi baldintza hauek betetzen badira, soberako ekipamenduak, normala denez, enpresarioen ustiapenean galera netoa izango du, eta sarritan galera neto hau astuna izango da. Egoera honetatik irabazi arrunten egoerarako trantsizioa ez da bat-batekoa izaten, hau da, soberakina zurgatzen den momentuan izaten den egoerarako, hain zuzen. Soberakina murriztuz joan ahala, erabil-kostua gradualki igo egingo da; eta balio marjinalen eta faktore-kostu eta erabil-kostuen balioen arteko aldea ere gradualki haz daiteke.

IV

Marshall-en *Principles of Economics* liburuan (6. argit, 360. or.) erabil-kostuaren zati bat lehenkostuaren barnean sartzen du, «ekipamenduaren aparteko higadura» gisa. Ez dago, ordea, faktore hau kalkulatzeko inolako argibiderik, ezta bere garrantziari buruzkorik ere. Pigou irakasleak bere *Theory of Unemployment* lanean (42. or.) espreski adierazten du ekoizpen marjinalak ekipamenduan sorrarazitako desinbertsio marjinala, oro har, alde batera utz daitekeela. «Ekipamenduak eta eskuzkoa ez den lanak nozitzen duten higadura-mailekiko aldaketak, outputaren aldaketekin lotura dutelarik, alde batera uztekoak dira, oro har, bigarren mailakoak baitira».⁴⁷ Azkenaldiko teoria ekonomikoek onartu egiten dute, gehienbat, ekoizpenaren marjinean ekipamenduak jasandako desinbertsioa zero dela. Baina enpresa indibidual baten eskaintza-prezioak zehatz-mehatz zer esan nahi duen azaltzeko arazoak sortzen dira.

Egia da, lehenago azaldutako arrazoiak direla eta, erabilerarik gabeko ekipamenduaren mantenu-kostuak erabil-kostu marjinala murriz dezakeela sarritan, batez ere beheraldia epe luzekoa izango dela espero denean. Dena den, muturrean izugarri baxua den erabil-kostua ez da, berez, epe laburraren ezaugarria, baizik eta hainbat egoera berezirena, edota erabili gabe edukita mantenu-kostu altua duten ekipamenduen, baita ekipamenduen azkar zaharkitzeak nahiz soberakin handiek eragiten dituzten oreka-galerena ere, batez ere horien aldean berria den ekipamendu-proportzio handiarekin elkartuz gero.

Lehengaiei dagokienez, argi dago erabil-kostua kontuan hartu beharra dagoela; hau da, gaur kobre-tona bat erabiltzen badugu, ezingo dugu tona bera bihar erabili, eta beraz, kobreak etorkizuneko erabileretan izango lukeen balioa erabil-kostu marjinalaren zatia bailitzan hartuko dugu. Baina ez da kontuan hartu kobreaken kasua kapital-ekipamendua ekoizteko erabiltzen den guztien artean muturreko kasua dela. Lehengaien eta kapital finkoaren artean bereizketa garbia egotearen hipotesia, lehengaiei dagokienez, erabilerak ekoizpenean eragiten duen desinbertsioa kontuan hartuz eta kapital finkoari dagokionez, berriz, desinbertsioa lasai asko alde batera utzita, ez dator bat errealitatearekin, bereziki egoera normalean, non ekipamenduaren zati bat urtero birjarri behar den eta ekipamenduaren erabilerak ordezkatzeko data gerturazten duen.

Erabil-kostu eta kostu gehigarrien kontzeptuen abantailetakoa bat hauek kapital zirkulatzaileari edo kapital likidoari zein kapital finkoari aplikatu ahal izatea. Lehengaien eta kapital finkoaren arteko oinarritzko desberdintasuna ez da erabil-kostu eta kostu gehigarriarekin duten lotura, baizik eta lehengaiak eragiketa bakar baten bidez kapital likido bihurtzea, kapital finkoaren kasuan, ordea, iraunkorra eta gradualki baino erabiltzen ez dena izanik, bihurtze hori erabil-kostuek eta zenbait epealditan zehar irabazitako mozkin batzuek gauzatzeko dutelarik.

VII KAPITULUA

Aurrezki eta inbertsioaren esanahietan sakonduz

I

Aurreko kapituluan *aurrezki* eta *inbertsioari* buruz egindako definizioaren arabera, biek zenbateko berdinekoak izan behar dute, nahitaez, zeren eta komunitatearentzat, oro har, gauza beraren bi ikuspegi ezberdin besterik ez baitira. Hala ere, egungo hainbat autorek (baita nik neuk ere, nire *Treatise on Money* liburuan) horiei buruz eginitako definizio berezien arabera, ez dute zertan berdinak izan behar. Beste egile batzuek desberdinak izan ahal izatearen hipotesian oinarritu dituzte beren lanak, aldeaz aurretik horien definizioak ematen ere saiatu gabe. Baliagarria izan daiteke, beraz, bi kontzeptu horietan ohizkoak diruditen zenbait erabileraren sailkapena egitea, beste azterketa batzuei begira argigarri izan daitekeelakoan.

Nik dakidanez, jende guztia bat dator *aurrezki*a sarrerak kontsumorako gastuaren gain duen soberakina dela esanda. Beste adiera bat ematea ez litzateke batere egokia izango, bai ordea nahasgarria. Ez dago iritzi-desberdintasun handirik «kontsumo-gastuen» esanahiaz ere. Hortaz, interpretazio-arazoak *inbertsioa* eta *sarrera* kontzeptuetan ageri dira.

II

Hel diezaiogun lehenengo *inbertsioari*. Herri-hizkeran hitz honek partikular edo sozietate batek izakin berri edo zahar bat erostea

esan nahi du. Zenbaitetan Burtsan balore bat erostera ere muga liteke. Baina higiezin, makineria edo erdibukatutako edo bukatutako produktuen stocketan inbertitzeaz ere hitz egin daiteke; eta «inbertsio berria» delako terminoak, «berrinbertsio»koak ez bezala, zentzu zabalean, sarreraren bidez egindako edozein motatako kapital-ondasunaren erosketa esan nahi du. Inbertsio baten salmenta inbertsio negatibo gisa hartzen badugu, hau da, desinbertsio gisa, nire definizioa bat dator herriak erabiltzen duenarekin, inbertsio zaharren arteko ganbioek, nahitaez, elkar ezabatu egiten baitute. Jakina, zorrak sortu eta kitatzean behar diren zuzenketak egin beharko ditugu (horren barne, kreditu- edo moneta-kantitateen trukeak), baina, komunitatea oro har, kreditu-zenbateko osoaren igoera edo jaitsiera beti zor-zenbateko osoaren igoera edo jaitsieraren berdina denez, inbertsio osoaz jardutean arazo hau ere desagertu egiten da. Ondorioz, sarrera, herri-hizkeran ulertuta, nire sarrera netoari dagokiola onartzen badugu, herri-hizkerako inbertsio osoa eta nik adierazitako inbertsio netoa berdina izango dira, hau da, izaera guztietako kapital-ekipamenduen gehigarri netoa berdina izango da, sarrera netoaren kalkuluan sartzen diren ekipamendu zaharraren balio-aldaketak kontuan hartu ondoren.

Beraz, horrela definituriko inbertsioak bere barne hartzen du kapital-ekipamenduaren igoera, hau kapital finkoa, kapital zirkulatzaila nahiz kapital likidoa izan; eta definizioen arteko desberdintasun nagusiak (inbertsioa eta inbertsio netoaren artean egindakoaz aparte) hauetako kategoria bat edo batzuk inbertsiotik kanpo utzita-koan sortzen dira.

Esaterako, Hawtrey jaunak, zeinak kapital likidoaren aldaketek, hau da, saldu gabeko produktuen stocken nahi gabeko igoerei (edo jaitsierei), aparteko garrantzia ematen dien, honelako aldaketak kanpo uzten dituen inbertsioaren definizioa proposatu du. Aurrezkiak inbertsioaren gain izan dezakeen soberakina eta saldu gabeko produktuen nahi gabeko stocka handitzea gauza bera dira, hau da, kapital likidoaren gehikuntza. Hawtrey jaunak ez nau konbentzitu arazoaren gakoa hau izateaz, zeren eta hasieran aurreikusi ez ziren aldaketak zuzentzeaz besterik ez baita arduratzen, hasieran, ongi edo gaizki, aurreikusi zirenen kaltetan. Hawtrey jaunak dioenez, enpresarioek egunero finkatzen duten output-eskalaren eta aurreko eguneko eskalaren arteko diferentzia, saldu gabeko produk-

tuen stockek eragiten dituzten aldaketen arabera da. Egia da, kontsumo-ondasunen kasuan, aldaketa hauek enpresarioen erabakietan eragin handia dutela. Baina nire iritziz ez dago inolako arrazoirik erabaki horietan eragin dezaketen bestelako faktoreak alde batera uzteko, eta beraz, nahiago dut eskari efektiboaren aldaketa osoa kontuan hartu, eta aurreko epealdiko saldu gabeko stockak handiagotu edo txikiagotu diren besterik begiratzen ez duen aldaketaren zati hori alde batera utzi. Are gehiago, kapital finkoari dagokionez, eta ekoizteko erabakien ondorioetarako, erabili gabeko gaitasunaren igoera edo jaitsiera, saldu gabeko stocken igoera edo jaitsieraren arabera da, eta Hawtrey jaunaren metodoaren bidez ez dakit nola har litekeen kontuan gutxienez besteak adina garrantzia duen faktore hau.

Dirudienez, Austriar eskolako ekonomialariek erabiltzen dituzten kapital-sorrera eta kapital-kontsumo terminoek ez dute nik definitu ditudan inbertsio eta desinbertsioaren esanahi berdina, ezta inbertsio eta desinbertsio netoena ere. Zehazki, ekonomialari hauen arabera, kapital-kontsumoa gertatzen den baldintzetan argi dago ez dela murrizketa netorik gertatzen kapital-ekipamenduan, azken hau ares-tian definitu den bezala ulertuta. Hala ere, ezin izan dut termino hauen esanahia argiro azaltzen duen pasarterik aurkitu. Esaterako, kapital-sorrera ekoizpen-epea luzatzen denean gertatzen dela baieztatzea, ez da inolako aurrerapausoa.

III

Ondoren, sarreren definizio berezi batean edota sarrerak kontsumoaren gainetik duen soberakinean oinarritutako Aurrezki eta Inbertsioaren arteko desberdintasunez aritutako gara. Honi buruzko adibidetzat har daiteke nire *Treatise on Money* lanean termino hauei eman nien erabilera. Zeren eta, 92. orrialdean azaldu nuen bezalaxe, idazlan hartan sarrerari buruz egin nuen definizioaren eta orain ematen dudaren artean desberdintasun bat dago; hain zuzen, orduko hartan sarrera gisa ez nuen ulertu enpresarioek benetan lortu dituzten irabaziak, (nolabait) beren «irabazi normalak», baizik. Beraz, aurrezkiak inbertsioaren gainetik duen soberakinak honakoa esan

nahi zuen: alegia, output-eskalaren ondorioz, enpresarioak ekipamenduaren jabetzatik normala baino irabazi txikiagoa lortzen ari zirela; eta aurrezkiak inbertsioaren gainetik duen soberakin gehikuntzari zegokionez, horrek irabazi efektiboak murrizten ari zirela esan nahi zuen, eta beraz, enpresarioek beren outputa murrizteko arrazoirik izango zutela.

Oraingo ikuspuntuaren arabera, enpresarioek enplegu-bolumena (eta beraz, output eta benetako sarreraren maila) beren oraingo eta etorkizuneko irabaziak ahal den handienak izatea bultzatuta finkatzen dute (erabil-kostuaren zenbatespena, berak sarrera maximoa lortuko duela uste duen ekipamendu-erabileraren arabera izanik); eta irabazi maximoak emango dituen enplegu-bolumena, hainbat hipotesiren arabera kontsumo eta inbertsioaren emaitzak, hurrenez hurren, elkarri gehituta aurreikuspenek ematen duten eskari osoaren arabera izango da. *Treatise on Money* liburuan egin nuen definizioaren arabera, inbertsioak aurrezkiaren gainetik duen soberakinari dagokion *ganbio* kontzeptua, irabazien aldaerak aztertzeke modua izan zen, baina liburu hartan, ordea, ez nituen argi bereizi aurreikusitako emaitzak eta lortutako emaitzak.⁴⁸ Orduko hartan adierazi nuenez, inbertsioak aurrezkiaren gainetik zuen soberakina zen output-bolumeneko aldaeretakoa indar eragilea. Beraz, argudio berria (nire ustetan) askoz zehatz eta argigarriagoa bada ere, funtsean, aurrekoaren garapena da. *Treatise on Money* idazlanean erabilitako hizkeran, honela adieraziko genuke: enplegu-bolumen eta output jakin batekin, inbertsioak aurrezkiaren gainetik duen soberakina gehitzeko aurreikuspenak enpresarioak enplegu-bolumena eta outputa handiagotzera bultzatuko ditu. Nire oraingo nahiz lehengo arrazoiketaren garrantzia honetan datza: alegia, enplegu-bolumena enpresarioek egindako eskari efektiboen azterketek finkatzen dutela, eta eskari horretan gehikuntzarik egoteke baldintza, inbertsioak aurrezkiaren gainetik nolabaiteko gehikuntzarik izango duenaren aurreikuspena egotea izango da, beti ere termino hauek *Treatise on Money* lanean duten adieretan ulertuta. Dena den, oraingo lan honetan adierazi diren bilakaera guztiak direla eta, *Treatise on Money* liburuko azalpena nahasgarria eta zehazgabea geratzen zaigu.

D.H. Robertson jaunak oraingo sarrera eta *atzoko* kontsumo eta inbertsioaren arteko batura berdinak direla definitu du; oraingo

aurrezkia, berak ulertzen duen zentzuan, beraz, *atzoko* inbertsioaren berdina da, atzoko kontsumoak gaurkoaren gainetik duen soberakina gehitu ondoren. Definizio honen arabera, aurrezkia inbertsioa baino handiagoa izan daiteke, eta bien arteko diferentzia atzoko sarrerak (nik ulertzen dudana zentzuan) oraingoaren gainetik duen soberakinaren berdina litzateke. Beraz, Robertson jaunak aurrezkiak inbertsioaren gainetik soberakina duela esaten duenean, nik sarrera gainbehera doala esanda adierazi nahi dudana ideia berdina azaltzen ari da, eta bere definizioaren araberako aurrezki-soberakina eta nirearen araberako sarrera-jaitiera gauza bera izango lirateke. Oraingo aurreikuspenak, atzo lortutako emaitzek beti finkatzen dituztela egia balitz, oraingo eskari efektiboa eta atzoko sarrera berdina izango lirateke. Ondorioz, Robertson jaunaren metodoa nirearen alternatibo gisa har daiteke (agian, honekiko lehen gerturatzea izan liteke), eskari efektiboa eta sarrera elkarrekin erkatuta egin nahi izan dudana bereizketa berdina eginez, eta bereizketa hori oinarritzkoa da analisi kausala burutzeko.⁴⁹

IV

Oraingo honetan, «derrigorrezko aurrezkia» delakoarekin lotuta dauden askoz ere ideia zehaztugabeei helduko diegu. Ba al du inolako esanahi argirik adierazpen horrek? Nire *Treatise on Money* liburuan (I. Lib., 171. or., oinoharra), adierazpen horren lehenagoko erabilera batzuen berri eman eta argi utzi nuen inbertsioa eta «aurrezkia» —nik han definituriko zentzuan— terminoen arteko desberdintasunarekin nolabaiteko harremanik bazuela. Orain, ordea, ez nago ziur harreman hori uste bezala badenentz. Nolanahi ere, badirudi «derrigorrezko aurrezkia» eta berrikiago erabili diren antzeko adierazpenek (Hayek eta Robbins irakasleek, esaterako) ez dutela harreman zehatzik *Treatise on Money* lanean adierazitako inbertsioa eta «aurrezkia» terminoen arteko desberdintasunarekin. Izan ere, autore hauek termino horrekin esan nahi dutena zehazki azaldu ez badute ere, argi dago, beraiek emandako zentzuan, «derrigorrezko aurrezkia» delakoa dirukantitatearen edo banku-kredituen aldaeretan oinarritzen dela, eta horien arabera neurtzen dela.

Argi dago output- eta enplegu-bolumenaren aldaera batek sarreran ere aldaerak eragingo dituela, alokairu-unitateetan neurtuta; alokairu-unitateen aldaerak, aldi berean, mailegari eta mailegu-emai-leen artean sarreren birbanaketa eragingo duela, baita sarrera-aldaerak ere, dirutan neurtuta; eta bi kasuetan ere aurreztutako zenbatekoa aldaraziko dela (edo aldaraz daitekeela). Ondorioz, diru-kantitatearen aldaerek, interes-tasetan duten eraginaren bidez, sarreren bolumen eta banaketan aldaketak sorraz ditzaketenez (aurrerago ikusiko dugunez), gerta liteke, zeharka, aurreztutako zenbatekoan aldaketarik eragitea. Baina aurreztutako zenbatekoan tankera honetako aldaerak ez du lotura handiagoa «derrigorrezko aurrezkiarekin», baldintzen aldaketaren eraginez aurreztutako zenbatekoan sortzen den beste edozein aldaerak baino; eta ez dago modurik bata besteetatik bereizteko, baldin eta, estandar gisa, baldintza jakin batzuetan aurreztutako zenbatekoa arau edo hartzen ez badugu. Are gehiago, ikusiko dugunez, diru-kantitatearen aldaera jakin batek aurrezki osoan sor ditzakeen aldakuntzak oso desberdinak izan daitezke, eta beste faktore askoren menpe daude.

Beraz, «derrigorrezko aurrezkia» delako adierazpenak ez du zentzurik, aldeztatik aurrezki-maila estandarrik zehaztu ez badugu. Enplegu betearen egoera iraunkorrari dagokion maila zehaztu badugu (arrazoizkoa dirudienez), definizioa ondokoa litzateke: «Derrigorrezko aurrezkia, epe luzeko oreka-egoeran enplegu betearen egongo balitz aurretuko litzatekeenaren gainetik aurrezki efektiboak duen soberakina da». Definizio honek esanahirik izan badu, baina hemen adierazi den bezala, aurrezkiaren derrigorrezko soberakina oso gertakari bakan eta ezegonkorra litzateke, eta aferen ohiko egoeraren ezaugarria, aurrezkiaren derrigorrezko *eraginkortasun eza*.

Hayek irakaslearen «*Derrigorrezko aurrerazkiaren* Doktrinaren Garapenari buruzko Oharra» idazki interesgarrian⁵⁰ ikus dezakegunez, terminoaren jatorrizko esanahia hau bera izan zen. Hasieran, «Derrigorrezko aurrezkia» edo «Derrigorrezko urritasuna» Benthamen kontzeptua izan zen, eta honek espreski adierazi zuen (diruaren truke sal daitezkeen gauza-kopuruari dagokionez) «eskulana erabat eta egoera abantailatsuenetan enplegatutik»⁵¹ legokeen baldintzetan diru-kantitatearen gehikuntzak izango litzatekeen ondorioez ziharduela. Baldintza horietan, gehitu zuen Bentham-ek, benetako sarrera ezin da

gehiago handiagotu, eta ondorioz, trantsizioaren eraginez izaten den inbertsio gehigarriak derrigorrean urritasuna sorrarazten du «nazio-erosotasun eta justizia nazionalaren» kontura. Honi buruz idatzi duten XIX. mendeko autore guztiek, funtsean, ideia bera erabili dute buruan. Baina nozio zehatz hau enplegu betea ez dagoen egoerara zabaldu nahi izateak zailtasunak sortzen ditu. Jakina, egia da (ekipamendu jakin bati enplegu gehiago aplikatuta enpleguaren errendimendua jaitsi egiten dela eta) enpleguaren gehikuntza *orok* jadanik enplegaturiko langileen sarreretan nolabaiteko galera eragiten duela, baina galera hau enpleguaren gehikuntzari jarrai diezaiokeen inbertsioaren hazkuntzarekin erlazionatzeak ez dirudi arrakasta handia izan dezakeenik. Nolanahi ere, nik dakidala, «derrigorrezko aurrezkian» interesaturiko idazle garaikide bat ere ez da saiatu ideia hau enplegua hazten ari den egoerara zabaltzen; eta dirudienez, oro har, Bentham-en derrigorrezko urritasunari buruzko kontzeptua enplegu betekoa ez den egoerara aplikatzeak nolabaiteko azalpena edo baldintza beharko lukeela alde batera utzi dute.

V

Aurrezkia eta inbertsioa, beren esanahi arruntetan hartuta, elkar bereiz daitezkeelako ideia nagusitu izana, nire ustez, ilusio optiko baten ondoriozkoa da; hain zuzen, ezarle bakoitzak bere bankuarekin duen erlazioa aldebakarreko eragiketa gisa ikusteagatik, eta ez benetan den aldebiko eragiketa gisa hartzeagatik. Ezarle batek eta bere bankuak eragiketa bat burutzeko ea bat edo beste izan dezakete, harik eta aurrezkiak banku-sistematik desagerrarazi eta horrela inbertsiorako gal daitezten; edota, alderantziz, banku-sistemak inolako aurrezkirik ez dagokion inbertsioa egiteko bidea izan dezake. Baina inork ezin du aurreztu ezer eskuratu gabe, eskudiru, zor nahiz kapital-ondasun gisa izan; eta inork ezin du lehendik ez zuen ezer eskuratu, *baldin eta* balio berdineko zerbait berria sortzen ez bada, *edo* beste norbaitek berak lehenago zuenaren balio berdineko zerbait ematen ez badio. Lehenengoa gertatuz gero, horren ondoriozko beste inbertsio bat egongo da; bigarrenean, beste pertsonak zenbateko berdina «des-

aurreztu» beharko luke. Izan ere, bere aberastasun-galera sarreraren gainetik dagoen kontsumo-soberakinaren ondoriozkoa da, eta ez kapital-ondasun batek izandako balio-aldaketak sortu duen kapital-galera-
ren ondoriozkoa, zeren eta kasu honetan ondasunak ez baitu lehena-
goko balioa galdu; aitzitik, ondasun horri dagokion ohizko balioa jaso
egiten du, baina ez du inolako aberastasun gisa gordetzen, hau da,
balio hau bere ohizko sarrera gainditzen duen jadaneko kontsumoari
aurre egiteko erabiliko du. Are gehiago, ondasun horren emalea
banku-sistema bada, eskudirua utziko duen baten batek egon beharko
du. Beraz, lehenengoz hartutako pertsonaren aurrezkiak gainerako
beste guztienei gehitzen badizkiegu, lortutako zenbateko osoak eta
oraingo ekitaldiko inbertsio berriaren zenbatekoak, nahitaez, berdinak
izan behar dute.

Bestalde, banku-sistemak sortutako kredituek «jatorrian inola-
ko aurrezkirik ez dagokien» inbertsioak egiteko aukera ematen dute-
lako ideia, banku-kreditua igotzeak duen ondorioetako bat isolatuta
besterik ezin daiteke ulertu, gainerako ondorioak alde batera utzita.
Enpresario bati, lehenagotik zituen kredituei gehituta, beste kreditu
bat ematen bazaio eta horrek inbertsio gehigarria egiteko aukera ema-
ten badio, eta bestela inbertsio hori egin gabe geratu izan balitz, sarre-
rak nahitaez handiagotu egingo dira, hain zuzen, normalean inbertsio
gehigarria *gaindituko* duen proportzioan handiagotu ere. Are gehiago,
enplegu beteko egoeran izan ezik, bai sarrera erreala eta bai sarrera
nominala handiagotu egingo dira. Jendeak askatasun osoz erabakiko
du bere sarrera gehigarria zein proportziotan banatu aurrezkiaren eta
gastuaren artean, eta inbertsioa egiteko mailegua eskatu duen enpre-
sarioaren nahia ezingo da gauzatu (bestela ere gertatuko ziratekeen
beste enpresario batzuek eginiko inbertsioen ordeztu izan ezik), jende-
ak bere aurrezkiak handiagotzea erabakitzen duena baino azkarrago.
Bestalde, enpresarioaren erabaki honen ondoriozko aurrezkiak, beste
edozein aurrezki bezain egiazkoak dira. Ezin da inor banku-kreditu
berriari dagokion diru gehigarria hartzera behartu, pertsona horrek,
edozein arrazoi dela eta, beste aberastasun gisa baino diru gehigarri
gisa gordetzea nahiago ez badu. Dena den, egoera berrian baten batek
diru gehigarria gordetzea erabakitzen badu, enplegu, sarrera eta pre-
zioek nahitaez erabaki horretara moldatu beharko dute. Egia da nora-
bide jakin batean eginiko inbertsioaren ustekabeko gehikuntzak

aurrezkiaren eta inbertsioaren zenbateko osoan nolabaiteko irregularitasuna sorraz dezakeela, eta hori gehikuntza behar bezala aurreikusi izan balitz ez litzatekeela gertatuko. Halaber, egia da banku-kreditua emateak hiru joera sortzen dituela ere: 1) outputa igoarazi, 2) alokairu-unitateetan neurtutako ekoizpen marjinalaren balioa igo (errendimenduek beherantza egiten dutenean outputaren gehikuntzari nahitaez jarraitzen zaion egoera) eta 3) alokairu-unitatearen zenbateko nominala igoarazi (ondorio honek, sarritan, enpleguan hobekuntzak eragiten ditu); eta joera hauek eragina izan dezakete sarrera errealek talde desberdinen artean banatzeko orduan. Dena den, aipatu joera horiek outputa handiagotzen ari den egoeran gertatu ohi direnak dira, eta antzekoak izango dira outputaren hazkuntza banku-kreditu bidez izan gabe beste eraren batean gertatzen denean ere. Modu bakarra dago joera hauek saihesteko, hau da, enplegua hobe dezakeen jarduerara edo neurri oro ezabatuz. Hala ere, esandako gehientsuena oraindik ere garatu ez ditugun eztabaiden emaitzei aurrea hartzea da.

Beraz, aurrezkiak beti inbertsioa dakarrela dioen ikuspuntu zaharkituak, erabat zehazgabea eta nahasgarria izanik ere, formalki, sendotasun handiagoa du ikuspuntu berriak baino; alegia, inbertsiorik gabe aurrezkia egon daitekeela, edota inbertsioa «benetako» aurrezkiarik gabe egon daitekeela, dioena baino. Akatsa, hain zuzen, norbaitek aurretzen duenean inbertsio osoa zenbateko berdina handiagotzen ari delako ondoriora iristean dago. Egia da norbaitek aurretzen duenean bere aberastasun propioa handiagotzen ari dela. Baina hortik aberastasun osoa ere handiagotzen ari dela ondorioztatuz gero, alde batera utziko genuke baten batek aurretzen duenean beste baten aurrezkiei, eta beraz, baita aberastasunei ere, eragin diezaiekeelako aukera.

Aurrezkia eta inbertsioaren arteko identitatea nola batera daiteke norbanako bakoitzak, beste batzuek inberti dezaketena kontuan hartu gabe, nahi duena aurrezteko «askatasuna» izatearekin? Erantzuna, funtsean, aurrezkia, gastua bezalaxe, aldebiko fenomeno izatean bilatu behar da. Norbanako baten aurrezkiaren zenbatekoak bere sarreran bertan nolabaiteko eraginik izateko aukera gutxi badu ere, bere kontsumoaren zenbatekoak beste batzuen sarreretan dituen erreakzioek ezinezko bihurtzen dute norbanako guztiek aldi berean zenbateko jakin bat aurreztea. Kontsumoa txikiagotuz aurrezkia handiagotzeko saio oro, sarreretan izango duen eragina dela eta, neutrali-

zatu egingo da. Jakina, ezinezkoa da komunitate guztiak, oro har, inbertsio arruntaren zenbatekoa baino *gutxiago* aurreztea, zeren eta tankera horretako ahaleginak, nahitaez, sarrerak igoarazi egingo bailituzke norbanakoek aurreztea erabakitzen duten zenbatekoaren eta inbertsioaren zenbatekoa berdinak diren mailaraino.

Aurreko horren oso antzekoa den beste proposizio baten arabera, norbanako bakoitzak bere diru-kopurua egoki deritzon aldeko duen askatasuna bat dator norbanakoen saldoen baturei dagoen diru-zenbatekoa guztira eta banku-sistemak eratu duen diru-zenbatekoa berdinak izatearekin. Azken kasu honetan berdintasun hori, bakoitzak gordetzea erabakitzen duen zenbatekoa bere sarreraren nahiz gauzen (batez ere baloreen) prezioen menpekoea izatearen ondoriozkoa da, dirua gordetzearen alternatiba naturala gauzak erostea delarik. Bai sarrerak, bai gauza horien prezioak, beraz, nahitaez aldatu egingo dira, harik eta norbanakoek sarrera- eta prezio-egoera berrian aurreztea erabakitzen duten diru-zenbatekoa guztira eta banku-sistemak eratutako diru-zenbatekoa berdinak diren arte. Hauxe da, benetan, mone-ta-teoriaren oinarritzko proposizioa.

Proposizio hauek guztiak, alabaina, eroslerik gabeko saltzaile-rik edota saltzailerik gabeko eroslerik egon ezinaren ondoriozkoak dira. Merkatuarekin alderatuz salerosketa txikiak egiten dituen norbanako batek eskaria aldebakarreko eragiketa ez izatea lasai asko alboratze ere, eskari osoaz jardutean ez dago inola ere alboratze hori egiterik. Hori da, hain zuzen ere, komunitatearen jokabide ekonomikoaren teoriaren eta unitate indibidualaren jokabidearenaren arteko ezberdintasun nagusia, eta horretarako norbanakoarenari dago-kionez, eskari propioan izan ditzakeen aldaketek bere sarrerari ez diotela eragiten suposatzen dugu.

HIRUGARREN LIBURUA

Kontsumitzeko joera

VIII. KAPITULUA

Kontsumitzeko joera:

I. Faktore objektiboak

I

Dagoeneko, metodo eta definizioari buruzko hainbat gai argitzeko I. liburuaren bukaeran utzi genuen gai nagusiari heltzeko egoeran gaude. Gure azterketaren azken helburua enplegu-bolumena finkatzen duten faktoreak aurkitzea da. Oraingoz, enplegu-bolumena eskaintza osoari eta eskari osoari dagozkien bi kurben arteko ebakipuntuak finkatzen duela finkatu dugu. Dena den, eskaintza osoaren kurba, zeina batez ere eskaintzaren baldintza fisikoen menpe dagoen, jadanik ezagunak ez diren bestelako kontsiderazio gutxi ditu. Agian itxura aldetik ezezaguna izango dugu, baina sakoneko faktoreak ez dira berriak. Eskaintza osoaren funtzioari buruz 20. kapituluan hitz egingo dugu berriz; hain zuzen, *enplegu-funtzioa* izenaz alderantzizko kurba aztertzen dugunean. Baina, nagusiki, eskari osoaren kurbak izan duen eginkizuna da orain artean aztertu ez dena; eskari osoaren zereginari eskainiko dizkiogu, bada, III. eta IV. liburuak.

Eskari osoaren funtzioak, enpleguaren edozein bolumen, bolumen horrek emango duela espero den «emaitzarekin» erlazionatzen du. «Emaitza» bi kantitateen arteko baturak ematen du. Hauek dira bi kantitateak: enplegua bolumen jakin batean dagoenean kontsumorako erabiliko den zenbatekoa batetik, eta inbertsiorako erabiliko den zenbatekoa bestetik. Bi kantitate hauek finkatzen dituzten faktoreak oso bestelakoak dira. Liburu honetan lehenari dagozkionak aztertuko ditu-

gu, hau da, enplegu-bolumen jakin batean kontsumorako erabil daitekeen zenbatekoa finkatzen duten faktoreak; eta IV. liburuan, inbertsiorako erabil daitekeen zenbatekoa finkatzen dutenak.

Beraz, hemen enpleguak bolumen jakin bat duenean kontsumorako erabil daitekeen zenbatekoa finkatzeari helduko diogunez, zehatz-mehatz ezarri beharko genuke lehen kantitatea (C) eta azkena (N) erlazionatzen dituen funtzioa. Hala ere, erosoagoa da zertxobait desberdinagoa den funtzioa erabiltzea; alegia, kontsumoa [alokairu-unitateetan neurtua (C_w)] eta N enplegu-bolumen bati dagokion sarrera [alokairu-unitateetan neurtua (Y_w)] erlazionatzen dituen. Metodo honek objektzio bat du, hau da, Y_w sarrera ez dela N enplegu-bolumenaren funtzio bakarra — N baldintza guztietan berbera izanik—. Berez, Y_w eta N -ren arteko erlazioa enpleguaren izaeraren arabera desberdina izan daiteke (nahiz eta, seguraski, oso maila apalean izan). Bestela esan, N enplegu jakin baten bolumena hainbat okupazioen artean bi modu desberdinetan banatuz gero, Y_w sarreraren balio desberdinak lor litezke (enplegu indibidualaren funtzioen forma desberdinen ondorioz —honi buruz 20. kapituluaren hitz egingo dugu). Faktore hau aintzat hartu beharko litzatekeen egoerarik aurki daiteke. Baina, oro har, zilegi da N Y_w -ren finkatzaile bakartzat hartzea. Ondorioz, *kontsumitzeko joera* delakoa, Y_w (alokairu-unitateetan neurtutako sarrera jakin baten zenbatekoa) eta C_w (zenbateko horri dagokion kontsumo-gastua) bi faktore horien arteko c erlazio funtzional gisa definituko dugu, eta beraz

$$C_w = \xi(Y_w), \text{ edota } C = W \cdot \chi(Y_w)$$

Komunitateak bere kontsumorako erabiltzen duen zenbatekoa, argi eta garbi, a) hein batean bere sarreraren zenbatekoaren menpe dago; b) hein batean sarrera horrekin batera dauden bestelako baldintza objektiboen menpe, eta c) hein batean behar subjektiboen eta norbanakoen joera psikologiko eta ohituren menpe, hala nola sarrerak beren artean banatzeko erabiltzen diren printzipioen menpe (zeinak outputak gora egin ahala aldaketak izan ditzakeen). Gastuak egitera bultzatzen duten arrazoiak elkarrekin nahastu egiten dira, eta hauek sailkatu nahi izanez gero, banaketa faltsua egiteko arriskutan egongo ginateke. Dena den, ideiak argitzeko behinik behin, biak bereizi eta kapitulu banatan aztertuko ditugu, hain zuzen, faktore objektiboak eta

faktore subjektiboak izendatutakoetan. Faktore subjektiboak hurrengo kapituluan aztertuko ditugu zehatzago, eta honen barnean daude, bai giza izaeraren ezaugarri psikologikoak eta bai gizartearen ohitura eta instituzioak, zeintzuek, aldagaitzak ez badira ere, aukera gutxi baitute denbora-epe laburrean aldaketa nabaririk izateko (ohizkanpoko edo iraultzako egoeran salbu). Azterketa historikoa egiteko edota mota ezberdineko bi gizarte-sistemen arteko alderaketa egiteko, nahitaez hartu beharko litzateke kontuan faktore subjektiboek kontsumitzeko joeran zein neurritan eragiten duten. Baina, oro har, idazlan honetan faktore subjektiboak ezagunak bailiran jardungo dugu, eta kontsumitzeko joera faktore objektiboen eraginpean baino ez dela aldatzen onartuko dugu.

II

Kontsumitzeko joeraren eraginik duten faktore objektibo nagusiak ondokoak direla dirudi:

1. *Alokairu-unitatearen aldaketa*.- Kontsumoa, (C), zalantzarik gabe, sarrera *errealaren* funtzioa da (nolabait esatearren), sarrera nominalena baino gehiago. Sarreraren banaketa finkatzen duen teknika-
ren, jendearen gustu eta gizarte-baldintzen egoera jakin batean norbako baten sarrera erreal, eskura ditzakeen lan-unitateen arabera hazi edo murriztu egingo da, hau da, alokairu-unitateetan neurtutako bere sarreraren arabera; baina errendimendu beherakorren eragina dela eta, outputaren bolumen osoa hazten denean, sarrera errealaren proportzio txikiagoan haziko da alokairu-unitateetan neurtutako sarrera baino. Beraz, lehen hurbilketan arrazoi osoz onar genezake alokairu-unitatea aldatuz gero enplegu-bolumen jakin bati dagokion kontsumo-gastua ere, prezioak bezalaxe, proportzio berean aldatuko dela; nolanahi ere, zenbaitetan kontuan hartu beharko genuke alokairu-unitatearen aldaketaren ondorioz enpresario eta errentarien artean sarrera errealak banatzeko orduan sortutako aldakuntzek kontsumo osoan izango luketen eragina. Hau alde batera utzita, kontsumitzeko joera alokairu-unitateetan neurtutako sarreraren oinarrituz definitu dugularik, jadanik alokairu-unitatearen aldaketak aintzat hartu ditugu.

2. *Sarrera eta sarreranetoaren arteko diferentziaren aldaketa.*

Arestian azaldu dugunez, kontsumoaren zenbatekoan eragin handiagoa du sarrera netoak sarrera hutsak baino, zeren eta sarrera netoa baita, definizioz, gizakiak kontsumitzeko zenbatekoa finkatzeko orduan begi-bistan duena. Egoera jakin batean, nahikoa erlazio egonkorra egon daiteke bi sarrera-moten artean, hain zuzen, sarrerari dagozkion mailak sarrera netoari dagozkioneekin erlazionatuko dituen funtzio bakarra egoten delako. Horrela ez bada, sarrera netoari eragiten ez dion sarreraren edozein aldakuntza alde batera utzi beharko litzateke, horrek ez baitu kontsumoan eraginik izango; ildo beretik, sarreran eraginik ez duen sarrera netoaren edozein aldakuntza kontuan hartzekoa da. Dena den, aparteko egoeran izan ezik, faktore honek garrantzi praktikorik ote duen zalantza egiten dut. Kapitulu honen laugarren atalean berriz ere helduko diogu gai honi, bertan sakonkiago aztertuko baitugu sarreraren eta sarrera netoaren arteko diferentziak kontsumoan zein ondorio izan ditzakeen.

3. *Kapital-ondasunen aurreikusi gabeko aldakuntzak, sarre - ra netoaren kalkuluan sartu ga beak.*- Aldakuntza hauek are eta eragin handiagoa dute kontsumitzeko joeran, hauek sarreraren zenbatekoarekin ez baitute inolako erlazio egonkor edo erregularrik. Aberastasunen jabe den klasearen kontsumoa oso sentibera izan daiteke aberastasun horien balioan gerta daitezkeen aurreikusi gabeko aldakuntzekiko. Faktore hau, kontsumitzeko joeran epe laburrean aldaketak sor ditzaketen arrazoi nagusiekain sailkatu sartu beharko litzateke.

4. *Etorkizuneko deskontu-tasaren aldakuntzak, hau da, oningo eta etorkizuneko ondasunen arteko ganbio-erlazioarenak.*- Tasa hau ez da interes-tasaren berdina, diruaren erosahalmenak izan ditzakeen etorkizuneko aldakuntzak kontuan hartzen baititu, horiek aurreikusten diren heinean. Bestalde, arrisku-mota guztiak aintzatetsi egiten ditu, esaterako, etorkizunean ondasunak gozatu ahal izateko adina ez bizi-tzeko probabilitatea, edota zerga konfiskatzaileari buruzkoak. Hurbilketa eginez, dena den, interes-tasaren parekotzat har dezakegu.

Faktore honek sarrera jakin bat gastatzeko proportzioan izan dezakeen eragina oso zalantzaragarria da. Interes-tasaren teoria klasikoan,⁵² zeina interes-tasa aurrezki-eskaintza eta -eskarien arteko oreka-faktorea delako ideian oinarritzen zen, eroso zen kontsumo-gastuak, *cete* -

risparib us, interes-tasaren alderantzizko zentzuan aldatu egiten direla suposatzea, eta beraz, interes-tasaren igoerak kontsumoan nolabaiteko jaitsiera eragingo luke. Alabaina, aspalditik onartu izan da berehalako kontsumorako gastatzeko joeran interes-tasak duen guzitzko eragina konplexua eta zalantzarria dela, aurkako joeren arabera, zeren eta aurrezteko egon daitezkeen arrazoi subjektiboetako batzuk errazago aseko baitira interes-tasa igota, beste batzuk ahuldu egingo direlarik. Epe luzean, interes-tasan izandako aldaketa nagusiak, seguraski, gizarte-ohiturak nabarmen aldatzera iritsiko dira; beraz, gastatzeko joera subjektiboari eragingo diote —zaila da, baina, eragina zein norantzatan izango den esatea, esperientziaren argitan ez bada behintzat. Baina interes-tasaren epe laburreko aldaketek ez dirudi gastuetan *zuzeneko* eragirik izan dezaketarik, ez norantza batean eta ez bestean. Jende gutxi dago bere bizimodua interes-tasa ehuneko 5etik 4ra jaitsi delako aldatzen duena, baldin eta beren sarrera osoak berdina izaten segitzen badu. Zeharkako eraginak ugariagoak izan daitezke, denak norantza berekoak ez badira ere. Agian sarrera jakin bat gastatzeko joeran gehienbat eragiten duena —interes-tasaren aldaketen bidez—, aldaketa horiek baloreen edo bestelako ondasunen plusbalio edo baliogaleran duten efektua da. Izan ere, gizaki batek bere kapitalean aurreikusi gabeko balio-gehikuntza izaten badu, normala da ohizko gastua areagotzeko joera izatea, nahiz eta sarreraren ikuspuntutik bere kapitalak lehengo balio berdina izaten jarraitu; eta, alderantziz, kapitalaren baliogalera duenean, joera hori apaltzea. Baina arestian, 3. puntuan, zeharkako eragin hau kontuan hartu dugu jada. Hau alde batera utzita, eskarmentuak ematen digun ondorio nagusia honakoa da, nire ustez; alegia, sarrera jakin batekin egindako gastuetan interes-tasak epe laburrean duen eragina bigarren mailakoa dela eta ia ez duela garrantzirik (salbuespen batekin, beharbada, neurritz gainerako aldaketak direnean). Egia esan, interes-tasa asko jaisten denean, zenbateko jakin batekin eros daitezkeen biziarteko errentaren eta zenbateko berdinak emango lukeen urteko interesaren arteko proportzio-igoerak aurrezki negatiboa sorraraz dezake, biziarteko errenta erostearen bidez zahartzaroari begira neurriak hartzera bultzatzen duelako.

Beharbada puntu honetan sartu beharko litzateke etorkizunari eta honek ekar dezakeenari buruzko aparteko ezjakintasunaren garapenak kontsumitzeko joerari nabarmen eragin diezaiokeen ez ohiko egoera ere.

5. *Politika fiskaleko aldakuntzak.*- Norbanakoaren aurrezteko joera aurreztetik lortzea espero duen etorkizuneko sarreraren arabera-koa denez, argi dago, interes-tasarenaz gain gobernuen politika fiskalaren eragina ere izango duela. Sarreraren gaineko zergak (batez ere «irabazi gabeko» sarreraren gain diskriminatu eragiten dutenean), kapitalaren plusbalioaren gaineko zergak, jaraunspenen-zergak eta antzekoak, interes-tasak hainbat eragin dute aurrezkian; eta politika fiskalean izan daitezkeen aldakuntzek interes-tasa baino garrantzi handiagoa izan dezakete, aurreikuspenetan behinik behin. Politika fiskala, nahita, sarrerak berdinago banatzeko bide gisa erabiltzen bada, are eta gehiago igoraraziko du kontsumitzeko joera.⁵³

Halaber, kontuan izan behar da gobernuek zerga arruntekin eratutako amortizazio-fondoak zorrak kitatzeko erabiltzeak kontsumitzeko joera osoan nola eragiten duen. Fondo hauek talde-aurrezkiaren mota bat dira, eta amortizazio-fondo handiak eratzeko asmoa duen politika, zenbait egoeratan, kontsumitzeko joeraren murriztailea izango da. Hori dela eta, gobernu-politika goitik behera aldatu, eta zorrak onartzetik amortizazio-fondoak eratzera pasatuz gero (edota *alderantziz*), eskari efektiboan murrizketa handia (edota hedakuntza nabarmena) sorraraz dezake.

6. *Etorkizuneko eta oraingo sarreraren arteko erlazioari buruzko aurreikuspenen aldaketak.*- Faktore hau aipatu beharra dago zerrenda formalki osatu nahi badugu. Baina norbanako baten kontsumitzeko joeran eragin handia izan badezake ere, komunitatean, oro har, faktore honen eragina neutralizatu egingo litzateke. Bestalde, normalean, zalan-tza gehiegi sorrarazi ohi du eragin nabarmenik izateko.

Beraz, atera dezakegun ondorioa honakoa da: alegia, egoera jakin batean kontsumitzeko joera nahikoa funtzio egonkor gisa har daitekeela, baldin eta alokairu-unitatetik diru-zenbatekoari buruzko aldaketak kendu badira. Kapital-balioen aurreikusi gabeko gorabeherak kontsumitzeko joera aldaraz dezakete. Interes-tasaren eta politika fiskalaren aldaketa nabarmenek nolabaiteko eragina izan dezakete. Baina aldaraz lezaketan gainerako faktore objektiboei dagokienez, hauek erabat alde batera utzi gabe ere, egoera arruntetan aukera gutxi dute ondoriorik izateko.

Egoera ekonomiko orokor jakin batean, alokairu-unitateetan neurtutako kontsumo-gastua, batez ere, output- eta enplegu-bolu-

menaren araberakoa izateak, gainerako faktoreak «kontsumitzeko joeraren» funtzio orokorraren baitan sartzea justifikatzen du, zeren eta gainerako faktoreak alda badaitezke ere (eta hori ezin da ahaztu), alokairu-unitateetan neurtutako sarrera osoa baita, arau orokor gisa, eskari osoko funtzioaren kontsumo-osagaian eragiten duen aldagai nagusia.

III

Beraz, kontsumitzeko joera nahikoa funtzio egonkorra dela onartu delarik eta, oro har, kontsumo-zenbateko osoa sarrera-bolumen osoaren araberakoa dela (bi kantitateak ere alokairu-unitateetan neurtuta), eta joeran bertan eragindako aldaketak bigarren mailakoak baidiran hartuta, zein da funtzio honen forma normala?

Funtsezko lege psikologikoaren arabera, eta horretan erabat oinarri gaitzek, bai *a priori* (giza jokabideari buruz dugun ezagutzatik abiatuta) eta bai *a posteriori* (esperientziak erakutsitakotik abiatuta) oro har eta batez beste, gizakiak bere sarrerak gehitu ahala, kontsumoa handiagotzeko joera du, baina ez sarreraren gehikuntzaren neurrian adina. Bestela esan, C_w kontsumo-zenbatekoa izanik eta Y_w sarrerari dagokiona (biak ere alokairu-unitateetan neurtuta), C_w eta

Y_w zeinu berekoak dira, baina lehenengoa bigarrena baino txikiagoa da, hau da, dC_w/dY_w positiboa eta bat baino txikiagoa da.

Aurreko hau, batez ere, epe laburrez ari garenean betetzen da, esaterako, enpleguaren gorabehera zikliko gisa ezagunak direnetan, hauetan ohiturek, iraunkorragoak diren beste joera psikologiko batzuek ez bezala, ez baitute baldintza objektiboen aldaketetara egokitze nahikoa denbora. Norbanakoaren ohizko bizimoduak izan ohi du lehentasuna bere sarreraren banaketan, eta sarrera erreala eta ohizko bizimoduari dagozkion gastuen artean dagoen diferentzia aurrezteko gai izango da; edota, bestela ere, norbanakoak bere gastuak bere sarreraren aldaketetara egokitzen baditu, modu ez-perfektuan eta epe laburrean egingo du. Hortaz, sarritan, sarrera gorakorrari aurrezki handiagoa jarraituko zaio, eta sarrera beherakorrari aurrezki murritzagoa, diferentziak hasieran ondoren baino handiagoak izanik.

Baina sarreraren epe laburreko *aldaketak* alde batera utzita, argi dago, halaber, sarrera-maila garai absolutuak, oro har, sarrera eta kontsumoaren arteko tartea zabalarazi egingo duela, zeren eta norbanakoek beren nahiz familiaren oinarritzko beharrak asebetetzeko dituzten arrazoiek, normalean, indar handiagoa izaten baitute aurrezteko arrazoiek baino, zeintzuek nahikoa konfort-maila handira heldu arte benetako garrantzirik ez duten. Arrazoi hauek direla eta, oro har, benetako sarre-rak igo ahala, gero eta *sarrera-proporzio* handiagoa aurreztuko da. Baina aurreztutako sarrera-proporzioa handiagotu ala ez, gure ustetan, komunitate modernoan dagoen oinarritzko lege psikologiko hau bete-tzen da; alegia, komunitatearen benetako sarrera gehitu arren, bere kon-tsumoa ez dela *balio absolutu* berdinean handiagotuko eta, hala, zenba-teko absolutu handiagoa aurreztuko da, nahitaez, baldin eta aldi berean beste faktoreek aparteko garrantzia duen aldaketaren bat jasaten ez badute. Aurrerago ikusiko dugunez⁵⁴, sistema ekonomikoaren egonkor-tasuna lege honek praktikan duen eraginean datza. Honen arabera enplegua eta, beraz, sarrera osoa hazi egiten badira, ez da enplegu gehi-garri *osoa* beharko kontsumo gehigarriaren beharrak asebetetzeko.

Aitzitik, enplegu-bolumena jaistearen ondoriozko sarreraren murrizketak, muga batetik aurrera, kontsumoa sarrera baino handia-goia izatea eragin dezake, norbanako zein erakundeak garai hobean gordetako erreserbez baliatzen direlako eta gobernuak ere, nahi izan ala ez, aurrekontu-defizitean sartu edota, esaterako, langabeziari nola-baiteko arnasa ematearren diru-maileguak eskatzen dituztelako. Ondorioz, enplegua maila baxura erorita, kontsumo osoaren zenbate-koa benetako sarrerarena baino maila txikiagoan jaitsiko da, bai nor-banakoen ohizko jokabidearen ondorioz eta bai gobernuak izan deza-keten politikaren ondorioz; honexek azaltzen digu, hain zuzen ere, normalean maila apaleko gorabehera batekin beste oreka-egoera bat zergatik lor daitekeen. Horrela ez balitz, enplegua eta sarrera jaisten hasita, izugarri urrunera iritsi ahal izango lirатеke.

Ikusiko dugunez, printzipio soil honen bidez arestiko ondorio berberera irits gaitezke, hau da, enpleguaren gehikuntza inbertsioaren gehikuntzarekin batera baino ezin dela gertatu, kontsumitzeko pro-pentsioan inolako aldaketarik ez dagoen bitartean, jakina. Izan ere, enplegu-igoera dagoenean kontsumitzaileek eskaintza osoaren prezio-gehikuntza baino gutxiago gastatuko dutenez, enplegu-igoera horrek

errentagarri izateari utzi egingo dio, inbertsioaren gehikuntzak sortu-tako galera betetzea ez bada salbu.

IV

Komenigarria litzateke lehen adierazi den hori ez gutxiestea, hau da, enplegua aurreikusitako kontsumo eta inbertsioaren arabera-koa izanik, kontsumoa, gainerako guztia berdin mantenduz, sarrera *netoaren* arabera-koa dela; alegia, inbertsio *netoarena* (sarrera netoa, kontsumoa *gehi* inbertsio netoaren berdina izaki). Bestela esan, sarre-ra netoa kontuan hartu aurretik egitea beharrezkotzat jotzen den finantza-hornikuntza zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txikiagoa izango da inbertsio-maila jakin batek kontsumoaren, eta beraz, enple-guaren alde izango duen eragina.

Finantza-hornikuntza (edo kostu gehigarri) guztia oraingo epe-aldian dagoen ekipamenduaren mantenimendurako gastatzen bada, kontuan hartu ohi da. Baina finantza-hornikuntzak jadaneko manteni-mendurako gastu errealararen den zenbatekoa *gainditzen* duenean, enpleguan dituen ondorio praktikoak zeintzuk diren ez dira beti naba-ritzen. Izan ere, soberakin horren zenbatekoak ez du zuzenean inber-tsio arruntik sorrarazten eta ez da kontsumitzeko erabilgarria ere. Beraz, beste inbertsio batzuen bidez orekatu beharra dago, eta inber-tsio horien eskaria finantza-erreserba egiteko kontuan hartu den eki-pamendu zaharraren oraingo higadurarekiko guztiz independientea da; ondorioz, oraingo sarrera sortzeko dagoen inbertsio berri erabil-garria, era berean, murriztu egiten da eta beharrezkoa da beste inber-tsio batzuetarako eskaria handiagotzea enplegu-bolumen jakin batera heldu ahal izateko. Are gehiago, antzeko kontsiderazioak aplika dakizkioke, hein handi batean, erabil-kostuaren barneko higaduraren kenkariari, baldin eta higadura hori benetan konpondu ez bada.

Demagun, eraitsia edota bertan behera utzia izan artean, bizi-tzeko egokia den etxe bat dugula. Jabeak maizterrek ordaindutako urte-ko errentari bere balioaren zenbateko bat kentzen badio eta zenbateko hori jabeak mantenurako erabiltzen ez badu eta kontsumorako sarrera neto erabilgarri gisa hartzen ez badu, erreserba hori, *U* nahiz *V*-ri dago-

kiona izan, etxeak irauten duen bitartean enplegurako traba izango da, eta etxea berriz eraiki bezain laster traba hori desagertu egiten da.

Ekonomia geldikorrean honek guztiak ez luke aipatzea mereziko, zeren eta urtero etxe zaharretan egindako baliogaleragatiko kenkariak maila berdinean urtero bertan behera geratu direnen ordeztatu eraiki etxe berriekin konpentsatuko bailirateke. Aitzitik, faktore hauek garrantzitsuak izan daitezke geldikorra ez den ekonomian, batez ere epe luzeko kapital-inbertsioaren hedapen kementsuari jarraitzen zaion ondo-ondoko epealdian. Izan ere, egoera horretan, inbertsio berriak, hein handi batean, enpresarioek oraingo ekipamenduaren arabera egiten dituzten finantza-hornikuntza handiagoek zurgatuko dituzte, eta denborak aurrera egin ahala ekipamendua higatu egiten den arren, oraindik ere ekipamendua konpondu eta berriztatzeko gastua eta gordetako finantza-hornikuntza guztia ez dira berdinak izatera iritsi; ondorioz, sarrerak ezin du inbertsio netoaren zenbateko oso txikira egokitzeko bezain maila baxuaren gainetik egon. Beraz, amortizazio-fondok eta tankerako beste hornikuntza batzuk kontsumitzaileen gastu-ahalmena murrizteko gai dira, hornikuntza horiek iragartzen dituzten ordezkapen-gastuen eskaria jokoan parte hartu baino askoz ere lehena; go; bestela esan, eskari efektibo arrunta murriztu egiten dute, eta ordezkapena benetan burutzen den urtea arte ez dute handiagotzen. Ondorio honi «finantza-zuhertasuna» gehituz gero (hau da, ekipamendua benetan higitzen dena baino *azkarrago* amortizatzea egokiagoa dela dioen ideia gehituz gero) azken emaitza benetan larria izan daiteke.

Esaterako, Estatu Batuetan 1929. urte inguruan, aurreko bost urteetako kapitalaren hedapen azkarrak, progresiboki, berriztatzeko inolako beharrik ez zuen tresneriari begira amortizazio-fondo eta baliogaleragatiko kenkari piloa sorrarazi zuen, eta honek hain maila handia lortu zuenez gero, guztiz berria zen enplegu-bolumen izugarri handia behar izan zen finantza-hornikuntza hauek zurgatzeko bakarrik; eta hortik aurrera inbertsio gehiago aurkitzea ia ezinezkoa izan zen enplegu beteko gizartea aurreztera prest egongo litzatekeen zurgatu ahal izateko. Faktore hau, huts-hutsik, nahikoa izan zatekeen krisia sorrarazteko, eta, are gehiago, oraindik ere beheraldian zehar «finantza-zuhertasunarekin» aurrera egiteko gai ziren enpresa handiek bere horretan jarraitu zuten, guztia oztupo handia izan zen berehala errekuiperatu ahal izateko.

Halaber, Britainia Handian, gerra ondorengo eraikuntzen eta bestelako inbertsioen bolumen handien ondorioz, gaur egun (1935) konponketa- eta berrikuntza-gastuetarako behar direnak baino askoz ere amortizazio-fondo gehiago dago. Haatik, inbertsioak tokian tokiko agintaritzen edo erakunde publikoen eskutik egin izan direnean joera hau areagotu egiten da, finantza-administrazio «osasuntsuaren» printzipioan oinarrituz, sarritan ordezkapena beharrezkoa izan baino lehen hasiera-kostua erabat amortizatzeko adinako amortizazio-fondoak izatea exigitzen baitute. Ondorioz, partikularrak beren sarrera guztiak gastatzeko prest baleude ere, oso egiteko zaila izango litzateke enplegu bete berreskuratzea agintaritza publiko eta erdi-publikoek ezarritako legezko hornikuntzen bolumen izugarri horrekin (beste edozein inbertsiotatik erabat bereizita baitaude). Egun, tokian tokiko agintaritzen amortizazioak, oker ez banago,⁵⁵ urtean beren inbertsio berri guztietarako gastatzen dutenaren zenbateko osoaren erdia baino zifra handiagora heltzen dira.⁵⁶ Dena den, Osasun Ministerioak udal-agintariei beren gastuak lehenbailehen amortiza ditzatela ohartarazten dienean, seguraski ez dakite tankera horretako politikak langabeziaren arazoa zenbateraino oker dezakeen. Norbanako bati bere etxea eraikitzen laguntzeko Eraikuntza Sozietateek egiten dituzten aurrerakinei dagokienez, zor hori etxea benetan higitu dena baino azkarrago kitatzeko nahiak jabeak bestela aurreztuko ez zukeena aurrez dezan eragin dezake; agian ego-kiagoa litzateke faktore hau kontsumitzeko joera zuzenean murrizten dutenen artean sailkatzea, beren ondorioengatik sarrera netoetan eragiten dutenen artean baino. Berez, Eraikuntza Sozietateek emandako hipoteka-maileguen diru-itzulketak, 1925. urtean 24.000.000 £-koak izatetik, 1933an 68.000.000 £-raino igo ziren, aurrerakin edo mailegu berriak 103.000.000 £-koak besterik ez baziren ere; eta, seguraski, gaur egun diru-itzulketa horiek oraindik ere handiagoak izango dira.

Colin Clarck jaunaren *National Income, 1924-1931* idazlanetik argi eta garbi ondoriozta daitekeenez, inbertsioa da, inbertsio netoa baino askoz ere nabariago, produkzio-estatistiketan agertzen dena. Halaber, Clark jaunak erakutsi egiten digu baliogalera eta abarrek inbertsio-balioarekin zenbaterainoko proportzioa duten. Esaterako, Britainia Handian inbertsioaren eta inbertsio netoaren zenbatekoak 1928 eta 1931⁵⁷ bitartean ondoko taulan adierazitakoak izan ziren, baina kontuan hartu beharrekoa da bere inbertsio gordina (antza denez

erabil-kostuaren zati bat duena) gure inbertsioa baino zertxobait handiagoa dela, eta bestetik, bere «inbertsio netoaren» eta gurearen arteko erlazioa ez dela oso argi agertzen:

	<i>Milioikalibratan</i>			
	<i>1928</i>	<i>1929</i>	<i>1930</i>	<i>1931</i>
Inbertsio gordina - Outputa	791	731	620	482
«Kapital zaharraren higadura fisikoaren balioa»	433	435	437	439
Inbertsio netoa	358	296	183	43

Kuznets jauna oso antzeko ondorioetara iritsi zen Estatu Batuetako 1919 eta 1933 bitarteko *Kapital g. ordinarener aketa*-ren (hala izendatzen du berak guk inbertsioa deritzoguna) estatistikak biltzen jardun ostean. Outputari dagozkion estatistikek egiaztatzen duten gertakari fisikoak, nahitaez, inbertsio gordina izan behar du eta ez inbertsio netoa. Kuznets jaunak, halaber, inbertsio gordinetik inbertsio netora pasatzearen zailtasunekin topo egin du. Berak dioenez, «kapital gordinaren eraketatik kapital netoaren eraketara pasatzeko oztopoa (hau da, egun ditugun ondasun iraunkorrei zuzenketak egiteko zailtasun bakarra) ez da datu-faltarik izatea. Urte asko irauten duten ondasunen urteroko kontsumoaren kontzeptua bera anbiguotasunez beteta dago». Era berean, amaieran honakoa onartzen du: hau da, «beren aktiboen balio galera eta higadurari dagokien zuzenketa egiteko enpresek beren kontu-liburuetan adierazten dituzten amortizazioek behar bezala neurtzen dute enpresek erabilitako ondasun bukatuen, iraunkorren eta izakinen kontsumo-bolumena». ⁵⁸ Bestalde, norbanakoen esku dauden etxe edo bestelako ondasunentzako ez du inolako kenkaririk proposatzen.

Estatu Batuei buruzko ondorio interesgarriak oso, honela laburbil daitezke:

	<i>Milioika dolarretan</i>				
	<i>1925</i>	<i>1926</i>	<i>1927</i>	<i>1928</i>	<i>1929</i>
Kapital gordinaren eraketa (enpresen stock-en aldakuntza netoa kontuan hartuta)	30.076	33.571	31.157	33.934	34.491
Enpresa barruko zerbitzuak, konponketak, mantenimendua, baliogalera eta higadura.....	7.685	8.288	8.223	8.481	9.010
Kapital netoaren eraketa (Kuznets jaunaren definizioaren arabera).....	23.021	25.283	22.934	25.453	25.481

	Milioika dolarretan			
	1930	1931	1932	1933
Kapital gordinaren eraketa (enpresen stock-en aldakuntza netoa kontuan hartuta)	27.538	18.721	7.780	14.879
Enpresa barruko zerbitzuak, konponketak, mantenimendua, baliogalera eta higadura.....	8.502	7.623	6.543	8.204
Kapital netoaren eraketa (Kuznets jaunaren definizioaren arabera).....	19.036	11.098	1.237	6.675

Taula honetan⁵⁹ hainbat gertakari nabarmen ditzakegu. Kapital netoaren eraketa oso egonkorra izan zen 1925-29 bosturtekoan zehar, eta % 10eko gehikuntza besterik ez zen egon goranzko higiduraren azken etapan. Enpresa barruko zerbitzuei dagokien kenkaria (hau da, konponketa, mantenimendu, baliogalera eta higadurari buruzkoa) goian mantendu ziren, baita krisiaren une okerrenetan ere. Baina Kuznets jaunaren metodoaren bidez, baliogalera eta abarrei buruzko kenkariak urtean duten gehikuntzaren balioespen txikiegia lortuko dugu, zeren eta gehikuntza hori kapital netoaren eraketa berriaren urteko % 1,5en azpitik kalkulatzeko baitu. Oso nabarmen ikus dezakegu kapital netoaren eraketak 1929. urteaz geroztik izugarritzko gainbehera izan zuela, 1932 urtean 1925-1929 bosturtekoaren *batezbestekoaren* % 95 baino gehiago jaitsi zelarik.

Hein handi batean, aurreko horrek digresio itxura du. Baina azpimarratu beharra dago jadanik kapital ugari duen komunitatearen sarrerari, normalean kontsumorako erabilgarri dagoen sarrera netora iristeko egin beharreko kenketa. Izan ere, faktore hau bazter utziko bagenu, kontsumitzeko joerari eragiten zaion geldiarazte astuna gutxieteko arriskuan egongo ginateke, baita jendea bere sarrera netoaren zati handi bat kontsumitzeko prest legokeen egoeran ere.

Kontsumoa da —nabaria dena errepikatuko dugu— ekonomi jarduera ororen xede eta helburu bakarra. Eskari osoak nahitaez mugatzen ditu enplegurako aukerak. Eskari osoa egungo kontsumotik edota, etorkizuneko kontsumoari begira, egun eratzen diren erreserbetatik, beste inondik ere ezin da sortu. Aurretiaz abantailak lortuz horni dezakegun kontsumoa ezin da etorkizunean mugagabe handiagotu.

Komunitate gisa, guk ezin dugu etorkizuneko kontsumoa finantza-espedienteen bidez hornitu, baizik eta egungo jardueraren produktu fisikoen bidez, beste inola ere ez. Gure erakunde sozial eta komertzialak etorkizunerako finantza-hornikuntzak etorkizunerako hornikuntza fisikoetatik bereizten dituen heinean eta lehena handiagotzera bideratutako lanek bigarrenaren gehikuntza nahitaez sorrarazten ez badute, finantza-zuhertasunak, ezinbestez, eskari osoa murriztaraziko du, hau da, gizarte-ongizatea kaltetu egingo du —honen adibide ugari dago—. Are gehiago, aurretiaz hornitu dugun kontsumoa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta zailagoa izango da zer hornitu aurkitzea, eta beraz, handiagoa izango da, eskariaren iturri gisa, egungo kontsumoarekiko menpekotasuna. Dena den, gure sarrerak zenbat eta handiagoak izan, hainbat eta handiagoa izango da, tamalez, sarrera horien eta gure kontsumoaren arteko tarte. Beraz, espediente berririk ezean arazoak, ikusiko dugunez, ez du irtenbiderik, nahikoa langabezia edukitzea ez bada eta hortaz, txirotasuna izatea, eta kontsumoaren eta sarreraren arteko tarte, besterik gabe, gaur egun era daitekeen etorkizunerako hornikuntza fisikoaren baliokidea izatea.

Arazoa beste ikuspuntu batetik ikus dezakegu. Kontsumoa, neurri batean, oraingo epealdian ekoiztutako gaiak asetzen dute, eta beste neurri batean aurreko epealdian ekoiztutakoek, hau da, desinbertsio batek. Kontsumoa azken multzo honetako gaiak asetzen duten neurrian, oraingo eskariaren uzkurdura egongo da, zeren eta neurri berean oraingo eskariaren zati bat ez baita sarrera netoaren zati gisa bideratuko. Aitzitik, etorkizuneko kontsumoaren hornikuntza gisa oraingo epealdian ekoiztu den gaiak, oraingo eskaria zabaltzea eragingo du. Dena den, inbertsio orok, lehentxeago ala geroxeago, desinbertsio bilakatzeko xedea du. Beraz, inbertsio berriek desinbertsioarekiko izan beharreko soberakina (iraunkorki sarrera netoaren eta kontsumoaren tarte betetzeko adinakoa izatea), ekipamendua handiagotu ahala gero eta zailago bihurtzen den arazoa da. Kapital-nbertsio berria oraingo desinbertsioaren soberakin gisa, *etorkizuneko* kontsumo-gastuak handiagotzea espero denean baino ez daiteke egin. Gaur egungo oreka ziurtatzeko inbertsioa handiagotzen dugun bakoitzean, etorkizuneko oreka ziurtatzeko izango dugun zailtasuna larriagotu egiten dugu. Gaur egungo kontsumitzeko joera txikiagotzea interes publikoarekin bat etor dadin, nahitaezkoa da noizbait kontsumitzeko

joera handiagotu egingo dela espero izatea. Honek «Erleen alegia» ekartzen digu gogora, hau da, etorkizuneko gozamenak erabat ezin bestekoak dira gaur egungo une larriak izango badira.

Guztiz bitxia eta azpimarragarria da, herri-jakintza inbertsio *publikoari* dagokionez baino ez dela konturatzen azken oharpen horretaz, hau da, errepideen edo etxeen eraikuntzei dagokienez besterik ez. Normalean, agintaritza publikoaren inbertsioen bidez enplegua handiagotzeko planei etorkizunerako eragozpenak sorrarazten dituztela egotzi ohi zaie. «Zer egingo duzue, diote, etxe, errepide, azoka, sare elektriko, ur-banaketa eta etorkizuneko populazio egonkorrak beharko dituen bestelako instalazio guztiak eraiki ondoren?». Baina ez da modu berean ulertzen inbertsio pribatuak eta industri hedakuntzak antzeko eragozpenak sorraraz ditzaketela; industri hedakuntzak batez ere, begi-bistakoa baita bulego eta lantegi berrien eskaria (haue-tako bakoitzak diru gutxi zurgatzen duelako) askoz lehenago aseko dela, etxebizitzaren eskaria baino.

Aurreko gai horiek argi eta garbi ulertzen uzten ez dizkigun oztopoa, hain zuzen, kapitalari buruzko akademi eztabaida anitzetan gertatu ohi den bezala, ondorengo premisari behar baino garrantzi gutxiago ematean datza: alegia, kapitalak ez duela bere burua bakarrik, kontsumoaz at, iraunarazteko gaitasunik. Aitzitik, kontsumitzeko joeraren ahultze bakoitzak, ohitura iraunkortzat ulertua, nahitaez txikiagotuko ditu, era berean, bai kapitalaren eta bai kontsumoaren eskaria.

IX. KAPITULUA

Kontsumitzeko joera:

II. Faktore subjektiboak

I

Sarrera jakin bati dagokion kontsumoaren zenbatekoan eragina duten faktoreetan, bigarren mailakoak aztertzea falta zaigu, hau da, gastuaren zenbatekoa finkatzen duten indar subjektiboak eta sozialak, bai alokairu-unitateetan neurtutako sarrera osoa eta bai jadanik azertu ditugun faktore objektibo nagusiak ezagunak izanik. Dena den, faktore hauen azterketak inolako arazo berririk eskaintzen ez duenez, hauetako nagusiak aipatzearekin nahikoa izango da, luzeegi aritu gabe.

Oro har, norbanakoari bere sarrerak gastatzeko atzera eragiten dioten arrazoi edo zergati nagusiak honako zortzi hauek dira:

1. Erreserba bat eratzea, aurreikusi gabeko gertakariei aurre egiteko asmoz;

2. Norbanako baten sarreraren eta bere premia pertsonal nahiz familiarren artean egun duen erlazioa etorkizunean aldatzeko hornidura egitea, esaterako, erretiro garairako, seme-alaben hezkuntzarako edo bere kargu duen inoren sustengurako;

3. Interes eta plusbalioez gozatzea, alegia, berehalako kontsumo murriztagoa baino gerorako balio errealeko kontsumo handiagoa nahiago izatea;

4. Gero eta handiagoa den gastuaz gozatzea, eta hala, etorkizunean hobetuz doan bizi-maila, okertuz doana baino nahiago duen ohizko sena ase, nahiz eta asetze-maila makalduz joan.

5. Independentzi sentsazioaz eta gauzak egin ahal izateaz gozatzea, nahiz eta zer egin nahi den argi eta garbi jakin ez, edo asmo zehatzik izan ez.

6. Proiektu espekulatzailerik edo komertzialak burutzeko *masse de manoeuvre* ziurtatzea;

7. Dirutza oinordetzan uztea.

8. Zikoizkeria hutsa asetzea, hau da, gastatzeko egintzak, egin-tza horien izaera dela eta, irrazionalki eta behin eta berriz errefusatzea.

Zortzi arrazoi hauek hainbat modutan izenda genitzake: Zuhurtzia, Aurreikuspena, Kalkulua, Handinahia, Independentzia, Enpresa, Harrotasuna edo Zikoizkeria; era berean, kontsumitzeko arrazoiei buruzko zerrenda paraleloa egin genezake, hala nola Gozamina, Aurreikuspen eza, Eskuzabaltasuna, Burugabekeria, Handikeria eta Nabarmenkeria.

Norbanakoek metatutako aurrezkiez gain, bada Britainia Handia edo Estatu Batuen tankerako industri komunitate modernoetan metaketa guztiaren heren bat eta bi herenen artekoa izan daitekeen sarrera-kopuru handi bat, hain zuzen, Agintaritza Zentral edo Tokian tokikoek, Institutioek eta Sozietate Komertzialek atxikitzen dutena. Horretarako arrazoiak norbanakoak bultzatzen dituzten arrazoi berdintsuak dira, baina ez berdinak, eta batez ere ondorengo lau hauek dira:

1.- Enpresa-arrazoiak: Kapital-inbertsio gehiago egiteko baliabideak ziurtatzea (zorrik egin gabe edo berriz ere merkatu-kapitalera jo beharrik izan gabe);

2.- Likideziarako arrazoiak: Baliabide likidoak ziurtatzea (istripu, oztupo edota krisiei aurre egin ahal izateko).

3.- Hobekuntza-arrazoiak: Gradualki gehituz doan sarrera ziurtatzea, aldian-aldian agintariak kritiketatik babestuko dituen, zeren eta sarreraren gehikuntzan arraroa baita erreserben igoerari zein zati dagokion eta errendimenduaren hobekuntzari zein dagokion bereiztea;

4.- Finantza-zuhurtziaren arrazoiak eta «negozioak menperatu» nahia, erabil-kostua eta kostu gehigarrien zenbatekoa baino handiagoa

den finantza-hornidura eratuz, eta hala, bere zorra berreskuratu eta bere aktiboen kostua, higadura eta zaharkitzeari dagokion erritmo erreala baino azkarrago (eta ez motelago) amortizatzea; arrazoi honen indarra, batez ere, kapital-ekipamenduaren izaera eta kantitatearen araberakoa eta aldaketa teknikoen azkartasunaren baitakoa da.

Sarreraren zati bat kontsumorako ez erabiltzera bultzatzen duten arrazoi hauekin batera, batzuetan kontsumoa sarreraren gaineratik jartzen duten beste arrazoi batzuek ere parte hartzen dute. Arestian izendatutako aurrezki positiboaren arrazoietako batzuek, etorkizuneko egunen batean aurrezki negatiboa dute ondorio gisa. Esaterako, horietako bat genuke familiaren beharrei edota erretirokoei begira egindako aurrezkia. Mailegu bidez finantzatutako langabezi sorospena ere aurrezki negatibo gisa hartu beharko genuke.

Dena den, arrazoi hauek oso bestelako eragina izango dute adibidetzat ahortzen idren gizarte ekonomikoaren erakunde eta instituzioen arabera, arraza, heziketa, konbentzionalismo, erlijio eta unean uneko moralitatetik eratorritako ohituren arabera, egungo itxaropen eta jasandako esperientzien arabera, kapital-ekipamenduaren maila eta teknikaren arabera, aberastasuna nola banatuta dagoenaren eta finkatutako bizi-mailen arabera. Nolanahi ere, liburu honetan ez diegu helduko, noizbehinkako eztabaidetan izan ezik, munta handiko gizarte-aldaketen ondorioei, ezta mendetan zehar izandako aurrerapenen ondorio motelei ere. Bestela esan, badagoela kontsideratuko dugu aurreztera eta kontsumitzera bultzatzen duten arrazoi subjektiboen oinarri nagusia. Aberastasunaren banaketa komunitatearen gizarte-egitura iraunkorraren araberakoa den heinean, epe luzera eta motel baino aldatzen ez den faktore gisa kontsidera dezakegu; beraz, hona-ko azterketan faktore hau badagoela kontsideratuko dugu.

II

Hortaz, indar subjektibo eta sozialen oinarri nagusia motel aldatzen denez, eta epe laburrean interes-tasaren eta beste faktore objektibo batzuen eragina, sarritan, bigarren mailakoak direnez, ondorio honetara iritsiko gara: alegia, kontsumoaren epe laburreko

aldaketak neurri handi batean sarrera (alokairu-unitateetan neurtua) irabazten deneko erritmo-aldaketaren arabera direla, eta ez sarre-ra jakin bat kontsumorako gastatzeko joera-aldaketen arabera.

Dena den, ez dezagun hutsik egin. Lehentxeago aipatutako horrek honakoa esan nahi du: interes-tasaren aldaketa apalek kontsumitzeko *joeran* duten eragina normalean ahula izaten dela, eta ez interes-tasek *benetan* aurreztu eta kontsumitutako zenbatekoetan eragin ahula besterik ez dutela. Aitzitik, berebiziko garrantzia du interes-tasaren aldaketen eraginak benetan aurreztutako zenbatekoan, baina hori gertatutako *norantza*, normalean ematen zaionaren *aurkakoa* da. Interes-tasa igotzearen ondorioz geroago irabaziko den sarrera handiagoaren erakarpenak kontsumitzeko joera ahularazten badu ere, interes-tasaren igoera batek benetan aurreztutako zenbatekoa txikiarazi egiten duela esan dezakegu. Aurrezki osoa, berez, inbertsio osoaren menpekoa da; interes-tasaren igoerak (hau inbertsio-eskariaren kurbari dagokion igoerarekin konpentsatzen ez bada) inbertsioa txikiagotu egingo du; beraz, beharrezkoa izango da aurrezkia inbertsioaren neurri berean murrizten den mailaraino sarrerak jaistea. Balio absolutuetan sarrera inbertsioa baino gehiago jaisten dela kontsideratzen denez, zuzena da interes-tasa igota kontsumoa jaitsi egingo dela esatea. Baina honek ez du esan nahi aurrezkiari dagokion marjina handiagotu egingo dela. Aitzitik, aurrezkia eta kontsumoa biak *batera* murriztuko dira.

Beraz, interes-tasaren igoeraren ondorioz, benetan komunitateak *sarrera jakin batekin* zati handiagoa aurreztuko duenez, ziur egon gaitezke (inbertsioaren eskari-kurban aldeko aldaketarik gertatzen ez bada) interes-tasaren igoera horrek benetan eratutako aurrezkiaren zenbateko osoa txikiagotuko duela. Arrazoitzeko modu honek berak adieraziko digu interes-tasaren igoerak, *ceteris parib us*, zenbat murriztuko dituen sarrerak. Izan ere, oraingo kontsumitzeko joeraren bidez, sarrerek jaitsi egin beharko dute (edota beren banaketa aldatu), kapitalak duen eraginkortasun marjinalaren bidez, aurrezkien zenbatekoan interes-tasaren igoerak inbertsioan eragingo duen murrizketa berdin-berdina eman dadin. Hurrengo kapituluan honi buruzko azterketa sakonagoa egingo da.

Interes-tasaren igoerak gehiago aurreztera bultzatuko gintuzke, *baldin eta* gure sarrerek aldatzeke iraungo balute. Baina inbertsioaren

igoera horrek inbertsioa eragozten badu, gure sarrerak ez dira, eta ezin dira, aldatzeke geratu. Jaitsi egingo dira, aurrezteko gaitasunaren murrizketa aurrezkiak interes-tasaren igoeran duen pizgarria konpentsatzeko adinakoa izan arte. Zenbat eta bertutetsuagoak izan, zenbat eta urritasun handiagoz bizitzea erabaki, gure finantza pertsonal eta publikoen gestioan zenbat eta ortodoxoagoak izan, hainbat eta gehiago jaitsi beharko dute gure sarrerek, interes-tasa kapitalaren eragin-kortasun marjinalarekiko proportzionalki igotzen denean. Setakeriak inolako saririk ez eta zigorra baino ezin diezaguke ekar, ondorioa ezinbestekoa baita.

Funtsean, beraz, aurrezki eta kontsumo osoen benetako zenbatekoak ez dira Zuhurtzia, Aurreikuspen, Kalkulu, Handinahi, Independentzia, Ekimen, Harrotasun eta Zikoizkeriaren menpekoak. Bizioak eta bertuteak ez dute inolako eraginik negozioetan. Kapitalaren eraginkortasun marjinala kontuan hartu ostean⁶⁰, interes-tasa inbertsioarentzat zenbateraino den onuragarria, guztia horren baitan dago. Ez, urrunegi joan gara. Interes-tasa beti enplegu betea egoteko moduan zuzenduko balitz, Bertuteak bere eremua berreskuratuko luke; kapital-metaketaen erritmoak kontsumitzeko joeraren ahultasunaren araberakoa izango litzateke. Beraz, berriz ere, ekonomialari klasikoek Bertuteari eskaintzen dioten ordaina, interes-tasa beti horrela gobernatuta dagoen hipotesi implizituaren ondorioa da.

X. KAPITULUA

Kontsumitzeko joera marjinala eta biderkatzailea

8. kapituluan frogatu dugunez, enplegua inbertsioarekin batera baino ezin daiteke *paripassu* hazi, kontsumitzeko joeran aldaketa izaten bada salbu. Orain, beste atal batean sar gaitezke. Baldintza jakin batzuetan, *Biderkatzaile* izendatuko dugun erlazio definitu bat ezar daiteke sarreraren eta inbertsioaren artean, eta hainbat sinplifikazio eginez gero, baita enplegu betearen eta inbertsioarekin zuzeneko lotura duen enpleguaren artean ere (*enplegu primarioa* izendatuko dugunarekin). Beste atal honek enpleguari buruzko gure teoriaren zati bat osatzen du, zeren eta kontsumitzeko joera emanik, erlazio zehatza finkatzen baitu enplegu eta sarrera osoen eta inbertsio-fluxuaren artean. Biderkatzailearen kontzeptua R.F. Kahn jaunak erabili zuen lehenengo aldiz ekonomiaren teorian, «The Relation of Home Investment to Unemployment» (Barne Inbertsioaren eta Langabeziaren arteko Erlazioa) artikuluan (*Economic Journal*, 1931ko ekaina). Artikulu horretan, bere arrazoiketaren oinarritzko ideia honakoa da: kontsumitzeko joera hainbat egoera hipotetikotan (bestelako baldintza batzuekin batera) jakineko bada eta moneta-agintaritzza edo beste agintaritzza publikoren batek inbertsioaren alde ala kontra egiteko neurriak hartzen baditu, enplegu-bolumenaren aldaketa inbertsioaren zenbatekoaren aldaketa netoaren araberakoa izango da; eta Kahn jaunak inbertsio netoaren igoeraren eta berarekin batera izaten den enplegu osoaren igoeraren arteko erlazio koantitatibo erreala ebaluatuko zuten

printzipio orokorrak finkatu nahi izan zituen. Hala ere, biderkatzaile-ari heldu aurretik komeni da *kontsumitzeko joera marginalar* en kontzeptua sartzea.

I

Idazlan honetan aztertu ditugun benetako sarreraren gorabeherak, kapital-ekipamendu jakin bati enpleguaren (hau da, lan-unitateen) kantitate desberdinak aplikatzearen ondoriozkoak dira, eta beraz, enplegatutako lan-unitateen arabera benetako sarrera igo edo jaitsi egingo da. Oro har onartu ohi dugun moduan, lan-unitatearen errendimendu marginala jaitsi egiten bada kapital-ekipamendu jakin batean aplikatutako lan-unitateen kopurua handiagotuta, alokairu-unitateetan neurtutako sarrera enpleguaren proportzioa baino gehiago igoko da eta, era berean, enplegua neurtutako benetako sarreraren proportzioa baino gehiago igoko da (halakorik posible bada) produktu-unitateetan. Produktu-unitateetan neurtutako benetako sarrera eta alokairu-unitateetan neurtutako sarrera, batera igo eta jaitsiko dira (epe laburrean, kapital-ekipamendua ia aldatzeke mantentzen denean). Beraz, produktu-terminoetan neurtutako benetako sarrera zenbaki zehatzetan neurtu ezin izaten denez, sarritan komenigarriagoa izango da sarrera alokairu-unitateetan kontsideratzea (Y_w), benetako sarreraren izandako aldaketen adierazle erabilgarri eta egoki gisa. Hainbat testuingurutan kontuan hartu beharko dugu, oro har, Y_w benetako sarrera baino proportzio handiagoan igo eta jaisten dela; baina beste testuinguru batzuetan, aldiz, Y_w eta benetako sarrera beti batera igo eta jaisten direnez, elkarren ordezkioak dira guztiz.

Gure lege psikologiko normala, hau da, komunitatearen benetako sarrera igo edo jaistean bere kontsumoa ere motelago baina norantza berean igo edo jaitsi egingo dela esaten duena, beste modu batera adieraz daiteke —guztiz absolutua ez den zehaztasunez, baina salbuespen nabariaren menpe dago eta formula oso baten bidez erraz azal daitezke hauek— ondorengo proposizioen bidez: C_w eta Y_w -k zeinu bera dute, baina $Y_w > C_w$, non C_w alokairu-unitateetan neurtutako kontsumoa den. Hau, jadanik (55. or.) azaldu genuen proposi-

zioaren errepikapen hutsa baizik ez da. Beraz, kontsumitzeko joera marjinala dC_w/dY_w gisa definituko dugu.

Kantitate honek bere garrantzia du, honek adierazten baitigu outputaren hurrengo gehikuntza kontsumoaren eta inbertsioaren artean nola banatu beharko den. Izan ere, $Y_w = C_w + I_w$, non C_w eta

I_w hurrenez hurren kontsumo eta Inbertsioaren gehikuntzak diren, eta ondorioz, $Y_w = k I_w$ idatz dezakegu, non $1 - 1/k$ kontsumitzeko joera marjinalaren berdina den.

k , *inbertsioaren biderkatzailea* izendatuko dugu. Biderkatzaile honek adierazten digunez, inbertsio osoaren gehikuntza dagoenean, sarrera, inbertsioaren gehikuntza baino k aldiz gehiago haziko da.

II

Kahn jaunaren biderkatzailea aurreko horrekiko zertxobait desberdina da, eta *enpleguaren biderkatzailea* izenda genezake, k' gisa adieraziz; biderkatzaile honek, enpleguaren gehikuntza osoaren eta inbertsio-industrietako enplegu primarioaren N_2 gehikuntza jakin baten arteko erlazioa ematen digu. Bestela esan, I_w , inbertsioaren gehikuntzak inbertsio-industrietan enplegu primarioaren gehikuntza eragiten badu, enplegu betearen gehikuntza N izango da, non $N = k' N_2$

Oro har, ez dago $k = k'$ dela esateko arrazoirik, zeren eta ez baitago honakoa zertan pentsatu beharrik: alegia, industri mota desberdinei dagozkien eskaintza osoen kurbetako funtzioetatik interesatzen zaizkigun zatien ezaugarriak nolabaitekoak izango direla, horren ondorioz enpleguaren gehikuntzaren eta berak eragindako eskariaren gehikuntzaren arteko erlazioa industri talde desberdinetan berdina izan dadin.⁶¹ Erraza da egoera batzuk imajinatzea non Y_w/N eta

I_w/N_2 erlazioen artean nolabaiteko ezberdintasuna izaten den; esaterako, kontsumitzeko joera marjinala batez besteko joerarekiko oso desberdina denean, zeren eta kontsumo-ondasunak eta inbertsio-ondasunak, hurrenez hurren, helburu dituzten eskarien aldaketa proportzionalak, ondorioz, oso desberdinak izango baitira. Industri talde bientzat, hurrenez hurren, eskari osoen funtzioetatik interesatzen zai-

gun zatiaren ezaugarriek izan ditzaketen desberdintasun horiek kontuan hartu nahi baditugu, ez genuke zailtasunik izango hurrengo argudioa bere itxura orokorrean berridazteko; baina honek adierazi nahi dituen ideiak argitzeko, kasurik sinplifikatuena erabiltzea komeniko litzateke, non $k = k'$.

Hortaz, kontsumoari dagokionez komunitatearen jokabide psikologikoa emanik (esaterako, sarreraren gehikuntzaren⁶² bederatzi hamarren kontsumitu nahi baditu), k biderkatzailea 10 izango da; eta lan publiko gehigarrien ondorioz sortutako enplegu betea (adibidez) lan publiko berek hornitutako enplegu primarioa baino hamar aldiz handiagoa da, beste sektoreetan inbertsioaren murrizketarik ez dagoela suposatuz.

Enplegua eta, beraz, benetako sarrera hazi arren komunitateak bere kontsumoa konstante mantentzen duenean, orduan bakarrik egongo da enpleguaren igoera lan publikoek berek hornitutako enplegu primarioa mugatuta. Aitzitik, komunitateak sarrera gehigarri guztia kontsumitzea erabakitzen badu, ez da inolako egonkortasun-punturik egongo eta prezioak mugarik gabe jaitsiko dira. Hipotesi psikologiko normaletan, enpleguaren gehikuntzari ezingo dio kontsumoaren beheraldiak jarraitu, aldi berean kontsumitzeko joeraren aldaketa ez badago behintzat —esaterako, kontsumo indibiduala murrizteko propaganda gerra-garaian—; eta kasu horretan bakarrik gertatuko da inbertsio-industrietan izandako enpleguaren gehikuntzak kontsumorako ekoizten duten industrietako enpleguan aurkako bilakaera eragitea.

Honek guztiak irakurlearentzat, oro har, agerikoa izan behar-ko lukeena formula batean laburbildu besterik ez du egiten. Alokairu-unitateetan neurtutako inbertsioaren gehikuntza ezin gerta daiteke jendeak alokairu-unitateetan neurtutako bere aurrezkia handiagotzeko prest ez badago. Oro har, alokairu-unitateetan neurtutako bere sarrera osoa handiagotuta besterik ez da egongo jendea horretarako prest. Sarrera gehigarriaren zati bat kontsumitzeko esfortzuak ekoizpena bizkortu egingo du harik eta sarreraren maila eta banaketa berriak inbertsioaren gehikuntza orekatzeko adinako aurrezki-marjina utzi arte. Biderkatzaileak honakoa adierazten digu: beharrezko aurrezki-hazkuntza egiteko prest egoterainoko sarreraren gehikuntza sorrarazteko jendearen enplegua gehitzea beharrez-

koa zenbateraino den, eta koefiziente hau bere joera psikologikoen araberakoa da.⁶³ Aurrezkia pilula eta kontsumoa ezta izanik, beharrezkoa da ezti estra pilula estren neurrian ematea. Jendearen jokae-
ra psikologikoak guk uste bezalakoak ez badira salbu, hemen ezarri
dugun legeak inbertsioaren ondoriozko enplegu-gehikuntzak kon-
tsumorako lan egiten duten industriak ezinbestean bizkortzen ditue-
la adierazten digu, eta hala, enpleguaren gehikuntza osoa eragiten
duela, enplegu hori inbertsioak berak eskatutako enplegu primarioa-
ren multiploa delarik.

Aurreko horretatik ondoriozta dezakegunez, kontsumitzeko
joera marjinala unitatetik gertu badago, inbertsioaren gorabehera apa-
lek enpleguan sekulako gorabeherak eragiten dituzte; baina, aldi bere-
an, inbertsioaren gehikuntza apal samarra nahikoa izango da enplegu
betea izateko. Aitzitik, kontsumitzeko joera marjinala zerotik hurbil
badago, inbertsioaren gorabehera apalek ez dituzte enpleguan gorabe-
hera apalak baino sorraziko; baina, era berean, inbertsioaren gehi-
kuntza nahikoa handia behar izango da enplegu bete izateko.
Lehenengo kasuan, nahi gabeko langabezia gaixotasun sendaerraza
izango litzateke, baina garatzen utziz gero berehala larriagotuko litza-
teke. Bigarren kasuan, baliteke enplegua horren aldakorra ez izatea,
baina maila baxuan finkatzeko joera izango du eta edozein konponbi-
derekin ere bere horretan jarraituko du, oso neurri gogorak hartue-
zean. Egungo errealitatean, kontsumitzeko joera marjinala bi mutur
hauen artean kokatzen dela dirudi, baina unitatetik zerotik baino ger-
tuago; horren ondorio gisa, nolabait ere suposatutako alderdi bien
okerreanean gaude, zeren eta enpleguaren gorabeherak nahiko handiak
baitira, eta beraz, enplegu bete finkatzeko inbertsioaren gehikuntza
handiagoa beharko genuke, maneiatzen erraza izango bada.
Zoritxarrez, gorabeherak aski izan dira gaitzaren izaera kronikoa
ezkutuan uzteko, eta bere larritasunetik ezin atera daiteke bere izaera
ezagutzen ez dugun artean.

Enplegu betera iristen garenean, inbertsioa gehitzen jarraitze-
ko edozein saiok prezio nominaletan mugarik gabe igotzeko joera
eragiten du, kontsumitzeko joera marjinala edozein delarik ere; bes-
tela esan, benetako inflazio-egoerara iritsiak gara⁶⁴. Egoera horretan,
hala ere, prezio-igoerarekin batera sarrera erreal osoaren gehikuntza
izango da.

III

Orain arte, inbertsioaren gehikuntza *netoez* baino ez gara arduratu. Lehentzeago adierazitakoa mugarik gabe esaterako lan publikoen gehikuntzaren ondorioetarako aplikatu nahiko bagenu, gehikuntza hori, ez beste sektore batzuetako inbertsioaren murrizketarekin eta ez komunitatearen kontsumitzeko joeraren aldaketarekin ez dagoela orekatuta suposatu beharko genuke. Lehenago aipatutako artikuluan, Kahn jaunak beren garrantzia dela eta kontuan hartzea merezi duten konpentsazioak aztertu ditu, eta balioespen koantitatiboak iradokitzen saiatu da. Beraz, kasu errealean hainbat faktore egon ohi da, izaera jakin bateko jaikineko inbertsio baten gehikuntzarekin batera, azken emaitzan parte hartzen dutelarik. Esaterako, Gobernu batek lan publikoetan 100.000 langile gehiago enplegatzen baditu eta biderkatzailea (lehenago definitu den moduan) 4 bada, ez dirudi oso ziurra enplegu osoa 400.000 unitate igoko denik. Izan ere, tankera honetako politikak aurkako ondorioak izan ditzake beste sektore batzuetako inbertsioetan.

Komunitate modernoan kontuan hartu beharreko faktore nagusiak (Kahn jaunaren arabera) ondorengoak direla dirudi (lehenengo biak ondo ulertzeko irakurleak, agian, IV. liburura iritsi arte itxaron beharko du):

1. Politika finantzatzeko metodoak (hala nola enplegu-igoerak eta horrekin batera izaten den prezio-igoerak eragindako eskudiru zirkulatzaiaren gehikuntzak), interes-tasa igotzeko ondorioa izan dezakete, eta, beraz, beste sektore batzuetan inbertsioa moteltzekoa, baldin eta moneta-agintaritzak neurri konpentsatzaileak hartzen ez baditu. Aldi berean, kapital-ondasunen kostu-igoerak inbertitzaile partikularrei beren errendimendu marjinala murrizten die; ondorio hau orekatzeko, interes-tasaren *jaitsiera* erreala beharko litzateke.

2. Sarritan nagusi den psikologia nahasia izanik, Gobernuaren programak, «konfiantzari» buruzko ondorioen bidez, likideziarekiko lehenasuna handiagotu edo kapitalaren eraginkortasun marjinala murriztu egin dezake, eta honek, aldi berean, beste inbertsio batzuk motelaraz ditzake, hori saihesteko neurriak hartzen ez badira.

3. Atzerriarekiko merkataritza-harremanak dituen sistema irekian, inbertsio-biderkatzaile osagarriak neurri batean atzerriko herrie-

tan enplegua suspertzen parte hartuko du, kontsumo estraren zati batek gure kanpo-balantzaren soberakina txikiagotu egingo baitu; bidenabar, inbertsioaren gehikuntzak barne-enpleguan bakarrik duen ondorioa, mundu-mailako enpleguarenaren desberdin gisa, kontuan hartzen badugu, biderkatzailearen balio osoa murriztu beharra dago. Bestetik, gure herriak ihes egindakoaren zati bat berreskura dezake, biderkatzaileak atzerriko herrietan ekinda bertako jarduera-ekonomikoetan eragindako ondorio positiboak esker.

Are gehiago, aldaketa garrantzitsuei begiratuz gero, marjina desplazatzen doan neurrian, kontsumitzeko joera marjinalaren aldaketak progresiboa hartu beharko genuke kontuan, eta, beraz, biderkatzailearena. Kontsumitzeko joera marjinala ez da enplegu-maila guztientzat konstantea, eta seguraski, oro har, beherantzako joera izango du enpleguak gora egin ahala; bestela esan, sarrera erreala igo egiten denean, komunitateak bere sarreraren gero eta zati txikiagoa kontsumitu nahi izango du.

Oraintxe aipatu berri dugun lege orokorraren funtzionamenduz gain, kontsumitzeko joera marjinala eta biderkatzailea aldatzaketan beste faktore batzuk ere badaude, beraz; seguraski, faktore hauek murriztu ez eta areagotu egingo dituzte lege orokorraren ondorioak. Lehenik eta behin, enpleguaren gehikuntzak, epe laburreko beherantzako errendimenduen ondorioz, enpresarioei itzulitako sarrera osoaren proportzioa handiagotzeko joera du, hauen bakarkako kontsumitzeko joera marjinala komunitate osoaren batezbestekoa baino txikiagoa izango delarik. Bigarrenik, langabezia, normalean, norbanako edo kolektiboen aldetiko aurrezki negatiboarekin lotzen da, zeren eta langabetuak beren aurrezki propioen kontura edo beren adiskideeneen kontura biziko baitira, edota neurri batean mailaguen bidez finantzaturako laguntza publikoen kontura. Ondorioz, langabezia jaitsi ahala, aurrezki negatiboko ekintza hauek desagertuz joango dira; beraz, langabeziaren jaitsiera horrek kontsumitzeko joera marjinala azkarrago murriztuko du, beste egoera batzuetan komunitateak izandako sarrera errealean gehikuntza berberak egingo lukeena baino.

Nolanahi ere, inbertsioaren gehikuntza apala bada, biderkatzaileak aukera gehiago ditu handiagotzeko gehikuntza sendoa izanik baino; era berean, nahikoa aldaketa handiak espero direnean,

egoera horretan kontsumitzeko joera marjinalaren batez besteko balioari dagokion biderkatzailearen batez besteko balioa hartu behar da oinarritzat.

Kahn jaunak koantitatiboki aztertu ditu mota honetako faktoreek hainbat kasu hipotetiko berezitan izan litzaketen ondorioak. Baina argi dago orokortze handirik ezin dela egin. Gehienez ere, honakoa esan genezake: sistema itxia osatzen duen ohizko komunitate modernoan, eta langabezia beste kontsumitzaileen konturakoa izanik, seguraski benetako sarrerako gehikuntzaren % 80 baino askoz gutxiago ez kontsumitzeko joera egongo litzatekeela, hala biderkatzailea, erreazio konpentsatzaileak kontuan harturik, 5 baino askoz txikiagoa izango ez litzatekeelarik. Dena den, kanpo-merkataritza kontsumoaren % 20 den herrian, eta langabetuek mailegu-fondoetatik edota baliokideetatik lanean ari direnean duten kontsumo normalaren % 50 jasotzen dutenean, biderkatzailea inbertsio zehatz eta berri batek emaniko okupazio-bolumena baino bi edo hiru aldiz gehiago jaitz daiteke. Era berean, kanpo-merkataritzak maila garrantzitsua duen herrian, eta langabezi laguntza hein handi batean mailegu bidez finantzatzen delarik (esaterako, Britainia Handian 1931. urtean gertatu zen moduan), inbertsioaren aldaketa jakin batek eragindako enplegu-aldaketa askoz ere apalagoa da baldintza hauek maila berean ez dituen herrian baino (esaterako, Estatu Batuetan 1932. urtean baino).⁶⁵

Dena den, biderkatzailearen printzipio orokorraren bidez nazio-sarreraren ondoan nahikoa apalak diren inbertsio-bolumenaren gorabeherak enpleguaren eta sarreraren bolumen osoetan askoz ere gorabehera handiagoak nola sorraraz ditzaketen azaltzen saiatu behar dugu.

IV

Orain arteko arrazoiketan honakoa suposatu dugu: inbertsio osoaren aldaketa behar adinako denboraz dagoela aurreikusia, kontsumorako lan egiten duten industriek inbertsiorako lan egiten duten industriekin *pari passu* aurrera egin dezaten eta horrela kontsumo-

ondasunen prezioek ez luketela beste gorabeherarik izango, beherantzako errendimenduen egoeran ekoiztutako kantitatearen igoeraren ondoriozkoa baino.

Dena den, kontuan hartu beharreko kasu orokorra, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietan, prozesuak jatorritzat guttiz aurreikusi gabeko jarduera-gehikuntza duenean, izaten da. Argi dago jatorrian dagoen mota honetako kausak ez duela enpleguan erabateko ondorioa izango denboraldi bat igaro arte. Hala ere, testuan zehar ikusi dugunez, gertakari honek, sarritan, nolabaiteko nahasketa sorrazten du biderkatzailearen teoria logikoaren (honek beti balio digu, denboraldia igaro behar izan gabe eta uneoro), eta kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrien hedakuntzak izandako ondorioen artean —industria honek poliki, gradualki eta denboraldia igaroarte ondorioak sortzen ez dituelarik—.

Gaiaren alde bi horien arteko erlazioa ondorengo azalpenen bidez argi daiteke. Lehenik, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietan aurreikusi gabeko edo gaizki aurreikusitako hedakuntzak ez du ondoriotzat inbertsio osoan zenbateko berdineko berehalako gehikuntza; aitzitik, gehikuntza graduala sorrazten du. Bigarrenik, kontsumitzeko joera marjinala denboraldi batez bere balio normaletik bazter dezake, gradualki balio horretara itzuliko delarik.

Beraz, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrien hedakuntzak inbertsio osoan hainbat hazkuntza mailakatu sorrazten ditu denboraldi baten ondorengo epeetan zehar, eta epe horietan kontsumitzeko joera marjinalak hainbat balio hartuko ditu, eta hauek hedakuntza aurreikusi balitz izango lukeen balioarekiko guttiz bestelakoak izango dira, baita komunitateak bere inbertsio osoa beste zenbateko egonkor batean berriz finkatuta izango duen balioarekiko ere. Baina epe bakoitzean biderkatzailearen teoria aplikatu daiteke, eta eskari osoaren hazkuntza eta kontsumitzeko joera marjinalaren bidez finkaturiko biderkatzaileagatik inbertsioaren hazkuntza osoaren emaitza berdinak dira.

Bi gertakari-mota hauen azalpena argiago agertzen da muturreko kasua hartzen badugu, hau da, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietan enpleguaren gehikuntza erabat aurreikusi gabea izanik, kontsumo-ondasunen ekoizpenean aldeztu aurretik inolako haz-

kuntzarik izaten ez denean. Kasu honetan, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietan enplegatu berri diren norbanakoek beren sarrera gehigarrien zati bat kontsumitzeko egiten dituzten ahaleginek kontsumo-ondasunen prezioak igoaraziko dituzte, eskaintza eta eskariaren behin-behineko oreka finkatu arte: hein batean kontsumoa atzeratzen duen prezio-igoeraren eraginez, hein batean aurrezten duten klaseen alde sarrerak birbanatzearen eraginez (prezio altuen ondorioz izandako irabazien gorakadari esker) eta hein batean prezio altuek stocka murriztaratzearen eraginez. Kontsumoa atzeratzearen eraginez oreka berriz ezartzen den neurrian, kontsumitzeko joera marjinalaren behin-behineko murrizketa agertzen da, hau da, biderkatzailearena berarena, eta stock-murrizketa dagoen neurrian, inbertsio osoaren hazkuntza, denboraldi batez, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietako inbertsio-hazkuntzaren azpitik egongo da (bestela esan, biderkatu beharrekoa ez da kapital-ondasunak ekoizten dituzten enpresetako inbertsio estraren zenbateko osoa adina hazten). Baina kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industriak, pixkana-pixkana, eskari berrira egokitzen dira. Kontsumo diferitua egiten denean, kontsumitzeko joera denboraldi batez bere balio normalaren gainera igotzen da, aurreko beherakada konpentsatuz, eta ondoren bere balio normalera itzultzen da. Bestetik, stockak aurreko mailetaraino ekartzeak, inbertsio osoaren hazkuntza, denboraldi batez, kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrietako inbertsio-hazkuntzaren gainetik jartzen du (ekoizpen handienari dagokion kapital zirkulatzailearen hazkuntzak ondorio berdina du denboraldi batez).

Aurreikusi gabeko aldaketak enpleguan denboraldia igaro arte erabateko ondorioak ez sorrarazteak badu garrantzirik hainbat tuingurutan: ziklo ekonomikoaren analisisian zerikusi nabarmena du (*Treatise on Money* lanean jarraitutako ildoaren arabera). Baina horrek ez dio inola ere biderkatzailearen teoriari eragiten, kapitulu honetan adierazi denari dagokionez; eta ez du kapital-ondasunak ekoizten dituzten industrien hedakuntzaren ostean espero daitekeen enpleguaren hobekuntza osoaren indize gisa ere aplikaezin bihurtzen. Are gehiago, kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industriak, ia beren ahalmen osoaz lan egiten dutenean salbu (eta beraz, ekoizpenaren hedakuntzak ekipamendu bera intentsitate handiagoaz erabiltzeaz gain, ekipamenduan gehikuntza behar duenean salbu), kontsumo-

ondasunen industrietako enpleguak, kapital-ondasunen industrietakoen *pari passu* aurrera egin dezan (biderkatzaileak bere balio normaletik gertu jarduten duelarik) denboraldi labur bat baino gehiago itxoin behar denik pentsatzeko ez dago arrazoirik.

V

Ikusi dugunez, kontsumitzeko joera marjinala zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da biderkatzailea, eta beraz, baita inbertsio-aldaketa jakin batek enpleguan eragindako gorabehera ere. Badirudi hemendik paradoxazko ondorioa atera beharko genukeela; alegia, bere sarreraren oso proportzio txikia baino aurretzen ez duen komunitate txiroak arrisku handiagoa duela gorabehera bortitzak jasateko, bere sarreraren proportzio handiagoa aurretzen duen komunitate aberatsak baino, azken honen biderkatzailea, ondorioz, aurrekoarena baino txikiagoa izanik.

Ondorio horrek ez luke kontuan izango kontsumitzeko joera marjinalaren ondorioen eta kontsumitzeko batez besteko joeraren ondorioen arteko diferentzia. Kontsumitzeko joerra marjinala handia bada, inbertsio-aldaketaren portzentaia jakin batek, *proportzional*ki, ondorio handiagoa sorraraziko du, baina ondorio *absolutua* apala izango da kontsumitzeko *batezbesteko* propentsioa ere garaia bada. Zenbakizko adibide baten bitartez azalduko dugu hau.

Demagun komunitate batek kontsumitzeko joera jakin bat duela, eta hala, bere sarrera errealak 5.000.000 langilek egungo kapital-ekipamenduekin ekoiztutakoa gainditzen ez duen artean, komunitateak sarrera osoa kontsumitzen duela; ondoren enplegatutako lehen 100.000 langile estrek ekoiztutakoaren % 99 kontsumitzen duela, bigarren 100.000 langile estrek % 98, hirugarrenek % 97, eta abar; eta 10.000.000 langileen enpleguak enplegu betea esan nahi duela. Ondorioz, $5.000.000 + n \times 100.000$ langile enplegatu direnean, biderkatzailearen balio marjinala $100/n$ izango da, eta nazioaren sarre-
ra % $[n(n+1)/(2(50+n))]$ ⁶⁶ proportzioan inbertitu da.

5.200.000 langile enplegatu direnean, beraz, biderkatzailea oso altua da, 50 balio baitu, baina inbertsioa sarrera arruntaren oso pro-

portzio txikia baino ez da izango, % 0,06 ingurukoa; beraz, inbertsioa oso proportzio handia txikiagotzen bada, bi heren esaterako, enplegua 5.100.000raino baino ez da jaitsiko, eta honek % 2 inguruko jaitsiera adierazten du. Alderantziz, 9.000.000 langile enplegatu direnean, aurrekoaren ondoan biderkatzaile marjinala apala da (2,5en ingurukoa), baina inbertsioak sarrera arruntarren proportzio nabarmena adierazten du (% 9 ingurukoa); ondorioz, inbertsioa bi heren jaisten bada, enplegua 7.300.000raino jaitsiko da, hau da, % 19ko jaitsiera izango du⁶⁷. Inbertsioa zeroraino jaits litekeelako azken mugako hipotesian, lehen kasuan enplegua % 4 inguru jaitsiko litzateke eta bigarrenean % 44 inguru.⁶⁸

Aurreko adibidean, konparatutako bi komunitateetako txiroena, langabeziaren ondorioz da txiroagoa. Baina arrazonatzeko modu berdina aplika dezakegu, egokitzapen erraz baten ondoren, txirotasuna gaitasun profesional, teknika edota ekipamendu eskasagoaren ondoriozkoa bada. Horregatik, komunitate txiroan biderkatzailea handiagoa izan arren, inbertsioaren gorabeherak enpleguan duten eragina askoz ere handiagoa da komunitate aberatsean, beti ere komunitate honetan inbertsio arruntak ekoizpen arruntaren askoz ere proportzio handiagoa adierazten duela suposatuz.⁶⁹

Aurreko azalpen horiek argi erakusten digute (kontuan hartutako hipotesien arabera) langile-kopuru jakin bat lan publikoetan enplegatzeak askoz ere eragin handiagoa duela enplegu osoan langabezi handia dagoenean geroago enplegu bete iristear dagoenean baino. Aurreko adibidean, enplegua 5.200.000ra jaisten denean lan publikoetan beste 100.000 langile enplegatzen badira, enplegua, guztira, 6.400.000ra igoko da.⁷⁰ Baina, lan publikoetan beste 100.000 langile gehiago enplegatuta, enplegua jadanik 9.000.000koa bada, enplegua guztira 9.200.000ra baino ez da igoko. Langabezia handiko garaian, lan publikoek (beren baliagarritasuna zalantzazkoa izanik ere) beren kostua baino zenbait aldiz handiagoa den konpentsazioa eskaintzen dute besterik ez bada ere asistentzi gastuen kostua txikiagoa delako (baldin eta zenbat eta langabezi handiagoa egon, sarreran aurreztutako proportzioa hainbat eta apalagoa izango dela suposatzen badugu); baina enplegu betera gerturatzen goazen heinean, aurreko hori zalantzarria iza-

ten hasten da. Bestetik, gure hipotesia zuzena bada eta horren arabera kontsumitzeko joera marjinala enplegu betera gerturatzen den heinean erregulariki murrizten bada, ondorioz, gero eta zailagoa izango da inbertsio-gehikuntzaren bidez enplegu-bolumenean gehikuntza lortzea.

Ez luke zaila izan behar ziklo ekonomikoaren etapa bakoitzarako, data jarraietako sarrera gehigarriaren eta inbertsio gehigarriaren estatistiketatik (horiek eskura baditzakegu behinik behin) abiatuz kontsumitzeko joera marjinalaren grafikoa egiteak. Oraingoz, dena den, gure estatistikak ez dira nahikoa zehatzak (ez daude helburu zehatz honetara behar bezala egokituak) eta gutxi gorabeherako balioespenak baino ezer gehiago zehazteko moduan ez daude. Halako lana burutzeko nik ezagutzen ditudan elementu hoberenak Kuznets jaunak Estatu Batuei buruz ateratako zifrak dira (jadanik 122-123. orr.) aipatutakoak), nahiz eta guztiz fidagarriak ez izan. Nazio-sarrerei buruz balioetsitakoekin batera hartuta, inbertsioaren biderkatzailea, era berean, nik esperoko nukeena baino apalagoa eta egonkorragoa dela adierazten digute, jakina, haiek erabil ditzakegun neurrian. Urtez urte hartuta, emaitzak are eta nahasiagoak dira. Baina urteak binaka hartuz gero, biderkatzailea 3 baino txikiagoa izan dela eta 2,5 inguruan nahikoa egonkor mantendu dela dirudi. Honen arabera, kontsumitzeko joera marjinala ez zatekeen % 60 edo 70etik pasatuko, eta nire aburuz, zifra hau oso erraz izan daiteke goraldian, baina izugarri txikia da beheraldirako. Agian, ordea, krisi-garaian ere sozietate amerikarrek finantzapolitikan izandako aparteko kontserbadurismoak zer esan handia izan dezake horretan. Bestela esan, ekipamenduaren konponketa eta berriztapenak ez egiteagatik inbertsioa asko jaisten den garaian baliogalerarako finantza-erreserba eratzen bada, kontsumitzeko joera marjinala ez da igoko bestela igoko litzatekeen moduan. Nire ustetan faktore honek eragin handia izan du Estatu Batuetan oraindik orain izan den krisia larriagotzeko. Bestalde, gerta liteke estatistikek inbertsioaren jaitiera zertxobait areagotzea ere; oro har, % 75etik gorakotzat jo da 1929 eta 1932 urte-bitartean, Kuznets jaunaren arabera «kapital netoaren eraketa» % 95 baino gehiago jaitsi zelarik; balioespen hauetako aldaketa txikiak biderkatzailean aldaketa handia eragin dezake.

VI

Nahi gabeko langabezia dagoenean, lanaren baliagarritasun eza, nahitaez, ekoizpen marjinalaren baliagarritasuna baino txikiagoa izango da. Egia esan, askoz ere txikiagoa izan daiteke, zeren eta luza-roan enplegu gabe egon den gizakiarentzat, muga batzuetara iritsita, lanak baliagarritasun-eza eragin beharrean baliagarritasun positiboa izan baitezake. Hau horrela bada, aurreko arrazoiketak maileguetako fondoan zarrastel-gastuek⁷¹, hala ere eta azken finean, komunitatea aberats dezaketela erakusten digu. Piramideak eraikitzeak, lurrikarek eta baita gerrak berak ere, aberastasuna handiagotzen lagungarri izan daitezke, baldin eta estatu-politikariek Ekonomia Klasikoaren printzipioen baitan izandako heziketak beste irtenbide hobeari ateak ixten badizkio.

Bitxia da herriaren sen onak, zentzugabeko ondorioetatik ihes egin nahian, maileguetako fondoan *erabateko* zarrastel-gastuak nahia-go izana *neurri batean* zarrastel-gastuak direnak baino, zeren eta, azken hauen baliagarritasuna erabat deuseza ez denez, «negozioen» printzipio hertsia gisa hartu ohi baitira. Adibidez, hobetzat hartzen da langabezi laguntzak mailegu bidez finantzatzea, hobekuntza ekonomikoak interes-tasa arrunta baino txikiagoan finantzatzea baino; eta irtenbide guztietan onargarriena, lurzoruan urrezko mea gisa ezagunak diren zuloak egitea da, eta irtenbide honek munduko aberastasunari inolako ekarpenik ez egiteaz gain, baliagarritasunik gabeko lana besterik ez du sortzen.

Altxortegia botila zaharrak banku-biletez betetzeko, hauek bertan behera utzitako ikatz-meategietan sakonera egokietaraino sartzeko eta zuloak, berehala, hiriko hondakinekin estaltzeko prest egongo balitz, eta ondoren enpresa pribatuei *laissez-faire*-ren printzipioen arabera berriz ere bileteak ateratzeko (esleipenaren bidez, bilete-lursailak ustiatzeko eskubidea) baimena emango balie, langabezia desagertu egin liteke, eta ondorioak kontuan izanik, seguraski komunitatearen benetako sarrera, bere kapital-aberastasunaren antzera, lehengoa baino dezentez altuagoa izango litzateke. Egia esan, zentzu handiagoa izango luke etxeak eraikitzea edo erabilgarriagoa den beste zerbait egitea; baina zailtasun politiko eta praktikoez horretarako eragozpenak jar-tzen badituzte, aurreko proposamena ezer ez egitea baino hobea da.

Aukera horren eta mundu errealeko urre-meategien arteko antza erabatekoa da. Urrea sakonera egokietan dagoenean, esperientziak munduko aberastasun erreala azkar hazten dela erakusten du; eta gutxi baino ez dagoenean, aberastasuna bere horretan mantentzen da edota behera egiten du. Urrezko meategiek aparteko balioa eta garrantzia dute zibilizazioarentzat. Estatu-politikarientzat maileguetako fondoen gastu itzelak egitea justifikatzeko arrazoi bakarra gerra izan den bezala, urrea erauztea izan da finantza sendo gisa bankarientzat lurzorua zulatzeko aitzakia bakarra; eta bi jarduera hauetako bakoitzak bere eginkizuna bete du aurrerakuntzan —irtenbide hoberik ezean—. Adibide gisa, esan dezagun urreak, eskulan eta materialen prezioarekin erlazioan egitea, beheraldietan prezioan gora egiteko duen joerak behin-behineko susperraldia bultzatzen duela, zeren eta urrearen erauzketa errentagarria den sakonera handiarazi eta ustiagarria den urrearen legea jaitsiarazi egiten baititu.

Urrearen eskaintza hazteak interes-tasan izan dezakeen ondorioaz gain, bi arrazoi daude urrea erauztea inbertsio gisa guztiz gomendagarria izateko, baldin eta, aldi berean gure aberastasun baliagarrien stocka igoko duten bideak erabilita enplegua igo ezin badugu. Lehenik eta behin, inbertsio horren espekulazioak duen erakargarritasuna dela eta, unean uneko interes-tasari gehiegi begiratu gabe burutzen da. Bigarrenik, bere emaitzak (hau da, urre-stockaren gehikuntzak) ez du baliagarritasun marjinala beste inbertsio batzuekin gertatzen den moduan murrizten. Etxe baten balioa bere baliagarritasunaren arabera denez geroztik, eraikitzen dugun bakoitzean ondorengo eraikuntzatik eskuratzea espero daitekeen errenta murriztu egiten dugu; eta ondorioz, antzeko beste inbertsio baten erakargarritasuna apaldu egiten da, interes-tasa *pari passu* jaisten denean salbu. Baina urrearen erauzketak ez du eragozpen hori; erauzketa honek izan dezakeen oztopo bakarra, urretan neurtua alokairu-unitatearen zenbatekoa igotzea da, baina igoera hori nekez gertatuko da enplegua ugari igo aurretik. Are gehiago, ondoren ez dira agertuko, iraupen laburragoko aberastasunekin gertatzen den moduan, erabil-kostu eta kostu gehigarrientzat eratutako erreserbek eragiten dituzten kontrako ondorioak.

Antzinako Egipto pibilegio bikoitza zuen, eta zalantzarik gabe horren ondoriozkoa izan zen bere aberastasun ikaragarri handia; alegia, *bi* jarduera-mota izatea: batetik, piramideen eraikuntza eta bes-

tetik metal bitxien erauzketa, eta hauen fruituak gizakien beharrak asetzeko kontsumitu behar ez zirenez, ugariak izan arren ez zuten baliagarritasunik galtzen. Erdi Aroak katedralak eraiki eta eresiak abestu zituen. Bi piramidek, bi hileta-mezek, bakar batek baino bi aldiz gehiago balio dute. Baina hori ez da betetzen London eta York lotuko lituzketen bi trenbiderentzat. Beraz, horren zentzudunak gara, finantzario zuhurren horren antzera hezi gara, eta etorkizuneko jendea biziko den etxebizitzak eraikiz etorkizuneko karga «finantzarioak» larriagotu aurretik horren gogoeta sakonak egiten ditugu, ezen langa-beziaren sufrimenduentzat ez baitugu horren irtenbide errazik topatzen. Izan ere, sufrimendu horiek norbanako bat aberasteko jarritako arauak Estatuaren jokabideari aplikatzearen ondorio ezinbesteko gisa hartu behar ditugu, une jakin batean gauzatzeko asmoa ez duen gozatzeko eskubidea metatzeko gaitasuna emanez.

IV. LIBURUA

INBERTITZEKO PIZGARRIA

XI. KAPITULUA

Kapitalaren eraginkortasun marjinala

I

Norbanako batek inbertsio edo kapital-ondasun bat erosten duenean, horrekin batera ondasun horrek irauten duen artean, eta dagozkion eragiketa-gastuak kendu ondoren, outputa saltzetik lortzea espero duen eta izan dezakeen sarrera-seriearen gaineko eskubidea ere eskuratzen du. $Q_1, Q_2 \dots Q_n$ Urtekoen serie hau inbertsioaren *erren - dimendu probablea* izendatuko dugu.

Errendimendu probablearen aurrez aurre, kapital-ondasunaren *eskaintza-prezioa* dugu, baina termino honek ez du adierazten mota bereko ondasunak merkatuan duen salmenta-prezioa, baizik eta fabrikatzaileak ondasun horren beste unitate bat ekoizteko nahikoa duen prezioa, hau da, batzuetan *ordezkapen-kostua* izendatu ohi dena. Kapital-ondasun baten errendimendu probablearen eta bere eskaintza-prezio edo ordezkapen-kostuaren arteko erlazioak, hots, kapitalaren unitate gehigarriaren ekoizpen-kostuaren eta errendimendu probablearen artekoak, *kapital horren eraginkortasun marjinala* ematen digu. Zehazkiago esan, bere iraupen osoan zehar kapital horren errendimendu probableez eratutako urtekoen serieei aplikatuta, urtekoen egungo balioa eta kapital horren eskaintza-prezioa berdintzen dituen deskontutasa eta kapitalaren eraginkortasun marjinala berdinak bailiran definitu ditut. Honek, kapital-ondasunaren mota jakin batzuen eraginkortasun marjinalak ematen dizkigu. Eraginkortasun marjinal hauetan altue-na, kapitalaren eraginkortasun marjinal orokor gisara har daiteke.

Irakurleak ikusiko duenez, kapitalaren eraginkortasun marjinala, kapital-ondasun baten errendimendu probablearen eta bere eskaintza-prezio *arruntaren aurr eikuspenaren* arabea definitu da. Eraginkortasun marjinal hori, ekoiztu *berria* den ondasunean inbertituz gero espero den sarreraren arabera da, eta ez inbertsioaren biziaren ondoren bere benetako errendimenduaren eta bere jatorrizko kostuaren artean atzera begira egiaztatutako emaitza efektiboaren baitakoa.

Edozein motatako kapitalean eginiko inbertsioak epealdi zehatz batean hazten bada, bi arrazoi direla medio, inbertsioa handiagotutu ahala kapital horren eraginkortasun marjinala murritzut egingo da: batetik, kapital horren errendimendu probablea murritzut egiten da bere eskaintza handiagotu ahala, eta bestetik, oro har, kapital-mota hori ekoizten laguntzen duten inguruko presioek bere eskaintza-prezioa igoarazi egin ohi dute; bigarren faktore hau izan ohi da, batez ere, denbora mugatuan oreka ezartzen laguntzen duena, baina kontuan hartutako epea zenbat eta luzeagoa izan, hainbat eta joera handiagoa izango du lehenak bigarrena ordezkatzeko. Kapital-mota bakoitzarentzat kurba bat marraz dezakegu eta horrek adieraziko digu epean zehar kapital horretan inbertsioak bere eraginkortasun marjinalak edozein zifrataraino jaisteko zenbat hazi behar duen. Ondoren, kapital-mota guztientzat eraginkortasun marjinalaren balio berari dagozkion inbertsio-tasak gehituta, inbertsio osoaren tasaren balio desberdinak eta dagozkien kapital orokorraren eraginkortasun marjinalaren balioak lotuko dituen kurba marraz dezakegu. Kurba honi kapitalaren eskari-kurba nahiz kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba deituko diogu.

Hortaz, nabarmena da inbertsio arruntaren tasa handiagotu egingo dela eraginkortasun marjinala interes-tasa arrunta baino handiagoa duen inolako kapital-mailarik ez dagoen punturaino. Bestela esan, kapitalaren eraginkortasun marjinala, oro har, merkatuko interes-tasaren mailaraino erortzen den kapital-eskariaren kurbaren punturaino bultzatuko da inbertsio-tasa.⁷²

Idea hau honela ere adieraz daiteke: Q_r , r denborako ondasun baten errendimendu probablea izanik, eta d_r , r urteko eperako *interesa arrunt*ean £1-ek duen egungo balioa bada, $Q_r d_r$ inbertsioaren eskari-prezioa da; eta inbertsioa, $Q_r d_r$ horrek inbertsioaren eskain-

tza-prezioa berdintzen duen punturaino eramango da, azken kontzeptu hau kapituluaren hasieran azaldu dugun moduan ulertuko delarik. Aitzitik, $Q_r d_r$ eskaintza-prezioa baino txikiagoa bada, ondasun horretan ez da inolako inbertsio arruntik egongo.

Hemendik inbertitzeko pizgarria, neurri batean, inbertsioaren eskari-kurbaren arabera eta, neurri batean, interes-tasaren arabera izango dela ondoriozta dezakegu. IV. Liburua amaitu artean, ez ditugu interes-tasa bere benetako konplexutasun eta guzti finkatzen duten faktoreak ulertzeko nahikoa elementu izango. Dena den, irakurleari hemendik aurrera gogoan izan dezala eskatuko nioke: ez ondasun baten errendimendu probablea jakiteak eta ez ondasunaren eraginkortasun marjinala ezagutzeak, ez digula uzten, ez interes-tasa eta ez egungo balioa ondorioztatzen. Interes-tasa, hortaz, beste nonbaiten aurkitu beharko dugu, eta orduan baino ez dugu lortuko ondasunaren balioa ateratzea, bere errendimendu probablea «kapitalizatuz».

II

Nola erlazionatzen da kapitalaren eraginkortasun marjinalari buruzko aurreko definizioa bere ohizko erabilerarekin? Kapitalaren *Produktibitate*, *Errendimendu*, *Eraginkortasun* edo *Baliagarritasun* marjinalak guztiok sarritan erabili izan ditugun hitzak dira, baina ekonomiaren literaturan ez da erraza ekonomialariek normalean hitz hauei eman nahi izan dieten esanahiaren definizio argirik topatzea.

Gutxienez, argitu beharreko hiru anbiguitasun daude. Lehenik eta behin, honakoa zehaztu beharko genuke: ea interesatzen zaiguna produktu fisikoaren denbora-unitateko gehikuntza den, kapital-unitate fisiko bat gehiago erabiltzearen ondoriozkoa, ala kapital-balioaren unitate bat gehiago erabiltzearen ondoriozko balioaren gehikuntza interesatzen zaigun. Lehenak kapitalaren unitate fisikoaren definizioan zailtasunak eragiten ditu, eta hori, nire ustez, konponezina bezain alferrikakoa da. Jakina, esan daiteke hamar nekazarik alor jakin batean gari gehiago bilduko dutela hainbat makina gehigarri erabiltzeko aukera dutenean, baina ez dut inolako biderik ezagutzen delako hori balioetan adierazi gabe erlazio aritmetiko ulerkorrera eramateko. Hala

ere, gai honi buruzko azterketa anitzek, nagusiki kapitalaren produktibitate fisikoari buruzkoak direla ematen du, baina idazleek ez dute lortzen argi eta garbi adieraztea.

Bigarrenik, kapitalaren eraginkortasun marjinala kantitate absolutua ala proportzioa den argitu beharra dago. Kontzeptu hau erabiltzen den testuinguruak, eta interes-tasaren proportzio berekoa bailitzan tratatzeko praktikak, proportzio gisa hartzea garamatzate. Dena den, ez da argi planteatu ohi proportzio honen termino biak zeintzuk diren.

Azkenik, *egungo* egoeran kapitalaren kantitate gehigarria erabiliz lor daitekeen balioaren gehikuntzaren, eta kapital-ondasun gehigarriaren *iraupen osoaren bidez* lortzea espero den gehikuntzaren arteko bereizketa dago, hau da, Q_1 -en eta Q_1, Q_2, \dots, Q_r serie osoaren arteko bereizketa, eta bereizketa hau kontuan ez hartzea izan da hainbat nahaste eta okerrean arrazoi nagusia. Honetan datza aurreikuspenak teoria ekonomikoan duen zereginari buruzko arazo guztia. Badirudi kapitalaren eraginkortasun marjinalari buruzko eztabaida gehienek ez diotela serieko termino bat berari ere inolako arretarik eskaintzen, Q_1 -i salbu. Baina hau teoria estatikoan baino ezin da bidezkoa izan, hau da, Q guztiak berdinak direnean. Banaketaren ohizko teoriak, non kapitalak *orain* bere produktibitate marjinala (zentzu batean zein bestean) ematen duela suposatzen den, egoera geldikorrean baino ez du balio. Kapitalaren egungo errendimendu osoak ez du zuzeneko erlaziorik bere eraginkortasun marjinalarekin, eta ekoizpen-marjinean (hau da, outputaren eskaintza-prezioan sartzen den kapitalaren errendimendua) duen errendimendu arrunta bere erabil-kostu marjinala da, honek ere bere eraginkortasun marjinalarekin zerikusi handirik ez duelarik.

Arestian esan bezala, puntu honi buruzko azalpen argi eta garbiaren falta nabarmena dago. Era berean, uste dut nik eman dudana definizioa Marshall-ek definizio honekin esan nahi izan zuenetik nahikoa hurbil dagoela. Marshall-ek ekoizpen-faktorearen «eraginkortasun marjinal netoa» esakunea erabiltzen du; baita, aukeran, «kapitalaren baliagarritasun marjinala» ere. Ondoren, bere *Principles* lanean aurkitutako pasarte egokienaren laburpena ekarri dut (6. argit., 519-520 orr.). Berez, elkarrekin ez dauden esaldi batzuk elkartu egin ditut, oinarritzko ideiatik ez ateratzeko asmoz:

Lantegi batean 100 £-ko makineria estra erabil daiteke, beste inolako gastu gehigarriarik ez eragiteko moduan, eta horrela lantegiko output netoari urteko 3 £-ko balioa gehitu, baliogalerari dagozkion kenketak egin ondoren. Kapital-inbertitzaileek kapital hori irabazi handiak emateko itxaropena pizten duten enpleguetara bideratzen badute, eta horren ondoren, oreka topatuz gero, makineria erabiltzea oraindik ere, doi-doi, ordaintzeko modukoa bada, urteko interes-tasa ehuneko hirukoa dela esan dezakegu. Baina tankera honetako adibideek neurri batean baino ez dute balioan agintzen duten arrazoi nagusien eragina adierazten. Ezin ditugu horiek interesari buruzko teoria egiteko erabili, ezta alokairuei buruzkoa egiteko ere, arrazonamendu zirkularrik egin gabe... Demagun guztiz seguruak diren baloreen urteko interes-tasa ehuneko 3koa dela, eta kapelak ekoizten dituen industriak milioi bat libra esterlina zurgatzen dituela. Horrek honakoa esan nahi du: kapelen industriak kapitalaren milioi bat libra guztiz ongi erabili eta urtean ehuneko 3 ordaintzeko prest egongo litzakeela, hori egiteari utzi aurretik. Urteko interes-tasa ehuneko 20koa izan balitz ere, agian industriak ez lioke zenbait makineria erabiltzeari utziko. Interes-tasa ehuneko 10ekoa izanik, makineria gehiago erabiliko zatekeen; gehiago ehuneko 6koa izanik, are gehiago ehuneko 4koarekin eta, azkenik, ehuneko 3ko interes-tasarekin makineria gehiago erabiliko du. Bolumen honetara iritsita, makineriaren baliagarritasun marjinala, hau da, benetan erabiltzea merezi duen makineriaren baliagarritasuna, ehuneko 3arekin neurtzen da.

Aurrekoaren arabera, argi dago Marshall-ek ondo asko zekiela interes-tasa ideia hauen arabera finkatu nahi izanez gero gurpil zoro batean sartuko ginatekeela.⁷³ Pasarte honetan lehen azaldutako ikuspuntua onartzen duela dirudi; alegia, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba emanik, inbertsio berriak iritsiko liratekeen puntua interes-tasak finkatzen duela. Interes-tasa ehuneko 3koa bada, honakoa esan nahi du: inork ez dituela 100 Libra ordainduko makina baten truke, baliogaleraren kostua kendu ondoren bere urteko output netoari 3 Libra gehitzea espero ez badu. Baina 14. kapituluan beste arlo batzuetan Marshall-ek ez zuela hain kontu handiaz jokatu ikusiko dugu —bere argudioak eremu ezegonkorrera eramaten zituenean atzera egiten bazuen ere—.

«Kapitalaren eraginkortasun marjinala» izendatzen ez badu ere, Irving Fisher irakasleak, *Theory of Interest* (1930) lanean, «kos-

tuaren gaineko errendimendu-tasa» deitzen duenaren definizioa eman du, eta hori nire definizioaren berdina da guztiz. «Kostuaren gaineko errendimendu-tasa», dio,⁷⁴ «kostu guztien eta errendimendu guztien egungo balioa neurtzeko erabiliz gero, biak berdinduko dituen tasa da». Fisher irakasleak azaltzen duenez, inbertsioak edozein arlotan zabaltzea kostuaren gaineko errendimendu-tasaren eta interes-tasaren arteko alderaketaren arabera izango da. Inbertsio gehiago egitera bultzatzeko, «kostuaren gaineko errendimendu-tasak interes-tasa gainditu egin behar du».⁷⁵ «Gure azterketan, magnitude (edo faktore) berri honek inbertsio-aukerei buruzko interesaren teorian oinarritzko zeregina du».⁷⁶ Beraz, Fisher irakasleak «kostuaren gaineko errendimendu-tasari», nik «kapitalaren eraginkortasun marjinala» terminoari ematen diodan esanahi eta erabilera berdina ematen dio.

III

Kapitalaren eraginkortasun marjinalaren esanahi eta garrantziari buruzko nahasterik handiena, kapitalaren errendimendu arruntaz gain, bere errendimendu *probablearen* arabera ere badela ez oharraraztearen ondoriozkoa izan da. Hau argitzeko modurik onena aurreikusitako ekoizpen-kostuan aldatzeko itxaropenak kapitalaren eraginkortasun marjinalan duen ondorioa adieraztea izango da, aldatuta horiek lan-kostuaren (hau da, alokairu-unitateen gorabeheren) ondorioz aurreikusten direlarik (nahiz eta asmakizun edo teknika berriaren ondoriozko aurreikuspenak izan). Gaur egun ekoiztutako ekipamenduaren outputak, irauten duen artean ondoren ekoiztutako ekipamenduaren outputarekin lehiatu beharko du, agian lan-kostu txikiagoarekin, apika outputa merkeago saltzeko prest dagoen teknika hobetuarekin, teknika berri horrek outputa bere prezioa nahi adina jaitsi arte handiagotuko duelarik. Are gehiago, ekipamendu zahar nahiz berritik eratorritako enpresarioaren irabaziak (dirutan neurtuta) murriztu egingo dira output guztia merkeago ekoizten bada. Garapen horiek probable edota posible gisa aurreikusten diren heinean, gaur egun ekoiztutako kapitalaren eraginkortasun marjinala proportzio berean murriztu egingo da.

Faktore honen bidez eragiten du diruaren balio-aldaketen aurreikuspenak oraingo output-bolumenean. Diruaren balioak behera egingo duen itxaropenak inbertsioa suspertu egiten du, eta ondorioz, oro har, baita enplegua ere, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba, hau da, inbertsio-eskariaren kurba, igo egiten baitu; eta diruaren balioa igo egingo den itxaropenak beheraldia dakar, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba jaitsi egiten baitu.

Hau da Irving Fisher irakaslearen teoriak ezkutuan duen egia, berak lehen aldiz «Apreziazioa eta Interesa» deitu zuenari dagokionez —interes-tasa nominalaren eta interes-tasa errealdaren arteko bereizketa, azkena diruaren balioaren gaineko aldaketengatik beharrezko zuzenketak egin ondoren lehenaren berdina denean—. Horrela azalduta, zaila da teoria honi zentzu logikorik aurkitzea, ez baitago argi diru-balioaren aldaketa aurreikusitzat jo den ala ez. Aurreikusten ez bada, ez dago oraingo negozioetan inolako eraginik izango ez duenaren arazoa saihesteko inolako modurik; aurreikusten bada, oraingo ondasunen prezioak berehala doituko dira, dirua gorde eta salgaiak mantentzearen abantailak berriz ere berdindu arte, eta maileguaren indarraldian mailegatutako diruaren balioan aldaketa probablea orekatuko duen interes-tasaren gorabeheraren ondorioz dirua dutenek irabazteko edo kaltetuak izateko beranduegi izango da. Eta alferrikakoa da Pigou irakasleak arazoa diru-balioaren alde aurretiko aldaketa jende-talde batek aurreikusten duela eta ez beste batek ez duela suposatuz konpondu nahi izatea.

Akatsa, hain zuzen, diru-balioaren aldaketa probableek interes-tasan zuzenean erreakzionatzen dutela suposatzea da, kapital-stock jakin baten eraginkortasun marjinalarekiko erreakzioa dela suposatu ordez. Diruaren balio probableari dagozkion aurreikuspenen aldaketei buruz, *oraingo* ondasunen prezioak beti doituko dira beren kasa. Aldaketa horiek aurreikuspenean duten garrantzia, kapitalaren eraginkortasun marjinalari eragindako erreakzioaren bidez *beste* ondasun *batzuk* ekoizteko nahian izandako ondorioetan datza. Prezio garaiagoen igurikapenak sortutako eragin suspertgarria ez da prezio hauek interes-tasa igotzearen ondoriozkoa (hau outputa suspertzeko bide paradoxala izango litzateke —interes-tasa igotzen den heinean, pizgarria neurri berean neutralizatu egiten da—, kapital-stock jakin baten eraginkortasun marjinala igoaraten duenaren ondoriozkoa baizik. Interes-tasa kapi-

talaren eraginkortasun marjinalarekin *pari passu* igoko balitz, prezio-igoeraren aurreikuspenak ez luke ondorio suspengarrik izango, outputerako pizgarria kapital-stock jakin baten eraginkortasun marjinala interes-tasarekiko *erlatiboki* igotzearen arabera baita. Berez, Fisher irakaslearen teoria «benetako interes-tasa» gisa adieraz liteke, hau da, diruaren etorkizuneko balioari dagokionez aurreikuspenen egoera-aldaketaren ondorioz indarrean izan beharko lukeen tasa gisa definituta, hain zuzen, aldaketak output arruntean ondoriorik izan ez lezan.⁷⁷

Komeni da interes-tasak etorkizunean behera egingo duela aurreikusteak kapitalaren eraginkortasun marjinala *jaitzietara* egingo duela oharraraztea; izan ere, gaur egungo ekipamenduak sortutako outputak bere bizialdiaren zati batean errendimendu txikiagoa ematen duen ekipamenduak sortutako outputarekin lehiatu beharko duela esan nahi baitu. Igurikapen honek ez du beheraldi handirik eragingo, etorkizuneko hainbat epetan indarrean izango diren interes-tasen multzoari buruzko aurreikuspenak hein batean gaur egun dauden multzoan islatuko baitira. Dena den, nolabaiteko beheraldia eragin dezake, gaur egun ekoiztutako ekipamenduaren outputak (hain zuzen, ekipamenduaren bizialdiaren bukaera aldera eskuratuko dena) agian askoz ere berriagoa den ekipamenduko outputarekin lehiatu beharko baitu, eta berriago hau prest egongo da errendimendu txikiagoa lortzeko, gaur egun ekoiztutako ekipamenduaren bizialdiaren bukaera aldera egongo diren interes-tasa txikiagoak direla eta.

Ulertu beharra dago kapital-stock jakin baten eraginkortasun marjinalak aurreikuspenen aldaketekiko duen menpekotasuna, honen ondorioz kapitalaren eraginkortasun marjinala ziklo ekonomikoaren adierazle diren gorabehera bortitzen menpe geratzen baita. 22. kapituluan ikusiko dugunez, goraldi eta beheraldien segida, kapitalaren eraginkortasun marjinalak interes-tasarekiko dituen gorabeheren arabera deskriba eta azter daiteke.

IV

Oro har, bereiztu izan ez diren, baina elkarren artean bereiztea komeni den bi arriskuk eragiten diote inbertsioaren bolumenari.

Lehen arriskua enpresario edo mailegariarena da, eta hauetako batek lortzea espero dituen errendimendu probableak benetan eskuratzeko aukerari buruz dituen zalantzek eragindakoa da. Baten batek bere dirua jokoan jartzen badu, hauxe da arrisku nabarmen bakarra.

Baina mailegua eman eta hartzeko sistema dagoenean (hau da, berme erreal edo pertsonaleko marjina duten kredituez ari naiz), mailegu-emailearen arriskua deituriko bigarren arriskua agertzen zaigu. Hau ausazko moralaren ondoriozkoa izan daiteke, hau da, eginbeharra betetzea saihesteko norberaren borondatezko edo beste edozein moduren (legezkoa izan ala ez) bitartez betebeharra ez beteetzea; edota segurtasun-marjina nahikoa ez izatearen ondoriozkoa izan daiteke, hau da, aurreikuspenetan oker ibiltzearen ondorioz, nahi gabe betebeharrak ez betetzea. Hirugarren arrisku-kausa ere erants liteke; alegia, moneta-estandarren balioan kontrako aldaketa izatea, honek, baliogalerari dagokionez, diru-mailegua benetako ondasuna baino segurtasun gutxiagokoa izatea eragiten duelarik; dena den, aldaketa hauek denak, edo gehienak, jadanik islatuta (eta beraz, zurgatuta) egon beharko lukete benetako ondasun iraunkorren prezioan.

Lehen arriskua, nolabait ere, gizarte-kostu erreala da, batez-bestekoa aterata nahiz aurreikuspenak gehiago doituta murriz daitekeen arriskua bada ere. Haatik, bigarrena bete-betean inbertsioaren kostuari gehitu behar zaio, eta hori ez litzateke gertatuko mailegaria eta mailegu-emailea bat bera izango balira. Gainera, enpresarioaren arriskuaren zati bat bikoiztu egiten da, inbertitzera bultzatuko duen errendimendu minimo probablea emateko interes-tasa hutsari *bitan* gehitzen zaiolarik. Izan ere, espekulazio jakin bat arriskutsua bada, mailegariak bere aurreikuspenen marjina zabalagoa beharko du, bai errendimenduei eta bai zorra egitea merezi duela uste duen interes-tasari dagokienez; eta arrazoi horrek berak bultzatuko du mailegu-emailea, kargatzen duenaren eta interes-tasa hutsaren arteko marjina zabalagoa exigitzera, mailegua emango badu (zorduna oso indartsua eta aberatsa denean eta, beraz, aparteko segurtasun-marjina emateko egoeran dagoenean salbu). Oso aldeko emaitzaren itxaropenak zordunaren gogoan arriskua oreka dezakeen arren, horrek ez du balio mailegu-emailea lasaitzeko.

Nik dakidanez, orain arte ez da nahikoa nabarmendu arrisku-zati baten jasankortasunaren bikoiztasun hau; baina hainbat egoeratan

garrantzitsua izan daiteke. Goraldian, bi arriskuen —mailegariarena-
ren eta mailegu-emailearenaren— magnitudeari buruz herriak egiten
duen kalkulua zuhurtzearik gabekoa eta izugarri baxua izan daiteke.

V

Kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbak berebiziko garrantzia du, etorkizuneko aurreikuspenak faktore honen bidez (inter-
res-tasaren bidez baino askoz ere gehiago) eragiten baitu (batez ere,
orainaldian). Kapitalaren eraginkortasun marjinala, nagusiki, ekoizpen-
ekipamenduaren errendimendu *arrunt* gisa hartzeko akatsak —uste hau
betetzeko, orainaldian eragingo luketen etorkizuneko aldaketarik ez
legokeen egoera estatikoa beharko genuke—, orainaldiaren eta etorki-
zunaren arteko katemaila teorikoa hautsiaz du. Interes-tasa bera,
ohizko fenomeno delako esan daiteke,⁷⁸ eta kapitalaren eraginkortasun
marjinala *estatus* berera murriztuz gero, dagoen orekari buruzko gure
azterketan etorkizunak duen eragina zuzenean kontuan hartzeko aukera
bazter uzten dugu.

Gaur egungo teoria ekonomikoan sarritan egoerak estatikoak
bailiran hartzea oinarritzkoa izateak, teorian errealitatetik kanpoko
elementua sartzen du. Baina erabil-kostuaren eta kapitalaren eragin-
kortasun marjinalaren kontzeptuak lehen definitutako moduan sartuz,
nire ustez teoria errealitatera itzuliko du oster, egokitzapenerako
ezinbesteko maila minimora murrizten baitu.

Ekipamendu iraunkorra egon badagoelako dago etorkizun eko-
nomikoa orainaldiarekin lotuta. Beraz, ekipamendu iraunkorraren
eskari-prezioaren bidez etorkizuneko aurreikuspenak orainaldian
duen eragin hau bat dator pentsaeraren gure printzipio orokorrekin.

XII. KAPITULUA

Epe luzeko aurreikuspenen egoerak

I

Aurreko kapituluan inbertsio-maila interes-tasaren eta kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbaren arteko erlazioaren arabera dela ikusi dugu, inbertsio arruntaren hainbat mailari dagokien kurba hartuta; eta kapitalaren eraginkortasun marjinala kapital-ondasun baten eskaintza-prezioaren eta bere errendimendu probabilearen arteko erlazioaren arabera dela ere bai. Kapitulu honetan xehekia-go aztertuko ditugu ondasunaren errendimendu probablea finkatzen duten faktoreetako batzuk.

Errendimendu probablei buruzko aurreikuspenak, batetik, gutxi-asko ezagut ditzakegun egintzetan oinarritzen dira, eta bestetik, nolabaiteko segurtasunez baino aurreikus ezin daitezkeen etorkizuneko gertakarietan. Lehenengoetakoak hainbat kapital-ondasunen stockak eta, oro har, kapital-ondasunak berak dira, hala nola ondasunen kontsumitzaileek beren ekoizpena eraginkorrago bihurtzeko behar duten kapital-laguntza handiagoaren eskariaren indarra. Azken haue-takoak ditugu kapital-ondasunen stocken mota eta kantitateetan eta kontsumitzaileen desioetan etorkizunean egongo diren aldaketak, aipatu inbertsioak irauten duen artean epe desberdinetan eskari efektiboak duen indarra, eta epe berean alokairu-unitateen (dirutan neur-tuta) gerta daitezkeen aldaketak. Azken puntu hauei buruzko aurrei-kuspen psikologikoen egoera honakoa esanda laburbil genezake: *epe*

luzeko aurreikuspenen egoeran —epe laburreko aurreikuspenetatik bereiziz— oinarritzen dela ekoizlea bukatutako produktutik lortuko duen etekina zenbatesteko, baldin eta bere ekoizpenari ekitea gaur egun eta orain duen ekipamenduarekin erabakitzen badu (5. kapituluaz aztertu genuen hori, bestalde).

II

Gure aurreikuspenak egitean, arrunt traketsa izango litzateke oso ziurtasun gutxikoak⁷⁹ diren gertakariei garrantzi handia ematea. Beraz, arrazoizkoa da jarraibidetzat nolabaiteko konfiantza ematen diguten ekintzak hartzea, hauek gure helburuetarako oso erabakigarriak ez badira ere, gutxi eta gaizki ezagutzen ditugun beste batzuei jarraitu baino lehen. Ondorioz, gure epe luzeko aurreikuspenak eratzeko egungo egoerari dagozkion ekintzak proportzio handiegian hartzen dira, nolabait, eta egungo egoeran kokatu eta egoera hau etorkizunera proiektatzeko ohitura izan ohi dugu, eta aldaketa, itxaroteko ditugun gutxi-asko definitutako arrazoiaren arabera eraldatzen dugu egungo egoera.

Gure erabakien oinarritzat balio duen epe luzeko aurreikuspenaren egoera, beraz, egin ditzakegun aurreikuspen probabileenez gain, aurreikuspena zein *konfiantza-maialrekin* egiten dugunaren arabera izango da —ditugun gure aurreikuspenik onena guztiz okerra izan dadin zenbateko probabilitateak daudenaren arabera—. Aldaketa handiak espero baditugu, baina gertatuko diren moduaren zehaztasunari buruz ziurtasunik ez badugu, gure konfiantza ahula izango da.

Konfiantzaren egoera, deitu ohi zaionez, gizaki praktikoengan arreta eta kezka handiena piztarazten duen gaia da. Baina ekonomialariek ez dute kontu handiz aztertu eta, arau gisa, oro har aztertzea nahikoa iruditu zaie. Hain zuzen, ez da argi geratu arazo ekonomikoetan duen gailentasuna kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurban duen eragin garrantzitsuaren ondoriozkoa dela. Eta hauek biak, hau da, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba eta konfiantzaren egoera, ez dira inbertsio-tasari eragiten dioten bereizitako bi faktore. Konfiantzaren egoeraren garrantzia, kapitalaren eraginkorta-

sun marjinala (edo gauza bera dena, inbertsio-eskariaren kurba) finkatzen duten faktoreetan nagusietakoa izatean datza.

Dena den, *a priori* konfidantzaren egoerari buruz ez dago gauza asko esaterik. Gure ondorioek, funtsean, merkatuei benetan begiratzearen eta negozioen psikologiaren menpekoak izan behar dute. Arrazoi hau dela eta, ondorengo eztabaidak liburu honen gaine-rakoaren bestelako abstrakzio-maila izango du.

Azalpena ulergarriagoa izatea komeni delako, konfiantzaren egoerari buruz hasiera goazen azterketan interes-tasa ez dela aldatzen kontsideratuko dugu; eta ondorengo ataletan inbertsioaren balio-alda-ketak, bere errendimendu probableen aurreikuspen-aldaketen ondo-riozkoak bakarrik bailiran jardungo dugu, eta inola ere ez errendi-mendu horiek kapitalizatzen diren interes-tasen aldaketen ondorioz-koak. Nolanahi ere, tasa horren aldaketen eragina erraz gailentzen zaio konfiantzaren egoera-aldaketen eraginari.

III

Gertakaririk nabarmenena, errendimendu probableei buruzko gure kalkuluak egiteko erabili behar ditugun ezagutza-oinarrien ahul-tasuna da. Inbertsio baten errendimendua hurrengo urteetan goberna-tuko duten faktoreei buruz ezer gutxi jakin ohi dugu; sarritan hutsaren hurrengoa da dakiguna. Argi eta garbi hitz eginda, onartu beharra dugu hurrengo hamar urteetan trenbide baten, kobrezko meategi baten, oihal-lantegi baten, patentatutako botika bateko bezeroen, Atlantikoan zeharreko untzi-linea baten edo Londresko City-ko erai-kin baten errendimendu probablea kalkulatzeko oso oinarri mugatuak ditugula eta batzuetan batere ez dugula; eta gauza bera esan dezakegu hurrengo bost urteei buruzko aurreikuspenez ere. Berez tankera hone-tako zenbatespenei serioski heldu nahi izan dietenak oso gutxi dira eta, ondorioz, beren jokabideak ez du merkatuan agintzen.

Garai batean, enpresa gehienak enpresario edota hauen lagun edo kideenak zirenean, inbertsioa eta jarrera eraikitzailea zuten norbanako ausartak egotearen araberakoa zen; negozioiei bizimodua baillitzan ekiten zieten, irabazi probableei buruzko kalkulu zehatzetan oinarritu gabe.

Hein batean, loteriara jokatzeari bezala zen, baina azken emaitza zuzendarien trebetasun eta izaera batezbestekoaren gainetik edo azpitik egotearen arabera zen. Batzuek porrot egingo zuten eta beste batzuek arrakasta izango zuten; baina gertakariak gertatu ondoren ere, inork ez zuen jakingo inbertsio-baturetan neurtutako emaitzen batezbestekoa interes-tasa orokorraren gainetik, parean edo behetik geratu ote zen. Dena den, natur baliabideen eta monopolioen ustiapena alde batera utzita, inbertsioen emaitzen batezbesteko errealek, seguraski, aurrerapen-eta oparotasun-garaian ere inbertitzera bultzatu zituen itxaropena ere zapuztuko zukeen. Negoziozaleek trebetasuna eta zortea nahasten ziren jokoan jokatzeko zuten, jokalarien batezbesteko emaitza jokoan parte hartzen zutenentzat ezezaguna zelarik. Giza izaerak zortea tentatzeko gogorik izango ez balu, eta lantegi, trenbide, meategi edo etxaldea erakitzeagatik poza sentituko ez balu (irabaziak alde batera utzita), kalkulatu hotzetan soilik oinarritutako inbertsio handirik ez litzateke izango.

Dena den, era zaharreko negozio pribatuetan inbertitzeko erabakiak, hein handi batean, aldaezinak ziren, bai komunitatearentzat, oro har, eta bai norbanakoentzat ere. Gaur egun nagusi den jabetza eta zuzendaritzaren arteko bereizketarekin, eta antolatutako inbertsio-merkatuen garapenarekin batera, garrantzi handiko beste faktore bat sartu da jokoan, eta honek batzuetan inbertitzea erraztu egiten du, baina beste batzuetan sistemaren egonkortasunik eza eragiten du. Balore-merkatuek huts egiten dutenean, ez du zentzurik konpromisoa hartutako inbertsioa sarritan birbalioztatzen saiatzea. Baina burtsak egunero inbertsio asko birbalioztatzen ditu, eta birbalioztapen hauek norbanakoei (baina ez komunitateari, oro har) aukera ugari ematen die beren konpromisoak berrikusi ahal izateko. Izan ere, nekazari batek, gosalduta ondoren bere barometroa ikusi ondoren, goizeko hamarrak eta hamaiak bitartean bere kapitala nekazaritzatik kentzea erabakiko balu bezala da, eta ondoren, astean zehar bertara itzuli ala ez berriz erabakitze-ko aukera izatea bezala. Baina balore-burtsaren eguneroko birbalioztapenek, ezinbestean, inbertsio arrunten tasan eragin erabakigarria dute, nahiz eta beren helburu nagusia iraganeko inbertsioetako norbanakoen artean lekualdaketa egitea den. Izan ere, ez du zentzurik beste enpresa bat sortzeak, jadanik egon badagoen beste enpresa berdin bat erosteko behar genduzen baina gastu handiagoak egin behar badira; eta alderantziz, izugarritzko dirutza iruditzen arren proiektu berriak gastatze-

ko pizgarria egon daiteke, balore-burtsan berehalako irabaziaren truke sal badaiteke.⁸⁰ Hori dela eta, inbertsio-mota batzuek balore-burtsan ari direnen aurreikuspenen batezbestekoei segitzen diete (akzioen prezioan agertzen denez) enpresario profesionalaren aurreikuspenei segitu beharrean.⁸¹ Orduan, egunero eta orduro egiten diren inbertsioen horren birbalioztapen garrantzitsuak nola erabil daitezke, praktikan?

IV

Praktikan oro har tazituki ados jarri gara benetan *hitzarmen* hutsa den metodoaz baliatzeko. Hitzarmen honen funtsa —nahiz eta horren siple funtzionatzen ez duen— negozioetan gaur egun dagoen egoerak beti segituko duela suposatzea da, eraldaketa itxaroteko jakin-neko arrazoiak ditugunean salbu. Horrek ez du esan nahi benetan negozioen egungo egoerak beti iraungo duela sinesten dugunik. Soberako eskarmentua dugu aurreko hori guztiz gertaezina dela suposatzeko. Urte-kopuru luzerako inbertsioaren ondorio eraginkorrak gutxitan etortzen dira bat jatorrizko aurreikuspenekin. Ezin dugu gure jokabidea razionalizatu, gizaki ezjakinarentzat edozein motatako akatsak era berean probableak direla eta, ondorioz, ezjakintasunean oinarritutako probabilitate-berdintasunaren aukera aritmetikoak absurdura garamatzala argudiatuz. Berez honakoa suposatzen ari gara: merkatuan dagoen balioztapena, horretara edozein modutara iritsita ere, inbertsioaren errendimenduan eragingo duten ekintzei buruz egun dugun ezagutzari dagokionean bakarrik izango dela *zuzena*, eta ezagutza horren aldaketen arabera besterik ez dela aldatuko; hala ere, filosofikoki hitz eginez, gure egungo ezagutzak aurreikuspen matematiko kalkulatu izateko nahikoa oinarri eskaintzen ez digunez, aurreko arrazonamendu hori ezin da guztiz zuzena izan. Egia esan, merkatuaren balioztapenetan errendimendu probablearekin inolako zerikusirik ez duten mota guztietako iritziak sartzen dira.

Dena den, lehen aipatutako kalkulatzeko hitzarmeneko metodoa nahikoa iraunkorrak eta egonkorrek diren gure negozioekin etorriko da bat, *hitzarmenak jarraitasunik izango duela espero dezakegun artean*.

Izan ere, inbertsio-merkatu antolatuak badaude, eta hitzarmena mantendu egingo dela espero badezakegu, inbertitzailearentzat suspergarria izan daiteke berak izan dezakeen arrisku bakarra *berehala -ko etorkizuneko* baldintzetan benetako aldaketa gertatzearena dela pentsatzea, honen probabilitateari buruz bere iritzia izan dezakeelarik, eta aldaketa oso handia izateko probabilitate gutxi izanik. Izan ere, hitzarmenak aurrera segituko duela suposatuz, aldaketa hauek dira bere inbertsioaren balioari eragin diezaioketen bakarrak, eta hamar urte barru balio dezakeenari buruz tutik ez jakiteagatik ez du zertan kezkatu behar. Horrela inbertsioa nahikoa segurua bihurtzen da inbertitzailearentzat epe motzetan, eta beraz, hainbat epe motzen segidan ere bai (berdin dio zenbatetan), baldin eta hitzarmena ez dela hautsiko espero izatea arrazoizkoa bada eta, beraz, bere ondorioak berrikusteko eta gorabehera handiak gertatzeko nahikoa denbora izan baino lehen inbertsioa aldatzeko aukera izango duela espero bada. Horrela komunitatearentzat «finkoak» diren inbertsioak norbanakoa-
rentzat «likido» bihurtzen dira.

Ziur nago gure inbertsio-merkatu nagusiak antzeko jarraibideetan oinarrituz garatu direla; baina ikuspuntu absolututik horren ausazkoa den hitzarmenak bere puntu ahulak izateak ez gaitu harritu behar. Bere ahultasunak sortzen ditu gure egungo arazo asko behar adinako inbertsio-bolumena lortzeko.

V

Labur-labur, ahultasun hau areagotzen duten faktoreetako batzuk aipatuko ditugu.

1) Negozioak gidatzen ez dituzten eta hauei eragiten dieten oraingo edo etorkizuneko gorabeherai buruzko ezagupen berezirik ez duten pertsonen errendimendu aldakorreko balore edo tituluek komunitatearen kapital-inbertsio osoan gero eta proportzio handiagoa izatearen ondorio gisa, nabarmen murriztu da inbertsioen balioztapenaz dagoen ezagutza errealtatearen elementua, inbertsioak dituzten edota hauek erosi nahi dituztenen aldetik.

2) Egun dauden inbertsioen irabazietan egunero izaten diren gorabeherak (nolanahi ere, txikiak eta garrantzi gutxikoak izanik), oro har gehiegizko eragina dute (baita absurdua ere) merkatuan. Esaterako, batzuetan Ipar Amerikako izotz-lantegien akzioak udan garestiago saltzeko joera dagoela esan ohi da, beren dibidenduak (urte-sasoia dela eta) altuak direnean, eta ez neguan, inork izotzik nahi ez duenean. Jaiegun ofizialak bata bestearen segidan egokitzen direnean ere, Britainia Handiko trenbide-sistemaren merkatuaren balioztapena hainbat milioi libra esterlina igo daiteke.

3) Norbanako ezjakin ugariri dagokion masa-psikologiaren emaitza gisa finkatzen den hitzarmen-balioztapena eraldaketa bortitzen menpe dago, hauek errendimendu probablearentzat benetan ezer gutxi adierazten duten iritzi-aldaketa bortitzen ondoriozkoak direlarik; zeren eta ez baitira balioztapen horri tinko heltzeko nahikoa sustaitutako arrazoiak egongo. Garai anormaletan, negozioen egungo egoerak beti iraungo duelako hipotesiak ohi baino probabilitate gutxiago dituenen batez ere, aldaketa zehatz bat gertatuko dela iragartzeko jakineko arrazoirik ez dagoenean ere, merkatua sentimendu baikor edo ezkorren boladen menpe egongo da, eta hauek arrazoizkoak ez izan arren, nolabait ere guztiz zilegi dira arrazoizko kalkulua egiteko oinarri tinkoak ez daudenean.

4) Baina horretaz arduratzea merezi duen bereizgarri bat bada. Erdi-mailako inbertitzaile pribatuak baino zentzu eta ezagutza handiagoa duten profesional jakitunen arteko lehiak, bere kabuz dabilen norbanako ezjakinaren bitxikeriak zuzenduko lituzkeela pentsa genezake. Baina inbertitzaile profesional eta espekulatzaillearen indarra eta trebetasuna beste nonbait egon ohi dira, zeren eta hauetako gehienak ez baitaude, berez, inbertsio baten iraupen guztiaren errendimendu probableari buruzko epe luzeko aurreikuspen handiak egiteko, balorazio-oinarri konbentzionaletan aldaketak jendeak baino zertxobait lehenago aurreikusteko baizik. Ez zaie axola inbertsio-balore bat «betiko» erosten duen norbanakoarentzat balore horrek benetan zein esanahi duen; aitzitik, merkatuak, masa-psikologiaren eraginpean, inbertsio-balore hori hiru hilabete edo urtebete barru zenbatean baloratu duen axola zaie. Are gehiago, jokabide hau ez da joera eroaren emaitza. Deskribatutako ildoen arabera antolatutako inbertsio-merkatuaren ezinbesteko ondorioa da; zeren eta ez baita zuhurra inbertsio

bategatik 25 ordaintzea, bere errendimendu probableak 30eko balioa justifikatzen duela uste denean, aldi berean, hiru hilabete barru merkatuak 20en zenbatetsiko duela uste bada.

Horregatik, inbertitzaile profesionalak ezinbesteko aldaketa horiek aurrez jakin baditu, albisteei edo giroari adi egon beharko du, esperientziak frogatzen duenez hauek baitira merkatuko masa-psikologian eragin handiena dutenak. Hau da «likidezia» deiturikoa lortzeko antolatzen diren inbertsio-merkatuen ezinbesteko ondorioa. Finantza ortodoxoko arauetan ez dago, seguraski, likideziaren mamua baino gertakari anti-sozialagorik —doktrina honen arabera inbertsio-erakundeen bertute positiboa da beren baliabideak balore «likidoetan» biltzea—. Ahaztu egiten du inbertsioak ezin dutela komunitatearentzat, oro har, likidoak izan. Erabilgarritasun sozialaren ikuspuntutik, inbertsio trebeen helburua denboraren indar negatiboak eta gure etorkizunari buruzko ezjakintasuna menperatzea izango litzateke. Jakitunen egungo inbertsio gehienek helburu pribatua, berez, «aurrea hartzea» da, iparramerikarrek dioten moduan, hau da, besteak baino azkarragoak izatea, eta moneta faltsua, edo balioa galtzen ari dena, beste norbaiti sartzea.

Urte batzuetarako inbertsioaren epe luzeko errendimendu probablea ez eta balorazio konbentzionalaren oinarriak hilabete batzuk lehenago aurreikusteko zein baino zein azkarragoa izateko gatazka honetan, otso profesionalen gosea asetzeko ez dago jende artean arku-meak eduki beharrik: otso profesionalak elkarrekin jolas egin dezakete. Ez da beharrezkoa baten batek balorazioaren oinarri konbentzionalak epe luzera nolabaiteko baliagarritasuna izango dutela xalo sinestea ere; nolabait esatearren, poxpoluaren edo musika-aulkien jokoen tankerakoa baita —lehen jolasean, esku artean dugun poxpolua lagunari pizturik pasatu behar diogu, eta poxpolua itzaltzen zaionak galtzen du; bigarrenean, musikak jotzeari uzten dionean aulki librean eseri behar dugu, eta aulkirik lortzen ez duenak galtzen du—. Jolas hauek diberti-garriak eta atseginak izan daitezke, nahiz eta poxpolua itzal dakiguke-ela edota, agian, ez dugula aulkirik lortuko guztiok jakin.

Edota, metafora zerbait aldatzearen, profesionalak egindako inbertsioa aldizkarietako lehiaketa batekin konpara daiteke, zeinetan lehiatzaileek ehun argazkitatik sei aurpegi ederrenak aukeratu behar dituzten, lehiatzaile guztien batezbestekora gehien hurbiltzen dena

irabazle suertatzen delarik; beraz, lehiatzaileak ez ditu bere ustez ederrinak diren aurpegiak aukeratu behar, baizik eta bere ustez gainerako lehiatzaileentzako ederrenak izango direnak, eta lehiatzaile guztiak ikuspuntu berean oinarritzen dira beren aukera egiteko. Beraz, ez dira aukeratzen norberaren arabera ederrenak direnak, ezta gehienek arabera direnak ere. Hirugarren mailaraino iritsi gara, non gure adimena batez besteko iritziak batez besteko iritzia izatea espero duena iragaritzeko erabiltzen dugun. Eta, nire ustez, laugarren, bosgarren eta baita goragoko mailak ere praktikatzen duenik badago.

Irakurleak epe luzera eskarmentua duen eta jokoak eraldatu ez duen norbanakoak, baldin eta epe luzerako dituen aurreikuspen perfektuen arabera inbertsioak erosten segitzen badu, beste jokalariei kopuru handiak irabazteko gai izango dela argudiatzen badu, batez ere honakoa esan geniezaioke: egon badaudela horren ikusmolde serioa duten norbanakoak, eta inbertsio-merkatua oso desberdina izango dela jende serio horren iritzia gainerako jokolariengan gailendu ala ez gailendu. Bestetik, norbanako horiek inbertsio-merkatu modernoetan gailentzea eragozten duten hainbat faktore daudela esan behar da. Epe luzeko benetako aurreikuspenetan oinarritutako inbertsioa ia ezinezkoa da gaur egun, eta nekez gauza daiteke praktikan. Hori gauzatzen saiatzen denak askoz ere lan gehiago egin eta arrisku handiagoak jasan beharko ditu, jendeak zer egingo duen jendeak baino hobeto asmatzen saiatzen denak baino; eta adimen-maila berdina izanik, lehenak askoz ere huts larriagoak egin ditzake. Eskarmentuak ez digu argi frogatzen gizartearentzat mesedegarriena den inbertsio-politika politika produktiboenarekin bat datorrenik. Adimen handiagoa izan beharko da denboraren indarrak eta etorkizunari buruzko gure ezjakintasuna gainditzeko, aurea hartzeko baino. Are gehiago, bizia ez da nahikoa luzea, giza izaerak berehalako emaitzak nahi ditu, dirua azkar egiteak sekulako gozamenaren ematen du, eta norbanako arruntak oso epe luzerako irabaziak alde batera uzten ditu gehienetan. Inbertitzaile profesionalen jokoa guztiz aspergarria da eta gehiegi eskatzen du jokoaren sena ez duen inorentzat; eta sen hori duenak, zaletasun horregatik dagokion zerga ordaindu beharko du. Are gehiago, merkaturako epe laburreko gora-beherak kontuan ez hartzea erabakitzen duen inbertitzaileak, bere segurtasunerako baliabide handiagoak beharko ditu, eta maileguekin inon jardutekotan, ez du inola ere horren eskala

handian jardun beharko —eta hau da jokoak nolabaiteko adimena eta baliabideak dituenari ematen dien errendimendu handiagoen beste arrazoi bat—. Azkenik, epe luzeko inbertitzailea da interes publikoan gehien eragiten duena, praktikan bere aurkako kritika gehienak biltzen dituena, batzorde, kontseilu zein bankuek inbertsio-fondoak erabiltzen dituzten nonahi;⁸² izan ere, jokabide honen funtsa iritzi arruntarentzat bitxia, konbentzionalismorik gabekoa eta arriskutsua izatean datza. Arrakastarik badu, horrek arriskuari buruzko sinesmen orokorra baieztatu besterik ez du egingo; eta epe motzean porrot egiten badu (hori erraz gerta daiteke, bestalde) ez da biktimarentzat gupida handirik egongo. Giza jakituriak erakusten digunez norberaren osperako hobe da garbi galtzea tranpa eginez irabaztea baino.

5) Orain arte, batez ere espekulatzaillearen edo espekulazio-inbertitzailearen konfiantza-egoera izan dugu gogoan, eta irudi leza-ke bera bere aurreikuspen propioekin pozik badago, merkaturako interes-tasan dirua gain erabat menperatzen duela tazituki suposatugula. Beraz, hau ez da benetan gertatzen, eta beraz, konfiantza-egoeraren beste aldea ere hartu behar dugu kontuan, hau da, kreditu-erakundeek bertara mailegu bila jotzen dutenengan duten konfiantza (inoiz kredituaren egoera izendatu izan dena). Errendimendu aldakorreko baloreen prezioan beherakuntza bortitza, kapitalaren eragin-kortasunean guztiz ondorio txarrak izan dituena, agian espekulazio-konfidantza-aren edo kreditu-egoeraren ahultasunaren ondoriozkoa izan liteke. Baina beherakada bortitza eragiteko azken bi hauetako edozeinen ahultasuna nahikoa bada ere, berreskuratzeko *biak* susper-tu behar dira. Izan ere, krisia eragiteko kredituaren ahultasuna nahikoa izanik ere, berreskuratzeko ezinbestekoa da bera sendotzea, baina ez da nahikoa.

VI

Burutapen hauek ez lukete ekonomialariaren ikuspegitik at geratu behar, baina dagokien ikuspegira mugatu behar dira. Merkaturpsikologiako aurreikuspen-jarduera izendatzeko *espekulazio* hitza erabiltzea eta beren iraunaldi guztian zehar ondasunen errendimendu

probableen aurreikuspena deitzeko *enpresa* hitza erabiltzea zilegi bazait, inola ere ez da egia espekulazioa beti enpresaren gainetik egoitea. Dena den, inbertsio-merkatuen antolaketa hobetuz doan heinean, espekulazioa gailentzeko arriskuak gora egiten du. Munduko inbertsio-merkatu handienetakoa den New Yorken, espekulazioaren eragina (aurreko zentzukoa) izugarria da. Finantzen arlotik kanpo ere, iparramerikarrak gauza dira batezbesteko iritziak batezbesteko iritzia zer izango den jakiteaz gehiegi interesatzeko; eta nazio-mailako ahultasun horrek balore-merkatuan du bere Nemesisa. Iparramerikarrak oraindik ere ingeles askok egiten duten moduan «errenta jasotzeko» inbertitzea bitxia dela esan ohi da; eta ez du inbertsiorik oso erraz erosiko, kapitalaren balioa igoko den itxaropenik ez badu. Hau, azken batean, iparramerikarrak inbertsioa erosten duenean bere itxaropena inbertsio honen errendimendu probablean baino gehiago balorazioen oinarri konbentzionala aldatzea dela esateko beste modu bat da. Espekulatzaileek enpresaren korrante sendoaren aparra besterik ez direnean ez dute zertan kalterik eragin behar; baina egoera aintzat hartzeko modukoa da espekulazio-zurrunbiloaren barruan apar enpresa bihurtzen denean. Herrialde batean kapitalaren garapena kasino bati dagozkion jardueren azpigai bilakatzen denean, seguraski garapena ez da ondo burutuko. Wall Street-ek —erakunde horren helburu sozial gisa inbertsio berriak etorkizuneko errendimendu gisa bide ekoizgarrienetatik gidatzea dela kontsideratuz— izandako arrakastaren neurria, ezin aurkez daiteke *laissez faire*-ko kapitalismoaren sekulako garaipena bailitzan —eta hori ez da harrigarria, Wall Street-eko buru onenak besteak beste helburu baterantz bideratu direla pentsatuta zuzen banago—.

Joera hauek inbertsio-merkatu «likidoak» antolatu izanaren ezinbesteko ondorioak dira. Oro har, interes publikoaren onuran, kasi-noak garestiak eta atzemangarriak izatea onartu ohi da, eta agian hauxe bera egia izan liteke balore-burtsari dagokionez. Londresko balore-burtsaren pekatuak Wall Street-ekoak baino txikiagoak izateko arrazoi nagusia, agian ez da nazio-izaerako desberdintasunen arabera, baizik eta maila ertaineko ingelesarentzat, Throgmorton Street atzemangaitzagoa eta askoz ere garestiagoa izatea izan daiteke, maila bereko iparramerikararentzat Wall Street denarekin konparatuta. Burtsa-artekariaren komisia, komisio-hartzailearen karga izugarriak

eta Estatuko Altxortegiari ordaindu beharreko eragiketa edo lekualdaketatengatiko zergak, guztiak ere Londresko balore-burtsetako eragiketekin batera ordaintzen diren gastuak, merkatuaren likidezia murriztu egiten dute (hamabosteroko kitapenen praktikak aurkako norantzan eragiten duen arren) Wall Street-eko ohizko eragiketak proportzio handi batean ezabatzeko moduan.⁸³ Salerosketa-eragiketa guztien gainean zerga sendoa ezartzea izan liteke eskura egon litekeen erreformarik hoberena, Estatu Batuetan espekulazioak enpresaren gainean duen gailentasuna ahultzeko.

Inbertsio-merkatu modernoek ikuskizunak, inoiz inbertsio bat erosteak iraunkorra eta zatiezina izan behar duela (ezkontzaren antzera, heriotza edo bestelako zio larriren bat gertatzea salbu) ondorioztatzen eraman izan nau eta honako hau konponbide baliagarria da gure gaur egungo okerrentzat ere; izan ere, horrek inbertitzaileak beren arreta epe luzeko aukera bideratzera behartuko bailituzke. Baina baliabide hau aztertuta arazo bat azaltzen zaigu. Inbertsio-merkatuen likideziaz sarritan beste inbertsio batzuetarako bidea errazten duela erakusten digu, nahiz eta batzuetan erraztu beharrean bide hori eragozti egiten duen. Izan ere, inbertitzaile indibidual bakoitzak bere konpromisoa «likidoa» izatearen itxaropenak (hau inbertitzaile guztientzat batera hartuta ezinezkoa bada ere) lasaitu egiten ditu eta arriskua tentatzeko suspertu egiten ditu. Inbertsioen banakako erosketek beren likideziaz galduko balute, beste inbertsioak larriki oztopa litzake, norbanakoak bere aurrezkiak gordetzeko *beste aukera batzuk* dituen bitartean. Honetan datza arazoa. Norbanakoak bere aberastasuna *dirua* gordetzen edo maileguan uzten erabil dezakeen neurrian, egungo kapital-ondasunak erosteko aukera ez zaio behar bezain erakargarria irudituko (batez ere kapital-ondasunak erabiltzen ez dituen eta horiei buruz oso gutxi dakien norbanakoari), ondasun horiek diru erraz bihur daitezkeen merkatuak antolatzen direnean izan ezik.

Mundu modernoaren bizitza ekonomikoari eragiten dioten konfiantza-krisialdiak goitik behera sendatzeko bide bakarra, norbanakoari bere sarrera kontsumitzearen edo berariazko kapital-ondasunak ekoiztea agintzearen artean erabakitzeak aukera ez ematea litzateke, ekoizpen horrek bere esku dagoen inbertsiorik onena bailitzan liluratzen baitu (baita inolako frogaz sendorik gabe ere). Gerta liteke, etorkizunari buruzko zalantzak ohi baino gehiago eragiten diotenean,

beren nahasmenean, gehiago kontsumitzera eta inbertsio berri gutxiago egitera jotzea; baina honek, zalantzek horrela asaldatzen dutenean bere dirua era batera zein bestera gastatzeko duen erraztasunetik eratorritako ondorio latzak saihestuko lituzke.

Jakina, dirua metatzeak dakartzan gizarte-arriskuak agerian utzi dituztenek antzeko zerbait zerabilten buruan. Baina fenomenoak inolako aldaketarik gabe (edota, gutxienez, dirua gordetzen neurgarria litzatekeen aldaketaren batekin) gertatzeko aukera bazter utzi dute.

VII

Espekulazioaren ondoriozko egonkortasunik eza alde batera utzita ere, badago giza izaeraren ezaugarrietatik eratorritako beste ezegonkortasunik; alegia, gure jarduera positibo moralen (hedonista zein ekonomikoen) zati handi batean eragin handiagoa duela gure bat-bateko baikortasunak, aurreikuspenen matematikoak baino. Zerbait positiboa egitea erabakitzen dugunean, eta honen ondorioak erabat egun asko igaro arte agertuko ez direnean, seguraski dinamismo naturalaren emaitza gisa baino ezin ditugu hartu —ezer ez egitea baino hobe delakoan ekiteko bat-bateko beharraren emaitza gisa— eta ez probabilitate koantitatiboek biderkatutako irabazi koantitatiboen batez besteko haztatuaren ondorioz. Enpresak nahi duen bultzagarri bakarra bere programaren edukia da, honek nolanahiko garbitasun eta zintzotasuna duela ere. Hego Polorako espedizioa baino zertxobait gehiago besterik ez da oinarritzen irabazi probableen kalkulu zehatzean. Horregatik, dinamismoa hoztu eta bat-bateko baikortasunak huts egiten badu, eta euskarri bakar gisa aurreikuspen matematikoa geratzen bazaigu, enpresak gainbehera egiten du eta hil egiten da —nahiz eta galtzeko beldurraren oinarriak, lehen irabazteko itxaropenek izandako oinarriak bezain arrazoigabeak izan—.

Beldur gabe esan dezakegu etorkizunera begiratzen duten itxaropenen arabera diharduen enpresak komunitateari, oro har, onura dakarkiola. Baina ekimen indibiduala bidezkoa izango bada, zentzuko kalkuluaren oinarri eta euskarri gisa dinamismo naturala hartu behar du, sarritan eskarmentuak guztiei erakusten dien eta aitzindariak atze-

ra botatzen dituen azken galeren ideia (osasunez gainezka dagoen norbanakoak heriotzaren ideia alboratzen duen moduan) bazterrean utziz.

Honek tamalez honakoa esan nahi du: atzeramendu eta beheraldiei garrantzi handiegia emateaz gain, oparotasun ekonomikoak batez besteko negoziozaleari atsegin zaion giro politiko eta sozialarekiko menpekotasun handiegia duela. Gobernu Laborista edo New Deal-arekiko beldurrak enpresa beherarazi egiten badu, horrek ez du, nahitaez, zentzuzko kalkuluak edo helburu politikoak dituen konspirazioaren fruitu izan behar —aitzitik, bat-bateko baikortasunaren oreka ahula aldaraztearen ondorio hutsa da—. Inbertsio-aukerak zenbaterakoan, beraz, beren bat-bateko jarduerak aukera horiei eragiten dietenen urduritasuna eta histeria hartu behar ditugu kontuan, baita digestioarekiko edo eguraldi-aldaketarekiko dituzten erreakzioak ere.

Hemendik ezin ondoriozta genezake guztia psikologia irrazionalen boladen araberrakoa dela. Alderantziz, epe luzeko aurreikuspenen egoera normalean tinkoa izan ohi da, eta ez denean ere, gainerako faktoreek eragin konpentsatzaileak izaten dituzte. Besterik gabe, honakoa gogoratzen ari gara: etorkizunari eragiten dioten giza erabakiak (hauek pertsonalak, politikoak nahiz ekonomikoak direla ere) ezin izan daitezkeela aurreikuspen matematiko zorrotzaren menpekotak, ez baitago zenbatespen hori egiteko oinarririk; eta gurpilak birarazten dituen gure jarduteko joera naturala dela; aukera ororen artean, gure razionalitateak ahal duen hobekien aukeratzen du, aukera dagoenean kalkuluak eginez, baina sarritan arrazoia nahikerian, sentimenean edo zortean aurkituz.

VIII

Gainera, praktikan etorkizunari buruzko gure ezjakintasuna nolabait ere samurtzen duen hainbat faktore garrantzitsu dago. Interes konposatuaren mekanismoa dela eta, denborak aurrera egin ahala zaharkitzearen probabilitatearekin batera, inbertsio indibidual asko dago beren errendimendu probablea jatorritik gertu dagoen nahikoa etorkizun hurbileko errendimenduen menpe. Oso epe luzeko inber-

tsio-motaren kasuan (hau da, eraikuntzari dagokionean), inbertitzaileak, sarritan, maizterrari pasa diezaioke arriskua, edota, gutxienez, bien artean banatu epe luzeko kontratuen bidez, maizterrari iraunkortasun eta segurtasunagatiko abantailek arriskua konpentsatuko baitioite. Epe luzeko beste inbertsio-mota bati dagokionez (hau da, zerbitzu publikoen enpresen baloreen kasuan), errendimendu probablearen zati handi bat ia guztiz bermatuta dago, bai monopolioaren pribilegioen bidez eta bai finkatutako marjina eskuratzeko tasak kargatzeko esku-bideen bidez. Azkenik, bada gero eta garrantzi handiagoa duen inbertsio-mota bat, agintaritza publikoek —edo hauen arriskupean— burututakoa, eta hauetan erabateko eragina du jendearen uste orokor batek; alegia, inbertsio horretatik eratorritako gizarte-abantailak egon badaudela, marjina handi batean bere produktibitate komertziala edozein dela ere, eta ez da saiatu ere egiten errendimenduaren aurreikuspen matematikoa, gutxienez, interes-tasa arruntaren berdina dela konbentzitzen —nahiz eta agintaritza publikoak ordaindu behar duen tasak oraindik ere, jasan ditzakeen inbertsio-eragiketen bolumena finkatzeko zeregin erabakigarria bete dezakeen.

Horrela, interes-tasen aldaketen bereizketa dela eta, epe motzeko aldaketek epe luzeko aurreikuspenen egoeran duten eraginarean garrantzia neurtu ondoren, oraindik ere interes-tasara itzuli eta egoera normaletan inbertsio-tasan berebiziko eragina duen faktore gisa har dezakegu, nahiz eta eragin hori erabakigarria izan ez. Dena den, eskarmentuak baino ez dezake erakutsi interes-tasan esku hartzea inbertsioaren bolumen egokia etengabe suspertzeko zenbateraino gai den.

Nire aldetik, orain zertxobait eszeptikoa naiz interes-tasan eragiteko politika monetario hutsak izan dezakeen arrakastari buruz. Espero dut Estatuak, zeina gizarte osoaren onuran oinarrituz kapital-ondasunen epe luzeko eraginkortasun marjinala kalkulatzeko egokian dagoen, bere gain gero eta erantzukizun handiagoa hartuko duela inbertsioen zuzeneko antolaketan, Izan ere, seguraski, kapital-mota desberdinen eraginkortasun marjinalaren merkatuko zenbatespenen gorabeherak, lehen esan bezala kalkulatutak, handiegiak izango baitira interes-tasaren nolabaiteko aldaketa posibleekin aurre egiteko.

XIII. KAPITULUA

INTERES-TASAREN TEORIA

OROKORRA

I

11. kapitulan adierazi dugunez, kapitalaren eraginkortasun marjinala interes-tasaren parean mantenduz, inbertsio-tasa igo ala jai-tsiarazten duten indarrak egon arren, kapitalaren eraginkortasun marjinala eta interes-tasa, berez, ez dira gauza bera. Eraginkortasun marjinalaren kurbak beste inbertsio batzuetarako eskuragarri dauden fondo-en eskaria egiteko baldintzak jartzen dituela esan daiteke; interes-tasak berriz, fondo horiek gaur egun zein baldintzatan eskaintzen diren ezartzen du. Gure teoria osatzeko, beraz, interes-tasa finkatzen duten faktoreak ezagutu beharrean gaude.

14. kapitulan eta bere eranskinean zehar orain arte galdera honi eman zaizkion erantzunak landuko ditugu. Oro har, interes-tasa, erantzun horien arabera, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren eta aurrezteko joera psikologikoaren kurbek elkar mozten duten puntua-ren menpe dagoela ikusiko dugu. Interes-tasa, batetik, interes-tasa jakin batean egin litekeen inbertsio berriaren aurrezki-eskaria eta, bes-tetik, tasa horretan komunitateak aurrezteko duen joera psikologikoa-ren ondoriozko aurrezki-eskaintza berdintzen dituen oreka-faktorea izango litzateke. Baina bi faktore hauek bakarrik ezagututa interes-tasa zein izango den ondorioztatzea ezinezkoa dela konturatu bezain laster, teoria hau bertan behera geratzen da.

Zein da, bada, galdera honentzat gure erantzuna?

II

Norbanako baten denbora-lehentasun psikologikoek bi erabaki-mota behar dituzte guztiz burutuko badira. Lehenak *kontsumitzeko joera* izendatu dudan denbora-lehentasunaren ikuspegiarekin du zerikusia, III. liburuan adierazitako arrazoen ildotik norbanako bakoitzak bere sarreratik zein zati kontsumituko duen eta etorkizuneko kontsumorako *edonolako* erosahalmen gisa zenbat gordeko duen finkatzen duenarekin.

Baina erabaki honen ondoren, beste bat hartu behar du, hau da, bere egungo sarreratik nahiz aurreko aurrezkietatik ateratako etorkizuneko kontsumorako erosahalmen hori *nola* gordeko duen. Berehalako erosahalmen likido gisa (hau da, dirua edo honen baliokideren bat) gorde nahi al du? Edo denboraldi zehatz ala mugagabea zehar berehalako erosahalmenari uko egiteko prest al dago, horrela, behar izango balu, jakineko ondasunekiko duen erosahalmen geroratu ondasun orokorrekiko berehalako erosahalmen bihur dezaketen baldintzak merkatuaren etorkizuneko egoeraren esku utziaz? Bestela esan, zenbaterainokoa da bere *likideziagatiko lehentasuna* —norbanakoaren likideziagatiko lehentasuna egoera desberdinetan gorde nahi izango dituen baliabideen (dirutan zein alokairu-unitateetan neurtutako) bolumen-kurbak adierazten duenean?

Ikusiko dugunez, interes-tasari buruz onartzen diren teorien akatsa, interes-tasaren iturri gisa denbora-lehentasun psikologikoa osatzen duten bi elementu hauetako lehena bakarrik hartzea eta bigarrrena alde batera uztea da; eta hau da, hain zuzen, konpontzen saiatu behar dugun hutsegitea.

Argi egon beharko luke interes-tasa ezin dela aurrezkiaren edo itxarrotearen saria izan (kontzeptuok beren horretan hartuta). Izan ere, gizaki batek bere aurrezkiak eskudirutan gordetzen baditu, ez du interesik irabazten, nahiz eta lehen adina aurreztu. Aitzitik, interes-tasaren definizio berak esaten digu, hitz askotan, interes-tasa denboraldi jakin baterako likideziari uko egiteagatiko saria dela. Izan ere, tasa hori, azken batean, epe jakin batean zehar⁸⁴ zor⁸⁵ baten truke diru-kontrolari uko egiteagatik lor daitekeenaren eta diru-kopuru baten arteko proportzioaren alderantzizkoa besterik ez baita.

Beraz, uneoro interes-tasa likideziari uko egitearen saria denez, dirua dutenek honek ematen dien botere likidoari uko egitearen neurria da. Interes-tasa ez da inbertitzeko baliabide-eskaria eta egungo kontsumoa baztertzearen aldeko jarrera orekatzen dituen «prezioa». Aitzitik, aberastasuna eskudiru gisa gordetzeko nahia eta eskudiruaren kopuru erabilgarria orekatzen dituen «prezioa» da —honek tasa txikiagoa izango balitz, hau da, eskudiruari uko egiteagatiko saria murriztuko balitz, jendeak gorde nahiko lukeen eskudiru honen bolumenak, guztira, eskaintza baliagarria gaindituko lukeela esan nahi du, eta interes-tasa handiagotuko balitz, inor gordetzeko prest egongo ez litzatekeen eskudiru-soberakina egongo litzatekeela—. Azalpen hau zuzena bada, diru-kopurua da, likideziagatiko lehentasunarekin batera, egoera jakin batzuetan benetako interes-tasa ezartzen duen beste faktorea. Likideziagatiko lehentasuna, interes-tasa ezagutzean jendeak gordeko duen diru-kopurua finkatzen duen ahalmena edo joera funtzionala da; hortaz, r interes-tasa bada, M diru-kopurua eta L likideziagatiko lehentasunaren funtzioa, $M = L(r)$ izango dugu. Horrelaxe eta hemendixe sartzen da, hain zuzen, diru-kopurua mekanismo ekonomikoan.

Dena den, itzul gaitezen atzera eta ikus dezagun zer dela eta dagoen likideziagatiko lehentasuna deiturikoa. Honi buruz, esanahi zaharrari heldu eta diruak negozio arruntetako eragiketetarako duen erabilera eta aberastasun-erreserba gisa duena bereizi beharko dira. Erabilera hauetako lehenari dagokionez, argi dago hein batean likidezia handitzearen merezi duela interesa apur bat sakrifikatzea. Baina interes-tasa sekula negatiboa ez denez, zer dela eta nahiago izango luke inork bere aberastasuna interes eskasa edota inolakoa ematen ez duen moduan gordetzea, interesa ematen duen beste era batean gorde beharrean (jakina, oraingoz saldo bankarioak eta bonoak galera-arrisku berdina dutela kontsideratzen dugu)? Azalpen osoa konplexua da oso, eta 15. kapitulura arte itxaron beharko dugu. Dena den, badago beharrezko baldintza bat, eta hori bete ezean aberastasuna gordetzeko bide gisa ez litzateke diruaren likideziagatiko lehentasuna egongo.

Beharrezko baldintza hori interes-tasarekiko etorkizuneko *ziurgabetasuna* izatea da, hau da, etorkizunean epe aldakorretarako gobernatukoduten tasa-multzoari buruzko zalantzak; izan ere, etorkizunean nagusi izango diren interes-tasak erabat seguru aurreikusi ahal

izango balira, hainbat epetarako zorrei dagokienez, gerora izan beharreko tasa guztiak gaur egunekoetatik ondoriozta litezke, eta zorrak etorkizuneko tasak zein izango diren jakitera doituko lirateke. Esaterako, aurren, 1. urtean, r urtetan geroratutako libra baten balioa ${}_1dr$ bada, eta ${}_ndr$, n urtean r urtetan geroratutako £1-en balioa izango dela baldin badakigu, emandako datatik aurrera, honakoa izango dugu:

$${}_ndr = \frac{{}_1dn+r}{{}_1dn}$$

eta hemendik ondoriozta dezakegunez, edozein zor n urte barru eskudiru bihur daitekeen a tasa, interes-tasa arrunten multzo guztiko bik mugatzen dute. Egungo tasa edozein epetarako zorrentzat positiboa bada, beti ere abantailatsuagoa izango da zor bat erostea, dirua aberastasun-erreserba gisa gordetzea baino.

Alderantziz, etorkizuneko tasa segurua ez bada, ezin ziurta dezakegu unea iritsitakoan ${}_ndr$ eta ${}_1dn+r/{}_1dn$ berdinak izango direnik. Horregatik, n urteak agortu baino lehen eskudiru likidoaren beharra egongo dela jakinez gero, dirua hasieratik eskudiru gisa gorde beharrean gerora eskudiru bihurtzeko epe luzeko zorra erosiz gero, galtzeko arriskua dago. Oraingo irabaziaz edo egun dauden aukeren arabera kalkulaturako irabazteko aurreikuspen matematikoak —kalkula badaiteke behinik behin, nahikoa zaila baita— itxaropena zapuztearen arriskua konpentsatzeko adinakoa izan behar du.

Horrez gain, etorkizuneko interes-tasarekiko ezjakintasunaren ondorioz ematen den likideziagatik lehentasunarentzat esparru zabalgia geratzen da oraindik ere, baldin eta zorren tratua duen merkatu antolatua badago; izan ere, pertsona bakoitzak probabilitateak bere erara zenbatetsiko ditu, eta merkatuko kotizazioetan nagusi den iritzitik at geratzen den edozeinek, nolabaiteko arrazoi sendoa izan dezake baliabide likidoak gorde eta, bide zuzenetik badabil, une egokian ${}_1dn$ ezberdinen arteko erlazioa oker zegoela frogatuta irabazia lortzeko⁸⁶.

Aurreko horrek antz handia du jadanik kapitalaren eraginkortasun marjinalari buruz jardutean nahikoa sakon aztertu dugunarekin. Beraz, masen psikologiaren ondorioz kapitalaren eraginkortasun mar-

jinala iritzi «hoberenaren» araberakoa izan beharrean merkatuaren balorazioaren menpekoa dela frogatu genuen bezalaxe, psikologia beraren ondorioz ere, interes-tasaren etorkizunari buruzko aurreikuspenek, halaber, likideziagatiko lehentasunaren arabera erreakzionatuko dute —baina hemen, gainera, etorkizuneko interes-tasak merkatuak aurreikusitakoan gainetik egongo direla uste duen norbanakoak benetako diru likidoa⁸⁷ gordetzeko arrazoiak izango ditu eta, aitzitik, interes-tasak merkatuaren aurreikuspenen azpitik egongo direla uste duenak, epe laburreko maileguak hartzeko arrazoiak izango ditu, epe luzeagorako zorrak erostearren—. Merkatuko prezioa, ondorioz, «beherantzazaleen» salmentak eta «gorantzazaleen» erosketak orekatzaren diren puntuan finkatuko da.

Likideziagatiko hiru lehentasun-motak ondorengo zioen menpe daudela esan daiteke: 1) transakzio-zioa, hau da, dirualdaketa pertsonal eta negozioetako eragiketa arruntetarako eskudiruaren beharra; 2) zuhurtzi zioa, hau da, baliabide guztien zati bat eskudirutan gordetzea, etorkizunarekiko ziurtasun-nahiaren baliokide gisa, eta 3) espekulazio-zioa, hau da, etorkizunean zer gertatuko den merkatuak baino hobeto jakiteagatik irabaziak lortzeko asmoa. Kapitalaren eraginkortasun marjinala aztertzen genuenean bezalaxe, zorren salerosketa egiteko ondo antolatutako merkatua izateko nahiak arazo bat sorrarazten digu: merkatu hori ez badago, zuhurtzi zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasuna asko haziko litzateke; eta merkatu antolatua egoteak aukera ematen du espekulazio-zioaren ondorioz likideziagatiko lehentasunean gorabehera handiak izateko.

Agian ondorengo suposizioak arrazonamendua zertxobait argituko du: demagun transakzio-zioaren eta zuhurtzi zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasunek, interes-tasen aldaketan eraginpean gutxi aldatzen den eskudiru-kopurua zurgatzen dutela, tasa-aldaketa horiek sarreren mailan izan ditzaketen erreakzioak alde batera utzita. Beraz, zurgatutako kopuru hori kenduta, gainerako diru-kopuru osoa prest egongo da espekulazio-zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasuna asetzeko. Ondorioz, interes-tasa eta bonoen prezioa hainbat norbanakok diru likido gisa gorde nahi duten zenbateko osoa eta espekulazio-zioari erantzuteko eskura izan beharreko diru-kopurua berdina diren mailan ezarriko dira (maila honetan bonoei buruz «beherantzazale» sentitzen baitira). Hortaz, diru-kopuruaren gehi-

kuntza bakoitzak bonoen prezioak «gorantzazaleen» aurreikuspenak gainditzeko adina igo beharko ditu, «gorantzazale» hauengan eragin eta hauek bonoak eskudiruaren truke saldu eta «beherantzazaleen» taldean sar daitezten. Dena den, trantsizio-denboraldi labur baterako izan ezik, espekulazio-zioa asetzeko eskudiruaren eskaria alde batera uzteko modukoa bada, diru-kopuruaren gehikuntzak interes-tasa nahikoa murriztu beharko du, harik eta enplegua eta alokairu-unitateak nahikoa igo eta eragiteko eta zuhurtzi zioak eskudiru gehigarria zurgatzeko gai izan daitezten.

Normalean dirua eta interes-tasa lotzen dituen likideziagatiko lehentasunaren kurba nahikoa malda txikikoa dela pentsa dezakegu, eta honek diru-kopuruak gora egin ahala tasa nola murrizten den erakusten digu; izan ere, emaitza berdineraren garamatzaten hainbat arrazoi dago.

Lehenik eta behin, interes-tasak jaitsi ahala, *ceteris paribus*, normalean transakzio-zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasunetik diru gehiago zurgatuko dute. Interes-tasaren murrizketak nazio-sarreraren handiagotzen badu, eragiketarako egiteko gordetzea komeni den diru-kopurua, gutxi gorabehera, sarreraren gehikuntzaren proportzioan gehituko da eta, aldi berean, eskudiru erabilgarria gehitzeko komeni izatearen kostua, interes-galera gisa neurtuta, gero eta txikiagoa izango da. Antzeko emaitzak lortuko dira interes-tasa baten ondorengo enplegu-gehikuntzak alokairuen gehikuntza (hau da, alokairu-unitateen diru-balioaren gehikuntza) eragiten badu, likideziagatiko lehentasuna dirutan beharrean alokairu-unitateetan neurtzea ezik (kasu batzuetan komeni da). Bigarrenik, ikusi dugunez, tasaren jaitzialdi bakoitzak norbanako batzuek gorde nahi izan dezaketenean eskudiru-kopurua gehi dezake, etorkizuneko interes-tasari buruz duten ikuspegia eta merkatuarena desberdinak direlako.

Dena den, hainbat egoeratan diru-kopuruaren gehikuntza nahikoa handiak interes-tasan espero zitekeena baino eragin txikiagoa eragin dezake; izan ere, gehikuntza handi horrek etorkizunari buruz ziurgabetasun handia sorrarazi eta zuhurtzi zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasuna handiagotu egin daiteke; bien bitartean, etorkizuneko tasari buruzko iritzien batasun handia bada, gerta daiteke oraingo tasen aldaketa txikiak eskudiruan aldake-

ta ugari sorraraztea. Interesgarria da oso sistemaren egonkortasunak eta diru-kopuruaren aldaketekiko sentikortasunak ziurgabea den *iritzi-sortarekiko* horrenbesteko menpekotasuna izatea. Etorkizuna ezagutzea litzateke hoberena; baina ezezaguna denez gero, sistema ekonomikoaren jarduera diru-kopurua aldatuz zuzendu behar badugu, iritzi desberdinak izatea komeni da. Adibidez, kontrol-metodo hau Estatu Batuetan Ingalaterran baino ziurgabeagoa da, zeren eta Estatu Batuetan jende guztia une berean iritzi bera izateko joera baitago eta Ingalaterran iritzi-desberdintasunak ugarriagoak baitira.

III

Lehen aldiz sartu dugu dirua gure kausazko loturen artean, eta diru-kopuruan dauden aldaketek sistema ekonomikoan eragiten duten erari lehen begirada bat emateko moduan gaude. Dena den, dirua sistema ekonomikoaren jardueraren pizgarria dela ziurtatu nahi badugu, edalontziaren eta ahoaren artean hainbat oztopo egon daitekeela oroi gaitzezen; izan ere, *ceteris parib us*, diru-kopuruaren gehikuntzak interes-tasa murriztea espero badaiteke ere, hori ez da gertatuko baldin eta jendearen likideziagatik lehentasunak diru-kopurua baino maila handiagoan hazten badira; eta, interes-tasaren murrizketak, *ceteris parib us*, inbertsio-bolumena handiagotzea espero daitekeen arren, hori ez da gertatuko baldin eta kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba interes-tasa baino azkarrago jaisten bada; eta inbertsio-bolumenaren gehikuntzak, *ceteris parib us*, enplegua igoarazi egingo duela pentsa badaiteke ere, baliteke hori ez gertatzea baldin eta kontsumitzeko joera beherantza badoa. Azkenik, enpleguak gora egiten badu prezioek gora egingo dute, hein batean eskaintzaren funtzio fisikoaren formaren arabera, eta hein batean dirutan igo beharreko alokairu-unitateen joeraren arabera. Eta outputa handiagotu eta prezioek gora egin dutenean, honek likideziagatik lehentasunean izango duen eragina interes-tasa jakin bat mantentzeko behar den diru-kopurua gehitzea izango da.

IV

Espekulazio-zioaren ondoriozko likideziagatiko lehentasuna *Treatise on Money* liburuan «beherantzaldirako giroa» izendatu nuenari badagokio ere, bi termino hauek ez dira, inola ere, gauza bera. Izan ere, lan horretan «beherantzaldia» ez da interes-tasaren (edo zorren prezioaren) eta diru-kopuruaren arteko erlazio funtzionala bailitzan definitzen; aktibo eta zorren prezioaren, oro har, eta diru-kopuruaren artekoa bezala baizik. Dena den, adierazpen horrek interes-tasaren aldaketaren ondoriozko emaitzak nahastu egiten zituen kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbatik eratorritako emaitzekin, eta oraingo honetan hori saihestu izana espero dut.

V

Altxorgintza kontzeptua likideziagatiko lehentasunaren kontzeptuarekiko lehen hurbilketa gisa har daiteke. Egia esan, «altxorgintza» ordez «altxortzeko joera» erabiliko bagenu, funtsean, gauza bera izango litzateke. Baina «altxorgintza» erabilita daukagun eskudiruaren benetako igoera esan nahi badugu, ideia ez da osoa, eta benetan nahasgarria suertatuko litzateke «altxorgintza» eta «altxorgintzarik eza» alternatiba huts bailiran pentsarazten badigu, zeren eta altxortzeko erabakia ez baita termino absolutuetan hartzen, ezta likideziari uko egiteagatik eskainitako abantailak kontuan hartu gabe ere. Abantailak konparatzearen ondorioz erabakitzen da, eta beraz, beste aldean zer dagoen jakin behar dugu. Are gehiago, ezin da jendearen erabakien ondorioz altxorgintzaren benetako zenbatekoa aldatu, baldin eta «altxorgintzaz» eskudirua benetan edukitzea esan nahi badugu; izan ere, altxorgintzaren bolumenak eta diru-kopuruak (edota, zenbait definizioen arabera, diru-kopurua *ken* transakzio-zioa asetzeko behar denak) berdinak izan behar dute, eta jendeak ez du diru-kopurua finkatzen. Jendeak altxorgintzarako duen joerak, asko jota, altxortzeko desio osoa eta eskudiru erabilgarria berdintzen diren interes-tasa finka dezake. Interes-tasak altxorgintzarekin duen erlazioa baztertzeko ohi-turak hein batean azal dezake zer dela eta interesa ez gastatzearen sari gisa hartu izan den (berez ez altxortzeagatiko saria delarik).

XIV. KAPITULUA

Interes-tasaren teoria klasikoa

I

Zein da interes-tasaren teoria klasikoa? Guztioi erakutsi diguten eta duela gutxi arte ia batere arazorik gabe onartu izan dugun teoria da. Dena den, zaila egiten zait eskola klasiko modernoko liburu nagusietan zehazki adieraztea edo berari buruzko azalpen argigarriak aurkitzea.⁸⁸

Alabaina, argi dago tradizio horrek inbertsioen eskaria eta aurrezkirako joera orekatzen dituen faktoretzat interes-tasa hartu izan duela. Inbertsioak baliabide inbertigarrien eskaria adierazten du, eta aurrezkiak eskaintza; interes-tasa, ordea, biak parekatzen direneko baliabide inbertigarrien «prezioa» da. Salgai baten prezioa, nahitaez, eskaria eta eskaintza berdinak diren mailan finkatzen den moduan, orobat, interes-tasa ere, merkatuko indarren eraginpean interes-tasa horretan inbertsioaren zenbatekoa eta aurrezkia berdinak diren puntuan geldituko da ezinbestean.

Marshall-en *Principles* lanean aurreko hori ez dago horrela adierazita. Dena den, badirudi hau dela bere teoria, ni neu hezia izan nintzeneko bera, eta, gainera, hinbat urtetan beste askori erakutsi niena. Har dezagun *Principles*-eko hurrengo pasarte adibide gisa: «Interesa kapitala erabiltzeagatik edozein merkatutan ordaindutako prezioa izanik, oreka-maila baterantz jotzen du non kapitalak merkatu eta interes-tasa horretan duen eskari osoa eta tasa horretan hornitu-

ko den kapital osoa berdinak diren»;⁸⁹ eta *Nature and Necessity of Interest* liburuan, Cassel irakasleak inbertsioa «itxarotearen eskaria» eta aurrezkia «itxarotearen eskaintza» direla adierazten du, interesa biak berdintzeko balio duen «prezioa» dela ulerraraziz; dena den, hemen ere ez dut aipatzeko hitz zehatzik aurkitu. Carver⁹⁰ irakaslearen *Distribution of Wealth* liburuko VI. kapituluak argi eta garbi hartzen du interesa itxarotearen erabilera marjinal eza eta kapitalaren produktibitate marjinala orekan jartzen dituen faktore gisa. Sir Alfred Fluxek (*Economic Principles*, 95. or.) honakoa idatzi du: «Gure eztabaida orokorrean argudiatutakoa zuzena bada, aurrezkiaren eta kapitala irabazteko asmoz erabiltzeko aukeren arteko doikuntza automatikoa izaten dela onartu beharra dago... Aurrezkiak ez ditu erabilgarria izateko bere aukerak gaitutuko... interes-tasa netoa zero baino handiagoa den artean.» Taussig irakasleak (*Principles*, II. lib., 29. or.), aurrezki-eskaintzaren eta aurrezki-eskariaren kurbak marraztu ditu, eta horien bidez «kapital-ezarpeneren anitzaren beheantzeko produktibitatea» adierazten du, aldez aurretik honakoa argi utziz (20. or.): «interes-tasa kapitalaren produktibitate marjinala aurrezkiaren ezarpeneren marjinala sorrarazteko nahikoa den mailan orekatzen dela».⁹¹ Walras-ek, «kapital berriengatik aurrezkien aldaketa» jorratzen duen *Éléments d'Economie pure* lanaren I (III) eranskinean, tinko adierazten du interes-tasa posible bakoitzari norbanakoek aurreztuko duten zenbateko bat dagokiola, eta baita kapital-ondasun berrietan inbertituko duten beste bat ere; bi zenbateko hauek berdinak izatera jotzen dutela; eta interes-tasa dela biak berdintzen dituen aldagaia; ondorioz, kapital berriaren eskaintza —aurrezkiaren bidez adierazia— eta eskaria berdinak diren mailan finkatzen da interes-tasa. Beraz, erabat barne dago tradizio klasikoaren barnean.

Beraz, teoria tradizionalen hezitako gizaki arruntak —bankariak, funtzionario publiko edo politikoak—, baita ekonomialari adituek ere, norbanako batek aurrezki-ekintza bat burutzen duen bakoitzean, automatikoki, interes-tasa murrizten ari den zerbait egin duela-ko ideia eduki izan dute; horrek automatikoki kapitalaren ekoizpena suspertzen duela, eta interes-tasaren jaitsiera, kapitalaren ekoizpena aurrezkien gehikuntzaren maila berean suspertzeko behar dena dela, zehazki; eta gainera, hau doikuntzako prozesu autoerregulatzailea dela, moneta-agintaritzaren inolako eskuhartze bereziaren edo zain-

tzaren beharrik gabe. Era berean —eta honako hau oraindik zabalduagoa dagoen ustea da, gaur egun ere—, inbertsio-ekintza gehigarri bakoitzak, nahitaez, interes-tasa igo egingo duela uste dute, baldin eta aurrezteko joeraren aldaketarekin parekatuta ez badago.

Dena den, aurreko kapituluen azterketak argi utzi behar zigun gaiaren interpretazio hau okerra dela. Iritzi-desberdintasun hau zergatik dagoen jatorriraino aztertzen hasita, lehenik eta behin bat datozen puntuei helduko diegu.

Aurrezkia eta inbertsioa desberdinak izan daitezkeela uste duen Eskola neoklasikoak ez bezala, eskola klasikoak, zentzu hertsian ulertuta, biak berdinak direlako ikuspuntua onartu du. Esaterako, Marshallrek uste bide zuen, nahiz eta espreski esan ez, aurrezkiaren eta inbertsio osoaren zenbateko osoek berdinak izan behar zutela. Egia esan, eskola klasikoko kide gehienek uste hau urrunegi eraman zuten, eta aurrezkiak gehitzeko ekintza indibidual orori, nahitaez, inbertsioaren hazkundearen beste ekintza bat darraiola uste zuten. Oraingo honi dagokionez, ez dago funtsezko desberdintasunik nire kapitalaren eraginkortasun marjinalaren edo inbertsio-eskariaren kurbaren eta lehen aipatutako idazle klasiko batzuek sinesten zuten kapital-eskariaren kurbaren artean. Kontsumitzeko joerara eta honen korolariora (aurrezteko joerara, alegia) iristen garenean, iritzi-desberdintasuna errazago izango da, interes-tasak aurrezteko joeran duen eraginari eman dioten indarra dela eta. Baina seguraski ez dute ukatu nahiko sarrera-mailak ere aurreztutakoaren zenbatekoan eragin handia duela; eta nik, neure aldetik, ez nuke ukatuko interes-tasak, agian (nahiz eta beharbada beraiek suposatzen dutenaren tankerakoa ez izan), *sarrera jakin batetik* aurreztutako zatian eragina izan dezakeela. Adostasun-puntu hauek guztiak eskola klasikoak onartuko lukeen eta nik eztabaidatuko ez nukeen proposizio batean laburbil daitezke, hau da, sarrera-maila aldeztu aurretik ezaguna bada, interes-tasa arrunta tasa desberdinei dagokien kapital-eskariaren kurbak eta interes-tasa desberdinetan sarrera horretatik aurreztutako kantitateen kurbak elkar mozten duten puntuan egongo dela ondoriozta dezakegu.

Baina hor dago teoria klasikoaren behin betiko akatsa. Aurreko proposizioari dagokionez, eskola klasikoa kapital-eskari kurba eta interes-tasaren aldaketek aurrezteko joeran duten eragina, sarrera jakin batzuetatik abiatuta, sarrera-maila eta interes-tasak koerlazio

bakarra izan beharko luketela ondorioztatzera mugatuko balitz, ez litzateke zer esanik egongo. Are gehiago; proposizio horrek, jakina, esanahi osoa duen beste batera eramango gintuzke, hau da, interes-tasa, kapital-eskariaren kurba eta interes-tasak aurrezteko joeran duen eragina ezagututa, sarrera-maila jakinetatik abiatuta, sarrera hauen maila izango da aurreztutakoaren zenbatekoa eta inbertitutakoarena berdintzen dituen faktorea. Baina berez, teoria klasikoak aldaketek sarrera-mailan duten eragina albo batera uzteaz gain, akats formala egiten du.

Aurreko aipamenetan ikus daitekeenez, teoria klasikoak honakoa suposatzen du: (esate baterako) kapital-eskariaren kurbak interes-tasan duen desplazamenduaren eragina berehala har daitekeela kontuan, aurrezkiak atera behar duteneko sarrera jakinaren zenbatekoari buruzko hipotesia aldatu gabe. Interes-tasaren teoria klasikoaren aldagai independenteak, interes-tasak sarrera jakin batetik aurreztutako kopuruan duen eragina eta kapital-eskariaren kurba dira, eta (esate baterako) kapital-eskariaren kurba desplazatu egiten denean, interes-tasa berria, teoria honi jarraiki, kapital-eskariaren kurba berriak eta sarrera horretatik aurreztuko diren kopuruak eta interes-tasa lotzen dituen kurbak elkar moztzen duten puntuan finkatuta dago. Badirudi interes-tasaren teoria klasikoak honakoa suposatzen duela: eskari-kurba desplazatu egiten bada, edota interes-tasa eta sarrera jakin batetik aurreztutako kopuruak lotzen dituen desplazatu egiten bada, edo biak desplazatzen badira, interes-tasa berria bi kurben kokaera berrien ebaki-puntuak finkatuko duela. Baina teoria honek ez du zentzurik, zeren eta sarrera konstantea omen deneko suposizioa ez baitator kurba hauek elkarrengandik independenteki desplazatu ahal izatearen suposizioarekin bat. Kurbetako bat mugitzen bada, sarrera, oro har, aldatu egingo da eta, beraz, sarrera jakin baten hipotesian oinarritutako eske-ma guztia bertan behera geratuko da. Kokaera mantentzeko, beharrezkoa da alokairu-unitateetan aldaketa automatikoa eragingo lukeen suposizio konplexuren bat gertatzea, likideziagatiko lehentasunean gain izaniko ondorioetan, doi-doi, aldaketa nahikoa izanik interes-tasa ezarri eta honek, doi-doi, ustezko desplazamendua neutralizatzeko outputa aurreko maila berdineran eramateko moduan. Berez, aipatutako idazle batek ere ez du delako suposizio horren inolako oharpenik egiten; kasurik onenean ere, epe luzeko orekari begira bakarrik gerta

litekeena da, eta ezingo litzateke epe laburretako teoriaren oinarria izan. Ez dago inolako arrazoirik epe luzetarako nolabaiteko baliagarritasuna duela suposatzeko. Egia esan, teoria klasikoa ez da ohartu sarrera-mailan izandako aldaketek duten garrantziaz, edota sarrera-maila, benetan, inbertsio-tasaren funtziopekoa izan daitekeenaz.

Lehenago aipatutako hori hurrengo diagramaren⁹² bidez adieraz daiteke:




Diagrama horretan I inbertsioaren (edo aurrezkiaren) zenbatekoa bertikalean neurtzen da, eta r interes-tasa horizontalean. $X_1X'_1$ inbertsio-eskariaren kurbaren lehen kokapena da, eta $X_2X'_2$, kurba horretako bigarren kokapena. Y_1 kurba, Y_1 sarreratik aurreztutako kopuruak interes-tasaren hainbat mailarekin erlazionatzen ditu, Y_2 , Y_3 , etab. Y_2 , Y_3 eta beste sarrera-mailei dagozkien kurbak izanik. Demagun Y_1 kurba $X_1X'_1$ inbertsio-eskariaren kurbari eta r_1 interes-tasari dagokien Y kurba dela. Inbertsio-eskariaren kurba $X_1X'_1$ -etik $X_2X'_2$ -ra desplazatzen bada, normalean sarrerak ere desplazatu egingo dira. Baina hemen adierazitako diagramak ez du bere balio berria zein izango den adierazteko nahikoa *datu*; eta, beraz, Y kurba egokia zein den jakin gabe, ez dakigu inbertsio-eskariaren kurba berriak zein puntutan moztuko duen. Dena den, likideziagatik lehentasunaren egoera eta diru-kantitateak kontuan hartuz gero, eta diru-kopuruak eta magnitude horiek interes-tasa r_2 dela adierazten badigute, kokapena guztiz finkatuta geratzen da, zeren eta $X_2X'_2$ r_2 -ren gainean bertikalean

mozten duen Y kurba, hau da, Y_2 kurba, dagokiona izango baita. Beraz, X eta Y kurbek ez digute interes-tasari buruz ezer esaten. Sarrera zein izango den besterik ez digute adierazten, baldin eta beste bide batzuetatik interes-tasa zein den jakiterik baldin badugu. Likideziagatik lehentasunaren egoera edo diru-kopurua aldatu ez badira, eta hortaz, interes-tasak aldatzeke badirau, Y_1 kurbak inbertsio-eskariaren kurba zaharra mozten duen puntuaren bertikalean inbertsio-eskari kurba berria mozten duen Y_2' kurba, dagokion Y kurba izango da, eta Y_2' sarrera-maila berria.

Hortaz, teoria klasikoak erabilitako funtzioak, hau da, inbertsioaren eta sarrera jakin batetik aurreztutako zatiaren interes-tasaren aldaketarekiko erreakzioak, ez dute nahikoa elementu ematen interes-tasari buruzko teoria osatzeko; baina interes-tasa ezagutuz gero (beste bide batzuetatik), elementu horiek erabil litezke sarrera-maila zein den jakiteko; eta, alderantziz, interes-tasak zein izan beharko duen ezagutzeko, baldin eta sarrera-maila kopuru jakin batean mantendu behar bada (enplegu beteari dagokion mailan esaterako).

Akatsa, interesa itxarotearen sari gisa hartzeagatik sortzen da, ez altxortzeagatik jasotzen denaren gisara hartu beharrean (maileguen edo nolabaiteko arriskua duten inbertsioak edo errendimendu-tasak hartu ezinagatik itxarote hutsaren sari gisa ere ez dira hartu behar, arriskuan jartzearenaren gisa baizik. Egia esan, ez dago muga zehatzik hauen eta interes-tasa «huts» deiturikoen artean, guztiak ere nolanahiko ziurtasunik ezagatik arriskuan jartzearen ordainsaria baitira. Dirua transakzioetarako bakarrik erabiliko balitz, eta sekula ez balioeramale gisa, bestelako teoriaren bat ere zuzena izan liteke.⁹³

Dena den, eskola klasikoa zerbait oker zebilela konturatzeko moduko bi puntu guztiz ezagun daude. Lehenik eta behin, gutxienez Cassel irakaslearen *Nature and Necessity of Interest* kaleratu zenez geroztik, onartuta dago interes-tasa handiagotzen denean sarrera jakin batetik aurreztutako zatia handiagotu egingo denik ez dela segurua; aitzitik, inork ez du zalantzan jartzen interes-tasa igotzen denean inbertsio-eskararen kurba jaitsi egiten dela. Baina Y eta X kurbak tasa igotzen denean jaitsi egiten badira, Y kurba jakin batek beste X bat inon mozteko inolako ziurtasunik ez dago. Honek Y eta X kurbak interes-tasa finkatzen duten bakarrak ezin direla izan iradokitzen digu.

Bigarrenik, ohizkoa izan da diru-kopuruaren igoerak interes-

tasa murriztera jotzen duela (hasieran eta epe laburretan gutxienez) suposatzea. Dena den, ez dago inolako arrazoirik diru-kopuruaren aldaketak inbertsio-eskariaren kurbari nahiz sarrera jakin baten zati bat aurrezteko nahiari zergatik eragin beharko dion suposatzeke. Eskola klasikoak adibidez, 1. liburukian —balioaren teoriaren ingurukoan— erabiltzen duen interes-tasari buruzko teoria eta 11. liburukian —moneta-teoriari buruzkoa — erabiltzen duena guztiz desberdinak dira. Badirudi gatazkan tinko mantendu dela eta, nik dakidala, ez du inolako saiorekin egin bi teorien artean zubia luzatzeko. Esandako hau teoria klasikoari dagokio, zentzu hertsian hartutakoari; zeren eta eskola neoklasikoak zubiak luzatzeko egin dituen saioak izan baitira nahaste-borraste okerrenetara eraman gaituztenak. Izan ere, azken eskola hau inbertsio-eskariaren kurba asetzeko *bi* hornikuntza-iturri egon behar dutelako ondoriora iritsi da; hau da, eskola klasikoak lantzen dituen aurrezkiak, huts-hutsean, *gehi* diru-kopuruaren edozein gehikuntzak erabilgarri uzten duen zenbatekoa (azken hau orekatuta dago «derrigortutako aurrezkia» edo antzeko izenen batekin jendeari ezartzen zaizkion hainbat zergen bidez). Honek interes-tasa «naturala», «neutrala»⁹⁴ edo «orekatua» omen dagoelako ideia garrantzitsua, hau da, inbertsioa eta aurrezki klasiko hutsak berdintzen dituen interes-tasara, «derrigorrezko aurrezkietatik» etorritako gehigarririk gabekora; eta, azkenik, hasieratik bertatik arrazoia dutela suposatuz, guztietan argiena den irtenbidera iritsiko ginateke, hau da, edozein egoeratan diru-kopurua *konstante* mantentzerik balego, ez litzatekeela hauetako arazo bat bera ere sortuko, inbertsioek aurrezki hutsez gain duten soberakinetik eratorritako arazo guztiak ezinezkoak izango bailirateke. Baina une honetan ur sakonetan urperatuta gaude. «Ahate basatia hondoraino murgildu zen —ahal izan zuen hondoeneraino— eta bertan zeuden sasi, belar eta zaborrei gogor heldu zien, eta guztiz zakur azkarra beharko litzateke hura aurkitu eta bertatik ateratzeko.»

Horregatik, analisi tradizionala oker dago, ezin izan baititu sistemaren aldagai independenteak behar bezala isolatu. Aurrezkia eta inbertsioa sistemak mugatzen ditu eta ez dira, beraz, sistemaren mugatzaileak. Sistemaren mugatzaileen pareko emaitzak dira, hau da, kontsumitzeko joerarena, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbarena eta interes-tasarena. Egia esan, mugatzaile hauek berez konplexuak dira, eta hauetako bakoitza besteen balizko aldaketan era-

ginpean egon daiteke. Baina beren balioak gainerakoetatik ondoriozta ezin daitezkeenez, independenteak izaten segitzen dute. Analisi tradizionalak aurrezkia sarreraren araberakoa dela adierazi du, baina, era berean, sarrera inbertsioaren araberakoa dela bazter utzi du, eta inbertsioa aldatzen denean sarrerak ere ezinbestean aldatu egin behar du, doi-doi aurrezkiaren aldaketa eta inbertsioarena berdinak izateko beharrezkoa den mailan aldatu ere.

Ez dira, ez, arrakastatsuagoak interes-tasa «kapitalaren eraginkortasun marjinalaren» menpeko bihurtu nahi duten teoriak. Egia da orekan interes-tasa eta kapitalaren eraginkortasun marjinala berdinak izango direla, irabaziak eragingo baitu inbertsioaren bolumen arrunta berdintasunera iritsi arte gehitzea (edo murriztea). Baina hau interes-tasaren teoria bihurtzeak, edo interes-tasa bertatik ondorioztatzeak sorgin-gurpil batera garamatza, Marshallek oharrarazi zuen bezala (ildo horri jarraiki, interes-tasaren definizioaren erdibidera iritsi zenean)⁹⁵. Izan ere, «kapitalaren eraginkortasun marjinala» neurri batean jadaneke inbertsio-eskalaren araberakoa baita, eta interes-tasa zein den behar dugu eskala hori zein izango den kalkulatu aurretik. Ondorio garrantzitsuena hau da: alegia, inbertsio berrien outputa kapitalaren eraginkortasun marjinala interes-tasarekin parekatzen den mailaraino egingo dela; eta kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbak adierazten diguna ez da interes-tasa zein den, baizik eta interes-tasa ezaguna delarik inbertsio berrien outputazein punturaino eramango den.

Irakurlea lehen begiradan ohartuko da hemen aztertzen ari garen arazoaren funtsezko garrantzi teorikoaz eta aparteko eragin praktikoaz, zeren eta ekonomialariek beren aholku praktikoen oinarri gisa ia beti erabili izan duten printzipio ekonomikoa, benetan, *ceteris paribus*, gastuen murrizketak interes-tasa jaitsiarazi egingo duela eta inbertsioaren gehikuntzak interes-tasa igoarazi egingo duela izan da. Baina bi kantitate hauek mugatzen dutena interes-tasa ez bada, baizik eta enpleguaren zenbateko osoa, sistema ekonomikoaren mekanismo-ari buruz dugun ikuspegia goitik behera aldatuko da. Gastatzeko joera txikiagoa guztiz bestela ikusiko dugu, *ceteris paribus*, inbertsioa gehituko duen faktore gisa beharrean, *ceteris paribus*, enplegua murriztuko duen faktore gisa hartzen badugu.

ERANSKINA

Marshallen Principles of Economics, Ricardoren Principles of Political Economy eta beste lan batzuetako interes-tasari buruzkoa

I

Ezin aurki dezakegu interes-tasari buruzko azalpen jarrairik Marshall, Edgeworth edo Pigou irakaslearen lanetan —*obiter dicta* gutxi batzuk besterik ez—. Jadanik aipatutako pasarteaz gain (154, 155 orr.), Marshallrek interes-tasari buruz duen jarreraren aztarna garrantzitsu bakarra bere *Principles of Economics* (6. argit.), VI. liburua, 534. eta 593 orrialdeetan agertzen da; hona hemen zatirik funtsezkoenen aipamenak:

«Interesa kapitalaren erabileragatik edozein merkatutan ordaindutako prezioa izanik, oreka-maila baterantz jotzen du non kapitalak merkatu eta interes-tasa horretan duen eskari osoa eta interes-tasa horretan hornituko den stock osoa berdinak diren⁹⁶. Hartzen dugun merkatua txikia bada —demagun hiri bakar bat edo industria bakar bat herrialde aurrerakoian—, bere kapital-eskariaren gehikuntza oso azkar estaliko da ondoko herrialde edo beste industrietatik etorritako eskaintzarekin. Baina mundua, oro har, edota herri handi bat, gutxienez, kapital-merkatu bakarra bailitzan hartuko bagenu, ezin esan dezakegu interes-tasaren aldaketaren ondorioz horren eskaintza osoa azkar eta neurri handian aldatuko denik; zeren eta kapitalaren fondo orokorra lanaren eta itxarotearen emaitza baita; eta aparteko lana⁹⁷ eta aparteko itxarotea, zeinentzat interes-tasaren gehikuntzak pizgarri gisa jokatu lukeen, ez lirateke asko igoko epe laburrean,

lanarekin eta itxarotearekin alderatuta, horien emaitza kapitalaren stock osoaren existentzia delarik. Kapital-eskariaren gehikuntza bortitza, normalean, epe batean, eskaintzaren gehikuntza batekin baino areago, interes-tasaren igoerarekin konpentsatuko da⁹⁸, eta horrek kapitala bere erabilkortasun marjinala txikiagoa den usaeretatik partzialki alboratzea eragingo du. Interes-tasaren igoerak kapitalaren existentzia osoa motel eta gradualki baino ez du gehituko» (534. or.).

«Behin eta berriz esango dugu «interes-tasa» terminoa kapital-inbertsio zaharrei oso zentzu mugatuan baino ezin zaiela aplikatu⁹⁹. Esaterako, Ingalaterrako negozioetan ehuneko hiru inguruko interes netoan zazpi mila milioi libretako merkataritza-kapitala inbertitzen dela kalkula dezakegu. Baina esateko modu hori helburu askotarako egokia eta justifikagarria izanik ere, ez da zuzena. Honakoa esan beharko genuke: negozio horietako bakoitzeko (hau da, inbertsio marjinaletako) kapital berrien inbertsioen gaineko interes-tasa netoa ehuneko 3 bailitzan hartuta, kapital zirkulatzaileak guztira hainbat negoziotan inbertitutako sarrera neto osoa honakoa dela: 33 urtera kapitalizatuz gero (hau da, interesa ehuneko 3an egongo dela oinarritzat hartuz) zazpi mila milioi libra inguruko zifrara helduko litzatekeela; zeren eta lurra hobetzeko edo eraikin bat eraikitzeke, tren edo makina bat egiteko jadanik inbertitu den kapitalaren balioa, aurreikusten diren etorkizuneko sarrera netoei (edo ia-errentei) dagokien deskontatutako balio osoa baita: eta sarrerak izateko gaitasuna txikiagotuko balitz, bere balioa proportzionalki jaitsi egingo litzateke eta murriztutako sarrera horren balio kapitalizatua izango litzateke, baliogalera kon-tuan hartu ondoren (593. or.).

Economics of Welfare (3. argit.) liburuko 163. orrialdean, hona hemen Pigou irakasleak idatzitakoa: «'Itxaroteko' zerbitzuaren izaera oso gaizki interpretatu izan da. Batzuetan dirua hornitzean datzala pentsatu izan da, beste batzuetan denbora hornitzean, eta bietan ere dibidenduari ezertan laguntzen ez diola argudiatu izan da. Suposizio hauetako bat ere ez da zuzena. «Itxarotea», besterik gabe, pertsona batek berehala egin dezakeen kontsumoa atzeratzea da, horrela suntsi zitezkeen baliabideei ekoizpen-tresnen forma bereganatzeko aukera eman zaielarik¹⁰⁰.... 'Itxarote'-unitatea, beraz, baliabideen —esaterako, lanaren edo makineriaren— kopuru zehatz bat¹⁰¹ denboraldi jakin batean zehar erabiltzea da... Hizkera orokorragoa erabilita, itxarote-

unitatea urteko balioa duen unitatea dela esan dezakegu, edota, nahiz eta horren zehatza izan ez, Cassel Doktorearen hizkera arruntagoa erabilia, urteko libra bat... Ikuspuntu orokorraren aurkako oharrarazpena egin dezakegu; hain zuzen, edozein urtetan metatutako kapital-bolumenak eta urte berean eginiko «aurrezkien» zenbatekoak, nahitaez, berdinak izan behar dutela dioenaren aurkakoa. Hori ez da horrela gertatzen, ezta aurrezkiak netotzat hartuta ere eta horrela gizaki bati kenduz beste baten kontsumoa gehitzeko kentzen zaionean eta banku-diru itxurako zerbitzuetan *erabili ez* diren eskubideen behin-behineko metaketak kontuan hartzen ez direnean ere; izan ere, kapital bihurtzerara xedatutako aurrezki askok, berez, ez dute beren xedea betetzen, gaizki erabiltzen direlako.¹⁰²

Nire ustetan, Pigou irakasleak interes-tasari buruz egiten duen aipamen garrantzitsu bakarra *Industrial Fluctuations* (1. argit., 251-8 or.) liburuan dago. Bertan eraso egiten dio interes-tasa, benetako kapitalaren eskari eta eskaintzaren baldintza orokorrek finkatzen dutelarik, banku zentralaren edo beste edozein bankuren kontroletik at dagoela dioen iritziori. Arrazoiketa honen aurka ondorengoa argudiatzen du: «Bankariek negoziozaleentzat kreditu gehiago sortzen dutenean, beren interes hutsean eta 1. zatiko XIII. kapitulu¹⁰³ emandako azalpenen bidetik, jendea gauza errealean derrigorrezko zerga baten xede egiten dute, horrela jendeak duen benetako kapitalaren zenbatekoa gehituz eta benetako interes-tasan murrizketa eraginez, maileguak epe luzekoak nahiz epe laburrekoak direla ere. Labur esan, egia da epe luzeko maileguetan diruaren banku-tasa mekanikoki benetako interes-tasarekin lotuta dagoela; baina ez da egia azken hau erabat bankarien kontroletik at dauden baldintzek finkatzen dutenik.»

Aurrekoari buruzko aipamenak oin-oharretan egin ditut. Marshallen ideietan honi buruz aurkitzen dudak okerra, nire iritziz, batez ere diru-ekonomiari dagokion «interes» kontzeptua, dirua kontuan hartzen ez duen tratatuan erabiltzean datza. «Interesak» berez ez du zereginik Marshallen *Principles of Economics* lanean —gaiaren beste arlo bati dagokio—. Pigou irakasleak, egiten dituen gainerako suposizio taktikoekin bat, itxarote-unitatea eta inbertsio arruntaren unitatea gauza bera direla eta itxarotearen saria ia-errenta dela ondorioztatzea eramaten gaitu (*Economics of Welfare* liburuan); era berean, ia inoiz ez du interesa aipatzen —eta horrela behar du—. Dena

den, idazle hauek ez diote diruzkoa ez den ekonomiari heltzen (baldin eta horrelakorik badago); argi eta garbi suposatzen dute dirua erabili egiten dela eta banku-sistema dagoela. Are gehiago, interes-tasak ez du askoz ere zeregin garrantzitsuagoa Pigou irakaslearen *Industrial Fluctuations* (batez ere kapitalaren eraginkortasun marjinalako gora-beherei buruzkoa da) edo *Theory of Unemployment* (batez ere enplegu-bolumenean aldaketak eragiten dituzten arrazoiei buruzkoa, nahi gabeko langabezia egon ez dagoela suposatuz) liburuetan, *Economics of Welfare* liburuan baino.

II

Ricardoren *Principles of Political Economy* liburutik hartutako ondorengo aipamenak, ekonomialari honek interes-tasari buruz duen teoriaren funtsa agerrarazten digu:

«Diruaren interesa ez du Bankuak maileguan utziko duen interes-tasak erregulatzen, interes-tasa hori ehuneko 5, 3 nahiz 2koa izan; aitzitik, kapitala erabiliz lor daitezkeen irabazien tasak erregulatzen du, eta tasa honek ez du diru-kopuruarekin edo diruaren balioarekin zerikusirik. Bankuak maileguan milioi bat, hamar milioi edo ehun milioi utzi arren, horrek ez du interes-tasa iraunkorki aldatuko, horrela igortzen den diruaren balioari baizik ez baitio eragingo. Egoera batean bestean baino hamar edo hogeia aldiz diru gehiago behar ahal izango litzateke negozio berdinak burutzeko. Beraz, Bankuari egiten zaizkion diru-eskariak, diru hori erabilia lor daitekeen irabazi-tasaren eta maileguan uzteko prest dagoen interes-tasaren arteko aldearen araberakoak dira. Merkatuko interes-tasa baino gutxiago kargatuz gero, beti, iraunkorki, izango du maileguan dirua uzteko aukera; gehiago kargatuz gero, zarrastel eta xahutzaileak besterik ez dira mailegu hori hartzeko prest egongo.»

Aurreko horren zentzua horren argia izanik, azterketarako abiapuntu egokiagoa dugu hau geroagoko idazleen esaldiak baino, zeren eta nahiz eta geroagoko horiek Ricardoren doktrinaren funtsetik guztiz aldendu ez, ez baitira bertan erabat gustura sentitzen eta nora-ezean ibiltzen dira. Aurreko hori, Ricardoz ari garenean gertatzen den

guztietan bezala, epe luzerako doktrina gisa hartu behar da, pasarte erdian agertzen den «iraunkorki» hori nabarmentzen delarik; eta interesgarria da oso, doktrina hau baliozkoa egingo duten ustezko kasu guztiak kontuan hartzea.

Oraingoan ere, enplegu betea dagoela pentsatuko dugu; beraz, ekoizpenari dagokionez lan-eskaintza kurban aldaketarik egongo ez dela suposatuz, epe luzeko orekan enplegu-maila posible bakarra dago. Hipotesi honetan, ohiko *ceteris paribus* aplikatuta (hau da, joera psikologikoetan eta aurreikuspenetan diru-kopuruaren aldaketatik eratorritakoak baino eraldaketa gehiago egon gabe), Ricardoren teoria zentzu batean da baliozkoa, hain zuzen, ustezko kasu horien arabera, epe luzeko enplegu betearekin bat datorren interes-tasa bakarra gertatzen. Ricardo eta bere ondorengoek alde batera utzi zuten, epe luzera ere enplegu-bolumenak ez duela nahitaez erabatekoa izan behar, alda baitaiteke, eta epe luzera banku-politika bakoitzari enplegu-maila bat dagokiola. Beraz, epe luzera hainbat oreka-kokagune daude, moneta-agintaritzak interesaren inguruan izan ditzakeen beste horrenbeste politikei dagozkienak.

Ricardo bere argudioa isolatuta aurkeztera mugatu izan balitz, moneta-agintaritzak sortutako diru-kopuru jakin orori aplikagarria litzaiokeen argudio gisa, moneta-alokairuak malguak direla suposatuz gero, argudioa onargarria izan liteke. Hau da, Ricardok interes-tasak, moneta-agintaritzak diru-kopurua hamar nahiz ehun milioitan finkatuagatik ere ez lukeela inolako aldakuntza iraunkorrik jasango esan izan balu, bere ondorioa onargarria izango litzateke. Baina moneta-agintaritzaren politika gisa diru-kopurua handiagotu edo murriztu egingo dela ulertzen badugu, hau da, bai deskontuen bolumen-aldaketagatik, bai merkatu zabaleko eragiketengatik, bere ondasunak handiagotu edo murriztuko direneko interes-tasa ulertzen badugu —horixe baita Ricardok aurreko aipamenean zehazki adierazi nahi duena—, ez da egia izango ez moneta-agintaritzaren politika hori eraginkorra ez dela, eta ez epe luzeko orekarekin bat datorren politika bakarra dagoela; hala ere, muga-mugako kasuan, hau da, langabe guztien arteko enpleguagatiko lehiakortasuna dela eta, diru-alokairuak nahi gabeko langabeziaren ondorioz mugarik gabe jaisten direla suposatuta, egia da epe luzera bi aukera besterik ez liratekeela egongo —enplegu betea eta likideziagatiko lehentasuna erabatekoa egiten deneko enplegu-

maila (enplegu-bolumena erabatekoa ez denean)—. Diru-alokairuak malguak direla suposatuz gero, diru-kopurua, diru-kopuru gisa hartuta, epe luzeetan nahasgarria izango da; baina moneta-agintaritzak kopuru hori aldatuko duen esanahiari dagokionez, sistema ekonomikoan benetako adierazlea izango da.

Nabarmendu beharra dago lehenago idatzitakoaren azken esaldiek honakoa iradokitzen digute: Ricardok ez zituela inbertitutako kopuruaren arabera kapitalaren eraginkortasun marjinallean gerta litezkeen aldaketak kontuan hartu. Baina oraingoan ere, honen inguruan bere barne-tinkotasuna bere jarraitzaileena baino handiagoa zela interpreta dezakegu. Izan ere, enplegu-bolumena eta komunitatearen joera psikologikoak ezagunak bailiran hartzen badira, berez, kapital-metaketarako tasa posible bakarra egongo da, eta ondorioz, baita kapitalaren eraginkortasun marjinalerako balio bakarra ere. Ricardok burutzapen intelektual gorena eskaini zigun, izpiritu ahulenez ezin lor dezaketena, hain zuzen, esperientziatik kanpoko mundu hipotetikoa esperientziarena baililtzan hartzea, eta ondoren bertan kontraesanik gabe bizitzea. Bere jarraitzaile gehienekin, ordea, ezin saihesta daiteke sen ona mundu horretan sartzea —jakina, bere tinkotasun logikoaren kaltetan.

III

Von Mises irakasleak interes-tasari buruzko teoria berezia proposatu du, eta hau izan da Hayek irakasleak eta, nik uste dudanez, Robbins irakasleak segitu dutena; teoria honen arabera, interes-tasaren aldaketak kontsumo-ondasunen eta kapital-ondasunen prezioen maila erlatiboen aldaketekin identifika daitezke.¹⁰⁴ Ondorio honetara iristeko modua ez dago batere argi, baina badirudi arrazoiketa ondorengoa dela: nahikoa sinplifikazio bortitzaren bidez, kontsumorako ondasun berrien eskaintza-prezioaren eta ekoizpen-ondasun berrien prezioaren arteko erlazioak neurtzen du kapitalaren eraginkortasun marjinala.¹⁰⁵ Beraz, hau interes-tasarekin identifikatu da. Aipagarria da interes-tasaren jaitsiera inbertsiorako onuragarria izatea. *Ergo*, kontsumo-ondasunen prezioak ekoizpen-ondasunen prezioarekin duen proportzioaren jaitsiera inbertsiorako onuragarria da.

Honen bidez aurrezkiaren gehikuntza indibidualaren eta inbertsio osoaren gehikuntzaren arteko katemaila ezartzen da; zeren eta uste arrunta baita aurrezki indibidualaren gehikuntzak kontsumo-ondasunen prezioan murrizketa sorraraziko duela, baita, seguraski, beste jaitsiera handiago bat ere ekoizpen-ondasunetan; beraz, aurreko arrazoiketari jarraituz, inbertsioa piztuko duen interes-tasa adieraziko luke. Baina, jakina, hainbat kapital-ondasun jakinen eraginkortasun marjinalaren murrizketak eta, ondorioz, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba orokorraren jaitsierak aurreko arrazoiketakoaren aurkako ondorioa du zehatz-mehatz. Izan ere, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbaren *igoerak* nahiz interes-tasaren *jaitsierak* pizten baitute inbertsioa. Kapitalaren eraginkortasun marjinala eta interes-tasa nahastearen ondorioz, ordea, Von Mises irakasleak eta honen jarraitzaileek guztiz alderantzizko ondorioak eskuratu dituzte. Mota honetako nahasketaren adibide bikaina da Alvin Hansen-ek¹⁰⁶ hurrengo pasartean adierazi duen hau: «Ekonomialari batzuek gastuak murriztearen ondorio garbia kontsumo-ondasunen prezioek beste egoera batzuetan izango luketena baino maila apalagoa izango litzatekeela iradoki dute eta, beraz, kapital finkoan inbertitzeko pizgarria maila txikienera joko lukeela. Ikuspuntu hau, ordea, ez da zuzena eta kapitalaren sorreran 1) kontsumo-ondasunen prezio handiago ala txikiagoek eta 2) interes-tasaren aldaketak kapitalaren sorreran eragiten duten ondorioari buruzko oker batean oinarritzen da. Egia da gastu-murrizketaren eta aurrezkiaren gehikuntzaren ondorioz, ekoizpen-ondasunen prezioekin alderatuz gero kontsumo-ondasunen prezioak nahikoa baxuak izango liratekeela; baina argi dago horrek interes-tasa txikiagoa adierazten duela, eta tasa murriztak kapital-inbertsioa handiagotzera bultzatzen du interes-tasa handiagoekin ordainezina izango litzatekeen arloetan».

XV. KAPITULUA

Likideziarako pizgarri psikologikoak eta negoziozkoak

I

Aurrerantzean xehekiago garatuko dugu likidezia nahiago izateko arrazoen azterketa; hain zuzen, 13. kapituluan hastapen gisa azaldu genuena. Gaia, funtsean, batzuetan diru-eskaria izenpean aztertu izan denaren antzekoa da oso. Zerikusi handia du, halaber, diruaren sarrera-abiadura izendatu izan den horrekin, zeren eta honek jendeak eskudirutan gordetzeko baztertzen duen diru-sarreraren proportzioa besterik ez baitu neurtzen, eta beraz, diruaren sarrera-abiaduraren gehikuntzak likideziagatiko lehentasunaren murrizketa adieraz dezake. Dena den, ez da gauza bera, norbanakoak bere sarrerak kontuan hartuta baino gehiago likidezia ala likideziarik eza metatuta dituen aurrezkien arabera aukera baitezake. Nolanahi ere, «diruaren sarrera-abiadura» terminoak oker bat du berekin, hain zuzen, diru-eskaria, oro har, sarrerekiko proportzionala dela edo hauekin nolabaiteko zerikusia duela dioena, eta ikusiko dugunez, uste hau jendeak eskudirutan dituen eskuragarritasunen *zati* bati baino ez litzaioke aplikatu behar; horren ondorioz, interes-tasari dagokion zeregina albo batera uzten du.

Treatise on Money liburuan diruaren eskari osoa aztertu nuen sarrera-gordailuen, negozio-gordailuen eta aurrezki-gordailuen izenpetan, eta ez noa hemen berriz ere liburu horretako 3. kapituluan egin nuen azterketa errepikatzerara. Hiru xedetako bakoitzerako gordetako

diruak, ordea, gordailu bakarra eratzen du, eta horren edukitzaileak ez du zertan hiru talde bereizietan zatitu behar; izan ere, ez dira zorrotz bereizi behar, ezta mentalki ere, eta zenbateko bera ia osorik xede bakar baterako gorde daiteke, bigarren mailan beste baterako mantenduz. Hori dela-eta, norbanakoaren diru-eskari osoa egoera jakin batzuetan erabaki bakar baten gisa har dezakegu (berdin eta, agian, hobeto), nahiz eta oro har arrazoi desberdinek eragina izan.

Dena den, arrazoiak aztertzean komeni izaten da hainbat izenburupetan sailkatzea, eta horietako lehena antzinako sailkapeneko sarrera-gordailu eta negozio-gordailuei dagokielarik, beste bietako bakoitza aurrezki-gordailuen zati bati dagokio. Honi buruzko aipamen laburra egin da 13. kapituluan, transakzio-zioa izenpean, eta hemen are eta azpisailkapen gehiago egin ditzakegu, hau da, sarrera-zio, negozio-zio, zuhurtzi zio eta espekulazio-zio gisa.

1.- Sarrera-zioa. Eskudirua gordetzeko arrazoietako bat sarre-ra jaso eta berau gastatzen den arteko tartea lotzea da. Eskudiru jakin bat gordetzeko erabakia bultzatzeko zio hau, batez ere sarreraren zenbatekoaren arabera izango da, hala nola sarrera jaso eta gastatu arteko ohizko denboraldiaren menpekoea ere. Diruaren sarrera-abiadura kontzeptua honekin, eta soilik honekin, dago zorrotz lotuta.

2.- Negozio-zioa: Aurrekoaren antzera, eskudirua gorde egiten da negozio-gastuak egiten diren unetik salmentako emaitzak eskuratu arteko denboraldia lotzeko; izenburu honetan sartzen dira negoziozaleak erosketa eta burutzapenaren arteko epealdia gainditzeko gordetzen duten eskudirua. Eskari honen indarra, batez ere, ohizko ekoizpenaren balioaren arabera izango da (eta beraz, ohiko sarreraren arabera), eta halaber ekoizpena zenbat eskutatik igarotzen denaren baitakoa.

3.- Zuhurtzi zioa: Eskudirua gordetzeko beste arrazoirik ere badago: bat-bateko gastuak behar dituzten ustekabeei erantzutea eta erosketa onak egiteko ezusteko aukerei aurre egitea edo, dirutan finkatutako pasiboari erantzun ahal izateko, moneta-terminoetan balio-finkoa duen aktiboa mantentzea.

Hiru zio hauen indarra, hein batean, hala behar izanez gero aldibaterako mailegu baten bitartez (batez ere zorpeko baten edo honen baliokide baten gisara) eskudirua lortzeko metodoen merketa-

sun eta segurtasunaren araberakoa izango da; zeren eta denbora-tarteak lotzeko ez baitago alferrikako eskudirua gorde beharrik, baldin eta une egokian hura eskurtzeko arazorik ez badago. Zioen indarra ere eskudirua edukitzearen kostu erlatibo gisa izenda dezakegunaren araberakoa izango da. Kostu erlatiboa irabazteko ondasuna erosteari uko eginez manten badaiteke, honek kostua igo eta eskudiru-kopuru jakin bat gordetzeko zioa ahuldu egiten du. Gordailuek interesak ematen badituzte edota dirua gordez banku-gastuak saihesten badira, honek kostua murriztu eta zioa indartu egiten du. Dena den, gerta liteke hau garrantzi txikiko faktorea izatea, eskudirua gordetzeko kostuan aldaketa handiak izaten direnean ezik.

4.- *Espekulazioaren zioa.* Honek aurrekoak baino azterketa sakonagoa eskatzen du, bai ulertzen aurrekoak baino zailagoa delako eta bai diru-kopuruaren edozein *aldaketaren* ondorioak transmititzeko guztiz garrantzitsua delako.

Egoera normalean, transakzio-zioa eta zuhurtzi zioa asetzeko beharrezko diru-bolumena, batez ere, sistema ekonomikoaren eta moneta-sarrerren mailaren iharduera orokorraren emaitza izan ohi da. Baina moneta-zuzendaritzak (edota, hori ezean halabeharrez gerta daitezkeen diru-kopuruaren aldaketek) espekulazio-zioan duen eraginaren bidez, sistema ekonomikoan ondorioak sorrarazten ditu; izan ere, aurreko zioak asetzeko diru-eskaria, oro har, ez da edonolako eraginaren ondoriozkoa, jarduera ekonomiko orokorraren eta sarrera-mailaren benetako aldaketa gertatzearena izan ezik; bien bitartean, esperientziak espekulazio-zioa asetzeko diru-eskariak guztira interes-tasaren aldaketa mailakatuen aurrean erantzun jarraia erakutsi ohi duela erakusten du, hau da, espekulazio-zioa asetzeko diru-eskarian izandako aldaketak eta, hainbat epemugatarazorren prezio-aldaketen ondorioz, interes-tasan izandako aldaketak erlazionatzen dituen kurba jarraia dago.

Hori horrela ez balitz, «merkatu zabaleko eragiketak» ezingo lirateke inola ere burutu. Esan dudanez, esperientzia da lehenago azal dutako erlazio konstantea adierazten duena, zeren eta, egoera normalean, banku-sistemak beti izango baitu bonuak eskudiruaren truke erosteko (edo saltzeko) aukera, merkatuan bonuen prezioa apur bat igoz (edo murriztuz); eta bonu eta zorrak erostea (edo saltzea) dela eta sortu (edo desegin) nahi duten eskudiru-kopurua zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da interes-tasaren jaitziera (edo

igoera) ere. Dena den, merkatu zabaleko eragiketak oso epemuga laburreko bonuak erostera mugatu direnean (esaterako, Estatu Batuetan, 1933-1934 epean), ondorioa, jakina, oso epe laburreko interes-tasara muga daiteke, askoz ere garrantzi handiagoa duten epe luze-ko interes-tasetan oso azaleko erreakzioa besterik sortu gabe.

Espekulazio-zioari heltzen zaionean garrantzitsua da, dena den, bereizketa bat egitea: alegia, batetik likideziaren funtzioan inolako gorabeherarik eragin gabe, espekulazio-zioa asetzeko eskura dagoen diruaren eskaintza-aldaketari dagozkion interes-tasaren aldaketak, eta bestetik, batez ere likideziaren funtzioari eragiten dioten aurreikuspenen aldaketei dagozkienak. Zalantzarik gabe, merkatu zabaleko eragiketek bi modutan eragin dezakete interes-tasan, diru-bolumena aldarazteaz gain banku zentralaren edo gobernuaren etorkizuneko politikari buruzko aldaketa-aurreikuspenak sorraraz baititzakete. Aurreikuspenak berrikusteak sorrarazten dituzten txostenen aldaketen ondorioz izaten diren likideziaren funtzioko aldaketak ere, sarritan, etenak izango dira, eta, beraz, interes-tasaren gorabeherei dagokien jarraitasun eza eragingo dute. Egia esan, bonuen merkatuko negozioen jarduera-gorakada izango da, baldin eta norbanakoek albiste-aldaketen interpretazio ezberdinak egiten badituzte, edota norbanakoaren interesei ezberdin eragiten badie. Albisteen aldaketek norbanakoen iritzi eta behar guztiei berdin eragiten badiete, interes-tasa (bonu eta zorren prezioen bidez adierazia) berehalakoan moldatuko da egoera berrira, inolako merkatu-eragiketaren beharrik gabe.

Horrela, kasurik sinpleenean, hau da, norbanako guztiak antzekoak izan eta antzeko tokia dutenekoan, egoeran edo aurreikuspenetan izandako aldaketak ezingo du diruaren inolako desplazamendurik eragin; interes-tasa norbanako guztiek aurreko interes-tasan zituzten egoera edo aurreikuspen berriei erantzunez, eskudiruaren edukitzak aldatzeko nahia neutralizatzeko adina baizik ez da aldatuko. Eta guztiek beren ideiak maila berean aldatuko litzuketenez beren ideiak, beren eskudiruaren edukitzak aldatzera bultzatuko litzukeen tasarekiko, ez litzateke inolako eragiketarik gertatuko. Egoera- eta aurreikuspen-multzo bakoitzari interes-tasa bat suertatuko zaio, eta sekula ez ditu inork bere ohizko eskudiru-edukitzak aldatuko.

Dena den, normalean, egoera edo aurreikuspenen aldaketak norbanakoen diru-edukitzetan doikuntza eragingo du —izan ere,

aldaketak norbanakoen ideietan eragin ezberdina izango du, neurri batean ingurunearen eta dirua gordetzeko arrazoi ezberdinen ondorioz, eta beste neurri batean egoera berrien ezagutza— eta interpretazio —ezberdintasunen ondorioz—. Horrela, orekako interes-tasa berria diru-edukitzaren beste banaketa batekin lotuta egongo da. Hala ere, guri gehien interesatzen zaiguna interes-tasaren aldaketa da, eta ez eskudituaren banaketa berria. Azken hau norbanakoen ezberdintasunen araberakoa da, eta funtsezko fenomeno, berriz, kasurik sinpleenean gertatzen dena. Are gehiago, kasu orokorrean ere, interes-tasaren desplazamendua normalean albisteen aldaketaren ondorengo erreakzioaren zatirik garrantzitsua da. Bonuen prezioaren mugimendua «negozioen jarduerarekiko proportzioz kanpo dago guztiz», egunkariek esan ohi zuten bezala —eta hala izan beharko luke, albisteei aurre egiteko norbanakoek elkarren antz handiagoa baitute ezberdintasuna baino.

II

Pertsona batek transakzio-zioa eta zuhurtzi zioa asetzeko gordetzea erabakitzen duen eskudituaren zenbatekoak espekulazioaren zioa asetzeko gordetzen duenarekin nolabaiteko menpekotasuna izanik ere, ez dago inolako eragozpenik arazoari eskudiru-kopuruen bi multzo hauen zenbatekoak elkarrekiko independenteak direla suposatuz heltzeko. Beraz, horrela hel diezaigun arazoari, geroko analisisia erraztuko badugu.

Izan bedi M_1 transakzio- eta zuhurtzia-zioak asetzeko gorde den eskudiru-kopurua, eta M_2 espekulazio-zioa asetzeko gorde dena. Bi eskudiru-multzo hauei beste bi likidezi funtzio dagozkie: L_1 eta L_2 . L_1 , batez ere, sarrera-mailaren araberakoa da, eta, L_2 , interes-tasa arruntaren eta aurreikuspenen egoeraren erlazioaren araberakoa. Beraz,

$$M = M_1 + M_2 = L_1(Y) + L_2(r)$$

non L_1 Y sarrera bati dagokion likidezi funtzioa den (M_1 zehazten duena), eta L_2 r interes-tasaren likidezi funtzioa (M_2 zehazten duena).

Hemendik aztertu beharreko hiru gauza ditugula ondoriozta dezakegu: a) M -k Y eta r -rekiko dituen aldaketen erlazioa, b) L_1 -en forma zerk zehazten duen, eta c) L_2 -rena zerk zehazten duen.

a) M -k Y eta r -rekiko dituen aldaketen erlazioa, lehenik eta behin, M -n aldaketak gertatzen diren moduaren arabera da. Demagun M urrezko txanponak osatzen dutela eta honek jasandako aldaketak, urrezko meagintzaren jarduerak izandako gorako errendimenduen ondorio baino ezin izan daitezkeela, meagintza hori kontuan hartutako sistema ekonomikoaren parte izanik. Orduan, M -n gertatutako aldaketek zuzeneko lotura dute, beste ezer baino lehen, Y -n izandakoekin, urte berria norbaiten sarrera gisa sartzen baita. Baldintza berdinak baliagarriak izango dira M -n izandako aldaketak gobernuak bere gastu arruntei erantzuteko dirua inprimatzearen ondoriozkoak badira —aurrekoan bezala, hemen ere diru berriak norbaiten sarrerak handiagotuko ditu—. Dena den, sarrera-maila berriak ez du M_1 -en beharrak M -ren gehikuntza guztia zurgatzeko bezain goian segituko; eta diruaren zati batek bonuen edo bestelako ondasunen erosketan bilatuko du irtenbidea, hariak eta r jaitzi eta M_2 -n igoera sortu arte eta, era berean, Y -n beste igoera bat eragin arte (diru berria M_1 nahiz M_2 -ren bidez zurgatua izateko adinakoa, r -ren jaitzierak Y -n sorrarazitako igoeraren neurrian). Horrela, kasu hau bestearen guztiz antzeko bihurtzen da, hau da, diru berria hasieran bakarrik igorri daiteke banku-sistemaren aldetik mailegu-baldintzen arintzearen bidez, horrela, eskudiru berriaren truke jende zor edo bonua saltzera bultzatuko delarik.

Beraz, ez da inolako eragozpenik egongo azken kasu tipikoa hartzeko. M -ren aldaketak r aldaraz dezakeela pentsa daiteke, eta r -ren aldaketak beste oreka batera eramango duela, alde batetik M_2 aldarazteagatik eta bestetik Y , eta ondorioz, M_1 , aldarazteagatik. Oreka-egoera berrian M_1 eta M_2 -ren arteko eskudiru-gehikuntzaren bereizketa, interes-tasaren jaitsierarekiko inbertsioak duen erantzunaren arabera da, eta inbertsio-igoerarekiko sarrerak duen erantzunaren arabera izango da.¹⁰⁷ Y neurri batean r -ren menpekota den heinean, hemendik honakoa ondoriozta dezakegu: M -n gertatutako aldaketak r -n behar adina aldaketa sorrarazi behar duela, ondorioz M_1 eta M_2 -n izandako aldaketak, biak batuta, M -n izandakoaren berdina izan daitezten.

b) Beti ez dago argi diruaren sarrera-abiadura Y eta M -ren arteko proportzio gisa definitzen den, edota Y eta M_1 -en arteko proportzio gisa definitzen den. Dena den, azkenekoa hartzea proposatzen dut. Beraz, V diruaren sarrera-abiadura izanik,

$$L_1(Y) = Y/V = M_1$$

Jakina, ez dago inolako arrazoirik V konstantea dela suposatzeko. Bere balioa hainbat faktoreren arabera izango da, banku-eta industria-erakundearen izaeraren, gizarte-ohituren, sarrera klase ezberdinen artean banatzeko moduarena eta eskudirua erabiltzeke gordetzearen benetako kostuaren arabera. Hala ere, epe laburrean begiratu eta hauetako faktore batean ere funtsezko aldaketarik ez dela egongo seguru suposa badezakegu, V ia konstantetzat har dezakegu.

c) Azkenik, M_2 eta r -ren arteko erlazioaren nondik norakoak aztertzea geratzen zaigu. 13. kapituluan ikusi genuen interes-tasak etorkizunean izango duen balioarekiko *ziurtasun eza* dela M_2 eskudirua edukitzara daraman L_2 likideziagatik lehentasuna aukeratzeko arrazoi ulergarri bakarra. Hemendik M_2 jakin batek r interes-tasa jakinarekin ez duela inolako erlazio koantitatiborik izango ondoriozta dezakegu; guri axola zaiguna ez da r -ren balio *absolutua*, r -ren nahikoa balio *ziurra* kontsideratzen denarekiko duen dibergentzi maila baizik, beti ere probabilitate-kalkuluak kontuan izanik. Nolanahi ere, bi arrazoi daude edozein aurreikuspen-egoeraren aurrean, r -ren beheraldiak M_2 -ren igoera eragingo duela espero izateko. Lehenik eta behin, r -ren balio ziurra denarekiko ikuspuntu orokorrak aldatzeke irauten badu, r -ren beheraldi bakoitzak merkatu-tasa neurri batean tasa «ziurrera» murriztuko du, eta beraz, likidezi ezaren arriskuak handiagotu egiten dira. Bigarrenik, r -ren beheraldi bakoitzak likidezi ezaren forma horretatik eratorritako irabazi arruntak murriztu egiten ditu, hain zuzen, kapitalaren galera-arriskua interes-tasa zaharraren eta berriaren *karratuen* arteko diferentziaren kopuru berean neutralizatzeke daudenak. Esaterako, epe luzerako zorretan interes-tasa ehuneko laukoa bada, hobe da likideziari uko egitea, baldin eta probabilitateen konparazioa eginda, epe luzerako interes-tasa urtean tasa bera-
ren ehuneko lau baino gehiago igotzea espero ez bada, hau da urteko % 0,16 puntutik gora igotzea espero ez bada. Dena den, interes-tasa

jada % 2koa bezain baxua bada, errendimendu arruntak urteko % 0,04 besterik ez luke konpentsatuko. Hau da, agian, oso maila baxuan interes-tasan murrizketa izateko oztopo nagusia. Etorkizuneko esperientzia iraganekoa baino askoz ere ezberdinagoa izatea espero ez bada, epe luzerako % 2ko (adibide bat jartzearen) interes-tasak itxaropena baino gehiago beldurra sorrarazi beharko luke eta, era berean, beldur txiki bat konpentsatzeko adinakoa ere ez den errendimendu arrunta besterik ez luke eskainiko.

Beraz, argi dago interes-tasa psikologiaren eragin handia duen fenomenoa dela. V. liburuan ikusiko dugunez, interes-tasa ezin egon daiteke orekan enplegu beteari dagokion tasa baino maila *baxuago* -an; izan ere, maila horretan inflazio errearen egoera etorriko da, eta M_1 -ek gero eta eskudiru-kantitate handiagoak zurgatuko ditu. Baina enplegu beteari dagokion mailaren gainetik, merkatuaren epe luzerako interes-tasa moneta-agintaritzaren egungo politikaren menpekoa izateaz gain, etorkizunean izango duen politikarekin zerikusia duten merkatu-aurreikuspenen arabera izango da. Moneta-agintaritzak erraz kontrolatzen du interes-tasa epe laburrean, bai bere politika etorkizun hurbilean ez dela aldatuko sinestaraztea zaila ez delako eta bai balizko galera errendimenduaren aldean txikia delako (gainbeherarako puntura hurbiltzen ez bada). Epe luzerako tasa, ordea, setatutakoa izan daiteke, baldin eta, *etorkizuneko* moneta-politikaren iraganeko esperientzia eta egungo aurreikuspenetan oinarrituz, nagusi den iritziak «ziurgabetzat» jotzen duen mailaraino jaitsi bada. Esaterako, nazioarteko urre-ereduarekin lotutako herrian, beste toki batean dagoena baino interes-tasa baxuagoa ondo justifikatutako mesfidantzaz ikusiko dute; dena den, interes-tasa nazionala nazioarteko sistemakoa den edozein herritako interes-tasa *altuenaren* (altuena, arriskuak kontuan hartu ondoren) parera eramanda, askoz ere handiagoa izan daiteke barnean enplegu betearekin bat etorriko litza-tekeena baino.

Horrela, iritzi publikoak experimentaltzat edo oso aldakortzat hartzen duen moneta-politikak, agian, ez du epe luzera bere interes-tasa arras murrizteko helburua lortuko, zeren eta M_2 -k ia mugarik gabe igotzeko joera har baitezake r zifra jakin baten azpitik jaistearen erantzun gisa. Bestalde, politika berak arrakasta erraz izan dezake, baldin eta iritzi publikoari arrazoizkoa, praktikagarria, interes publi-

koari begira dagoena, uste sendoan oinarritutakoa eta ordezkatua izateko arriskurik ez duen aginteak bultzatutakoa dela iruditzen bazaio.

Agian zuzenagoa izango litzateke interes-tasa, psikologikoa baino gehiago oso fenomeno konbentzionala dela esatea; izan ere, bere balio erreala neurri handi batean edukitzea espero den balioari buruz dagoen iritziak mugatuko baitu. Nahikoa ziurtasunez *agian* iraunkortzat hartzen den edozein interes-maila, *iraunkorra izango da*, gizarte aldakorrean, jakina, mota guztietako arrazoiak direla kausa, maila normalaren inguruan izaten diren gorabeheren eraginpean egongo badira ere. Zehazki, $M_1 M$ baino azkarrago igotzen denean, interes-tasa igo egingo da, eta alderantziz. Baina urteak eta urteak egon daiteke enplegu betea lortzeko kronikoki altuegia den mailaren inguruan —batez ere interes-tasa automatikoki doitzen delako iritziak jarraitzen badu, eta hala, konbentzionalismoak ezarritako maila hauxe bera baino askoz ere arrazoi sendoagotan oinarritzen dela uste bada; zeren eta jendearen edo agintaritzaren buruan interes-tasen multzo desagokiaren bidez enplegu-maila optimoa lortu ahal izatea inola ere ez baita sartzen.

Irakurleak jadanik bereganatuko zituen enplegu betea eragiteko eskari efektiboa nahikoa maila altuan mantendu nahi izateari aurre egiten dioten oztopoak, hain zuzen, epe luzeko interes-tasa konbentzionala eta nahikoa egonkorra, kapitalaren eraginkortasun marjinal mugikorra eta oso ezeگونkorra elkartzearen ondoriozkoak.

Beste hausnarketa adoretuago batzuek eman diezaguketen lasaitasunaren arrazoia, hain zuzen, konbentzioa ezagutza sendoetan oinarrituko ez denez, diru-agintaritzaren asmoen iraunkortasun eta tinkotasun moderatuen aurrean beti erresistentzia handiagoa izango ez duen itxaropenean datza. Iritzi publikoa nahikoa azkar ohitu daiteke interes-tasaren jaitsiera moderatura, eta ondorioz, etorkizunarekiko aurreikuspen konbentzionalak alda daitezke, horrela beste mugimendu baterako bidea prestatuz —maila jakin batera heldu arte—. Britainia Handian, urre-eredua alde batera utzi ondoren, epe luzerako interes-tasa jaisteak honen guztiaren adibide bikaina erakusten digu: mugimendu handienak hainbat jauzi etenen bidez egin ziren, eta jendearen likidezi funtzioa, jadanik behin eta berriroko murritzetara ohituta, albisteek nahiz agintarien politikak emaniko pizgarri berriei erantzuteko prest geratu zen.

III

Aurrekoa honakoa esanez labur genezake: aurreikuspenen edozein egoeratan jendearen buruan nolabaiteko joera potentziala dagoela beharrezkoa baino eskudiru gehiago gordetzeko, transakzio-zioa nahiz zuhurtzi zioa asetzeko, eta, ondorioz, benetako diru-edukitza izango dute, eta kopurua diru-agintaritza eskudirua sortzeko duen borondatearen menpekoa izango da. Potentzialitate hau da L_2 likidezi funtzioak duena.

Beraz, diru-agintaritzak sortutako diru-kopuruarekin bat etorritik, *ceteris paribus*, interes-tasa jakin bat edo, zehazkiago esan, interes-tasaren multzo bat egongo da hainbat epemugetako zorrentzat. Dena den, gauza bera egia izango litzateke sistema ekonomikoaren beste edozein faktorerentzat ere, bereizita hartuz gero. Beraz, azterketan hau, diru-kopuruaren aldaketen eta interes-tasan gertatzen diren aldaketen artean bereziki zuzena edo nahitakoa den erlazioaren bat dagoen heinean baino ez da izango baliagarria eta garrantzitsua. Erlazio berezi hori dagoelako ustea sorrarazten digun arrazoiak, oro har, banku-sistema eta diru-agintaritza diru eta zorren (eta ez aberastasun eta kontsumo-ondasunen) tratalari izatetik sortzen da.

Interes-tasen multzoaren eta diru-kopuruaren arteko erlazioa zuzenekoa izango litzateke baldin eta diru-agintaritza edozein zentzutan, edozein epemugako zorretan zehaztutako terminoetan, negoziatzen prest egongo balitz eta are zuzenekoagoa izango litzateke arrisku aldakorreko zorrekin tratuak izateko prest egongo balitz. Interes-tasen multzoa, banku-sistema eskuratzeko edo zorretan kitatzeko prest egongo litzatekeen baldintzen adierazpena izango litzateke; eta diru-kopurua hainbat norbanakoren esku aterpea bila lezakeen zenbatekoa da, norbanako horiek —kasuko gorabehera aipagarri guztiak kontuan hartu ondoren— eskudiru likidoaren kontrola merkatuko interes-tasak adierazitako baldintzetan zor baten truke eskudirua galtzea baino nahiagoko luketelarik. Diru-zuzendaritzaren teknikan egin daitekeen hobekuntza praktikorik garrantzitsuenak, agian banku zentralak lehen mailako eta edozein epetako bonuak ezarritako prezioetan erosi eta saltzeko egindako eskaintza konplexua izan daiteke, eta ez epe laburreko agirientzat egiten den banku-tasa bakarra.

Dena den, gaur egungo benetako praktikan, banku-sistemak finkatzen dituen —merkatuko benetako prezioa finkatzen duen zentzuan— zorren prezioa merkatuan «efektiboa» den neurria aldatu egiten da sistema ezberdinetan. Batzuetan prezioa efektiboagoa da norantza batean bestean baino; hau da, banku-sistemak prezio jakin batean zorrak erosteko konpromisoa har dezake, baina ez ditu zertan erosketaren antzeko zifran saldu behar, bitartekariaren irabazia bakarrik gehituta; hala ere, arrazoirik ez dago prezioa merkatu irekiko eragiketen laguntzaz bi zentzutan efektiboa ez egiteko. Salbuespen garrantzitsurik ere sor daiteke, hain zuzen, diru-agintaritzak, oro har, edozein epemugako zorrak erraztasun berdinez negoziatzera prest ez dagoenean. Diru-agintaritzak, sarritan, epe laburreko zorretara mugatzen da eta epe luzeagoko zorren prezioa laburrekoen prezioetatik eratorritako erreakzio berantiar eta ez-perfektuen eraginpean uzten du hala ere, honetan ere ez dago horrela ihardun behar izateko arrazoirik—. Muga hauek eragiten dutenean, ondorioz interes-tasa eta diru-kopuruaren arteko erlazioaren zuzenekotasuna aldatu egiten da. Britainia Handian badirudi gero eta gehiago zabaltzen ari dela nahitako eskuhartzearen eremua. Baina teoria hau kasu konkretu bati aplikatzen zaionean, diru-agintaritzak benetan erabilitako metodoaren ezaugarri bereziak kontuan hartu behar dira. Honek epe laburreko zorrak baino negoziatzen ez baditu, hauen benetako prezioak edo geroakoak epemuga luzeagoko zorretan izango duen eragina kontuan hartu behar dugu.

Beraz, diru-agintaritzak hainbat epe eta arriskutako zorrentzako interes-tasen multzoa ezartzeko trebetasunak muga batzuk ditu. Laburbilduz, hona hemen garrantzitsuenak:

1) Diru-agintaritzaren praktiketatik bertatik sortutako mugak daude, beren eragiketarik mota berezi bateko zorretara murrizten direnean.

2) Lehen aztertutako arrazoiak direla eta, interes-tasa maila jakin batera jaitsi bezain laster, likideziagatik lehentasuna birtualki absolutua bihurtzeko aukera dago, horren interes-tasa txikiak ematen duen zorra mantendu beharrean guztiek eskudirua nahiago izango dutelako. Kasu honetan diru-agintaritzak interes-tasari buruzko benetako kontrola galdu egingo luke; baina muturreko kasu hau etorkizunean garrantzi praktikoa izatera irits badaiteke ere, oraindik ez dut

horren adibide praktikorik ezagutzen. Egia esan, diru-agintaritza gehienek epe luzerako zorretan benetan negoziatzeari uko egitearen ondorioz, ez da proba egiteko aukera handirik egon. Are gehiago, egoera hori egongo balitz, agintaritza publikoak berak banku-sistematik maileguak interes-tasa nominalean mugagabe eskura esan nahiko luke.

3) Likideziaren funtzioak norantza batean ala bestean jotzearen ondorioz interes-tasaren egonkortasunak erabateko porrota izatearen adibiderik bikainenak oso egoera anormaletan gertatu izan dira. Errusian eta Europako erdialdean gerraostean krisia edo diru-ihesa egon zen, eta ezin zen inor dirua edo zorra gordetzera inola ere bultzatu; eta interes-tasa altu eta hazkorra ere ez zen kapitalaren eraginkortasun marjinalarekin bat joateko gai (batez ere ondasun likidoen stockei zegokienez), diru-balioa gehiago jaitziko zen itxaropenaren eraginpean. Bien bitartean, Estatu Batuetan, 1932. urteko une batzuetan, guztiz aurkako krisia gertatu zen —finantza-krisia edo likidazio-krisia—, non ia ezin baitzen inor komentzitu (ezta arrazoirik zentzuzkoenak emanik ere) bere eskudirua utz zezan.

4) Azkenik, 2. kapituluko IV. atalean aztertutako arazoa gertzen zaigu; hain zuzen, interes-tasa efektiboa zifra jakin batetik behera jaistera derrigortzeari buruzkoa, eta hau garrantzitsua izan daiteke tasak txikiak diren garaian; alegia, mailegua eskatzen duena azken mailegu-emailearekin harremanetan jartzeko kostuak eta mailegu-emailak interes-tasa hutsaren gainetik eskatzen duen arriskueta tarako, batez ere arrisku moraletarako, tartea harremanetan jartzea. Interes-tasa hutsa jaitzi egiten denean, ez da nahitaez ondorioztatu behar gastu eta arriskueta tarako edukitzak *pari passu* murriztuko direnik. Horregatik, mailegari arruntak ordaindu beharreko interes-tasa, interes-tasa hutsa baino motelago jaitzi daiteke, eta agian ez da komeniko, dagoen banku- eta finantza-antolakuntzaren metodoen bidez, zifra minimora eramatea. Arrisku moralaren balioespena nabarmena bada, honek aparteko garrantzia du; izan ere, mailegu-emailak mailegua eskatzen duenaren zintzotasunaz zalantza egitearen ondoriozko arriskua bada, fede gaiztoz jarduteko asmorik ez duen eskatzailearen buruan ez dago kargu handiago hori orekatuko duen ezer. Epe laburreko maileguei dagokienez (banku-maileguei dagokienez, adibidez), gastuak handiak direnean ere garrantzitsua

izango da —banku batek, agian, bezeroei ehuneko 1,5 eta 2 bitarte-ko tasa kargatu behar izango die, mailegu-emailarentzat interes-tasa hutsa zero izan arren—.

IV

21. kapituluaren bereziki jorratzen dena aurreratu arren, interes-garria izan daiteke aurrekoak diruaren teoria koantitatiboarekin duen erlazioa labur adieraztea.

Gizarte geldikorrean edota, beste edozein arrazoi dela medio, etorkizuneko interes-tasei buruz inork inolako zalantzarik ez duen gizartean, likidezi funtzioa L_2 edota dirua altxortzeko joerak (horrela izenda genezake), orekan beti zero izango da. Beraz, orekan, $M_2 = 0$ eta $M = M_1$; eta hortaz, M -n izandako edozein aldaketak interes-tasan gorabeherak eragingo ditu, harik eta sarrera maila batera iristen den arte, non M_1 -en izandako aldaketa M -n izan dela suposatzen den aldaketara iristen den. Baina, $M_1 V = Y$, non V diruaren sarrera-abiadura den, arestian adierazi dugunez, eta Y sarrera osoa den. Beraz, output arruntaren O kantitatea eta P prezioa neur badaiteke, $Y = OP$ izango dugu eta, beraz, $MV = OP$; eta honek antz handia du diruaren forma tradizionalako teoria koantitatiboarekin.¹⁰⁸

Mundu errearen asmoetarako, teoria koantitatiboan izugarri-ko akatsa da outputaren aldaketen ondoriozkoak diren prezio-aldaketak eta alokairu-unitatearen aldaketaren arabera direnak ez bereiztea.¹⁰⁹ Akats honen azalpena, agian, altxortzeko joerarik ez dagoela eta beti enplegu bete dagoela suposatzea izan daiteke: izan ere, kasu honetan, O konstantea izanik eta M_2 zero, V ere konstantetzat har badezakegu, bai alokairu-unitatea eta bai prezio-maila diru-kantitatearekiko zuzenki proportzionalak izango direla ondorioztatzen da.

XVI. KAPITULUA

Kapitalaren izaerari buruzko hainbat ohar

I

Norbanakoaren aurrezkiak, nolabait esan, gaur ez jateko asmoa adierazten du. Baina horrek *ez* du astebete edo urtebete barru jateko edo oinetako-parea erosteko, edota data jakin batean gauza jakin bat kontsumitzeko erabakia hartu beharra dagoenik nahitaez esan nahi. Beraz, gaurko bazkaria prestatzeak ekarriko lituzkeen negozioak bertan behera uzten ditu, etorkizunean nolabaiteko kontsumoa ekarriko dutenak suspertu gabe. Bada, etorkizuneko kontsumo-eskariak ez du gaur egungo kontsumo-eskaria ordezkatzuko; azken honen murrizketa netoa da, ordea. Are gehiago, etorkizuneko kontsumo-aurreikuspena horrenbestearaino oinarritzen da gaur egungo kontsumoaren oraingo esperientzian, ezen gaur egungo kontsumoan izandako edozein murrizketak, seguraski, etorkizunekoa jaitsiaraziko bailuke, eta ondorioz, aurrezkiak kontsumo-ondasunen prezioa jaitsi eta egungo kapitalaren eraginkortasun marjinala bere horretan uztea ez ezik, azken hori jaitsiarazteraino irits daiteke. Honelakoetan egungo inbertsionahiz kontsumo-eskariak murriztz ditzake.

Aurrezkia egun kontsumitzeari utzi eta, horrez gain, etorkizunean kontsumitzeko agindu zehatza ematea balitz, ondorioa ezberdina izan liteke; izan ere, inbertsioaren etorkizuneko errendimenduaren aurreikuspena hobea izango litzateke eta egungo kontsumoa prestatzetik lortutako baliabideak etorkizuneko prestakuntzarako baliaga-

rriak izango lirateke. Haatik, ez lirateke, ezta kasu honetan ere, lortu-tako baliabideak berriz *guztiz* erabili beharko, kontsumoaren nahitako itxaronaldiak zeharkako ekoizpen-metodo motel eta deserosoa eska bailezake, bere eraginkortasun marjinala interes-tasa arrunta baino askoz txikiagoa izateraino; eta horren ondorioz, etorkizuneko kontsumorako eginiko eskariak enpleguan izan beharreko eragin positiboa ez litzateke berehalakoan gertatuko, ondorengo dataren batean baizik; eta beraz, aurrezkiaren *berehalako* ondorioak enpleguaren aurkakoa izaten segituko luke. Dena den, norbanakoaren aurrezteko erabakiak ez du etorkizunean kontsumitzeko eskari zehatza egiten ari denik adierazten, orain kontsumitzeari utzi egiten diola besterik ez baitu esan nahi. Hortaz, kontsumitzeko aurreikuspena enpleguaren izateko arrazoi bakarra izanik, ez luke inolako kontraesanik egon behar kontsumitzeko joeraren beheraldiak, *ceteris paribus*, enpleguan beherantzako joera eragingo lukeela esanda.

Beraz, arazoa ez datza egungo kontsumoa bestelako kontsumo gehigarri zehatz batek ordezkatzean, azken kontsumo horren prestakuntzak berehalakoan beharko lukeen jarduera ekonomikoa, aurreztutako zenbatekoaren balio bereko egungo kontsumorako beharko litzatekeenaren adinakoa izanik; aitzitik, «aberastasun»-nahian dago, hau da, data jakin batean zehaztu gabeko gai bat kontsumitzeko ahalmenean. Norbanakoaren aurrezteko ekintza eskari efektiborako norbanakoaren kontsumo-ekintza bezain ona delako ideia, ia unibertsala izanagatik ere, guztiz zentzugabea da, eta hau bertatik eratorritako ondorioa baino materialagoa den beste gezur batean oinarritu izan da, hau da, aberastasuna gordetzeko desio handiagoak —hein batean inbertsioak mantentzeko desio handiagoaren antzekoal—, inbertsio-eskaria handitzen denean, dagokion ekoizpenaren suspergarri izan behar duela dioen gezurrean; eta hala, norbanakoaren aurrezkiak inbertsio arruntaren gain duen eragina, egungo kontsumoa murrizten den neurri berekoa da.

Oso zaila da gezur hori gizakiaren burutik kentzea. Engainua, hain zuzen, aberastasunaren jabeak kapital-ondasuna *bere horretan* nahi duela uste izatean dago, baina benetan kapital-ondasunaren *errendimendu probablea* da desio duena. Dena den, errendimendu probablea eskaintzaren etorkizuneko baldintzekin erlazionatuta egongo den etorkizuneko eskari efektiboaren aurreikuspenaren menpekoa

da guztiz. Beraz, aurrezteko ekintza batek errendimendu probablea hobetzeko ezer egiten ez badu, ez du inbertsioa suspertzeko ere ezer egingo. Are gehiago, aurrezten duen norbanakoak aberastasunaren jabe izateko horrenbeste desio duen helburua lortu ahal izateko, ez da beharrezkoa norbanakoa asetzeko kapital-ondasun *berririk* ekoiztea. Norbanakoak egindako aurrezteko ekintza hutsak *bi alde* dituelarik, lehen frogatuta utzi dugunez, beste norbanako bati bestelako aberastasunen bat, zaharra nahiz berria, transferitzeko beharra sortzen du horrek. Aurrezki-ekintza bakoitzak aberastasunen «derrigorrezko» eta ezinbesteko transferentzia eraginarazten dio aurrezten duenari, berak, aldi berean, beste batzuen aurrezkiaren ondorioak jasan badi-tzake ere. Aberastasun-transferentzia hauek ez dute beste bat eratzea eskatzen -egia esan, ikusi dugunez, beste honen etsai aktiboak izan daitezke-. Aberastasun berria eratzea bere errendimendu probableak interes-tasa arruntak ezarritako mailara iristearen arabera da guztiz. Inbertsio marjinalaren errendimendu probablea ez da handiagotzen baten batek bere aberastasuna handiagotu nahi izate hutsarekin, inbertsio marjinal berriaren egungo errendimendua gai jakin batek data jakin batean duen eskari-aurreikuspenaren arabera da.

Ondorio berera iritsiko gara aberastasunaren jabeak, emandako errendimendu probablea ez eta etorkizunean duen eta eskura dagoen errendimendurik hoberena nahi duelako argudioa erabilita; horrela, aberastasunaz jabetzeko desio handiagoak inbertsio berriko ekoizleak kontent geratzeko errendimendu probablea murriztu egiten du, zeren eta honek alde batera uzten baitu benetako kapital-ondasunen jabetzak beti alternatiba bat izan dezakeela, hau da, dirua edo zorren alternati-ba. Horrela, inbertsio berrien ekoizleek konforme geratzeko errendi-mendu probableak ezin du interes-tasa arruntak ezarritako maila baino behe-rago erori. Eta interes-tasa ez da, ikusi dugunez, aberasta-suna gordetzeko desioaren indarraren arabera, aberastasun hori, hurrenez hurren, modu likidoan ala ez-likidoan gordetzeko desioaren indarraren baitakoa baizik (modu horietako batean aberastasunaren eskaintzak beste moduan duen eskaintzaren erlazioarekin batera). Irakurleak harrituta segitzen badu, galde diezaiola bere buruari ea zer dela eta diru-kopurua aldatzeke mantenduz beste aurrezki-ekintza batek interes-tasa arruntean era likidoan gorde nahi den zenbatekoa murrizten duen.

Hurrengo kapituluari, zergatiak eta arrazoiak bilatzen hastean ager daitezkeen zalantza handiagoak hartuko dira kontuan.

II

Askoz hobe da kapitalak irauten duen bitartean, bere hasierako kostuaren soberakin gisa, errendimendua ematen duela esatea, *produktiboa* dela esatea baino. Izan ere, ondasun batek irauten duen bitartean errendimendu-aukerak izateko arrazoi bakarra, bere zerbitzuen guztizko balioak bere hasierako eskaintza-prezioa baino balio handiagoa izanik, ondasun hori *urria* izatea da, eta hala izaten segitzen du diruaren interes-tasaren lehiaren ondorioz. Kapital-ondasunak horren urria izateari uzten badio, errendimenduaren soberakina txikiagotu egingo da, produktibitate-maila jaitsi gabe —zentzu fisikoan, behinik behin—.

Hori dela eta, erabat ados nago guztia *lanak ekoizten* duela dioen doktrina aurre-klasikoarekin; lanari laguntzen, besteak beste, lehen arte deitzen zutena eta orain teknika esaten dutena daudela, natur baliabide askeen nahiz errenta ordaintzearen beharra dutenak daudela (urritasun edo ugaritasunaren arabera) eta iraganeko lanaren emaitzak daudela (dagoeneko ondasunetan sartuta, honen prezioa ere urritasun edo ugaritasunaren arabera izanik) dioen doktrinarekin. Hobe da lana teknika, natur baliabide, ekoizpen-ekipo eta eskari efektiboaren giro jakin batean eragiten duen ekoizpen-faktore bakar gisa, jakina, enpresario eta bere laguntzaileen zerbitzuak barneratuta hartzea. Honek neurri batean lan-unitatea gure sistema ekonomikoan behar dugun unitate fisiko bakar gisa, dirua eta denbora alde batera utzita, zer dela eta hartu ahal izan dugun azaltzen du.

Egia da prozesu luze edo zeharkako batzuk fisikoki eraginkorrrak direla, baina gauza bera gertatzen da laburrak diren beste prozesu batzuekin ere. Iraupen luzekoak ez dira fisikoki eraginkorrrak luzeak direlako; aitzitik, horietako batzuk, edo gehienak seguraski, fisikoki oso eraginkortasun txikikoak izango dira, hondatzeko edo denbora-ren poderioz narriatzeko aukera ugari baitago¹¹⁰. Lan-indar jakin baterako zehaztutako muga bat dago, zeharkako prozesuetan sartzen den

lan-kantitateari ezartzen zaiona, eta hau abantailaz erabil daiteke. Beste kontsiderazio batzuk alde batera utzita, makinak egiteko erabiltzen den lan-kantitatearen eta hauek erabiltzeko erabiltzen denaren artean proportzio zehatz batek egon behar du. *Balioaren* azken kantitatea ez da mugagabe handiagotuko, erabilitako lan-kopuruari erlatiboki begira, hartutako prozesuak gero eta zeharkakoago bihurtzen diren neurrian, beren eraginkortasun fisikoa oraindik handiagotzen ari bada ere. Kontsumoa atzeratzeko desioa oso handia izan eta enplegu beteak oso inbertsio-bolumen handia behar izanik egoera horrek kapitalaren eraginkortasun marjinal negatiboa beharko lukeenean besterik ez litzateke abantailatsua izango prozesua, iraunkorra izate hutsagatik; kasu honetan fisikoki *eraginkortasunik gabeak* diren prozesuak erabili beharko genituzke, horiek nahikoa luzeak izatearen truke, beren atzerapenagatik eskuratutako irabaziak eraginkortasun falta hori oreka lezaten. Berez, prozesu laburrak nahikoa urri mantendu beharko liratekeen egoeran egongo ginateke, harik eta beren eraginkortasun fisikoak produktua laster entregatzearen desabantaila oreka lezan. Beraz, teoria zuzenak itzulgarria izan behar du, hala, alde batetik interes-tasa positibo edo negatiboan dagokion kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kasuak hartu ahal izan ditzan: eta, nire iritziz, aldeaz aurretik trazatutako urritasunaren teoria da hori egin dezakeen bakarra.

Are gehiago, era guztietako arrazoiak daude hainbat zerbitzu-mota urri, eta beraz, garesti izateko, eragiten duten lan-kopuruari begira. Esaterako, usain txarreko prozesuek ordainsari handiagoa eskatzen dute, bestela jendeak ez bailituzke inola ere burutuko. Gauza bera gertatzen da arriskutsuekin. Baina prozesu horien produktibitate-teoria finkatzean ez ditugu halakotzat hartzen. Labur esan, lan guztia ez da atsegin-egoera berdinetan burutzen, eta oreka-baldintzek honakoa eskatzen dute baldintza okerragoetan (usain txarra, arriskua edo lanaldiaren bananketa daudenetan) ekoiztutako gaiek nahikoa urri izaten segitu behar dutela prezio altuagoa izan ahal dezaten. Baina lanaldiaren bananketa atsegin bihurtzen bada (hain zuzen ere, norbanako ugarirengan gertatzen ari dena) arestian esan dudan moduan, prozesu laburrak dira nahikoa urri izaten segitu behar dutenak.

Ekoizpenaren zeharkakoaren maila optimoa dela eta, nahi dugun guztizkoa lortzeko aurkitzen ditugun zeharkako prozesu era-

ginkorrenak aukeratuko ditugu, jakina. Baina bolumen optimoak, berez, atzeratu nahi den kontsumitzaileen eskaria dagokien datetan hornitzeko adinakoa izan beharko luke. Hau da, egoera optimoetan, kontsumitzaileen eskaria efektiboa izango dela espero den datetan entregarekin modu eraginkorrean bat etorriko den eran antolatu beharko litzateke ekoizpena. Ez du zentzurik data hauetan ez diren eta batzuetan entragatzeko ekoizteak, ezta entrega-unea aldatuz ekoizpen fisikoa handiagotu litekeenean ere —janari ugariagoa izateko auke-
rak, nolabait esatearren, kontsumitzailea bere otordua aurreratzeraz edo atzeratzeraz bultzatzea ezik—. Otordua ordu ezberdinetan jarrita lor daitezkeen janariei buruzko xehetasun guztiak entzun ondoren kontsumitzaileak iluntzeko zortziak hautatuko dituela espero bada, sukaldariari dagokio ordu horretarako ahal duen afaririk hoberena prestatzea, berarentzat zazpiak eta erdi, zortziak edo zortziak eta erdi izatea dela egokien akontuan hartu gabe, orduak, era batera edo bestera, inolako garrantzirik ez bailuen, eta bere lan bakarra termino absolututan afari hoberena prestatzea besterik ez bailitzan. Gizartearen fase batzuetan gerta liteke fisikoki otordu hobeak hartu ahal izatea, ohi duguna baino beranduago hartuz gero; baina, era berean, onargarria da beste fase batzuetan lehenago hartuta hobetu ahal izatea. Lehen esan dugunez, gure teoriak bi kasuetan izan behar du aplikagarria.

Interes-tasa zero izango balitz, edozein artikuluk denbora-tarte optimoa izango luke ekoizpen-faktoreen inputaren batez beste-ko data eta kontsumo-dataren artean, eta tarte horretan lan-kostua minimoa izango litzateke —ekoizpen-prozesu laburrago nahiz luzeagoak eraginkortasun txikiagokoak izango lirateke, lehena teknikoki, eta bigarrena biltegiratze- eta narriadura-kostuen ondorioz—. Dena den, interes-tasa positiboa bada, bete kostu-elementu bat sartzen da eta honek prozesuaren iraupenarekin batera gora egiten du; hala, tarte optimoa txikiagotu egingo da eta artikulua balizko entrega hornitzeko ekoizpen-faktoreen input arrunta murriztu egin beharko da, harik eta prezio probableak kostuaren gehikuntza estaltzeko adina igo arte —gehikuntza hau bai interes-karguengatik eta bai ekoizpen-metodo laburtuaren beherantzako eraginkortasunagatik handiagotuko da—. Azkenik, interes-tasa negatibo izatera etorriko balitz (hori teknikoki posible dela suposatuz), guztiz alderantzizkoa gertatuko da.

Kontsumitzaileen eskariaren kalkulua ezagutuz, ekoizpen-faktoreen input arruntak gaur egun, nolabait esatearren, inputa geroago hasteko alternatibarekin lehiatu behar du; eta, ondorioz, input arruntak, orain beharrean gero ekoiztearen merkeagotzeak interes negatiboaren ondoriozko sarrera-murrizketa orekatzeko nahikoa ez denean besterik ez du mereziko. Artikulu gehienei dagokienez, sekulako eraginkortasun falta izango litzateke faktoreen inputa denboraldi txiki bat baino gehiago aurreratzea, bere kontsumo probablea aurreratzekotan. Horrela, interes-tasa zero izan arren, aldeztu aurretik hornitzea probetxugarria den kontsumitzaileen eskari probablearen proportziorako muga zorrotza dago; eta tasak gora egin ahala, gaur egun ekoiztea komeni den kontsumitzaileen eskari-proportzioa murriztu egiten da, *pari passu*.

III

Ikusi dugunez, kapitala epe luzera nahikoa urri gorde behar da, bere eraginkortasun marjinala kapitalaren iraupenaren epe berean gutxienez interes-tasak duen eraginkortasun marjinala adinakoa izan dadin, beti ere baldintza psikologikoei eta erakundeek finkatutakoaren arabera. Zer esan nahiko luke honek kapitalaz guztiz ongi hornituta egonik, eraginkortasun marjinala hutsaren parekoa duen gizartean, eta inbertsio gehigarriaren batekin negatibo bilaka daitekeenean; horrez gain bere moneta-sistemaren ondorioz, biltegitratze- eta zaintza-kostu hutsalekin dirua «mantendu» egiten denean, ondorioz interes-tasak negatibo ezin izango lukeelarik; eta hau guztia enplegu beteko egoeran eta aurrezteko prest egonik?

Izan ere, baldintza horiekin, enplegu betearen egoeratik abiatzen bagara, enpresarioek nahitanahiez izango dituzte galerak, kapitalaren stock guztia erabiltzen duen maila berean enplegua eskaintzen jarraituz gero. Ondorioz, kapitalaren stockak eta enplegu-mailak hala-beharrez murriztu egin beharko dute, harik eta gizartea txirotu eta gizartearen aurrezki hutsaren pare egon arte, norbanako batzuen aurrezki positiboa beste batzuen aurrezki negatiboarekin neutralizatzaren bidez. Beraz, suposatu dugunaren tankerako gizartearentzat,

oreka-egoera, *laissez faire*ren egoeran, aurrezkiak hutsaren parean jarriko dituen enplegu-maila nahikoa baxua eta bizi-maila nahikoa txirola duena izango da. Seguruenik, oreka-egoera honen inguruan mugimendu ziklikoa egongo litzateke; berez, oraindik ere etorkizunari buruzko ziurtasunik eza baldin badago, kapitalaren eraginkortasun marjinala positibo jarriko da noizean behin, eta horrela «goraldi» bat gertatuko da; eta honen ondorengo «beheraldian» kapitalaren stocka, hutsaren pareko eraginkortasun marjinalak luzera izango lukeen errendimenduaren azpira jaitsiko litzateke denboraldi batez. Aurreikuspena zuzen dagoela onartuta, zehazki hutsaren pareko eraginkortasun marjinala izango duen oreka-egoerari dagokion kapital-stocka txikiagoa izango da, noski, lan eskuragarriaren enplegu beteari dagokiona baino; izan ere, langabeziaren kopuru horri dagokion ekipamendua, zero aurrezki ziurtatzen duen hori izango da.

Oreka-egoera alternatibo bakarra honakoa izango litzateke: hutsaren pareko eraginkortasun marjinala izateko nahikoa kapital-stockak, aldi berean jendeak etorkizunerako hornitzeko desio orokorra guztiz asetzeko adinako aberastasun-kopurua adieraztea, baita enplegu beteko egoeran ere, eta interes-moduan hobaririk lor ez daitekeen egoeran gainera. Dena den, kointzidentzia gertaezina izango litzateke enplegu beteko egoeran aurretzeko joera kapitalaren stockak bere eraginkortasun marjinala zero balioa duen maila berean doi-doi asetzea. Beraz, aldekoagoa den aukera honek egoera salbarazten badu, seguraski ondorioak izango ditu tasa horren beheraldi mailakatuan zehar; ondorio horiek ez dira izango, ordea, interes-tasa zero bihurtzen den mailan, lehenagoko beste batean baizik.

Orain arte interes-tasari negatiboa izaten uzten ez dion faktore instituzionala dagoela suposatu dugu, ia hutsaren pareko mantentze-kostua lukeen diru gisa. Hala ere, berez, interes-tasan gauza daitekeen beherapena zeroren oso gainetik dagoen muga ezartzen duten hainbat faktore instituzional eta psikologiko daude. Hain zuzen, mailegu-emaile eta mailegariak harremanetan jartzeko kostuek, eta, arestian aztertu bezala, etorkizuneko interes-tasari buruzko ziurtasun ezak, beheko muga ezartzen dute, eta gaur egungo egoeran, agian epe luzera ehuneko 2 edo 2,5erainokoa izan daiteke. Hau zuzen badago, aberastasunaren gehikuntza hazkorra izateko aukera zaila oso laster gauza daiteke praktikan, beti ere interes-tasa *laissez-faire* baino azpi-

ragotik ezin jaits daitekeen baldintzetan. Are gehiago, tasa eraman daitekeeneko gutxieneko maila nabarmen zeroren gainetik badago, aukera gutxiago daude aberastasunak metatzeko desio orokorra tasa horrek bere gutxieneko mailara heldu baino lehen asetzeko.

Britainia Handia eta Estatu Batuen gerraosteko esperientziek ederki erakusten digute aberastasunaren oso metaketa handiak (horren handia ezen bere eraginkortasun marjinala interes-tasa —faktore instituzional eta psikologikoen eraginez— jaits daitekeena baino gehiago jaitsi behar baitu), *laissez faire* egoeran, ekoizpen-baldintza teknikoek eskaintzeko gai diren nahikoa enplegu-kantitate handiarekin eta bizi-mailarekin nola elkarreragin dezakeen.

Hemendik honakoa ondoriozta dezakegu: antzeko bi komunitate hartuta (teknika berdinekoak baina kapital-stock desberdinekoak) kapital gutxienekoa gai izan daitekeela, behin-behinekoz, kapital altuenekoa baino bizi-maila handiagoa edukitzeko; dena den, txiroena aberatsenaren mailara heltzen denean —noizbait gertatuko dela espero daiteke—, biek ere Midasen patu bera izango dute. Ondorio lazgarri hau, jakina, kontsumitzeko joera eta inbertsio-tasa gizarte-interesari begira nahita kontrolaturik ez daudenean izan daiteke; beren kaxa, *laissez faire*ren eraginpean uzten direnean, alegia.

Edozein arrazoi dela eta, interes-tasa kapitalaren eraginkortasun marjinala jaitsiko litzatekeen bezain azkar jaitsi ezin badaiteke (hain zuzen, enplegu beteko egoeran kapitalaren eraginkortasun marjinalaren antzeko interes-tasarekin gizarteak aurreztea nahiago izango lukeenari legokiokkeen metatze-abiaduran), seguraski inolako fruitu ekonomikorik izango ez duen aberastasun-altxorketarako ez eta ondasuna gordetzeko desira-aldaketak ongizate ekonomikoa handiagotu egingo du. Aberatsak bertan bizitzeko etxetzarrak eraikitzen edota hilosterako piramideak egiten, edota, beren bekatuez damututa, katedralak eraiki eta monasterio edo atzerriko misioak sortzen asebetetzen diren heinean, atzeratu egingo da kapitalaren ugaritasunak eta ekoizpenak elkarri eragingo dioteneko data. Aurrezkiekin ordainduta «lurrean zuloak egiteak», enplegua handiagotzeaz gain, ondasun eta zerbitzu erabilgarrien benetako nazio-dibidendua ere handiagotuko du. Hala ere, ez da arrazoizkoa zentzuzko komunitatea tankera horretako gertakariekin (noiz-behinkakoekin eta, sarritan, guztiz alferrikakoekin) ados geratzea, eskari efektiboan eragiten duten arrazoiak zeintzuk diren jakinda.

IV

Demagun interes-tasa enplegu beteari dagokion inbertsioari egokitzen zaiola ziurtatzeko neurriak hartu direla. Demagun, gainera, estatuaren partehartzeak konpentsazio-faktore gisa esku hartzen duela, ekoizpen-ekipamenduaren hazkundera egokia izan dadin, harik eta asetzeak gaur egungo belaunaldiaren bizi-mailan ez-ohikoa den karga suposatzen ez duen tasan lortzekotan.

Halakoetan, honakoa esango nuke: biztanleriaren hazkundera azkarrik gabeko, behar bezala gidatutako eta baliabide tekniko aurreratuez hornitutako gizarteak gai izan beharko lukeela, oreka-egoeran, kapitalaren eraginkortasun marjinala hutsaren pareraino, belaunaldi bakar batean murrizteko; horrela, ia egonkorra litzatekeen gizartearen egoera lortuko genuke, aldaketak eta aurrerakuntza, teknikan, gustuetan, populazioan eta instituzioetan izandako aldaketen ondoriozkoak baino izango ez liratekeelarik; kapitalaren produktuak lanarekiko eta abarrekiko salneurri proportzionalen salduko lirateke, hain zuzen ere, kapital-kontzeptuagatiko kostuak hutsalak dituzten kontsumo-ondasunen salneurriak jartzeko erabili ohi diren printzipioen arabera.

Kapitalaren eraginkortasun marjinala zero izan dadin kapital-ondasunak horren ugariak izatea nahikoa erraza dela suposatzen udanean zuzen banabil, hau izan daiteke kapitalismoak izan ditzakeen eragozpen gehienak saihesteko biderik zuhurrena; izan ere, hausnarketa txiki batek metatutako aberastasunen gainetik errendimendu-tasa gradualki desagertaraziz gero zeinen aldaketa handiak izango litzatekeen erakutsiko luke. Edozeinek gorde lezake oraindik ere irabazita-ko diru-sarrera etorkizunean gastatzeko asmoz. Baina metatutakoa ez litzateke haziko. Besterik gabe, Pope Aitaren egoeran egongo litzateke. Hark negozioak alde batera utzi zituenean, Twickenham-go etxera diruz betetako kaxa eraman eta etxeko gastuetarako dirua behar ahala hartzen zuen.

Errentaduna desagertu arren, bai enpresek eta bai iritziak aldarazten dituzten errendimendu probableak zenbatesteko trebetasunek beren tokia izango lukete; zeren eta aurrekoa, lehenengo eta behin, interes-tasa hutsari buruzkoa baita, arrisku eta tankerako kontzeptupean aurreikusitakoaz at, eta ez ondasunen errendimendu gor-

dinari buruzkoa, arriskuari dagokiona barne. Horrela, interes-tasa hutsa zenbaki negatiboetan mantenduta ezik, oraindik ere inbertsio trebearentzako errendimendu positiboa egongo litzateke, irabaziak sortzeko aukera gutxi duen hainbat ondasunetan. Arriskuak jasateko nahikoa beldurra legokeen guztietan, ondasun horien errendimendu neto positiboa egongo litzateke denboraldi batez. Baina gerta liteke egoera horietan inbertsio zalantzarrien errendimendua lortzeko interesa tasa jakin batekoa izanik, oro har, errendimendu neto *negatiboa* sortzea ere.

XVII. KAPITULUA

Interesaren eta diruaren oinarrizko ezaugarriak

I

Beraz, badirudi *interes-tasa nominalak*, zeregin berezia duela enplegu-mailaren muga finkatzeko, berriz ere ekoiztu ahal izateko kapital-ondasun iraunkorrak izan beharreko eraginkortasun marjinalaren maila finkatzen duenez geroztik. Lehen begiratuan, honek horrela izan beharra harrigarria dirudi. Interes-tasa duen ondasun bakarra dirua izanik, normala da gainerako ondasunetatik zertan bereizten den eta monetaz kanpoko ekonomian zer gertatuko litzatekeen aztertzea. Galdera hauei erantzun arte ez da gure teoria guztiz argituko.

Diruaren interes-tasa —irakurleari gogorarazi nahi diogunez— ez da etorkizunean entregatzeko kontratatu den diru-zenbatekoaren soberakinaren ehuneko bestea baizik (esaterako, urtebeteko epean zenbateko horren berehalako prezio (*spot*) edo eskudiru gisa izenda dezakegunaren gainetiko soberakinaren ehunekoa). Hortaz, badirudi kapital-ondasun iraunkor bakoitzerako diruak duenaren tankerako interes-tasak egon beharko lukeela, zeren eta, esaterako, urte bete barru entregatzeko gari-kantitate jakin bat badago, eta gaurko bere ganbio-balioak berehala entregatzeko 100 arroa gariren prezio berdina badu, lehenengo kantitatea 105 arroakoa bada, gariaren interes-tasa urteko ehuneko bostekoa dela esan baitezakegu; eta egungoa 95 arroakoa bada, aldiz, urteko ehuneko *minus* bostekoa. Horrela, ondasun iraunkor bakoitzerako batezbes-

teko interes-tasa dugu, berezkoa —gariaren interes-tasa, kobrearen interes-tasa, etxearen interes-tasa, baita altzairu-plantaren interes-tasa ere.

Merkatuan, gariarentzat edo antzeko ondasunentzat kotizatzen diren «etorkizuneko» eta «ageriko» kontratuen arteko ezberdintasunak lotura zehatza du gariaren interes-tasarekin; baina etorkizunerako kontratua etorkizunean entregatzeko dirutan kotizatzen denez geroztik, eta ez berehala entregatzeko garitan, diruaren interes-tasak ere badu zerikusirik. Lotura zehatza ondorengoa da:

Demagun berehala entregatzeko gariaren prezioa 100 librakoa dela, 100 arroako, urte bete barru entregatzeko etorkizuneko kontratuko gariaren prezioa 107 librakoa dela 100 arroako, eta diruaren interes-tasa ehuneko bostekoa dela; zein da gariaren interes-tasa? 100 librekin, gaur etorkizunean entregatzeko 105 erosiko dituzte, eta etorkizunean entregatzeko 105ek $\frac{105}{107} \times 100 (=98)$ arroa erosiko dituzte, baldintza berdinetan. Era berean, 100 librek berehala entregatzeko 100 arroa gari erosiko dituzte. Horrela, berehala entregatzeko 100 arroa garik etorkizunerako 98 arroa erosiko dituzte. Hortik ondorioztatzen da gariaren interes-tasa urteko ehuneko *minus* bikoa dela.¹¹¹

Honen arabera, ez dago arrazoirik ondasun ezberdinek interes-tasa berdina izan dezaten —gariaren interes-tasa kobrearen interes-tasaren berdina izan dadin—; zeren eta «ageriko» eta «etorkizuneko» kontratuen arteko lortura, merkatuan kotizatzen diren moduan, oso ezberdina baita ondasun ezberdinentzat. Ikusiko dugunez, honen bidez bilatzen ari garen puntura iritsiko gara; izan ere, gerta daiteke berezko interes-tasetatik (horrela dei genitzake) handiena nondik norakoa ezarriko duena izatea (interes-tasa handienara iritsi behar baita kapital-ondasun iraunkorraren eraginkortasun marjinala berriz ere ekoiztu ahal izateko); eta arrazoiak egon badaudelako diruaren interes-tasa, sarritan, guztietan handiena izateko (ikusiko dugunez, beste ondasun batzuen interes-tasa murrizteko eragiten duten hainbat indarrek ez baitiote diruari eragiten).

Edozein unetan salgaien interes-tasa ezberdinak dauden moduan, trukalariak ere bi moneta ezberdinek interes-tasa ezberdina izan dezaten ere ohituta daudela erants genezake, esaterako, librak eta dolarrak; hemen ere, «ageriko» eta «etorkizuneko» kontratuen

arteko ezberdintasunak atzerriko monetarentzat, libratik abiatuta, ez dira, oro har, berdinak atzerriko beste monetentzat.

Nolanahi ere, salgai estandar hauetako bakoitzak diruaren erraztasun berdinak eskaintzen dizkigu kapitalaren eraginkortasun marjinala neurtzeko; zeren eta aukeratzen duguna aukera baiteza-kegu, garia, esaterako; edozein kapital-ondasunen errendimendu probableen gari-balioa kalkulatu; eta gariaren urteroko serie hauen oraingo balioa eta ondasunaren egungo eskaintza-prezioa, garitan neurtuta, berdintzen dituen deskontu-tasak, ondasun horren eraginkortasun marjinala ematen digu, garitan neurtuta. Bi aukera estandarren balio erlatiboan inolako aldaketarik espero ez bada, kapital-ondasun baten eraginkortasun marjinala berdina izango da batean zein bestean neurtu, eraginkortasun marjinala ematen digun zatikiaren izendatzailea eta zenbakitzailea proportzio berean aldatuko baitira. Baina aukerako estandar hauetako bata bestearekiko aldatzea espero bada, kapital-ondasunen eraginkortasun marjinalak ehuneko berdina aldatuko dira, neurtzen diren estandarraren arabera. Hau argitzeko, demagun, kasurik sinpleenean, bi estandarretako bat den garia urteko ehuneko a -ren erritmoan igotzea dirutan neurtuta; hoprrela dirutan ehuneko x -ko eraginkortasun marjinala duen ondasunak, garitan, $x - a$ -ko eraginkortasun marjinala izango du. Kapital-ondasun guztien eraginkortasun marjinal guztiak proportzio berean aldatuko direnez gero, beren magnitudearen tamaina ere berdina izango da, aukeratzen den estandarra aukertuta ere.

Zentzu hertsian adierazgarri gisa har litekeen salgairen bat egongo balitz, salgai horrekiko interes-tasa eta kapitalaren eraginkortasun marjinala, nolabait, kapitalaren interes-tasa bakarra eta eraginkortasun marjinal bakarra bailiran har genitzake. Baina, hori lortzeko, balio-estandar bakarra lortzeko ditugun oztopo bertsuak daude.

Beraz, diruaren interes-tasa ez da bakana, beste interes-tasa batzuekin alderatuta; aitzitik, besteen egoera berean dago. Beraz, non dago diruaren interes-tasaren berezitasuna, hain zuzen, aurreko kapituluetan aipatutako garrantzi praktiko nagusia ematen diona? Zer dela eta egon behar dute outputaren eta enpleguaren bolumenak diruaren interes-tasarekin, gariaren interes-tasarekin estuago lotuta edo etxearen interes-tasarekin baino?

II

Azter dezagun salgaien interes-tasak, urtebeteko epean (adibidez), ondasun-mota ezberdinentzat zeintzuk izan daitezkeen. Salgai bakoitza, txandakatuz, estandar gisa hartzen ari garenez geroztik, tes-tuinguru honetan salgai bakoitzaren errendimenduak bakoitza bereki-ko neurtuta bailegoen hartu behar dira.

Hiru dira ondasun-mota bakoitzak maila ezberdinean dituen bereizgarriak; hona hemen:

a) Ondasun batzuek q output edo errendimendua ematen dute, bakoitza berekiko neurtuta, ekoizpen-prozesuren batean parte hartze-agatik edota kontsumitzaileari zerbitzuak eskaintzeagatik.

b) Ondasun gehienak, dirua izan ezik, narriatu egiten dira edota denbora igarotze hutsagatik nolabaiteko kosturen bat izaten dute (beren balio erlatiboan izan dezaketen aldaketak bazter utzita), erren-dimenduren bat sortzeko erabili izateaz at; hau da, bakoitza berekiko neurtuta, c biltegitratze-kostua dute. Oraingo gai honi dagokionez, ez zaigu axola q kalkulatu aurretik ondorioztatutako kostuen, eta c -en sartutakoan arteko muga zehazki non marraztu, aurrerantzean $q - c - z$ baizik ez baikara arduratuko.

c) Azkenik, epealdi jakin batean ondasun batez baliatu ahal izateko ahalmenak, komenigarritasuna edo segurtasuna eskain ditza-ke, eta hauek ez dira berdinak mota ezberdineko ondasunei dagokie-nez, hasieran ondasunen balioak berdinak izan arren. Nolabait esate-arren, epearen bukaeran ez dago output-gisako inolako emaitza tinko-rik eta, hala ere, jendea zerbait ordaintzeko prest dagoen gauza da. Baliatzeko ahalmen honek eskainitako (ondasunak duen errendimen-du- edo biltegitratze-kostuak kendu ondoren) komenigarritasun edo segurtasun potentzial horregatik ordaintzeko prest dagoen zenbateko-ari (berekiko neurtutakoari), bere l likidezi saria deituko dugu.

Hemendik ondasun baten jabetzatik espero den errendimendua guztira, edozein epetan, bere errendimendua ken bere biltegitratze-kostua gehi bere likidezi saria dela ondorioztatzen da, hau da, $q - c + l$. Eta hortaz, $q - c + l$ edozein aberastasunen berezko interes-tasa da, non q , c eta l , beren buruak estandar gisa hartutako unitateetan neur-tzen diren.

Usaeran dagoen tresna-kapitalaren (adibidez makineria) edo kontsumo-kapitalaren (adibidez etxearen) ezaugarria da bere errendimendua normalean biltegitratze-kostua baino handiagoa izatea, likidezi saria hutsaren hurrengoa izan ohi delarik; ondasun likidoen stock-aren edo sobera biltegitratutako tresna- nahiz kontsumo-kapitalaren ezaugarria da, halaber, gehiegizko biltegitratze-kostua izatea, berezko unitateetan neurtuta, eta hori konpentsatzeko inolako errendimendurik ez du ematen, eta kasu honetan ere likidezi saria alde batera uztekoa izaten da stocka maila apaletik gora jarriz gero (maila hori egoera berezietan garrantzitsua izan badaiteke ere); eta diruari dagokionez, bere errendimendua *zero* da eta bere biltegitratze-kostua hutsaren hurrengoa, baina bere likidezi saria nahikoa garrantzitsua. Zalantzarik egin gabe, ondasun ezberdinek likidezi sariaren maila ezberdinak izan ditzakete, eta diruak nolabaiteko biltegitratze-kostua izan dezake (esaterako, dirua zaindu beharra). Baina diruaren eta gainerako ondasun guztien (edo gehienen) arteko oinarritzko bereiztasuna, diruaren kasuan bere likidezi sariak, askogatik, biltegitratze-kostua gainditzea da, gainerako ondasunetan azken kostu hau likidezi saria baino askoz handiagoa den bitartean. Esaterako, demagun etxeen errendimendua q_1 dela eta bere biltegitratze-kostuak eta likidezi sariak hutsaren hurrengoak; gariari dagokionez, aldiz, biltegitratze-kostua c_2 dela eta errendimendua eta likidezi sariak garrantzi gutxikoak; eta diruari dagokionez, azkenik, likidezi saria l_3 dela eta errendimendua eta biltegitratze-kostuak baztertzeko modukoak. Hau da, q_1 etxearen interes-tasa da, $-c_2$ gariaren interes-tasa eta l_3 diruaren interes-tasa.

Ondasun ezberdinetan itxarondako errendimenduen orekarekin bat datozenen arteko erlazioak finkatzeko, urtean zehar balio erlatiboek jasango dituzten aldaketak zeintzuk izango ote diren jakin behar dugu. Dirua (hemen kontu-moneta besterik ez du izan behar eta garia berdin-berdin har genezakeen) gure neurketa-estandar gisa hartuta, izan bedi a_1 etxeetatik espero den apreziazioaren (edo balio galeraren) ehunekoa, eta a_2 gariarena. q_1 , $-c_2$ eta l_3 -ri, etxeen, gariaren eta diruaren berezko interes-tasak deitu diegu, bakoitza balio-estandar gisa berekiko neurtuta; hau da, q_1 etxetan neurtutako etxeen interes-tasa da, $-c_2$ garitan neurtutako gariaren interes-tasa, eta l_3 dirutan neurtutako diruaren interes-tasa. Komenigarria izan daiteke $a_1 + q_1$, $a_2 - c_2$ eta l_3 , ere deitzea zeintzuk dirua balio-estandar gisa hartuta, dirutara bihur-

tutako kantitate berdinei dagozkien; hurrenez hurren dirutan neurtutako etxearen interes-tasari, dirutan neurtutako gariaren interes-tasari eta dirutan neurtutako diruaren interes-tasari. Oharpen honekin erraz ikusten da aberastasunen jabe direnen eskaria etxe, gari edo dirutara bideratzeko orduan, zein den handiena, $a_1 + q_1$, $a_2 - c_2$ edo l_3 , kontuan hartuko dutela Beraz, orekan, etxeen eta gariaren eskari-prezioak (dirutan neurtuta) izango duen balioa dela eta, ez da zertan aukera ezberdinen artean aukeratu beharrik izango, abantailei dagokienez, behinik behin —hau da, $a_1 + q_1$, $a_2 - c_2$ eta l_3 *berdinak* izango dira—. Balio-estandarren hautaketak ez du emaitza honetan eraginik izango, estandar baten edo bestearen aldagetak aldagai guztiak maila berean aldatuko baititu, hau da, aurrekoak neurtutako estandar berrian espero den apreziazio- (edo baliogalera-) tasaren zenbateko berean.

Nolanahi ere, ohizko eskaintza-prezioa eskariarena baino txikiagoa duten ondasunak berriz ere ekoiztuko dira, eta ondasun horiek interes-tasa (biak ere balio-estandar berdinean neurtuta, balio-estandar hori edozein dela ere) baino eraginkortasun marjinal handiagoa dutenak izango dira (ohizko eskaintza-prezioa oinarritzat hartuta). Hasieran, gutxienez, interes-tasaren pareko eraginkortasun marjinala zuten ondasunen stockak gora egin ahala, eraginkortasun marjinalak behera egiteko joera izaten du (lehenago eman diren eta nahikoa argi dauden arrazoiak direla eta). Horrela, une batetik aurrera horiek ekoiztea jada ez da ordaintzerik izango, *interes-tasa* pari passu *jaisten ez bada*. Bere eraginkortasun marjinala interes-tasaraino heltzen den ondasunik *ez* dagoenean, kapital-ondasunen ekoizpena bertan behera utziko da.

Demagun (argudioaren etapa honetan, hipotesi hutsa bailitzan) interes-tasa finkoa duen (edo ekoizpenak gora egiten duenean beste edozein salgaiaren interes-tasa baino motelago jaisten den) ondasunik badagoela (dirua, adibidez). Egoera hau nola doitzen da? $a_1 + q_1$, $a_2 - c_2$ eta l_3 nahitanahiez berdinak direnez geroztik, eta hipotesiaren arabera, l_3 finkoa denez, edota q_1 zein $-c_2$ baino motelago jaisten denez, a_1 eta a_2 -k gora egin behar dutela ondorioztatzen da. Bestela esan, dirua ez den beste aberastasun baten egungo diru-prezioak, etorkizunean izango duela espero den prezioarekiko proportzionalki jaisteko joera izaten du. Beraz, q_1 eta $-c_2$ -k jaisten segitzen badute, uneren batean hauetako aberastasun gehiago ekoizteak ez du irabazirik sortu-

ko, baldin eta etorkizuneko egunen batean etorkizuneko ekoizpen-kostuak egungo ekoizpen-kostuarekiko igoera jakin bat edukitzea espero ez bada eta zenbateko horrekin egun ekoiztutako stockaren une honetatik hasi eta prezioa handiagoa izango den data probablerainoko biltegitratze-kostua estaltzen ez bada.

Orain dirudienez argi dago lehen baieztatzen genuena (alegia, diruaren interes-tasak output-tasan muga ezartzen duela) ez dela guztiz zuzena; esan egin behar baikenukeen ondasunen stockak (oro har,) gora egin ahala, motelago jaisten den interes-tasari dagokion ondasuna dela beste guztien ekoizpen estalgarria behin-behinekoz ezabatzen duena —aipatutako kasuan izan ezik, hau da, egungo eta itxarondako ekoizpen-kostuen artean erlazio berezirik ez badago—. Outputak gora egin ahala, berezko interes-tasak jaitsi egiten dira eta ondasunak bata bestearen atzetik erori egiten dira ekoizpen estalgarriari dagokion mailaren azpira —azkenik, berezko interes-tasa bat edo gehiago edozein ondasunen eraginkortasun marjinalaren mailaren gainetik mantendu arte—.

Diru hitzarekin balio-estandarra ulertzen badugu, argi dago diruaren interes-tasak ez duela gorabeheraren sortzaile izan behar. Ezin genitzake gure arazoak (batzuek uste izan duten moduan), besterik gabe, urrea edo libra beharrean, balio-estandarra garia edo etxeak izango direla dekretatuz gaingitu. Izan ere, orain outputak gora egitean bere berezko interes-tasa jaitsiko ez den ondasunen bat dagoen bitartean arazo berdinak sortuko direla ikus baitezakegu. Gerta daiteke, adibidez, paper trukeazineko estandarra bereganatu duen herrialdean urreak zeregin hau betetzen jarraitzea.

III

Beraz, diruaren interes-tasari esangura berezia emanda, tazituki ohituak gaudeneko diru-motak hainbat ezaugarri berezi dituela suposatzen dugu eta horren bidez, ekoizpena handiagotzen denean, bere interes-tasa, bere estandar berarekiko unitateetan neurtuta, erresistentzia handiagokoa izango da jaitsierarekiko, modu berean neurtutako beste edozein ondasunen berezko interes-tasak baino. Suposizio hau justifi-

katuta al dago? Nire ustetan, hausnarketak honakoa erakusten digu: ondoren adieraziko diren ezaugarriak, guztiak ere dirua guk ezagutzen dugun moduan bereizten dutenak, gai direla hura justifikatzeko. Ezarritako balio estandarrak ezaugarri hauek dituen neurrian, zuzen eongo da garrantzitsuena diruaren interes-tasa dela dioen proposizioa.

1) Aurreko ondoriora garamatzen lehen ezaugarria da diruak, bai epe luzera, bai laburrera, ekoizpen-malgutasuna zero izatea, edota izatekotan, oso txikia izatea, moneta-aginpidetik ezberdindutako enpresa pribatuari dagokionez; —testuinguru honetan, ekoizpen-malgutasunaren¹¹² bidez honakoa esan nahi dugu: hura ekoizteko behar den eskulanaren erreakzioa, horren unitate batekin eros daitekeen lan-kantitatean izandako gehikuntzarekiko—. Honek dirua ezin dela erraz ekoiztu esan nahi du —enpresarioek ezin dute, dirua ekoizteko, lana geroe ta gehiago nahi bezala aplikatu, bere prezioa alokairu-unitateetan igotzen doan neurrian—. Gidatutako moneta trukaezinari dagokionez, ezaugarri hau zorrotz betetzen da: baina urre-patroiko monetari dagokionez, gutxi gorabehera antzekoa gertatzen da, horrela erabil daitekeen lan-kantitatearekiko gehienezko gehikuntza proportzionala oso txikia denez gero, jakina, industria nagusia urre-meagintza duen herrian izan ezik.

Dena den, nolabaiteko ekoizpen-malgutasuna duten ondasunei dagokienez, bere berezko interes-tasak behera egiten duela onartu genuen ekoizpen-koefiziente handiagoaren ondorioz bere stocka handiagotu egiten zela suposatu genuelako. Hala ere, diruari dagokionez —oraingoz, atzeratu egingo dugu moneta-agintaritzak alokairu-unitateak murriztu edo horiek hornitzeko nahita gehitzearen ondorioei buruzko azterketa—, eskaintza finkoa da. Beraz, dirua lanaren bidez erraz ekoiztu ezin delako ezaugarriak, *prima facie*, berezko interes-tasak jaisteko nahikoa zailtasuna izango duelako ikuspuntua ez dagoela zuzen suposarazten digu; aitzitik, dirua uzta bailitzan erein ahal izango balitz, edota automobilaren motorearen erara ekoiztu ahal izango balitz, beheraldiak saihestu edo apaldu egin ahal izango lirateke, zeren eta beste ondasunen prezioak, dirutan neurtuta, jaisteko joera hartuko balu, dirua ekoiztera lan gehiago bideratu ahal izango bailitzateke; —ikusten dugunez, hauxe da urre-meagintza duten herrialdeetan gertatzen dena, ildo honetan, munduarentzat, oro har, gehienezko desbiderazioa ia hutsaren hurrengoa izan arren.

2) Hala ere, argi dago diruaz gain, errenta-faktore hutsek ere aurreko baldintza betetzen dutela, horien ekoizpena guztiz malgua izaki. Bigarren baldintza behar da, beraz, dirua eta gainerako errenta-elementuak bata bestearik bereizteko.

Diruaren bigarren *ezberdintasuna* bere ordezkatzeko-malgutasuna zero, edo ia zero, izatea da; honek diruaren ganbio-balioak gora egin ahala, hura ordezkatzeko joera duen beste faktorerik ez dagoela esan nahi du —agian, oso proportzio txikian, salgai-dirua eskulanean edo artean erabiltzen denean izan ezik—. Hauxe da diruaren erabilgarritasuna bere ganbio-balioak baino ez ematearen ezaugarritik ondorioztatzen dena, biak *pari passu* igo eta jaitsi egiten direlarik; beraz, diruaren ganbio-balioa igotzen denean ez dago, errenta-faktoreetan gertatzen den moduan, beste faktore batez ordezkatzeko zio edo joerarik.

Hortaz, bere lan-prezioa igotzen denean diruaren ekoizpenari eskulan gehiago eskaintzea ezinezkoa izateaz gain, dirua erosahalmenarentzat hondorik gabeko zuloa da bere eskaria hazi egiten denean, berarentzat ez baitago eskaria desbideraraziko duen baliorik —beste errenta-faktoreetan gertatzen den moduan—, hala bere eskariak beste gauza batzuetarantz jo dezan.

Honi buruz egin beharreko salbuespen bakarra diruaren balioaren igoerak igoeraren etorkizuneko iraupenari buruzko ziurgabetasun eza sortzen duenean sortzen zaigu; kasu honetan, a_1 eta a_2 igo egiten dira, eta honek aberastasunen tasetan diruaren interesa igoarazi egiten du eta, beraz, beste ondasun batzuen outputa suspertzen du.

3) Hirugarrenik, diru-kopurua berau ekoizteko lana desbideratzearen bidez handiagotu ezin denean, hala ere, bere eskaintza efektiboa zorrotz finkatzen delako suposizioa zuzen egongo ez litzatekeela eta, ea aurreko ondorioak aldatu egingo liratekeen kontuan hartu behar dugu. Hain zuzen, alokairu-unitateen murrizketak aske utziko du likidezi zioa asetzeko beste erabilera batzuetara xedatzen zen eskudirua; eta honez gain, moneta-baloreek behera egin ahala, diruaren stockak gizartearen aberastasun guztian proportzio handiagoa izango du.

Arrazoi teoriko hutsetan oinarrituz, ezin uka daiteke erreakzio hau gai izan litekeela diruaren interes-tasan behar bezalako jaitziera

onartzeko. Dena den, oro har, nahikoa indarra duten hainbat arrazoi badago, eta ohituta gauden ekonomi motan, gerta daiteke arrazoi horien bidez diruaren interes-tasak sarritan behar bezala jaisteari uko egitea:

a) Lehenik eta behin, alokairu-unitatearen jaitsierak gainerako ondasunen eraginkortasun marjinaletan diru-terminoetan eragiten duen erreakzioa kontuan hartu behar dugu — eraginkortasun marjinal hauen eta diruaren interes-tasaren arteko *ezberdintasuna* baita guri axola zaiguna. Alokairu-unitateetan izandako jaitsialdiaren ondorioa berriz ere igo egingo den itxaropena sortzea bada, emaitza guztiz aldekoa izango da. Aitzitik, ondorioa gero jaitsi egingo delako itxaropena sortzea bada, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren gaineko erreakzioak interes-tasaren jaitsiera oreka dezake.¹¹³

b) Alokairu nominala alokairu erreala baino egonkorragoa izanik, dirutan neurtutako alokairuek zurrunkak izateko duten joerak, alokairu-unitateak dirutan jaisteko joera mugatu egiten du. Are gehiago, hori horrela ez balitz, jarrera ona ez eta txarra izan liteke, zeren eta alokairu nominalak erraz jaitsi ahal izango balira, beste jaitsiera baten itxaropena eragin bailezake, eta horrek kapitalaren eraginkortasun marjinallean aurkako erreakzioa izango luke. Are gehiago, alokairuak beste aberastasun baten arabera finkatuko balira (esaterako, garitan), seguraski ez lukete zurrunkak izaten jarraituko. Diruaren beste ezaugarriak —batez ere *likido* bihurtzen duten horiek— direla eta izaten dute alokairuek zurrunkak izateko joera, dirutan finkatzen direnean.¹¹⁴

c) Hirugarrenik, testuinguru honetako punturik garrantzitsuenara iritsi gara, hau da, likideziagatiko lehentasuna asetzen duten diruaren ezaugarrietara, zeren eta egoera jakin batzuetan, sarritan gertatuko direnetan, hauek interes-tasa sentiberatasunik gabea izatea eragingo baitute, zifra jakin batetik behera,¹¹⁵ batez ere, baita dirukopurua, beste aberastasun-mota batzuekiko proportzionalki nabarmen igotzen denean ere. Bestela esan, maila batetik aurrera, likideziaren ondoriozko diruaren errendimendua, bere kopuruaren igoeraren erantzun gisa, inola ere ez da jaisten beste ondasun-mota batzuen errendimendua (beren kantitatea tamaina berean igotzen denean) jaisten den adina.

Honi dagokionez, diruaren biltegitratze-kostu txikiek (edo hutsaren hurrengoak) funtsezko zeregina dute; izan ere, kostu horiek

handiak balira, diruaren etorkizuneko balio probableari buruzko aurreikuspenen eragina arindu egingo bailukete. Nahikoa suspergarri txikiaren erantzun gisa jendeak bere diru-stocka handiagotzeko prest egoteko arrazoa, likideziaren abantailek (benetakoek edo suposatutakoek) denboran zehar biltegitratze-kostuen gehiegizko igoerari aurre egiteko kontrapisurik ez izatea da. Dirua ez den beste aberastasun bati dagokionez, horren stock txiki batek hainbat abantaila eskain diezaieke bere erabiltzaileei; baina hornidura handiagoak balio iraunkorreko aberastasunaren erreserbaren adierazle gisa nolabaiteko erakarpena izan balezake ere, bere biltegitratze-kostuek —zaintzeari, kaltetzeari, eta abarri buruzkoek— aurreko hori neutralizatuko lukete. Beraz, maila batera helduz gero, stock handiagoa gordetzeko, nahitaez, galera izan beharko da.

Dena den, ikusi dugunez, diruarekin ez da horrela gertatzen —hainbat arrazoi direla medio; alegia, jendearen balioespenaren arabera, dirua *par excellence* «likido» bihurtzen duten horiek medio. Horregatik, diruarentzat biltegitratze-kostu artifizialak sortuz, diruak bere koalitatea mantentzekotan lege-zirkulazioa aldizka kostu jakin batean zigilatu beharraren espedientearen bidez, edo bestelako prozedura batzuen bitartez, nolabaiteko konponbidea bilatu nahi izan duten erreformatzaileak bide onetik joan dira; eta horien proposamenen balio praktikoa kontuan hartu beharrekoa da.

Diruaren interes-tasaren garrantzia, beraz, bi ezaugarrien konbinazioaz sortzen da, hau da, batetik likidezi zioaren jardunaren bitartez, tasa, nolabait, dirutan neurtutako beste aberastasun-mota batzuekin diru-kopuruak duen proportzio-aldaketarekiko sentiberatasun gabea izan daiteke, eta bestetik, tasak zero ekoizpen- eta ordezkapen-malgutasuna (edo hutsaren hurrengoa) duela (edo izan dezakeela). Lehenengo baldintzak eskaria nagusiki dirurantz bidera daitekeela esan nahi du; bigarrenak, hori gertatzen denean, diru gehiago ekoizteko lana ezin daitekeela erabili; eta hirugarrenak, inolako puntutan ez dagoela samurketarik, nahikoa merkea den beste edozein faktore diruaren zeregina diruak bezain ongi betetzeko gai izateko aukeraren ondorioz. Atsedeen bakarra —kapitalaren eraginkortasun marjinalerako aldaketetatik at— (likideziarekiko joerak aldagaitz irauten duen artean) diru-kopuruaren gehikuntzatik etor daiteke, edota —gauza bera da— diru-balioaren gehikuntzatik,

kantitate jakin bati moneta-zerbitzu gehiago emateko aukera eman-
go diolarik.

Horrela, diruaren interes-tasaren igoerak atzeratu egiten du ekoizpen malgua duten gai guztien outputa, diruaren outputa (hipotesiz, batere malgutasunik gabea dena) suspertu ahal izan gabe. Diruaren interes-tasak, gainerako aberastasunen interes-tasa guztiei bidea erakutsita, aberastasunak ekoizteko inbertsioa geldiarazi egiten du, dirua ekoizteko (hipotesiz, ezin daiteke ekoiztu) beharrezkoa dena suspertzeko gai izan gabe. Are gehiago, zorretan neurtutako eskudiru likidoaren eskariaren malgutasuna dela eta, eskari hau gobernatzen duten baldintzetako aldaketa txikiak, agian, ez du diruaren interes-tasa asko aldatuko; bestetik, (ekintza ofizialetik at) diru-ekoizpenaren malgutasunik eza kontuan hartuta, indar naturalentzat ere ezinezkoa da eskaintzan eraginez diruaren interes-tasa jaitsaraztea. Aberastasun arruntari dagokionez, aberastasun horren stock likidoen eskariaren malgutasunak eskariaren aldaketa txikiek interes-tasa gorantza edo beherantza bortizki eramatea onartuko luke, eta bere eskaintzaren malgutasunak eraginik izango luke berehalako entregeketorikizunekoetan izan lezaketen askoz ere sari handiagoa saihestekotan. Hortaz, beste aberastasun batzuk alde batera utzita, «indar naturalen» (hau da, merkatuko ohizko indarren) jokabidea beren interes-tasa jaistea izango litzateke (enplegu beteko premiak aberastasun guztietara, oro har, diruaren ohiko ezaugarritzat hartu dugun eskaintzaren malgutasunik eza eraman arte). Horrela, diruaren eta —jakina, suposatu beharrean gaude— diruarentzat emandako ezaugarriak betetzen dituen beste edozein aberastasunik ezean, interes-tasek, oreka enplegu beteko egoeran baino ez lukete lortuko.

Hau da, langabeziak jendeak ilargia bereganatu nahi duelako egiten du gora; —gizakiak ezin enplega daitezke berek desio dutena (hau da, dirua) ezin ekoiz daitezkeen zerbait izanik, eta bere eskaria erraz apaldu ezin daitekeelarik—. Jendeari gazta berdea gauza bera dela sinestaraztea beste irtenbiderik ez dago, eta ondoren, gazta horren lantegia (hau da, banku zentrala) botere publikoaren zuzendaritzapean jartzea.

Interesgarria da honakoa nabarmentzea: tradizionalki urreak balio-estandar gisa erabiltzeko egoki bihurtu duen ezaugarria (hau da,

bere eskaintzaren malgutasunik eza) dela, hain zuzen, arazoaren mui-
nean dagoena.

Gure ondorioa jarraian adierazi bezala idatz genezake modurik
orokorrean (kontsumitzeko joera jakin bat hartuta): ez da posible
inbertsioan gehikuntzarik izatea, ondasun eskuragarri guztien berezko
interesen berezko tasen arteko zenbateko handiena eta ondasun guz-
tien eraginkortasun marjinal guztien arteko handiena berdinak direne-
an, berezko interesaren berezko tasa handiena duen ondasunaren ara-
bera neurtuta.

Enplegu betearen egoeran baldintza hau nahitaez asetzen da.
Baina enplegu betera heldu aurretik ere ase daiteke, baldin eta orde-
kapen- eta ekoizpen-malgutasuna zero¹¹⁶ (edo nahikoa txikia) duen
ondasunen bat badago eta bere interes-tasa, outputak igo ahala, bako-
itza bere unitateetan neurtutako kapital-ondasunen eraginkortasun
marjinalak baino motelago jaisten bada.

IV

Ikusi dugunez aberastasun bat balio-estandarra izan ahal izatea
ez da nahikoa aberastasun horren interes-tasa tasa esanguratsua izan
dadin. Nolanahi ere, kontuan hartu beharrekoa da diruaren ezauga-
rriek, guk ezagututako moduan eta diruaren interes-tasa tasa esangu-
ratsu bihurtzen dutenek, normalean zorrak eta alokairuak finkatzen
diren estandarra dirua izatearekin ea norainoko lotura duten. Gaiari bi
alderditatik heldu behar zaio.

Lehenik eta behin, kontratuak finkoak eta alokairuak (norma-
lean) egonkorak izateak, diru-termينوetan zalantzarik gabe oso
eginkizun garrantzitsua du diruak horren likidez sari handia izatean.
Argi dago ondasunak gordetzeko guztiz komenigarria dela etorkizu-
neko obligazioak beteko diren estandar bera erabiltzea; hain zuzen,
estandar horrekiko etorkizuneko bizi-kostua nahikoa egonkorra izan-
go dela kontsideratzen dena erabiltzea, alegia. Era berean, etorkizu-
neko outputaren diru-kostuaren nolabaiteko egonkortasunaren itxaro-
pena ezin mantenduko litzateke ziurtasun handiz balioaren estanda-
rra ekoizpen-malgutasun handiko aberastasuna izango balitz. Are

gehiago, diruaren biltegiatze-kostu txikiek, guk ezagututako moduan, likidezi sari handiak bezain eginkizun garrantzitsua dute diruaren interes-tasa tasa esanguratsu bihurtzeko; izan ere, likidezi sariaren eta biltegiatze-kostuen arteko *aldea* da axola duena; eta urrea, zilarra edo banku-bileteak ez diren ondasun gehienei dagokienez, biltegiatze-kostuak, gutxienez, kontratu eta alokairuak finkatu ohi direneko estandarrarekin batera doan likidezi saria bezain handiak izaten dira, eta beraz, librak (adb.) gaur egun duen likidezi saria gariari (adb.) transferitu arren, oraindik ere gariaren interes-tasa hutsaren gainetik igotzea ezinezkoa litzateke. Hortaz, bere horretan jarraitzen du kontratuak eta alokairuak diru-terminoetan finkatuta dauden artean diruaren interes-tasaren garrantzia handiagotzeak, baina honako hau seguraski ez da berez nahikoa tasa horretan ikusitako ezaugarriak sortzeko.

Kontuan hartu beharreko bigarren aztergaia korapilotsuagoa da. Outputaren balioa dirutan neurtuta beste edozein aberastasunetan neurtuta baino egonkorragoa izango dela dioen ohizko aurreikuspena ez da, jakina, alokairuak diru-unitateetan finkatzearen menpekoa, diru-terminoetan nahikoa *zurrunak* izatearen arabera goak baizik. Beraz, dirutan beharrean, beste aberastasun baten edo batzuen unitateetan finkatuz gero zurrunagoak (hau da, egonkorragoak) izango liratekeela uste izango balitz, zein izango litzateke egoera? Epe laburretan zein luzeetan, delako aberastasunaren kostuak alokairu-unitateetan output-maila handiago edo txikiagoarentzat nahikoa konstanteak izan beharraz gain, aurreko aurreikuspen horrek, halaber, eskari arruntaz gaineko edozein soberakin, kostu-prezioan, kosturik gabeko stockean sartu ahal izatea eskatzen du, hau da, likidezi saria biltegiatze-kostuak baino handiagoa izan dadila (bestela, aurkakoa gertatuz gero, prezio handiagoan irabazteko itxaropenik ez dagoenez, stocka gordetzeak, halaber, galera eragin behar baitu). Baldintza hauek beteko lituzkeen aberastasunik balego, argi dago diruaren aurkaria izan litekeela. Beraz, logikaren arabera honakoa ez litzateke ezinezkoa izango: alegia, bere bidezko outputaren balioaren neurketa diruaren bidezkoa baino egonkorragoa izango litzatekeen aberastasuna egotea; baina ez dirudi aberastasun hori egon badagoenik.

Beraz, honegatik guztiagatik ondoko hau ondorioztatu dut: alokairuak zurrunagoak izango direla espero den salgaia ezin daitekeela

ekoizpen-malgutasuna minimoa ez duena izan, zeinarentzat biltegitratze-kostuak likidezi sariaz gain duen soberakina minimoa ere ez den. Bestela esan, diru-unitateetan neurtutako alokairuen zurruntasun erlatiboaren aurreikuspena, biltegitratze-kostuez gaineko likidezi sariaren soberakina diruarentzat beste edozein ondasunentzat baino handiagoa izatearen ondorioa da.

Hortaz, diruaren interes-tasa tasa esanguratsu bihurtzen konbinatzen diren ezaugarri guztiak era metagarrian elkarrekin erreakzionatzen dutela ikusten dugu. Diruak ekoizpen eta ordezkapen-malgutasun txikiak eta biltegitratze-kostu txikiak izateak, diru-alokairuak nahikoa egonkorrak direlako ustea sendotzea eragiten du; eta uste horrek diruaren likidezi saria handiagotu egiten du eta diruaren interes-tasaren eta beste ondasun batzuen eraginkortasun marjinalen arteko aparteko koerlazioa bazter uzten du; eta koerlazio horrek, egongo balitz, diruaren tasari bere nagusitasuna ken liezaioke.

Pigou irakasleak (eta beste batzuek) normalean alokairu errealak alokairu nominalak baino egonkorragoak direlako ustea dagoe-la suposatzen izan du; baina hori enpleguaren egonkortasunaren ustea egongo balitz bakarrik gerta liteke. Are gehiago, langileen kontsumo-ondasunek biltegitratze-kostu handia edukitzearen zailtasuna dago oraindik ere. Beraz, benetako alokairuen egonkortasuna handiagotu nahi izango balitz (eskulanaren ordainketa langileen kontsumo-ondasunen bidez eginez), horren ondorio bakarra diru-prezioetan gorabehera bortitzak eragitea izango lirateke. Izan ere, kontsumitzeko joeran eta inbertitzeko suspertgarrian izandako gorabehera bakoitzak, baita txikiak ere, diru-prezioak zeroa eta infinituaren artean bortitz oszilatzea eragingo luke. Alokairu nominalak alokairu errealak baino egonkorragoak izatea ezinbesteko baldintza da, beraz, sistemak berezko egonkortasuna izan dezan.

Horregatik, alokairu errealei egonkortasun erlatiboa esleitzea ekintza eta esperientziazko hutsa izateaz gain, logikazko okerra ere bada, aztertzen ari garen sistema egonkorra dela suposatzen badugu, hau da, kontsumitzeko joeran eta inbertitzeko suspertgarrian izandako aldaketa txikiak prezioetan gorabehera bortitzak ez eragitearen zentzuan.

V

Aurrekoaren ohar gisa, agian merezi du arestian nahikoa argi utzi den zerbait gogoraraztea; alegia, «likidezia» eta «biltegitratze-kostuak» biak ere maila-kontua direla, eta «diruaren» ezaugarria proporzionaliki, lehenetik, azkenekotik baino askoz gehiago izatea besterik ez dela.

Esaterako, kontsidera dezagun likidezi saria beti biltegitratze-kostuen gainetik duen ondasunik ez duen ekonomia; hauxe da «diruzkoa ez den ekonomiaz» egin dezakedan definiziorik onena. Hau da, kontsumogaiak eta ekoizpen-ekipamenduak besterik ez daude, gehiago ala gutxiago bereiziak, epe laburrean edo luzean eman ditzaketen edo ematen lagun dezaketen kontsumogaien izaeraren arabera; eta horiek guztiak, eskudirua ez bezala, stockean gordez gero kalteu egiten dira edo beren likidezi saria baino gastu handiagoak eragiten dituzte.

Horrelako ekonomian kapital-ekipamenduek elkar bereiziko dute, a) beren ekoizpenean esku har dezaketen kontsumogaien aniztasunari dagokionez, b) beren outputaren balioaren egonkortasunari dagokionez (ogiaren balioa denboran zehar zaharkituak geratzen diren berrikuntzena baino egonkorragoa izatearen zentzuan), eta c) berauetan ezarritako aberastasuna «likido» bihur daitekeen azkartasunari dagokionez, «outputa» sortzeko zentzuan, eta horren salmentaren emaitza nahi izanez gero hainbat forma guztiz ezberdinetan berriz ezar daitekeelarik.

Aberastasunen jabeek kasu horretan kapital-ekipamendu ezberdinen «likideziarik» eza —aurreko zentzuan— konparatu egingo dute, aberastasuna gordetzeko bide gisa, arriskua kontuan hartu ondoren beren errendimendu probablei buruz egiten den azterketa eguneratu onenarekin. Ikus daitekeenez, likidezi saria hein batean arriskuagatik sariaren antzekoa da, baina beste hein batean, ezberdina —ezberdintasun hau, probabilitatei buruz egin ditzakegun kalkulu hoberenen eta horiek burutzen dituguneko konfiantzaren arteko tarteari dagokio—. ¹¹⁷ Aurreko kapituluetan errendimendu probablearen kalkuluari heldu diogunean, ez gara hasi hori nola burutzen zen zehatz-mehatz aztertzen; eta argudioa ez korapilatzekotan, ez geni-

tuen likideziaren ezberdintasunak arriskuaren ezberdintasunetatik bereizi. Dena den, begi-bistakoa da berezko interes-tasa kalkulatzeko kontuan biak eduki behar ditugula.

Argi dago «likideziaren» estandar absoluturik ez dagoela, likidezi eskala besterik ez baitago —aberastasunaren hainbat forma gordetzeko erakargarritasuna kalkulatzeko, erabilera- eta biltegiatze-kostuez gain, kontuan hartu beharreko sari aldakorra—. «Likideziari» dagokion kontzeptua nahikoa zehazgabea da hein batean; noizean behin aldatu egiten da eta gizarte-praktikaren eta erakundearen menpe egoten da. Dena den, aberastasunaren jabeek edozein garaitan likideziari buruz duten iritzia adierazten duen lehentasun-ordena zehatza izan ohi da, eta hori nahikoa dugu sistema ekonomikoaren jokabidea aztertzeko.

Agian, historiaren hainbat unetan lurraren jabetzak likidezi sari handia bailuen hartu izan dute ondasun horren jabeek; eta ekoizpen- eta ordezkapen-malgutasun oso txikiak izan ditzakeenez,¹¹⁸ horretan lurra diruaren antza duen aldetik, ulergarria da oso historian zehar behin baino gehiagotan lurra gordetzeko gogoak gaur egun diruak interes-tasaren maila altuegian mantenduz duen zeregin berbera bete izana. Zaila da eragin hau koantitatiboki balioestea, diruzor baten interes-tasarekin zorrotz konparatzekoa den berezko unitateetan neurtutako lurrarentzat etorkizuneko preziorik ezean. Hala ere, hainbatetan guztiz antzekoa izan den beste zerbait badugu, hipotekei buruzko tasa handien moduan.¹¹⁹ Sarritan lurra lantzeko errendimendu probablea gainditzen duten interes-tasa handi hauek (lurraren hipoteken ondoriozkoak) ohizkoak izan dira nekazaritza-ekonomia ugaritan. Lukurreriari buruzko legeak batez ere tankera honetako zergaren aurka bideratu izan dira. Eta zuzen zeuden. Izan ere, gizartearen hasierako antolakuntzetan, non epe luzeko obligaziorik ez zegoen (gaur egungo zentzuan behinik behin), hipoteken gaineko interes-tasa altuen lehiakidetasunak erraz asko izan zezakeen berriki ekoiztutako kapital-ondasunen ohizko inbertsioetako aberastasunaren hazkundera atzeratzeko, geroago epe luzeko interes-tasa handiek izan duten eragin berbera.

Mundua, norbanakoaren aurrezkiaren milurteko batzuen ondoren, metatutako kapital-ondasunetan horren txiroa bada, ez da, nire iritziz, jendearen ezustekoarekiko joeragatik, ezta gerraren suntsiketa-

gatik ere, baizik eta garai batean lurraren jabetzari lotutako likidezi sari handiengatik, eta gaur egun diruari lotzen zaizkionengatik. Honetan, ez nator ikuspuntu zaharrarekin bat, Marshallek ohiz kanpoko indar dogmatikoaz bere *Principles of Economics*-eko 581. orrialdean adierazten badu ere:

«Jende guztiak daki aberastasunaren metaketa galgatu eta interes-tasa mantendu egiten dela, pertsona gehienak egungo sariak etorkizunekoak baino nahiago izateko lehentasuna dela eta, edota, bestela esan, «itxaroteari» uko egitea dela eta».

VI

Nire *Treatise on Money* liburuan interes-tasa bakarrak adierazi nahi zuena definitu nuen. *Interes-tasa natur ala* izendatu nuen — hau da, *Treatise*ko terminologiaren arabera, aurrezki-tasa (bertan definitutako eran) eta inbertsio-tasaren arteko berdintasuna mantentzen zuena. Nik uste nuen hau Wicksell-en «interes-tasa naturalaren» garapena eta argibidea zela, idazle haren ustez tasa hori prezio-maila jakin baten (ez oso ondo zehaztuaren) egonkortasuna mantenduko zuena izaki.

Dena den, alde batera utzi nuen, definizio honen arabera, edozein gizartetan enplegu-maila hipotetiko bakoitzak interes-tasa natural *ezberdina* duela. Era berean, interes-tasa bakoitzak enplegu-maila bat du, zeinarentzat tasa hura tasa «naturala» den, hau da, interes-tasa eta enplegu-maila horiekin sistema orekan egongo da. Beraz, oker hutsa izan zen interes-tasa *bakarraz* hitz egitea, edota aurreko definizioak, enplegu-mailaz at, interes-tasarentzat balio bakarra emango zuela iradokitzea. Artean nik ez nuen ulertu egoera batzuetan litekeela enplegu maximoaren mailaren azpitik sistema orekan egon.

Orain ez dut uste lehen horren ideia adierazkorra iruditu zitzaidan interes-tasa «naturalaren» kontzeptua gure azterketarako balio edo garrantzi handiko ekarpena izan daitekeenik. Besterik gabe, *status quo* mantendu egingo duen tasa da; eta, normalean, ez dugu, bere horretan hartuta, *status quo* horrekiko aparteko interesik.

Tankera horretako interes-tasarik badago, hau da, bakarra eta esanguratsua, interes-tasa *neutral*¹²⁰ gisa izenda genezakeenak izan behar du tasa hori, hots, aurreko zentzuan tasa-naturala dena eta sistemaren gainerako parametroak emanda *enplegu betearekin* bat datorrena; hala ere, tasa hau tasa *optimo* gisa hobeto deskribatuta legoke.

Interes-tasa neutrala zorrozkiago defini daiteke outputa eta enplegua halakoak izanik, enpleguaren malgutasuna, oro har, zero denean irauten duen tasa gisa.¹²¹

Berriz ere, aurreko horrek interes-tasaren teoria klasikoak zentzua izan dezan zein suposizio tazitu behar den erantzuten digu. Teoria horrek honakoa suposatzen du: tasa erreala beti interes-tasa neutralaren berbera dela definitu berri dugun zentzuan, edota tasa erreala beti enplegua zehaztutako maila jakin eta konstantean mantenduko duena dela. Teoria tradizionala horrela interpretatzen bada, bere ondorio praktikoetan ezer gutxi edo batere ez da egongo gure adostasunik ez duena. Teoria klasikoak banku-agintaritzak edo indar naturalek merkatuko interes-tasak aurreko bi baldintzetako edozein asetzea eragiten dutela suposatzen du, eta suposizio honetan gizartearen ekoizpen-baliabideen aplikazioa eta ordainketa zein legek gobernatuko dituzten ikertzen du. Muga hori onartuta, outputaren bolumena, konstantetzat hartutako enplegu-bolumenaren menpekoea baizik ez da izango, ohizko ekipamendu eta teknikarekin batera; eta horrela Ricardo-ren munduaren bake ederrera sartuko gara.

XVIII. KAPITULUA

Enpleguaren teoria orokorrari buruzko azalpen berria

I

Orain gure argudioaren katemaila guztiak lotzeko moduan gaude. Lehenbizi, baliagarria izan liteke jakintzat sistema ekonomikoaren zeintzuk elementu eman ohi ditugun, gure sistemaren aldagai independenteak zeintzuk diren, eta menpeko aldagaiak zeintzuk diren argitzea.

Jakintzat ematen ditugu egon badagoen trebetasuna eta eskulankantitate erabilgarria, ekipamendu erabilgarriaren kalitatea eta kopurua, teknikaren egoera, lehiakidetasun-maila, kontsumitzailearen gustuak eta ohiturak, lan-intentsitate ezberdinen baliagarritasunik eza eta berrikuspen- eta antolakuntza-jarduerak baita gizarte-egitura ere, horretan nazio-sarreraren banaketa finkatzen duten indarrak eta geroago adieraziko ditugun aldagaietan sartzen ez direnak barne direlarik. Honek ez du esan nahi faktore hauek konstantetzat hartzen ditugunik; orain eta hemen berauetan gertatutako aldaketen eraginak eta ondorioak ez ditugula kontuan hartzen baizik.

Gure aldagai independenteak hauek dira: lehenik eta behin, kontsumitzeko joera, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba eta interes-tasa, guztiak ere, ikusi dugunez, askoz ere analisi sakonagoaren menpe jar daitezkeenak.

Gure menpeko aldagaiak enplegu-bolumena eta nazio-sarrera (edo nazio-dibidendua), alokairu-unitateetan neurtuta, dira.

Jakintzat eman ditugun faktoreek gure aldagai independenteetan eragina dute, baina ez dituzte guztiz mugatzen. Esaterako, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba, hein batean, egon badagoen ekipamendu-kantitatearen eraginpean dago (jakintzat emandako faktoreetako bat da, alegia), baina hein batean epe luzeko aurreikuspenen egoeraren menpekoa ere bada, eta hori ez da jakinetakoa. Dena den, jakintzat emandako faktoreek beste elementu batzuk goitik behera mugatzen dituzte, eta elementu eratorri hauek ere lehendik ezagunak bailiran erabil ditzakegu. Esaterako, adierazitako faktoreek, alokairu-unitateetan neurtuta, edozein enplegu-maila jakini nazio-sarreraren zein maila dagokion aditzera ematen digute eta, beraz, jakintzat ematen dugun armazoi ekonomikoaren barnean, nazio-sarrera enplegu-bolumenaren araberakoa da, hau da, ekoizpena bideratutako benetako indar-kantitatearen araberakoa, bien artean koerlazio bakarra dagoelarik.¹²² Are gehiago, faktore horien bidez eskaintza osoen kurben forma antzeman dezakegu, eta kurba horiek hainbat ondasun-motaren ekoizpenaren baldintza *fisikoen* berri ematen digute, hau da, alokairu-unitateetan neurtutako eskari efektiboaren zenbateko bakoitzari dagokion ekoizpenari egokituko zaion enplegu-kantitatea adierazten dute. Azkenik, faktoreok eskulan- (edo esfortzu-) eskaintzaren funtzioa ematen digute; beraz, *inter alia* eskulanari, oro har, dagokion enplegu-funtzioak¹²³ malgua izateari zein puntutan utziko dion adierazten digute.

Hala ere, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba hein batean adierazitako faktoreen menpekoa da, eta hein batean hainbat motatako kapital-ondasunen errendimendu probableen menpekoa; interes-tasa, ordea, hein batean likideziagatiko lehentasunaren egoeraren (hau da, likidezi funtzioaren) menpekoa da, eta hein batean alokairu-unitateetan neurtutako diru-kantitatearen menpekoa. Horregatik, sarritan oinarritzko aldagai independente gisa kontsidera ditzakegu: 1) Funtsezko hiru faktore psikologikoak, hots, kontsumitzeko joera psikologikoa, likideziarekiko jarrera psikologikoa eta kapital-ondasunen etorkizuneko errendimenduaren balioespen psikologikoa, 2) alokairu-unitatea, nagusi eta langileen artean egindako hitzarmenetan finkatutako moduan, eta 3) diru-kantitatea, banku zentralaren ekintzaz finkatutako moduan; beraz, lehen adierazitako elementuak jakintzat hartzen baditugu, aldagai hauek nazio-sarrera (edo dibidendua) eta enplegu-kantitatea finkatzen dituzte. Baina, era berean, hauek ere beste batzuetan bereiz

daitezke eta ez dira hortaz, nolabait esatearren, gure azken elementu independente atomikoak.

Sistema ekonomikoaren finkatzaileak bi taldetan —adierazitako faktoreen eta aldagai independenteen taldeetan— bereiztea, jakina, ikuspuntu absolututik, guztiz arbitrarioa da. Bereizketak esperientzian oinarritu behar du guztiz, horrela, batetik, gure *quaesitumean* eragin txikia eta, konparatzen hasita, hutsala besterik ez izateko nahikoa motelak edo garrantzi txikikoak diruditen aldaketak dituzten faktoreetara egoki dadin; eta, bestetik, beren aldaketek gure *quaesitumean*, praktikan, eragin nagusia burutzen duten faktoreetara egoki dadin. Gure helburua sistema ekonomiko jakin batean, edozein unetan, nazio-sarrera zerk finkatzen duen aurkitzea da, edo (ia gauza bera dena), horri dagokion enplegu-bolumena aurkitzea; ekonomia bezain azterketa konplexuan, non orokortasun guztiz zehatzak egiterik espero ezin dugun, aurreko horrek gure *quaesituma* nagusiki finkatzen duten aldaketen faktoreak adierazten ditu. Gure azken egitekoa benetan bizi gareneko sistema-motan agintaritza zentralak nahita kontrola edo zuzen ditzakeen aldagaiak hautatzea izan liteke.

II

Faktoreak aurkezpena egiteko erabili genuen alderantzizko ordenean hartuz, saia gaitezen aurreko kapituluetan azaldutako argudioen laburpena egiten.

Inbertsio berrien tasa kapital-ondasunaren mota bakoitzaren eskaintza-prezioa (bere errendimendu probablearekin batera) gutxi gorabehera kapitalaren eraginkortasun marjinala eta interes-tasa oro har berdinak egingo dituen zifraraino bultzatzeko pizgarria egongo da. Hau da, kapital-ondasunen industrietako eskaintzaren baldintza fisikoek, errendimendu probableari buruzko konfiantza-egoerak, likideziarekiko jarrera psikologikoak eta diru-kantitateak (ahal dela alokairu-unitateetan kalkulatuak), oro har, inbertsio-tasa berria finkatzen dute.

Baina inbertsio-tasaren gehikuntzarekin (edo murrizketarekin) batera kontsumo-tasaren gehikuntza (edo murrizketa) gertatuko da; izan ere, jendeak normalean bere sarreraren eta kontsumoaren arteko tarte,

sarrera igotzen (edo jaisten) ari bada baino ez duzabaldtu (edo estutu) nahiko. Honek kontsumo-tasan emandako aldaketak, orokorrean, sarre-ra-tasaren *norabide berean* (zenbatekoa txikiagoak izan arren) izango direla esan nahi du. Aurrezkietan izandako igoera baten ondorioz, nahi-taez, izaten den kontsumo-igoeraren proportzioa, kontsumitzeko joera marjinalak finkatzen du. Horrela finkatutako inbertsio-igoera eta honi dagokion sarrera osorainoko proportzioa, biak ere alokairu-unitateetan neurtuta, inbertsio-biderkatzaileak finkatzen du.

Azkenik, (lehen hurbilketa gisa) enplegu-biderkatzailea eta inbertsio-biderkatzailea berdinak direla suposatzen badugu, lehen aipatutako faktoreek inbertsio-tasan eragindako igoerari (edo jaitsierari) biderkatzailea aplikatuz gero, enpleguaren hazkuntza kalkula dezakegu.

Enpleguaren igoerak (edo jaitsierak), hala ere, likideziagatik lehentasunaren kurba igoaraz (edo jaitsiaraz) dezake. Diru-eskaria hiru modutan igotzeko joera izango du, outputaren balioa igo egiten baita enplegua hazten denean, baita alokairu-unitateak eta prezioak (alokairu-unitateetan) aldatzeke mantendu arren ere; baina, horrez gain, alokairu-unitateak berak ere igotzeko joera izango du enpleguak hobera egin ahala, eta outputaren gehikuntzarekin batera prezio-igoera (alokairu-unitateetan) izango da, epe laburretan izandako kostuaren igoeraren ondorioz.

Horrela, oreka-egoera eragin hauen menpe egongo da; eta haez gain, badaude beste eragin batzuk ere. Are gehiago, aurreko elementuetan ez dago bat ere bat-batean eta, batzuetan, asko aldatzeko aukerarik ez duenik. Honetan datza gertakarien benetako ildoaren konplexutasuna. Dena den, badirudi hauek direla isolatzea merezi eta komeni diren faktoreak. Aurreko eredu eskematikotik abiatuz, edozein arazo erreal aztertuz gero, erabilgarriagoa irudituko zaigu; eta gure intuizio praktikoa (printzipio orokorren arabera har daitekeena, baina ekintza-konplexu xehetuagoa kontuan har dezakeena) lanean jarduteko material erabilgarriagoa izango du.

III

Aurrekoa teoria orokorraren laburpena da. Baina sistema ekonomikoaren fenomeno errealei ere zertxobait eragiten diete kontsumitzeko

joeraren, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbaren eta interes-tasaren ezaugarri berezi batzuek, eta hauei dagokienez erraz asko orokor dezakegu esperientzian oinarrituz, baina, era berean, ez dira lojiko-ki beharrezkoak.

Zehazkiago esan, bizi garen sistema ekonomikoaren ezaugarri adierazgarria da, sistema hau outputaren eta enpleguaren gora-behera bortitzen eraginpean egon arren, bere ezegonkortasuna bortitza ez izatea. Egia esan, badirudi gai dela denboraldi nahikoa handian normalaz azpiko jardueren baldintza kronikoetan, indarberritzeko edo erabateko galbidean sartzeko joera nabarmenik gabe, irauteko. Are gehiago, argi eta garbi ikus daiteke enplegu betea edo ia betea bakana eta iraupen laburreko gertakaria izango dela. Gorabeherak bat-batean has daitezke, baina muturreko egoeretara iritsi aurretik bertan behera geratzen dira, eta gure egoera normala erdibideko egoera da, non egoera ez etsigarria eta ez asegaria den. Gorabeherak muturretara iritsi aurretik bertan behera geratzeko eta noizean behin inbertitzeko ekintzetan oinarritu da fase erregularreko *ziklo* ekonomikoen teoria. Gauza bera gertatzen da prezioekin, hasierako nahasmen-kausari erantzunez, une batez nahikoa egonkor irauteko maila aurkitzeko gai direla baitirudi.

Nolanahi ere, esperientziak emaniko ekintza hauek premia logikotik ondorioztatzen ez direnez, mundu berriaren baldintzek eta joera psikologikoen ondorio hauek sortzeko ildotik joan behar dutela pentsa dezakegu. Beraz, baliagarria izan daiteke *a priori* zein joera psikologiko hipotetikok sistema egonkorrera eramango gintuzketen aztertzea; eta ondoren, ea hauek, gaur egungo giza izaeraz dugun ezagutza orokorren arabera, bizi garen munduari zuhurtziaz lepora diezaiokegun.

Aurreko azterketaren arabera, hona hemen eskuratutako ondorioak azaltzeko gai diren egonkortasun-baldintzak:

1) Kontsumitzeko joera marjinalaren izaera dela eta, komunitate jakin baten outputa bere kapital-ekipamendua ekoizteko enplegu gehiago (edo gutxiago) aplikatzearen ondorioz igo (edo jaitsi) egiten denean, bi kantitate hauek erlazionatzen dituen biderkatzailea unitatea baino handiagoa da, baina ez da oso handia.

2) Kapitalaren errendimendu probablean edo interes-tasan aldatetaren bat dagoenean, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbak izango duen forma dela eta, inbertsio berrietan izandako aldaketa eta

errendimendu probablean izandakoa ez dira oso proportzioz kanpokoak izango; hau da, kapitalaren errendimendu probablean edo interes-tasan izandako aldaketa txikiek ez dituzte inbertsio-tasan oso aldaketa handiak eragingo.

3) Enpleguan aldaketarik dagoenean, alokairu nominalak norabide berean aldatzeko joera izan ohi dute, baina enpleguaren aldaketarekiko oso proportzioz kanpo izan gabe; hau da, enpleguan izandako aldaketa txikiak ez daude alokairu nominaletan izandako oso aldaketa handiekin lotuta. Hau, enpleguaren egonkortasunerako baino gehiago prezioen egonkortasunerako baldintza da.

4) Laugarren baldintza gehi genezake, eta honek, sistemaren egonkortasunarekin baino zerikusi handiagoa dauka norabide jakin bat daraman eta bere garaian aurkako norantza hartuko duen gorabeheraren joerarekin; hau da, lehen zegoena baino inbertsio-tasa handiagoa (edo txikiagoa) kapitalaren eraginkortasun marjinallean aurka (edo alde) erre-akzionatzen hasiko da, baldin eta, urteetan neurtuta, oso handia ez den denboraldian luzatzen bada.

1) Egonkortasunerako gure lehen baldintza (hots, biderkatzailea unitatea baino handiagoa izan arren, askoz handiagoa ere ez izatea), giza izaeraren ezaugarri psikologiko gisa oso sinestekoa da. Benetako sarre-
rak gora egin ahala, egungo premien presioak behera eta ezarritako bizi-
mailaren gaineko tarteak gora egiten dute; eta benetako sarrerak behera
egiten duenean alderantziz gertatzen da. Beraz, normala da —komuni-
tatearen batezbestekoarentzat, behinik behin— enplegua hazten denean
kontsumo arrunta handiagotu behar izatea, baina sarrera errearen igo-
era baino proportzio txikiagoan. Eta kontsumo arrunta txikiagotu behar
izatea enplegua jaisten denean, baina sarrera errearen jaitsiera absolu-
tua baino maila txikiagoan. Are gehiago, norbanako gehienentzat egia
den hau, seguraski hala izango da gobernuei dagokienez ere, batez ere
langabeziaren igoera progresiboaren ondorioz, estatua maileguaz hartu-
tako fondoek bidezko laguntzak ematera behartuta egongo den garaian.

Baina lege psikologiko hau irakurleari *a priori* zentzuzkoa dela
ala ez dela iruditzen arren, egia da legea baliagarria ez balitz esperientzia
oraingoaren guztiz bestelakoa izango litzatekeela. Izan ere, bestela,
inbertsioaren igoerak, oso txikia izanik ere, eskari efektiboaren hazkun-
dea eragingo luke, harik eta enplegu betearen egoerara iritsi arte; eta
inbertsioaren jaitsierak eskari efektiboaren jaitsiera metatua eragingo

luke, inork enplegurik ez izan arte. Dena den, esperientziak erakusten digunez, normalean, erdibidean aurkitu ohi gara. Ez da ezinezkoa berez desegonkortasuna nagusi izango den eremua egotea; baina hala gertatuz gero, seguraski muga estuak izango ditu eta horietatik kanpo, edozein norabidetan, gure lege psikologikoak baliagarria izan behar du, inolako zalantzarik gabe. Are gehiago, argi dago biderkatzailea unitatea baino handiagoa izan arren, ez dela, egoera normaletan, izugarri handia izango ere; zeren eta izango balitz, inbertsio-tasan izandako aldaketak kontsumo-tasan izugarrizko aldaketa (enplegu beteak edo deusezak soilik mugaturikoa) eragingo bailuke.

2) Gure lehen baldintzak inbertsio-tasan izandako aldaketa txikiak kontsumogaiei eskarian ez duela mugagabeko aldaketa handirik ekarriko esaten digularik, gure bigarren baldintzak honakoa dio: kapital-ondasunen errendimendu probablean edo interes-tasan izandako aldaketa txikiak ez duela inbertsio-tasan mugagabeko aldaketa handirik eragingo. Hau da egungo ekipamenduaren bidez lortutako output-kostua handiagotuta bere bolumena izugarri igotzen denean gertatu ohi dena. Egia esan, kapital-ondasunak ekoizteko baliabideen soberakin handiak dauden egoeratik abiatuz gero, muga batzuen barruan nahikoa desegonkortasuna egon daiteke; baina hori bertan behera geratuko da soberakinak ugari erabiltzen hasten direnean. Are gehiago, baldintza honek muga jarriko dio negozioen psikologian edo garrantzi handiko asmakizunetan izandako gorabehera bortitzen ondorioz, kapital-ondasunen errendimendu probablean izandako aldaketa azkarrek eragindako desegonkortasunari —dena den, muga hori, zalantzarik gabe, eraginkorragoa da gorantzako zentzuan, beherantzakoan baino—.

3) Hirugarren baldintza giza izaeraz ezagutzen dugunarekin bat dator. Izan ere, alokairu nominalengatiko borroka, adierazi dugunez, batez ere alokairu *erlatiboa* goian mantentzeko borroka den arren, seguraski, enpleguak gora egin ahala, banakako kasu bakoitzean sendotu egingo da, bai kontratatzeko langilearen egoerak hobera egin duelako eta bai bere alokairuaren baliagarritasun marjinal murriztak eta bere tarte finantzarioaren hobekuntzak arrisku handiagoetan ibiltzera bultzatzen duelako. Nolanahi ere, zio hauek muga batzuen barruan eragingo dute, eta langileek ez dute askoz ere alokairu nominal handiagoa bilatu-ko enpleguak hobera egiten duenean, eta ez dute langabezia baino murrizketa handia nahiago izango ere.

Baina, hemen ere, ondorio hau *a priori* zentzuzkoa izan ala ez, esperientziak errealitatean mota honetako lege psikologikoak egon behar duela erakusten digu. Izan ere, langile langabeen arteko lehiak beti alokairu nominalaren murrizketa handia eragingo balu, prezio-mailan egonkortasun falta bortitza egongo litzateke. Gainera, ez litzateke oreka egonkorren egoerarik egongo, enplegu betearen baldintzekin bat etorritako baldintzetan izan ezik, zeren eta alokairu-unitateak, agian, mugarik gabe jaitsi beharko bailuke harik eta maila batera iritsi arte, non interes-tasaren gain alokairu-unitateetan neurtutako diru-ugaritasuna enplegu betearen maila osatzeko nahikoa izango litzatekeen. Beste inongo mailan ezingo litzateke egonkortasunik egon.¹²⁴

4) Gure laugarren baldintza, egonkortasunarena baino gehiago beheraldi eta goraldien txandakatzeari dagokiona, kapital-ondasunek iraupen desberdinetakoak izatean, denboraren poderioz narriatzean eta denak oso bizialdi luzekoak ez izatean baino ez da oinarritzen; beraz, inbertsio-tasa gutxieneko maila jakin baten azpira jaisten bada, denbora-kontua besterik ez da (beste faktore batzuen gorabehera handirik ezean) kapitalaren eraginkortasun marjinala gutxieneko honen gainean inbertsioen goraldia eragiteko nahikoa igo dadin. Eta honen antzera, jakina, inbertsioak hasierakoa baino zifra altuagora igotzen badira, denbora-kontua besterik ez da kapitalaren eraginkortasun marjinala beheraldia eragiteko nahikoa jaistea, beste faktore batzuetan aldaketa konpentsatzaileak izan ezean.

Horregatik, gure beste egonkortasun-baldintzek finkatutako mugen barruan gerta daitezkeen goraldi- eta beheraldi-maila horiek ere aurkako norabidean atzerako mugimendua eragin dezakete, harik eta lehengo indar berek norabidea alderantzute arte, baldin eta fenomeno horiek nahikoa denbora irauten badute eta beste faktore batzuen gorabeherak eragiten ez badiete.

Horrela, gure lau baldintzak elkarrekin aski dira esperientzia errearen ezaugarri nabarmenenak azaltzeko —hau da, enpleguaren eta prezioen gora-beheren mutur larrienak bi norabideetan saihestuz, erdibideko egoeraren inguruan gabiltza, enplegu betearen baino zertxobait azpitik eta gutxienekoaren gainetik, zeren eta gutxienekoaren azpira jaisteak bizia arriskuan jarriko bailuke—.

Baina bukatu aurretik, esan beharra daukagu premiaren legeak direla joera «naturalek» finkatutako erdibideko egoera finkatzen dute-

nak, hau da, seguraski iraun egingo duten horiek, horiek zuzentzeraz
espreski xedatutako neurriak ezean. Errealitatea zer izan den eta zertan
den behatzeak baldintza hauek bete egiten direla erakusten digu, baina,
era berean, ezinbesteko printzipio aldagaitza ez direla ere bai.

V. LIBURUA
ALOKAIRU NOMINALAK
ETA PREZIOAK

XIX. KAPITULUA

Alokairu nominaletako aldaketak

I

Abantaila handiz jokatuko genukeen aurreko kapituluan alokairu nominaletan izandako aldaketen ondorioak aztertu ahal izan bagenu. Izan ere, teoria klasikoak, ohituraz, sistema ekonomikoaren automatikoki doitzeko izaera alokairu nominalen ustezko malgutasunari atxiki izan dio; eta zurruntasuna egon izan denean, zurruntasun horri leporatu izan dio doikuntzarik eza.

Dena den, ezin izan da gai hau gure teoria azaldu artean goitik behera eztabaidatu, zeren eta alokairu nominaletan izandako aldaketen ondorioak korapilatsuak baitira. Egoera jakin batzuetan, alokairu nominalen murrizketa nahikoa izan daiteke outputa, teoria klasikoak suposatzen duen moduan, suspertzeko. Teoria honetatik, nagusiki, analisi-ezberdintasunak bereizten nau; beraz, ezin argi eta garbi azaldu, irakurlea nire metodoarekin ohituta egon bitartean.

Normalean onartutako azalpena, nire ustez, oso sinplea da. Ez da gero aztertuko ditugun zeharkako eraginen menpekoea. Argudioa, hain zuzen, amaitutako produktuen prezioa jaitsiz, alokairu nominalen murrizketak, *ceteris paribus*, eskaria suspertzean oinarritzen da, eta beraz, outputa eta enplegua igoaraztean, langileek beren alokairu nominaletan onartzea erabaki duten murrizketa, hain zuzen, lanaren eraginkortasun marjinalaren jaitsierarekin konpentsatu arte outputak (ekipamendu jakin batekoak) gora egin ahala.

Alderik zorrotzenetik hartuta, honen parekoa litzateke alokairu nominaletan izandako murrizketak eskariari ez liokeela eragingo esatea. Agian ekonomialari batzuek eskariak eraginik jasateko ez dagoela arrazoirik esango dute, horretarako eskari osoa diru-kantitatea eta diruaren sarrera-abiadura biderkatuz lortutako emaitzaren arabera dela argudiatuz, eta alokairu nominalen kontratazioak diru-kantitatea edo diruaren sarrera-abiadura murrizteko taxuzko arrazoirik ez dagoela. Are gehiago, alokairuak jaitsi izanaren ondorioz irabaziak halabeharrez igoko direla esatera ere iritsi daitezke. Baina normalagoa da alokairu nominalen murrizketak eskari osoan, zenbait langileren erosahalmenean eragiten duen beherakuntzaren bidez *nolabaiteko* ondorioa izan dezakeela uste izatea; baina diru-sarreraren murrizketarik izan ez duten beste faktore batzuen benetako eskaria suspertu egingo da prezioen beheraldiaren ondorioz, eta langileen eskari osoa igo egingo da, seguru, enplegu-bolumen handiagoaren ondorioz, salbuespen batekin, hau da, alokairu nominaletan izandako aldaketen erantzun gisa, lan-eskaintzaren malgutasuna unitatea baino txikiagoa izatea. Horrela, oreka berrian beste egoera batzuetan egongo zena baino enplegu gehiago egongo da, praktikan gertatzen ez diren muturreko egoera batzuetan izan ezik.

Analisi-mota honen aurka nago funtsean; edota, aurrekoen tankeko oharren muinean dagoela dirudien analisiaren aurka, zeren eta, nire ustez behintzat, esandakoak ekonomialari askoren hitz egin eta idazteko modua nahikoa ondo irudikatzen badu ere, sakoneko arrazoiak xeheki gutxitan garatu izan baita.

Dena den, badirudi pentsamolde honetara ondoren adierazitako moduan iritsi daitekeela: edozein industriatan salgai dauden kantitateak eta eskatutako prezioak erlazionatzen dituen produktuen eskari-kurba dugu; era berean, kantitate ezberdinen salmentagatik eskatuko diren prezioak elkarrekin lotzen dituzten hainbat eskaintza-kurba ditugu, kostu-oinarri ezberdinen arabera; eta kurba hauek, oro har, beste kurba batera eramango gaituzte, eta honek, gainerako kostuak ez direla aldatzen suposatuz (outputaren aldaketaren ondorio gisa izan ezik) industriaren eskulanaren eskari-kurba ematen digu; hain zuzen, enplegu-kantitatea alokairu-maila ezberdinekin lotzen duena; eta kurba honen maldak, edozein puntutan,

eskulanaren eskari-malgutasuna adieraziko digu. Beraz, kontzeptu hau industria osora, oro har, zabaldu da, oinarritzko ezer aldatu gabe; eta antzeko arrazoiketaren bidez, industrian, oro har, eskulanerako eskari-kurba dugula suposa dezakegu, zeinak enplegu-bolumena alokairu-maila ezberdinekin lotzen duen. Argudio hau ez da funtsean aldatzen alokairu nominal edo alokairu errealetan eginez gero. Alokairu nominaletan pentsatuz gero, jakina, diruaren balioak jasaten dituen aldaketan arabera zuzenketak egin beharko ditugu; baina honek ez dio argudioaren norabide orokorrari eragiten, argi baitago prezioak ez direla alokairu nominalen aldaketekiko proportzio zehatzean aldatzen.

Arrazoiketaren oinarria hau bada (eta ez bada, ez dakit zein izan daitekeen), iruzurra da, seguraski. Izan ere, industria jakinetarako eskari-kurbak beste industria batzuen eskaintza- eta eskari-kurben izaeren eta eskari efektibo osoaren zenbatekoaren arabera suposamendu finkoetatik abiatuta baino ezin marraz daitezke. Beraz, argudioa ezin zaio industriari, oro har, aplikatu, eskari efektibo osoa finkoa delako suposamendua aplikatu ezean, behinik behin. Baina hipotesi honek argudioa *ignoratio dñc* hira murrizten du. Izan ere, diru-alokairuen jaitsiera, *lehenagoko eskari ef* *ektibo oso berdinaz lagunduta*, enpleguaren igoerarekin batera gertatuko dela inork ukatu nahi izango ez badu ere, eztabaidan dagoen gai zehatza honakoa da: ea alokairu nominalen jaitsiera dirutan neurtutako lehenagoko eskari efektibo osoarekin batera joango den edo ez; edota, gutxienez, alokairu nominalen proportzio berean murriztuko ez den eskari efektibo osoarekin (hau da, alokairu nominaletan neurtuta baino zertxobait handiagoarekin) batera joango diren. Baina teoria klasikoari bere ondorioak, analogiaz, industria bakanetik industria osora hedatzen uzten ez bazaio, guztiz gaitasunik gabea da ondorengo galderari erantzuteko: alegia, ea zein ondorio eragingo dituen enpleguan diru-alokairuen jaitsierak; analisi-metodirik ez baitu arazoari heltzeko. Nire iritziz, Pigou irakaslearen *Theory of Unemployment*-ek teoria klasikotik atera daitekeen guztia ateratzen du; eta horren ondorioz, liburua teoria honek esateko, benetako enplegu-bolumena, oro har, zeren menpe dagoen jakiteko arazoari aplikatzen zaionean ezer ez duela erakusteko froga ezin hobe da.¹²⁵

II

Hortaz, geure analisi-metodoa aplika dezagun arazoari irtenbidea emango badiogu. Bi zati ditugu: a) alokairu nominalen murrizketak zuzenean eragiten al du, *ceteris paribus*, enpleguaren igoeran - *ceteris paribus* gisa oro har kontsumitzeko joera, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba eta interes-tasa komunitatearentzat lehengo berak direla, ulertuta? eta 2) alokairu nominalen murrizketak enpleguari eragiteko joera berezia izaten al du, hiru faktore horietan dituen benetako eraginen edo eragin probableen bidez?

Aurreko kapituluetan jada, lehenengo galderari ezetz erantzun diogu, frogatu egin baitugu enplegu-bolumena eskari efektiboaren bolumenarekin, alokairu-unitateetan neurtuta modu bakarrean erlazionatuta dagoela, eta eskari efektibo hau kontsumo probablearen eta espero den inbertsioaren arteko batura izanik, ezin alda daitekeela baldin eta kontsumitzeko joera, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba eta interes-tasa guztiak aldatzeke badiraute. Hauetako edozein faktoreren aldaketarik ezean, enpresarioek enplegua, oro har, handiagotuko balute, beren sarrerak nahitaez eskaintza-preziotik behera egongo lirateke.

Alokairu nominalen jaitsierak «ekoizpenaren kostua murrizten duelako» enplegua igo egingo duela dioen ondorio zentzugabea baztertzeko, agian lagungarria izan daiteke gertakizunen bideari ikuspuntu honek aldekoen duen hipotesiaren arabera jarraitzea, hau da, hasieran enpresarioek alokairu nominalek eragin hau izatea *espero* duteneko. Berez, gerta daiteke enpresario batek, bere kostuak murriztu egiten direla ikusita, hasieran bere produktuaren eskariari buruzko eraginak bazter uztea eta, irabaziak lortuz, lehen baino output handiagoa saltzeko gai delako ustetan jokatzea. Orduan, enpresarioek oro har aurreikuspen honen arabera jokatzen badute, benetan lortuko al dute beren irabaziak handiagotzea? Komunitatearen kontsumitzeko joera marjinala unitatea bera denean besterik ez dute lortuko eta, beraz, sarrera-igoera eta kontsumo-igoeraren artean zulorik ez badago, edota sarrera- eta kontsumo-igoera hauen artean dagoen zulo horri dagokion inbertsio-igoera badago, baina hori kapitalaren eraginkortasun marjinalen kurba interes-tasarekiko igo denean besterik ez da gertatuko. Horrela, outputaren igoeratik lortutako produktuek enpresarioak

etsiarazi egingo dituzte eta enplegua berriz ere lehengo mailara jaitsiko da, kontsumitzeko joera marjinala unitatearen parekoa ez bada, edo alokairu nomiinalen murrizketak kapitalaren eraginkortasun marjinalen eskala interes-tasarekiko igotzeko ondorioa izan eta, ondorioz, inbertsioaren zenbatekoa igotzen ez bada. Izan ere, enpresarioek enplegua eskaintzen badute maila batean, non, beren outputa espero izandako prezioan salduz gero, jendea sarrera batzuez hornitu eta inbertsio arruntarekin baino gehiago aurrezten badu, diferentziaren pareko galera izateko ariskua dute; eta hori da gertatuko dena, alokairu nominalen mailatik guztiz at. Kasurik hoberenean, etsitzeko unea, eragiteko kapitalaren gorantzako inbertsioek zuloa betetzen duten bitarteko iraupenaz baino ez daiteke atzera.

Horregatik, alokairu nominalen jaitsierak ez du enplegua denbora luzez igotzeko joera izango, bere ondorioen bitartez izan ezean, hau da, komunitate osoaren kontsumitzeko joeran, kapitalaren eraginkortasun marjinalen kurban edo interes-tasan eraginez ez bada. Alokairu nominalen murrizketaren ondorioa aztertzeko, hiru elementu hauen gain izan ditzakeen ondorioak aztertzeaz kanpo ez dago beste modurik.

Praktikan, hiru faktore hautako eraginak ondokoak izan daitezke:

1) Alokairu nominalen jaitsierak prezioak zertxobait murriztu-ko ditu. Ondorioz, sarrera errealak nolabait birbanatu egingo dira a) alokairuak jasotzen dituztenengandik lehenkostu marjinallean sartzen diren beste faktore batzuetara, hauen zenbatekoek murrizketarik izan ez badute, eta b) enpresarioengandik errentadunengana, zeintzuei diru-terminoetan sarrera finkoa bermatu zitzaien.

Zein ondorio izango du birbanaketa honek komunitate osoaren kontsumitzeko joeran? Alokairuak jasotzen dituztenengandik beste faktore batzuetaranzko sarrera-transferentziak joera murriztera joko du, seguraski. Enpresarioengandik errentadunenganako transferentziaren emaitza ez da horren argia, baina errentadunak, talde gisa, komunitateko talde aberatsenaren ordezkari badira ere (eta, bidenabar, malgutasun txikieneko bizi-maila duen taldearenak), ondorioa ez da aldekoa izango. Azken emaitza kontsiderazio hauen guztien ondorioa izango denez, usteak besterik ezin ditzakegu aipa. Eta, seguraski, aldekoa baino gehiago kontrakoa izango da.

2) Sistema itxia ez denari buruz ari bagara, eta alokairu nominalen jaitsiera *kanpoko alokairu nominalekiko murrizketa bada*, biak unitate komun batera bihurtzen direnean, argi dago aldaketa inbertsioaren aldekoa izango dela, merkataritza-balantzaren saldoa igotze-
ra joko baitu. Jakina, horretarako abantaila hori ezingo da aduanako zerga, kuota eta abarrekin orekaturik egon. Ingalaterran, enplegua handiagotzeko bide eraginkor gisa alokairu nominalak murriztearen usteak Estatu Batuetako ustearekin alderatuz indarra izan badu, seguraski arrazoiak Estatu Batuak ingelesaren ondoan sistema itxia izateari leporatu behar zaio.

3) Sistema itxia ez deneko kasuan, seguraski alokairu nominalen murrizketak elkartrukarean harremana okertu egingo du, nahiz eta aldeko merkataritza-balantza igo. Beraz, benetako sarreraren murrizketa egongo da, berriki enpleguak izan direnei dagokienez izan ezik, eta honek kontsumitzeko joeraren igoeran eragin dezake.

4) Alokairu nominalen jaitsiera *etorkizuneko alokairu nominallekiko murrizketa izatea* espero bada, inbertsioarentzat aldaketa aldekoa izango da, arestian ikusi dugun moduan kapitalaren eraginkortasun marjinala handiagotu egingo baita; arrazoi bera dela medio ordea, kontsumoarentzat aldekoa izan daiteke. Bestetik, murrizketak etorkizuneko alokairuen murrizketa handiagoaren edo aukerara eramaten bagaitu ordea, kontrako ondorioa izango du guztiz, zeren eta kapitalaren eraginkortasun marjinala jaitsi egingo baitu eta inbertsio eta kontsumoa atzeratu egingo baititu.

5) Alokairu-nominan izandako murrizketak, prezioen eta diru-sarreraren nolabaiteko jaitsiera orokorraz lagunduta, kontsumo eta negozioetarako eskudiruaren beharra eragingo du eta komunitate osoaren likideziagatiko lehentasunaren kurba eten egingo du, *protanto*. *Ceteris paribus*, honek interes-tasa murriztu eta inbertsioa bultzatu egingo du. Kasu honetan, alabaina, etorkizunari buruzko aurreikuspenen ondorioak 4) atalean kontuan hartu berri dugunaren kontrako joera izango du; izan ere, alokairuak eta prezioak ondoren berriz igotzea espero bada, aldeko erreakzioa askoz ere txikiagoa izango da epe luzeko maileguetan epe labur-
rrekoetan baino. Are gehiago, alokairuen jaitsierak herriarengan nahigabea sortzeagatik konfidantza politikoa asaldatzen badu, arrazoi honen ondoriozko likideziarekiko lehentasunaren igoerak zirkulazio aktiboaren eskudiruaren liberazioa neutralizatu baino gehiago egin dezake.

6) Alokairu nominalen murrizketa berezi bat enpresario edo industria bakarrarentzat beti abantailatsua denez geroztik, jaitsiera orokorrak ere (honen ondorio errealak ezberdinak izan arren) positiboki eragin diezaieke enpresarioen iritziei, eta honek, era berean, kapitalaren eraginkortasun marjinalari buruzko balioespen ezkorren inguruan bidegabeki sortutako sorgin-gurpilaren eragozpenei amaiera eman diezaioke eta gauzak aurreikuspenen oinarri normalagoez funtziona dezaten konpon ditzake. Bestalde, langileek murriztapen orokorraren ondorioei dagokienean beren nagusien akats bera egingo baitute, langileen eragozpenek aldeko bultzada hori oreka dezakete, eta hortik kanpo, industria guztietan alokairu nominalen beherakuntza berdin eta bateratsua lortzeko bestelako biderik egoten ez denez, langile guztiei komeni zaie, beren alokairuei dagokienez, murrizketari uko egitea. Berez, alokairu nominalen kontratuak berrikusi eta hauek murrizteko nagusiek mugimendurik egingo balute, askoz ere erresistentzia handiagoa izango luke horrek, prezioen igoeraren ondorioz alokairu errealek izandako beherapen mailakatu eta automatikoak baino.

7) Bestalde, enpresarioengan zorren gehitzeak sorrazten duen zapuzteko eraginak alokairuen jaitsierak eragindako edozein erreakzio baikor neurri batean neutraliza dezake. Egia esan, hauen eta prezioen jaitsiera handia bada, zor handiak dituzten enpresarioen zailtasunak berehala kaudimengabeziaren mugaraino iritsi daitezke, inbertsioan kontrako ondorio larriak sorraziz. Are gehiago, prezio-maila baxuagoaren ondorioak nazio-zorren benetako kargan, eta beraz, zorretan, aukera guztiak dituzte negozioekiko konfiantzaren guztiz aurkakoak izateko.

Hauek ez dira alokairuen jaitsierek mundu erreale korapilotsuan izan ditzaketen erreakzio posible guztiak; baina, nire iritziz, hemen aipatutakoak garrantzitsuenak izan ohi dira.

Beraz, gure arrazoiketa sistema itxira mugatzen badugu eta benetako sarreraren birbanaketatik komunitatearen gastatzeko joeran ezin espero daitekeela ezer, edo ezer onik behinik behin, suposatzen badugu, honakoa ondoriozta dezakegu: alokairu nominalen jaitsierak enpleguan aldeko emaitzak lortzeko edozein esperantza, batez ere inbertsioaren hobekuntzan jarri behar dugula, nahiz kapitalaren eraginkortasun marjinalaren igoerak eragindakoa izan (4) atalari jarrai-

ki), nahiz interes-tasa txikiagoak eragindakoa izan (5) atalarekin bat). Azter ditzagun bi aukera hauek xehekiago:

Kapitalaren eraginkortasun marjinalarentzako aukera hobere-na, alokairu nominalak beren muga baxueneraino heldu direla espero denekoa da (beraz, ondorengo aldaketek gorantzakoak izan behar dutela espero da). Aukera okerre-na, orde-a, alokairu nominalak pixka-naka jaisten joan eta murrizketa bakoitzak alokairuak maila horretan mantenduko denaren konfiantza bertan behera uzten duenean izango da. Eskari efektiboaren ahultze-epean sartzen garenean, alokairu horiek bat-batean jaitsiera nabarmena —inork mugagabe horrela jarraituko dutenik uste ez izateko adinakoa— jasatea izango litzateke eskari efektiboa sendotzeko gertakari hoberena; baina hori adminis-trazio-dekretu bidez baino ezingo litzateke lortu, eta ez da oso politi-ka praktikoa lanaren kontratazio askeko sisteman. Bestalde, hobe litzateke alokairuak zurrun finkatzea eta horietan garrantzizko alda-ketarik gertatzea ezinezkotzat jotzea, beheraldi horiek alokairu nomi-nalen beherantzako joera mailakatuarekin batera joatea baino (alokai-ruen jaitsiera apal bakoitzak langabezi-bolumenean, demagun, ehune-ko bat igoko duenaren esperantzan). Esate baterako, alokairuak hurrengo urtean ehuneko bi jaitsiko direla aurreikusteak izan dezake-en ondorioa, epe berean ordaindu beharreko interes-tasa ehuneko bi igotzearen baliokidea izango da, gutxi gorabehera. Ohar bera aplikatu ohi da, *mutatis mutandis*, goraldiaren kasuan.

Hemendik ondokoa ondoriozta daiteke: gaur egun dauden praktika eta erakundeekin komenigarriagoa dela alokairu nominal zurrunen politikari jarraitzea, langabezi-bolumenaren aldaketei urrats txikiekin erantzungo dien beste politika malgu bati baino —jakina, kapitalaren eraginkortasun marjinalari dagokionez—. Baina ondorio hau interes-tasari dagokionez aldatu egiten ote da?

Beraz, prezio eta alokairuen beherakadak diru-eskarian sorra-razten duen eraginean oinarrituko dute beren argudioa sistema ekono-mikoak automatikoki doitzeko ezaugarria duela uste dutenek; dena den, nik dakidanez ez dute horrelakorik egin. Diru-kopurua, berez, alokairu- eta prezio-mailaren araberakoa bada, benetan ez dago ezer itxariterik. Baina diru-kopurua birtualki finkoa bada, argi dago, alo-kairu-unitateetan neurtuta, mugagabe handiago daitekeela alokairu nominaletan murrizketa egokia eginez; eta honen zenbatekoa, sarrera

orokorren proportzioan, nahikoa handiago daiteke, eta gehikuntza honen muga alokairuen kostuak lehenkostu marjinalarekiko duen proportzioaren arabera izango da, baita lehenkostu marjinalaren beste elementu batzuek alokairu-unitatearen jaitsierarekiko duten erreakzioaren arabera ere.

Beraz, teorian gutxienez, interes-tasan ondorio berberak eragin ditzakegu alokairuak murriztu eta diru-kopurua aldatzeke utziz, eta diru-kopurua gehitu eta alokairu-maila aldatzeke utziz. Hemendik alokairuen jaitsierak, enplegu betea lortzeko bide gisa, diru-kopurua gehitzeak dituen muga berberak dituela ondoriozta dezakegu. Lehen aipatutako arrazoi berak, hau da, inbertsioa zifra optimora igotzeko bide gisa diru-kopurua gehitzearen eraginkortasuna mugatzen dutenak, *mutatis mutandis* aplikatzen zaizkie alokairuen murriztapenei. Diru-kopuruaren neurrizko igoerak epe luzeko interes-tasan behar ez bezalako eragina izan dezakeen moduan eta neurriz kanpoko igoerak, konfiantzan izandako eragin asaldatzailak direla eta, gainerako abantailak neutraliza ditzakeenez, era berean baliteke alokairu nominalen neurrizko murrizketa nahikoa ez izatea, eta neurriz kanpoko murrizketak konfiantza apur lezake nahiz eta bideragarria izan.

Beraz, ez dago arrazoirik alokairu-politika malgua enplegu beteko egoera jarraian mantentzeko gai denik uste izateko —ezta merkatu irekiko moneta-politikak emaitza honetara laguntzarik gabe irits daitekeenik pentsatzeko ere—. Oinarri hauekin ezin lortuko da sistema ekonomikoak doikuntza automatikoa izaterik.

Enplegua enplegu betearen azpitik legokeen guztietan langileak guztien adostasunez beren moneta-eskariak eskatutako mugaraino murrizteko, muga hori edozein izanik ere jarduteko prest egongo balira (eta jardungo balute), eta horrela alokairu-unitatearekiko dirua askoz ugariagoa izan eta interes-tasak enplegu betearekin bat letorkeen mailaraino jaistera joko balu, berez moneta-zuzendaritza langile-sindikatuaren esku egongo litzateke (beti ere enplegu beteari begira) eta ez banku-sistemaren esku.

Alabaina, alokairu-politika malgua eta diru-politika malgua, analitikoki, gauza bera badira ere (biak bide diru-kopurua aldatzeko alokairu-unitateen terminoetan alternatiboak baitira), beste arlo batzuetan sekulako aldea dute elkarren artean, jakina. Zilegi bekit irakurleari hiru kontsiderazio nagusiak gogoraraztea.

1) Komunitate sozializatuan izan ezik, non alokairu-politika dekretuz finkatzen den, lan-mota bakoitzerako murrizketa uniformeak ziurtatzeko modurik ez dago. Emaiza hau aldaketa mailakatu eta irregularraren bidez baizik ezin daiteke lortu, justizia sozial edo komenigarritasun ekonomikoren irizpideez justifikatu ezinezkoa da eta, seguraski, zorigaiztoko borroka zarrazteltsuen ondorioz bakarrik osatutakoa izango da. Gainera, eta negoziatzeko egoera ahulenean daudenek besteek baino gehiago sufrituko dute. Bestetik, merkatu irekiaren politikaren bidez edo antzeko beste neurri batzuen bitartez diru-kopurua aldatzea gobernari gehienek esku dago. Giza izaera eta gure erakundeak kontuan hartuta, inozoa izan beharko litzateke moneta-politika malgua beharrian, alokairu-politika malgua nahiago izateko, bigarrenak dituen eta lehenarekin lor ez daitezkeen abantailak aipatzen ez baditu behintzat. Are gehiago, baldintza berdinetan, aplikatzeko nahikoa erraza den metodoa hobetsi beharko litzateke, zaila bezain gauzaezina den beste baten ondoan.

2) Alokairu nominalak malguak ez badira, prezioetan izaten diren aldaketak (hau da, «gidatutako» prezioetatik edo monopolioko prezioetatik at, zeintzuk kostu marjinalaren araberakoak izateaz gain, beste arrazoi batzuen menpe dauden) lehenik eta behin ekipamenduen beheranzko produktibitate marjinalaren araberakoak izango dira, ekipamenduen outputa handiagotu ahala. Horrela, lanaren eta ordainketa kontraktualki dirutan finkatzen diren faktoreen artean ahal den berdintasun handiena mantenduko da, bereziki klase errentadunaren eta enpresa iraunkorrean —erakunde batean edo Estatuan— soldata finkoak dituzten pertsonen artean. Gizarte-klase garrantzitsuek ordainketa dirutan finkoa izan dezaten —nolanahi ere—, gizarte-justizia eta gizarte-komenientziari hobeto datorkie faktore *guztien* ordainketa dirutan guztiz malgua ez bada. Dirutan neurtuta konparazioz malguak ez diren sarrera-talde handi guztiak kontuan hartuta, zuzen jokatzeko ez duen pertsonak baino ezin dezake alokairu-politika malgua nahiago izan, moneta-politika malgua baino, lehenak dituen eta bigarrenarekin lor ez daitezkeen abantailak aipatzen ez baditu, behintzat.

3) Diru-kopurua, alokairu-unitateen terminoetan, alokairu-unitatea bera txikitzearen bidez handiagotzeko metodoak, proportzionalki, zorrak handiagotu egiten ditu; aitzitik, diru-kopurua handiagotuz

emaitza berdina lortuz gero (alokairu-unitateak aldatzeke utziz), kontrako ondorioa eragiten du. Zor-mota askoren gehiegizko karga kontuan hartuz gero, eskarmenturik gabeko pertsonak baino ez dezake lehena aukeratu.

4) Interes-tasa jaisteko alokairu-maila murriztu beharra bada-go, lehen adierazitako arrazoiak direla eta, oztopo bikoitza dago kapitalaren eraginkortasun marjinallean, eta arrazoi bikoitza inbertsioak murriztu eta, horrela, normaltasunerako itzulera atzeratzeko.

III

Hemendik honakoa ondorioztatuko dugu: lanak enpleguaren murrizketa mailakatuari jaitsiera erregularrean dagoen alokairu nominalaren truke bere zerbitzuak eskainiz erantzungo balio, oro har, honen ondorioz ez lirateke alokairu errealak murriztuko eta igotzera iritsi liteke, ekoizpen-bolumenean izandako aurkako eraginaren bitartez. Politika honen ondorio nagusia, prezioen ezegonkortasuna sortzea litzateke, eta hau horren bortitza izatera iritsi liteke, ezen gaur egungo ereduari jarraiki funtzionatuko lukeen sozietate ekonomikoan merkataritza-kalkuluak alferrikakoak izatera iritsi bailiteke. Oro har, *laissez faire* motari dagokion sisteman, alokairu-politika malgua laguntzaile zuzen eta egokia dela suposatzea egiaren aurkakoa da guztiz. Oso autoritarioa den gizartean, non dekretu bidez funtsezko eta erabateko aldaketak agin daitezkeen, izan lezake arrakasta alokairu-politika malguak. Esaterako, Italia, Alemania edo Errusian izan daitekeela pentsa dezakegu, baina ez Frantzia, Estatu Batuak edo Britainia Handian.

Australian egin den moduan, benetako alokairuak lege bidez finkatzeko saioa egingo balitz, alokairuen benetako maila horri lego-kikeen nolabaiteko enplegu-maila egongo litzateke; eta sistema itxian egungo mailak gorabehera bortitzak izango lituzke, maila horren eta inolako enplegurik gabeko mailaren artean, hain zuzen, inbertsio-tasa maila horrekin bat letorkeen tasaren behetik egotearen ala ez egotearen arabera; bien bitartean, prezioak oreka ezegonkorrean egongo lirateke inbertsioak maila kritikora heldutakoan, eta, zerorantz abiatuko

litzateke inbertsioa maila kritikoaren azpitik legokeen bakoitzean, eta infiniturantz, maila horren gainetik jarritakoan. Egonkortasunaren elementua nonbaiten egotekotan, agian, diru-kopurua kontrolatzen duten faktoreetan bilatu beharko litzateke, hau da, hauek finkatuta egoteko moduagatik, alokairu nominalen mailaren bat (non diru-kopurua inbertsioa maila kritikoan mantentzeko beharrezkoa litzatekeen) beti egongo balitz, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren eta interes-tasaren arteko erlazioa sortzeko nahikoa litzateke. Egoera horretan enplegua konstantea izango litzateke (legezko alokairu errealentzako maila egokian) eta alokairu nominalak eta prezioak gorabehera azkarra beharrezkoa litzatekeen maila zehatzean izango lukete inbertsio-tasa hori zifra egokian mantentzeko. Australiako egiazko kasuan, hein batean, legeria bere helburua betetzeko gai ez zelako egin zien gaiak eskuetatik ihes, eta eragina izan zuen Australia sistema itxia ez izateak ere. Ondorioz, alokairu nominalen maila, berez, atzerriko inbertsio-mailaren adierazlea zen eta, beraz, inbertsio osoarena, eta elkartrukearen erlazioak eragin handia zen alokairu errealetan.

Kontsiderazio hauen argitan, orain honakoa irizten dut: alokairu nominalen maila orokor iraunkorra mantentzea, oro har, sistema itxiarentzat egokiena dela; era berean, sistema irekiarentzat ere ondorio bera baliagarria izango da, baldin eta munduko gainerakoarekin kanpoko aldatetetan gorabeherak eginez oreka lortzen badu. Industria partikularretan nolabaiteko malgutasuna egoteak baditu abantailak, baldin eta konparazioz beherantzko joera dutenetatik gorantz doazentarako transferentziak errazteko balio badu. Baina, oro har, alokairu nominalen maila ahal den egonkorren mantendu behar da, epe laburretan behintzat.

Politika honek komeni den egonkortasun-maila izango luke prezio-mailan —alokairu malguak lituzkeen beste batek baino egonkortasun handiagoa, behinik behin—. «Gidatutako» edo monopolioko prezioetatik at, prezio-mailak epe laburretan baino ez dira aldatuko, enplegu-bolumenaren aldatetek lehenkostu marjinalai eragitearen erantzun gisa; epe luzetan ordea, ekoizpen-kostuetan izandako aldaketan —teknika ezberdinen edo ekipamendu berri edo gehituaren ondoriozkoen— erreakzio gisa besterik ez da aldatuko.

Egia da, hala ere, enpleguan gorabehera handiak izaten badira, hauekin batera prezio-mailan ere gorabehera garrantzitsuak izango

direla. Baina gorabeherak gutxiago izango dira lehen esandako moduan, alokairu-politika malguarekin baino.

Beraz, alokairuen politika zurrunaren bidez, prezioen egonkortasuna, epe laburretan, enpleguan inolako gorabeherarik ez egotearekin lotuta egongo da. Bestalde, epe luzetan oraindik ere bi aukera ditugu: batetik teknika eta ekipamenduaren aurrerakuntzarekin batera alokairuak egonkor mantentzen diren artean prezioak mantso jaisten uzteko politika, edo bestetik prezioak egonkor mantentzen diren artean alokairuak pixkanaka-pixkanaka igotzen uztea. Oro har, nik bigarren aukera nahiago dut, errazagoa baita benetako enplegu-maila enplegu beteko eskala zehatz baten barruan etorkizunean alokairu handiagoak izateko esperantzan mantentzea, etorkizunean alokairu txikiagoak izateko esperantzarekin baino. Baita zorren karga mailakattuta murrizteko gizarte-abantailen ondorioz ere, edota beherantza dau den industriak gorantza doazenekiko errazago doitzearen ondorioz, edota alokairu errealean gorantzako joera moderatuak seguraski emango duen bultzada psikologikoaren ondorioz. Baina hau ez da oinarriko printzipioa, eta orain dudan helburutik at egongo litzateke bi aldetako argudioak xeheki garatzea.

XIX. kapituluaren eranskina

Pigou irakaslearen

«langabeziaren teoria»

Theory of Unemployment lanean, Pigou irakasleak enplegu-bolumena oinarritzko bi faktoreren menpe jartzen du: 1) langileek ezartzen dituzten alokairu errealeen tasen, eta 2) Lanaren Eskari Errealaren Funtzioaren formaren menpe. Liburuaren erdiko atalak azken funtzioaren forma finkatzen saiatzen dira. Ez du ahazten langileek beren alokairuak ezartzen dituztela, beti ere dirutan eta ez termino errealetan; baina, berez, alokairu nominalen tasa erreala zati langileentzako artikuluen prezioa eginez, eskatutako tasa erreala neur daiteke.

Lanaren Eskari errealearen Funtzioaren «ikerketarako abiapuntu diren» ekuazioak, berak dioen moduan, *Theory of Unemployment* liburuko 90. orrialdean daude. Bere analisiaren aplikazioa gobernatzen duten suposizio tazituak argudioaren hasiera aldean aipatzen direnez, azterketa honen puntu kritikorainoko laburpena egingo dut.

Pigou irakasleak bi motako industria bereizten ditu: «barnean langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituztenak, eta ondasun hauek esportatu eta atzerrian salduz, kanpoan, langileentzako eskubideak sorrarazten dituztenak», eta «beste» industriak. Komeniko litzateke hurrenez hurren langileentzako kontsumo-ondasunen industriak eta langileentzako ez diren kontsumo-ondasunen industriak deitzea. Honek lehen industrietan enplegatutik x langile

egongo lirатеkeela, eta bigarrenetan y langile egongo lirатеkeela esan nahi du. x langilek ekoiztutako kontsumo-ondasunen outputaren balioa $F(x)$ izendatzen du, eta $F'(x)$ alokairu-tasa orokorra. Nahiz eta berak aipat ez, honek alokairuaren kostu marjinala lehenkostu marjinalaren balio berekoa dela esan nahi du.¹²⁶ Are gehiago, $x + y = \quad (x)$ suposatzen du, hau da, langileentzako kontsumo-ondasunen industrietan enplegatutako gizakien kopurua enplegu betearen funtzioa dela ere. Ondoren lanaren benetako eskari osoaren malgutasuna, oro har, (gure *quasitum*-aren forma ematen diguna, hau da, Lanaren Eskari Errealaren kurbarena) modu honetan idatz daitekeela erakusten digu:

$$E_r = \quad '(x) / \quad (x) \cdot F'(x) / F''(x)$$

Oharpen honi dagokionez, ez dago diferentzia nabarmenik honen eta nire adierazpen-modu propioaren artean. Pigou irakaslearen langileentzako kontsumo-ondasunak nire kontsumo-ondasunekin, eta bere «beste ondasunak» nire inbertsio-ondasunekin, pareka ditzakegun neurrian, eta bere $F'(x) / F''(x)$ langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrien outputaren balioa eta nire C_w baliokideak dira. Are gehiago, bere \quad funtzioa (langileentzako kontsumo-ondasunak eta kontsumo-ondasunak parekatuta), lehen k' enpleguaren biderkatzaile gisa izendatu nuenaren funtzioa da, izan ere:

$$\Delta x = k' \quad \Delta y$$

eta beraz,

$$\quad '(x) = 1 + 1/k'$$

Horrela, Pigou irakasleak aipatzen duen «lanaren eskari erreal osoaren malgutasuna» nire burutapen batzuen antzekoa da, hein batean industriaren baldintza fisiko eta teknikoen menpekoea izanik (F funtzioak ematen dituen gisara) eta, hein batean, langileentzako kontsumo-ondasunak kontsumitzeko joeraren menpekoea (\quad funtzioak ematen dituen gisara); beti ere, alokairuaren kostu marjinala eta lehenkostu marjinala berdinak direlako kasu berezira mugatzen bagara.

Enplegu-kopurua finkatzeko, Pigou irakasleak eskulanaren eskaintza-funtzioa bere «eskulanaren eskari errealarekin» konbinatzen du. Hau alokairu errealaren (eta ez beste ezeren) funtzioa dela

suposatzen du; baina, benetako alokairu hori, orobat, langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrietan enplegaturik dau-
den x gizakien funtzio dela suposatu duenez ere, eskulanaren eskain-
tza osoa, alokairu errealean oraingo mailan, x -ren funtzioa besterik ez
dela suposatzeraz eramaten gaitu, eta honek honako hau adieraziko
luke: era berean, $n = \chi(x)$, non, n , $F'(x)$ alokairu errealearekin dagoen
eskulan erabilgarriaren eskaintza den.

Horrela, nahaste-borraste oro baztertuta, Pigou irakaslearen
azterketak benetako enplegu-bolumena ondorengo ekuazio-sistemata-
tik abiatuta aurkitu nahiko luke:

$$x + y = \quad (x)$$

$$n = \chi(x)$$

baina hiru ezezagun eta bi ekuazioko sistema da. Badirudi oztopoa
gainditzeko $n = x + y$ bailitzan hartzen duela. Jakina, horrek nahi
gabeko langabeziarik —zentzu hertsian— ez dagoela esan nahi du;
hau da, oraingo alokairu errealean mailan erabilgarri dagoen eskulan
guztia, berez, enplegaturik dagoela. Orduan, x -k ondorengo ekuazioa
betetzen duen balioa du:

$$(x) = \chi(x)$$

eta, horrela, x eta n_1 -en balioa (demagun) berdinak direla aurkitu
badugu, y eta $\chi(n_1) - n_1$ ere berdinak izango dira, eta n enplegu bete-
a, $\chi(n_1)$ -en berdina izango da.

Merezi du aurreko hori aztertzeraz une batez geratzea. Horrek
honakoa esan nahi du: eskulanaren eskaintza-funtzioa, horrela alokai-
ru errealean jakin batean lan erabilgarri gehiago geratuz aldatzen bada
(eta beraz, $n_1 + dn_1$, orain, $(x) = \chi(x)$ ekuazioa betearazten duen x -
ren balioa izanik), langileentzako ez diren kontsumo-ondasunak
ekoizten dituzten industrien eskariak hartuko duen balioak, $(n_1 +$
 $dn_1)$ eta $\chi(n_1 + dn_1)$ -en arteko berdintza mantentzen duen kopuru
zehatza igoaraziko du enplegua industria horietan. Enplegua, oro har,
alda dadin geratzen den alternatiba bakarra, hurrenez hurren langile-
entzako nahiz langileentzako ez diren kontsumo-ondasunak erosteko
joeran aldaketa izatea da, horrela y -ren gehikuntza eta, honekin bate-
ra, x -ren jaitsiera handiagoa izan dadin.

Jakina, $n = x + y$ delako suposizioak langileak beti beren alokairua finkatu ahal izateko egoeran daudela adieraziko luke. Hortaz, hori egiteko gai direla dioen hipotesiak langileentzat ez diren kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrien output-eskariak aurreko legeei jarraitzen zaizkiela esan nahi du. Bestela esan, suposatu egiten da interes-tasa, beti eta berez, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbara enplegu betea mantentzeko moduan egokitzen dela. Suposizio hau egin gabe, Pigou irakaslearen analisia bertan behera geratuko litzateke eta ez legoke enplegu-bolumena zein den finkatzeko modurik. Benetan, harrigarria da Pigou irakasleak langabeziaren teoria eskaintzeko asmoa, inbertsio-tasaren gorabeheren (hau da, langileentzat ez diren kontsumo-ondasunen industrietan enpleguak dituen gorabeheren) inolako aipamenik egin gabe eduki izana, gorabehera horiek eskulanaren eskaintza-funtzioaren ondoriozkoak ez direlarik, interes-tasan (esaterako), edo mesfidantza-egoeran izandako aldaketen ondoriozkoak baizik.

Beraz, *Theory of Unemployment* izenburua ez dela oso egokia esan dezakegu, bere liburua ez baita langabeziaz arduratzen. Eskulanaren eskaintza-funtzioa emanik, enplegu *betearen* baldintzak betetzen direnean zenbateko enplegua egongo den aztertzen duen lana da. Eskulanaren benetako eskariaren malgutasun-kontzeptuaren helburua, oro har, eskulanaren eskaintza-funtzioan desplazamendu jakin bat dagoenean enplegu betea zein proportziotan igo edo jaitsiko den erakustea da. Edota, egokiagoa izan daitekeen beste azalpena hau litzateke: edozein enplegu-bolumeni egokituko zaion alokairu erreala-ren maila finkatzen duten erlazio funtzional ez kausalak aztertzen duen liburua dela esan dezakegu. Baina ez da enpleguaren benetako maila finkatzen duenari buruzko azalpenik emateko gai; eta nahi gabeko langabeziaren arazoarekin ez du zuzenean zerikusirik.

Pigou irakasleak nahi gabeko langabeziaren aukera ukatuko balu (lehen definitu dudan zentzuan, eta, seguraski, hala egingo luke), zaila da bere azterketa nola aplikatu litekeen ikustea; izan ere, x eta y -ren arteko erlazioa finkatzen duenak, hau da, hurrenez hurren langileentzat diren kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrietako enpleguaren eta langileentzako ez direnak ekoizten dituztenetako enpleguaren arteko erlazioa finkatzen duenak oraindik ere guztiz okerra izaten dirau.

Gainera, onartu egiten du, muga batzuen artean, langileek sarritan beren ordainsariak finkatzen dituztela; ez ezagunak diren alokairu erreal gisa, alokairu nominal gisa baizik. Baina, kasu honetan, $F'(x)$ -z gain, langileentzako kontsumo-ondasunen prezio nominala ere eskulanaren eskaintza-funtzioa da eta, ondorioz, aurreko azterketan bertan behera geratzen da eta beste faktore bat sartu beharra dago, beste aldagai berri askatuko duen ekuazio berririk egon gabe. Ez dago metodo pseudo-matematikoaren tranpen adibide hoberik, diferentzial partzial guztiak desagerraraziz guztia aldagai bakarraren funtzioan jartzean baizik aurrera egin ez dezakeena baino; izan ere, ez du ezertarako balio, geroago, aldagai gehiago izan badirela onartzea, atzera egin eta ordurarte idatzitako guztia berriz idazteko asmorik ez bada. Horrela, baldin eta (muga batzuen barruan) langileek beren ordainketak alokairu nominaletan jasotzea erabakitzen badute, oraindik ere ez dugu nahikoa daturik, $n = x + y$ dela suposatuta ere, langileentzako kontsumo-ondasunen prezio nominala finkatzen duten faktoreak zeintzuk diren jakitea ezik, zeren eta diruzko prezio hori enplegu-bolumen osoaren arabera izango baita. Beraz, langileentzako kontsumo-ondasunen prezio nominalak jakin artean, ez dugu enplegu beteak zein izango den esaterik izango; eta prezio horiek ezin jakingo ditugu enplegu-bolumen osoa jakin artean. Esan bezala, ekuazio bat faltan zaigu. Dena den, agian, alokairuen errealea ez eta diruzko alokairuen behin-behineko zurruntasuna suposatuz gero, gure teoria gertaeretatik hurbilago egongo litzateke. Esaterako, 1924-1934 hamarrurtean Britainia Handian izandako iskanbila, ziurgabetasun eta prezioen gorabehera handiak zeuden bitartean, alokairu nominalak ehuneko 6ko mugan egonkor mantendu ziren, alokairu errealak ehuneko 20tik gorako gorabeherak izan bazituen ere. Teoria batek *orokorra* izan nahi badu, beste edozein kasutan bezalaxe, alokairu nominalak finkoak diren kasuan ere aplikagarria izan (edo muga horien barruan egon) behar du. Politikariek eskubidea dute alokairu nominalak arrunt malguak izan *beharko* luketela eta kexu izateko; baina teorizatzaileak prest egon behar du edozein egoerari aurre egiteko. Teoria zientifikoak ezin eska diezaieke gertaerei beren hipotesi propioetara molda daitezen.

Pigou irakasleak alokairu nominalen murrizketaren ondorioez espreski arduratzen denean, berriz ere, nabarmen (nire ustez), behin

betiko erantzunera iristeko oso datu gutxi sartzen ditu. Lehenik eta behin, lehenkostu marjinala eta alokairuaren kostu marjinala berdinak badira, alokairu nominalak murriztuta langile ez direnen sarrerak langileen proportzio berean aldatuko direla dioen argudioa alde batera uzten du (*op. cit.* 101. or.), argudio hau enplegu-bolumena aldatzeke mantentzen bada besterik beteko ez dela oinarritzat hartuz —eta haxe da, hain zuzen, eztabaidaren gakoa—. Baina hurrengo orrian (*op. cit.* 102. or.), berak akats berbera egiten du, «hasieran, langile ez direnen sarrera nominalak aldaketarik ez duela izan» suposatzen baitu, eta hori, berak frogatu berri duen bezala, enplegu-bolumena aldatzeke mantentzen ez bada —eztabaidagaia, hain zuzen— baino ez da betetzen. Berez, erantzuteko modurik ez dago, beste faktore batzuk ezagutzen ez badira behintzat.

Lana alokairu nominal jakin baten bidez, eta ez alokairu errearen bidez, kontratatzen dela (benetako alokairuak muga batetik behera ez jaisteko baldintzapean) dioen suposizioa onartzeak azterketari eragiten dion modua beste era batera ere frogatu daiteke; alegia, kasu honetan eskulan erabilgarri gehiago ez dagoela —alokairu nominal handiagoaren truke izan ezik— dioen suposizioa bertan behera geratzen baita, eta hori arrazoiketaren zati handienarentzat oinarritzakoa da. Esaterako, Pigou irakasleak biderkatzailearen teoria alde batera uzten du (*op. cit.*, 75. or.) alokairu errearen tasa ezaguna dela suposatuz, hau da, jadanik enplegu betea egonik, alokairu erreal txikiagoan eskulan gehigarriaren eskaintzarik ez dela egongo. Jakina, suposizio hau onartuz gero, argudioa zuzena da. Baina pasarte honetan Pigou irakasleak politika praktikoari buruzko proposizioa kritikatzeko du; eta Britainia Handian 2.000.000tik gora langabetu zeudenean (hau da, 2.000.000 gizaki zeuden orduko alokairu nominalaren truke lan egiteko prest), ezin baieztatu zitekeen, errealitatetik izugarri urrundu gabe, bizi-kostuaren edozein gorakadak, alokairu nominalarekiko oso txikia izanagatik, lan-merkatutik 2.000.000 gizaki hauek baino kopuru handiagoa kanporaraziko zukeela.

Azpitarratu beharra dago, berriz ere, Pigou irakaslearen liburu guztiaren abiapuntuko suposizioa dela honakoa: *bizi-kostuaren edozein gorakadak, alokairu nominalarekiko oso txikia izanagatik, lan-merkatutik une horretan langabezian dauden guztiak baino langile gehiago kanporaraziko ditu.*

Horrez gain, Pigou irakasleak pasarte honetan (*op. cit.* 75. or.) ez du oharrarazten enplegu «sekundarioaren» —lan publikoen ondoriozkoaren— aurka erabiltzen duen argudioak, suposizio berdinetan oinarrituz, langabezia «primarioaren» gehikuntzari politika berdinen bidez arras kontra egiten diola, zeren eta langileentzako kontsumo-ondasunen industriak gobernatzen dituen benetako alokairu-tasa aldeztu aurretik ematen bada, ez da posible enplegua maila txikiagoan ezatea —jakina, langile ez direnek ondasun horien kontsumoa murrizten ez badute—. Izan ere, enplegu primarioan sartu berri direnek, seguraski, langileentzako ondasunen kontsumoa handiagotu egingo dute, eta horrek alokairu erreala murriztu egingo du eta, beraz (bere hipotesiaren arabera), lehenago beste nonbaiten enplegatutako lana desagertarazi egingo du. Dena den, itxuraz behintzat, Pigou irakasleak enplegu primarioa handiagotzeko aukera onartu egiten du. Badirudi enplegu primario eta sekundarioen arteko bereizketa-lerroa bere sen onak bere teoria txarra jasateari uzten dion puntu psikologiko kritiko dela.

Suposizio eta analisisiei buruzko aurreko desadostasun horiek dituzten ondorioen arteko desberdintasunak argi eta garbi ikus daitezke Pigou irakasleak bere ikuspuntua laburbiltzen duen pasarte garrantzitsu honetan: «langileen artean lehia guztiz librekoa egonik, eta lana guztiz higikorra izanik, erlazioaren izaera oso sinplea izango da. Lanean, beti egongo da joera indartsu bat alokairu-tasak eskariarekin erlazio estua gorde eta, horrela, jende guztia lanean ari dadin. Beraz, egoera egonkorrean, jende guztiak lana izango du. Honek ondoko hau esan nahi du: eskari-baldintzetan jarraian izandako aldaketak direla noiznahi izaten den langabeziaren arrazoia eta marruskadura-indarren ondoriozko erresistentziek alokairuei dagozkien doikuntzak berehala egitea eragozten dutela.»¹²⁷

Pigou irakasleak bukatzeko (*op. cit.* 253. or.) langabezia, batez ere, eskulanaren benetako eskarian izandako aldaketetara bere kasa nahikoa doitzen ez den alokairu-politikaren ondoriozkoa dela dio.

Beraz, Pigou irakaslearen ustetan, epe luzera, langabezia alokairuetan doikuntzak eginez konpon daiteke,¹²⁸ nire iritziz ordea, benetako alokairuaren (enpleguaren baliagarritasun marjinal ezak finkatutako maila minimo bakarraren arabera) finkatzaile nagusiak ez dira «alokairuen doikuntzak» (hauek eraginik izan badezakete

ere), sistemaren beste indarrak baizik, eta, oker ez banago, Pigou irakasleak ez ditu horietako batzuk (batez ere, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbaren eta interes-tasaren arteko erlazioa) bere plangintza formalean kontuan hartu.

Azkenik, Pigou irakasleak «langabeziaren eragilerak» iristen denean, nik adina hitz egiten du, hala da, eskariaren egoeran izandako gorabehera buruz; baina eskariaren egoera Eskulanaren Eskari errearen Funtzioarekin identifikatzen du, azken definizio hau zein estua den ahantziz. Izan ere, eskulanaren benetako eskari-funtzioa, definizioz, bi faktoreren menpekoez bideratzen da (lehen ikusi dugunez), hots, 1) edozein inguruetan ere enplegatutako gizaki-kopuru osoaren eta langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrietan enplegatu behar dituztenen arteko erlazioaren; eta 2) langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industria horien produktibitate marjinalaren baitakoa. Dena den, bere *Theory of Unemployment*-eko V. zatian, «eskulanaren benetako eskaria» izandako gorabehera nahikoa garrantzia ematen zaie. «Eskulanaren benetako eskaria» epe laburrean gorabehera handiak izan ditzakeen faktoretzat jotzen da (*op. cit.*, V. zatia, VI-XII kap.), eta badirudi honakoa esan nahi duela: «eskariaren benetako eskaria» izandako oszilazioak (alokairu-politikak aldaketa horiei berehalak ez erantzutearekin batera) direla ziklo ekonomikoaren erantzule nagusiak. Lehen begiratuan, irakurleari ezaguna irudituko zaio hau guztia, zeren eta, «eskulanaren benetako eskariaren gorabehera» buruzko definiziora atzera bueltatzen ez bada behintzat, nik «eskari osoaren egoeran izandako gorabehera» buruzko definizioaren bidez eragin nahi ditudan antzeko burutapenak otuko baitzaizkio. Baina «eskulanaren benetako eskaria» buruzko definiziora bueltatuz gero, hori guztia bertan behera geratzen da; ikusiko dugunez, munduan ez baitago epe laburrean oszilazio handien menpe izateko faktore honek baino probabilitate gutxiago duen ezer.

Pigou irakaslearen «eskulanaren benetako eskaria», definizioz, langileentzako kontsumo-ondasunak ekoizten dituzten industrien ekoizpen-baldintza fisikoak adierazten dituen $F(x)$ -en eta aurreko industrietako enpleguaren eta enplegu horren edozein mailari dago-kion enplegu osoaren arteko erlazio funtzionala adierazten duen (x) -en menpe bideratzen da. Zaila da hauetako funtzioaren bat epe luze-

tan aldaraziko lukeen —gradualki izan ezik— arrazoirik aurkitzen. Badirudi ziklo ekonomiko batean gorabeherarik izateko aukera eduki dezaten suposatzeke arrazoirik ez dagoela; izan ere, $F(x)$ oso motel baino ezin daiteke aldatu, eta teknikoki aurrera doan komunitatean, aurrera baino ez; (x) ordea, egonkor mantenduko da, langile-klasearen aldetik urritasun-bolada bat edo, sarriagotan gertatzen dena, kontsumitzeko joeraren bat-bateko desplazamendua dagoela suposatzen ez bada. Nik, beraz, ziklo ekonomikoan zehar eskulanaren eskari erreala birtualki berdin mantentzea itxarongo nuke. Berriz ere diot Pigou irakasleak bere analisitik erabat kanpo utzi duela faktore ezegonkorra, hau da, inbertsio-eskalan gertatutako gorabeherak, eta hauek dira, sarritan, enpleguan gorabeherak eragiten dituztenak.

In extenso aritu naiz Pigou irakaslearen langabeziaren teorian, baina honetarako arrazoia ez da izan bera eskola klasikoko beste ekonomialari batzuk baino kritikagarriagoa izatea, baizik eta bere teoria langabeziaren teoria klasikoa zehazki garatzeko ezagutzen dudan saio bakarra izatea. Hori dela eta, kontrako iritziak teoria honi egin behar izan dizkiot, sekula izan duen azalpen onenaren bidez.

XX. KAPITULUA

Enplegu-funtzioa¹²⁹

I

3. kapitulan (52. or.) eskaintza osoaren funtzioa $Z = \quad (N)$ gisa definitu dugu, « N » enplegua dagokion outputaren eskaintza osoaren kostuarekin lotzen duena. Enplegu-funtzioaren eta eskaintza osoaren funtzioaren arteko ezberdintasun bakarra, berez, bata bestearen alderantzizko funtzioa izatea da, eta lehena alokairu-unitatetan neurtzen da. Enplegu-funtzioaren helburua berriz, eskari efektiboaren bolumena —enpresa edo industria jakin bati edo industria osoari dagokiona—, alokairu-unitatetan neurtutakoa, enplegu-bolumenarekin erlazionatzea da, honen outputa eskari efektiboaren bolumen horrekin konpara daitekeen eskaintza-prezioa izanik. Horrela, eskari efektiboaren maila batek, D_{wr} -k, alokairu-unitatetan neurtuta, edozein enpresatara gidatuta, bertan N_r enplegu-bolumena sortzen badu, enplegu-funtzioa $N_r = F_r(D_{wr})$ ekuazioak emango du. Edota era orokorragoan, D_{wr} , D_w eskari efektibo osoaren funtzio bakarra dela suposatzazakegu, enplegu-funtzioa $N_r = F_r(D_w)$ ekuazioak emango du. Eta honek eskari efektiboak D_w denean r industrian N_r langile enplegatuturik egongo direla esan nahi du.

Kapitulu honetan enplegu-funtzioaren hainbat ezaugarri garrantzuko ditugu. Baina hauek izan dezaketen interesaz gain, bi arrazoi daude eskaintzaren kurba arruntaren ordezkari enplegu-funtzioa erabiltzea liburu honen metodo eta helburuekin bat etortzeko. Lehenik eta

behin, gertakari nabarmenak guk erabiltzea erabaki dugun terminoetan azaltzen ditu, nahikoa zalantzarria den bestelakorik sartu gabe. Bigarrenik, eskaintzaren ohizko kurba baino errazago aztertzen ditu industria eta outputaren arazoak *osotasun gisa hartuta*, eta inguru jakin bateko industria edo enpresa isolatuari dagozkion arazoak bereizi egiten ditu —ondorengo arrazoiak direla medio—.

Ondasun partikular baten ohizko eskari-kurba, gizartea osatzen duten pertsonen sarrerei buruzko suposizio batetik abiatuz marrazten da, eta sarrerak aldatuz gero kurba zuzendu beharra dago. Era berean, ondasun partikular baten ohizko eskaintza-kurba industria osoan outputak duen bolumenari buruzko suposizioan oinarrituz marrazten da, eta outputa aldatuz gero, beraz, kurba zuzendu beharra dago. Beraz, enplegu *osoaren* aldaketekiko industria bakoitzak dituen erreakzioak aztertzen baditugu, nahitaez, enplegu osoaren hainbat suposiziori dagozkien bi kurba-familiei buruzko aipamena egiten ari gara, eta ez industria bakoitzari dagokion eskari-kurba eta eskaintza-kurba gurutatu banari. Enplegu-funtzioari dagokionez, bestalde, enpleguan oro har izandako aldaketak islatuko dituen industria guztien funtziora iristea egokiagoa da.

Izan ere, pentsa dezagun (hasteko) kontsumitzeko joera jakina dela, 18. kapituluak jakintzat eman gaituen gainerako faktoreen gisara, eta inbertsio-tasaren aldaketekiko erantzun gisa enpleguan izaten diren aldaketak hartzen ditugula. Suposizio honen arabera, eskari efektiboaren maila bakoitzerako, alokairu-unitatetan neurtuta, dago-kion enplegu osoa egongo da, eta eskari efektibo hori hainbat proportziotan zatituko da kontsumoaren eta inbertsioaren artean. Are gehiago, eskari efektiboaren maila bakoitza sarreraren banaketa jakin bati egokituko zaio. Beraz, arrazoizkoa da eskari efektiboaren maila jakin bati banaketa bakar bat industria ezberdinen artean egokituko zaiola suposatzea.

Honen bidez industria bakoitzean enplegu osoaren maila jakin bakoitzari zenbateko enplegua egokituko zaion jakiteko aukera dugu. Hau da, industria partikular bakoitzean eskari efektibo osoari dago-kion enplegu-bolumena ematen digu, alokairu-unitateetan neurtuta. Horrela industriarako enplegu-funtzioaren bigarren formaren baldintzak beteko dira, lehen definitutako moduan,hots, $N_r = F_r(D_w)$. Eta beraz, egoera honetan, eskari efektiboaren maila jakin bati industria

osoarentzat dagokion norbanakoaren enplegu-funtzioa, aparte hartutako industria bakoitzarentzako enplegu-funtzioen baturaren berdina da, hau da,

$$F(D_w) = N = \sum N = \sum F_r(D_w)$$

Defini dezagun, ondoren, enplegu-malgutasuna. Industria jakin baterako, hona hemen bere balioa:

$$e_{er} = dN_r/dD_{wr} \cdot D_{wr}/N_r$$

dagokion outputaren erosketan gastatzea espero diren alokairu-unitateen aldaketekiko, industriaren erabilitako lan-unitate kopuruaren erre-akzioa neurtzen du. Industria osoaren enplegu-malgutasuna honela adierazten dugu:

$$e_e = dN/dD_w \cdot D_w/N$$

Outputa neurtzeko metodo aski egokirik egongo balitz, baliagarria izango litzateke, era berean, outputaren malgutasuna dei liteke-ena definitzea, hain zuzen, alokairu-unitatetan neurtuta industria horretara eskari efektibo gehiago zuzentzen denean edozein industria-ren igoera-koefizientea ematen duena; hau da,

$$e_{or} = dO_r/dD_{wr} \cdot D_{wr}/O_r$$

Prezioa eta lehenkostu marjinala berdinak direla pentsa bade-zakegu, orduan

$$D_{wr} = 1/(1 - e_{or}) \cdot P_r$$

izango dugu, non P_r espero den irabazia den.¹³⁰ Hemendik $e_{or} = 0$ bada, hau da, industriaren outputa guztiz malgutasunik gabekoa bada, eska-ri efektiboaren igoera osoa (alokairu-unitatetan neurtuta) enpresarioa-rentzako irabazia izango dela ondorioztatzen da, hots, $D_{wr} = P_r$; eta $e_{or} = 1$ bada, hau da, outputaren malgutasuna unitatea denean, ez da inola ere eskari efektiboaren igoeraren zatirik txikiena ere irabazi bihurtuko denik esperoko, eta horren zenbateko osoa lehenkostu mar-jinalean sartzen diren elementuek zurgatuko dute.

Are gehiago, industria baten outputa bertan erabilitako (N_r) lanaren funtzioa bada, honakoa dugu¹³¹

$$1 - e_{or}/e_{er} = -N_r \cdot (Nr)/p_{wr} \{ (N_r) \}^2$$

non p_{wr} outputaren unitate batetik espero den prezioa den (alokairu-unitateetan adierazita). $e_{or} = 1$ baldintzak $(N_r) = 0$ dela esan nahi du, enpleguaren igoerari erantzunez errendimendu konstanteak daudela, alegia.

Dena den, teoria klasikoak alokairuak eta lanaren baliagarritasun marjinal eza beti berdinak direla eta enplegua igo ahala azken termino hori handiagoa egiten dela onartzen duen neurrian (horrela benetako alokairuak txikiagotuta, *ceteris paribus*, lan-eskaintza murriztu egingo delarik), azken finean praktikan alokairu-unitateen mailan gastua handiagotzea ezinezkoa dela suposatzen ari da. Horrela izango balitz, ez litzateke enpleguaren malgutasunari buruzko kontzeptua non aplikaturik egongo. Gainera, hala balitz ezinezkoa izango litzateke enplegua handiagotzea (gastuak, diru-terminoetan, igoz, alokairu nominalak ere gastu horien igoerarekiko proportzionalki igo egingo bailirateke, eta, beraz, ez litzateke gastuen igoerarik egongo, alokairu-unitateetan neurtuta, eta ondorioz, ezta enpleguarena ere. Baina suposizio klasikoa egokia ez bada, enplegua handiagotu ahal izango da gastuak, dirutan, alokairu errealak lanaren baliagarritasun marjinal ezarekin berdintzeraino jaisteraino handiagotuz, non, definitzioz, enplegu betea egongo den.

Normalean, jakina, e_{or} delakoak zero eta unitatearen arteko balioa izango du. Prezioak (alokairu-unitatetan) igoko direneko zenbatekoa, hau da, diru-gastuak igota alokairu erralak jaitsiko diren zenbatekoa, beraz, alokairu-unitatetan neurtutako gastuen erantzun gisa outputak duen malgutasunaren arabera izango da.

D_{wr} eskari efektiboaren aldaketetikiko espero izandako p_{wr} prezioaren malgutasuna e'_{pr} gisa adieraziko dugu, hau da,

$$dp_{wr}/dD_{wr} \cdot D_{wr}/p_{wr}$$

$$O_r \cdot p_{wr} = D_{wr}$$

denez gero, honakoa izango dugu

$$dO_r/dD_{wr} \cdot dD_{wr}/O_r + dp_{wr}/dD_{wr} \cdot D_{wr}/p_{wr} = 1$$

edo,

$$e'_{pr} + e_{or} = 1.$$

Hau da, prezioaren eta outputaren malgutasunen baturaren emaitza, eskari efektiboan (alokairu-unitatetan neurtuta) izandako aldaketen erantzun gisa dagoena, unitatea da. Printzipio honen arabera, eskari efektiboa, hein batean, outputari eraginez agortzen da, eta hein batean prezioei eraginez.

Industria osorik hartuta, output osoa neurtzeko unitatea dugula onartzeko prest bagaude, arrazoiketa-mota berbera aplikatzen da eta, beraz, $e'_p + e_o = 1$, non r azpindizerik gabeko malgutasunak industria osoari dagozkion.

Orain neur ditzagun balioak dirutan, alokairu-unitatetan neurtu beharrean, eta zabal ditzagun industria osoari dagozkion ondorioak.

W letrak lan-unitate baten alokairu nominala adierazten badu, eta p letrak output osoko unitate batetik espero den prezioa (dirutan), modu berean neurtutako eskari efektiboaren aldaketen erantzun gisa diru-prezioek duten malgutasuna $e_p (= Ddp/pdD)$ gisa idatz dezakegu; eta dirutan neurtutako eskari efektiboaren aldaketen erantzun gisa alokairu nominalek duten malgutasuna, aldiz, $e_w = (DdW/WdD)$. Beraz, erraz asko frogatu daitekeenez,

$$e_p = 1 - e_o (1 - e_w)^{132}$$

Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, ekuazio hau diruaren teoria koantitatibo orokorreranzko lehen urratsa da. $e_o = 0$ edo $e_w = 1$ bada, outputak aldatzeke segituko du eta prezioak dirutan neurtutako eskari efektiboaren proportzio berean igoko dira. Bestela, proportzio txikiagotan igoko dira.

II

Itzul gaitezen enplegu-funtziora. Orain arte eskari efektibo osoaren maila bakoitzari industria zehatz bakoitzeko produktuen artean eskari efektiboaren banaketa bakar bat dagokiola suposatu dugu.

Dena den, gastu osoak aldatzen diren heinean, industria jakin bati dagokion gastua, oro har, ez da proportzio berean aldatuko —neurri batean norbanakoek industria bakoitzari erosten dizkioten produktuak beren sarrerak igo ahala proportzionalki gehituko ez dituztelako, eta neurri batean ondasun ezberdinen prezioak bertan egindako gastu-igoerei maila ezberdinean erantzungo dietelako—.

Hemendik honakoa ondorioztatzen da: orain arte oinarri hartu dugun suposizio, hau da, enpleguan izandako aldaketak eskari efektibo osoaren (alokairu-unitateen terminoetan) menpekoak besterik ez izatea, lehen hurbilketa baino ez dela, baldin eta sarreraren igoera modu batean baino gehiagotan gastatzeko erak daudela onartzen badugu; izan ere, eskari osoaren igoera hainbat ondasunen artean nola banatzen den suposatzen dugun moduak nahikoa eragin baitezake enplegu-bolumenean. Esaterako, eskariaren igoera, batez ere, enplegu-malgutasun handia duten produktuetara bideratzen bada, enplegu osoaren igoera handiagoa izango da eskariaren igoera enplegu-malgutasun txikia duten produktuetara bideratzen bada baino.

Era berean, enplegua jaitsi egin daiteke eskari osoan inolako aldaketa gertatu gabe, baldin eta eskariaren aldean dagoen norabidea enplegu-malgutasun txikia duten produktuen alde aldatu erlatiboki egiten bada.

Hausnarketa hauek oso garrantzitsuak dira epe laburreko fenomenoetara helduz, zenbatekoan nahiz nolabaiteko aurre-erapenaz aurreikusten ez diren eskariaren norabidean izandako aldaketek dagokienez. Hainbat produktu eskuratzeko denbora behar da, eta hori dela eta, ezinezkoa da bere eskaintza azkar handiagotzen. Horregatik, eskari gehigarria aurrez jakinarazi gabe etortzen bazaie, enplegu-malgutasun txikia izango dute; alabaina, gerta liteke ere handiagotu egingo denaren berri izanda beren enplegu-malgutasuna unitatera hurbiltzea.

Nire iritziz, ekoizpen-epearen kontzeptuak, batez ere, esandako honegatik dauka garrantzia. Nahiago nuke produktu batek n ekoizpen-epea duela esatea¹³³, baldin eta bere eskari-aldaketaren berri enplegu-malgutasun maximoa izateko n denbora-unitate aurretik eman beharra badago. Argi dagoenez, kontsumo-ondasunek, oro har, ekoizpen-epe luzeena dute, ekoizpen-prozesu orotan hauek azken etapa baitira. Eta beraz, eskari efektiboaren igoerarako lehen bulkada

kontsumoaren hazkundetik badator, hasierako enplegu-malgutasuna bere behin-behineko oreka-maila baino beherago egongo da, bulkada horren eragilea inbertsio-igoera bada baino. Horrez gain, handiagotutako eskaria enplegu-malgutasun nahikoa txikia duten produktuetara bideratzen bada, hortik proportzio handiagoa enpresarioen sarrerak gehitzeko izango dira, eta proportzio txikiagoa alokairuak eta lehen-kostuaren bestelako osagaiak jasotzen dituztenentzat; eta gerta daiteke ondorioak gastuarentzat horren egokiak ez izatea, enpresarioek beren sarrera-gehikuntzatik alokairuak jasotzen dituztenek baino zati handiagoa aurrez bailezakete. Dena den, bi kasuen arteko bereizketak ez luke neurriz gainera izan behar, erreakzio gehienak oso antzekoak izango baitira bietan.¹³⁴

Enpresarioei oso eskariaren aldaketa probable berri aurretik eman arren, inbertsioan *izandako* gehikuntzaren ondoriozko enpleguaren hasierako malgutasunak ezingo du bere behin-behineko oreka-baliora iritsi, ekoizpenaren etapa bakoitzean stock-soberakina eta gaitasun-soberakina ez badago. Bestalde, stock-soberakinak agortzeak ondorio konpentsatzailea izango du inbertsioaren gehikuntzan. Sektore guztietan hasierako soberakina dagoela suposatzen badugu, enpleguaren hasierako malgutasuna unitatetik hurbil egon daiteke; orduan, stocka zurgatu ondoren baina eskaintzan gehikuntza egokia —ekoizpenaren lehen etapetatik etorria— izan aurretik, malgutasuna ahuldu egingo da; eta oreka berrira gerturatuta, berriz ere unitatetik hurbilera igoko da. Dena den, aurreko horrek hainbat muga ditu, enplegua igo ahala, edota interes-tasa handiagotzen bada, gastu gehiago zurgatuko dituzten errenta-faktoreak baitaude. Arrazoi hauek direla eta, ezinezkoa da aldaketak dituen ekonomian prezioen egonkortasun perfektua egotea —jakina, proportzio zehatz eta egokian, kontsumitzeko joeraren gorabehera iragankorrak ziurtatuko dituen bide bereziren bat ez badago behintzat—. Baina horrela sortutako prezioen desegonkortasunak ez dakar gaitasunaren soberakinak sorraraz dezakeen irabazteko pizgarri berbera; izan ere, espero ez diren irabaziak ekoizpenaren nahikoa etapa aurreratuan produktuak dituzten enpresarioen eskura joango dira, eta mota egokiko baliabide espezializatuak ez dituen enpresarioak irabazi hori bereganatzeko ezin du ezer egin. Horregatik, aldaketen ondoriozko prezioen desegonkortasun saihestezin horrek ezin die enpresarioen *egintzei* eragin, eta, besterik gabe, *de*

facto espero ez zen aberastasuna zorte ona izan duen jendearen eskue-
tara bideratzen du (*mutatis mutandis* suposatutako aldaketak kontrako
norantzan eragiten duenean). Nire iritziz, prezioak egonkortzera bide-
ratutako politika praktikoari buruz gaur egun dagoen hainbat eztabai-
dak aurreko hori ahaztu du. Egia da aldatzeko joera duen gizartean
politika horrek ezin duela erabateko arrakasta izan. Baina hortik ezin
ondoriozta daiteke prezioen egonkortasunaren desbideratze iragankor
txiki bakoitzak, nahitaez, desoreka metatua sorraraziko duenik.

III

Frogatuta utzi dugu eskari efektiboa eskasa denean lanaren
azpienplegua dagoela, hau da, alokairuaren azpitik lan egiteko prest
lanik gabeko langileak daudela. Ondorioz, eskari efektiboak gora egin
ahala, enpleguak gora egiten du, dagoen alokairu errealean edo horren
azpitik bada ere, une horretan indarrean dagoen alokairuan lan egin-
go duen inor (edo ordu gehiago) ez dagoen arte, alokairuak (muga
horretatik gora) prezioak baino *azkarrago* igo ezean. Hurrengo arazoa
egoera horretara iristean gastuak gora egiten jarraitzen badu zer ger-
tatuko den aztertzea da.

Orain arte, beheranzko errendimendua, kapital-ekipamendu
bati lan gehiago aplikatzearen ondorioz sorturikoa, lanak bere alokai-
ru erreala murriztea onartzeak neutralizatu izan du. Baina hortik
aurrera, lan-unitate batek produktu-kantitate handiagoaren pareko piz-
garria eskatuko du, eta beste unitate bat aplikatzearen emaitza pro-
duktuaren kantitate txikiagoa izango da. Beraz, oreka zorrotzaren bal-
dintzek eskatuko dute alokairuek eta prezioek eta, ondorioz, baita ira-
baziek ere, guztiak gastuaren proportzio berean igotzea, egoera «erre-
alak» —outputaren eta enpleguaren bolumenak barne— inolako alda-
ketarik txikiena ere jasan gabe. Hau da, diruaren teoria koantitatiboa
bere era arruntan («abiadura», «sarrera-abiadura» gisa ulertuz) guz-
tiz asetzen den puntura iritsi gara; outputa ez baita aldatzen, eta pre-
zioek $M \cdot V$ -ren proportzio zehatzean igotzen baitira.

Nolanahi ere, ondorio honek hainbat muga praktiko ditu, eta
hauek gogoan izan behar dira egoera errealari aplikatu aurretik:

1) Denboraldi batez, bederen, goranzko prezioek enpresarioak lilura ditzakete, eta hauen irabazi indibidualak enplegua —produktu-unitatetan neurtuta— igotzeraino irits daitezke maximora eramaten dituen mailatik gora; izan ere, horren ohituta daude salmenten zenbatekoaren diruzko hazkundea ekoizpenaren hedakuntzaren adierazle gisa hartzera, ezen horrela hartzen jarrai baitezakete nahiz eta politika hori jadanik komeni ez zaien, hau da, prezioen giro berrian erabil-kostu marjinala gutxiets dezakete.

2) Enpresarioak errentadunari derrigor eman behar dion irabaziaren zati hori dirutan neurtuta finkoa denez gero, prezioaren igoerak, outputaren inolako aldaketaren laguntzarik gabe ere, sarreraren birbanaketa eragin eta enpresarioari mesedegarri suertatuko zaio egoera berria, eta batekoz bestera errentadunari, eta honek nolabaiteko eragina izan dezake kontsumitzeko joeran. Hala ere, prozesu hau ez da enplegu betearen egoera lortu denean bakarrik hasten —gastua igotzen zihoan bitartean, honek ere aurrera egingo zuen—. Errentadunak gastatzeko enpresarioak baino joera gutxiago badu, lehenaren sarrera errealaren murrizketa mailakatuak honakoa adieraziko du: enplegu betea diru-kantitatean igoera txikiagoa izanda, eta interes-tasan jaitziera txikiagoa izanda lortuko dela (aurkako hipotesiarekin erkatuz). Enplegu betea lortu ondoren, prezioaren beste igoera batek honakoa adieraziko digu: beti ere lehenengo hipotesiak baliagarria izaten segitzen duen bitartean, interes-tasa zertxobait igo egin beharko dela prezioak mugagabe igo ez daitezen, eta diru-kantitatearen igoera proportzionalki gastuarenaren azpitik egongo dela; eta bigarren hipotesia betez gero, aurkakoa beteko da. Errentadunaren benetako sarrera murrizten ari direnean, une batean lehen hipotesitik bigarrenerako bira izatea ere gerta daiteke, bere txirotze erlatiboa gero eta handiagoa izatearen ondorioz, eta egoera horretara enplegu betera iritsi aurretik edo ondoren irits daiteke.

IV

Agian, inflazioaren eta deflazioaren artean izaten den itxurazko asimetriaren artean zerbait arraroa dago. Izan ere, eskari efektibo-

aren deflazioak (enplegu beterako beharrezkoa den mailaz azpikoak), enplegu-bolumena eta prezioak jaitsiarazi egingo ditu, baina eskari efektibo horren inflazioak (maila horren gainetikoak) prezioei besterik ez die eragingo. Dena den, asimetria hori ondorengoaren isla hutsa besterik ez da: eskulanak lan egiteari enplegu-bolumen horren baliagarritasun marjinal eza baino txikiagoa den alokairu errealaren intentsitatean beti uko egin badiezaioke ere, ezin eska dezake enplegu-bolumen horri dagokion baliagarritasun marjinal eza gainditzen ez duen benetako alokairua emango duen mailan lana eskain dakion.

XXI. KAPITULUA

Prezioen teoria

I

Ekonomialariak balioaren teoria deiturikoaz arduratu diren artean, prezioak eskaintza- eta eskari-baldintzen eraentzapean egon direla irakatsi izan dute; eta, bereziki, zeregin nabarmena bete izan dute kostu marjinalaren aldaketek eta epe laburreko eskaintzaren malgutasunak. Baina II. liburuan edota, beste lanen batean, maizago, diruaren eta prezioen teoriara iragaten direnean, ordutik aurrera ez ditugu gertukoak ditugun eta aski ulergarriak diren aurreko kontzeptu horiek gehiago entzuten, eta prezioak gobernatuko dituztenak diru-kantitatea, bere sarrera-abiadura, transakzio-bolumenarekiko erlatiboa den zirkulazio-abiadura, diru-metaketa, derrigorrezko aurrezkia, inflazioa eta deflazioa *ethocgenusome*, izango dira; eta saiakera gutxi egiten dira, edo bat ere ez, urrutiagoko kontzeptu hauek eta lehenagotik genituen eskaintza- eta eskari-malgutasunari buruzko ideiak elkarrekin lotzeko. Irakatsi zaigunari buruz hausnartu eta hori razionalizatzen saiatuz gero, ikasketa sinpleenetan badi-rudi eskaintzaren malgutasuna zerora iritsi dela eta eskaria diru-kantitatearekiko proportzionala izatera; maila goragoko ikasketetan, ordea, ezer argirik ez dagoen eta edozer gauza gerta litekeen lausoa gaude. Guztiak ohituta gaude batzuetan Ilargiaren aurpegi batean eta beste batzuetan aurkakoa kokatzen, batetik besterako bidea zein den jakin gabe, eta itxuraz, gure ibilera eta bizitza ameslariaren araberaren erlazionatuz.

Aurreko kapituluetakoko helburu bat bizitza bikoitz horretatik alde egin eta prezioen teoria, orohar, balioaren teoriarekin estu lotzea izan da. Ekonomian, batetik, balioaren teoria eta banaketa eta, bestetik, diruaren teoria bereiztea, nire ustez, oker dago. Nire iritziz, diktomia zuzena hau da: batetik industria edo enpresa indibiduala eta ordainketak eta hainbat erabileraren artean *izandako* baliabide-kantitatearen banaketa, eta bestetik outputa eta enplegua, *bere osotasunean hartuta*, bereiztea. Egia da industria edo enpresa indibiduala aztertze-
ra mugatzen garen bitartean, erabilitako baliabideen kantitatea, guztira, konstantea dela eta, behin-behinerako, beste industria edo enpresen baldintzak aldatu ez direla suposatuz, ez garela diruaren ezaugarri esanguratsuez ariko. Baina outputa eta enplegua, oro har, zerk erabakitzen dituen aztertzen hasteko, moneta-ekonomiari buruzko teoria osoa behar dugu.

Agian gure muga-lerroa oreka geldikorraren teoriaren eta oreka higikorraren —honen bidez etorkizunari buruzko ikuspuntu aldakorrek egungo egoeran eragiteko gai diren sistema adierazi nahi da— artean ere marraz genezake. *Izan ere, diruaren garrantzia, funtsean, orainaren eta etorkizunaren arteko katemaila izatean datza.* Azter dezagun, bada, erabilera ezberdinetan orekarekin bat baliabideen zein banaketa etorriko den, zio ekonomiko arruntan eraginpean etorkizunari buruzko gure iritzia egonkorra eta guztiz sinesgarriak diren munduan —agian beste bereizketa bat egin beharko litzateke: batetik aldatzen ez den ekonomia eta, bestetik, aldagarria izanik, gauza guztiak hasieratik aurreikusten dituen beste bat—. Azterketa laburtu honen ondoren, mundu errealeko arazoei helduko diegu, mundu erreal horretan gure aurretiazko aurreikuspen guztiak bertan behera gera daitezkeelarik eta etorkizunari buruzko aurreikuspenak gaur egun egiten dugunari eragin diezaiokeelarik. Hona iritsitakoan soilik sartu behar dira gure kalkuluetan diruaren ezaugarri esanguratsuak orainaren eta etorkizunaren arteko katemaila gisa. Baina oreka higikorraren teoria nahitaez moneta-ekonomiaren terminoetan jarraitu behar bada ere, balioaren eta banaketaren teoria izaten jarraitzen du, eta ez «diruaren teoria» autonomoa. Dirua, bere ezaugarri garrantzitsuei dagokienez, oraina etorkizunarekin elkartzeko oso tresna fina da; eta ezin gara aurreikuspen aldakorrek ohizko jardueretan duten eragina aztertzen hasi ere egin, diru-mailan ez bada. Urrea, zilarra eta

legezko ordainketa-tresnak ezabatuta ere, ezingo genuke dirua bertan behera utzi. Ondasun iraunkorren bat dagoen bitartean, honek diruaren ezaugarriak¹³⁵ eduki ahal izango ditu, eta beraz, moneta-ekonomiaren ohizko arazoei bide eman ahal izango dira.

II

Industria-alor jakin batean bere prezio-maila partikularra, hein batean, bere kostu marjinalen sartzan diren ekoizpen-faktoreen ordainketa-tasaren arabera izango da, eta hein batean output-mailarena. Industria orokorrera iragaten garenean ez dago ondorio hau aldatzeko arrazoirik. Prezio-maila orokorra, hein batean, kostu marjinalen sartzan diren ekoizpen-faktoreen ordainketa-tasaren arabera izango da, eta hein batean output-mailarena, hau osorik hartuta, hau da (ekipamendua eta teknika jakintzat joaz), enplegu-mailaren arabera izango da. Egia da outputa osorik hartzen dugunean honen kostua, edozein industriarentzat, neurri batean gainerako industrien outputaren menpe egongo dela; baina kontuan hartu ez dugun aldaketarik garrantzitsuenak, kostuetan nahiz bolumenean *eskariaren* aldaketek izango duten eragina da. Eskariaren aldean guztiz berriak diren ideiak sartu behar ditugu (eskariaz, orohar, dihardugunean eta ez bereiz hartutako eta isolatutako produktu baten eskariaz, eskari osoa aldagaitza suposatuz).

III

Orain pentsa dezagun, sinplifikazio bat eginez, kostu marjinalen sartzan diren ekoizpen-faktore desberdinen ordainketa-mota guztiak proportzio berean aldatzen direla, hau da, alokairu-unitatearen proportzio berean. Prezioen maila orokorra (teknika eta ekipamendua jakintzat jota), hein batean, alokairu-unitatearen arabera da eta, hein batean, enplegu-bolumenaren arabera. Beraz, diru-kantitatearen aldaketek prezio-mailan sortutako ondorioa, alo-

kairu-unitatean eragiten duen ondorioak eta enpleguaren gain eragindakoak osatuko dute.

Honek sorrarazten dituen ideiak argitzeko, oraindik ere sinplifikazio handiagoa egingo dugu eta honakoak suposatuko ditugu: 1) enplegurik gabeko baliabide guztiak homogeenak direla edota beren eraginkortasunaren arabera elkartrukakorak, nahi dena ekoizteko, eta 2) kostu marjinallean sartzen diren outputaren faktoreek diru-alokairu bera izan beharko dutela, horietako soberakinen bat enplegurik gabe dagoen bitartean. Kasu honetan errendimendu konstanteak eta alokairuen unitate zurruna izango ditugu, langabezia txikiena ere dagoen bitartean. Hemendik ondoriozta daitekeenez diru-kantitatearen igoerak ez du ondoriorik txikiena ere izango prezioetan, langabezia dagoen artean, eta enplegua, zehazki, diru-kantitatearen igoerak sorrarazitako eskari efektiboaren edozein igoeraren proportzioan igoko da; baina, enplegu betera iritsi bezain laster, alokairu-unitatea eta prezioak izango dira eskari efektiboaren igoeraren proportzio zehatzean igoko direnak. Horrela, langabezia dagoen bitartean eskaintzaren malgutasun perfektua badago, eta enplegu betera iritsi bezain laster eskaintzak malgutasun falta edo zurruntasun perfektua hartzen badu, eta eskari efektiboa diru-kantitatearen proportzio berean aldatzen bada, diruaren teoria koantitatiboa honela adieraz daiteke: «Langabezia dagoen bitartean, *enplegua* diru-kantitatearekiko proportzionalki aldatuko da; eta enplegu betera iritsitakoan, *prezioak* diru-kantitatearen proportzio berean aldatuko dira».

Dena den, diruaren teoria koantitatiboa adierazi ahal izateko nahikoa suposamendu sinplifikatua sartzeko tradizioa bete dugularik, berez gertakarietan eragin dezaketen hainbat eragozpen aipa ditzagun:

1) Eskari efektiboa ez da diru-kantitatearekiko proportzio zehatzean aldatuko.

2) Baliabideak homogeenak ez diren unetik, konstanteak ez diren beheranzko errendimenduak egongo dira, enpleguak igoera mailakatu izan ahala.

3) Baliabideak elkartrukakorak ez direnez, ondasun batzuek eskaintzan malgutasun eza izango dute, nahiz eta beste ondasun batzuk ekoizteko enplegatu gabeko beste baliabide erabilgarri batzuk egon.

4) Alokairu-unitateak igotzeko joera izango du enplegu betera iritsi aurretik.

5) Kostu marjinalen sartzen diren faktoreen ordainketak ez dira denak proportzio berean aldatuko.

Ondorioz, lehenik eta behin diru-kantitatearen aldaketek eskari efektiboaren zenbatekoa eragindako ondorioa kontuan hartu behar dugu; eta eskari efektiboaren hazkuntzak, oro har, enplegu-kantitatea handiagotzera eta prezio-maila igotzera joko du. Horrela, langabezia dagoen bitartean prezioak konstante mantendu, eta enplegu betea dagoenean prezioak diru-kantitatearekiko igo beharrean, berez, enplegua igo ahala prezioak gradualki igotzeko egoera izango dugu. Hau da, prezioen teoria, edota diru-kantitatearen eta prezio-mailaren arteko erlazioaren analisia —diru-kantitatearen aldaketen erantzun gisa prezioek duten malgutasuna finkatzekotan—, goian aipatutako bost eragozpen-faktoreetara bideratu behar da.

Banan-banan aztertuko ditugu. Baina honek ez digu ustearazi behar zentzu hertsian independenteak direnik. Esaterako, eskari efektiboaren hazkuntzaren ondorioak output-gehikuntzaren eta prezio-igoeraren artean zatitzen direneko proportzioak, diru-kantitatea eskari efektiboaren zenbatekoarekin erlazionatzen den moduari eragin diezaioke. Edota, berriz ere, faktore ezberdinen ordainketak aldatzen diren proportzioen diferentziak diru-kantitatearen eta eskari efektiboaren zenbatekoaren arteko erlazioan eragin dezake. Gure azterketaren xedea ez da erantzun zuzen eta zehatza eman dakigun eragiteko metodo edo mekanismo itsuaz hornitzea, baizik eta jakineko arazoei buruz arrazoitzeko metodo antolatu eta ordenatuaz hornitzea; eta behin-behineko ondoriora iritsi ondoren, eragozpen-faktoreak banan-banan isolaturik, gure urratsetan atzera egin eta, ahalik eta ongien, faktore horien arteko elkarrekintza probableak kontuan hartu beharko ditugu. Hau da pentsamolde ekonomikoaren izaera. Gure pentsamoldearen printzipio formalak (hauek gabe basoan galdurik egongo gara) aplikatzeko beste modu batek huts eginaraziko liguke. Metodo pseudo-matematikoek, kapitulu honen VI. atalean adieraziko dugunaren tankerakoek —azterketa ekonomikoaren sistema bati forma sinbolikoa ematen diotene—, oso akats larria egiten dute jokoan parte hartzen duten faktoreek independentzia zorrotza dutela espreski suposatuz, eta hipotesi hau baztertuz gero, metodo horiek beren indar logiko eta

ospe guztia galtzen dutela adieraziz. Arrazoiketa arruntean, non itsuki manipulatzeko ez den, baizik eta zer egiten ari den eta hitz bakoitzak zer esan nahi duen uneoro jakiten den, gure «adimenaren baitan» gorde ditzakegu beharrezkoak diren murrizpen eta mugapen guztiak, baita ondoren egin beharreko zuzenketak ere, eta beraz, ezingo ditugu hainbat algebra-eroritako «atzeko aldeetan» adierazten diren diferentzial partzial zailak era berean gogoratu, non guztiak nuluak direla suposatzen den. Ekonomia «matematiko» berriaren zati handiegia nahaste hutsa da, oinarri dituen jatorrizko suposizioak bezain zehazgabea, eta horrek egileari aukera ematen dio mundu errealeko konplexutasunak eta elkarrekintzak baliogabeko eta handinahi hutsezko sinboloen nahaste-borrastearen artean galaraztea.

IV

1) Diru-kantitatearen aldaketak eskari efektiboaren bolumenean izango duen lehen ondorioa, interes-tasan duen eraginaren bidez gauzatuko da. Erreakzio bakarra hau izango balitz, ondorio koantitatiboa hiru elementuetatik erator liteke: a) likideziarekiko lehentasunaren kurbatik (diru berria hori jasotzeko prest dauden edukitzaileek zurga dezaten, interes-tasak zenbat jaitsi beharko duen adierazten digu), b) eraginkortasun marjinalaren kurbatik (interes-tasaren jaitsiaren ondorioz inbertsioa zenbat handiagotuko den adierazten digu) eta c) inbertsioaren biderkatzailetik (inbertsioaren igoera jakin batekin eskari efektiboa, oro har, zenbat igoko den adierazten digun).

Baina azterketa hau baliagarria izanik ere, gure ikerketan ordena eta metodoa ezartzen duen aldetik egiazkoa ez den sinplizitatea sartzen du, a), b) eta c) puntuak oraindik kontuan hartu gabeko 2), 3), 4) eta 5) eragozpen-elementuen osagai direla bazter uzten baitu; izan ere, likideziagatik lehentasunaren kurba bera produktu eta sarreren zirkulazioak zurgatzen duen diru berriaren kantitatearen arabera da, eta era berean, zirkulazioa bera eskari efektiboa handiagotzen den proportzioarena, hala nola gehikuntza hori prezio-, alokairu-igoeraren eta output- eta enplegu-bolumenaren artean banatzen den modua. Are gehiago, eraginkortasun marjinalen kurba, hein batean, diru-kan-

titatearen igoeraren menpe dauden baldintzek diru-egoeraren etorkizuneko aukerei buruz dituzten aurreikuspenen araberrakoa izango da. Eta azkenik, biderkatzailea, eskari efektiboaren gehikuntzatik sortutako sarrera berria kontsumitzaile-mota desberdinen artean banatzen den moduaren araberrakoa izango da. Elkarrekintzei buruzko zerrenda hau ere ez da osoa, jakina. Dena den, ekintza guztiak gogoan baditugu, aldebereko nahikoa ekuazio izango ditugu emaitza jakin bat lortzeko. Guztia kontuan hartu ondoren, eskari efektiboaren zenbatekoaren hazkuntza-bolumen zehatz bat diru-kantitatearen igoerari dagokiona izango da eta honekin orekan egongo da. Horrez gain, oso egoera berezietan baino ez da gertatzen diru-kantitatearen hazkuntza eskari efektiboaren zenbatekoaren *murritzetarekin* lotuta.

Eskari efektiboaren bolumenaren eta diru-kantitatearen arteko proportzioa oso estu dagokio sarritan «diruaren sarrera-abiadura» deiturikoari —eskari efektiboa, ekoizpena abiarazi zuen eta aurreikusia izan den sarrerari, eta ez benetan jasotzen denari, dagokiona denean salbu— baita sarrera gordinari ere, baina ez netoari. Baina «diruaren sarrera-abiadura», berez, ezer azaltzen ez duen izen hutsa da. Ez dago konstantea izango dela itzaroteko arrazoirik; izan ere, aurreko azterketan ikusi den legez, faktore aldakor eta konplexu ugariaren araberrakoa da. Termino hori erabiltzean, nire ustez, arrazoi nagusiaren izaera erreala ilundu egiten du eta nahasteak besterik ez ditu sortu.

2) Lehen ikusi dugunez, (72. or.) beheranzko errendimenduen eta errendimendu konstanteen arteko bereizketa, hein batean, langileei beren eraginkortasunaren araberrako proportzio zehatzean ordaintzearen araberrakoa da. Horrela balitz, enpleguak gora egindakoan lan-kostu konstanteak izango genituzke (alokairu-unitateetan). Baina hainbat langile-motaren alokairua uniforme bada, norbanakoen eraginkortasunari begiratu gabe, gero eta lan-kostu handiagoak izango ditugu, ekipamenduaren eraginkortasuna edozein izanik ere. Gainera, ekipamendua homogeneoa ez bada eta horren zatiren batek output-unitateko lehenkostu handiagoa badu, edozein unetan goranzko lehenkostu marjinalak izango ditugu, lanaren kostu handiagoen ondorioz.

Horregatik igoko da, oro har, eskaintza-prezioa ekipamendu jakin baten ekoizpena handiagoa izan ahala. Horrela, outputaren hazkuntzaren ondoren prezio-igoera izango da, alokairu-unitatean izaten den edozein aldaketaz aparte.

3) 2) atalean eskaintzaren malgutasuna ez perfektua izateko aukera hartu dugu kontuan. Erabiltzen ez diren baliabide espezializatuak dagozkien kantitateetan oreka perfekturik badago, baliabide hauetarako guztiak aldi berean iritsiko dira enplegu betearen egoerara. Baina normalean, zerbitzu eta ondasun batzuen eskariak maila bat hartuko du eta, hortik gora, eskaintza perfektuki malgutasunik gabekoa izango da, baita beste norabide batzuetan oraindik ere enplegurik gabeko baliabide ugari sobera egonda ere. Horrela, outputak igo ahala, behin eta berriz hainbat «butxadura» gertatuko da, eta egoera hauetan zenbait ondasunen eskaintzak malgua izateari utzi egiten dio eta beren prezioek beharrezko mailara igo behar dute, hau edozein izanik ere, eskaria beste norabide batzuetara desbideratu ahal izateko.

Gerta liteke prezioen maila orokorra asko ez igotzea outputak gora eginda, enplegurik gabeko era orotako baliabide eraginkorrak dauden bitartean. Baina outputa «butxadurak» izaten hasteko nahikoa igo bezain laster, gerta liteke hainbat salgairen prezioetan igoera bortitza gertatzea.

Dena den, 3) pasarte honetan nahiz 2)an adierazitako guztiari dagokionez, eskaintza-malgutasuna hein batean denboraren funtzioa da. Ekipamenduaren kantitatea aldatzeko behar den denbora-tartea hartuz gero, eskaintza-malgutasunak zertxobait handiagoak izango dira behin-behinekoak. Horrela, langabezia handiko egoeratan eskari efektiboan izandako erdi-mailako aldaketak oso eragin txikia izan dezake prezioak igotzen, eta oso eragin handia enplegua gehitzen; baina maila handiagoko beste bat (ustegabekoa izanik, aldi baterako «butxadurak» eragiten dituenak), prezio-igoeran xahutuko da, eta ez enpleguarenean. Gainera hasieran bukaeran baino proportzio handiagoan.

4) Alokairu-unitateak enplegu beteko egoerara iritsi aurretik igotzeko joera eduki ahal izateak azalpen gutxi behar du. Langile-talde bakoitzak bere alokairu propioen igoerarekin, *ceteris paribus*, irabazten aterako diren unetik, jakina, talde guztientzat norabide honetaranzko presioa egongo da, eta enpresarioek presio hori onartzeko prestutasun handiagoa izango dute negozio hobeak egiten ari direnean. Hau dela eta, gerta liteke alokairu-unitatearen goranzko joera asetakoan, eskari efektiboaren edozein igoeraren zati bat zurgatzea.

Horrela, enplegu betearen azken maila kritikoaz gain (non diru-unitatetan emandako eskari efektiboaren igoeraren erantzun gisa,

diru-alokairuek gora egin behar duten langileentzako kontsumo-ondasunen prezio-igoeraren proportzio berean, lehenagoko puntu erdikritikoen jarraipena izango dugun) eskari efektiboaren hazkundeak alokairu nominalak igoarazi egiten ditu, nahiz eta beheranzko eskari efektiboarekin gertatzen den moduan igoera hori langileentzako kontsumo-ondasunen prezio-igoeraren proportzio berean izan ez. Egia esan, eskari efektiboan izandako aldaketa txiki bakoitzaren erantzun gisa, alokairu-unitatea ez da uniformeki aldatzen, diru-terminoetan, jauzika baizik. Jarraitasunik gabeko jauzi hauek langileen psikologiaren eta nagusi eta langile-sindikatuaren politikaren menpe daude. Sistema irekia denean, non jarraitasun falta horrek beste nonbait izandako alokairu-kostuekiko aldaketarik egon dela adierazten duen, eta ziklo ekonomikoan, non sistema itxia izanik ere etorkizunerako espero diren alokairu-kostuekiko aldaketarik adieraz dezakeen, baliteke nahikoa garrantzi praktikorik izatea. Batek sinets lezake, ikuspunturen batetik begiratuta, jarraitasunik gabeko jauzi hauek, non eskari efektiboaren ondorengo gehikuntzak alokairu-unitatean jarraitasunik gabeko igoera sorraraz dezakeen, enplegu betearen egoerako eskari efektiboaren hazkuntzarekin izaten den inflazio absolutuarekin nolabaiteko antza duten (batere perfektua ez bada ere) erdi-inflaziozko egoerak direla. Horrez gain, garrantzi historiko handia dute. Baina ezin dira orokortasun teorikoak egin.

5) Gure lehen sinplifikazioa kostu marjinalen sartzen diren faktore guztien ordainketak guztiak proportzio berean aldatzen direla suposatzea izan zen; baina, berez, faktore desberdinen diruzko ordainketa-motek zurruntasun-maila desberdinak izango dituzte, eta eskaintza-malgutasun desberdinak izan ditzakete eskainitako diruzko ordainketetan izandako aldaketen erantzun gisa. Horregatik ez balitz, prezio-mailak bi osagai dituela esan genezakeen: alokairu-unitatea eta enplegu-bolumena.

Agian, kostu marjinalaren —zeina alokairu-unitateak ez bezalako proportzioan aldatzeko gai den, baita askoz ere muga zabalagoen arteko gorabeherak izateko ere—elementurik garrantzitsuen erabil-kostu marjinala da. Izan ere, hau bortizki igo daiteke enplegua hobetzen hasten denean, baldin eta (seguraski gertatuko den moduan) goranzko eskari efektiboak ekipamendua ordezkatu beharko den datan indarrean dauden aurreikuspenetan aldaketa azkar eragiten badu.

Helburu askotarako oso erabilgarria bada ere, lehen hurbilketa gisa, lehenkostu marjinallean sartzen diren faktore guztien ordainketak alokairu-unitateen proportzio berean aldatzen direla suposatzea, agian egokia izan liteke lehenkostu marjinallean sartzen diren faktoreen ordainketei dagozkien batez besteko haztatua hartzea, eta *kostu-unitatea* deitzea. Horrela, kostu-unitatea, edota, aurreko hurbilketari dago-kionez, alokairu-unitatea, balioaren oinarritzko patroitzat har daiteke. Eta prezio-maila, teknika eta ekipamenduaren egoera kontuan hartuta, hein batean kostu-unitatearen arabera izango da, eta hein batean outputaren mailarena, eta outputak gora egiten duenean, prezio-maila igo egingo da kostu-unitatean izaten den edozein igoera baino *gehia* - *go*, proportzionalki, epe laburreko beheranzko errendimenduen prin-tzipioari jarraituz. Outputak maila bat hartu badu eta maila horretan ekoizpen-faktoreen unitate adierazkor baten errendimendu marjinalak hartu duen balioa output hori lortzeko nahikoa faktore-kantitate ego-teko gutxieneko balioa bada, enplegu betea egongo da.

V

Eskari efektiboaren bolumenean beste hazkunde batek jada outputean igoerarik sortzen ez badu eta kostu-unitatea handiagotzea beste eraginik ez badu (eskari efektiboaren sendotzearen proportzio zehatzean), benetako inflazio gisa izenda genezakeen egoerara iritsi gara. Egoera honetara iritsi aurretik, diru-hedakuntzaren ondorioa gradu-kontua besterik ez da eta ez dago alde zurrerik non marra zehatz bat egin eta inflazio-baldintzak eragiten hasi direla esan dezakegun. Seguraski, alde zurrerik izan den diru-kantitatearen igoera bakoitzak, eskari efektiboa igoarazten duen neurrian, hein batean kostu-unitatearen igoera eragingo du eta hein batean outputaren gehikuntza.

Beraz, badirudi nolabaiteko asimetria dugula inflazioa azaltzen den maila kritikoa bi aldeetara, zeren eta maila horretatik behera egiten den eskari efektiboaren uzkuak eskari horren handitasuna murriztuko baitu, kostu-unitateetan neurrituta; baina maila horren gainetik egiten den eskari efektiboaren hedakuntzak ez du izango, nor-

malean, kostu-unitateetan handiagotzeko eraginik. Hau guztia, ekoizpenaren faktoreak, eta bereziki langileak, beren diru-ordainketek murrizketarik jasateari aurre egiteko prest egotearen eta diru-ordainketen igoerari aurre egiteko inolako arrazoirik ez egotearen ondorioz gertatzen da. Suposizio hau gertaeretan oinarritzen da, orokorra ez den aldaketa eragina jasaten duten faktore berezientzat onuragarria delako gorantza eragiten duenean, eta kaltegarria beherantza eragiten duenean.

Aitzitik, diru-alokairuak mugarik gabe jaitsiko balira, enplegu beteak baino maila baxuagoranzko joera legokeen bakoitzean, zalan-tzarik gabe, asimetria desagertu egingo litzateke. Baina kasu horretan enplegu beteak ez luke azpitik inolako mugarik izango, interes-tasa gehiago ezin jaitsi arte edo alokairuak zerora iritsi arte. Berez bere diru-balioa finkoa ala, gutxienez, zurruna izango duen faktore-ren *bat* izango dugu, diru-sisteman balioen egonkortasunen bat eman diezagun.

Diru-kantitatearen *edozein* igoerak inflazioa sorrarazten duela-ko iritzia (*inflazio* hitzak prezioak igotzen ari direla besterik esan nahi ez izatea ezik), teoria klasikoaren oinarritzko suposizio batekin lotuta dago, hau da, *beti*, ekoizpen-faktoreen benetako murrizketak beren eskaintza uzkuertza eramango duen egoeran gaudelako ustearekin.

VI

20. kapituluaren egindako oharren bidez, nahi izanez gero, ares-tian esandakoaren funtsezkoena sinbolikoki adieraz dezakegu.

Izan bedi $M, V = D, M$ diru-kantitatea, V bere sarrera-abiadura (definizio hau eta ohizko definiziotik datorren lehen adierazitakoa oso antzekoak dira) eta D eskari efektiboa izanik. V konstantea bada, prezioak diru-kantitatearen proportzio berean aldatuko dira, baldin eta $e_p (= D \frac{dp}{p} / F)$ eragiketaren emaitza unitatea bada. Baldintza hau $e_o = 0$ edo $e_w = 1$ denean betetzen da (308. or.). $e_w = 1$ baldintzak alokairu-unitatea, dirutan adierazia, eskari efektiboaren proportzio berean hazten dela esan nahi du, $e_w = D \frac{dS}{S} / D$

izaki; eta $e_o = 0$ delako baldintzak outputak eskari efektiboaren gehikuntzaren ondorioz jada ez duela inolako erreakziorik izango esan nahi du, $e_o = DdO/OdD$ izaki. Batean zein bestean, outputa aldatzeke mantenduko da.

Ondoren, sarrera-abiadura konstantea ez deneko egoerari helduko diogu, beste malgutasun berri bat sartuz, hau da, eskari efektiboaren malgutasuna diru-kantitatearen aldaketan aurrean.

$$e_d = MdD/DdM$$

Honek ondoko hau ematen digu:

$$Mdp/pdM = e_p \cdot e_d, \text{ non } e_p = 1 - e_e \cdot e_o (1 - e_w);$$

eta beraz,

$$e = e_d - (1 - e_w) e_d \cdot e_e \cdot e_o = e_d (1 - e_e \cdot e_o + e_e \cdot e_o \cdot e_w)$$

non azpindizerik gabeko $e (= Mdp/pdM)$ letrak piramide honen gailurra adierazten eta diru-kantitatearen aldaketan aurrean diru-prezioek izandako erreakzioa neurtzen duen.

Azken formula honek diru-kantitatearen aldaketaren erantzun gisa prezioak aldatzen diren proportzioa ematen digunez gero, diruaren teoria koantitatiboaren era orokortua bailitzan har daiteke. Nik neuk ez diet balio handirik ematen horrelako manipulazioei, eta beste batean egin nuen ohar bera egingo nuke, hau da, arrazonamendu arruntetan egiten diren bezainbeste suposizio tazitu egiten dira independentetzat hartu beharreko aldagaiei buruz (diferentzial partzialak erabat ahaztuz) eta, era berean, ez dut uste suposizio arrunt horrek baino urrutiago eramango gaituenik. Agian aldagai independente hauek idazteak duen hobere-na, prezio eta diru-kantitatearen arteko erlazioaren konplexutasun handia agerian uztea izango da (erlazio hori formalki adierazten saiatzen garenean). Dena den, merezi du honakoa nabarmentzea: diru-kantitateak prezioen arabera duen aldaketan ondorioa oinarritzen den e_d, e_w, e_e eta e_o lau terminoetatik, e_d terminoak egoera bakoitzean diru-eskaria finkatzen duten likidezi faktoreak adierazten dituela, e_w -k enplegua igota diru-alokairuen igoeraren zenbatekoa finkatzen duten lan-faktoreak (edota, zehatzago esan, lehenkostuan sartzen direnak), eta e_e eta e_o -k, jadaneko ekipamenduari lan gehiago aplikatzen zaionean beheranzko errendimenduen tasa finkatzen duten faktore fisikoak.

Jendeak bere diru-sarreraren proportzio konstantea gordetzen badu, $e_d = 1$; diru-alokairuak finkoak badira, $e_w = 0$; orokorrean errendimendu konstanteak badaude, horrela errendimendu marjinala eta batez besteko errendimendua berdinak izanik, $e_e \cdot e_o = 1$; eta eskularen nahiz ekipamenduaren enplegu betea badago, $e_e \cdot e_o = 0$

Alabaina, $e = 1$, baldin eta $e_d = 1$ eta $e_w = 1$; edo baldin eta $e_d = 1$, $e_w = 0$ eta $e_e \cdot e_o = 0$; edota baldin eta $e_d = 1$ eta $e_o = 0$. Eta, jakina, beste hainbat kasu berezi dago non $e = 1$ betetzen den. Baina, oro har, e ez da unitatea izango; eta, agian, mundu errealari buruzko suposizio logikoen arabera eta «diruaren ihesa» kanpoan utziz, non e_d eta e_w -ren balioak handiak izaten diren, ez da eragozpenik egongo, oro har, e bat baino txikiagoa bailitzan hartzeko.

VII

Orain arte diru-kantitatean gertatutako aldaketek epe laburrean prezioei nola eragiten dieten aztertzeaz arduratu gara, batez ere. Baina, ez al dago, epe luzera, erlazio sinpleagorik?

Arazo honek zerikusi handiagoa du orokortze historikoarekin teoria hutsarekin baino. Likideziagatiko lehentasunaren kurbaren epe luzeko uniformetasuna neurtzeko joeraren bat badago, era berean lehentasun hori asetzeko beharrezkoa den nazio-sarrera eta diru-kantitatearen arteko erlazio zakarragoa egon daiteke, baikortasun- eta ezkortasun-epéen batezbesteko orokorra hartuta. Interes-tasa minimo psikologikoaren gaintetik egoteko baldintzarekin, egon daiteke, esaterako, nazio-sarreraren nahikoa proportzio egonkorra, zeina jendeak modu ez emankorrean epe luzeetan gordeko ez duen; eta, beraz, zirkulazio aktiborako beharrezkoa den zenbatekoa gainditzen duen diru-kantitatea nazio-proportzio horren gaintetik badago, lehentxeago ala geroxeago, interes-tasak, gutxi gorabehera, minimo horretaraino jais-teko joera izango du. Orduan, beherantzako interes-tasak, *ceteris paribus*, eskari efektiboa igoarazi egingo du, eta goranzko eskari efektiboak maila erdikritiko batera edo batzuetara iritsiko da, eta bertan alokairu-unitateak igoera ez-jarraia izango du, prezioetan dagokion ondorioa izanik. Kontrako joerak gertatuko dira baldin eta soberako

diru-kantitatea nazio-sarreraren ohiz kanpoko proportzio txikia bada. Horrela, jendearen psikologiak lehentxeago ala geroxeago begiak jar-
tzen dituen diru-kantitatearen eta nazio-sarreraren arteko batezbeste-
koa finkatzea izango da, epealdi batez, gorabeheraren ondorio netoa.

Seguraski, joera hauek errazago mugituko dira gorantz, behe-
rantz baino; baina diru-kantitateak denbora luzez oso txikia izaten
jarraitzen badu, irtenbidea, seguraski, diru-sistema edo patroia alda-
tzea izango da. Horrela diru-kantitatea handiagotu egingo da, alokai-
ru-unitateari jaistera derrigortu beharrean, eta beraz, zorraren karga
handiagotu egingo da. Beraz oso epe luzeetan prezioen mugimenduek
izan duten bidea ia beti goranzkoa izan da, zeren eta dirua nahikoa
ugaria denean, alokairu-unitatea igo egiten baita; eta nahikoa eskasa
denean, nolabaiteko bidea aurkitu ohi da diruaren kantitate efektiboa
handiagotzeko.

Hemeretzigarren mendean zehar biztanleria eta asmakuntzak
ugaltzea, lur berrien ustiapenak, konfiantza-egoera eta batezbeste
(esaterako) hamar urteko maiztasuna zuten gerrak, kontsumitzeko
joerarekin batera, badirudi aski izan zirela kapitalaren eraginkortasun
marjinalaren kurba bat finkatzeko, zeinak pozik egoteko moduko
batezbesteko enplegu-maila ekarri zuen, hain zuzen, aberastasunen
jabe zirenek psikologikoki onartzeko moduko nahikoa interes-tasa
handiarekin bat etortzeko modukoa. Frogak egon badaude ia ehun eta
berrogeita hamar urtez, epe luzeko interes-tasa finantza-zentro nagu-
sietan ehuneko bost ingurukoa izan zela diotenak, eta lehen mailako
baloreen interes-tasa, ehuneko 3 eta 3,5 bitartekoa; eta interes-tasa
hauek nahikoa apalak ziren baxuegia ez zen batezbesteko enplegu-
mailarekin bat etorriko zen interes-tasa suspertzeko. Batzuetan alo-
kairu-unitatea, baina maizago patroia edo moneta-sistema (banku-
diruaren garapenaren bidez, bereziki) doitu egiten ziren harik eta diru-
kantitatea, alokairu-unitateetan, ohiko likideziazatik lehentasuna
asetzeko nahikoa izan arte, lehen adierazitakoak baino askoz txikia-
goak oso gutxitan ziren ohiko interes-tasen mailan. Normalean, alo-
kairu-unitatearen joera, ohi bezala, gorantzakoa zen irmoki, baina
lanaren eraginkortasuna ere gorantz joaten zen. Horrela, indar-ore-
kak prezioetan egonkortasun-maila egokia izatea ahalbidetzen zuen
—1820 eta 1914 bitartean, Sauerberck-en indize-zenbakien bosturte-
roko batezbesteko garaiena, baxuena baino % 50 handiagoa besterik

ez zen izan—. Hori ez zen ustekabea gertatu; oso ondo adierazi denez, garai hartan patroi-talde indibidualak nahikoa indartsuak ziren alokairu-unitatea ekoizpenaren eraginkortasuna baino askoz azkarra-
go igo zedin saihesteko, eta garai hartan, moneta-sistemak aldi bere-
an nahikoa bizkorak eta nahikoa kontserbakorrak ziren, horrela aber-
astasunen jabe zirenek, beren likideziagatiko lehentasunaren eragin-
pean, erraz onartuko zuten interes-tasaren batezbesteko minimoan
irauteko bidea eskainiko zuen batezbesteko diru-horniketara, alokairu-
unitateetan, eskaintzeko moduan. Batezbesteko enplegu-maila, jakina,
enplegu betearen nahikoa azpitik zegoen, baina aldaketa iraultzaileak
eragin zitzakeen maila jasanezina iritsi arte.

Gaur egun, eta seguraski baita etorkizunean ere, kapitalaren
eraginkortasun marjinalaren kurba, hainbat arrazoi direla medio,
hemeretzigarren mendeko kurbaren oso azpitik dago. Gure arazoen
zorroztasuna eta berezitasuna, batezbesteko interes-tasak batezbeste-
ko enplegu-maila onargarria izatea eragingo duela dioena, guztiz
onartezina da aberastasunen jabeentzat eta, beraz, ezin finka daiteke
erraz diru-kantitatearen manipulazio hutsen bidez. Bat, bi edo hiru
hamarkadatan enplegu-maila jasankorra lortu ahal izanik, diru-
eskaintza egokia ziurtatuz, alokairu-unitatetan, hemeretzigarren men-
dean ere bidea aurkitzeko gai izan ziren. Gaur egun arazo bakarra hau
izango bagenu —behar dugun guztia behar adinakoa baliogalera-
maila izango balitz—, zalantzarik gabe, gaur egun ere irtenbidea aur-
kituko genuke.

Baina elementurik egonkorrena, eta gure egungo ekonomian
lekuz aldatzen zailena, orain arte, eta agian baita etorkizunean ere,
aberastasunen jabe diren guztiek onartuko duten gutxieneko interes-
tasa da.¹³⁶ Enplegu-maila jasankorrak XIX. mendean zeuden interes-
tasen batezbestekoaren oso azpitik egongo den interes-tasa eskatzen
badu, oso zaila izango da diru-manipulazio hutsen bidez interes-tasa
hori lortzea. Kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurbak zordu-
nari irabaztea espero dezakeela adierazten dion ehunekotik, ondoren-
goa kendu behar da: 1) mailegu-emaile eta mailegariak harremanetan
jartzeko kostua, 2) sarreraren gaineko zerga eta zerga gehigarriak eta
3) mailegu-emaileak bere arrisku eta ezjakintasuna estaltzeko eska-
tzen duen marjina, aberastasun-jabeak bere likidezia sakrifikatzea
tentatzeko errendimendu neto eskuragarria iritsi aurretik.

Batezbesteko enplegu-maila jasankorra denean, errendimendu neto hau infinitesimala bada, agian metodo tradizionalak ez dira eraginkorrak izango.

Gure berehalako gaira itzuliz, nazio-sarrera eta diru-kantitatearen arteko epe luzeko erlazioa likideziagatiko lehentasunen arabera izango da. Eta prezioen egonkortasuna edo desegonkortasuna epe luzeetan, ekoizpen-sistemaren eraginkortasunaren hazkunde-tasarekin alderatuta, alokairu-unitatearen (edo, zehazkiago esan, kostu-unitatearen) goranzko joerak duen indarraren arabera izango da.

VI. LIBURUA

Teoria orokorrak iradokitako ohar laburrak

XXII. KAPITULUA

Ziklo ekonomikoari buruzko oharrak

Aurreko kapituluetan edozein unetan enplegu-bolumena zerk finkatzen duen frogatu dugula uste dugunez, zuzen bagabiltza gure teoriak ziklo ekonomikoaren fenomenoak azal ditzakeela ondoriozta dezakegu.

Ziklo ekonomikoaren edozein adibide errealean xehetasunak aztertzen baditugu, oso konplexua dela eta erabat azaltzeko gure analisiaren elementu guztiak beharko ditugula ikusiko dugu; bereziki, kontsumitzeko joeraren gorabeherak, likideziagatiko lehentasunarenek eta kapitalaren eraginkortasun marjinalarenek, guztiek ere beren egitekoa bete dutela, alegia. Baina ziklo ekonomikoaren oinarritzko izaera, eta bereziki, denbora-sekuentziaren eta *ziklo* deitzea justifikatzen duen epearen erregularitatea, batez ere kapitalaren eraginkortasun marjinalak gorabeherak izateko moduaren ondoriozkoa da. Nire ustetan, hoberena, ziklo ekonomikoa kapitalaren eraginkortasun marjinallean izandako aldaketa ziklikoaren ondoriozkoa bailitzan hartzea da, aldaketa hori nahikoa nahasia izan arren eta, sarritan, sistema ekonomikoaren epe laburreko bestelako aldagai garrantzitsuekin lotutako aldaketek okertzen duten arren. Tesi hau garatzeko kapitulua ez eta liburua beharko litzateke, eta gertaerak zehatz-mehatz aztertu beharko lirateke; baina ondorengo ohar laburrak aski izango dira gure aurreko teoriak iradokitzen duen ikerketa-ildoan adierazteko.

I

Mugimendu *zikliko* gisa honakoa esan nahi dugu: esaterako, sistemak gorantz jotakoan, norantza horretan bultzatzen duten indarrek hasieran bulkada jaso eta batzuek besteen gaineko metatze-ondorioak sorrarazten dituztela, baina pixkanaka beren potentzia galduz doazela, harik eta une batean kontrako norantzan eragiten duten indarrek ordezkatzten dituzten arte; era berean, azken indar hauek denboraldi batez bulkada jaso eta elkar sendotu egingo dute, beren garapen gorenera iritsita, erori eta beren aurkakoei tokia utzi arte. Hala ere, mugimendu zikliko gisa ez dugu besterik gabe goranzko eta beheranzko joera horiek, hasiz gero, mugagabe norantza berean eragin gabe, azkenean kontrako norantza hartzen dutenik esan nahi; horrez gain, goranzko eta beheranzko mugimenduen sekuentzian eta iraupenean nolabaiteko erregulartasuna dagoela adierazi nahi dugu.

Dena den, gure azalpena egokia izan dadin, ziklo ekonomikoa deiturikoaren beste ezaugarri bat bete behar du; alegia, *krisiaren* fenomenoak —beheranzko bulkada goranzko beste batek ordezkatzekoak sarritan bat-batean eta bortizki gertatzea, eta aitzitik, goranzko beheranzko beste batek ordezkatzten duenean inflexio-puntua horren nabarmena ez izatea—.

Kontsumitzeko joeraren aldaketarekin orekatua ez dagoen inbertsioen *edozein* gorabeherak, jakina, enpleguan ere gorabehera eragingo du. Beraz, inbertsio-bolumena oso eragin konplexuen menpe dagoenez gero, oso zaila litzateke gorabehera guztiek, inbertsioetan bertan nahiz kapitalaren eraginkortasun marjinaletan gertatu, izaera ziklikoa izatea. Kapitulu honen beste atal batean kasu berezi bat aztertuko dugu: nekazaritzako gorabeherak. Dena den, XIX. mendeko giroan industri ziklo tipikoan, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren gorabeherak ezaugarri ziklikoak izateko arrazoiak bazeudela iradokitzen dut. Arrazoiak ez dira, inola ere, ezezagunak, ez beraiei dagokienez eta ez ziklo ekonomikoaren azalpen gisa. Hemen, nire asmo bakarra aurreko teoriarekin lotzea da.

II

Esan beharrekoa hobeto adieraziko dut goraldiaren azken etapak eta «krisiaren» lehen urratsak azaltzen hasita.

Lehen ikusi dugunez, kapitalaren eraginkortasun marjinala,¹³⁷ kapital-ondasunen ugaritasun edo urritasunaren eta hauen ohizko ekoizpen-kostuaren arabera izateaz gain, kapital-ondasunen etorkizuneko errendimenduari buruz egun dauden aurreikuspenen baitakoa ere bada. Ondasun iraunkorrei dagokienez, normala eta arrazoizkoa da, beraz, etorkizuneko aurreikuspenek inbertsio berriak gomen-dagarriak diruditeneko eskala finkatzeko eginkizun nagusia izatea. Baina, ikusi dugunez, tankera honetako aurreikuspenak izateko oinarriak oso ahulak dira. Froga aldakor eta seguru ez direnetan oinarrituta daudelarik, bat-bateko aldaketa bortitzen eraginpean daude.

Dena den, «krisiak» azaltzean azpimarratu izan dugu diru-eskari handiagoaren eraginpean interes-tasak igotzeko joera izan ohi duela, bai merkataritzarako eta bai espekulatzeko denean. Zalantzarik gabe, faktore honek batzuetan egoera larriaraz dezake, eta zenbaitetan hastapen-faktore gisa joka dezake. Baina nire iritziz krisiaren azalpenik ohizkoena, eta sarritan nagusia, ez da interes-tasaren igoera, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren bat-bateko kolapsoa baizik.

Goraldiaren azken etapen ezaugarri nagusia kapital-ondasunen etorkizuneko errendimenduari buruzko aurreikuspen baikorrak izatea da, eta hauek nahikoa indartsuak dira bere goranzko ugaritasuna eta bere ekoizpen-kostu gorakorrek orekatzeko, eta seguraski, baita interes-tasaren igoera orekatzeko ere. Antolatutako inbertsio-merkatuetan gertatu ohi denez, erosten ari direnari buruz deus ez dakiten erosleen eraginpean (hala nola kapital-ondasunen etorkizuneko errendimenduari buruzko balioespen arrazoitua egitean baino, merkatuaren iritzia hurrengo desplazamenduan interes handiagoa duten espekulatzailen eraginpean ere, merkatu baikorregi eta gainbaloratutako bat zapuztu egiten denean), gainbehera bortitza edota hondamendia¹³⁸ izaten du. Gainera, kapitalaren eraginkortasun marjinalan izandako gainbeherarekin bat datorren etorkizunari buruzko ezkortasunak eta ziurgabetasunak, igoera erabakigarria azkartu egiten du likideziagatiko lehentasunean —eta ondorioz, interes-tasa igo egiten da—.

Horrela, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren gainbeheraren ondoren interes-tasa igotzeak oso eragin larria izan dezake inbertsioaren jaitsieran. Baina horren guztiaren funtsezkoena, dena den, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kolapsoan dago, batez ere inbertsio berri handien aurretiazko fasean parte handiena izan duten kapital-motei dagokienez. Likideziagatiko lehentasuna, merkataritza eta espekulazioaren igoerarekin lotura duenean izan ezik, ez da kapitalaren eraginkortasun marjinalak behea jo eta *ondoren* arte igoko.

Hauxe da beheraldiaren azterketa horren zaila egiten duena. Ondoren, interes-tasaren jaitsiera oso lagungarria eta, seguraski, nahitaezkoa izango da leheneratzeko. Baina, oraingoz, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kolapsoa horren osoa izan daiteke ezen interes-tasan egin daitekeen inolako murrizketa nahikoa ez izatea gerta baitaiteke. Interes-tasaren jaitsiera, berez, konponbide eraginkorra eskaintzeko gai izango balitz, oso luze jo gabe leheneratzera iritsi liteke, eta diru-agintaritzaren kontrol handiago ala txikiagoren menpe leudekeen bideak erabilita iritsi ere. Baina, berez, hori ez da gertatu ohi, eta kapitalaren eraginkortasun marjinala biziberritzea ez da horren erraza, negozio-munduko psikologia gidaezin eta managaitzak zehazten duen heinean. Hitz arruntak erabiliz, kapitalismo indibidualaren ekonomian, konfiantza itzularazteko zailtasunean dago gakoa. Hau da, hain zuzen, bankari eta negoziozaleek arrazoi osoz azpimarratu izan duten beheraldiaren alderdia, eta beren fedea konponbide «ekonomiko hutsean» jarri duten ekonomialariek baztertu egin dutena.

Honek interesatzen zaidan puntura narama. *Denbora-elementua* ziklo ekonomikoan, hau da, leheneratzea hasi aurretik, normalean, nahikoa denboraldi handia pasa behar horren azalpena, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren leheneratzea agintzen duten eraginetan bilatu behar da. Arrazoi batzuk badira, lehenik eta behin garai jakin batean hazkunde-tasa normalarekiko bizialdi luzea duten ondasunen iraupena, eta bigarrenik izakin soberakinen biltegiarazte-kostuak, eta horiek direla eta beheranzko mugimenduaren iraupenak ustekabekoa ez den magnitudea izan behar du (ez duela, eman dezagun, urte beteko gorabehera orain eta hamar urtekoa gero), aitzitik, esate baterako, hiru eta bost urte bitarteko ohizko erregulartasuna du.

Itzul gaitezen krisietan gertatzen dena aztertzeraz. Goraldiak

segitzen duen bitartean, inbertsio berri gehienek pozik egoteko moduko ohizko errendimendua dute. Errendimendu probablearekiko izan daitekeen itxaropenari buruzko zalantzak sortzen direlako etorri ohi da zapuzketa, agian oraingo errendimenduak berriki sortutako ondasun iraunkorren stockak gora egin ahala beheranzko joera duelako. Ekoizpen-kostu arruntak gero izango direna baino garestiagoak direla uste bada, kapitalaren eraginkortasun marjinala jaisteko beste arrazoi bat egongo da. Zalantza sortu ondoren, azkar asko hedatzen da. Horregatik, beheraldiaren hasieran seguraski kapital asko dago bere eraginkortasun marjinala zero edota negatiboa izatera iritsi dena. Baina erabilera, gainbehera eta zaharkitzeagatik kapitalaren uzkurketa eraginkortasun marjinala handiagotzeko adinako eskasia sorrarazi aurretik pasa beharko den denboraldia, garai bateko kapitalaren batezbesteko iraupenaren nahikoa funtzio egonkorra izan daiteke, garai jakin batean. garai horretako ezaugarriak aldatu egiten badira eredutzat erabiltzen den denboraldia aldatu egingo da. Biztanleria ugaltzen ari den garaitik biztanleria urritzen ari denera igarotzen bagara zikloaren ezaugarri den fasea hedatu egingo da. Baina aurrekoan funtsezko arrazoiak dugu beheraldiaren iraupenak ondasun iraunkorrenarekin eta garai jakin bateko hazkundearen ohizko tasarekin jakineko erlazioa zergatik eduki behar duen azaltzeko.

Denbora egonkorren faktoreetarik bigarrena, izakin-soberakinen biltegitratze-kostuek izakinak epe baten barruan —ez oso luzean, ez oso laburrean— zurga daitezen eragitearen ondoriozkoa da. Kriaren ondoren inbertsio berriak bat-batean bertan behera uzteak seguraski amaigabeko gaien soberako stocka sorraraziko du. Izakin hauen biltegitratze-kostuak gutxitan izango dira urteko %10 baino txikiagoak. Horrela, beren prezioen jaitsierak behar adinakoa izan beharko du, harik eta izakinetan murrizketa sorrarazi eta, gehienez ere, hiru eta bost urte bitartean, zurga daitezen. Dena den, izakinak zurgatzeko prozesuak inbertsio negatiboa adierazten du, eta hau ere enpleguaren aurkakoa da; eta igaro ondoren, lasaitasun positiboa sentituko da.

Gainera, outputaren jaitsierarekin batera, beheranzko fasean, nahitaez gertatzen den kapital zirkulatzailaren murrizketa desinbertsioaren beste elementu bat da, eta hau handia izan daiteke; eta atzeraldia hasi delarik, beste elementu honek metatze-eragin handia du beherantz. Beheraldi tipikoaren lehen fasean, seguraski, izakinen

gehikuntzan inbertitu egingo da eta hori kapital zirkulatzailearen desinbertsioa neutralizatzeko lagungarria izango da; hurrengo fasean desinbertsio-epe laburra egon daiteke, bai izakinetan eta bai kapital zirkulatzailean; maila minimora iritsi ostean, seguraski beste desinbertsio bat agertuko da izakinetan, kapital zirkulatzailearen berrinbertsioak neurri batean orekatu egingo dituelarik; eta, azkenik, leheneratzea nahikoa aurreratua dagoenean, bi faktoreak aldi berean izango dira inbertsioaren aldekoak. Aurreko horri jarraituz, inbertsioaren gorabeheren faktore gehigarriak eta gainjarriak aztertu behar dira ondasun iraunkorretan. Inbertsio-mota honetako jaitsierak gorabehera zikliko bat abiarazi duenean, errekuiperatzeko pizgarri gutxi egongo da, harik eta zikloak bere bidearen zati bat ibili arte.¹³⁹

Tamalez, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren jaitsiera garrantzitsuak kontsumitzeko joerari kontrako eran eragiteko joera izaten du; izan ere, burtsan errendimendu aldakorra duten baloreek, merkatuan nahikoa balio txikiagoa izatea eragiten dute. Dena den, honek oso eragin zapuztailea eragiten du balore-burtsako beren inbertsioez aktiboki arduratzen dutenengan, batez ere mailegatutako fondoak badira. Jende honen gastatzeko prestutasunean agian eragin handiagoa izango dute bere inbertsioen balioan izandako gorakada eta beherakadek, bere sarreren egoerak baino. «Akziodun-mentalitatea» duen jendearekin (gaur egungo Estatu Batuetakoarekin, kasu), goranzko balore-merkatuak ia funtsezko baldintza izan daitezke jendea pozik egoteko moduko kontsumitzeko joera eman dadin; eta gertaera honek, orain dela gutxi arte normalean bazter utziak, argi dago kapitalaren eraginkortasun marjinallean izandako jaitsieraren beheraldi-ondorioa gehiago larrituko duela.

Bizkortzeari ekin ostean, argi dago bere burua nola elikatuko duen eta nola haziko den. Baina beheranzko fasean, bai kapital finkoa eta bai material-stockak handiak direnean eta kapital zirkulatzailea murrizten ari delarik, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba asko jaitsi daiteke, eta zaila izango da interes-tasan egin daitekeen edozein murrizketaren bidez zuzentzea. Horregatik egungo eraginen menpe dauden merkatu antolatuen bidez, merkatuak kapitalaren eraginkortasun marjinalaz egiten duen balioespenak oso gorabehera handiak izan ditzakeenez, agian ezingo dira interes-tasaren gorabeheren bidez behar adina neutralizatu. Gainera, lehen ikusi dugunez, balore-

en merkatuan ondoren izango diren mugimenduek kontsumitzeko joera zapuztu dezakete, hain zuzen ere, beharrezkoen denean. Beraz, *laissez faire*-ko egoeran, agian ezinezkoa izango da enpleguan izaten diren gorabehera handiak saihestea inbertsio-merkatuen psikologian goitik beherako aldaketa izan gabe, eta ez dago arrazoirik aldaketa hori gertatu egingo dela espero izateko. Hortaz, honakoa ondorioztatut dut: egungo inbertsio-bolumena antolatzeko beharra, segurtasunez, partikularren esku ezin utz daitekeela.

III

Badirudi aurreko azterketa gaininbertsioa goraldiaren ezaugarria izatearekin bat datorrela, hurrengo beheraldia alde batera uzteko bide bakarra gaininbertsio hori saihestea dela, eta, lehen adierazitako arrazoiak direla eta, gaininbertsio hori interes-tasaren jaitsieraren bidez eragotzi ezin bada ere, goraldia interes-tasa handiaren bidez eragotz daitekeela diotenek ikuspuntuarekin bat datorrela. Egia esan, goraldiaren aurkako interes-tasa handiak beheraldiaren aurkako beste txikiagoak baino eraginkortasun handiagoa duela dioen argudioak indarra du.

Baina aurrekotik ondorio horiek ateratzeak nire azterketa oker interpretatzera eramango luke; eta, nire iritziz, akats handia izango litzateke. Izan ere, gaininbertsio hitza ez da hitz zehatza. Inbertsioak bultzatu zituzten aurreikuspenak zapuztera bideratutako inbertsioei buruzkoa edo langabezi handiko egoeratan tokirik ez dutenei buruzkoa izan daiteke; edota kapital-ondasunetako mota-bakoitza oso ugaria izateagatik, enplegu beteko egoeran ere, bere iraupenaldian bere ordezkapen-aldian baino gehiago irabaztea espero daitekeen inbertsiorik ez dagoen egoera adieraz dezake. Azken egoeran baizik ez dago gaininbertsiorik, zehazki hitz eginda, ondorengo inbertsioa baliabideen alferrik galtze hutsa besterik ez izatearen zentzuan.¹⁴⁰ Horrez gain, zentzu honetan ulertutako gaininbertsioa goraldiaren ezaugarri arrunta izango balitz ere, horren konponbidea ez litzateke bat-batean interes-tasa handia ezartzea izango, zeinak seguraski inbertsio baliagarri batzuk atzera botako lituzkeen eta kontsumitzeko joera

are eta gehiago murriz lezakeen; aitzitik, kontsumitzeko joera bultzatuko luketen neurri zorrotzak hartu beharko lirateke, sarrerak beste era batera banatuz edo beste modu baten bidez.

Nolanahi ere, nire azterketaren arabera, azken zentzu honetan baino ezingo da esan goraldiaren ezaugarria gaininbertsioa denik. Tipiko gisa adierazten ari naizen egoera ez da kapitala oso ugaria den egoera, eta beraz, jendeak, oro har, kantitate gehiagoren arrazoizko erabilpena ezingo duen egoera, baizik eta inbertsioa baldintza eze-gonkorretan eta manten ezinezkoetan egingo den egoera, inbertsioa huts egingo duten aurrikuspenek bultzatu dutelako.

Jakina, gerta liteke —egia esan, seguraski horrela gertatuko da— goraldiaren pozak hainbat kapital-ondasun oso ugari ekoiztaraztea, eta edozein irizpideren baitan ere, outputaren zati bat baliabideen alferrik galtzea izatea —goraldirik ez dagoenean ere, erants dezakegu, batzuetan gertatu ohi da, bestalde—. Hau da, *gaizki bideratutako* inbertsiora darama. Baina, honez gain, goraldiaren funtsezko ezaugarria da, enplegu betearen baldintzetan, esaterako, ehuneko 2ko errendimendu erreala duten inbertsioak, demagun, ehuneko 6ko aurreikuspenetan oinarrituz egitea, eta honen ondorioz balioztatzea. Zapuzketa datorrenean, aurreikuspen honen ordez «ezkortasun akatsa» erabiltzen da, eta ondorioz, enplegu betearen egoeran berez ehuneko 2ko errendimendua emango zuketena inbertsioetatik, kantitate negatiboa espero da; eta inbertsio berrien ondoriozko kolapsoak langabezi egoerara garamatza eta bertan enplegu betearen egoeran ehuneko 2 ekoiztuko zuketena inbertsioek, berez, zero baino gutxiago ematen dute. Etxe-eskasia dagoen, baina daudenetan bizitzeko kostua inork ezin ordain dezakeen egoerara iritsi gara.

Beraz, goraldiaren konponbidea ez da interes-tasa handiagoa, txikiagoa baizik!;¹⁴¹ azken honek goraldia deiturikoa luza baitezake. Ziklo ekonomikoarentzat konponbide egokia ezin izan daiteke goraldiak saihestea (horrela erdi-beheraldi iraunkorren egoeran mantentzeko), baizik eta beheraldiak saihestea, horrela ia goraldi-egoera jarraian mantentzeko.

Beheraldi gisa amaitzeko xedea duen goraldia, beraz, bi gauza batera gertatuta sortzen da: batetik aurreikuspen zuzenekin, enplegu beterako garaiegia izango litzatekeen interes-tasarekin, eta bestetik, aurreikuspen-egoera okerrarekin, honek iraun bitartean interes-tasa

benetako eragozpena izatea saihestu egiten duelarik. Goraldian, gehiegizko baikortasunak hotzean begiratura gehiegizkoa irudi leza-keen interes-tasa gailendu egiten du.

Gerra dagoenean izan ezik, ez dut uste enplegu betearen egoe-rara eramango lukeen horren goraldi indartsuaren hurbileko experien-tziarik dugunik. Estatu Batuetan enplegu-maila oso ona izan zen 1928-29. urteetan, ohizko mailen arabera; baina ez dut eskulanaren eskasari buruzko inolako berririk izan, goi-mailan espezializatutako langile-talde batzuei dagokienez izan ezik. Hainbat «butxadura» ger-tatzera iritsi zen, baina outputa, oro har, oraindik ere gehiago zabal-tzeko gai zen. Ez zen gaininbertsiorik ere izan, etxebizitza-maila eta ekipamendua oso handiak izaki, enplegu betearen legokeela suposatuz, guztiek nahi zuten guztia izateko zentzuan, interesari inolako marjinik utzi gabe ordezkapen-kostua doi-doi estaltzeko beharrezkoa litzateke-en tasan, etxearen iraunaldi guztian; eta garraioa, zerbitzu publikoak eta nekazaritzaren hobekuntzak oso maila altura eramanez izaki, ezin espero liteke ondorengo gehikuntzak beren ordezkapen-kostuaren parera ere iritsiko ez litzatekeen errendimendua emango zuketarik. Guztiz kontrakoa baizik. Lelokeria izango litzateke 1929. urtean Estatu Batuetan gaininbertsioa, zentzu hertsian, egon zela esatea. Egia esan, gauzen egoera desberdina zen. Aurreko bost urteetan izugarri ugari egin zituzten inbertsio berriak, oro har, eta ondorioz ondorengo gehikuntzen errendimendu probablea azkar jaisten ari zen, hotzean aztertuz gero. Aurreikuspen zuzenak kapitalaren eraginkortasun mar-jinala murriztu egingo zuen lehenago sekula izan ez bezalako maila baxuraino; eta beraz, «goraldiak» ez zituen oinarri sendoak izango aurrera jarraitzeko, epe luzeko oso interes-tasa txikiarekin izan ezik eta gehiegizko ustiapena jasateko arriskua zuten norabide berezietako eta gaizki bideratutako inbertsioak saihestuz izan ezik. Beraz, interes-tasa inbertsio berriei atzera eragiteko nahikoa handia zen, pizgarri espekulatzailearen eraginpean zeuden adar partikularretan izan ezik, eta beraz, gehiegizko ustiapena jasateko arrisku berezia zutenetan izan ezik; eta pizgarri espekulatzailea gainditzeko adinako interes-tasak, aldi berean, arrazoizko inbertsio berri guztiak geldiaraziko zituen. Horrela, tasa hori igotzea, ohizkoa baino indartsuagoak ziren inber-tsioaldi luzearen ondoriozko gauzen egoeraren lasaigarri gisa, gaixoa hilda gaixotasuna sendatzen duten konponbide horietako bat da.

Egia esan, oso erraz gerta liteke enplegu ia betea urte batzuetan luzatzearekin batera, Britainia Handian, Estatu Batuetan edo antzeko herrialde aberatsetan, inbertsio berrien bolumena herrialde horietan kontsumitzeko joera oso handia izateagatik egotea, horrek behin-behinekoz enplegu beteko egoerara eramango lukeela suposatuz eta arrazoizko kalkuluen arabera edozein motatako ondasun iraunkorren gehikuntzatik, ordezkapen-kostuaren gaintetik egongo litzatekeen errendimendu oso gordina ezin espero izatearen zentzuan. Gainera, egoera honetara nahikoa azkar iritsi liteke —demagun hogeita bost urte edo gutxiagotan—. Ez dadila pentsa hau sekula, ezta une batez ere, inbertsio betearen egoerara —zentzu hertsian— ez garela heldu baieztatzen dudalako ukatzen dudala.

Are gehiago, gaur egungo goraldi batekin batera enplegu betearen edo gaininbertsioaren —zentzu hertsian— aldi bateko egoera izan daitekeela suposatuko bagenu ere, zentzugabea izaten jarraituko luke konponbiderik egokiena interes-tasa altuagoa litzatekeela esateak; zeren eta kasu horretan gaixotasuna azpikontsumoari egozten diotenen hipotesia guztiz baieztaturik geratuko bailitzateke. Konponbidea kontsumitzeko joera indartzera bideratutako hainbat neurri hartzea izango litzateke, sarrerak berriz banatuz edota beste era batera banatuta horrela enplegu-maila jakin batek, euskarri gisa, ohizko inbertsio-bolumen txikiagoa behar izan dezan.

IV

Agian komenigarria izan daiteke pentsamoldearen eskola garrantzitsuek erabiltzen dituzten ideia batzuk aztertzea, hain zuzen, hainbat ikuspuntutatik sustengatzen baitute egungo gizarteek langabeziarako duten joera kronikoa azpikontsumoaren ondoriozkoa dela —hau da, kontsumitzeko joera behar baino txikiagoa izatea eragiten duten gizarte-ohitura eta aberastasunaren banaketaren ondoriozkoa dela—.

Zalantzarik gabe, eskola hauek zuzen dabilta politika praktikoaren gida gisa, gaur egungo egoeran —edota, gutxienez, duela gutxi arteko egoeretan—, alegia, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren

gorabeheren eraginpean inbertsio-bolumena ez baita planeatzen ez kontrolatzen norbanako ezjakin edo espekulatzailen epai pribatuen bidez finkatzen den moduan, eta epe luzeko interes-tasan, zeina maila konbentzionalaren azpira gutxitan, edo inoiz jaisten ez den; zeren eta horrelako egoeran beste baliabide bat baitago batezbesteko enplegu-maila altuera egokira igotzeko. Inbertsioa handiagotzea guztiz ezinezkoa bada, argi dago ezin dela enplegu-maila handiagoa bermatu, kontsumoa handituz izan ezean.

Praktikan, eskola hauetatik bereizten nauen gauza bakarra honakoa da: nire ustez, agian, eskola hauek kontsumoaren gehikuntzari behar baino garrantzi handiagoa eman izana, oraindik ere inbertsioaren hazkuntzatik lortu beharreko gizarte-abantaila asko egonda. Dena den, teoriarik kritika dakieke outputa handiagotzeko *bi* bide daukela bazter uztea. Kapitala motelago gehitzea eta indarrak kontsumoaren gehikuntzan xahutzea hobe litzatekeela erabakiko bagenu ere, hori egiteko beste aukera izan beharko genuke buruan. Urri izateari utzi arte kapitala handiagotzeak dituen gizarte-abantaila handien jabe-tu naiz. Baina hau epai praktikoa da, eta ez agindu teorikoa.

Are gehiago, biderik zuhurrena bi fronteetan batera aurrera egitea litzatekeela onartzeko prest nago. Kapitalaren eraginkortasun marjinalaren jaitsiera progresiboari begira, sozialki kontrolatutako inbertsio-tasa lortzen saiatuko nintzatekeen aldi berean, kontsumitzeko joera areagotzeko neurri guztiak hartzeko deia egingo nuke; izan ere, nahikoa gertaezina da enplegu betea egungo kontsumitzeko joerarekin, inbertsioarekin edozer gauza eginda ere mantendu ahal izatea. Beraz, politika biak elkarrekin funtzionatzea gerta liteke —inbertsioa sustatu eta, era berean, kontsumoa, gaur egun dagoen kontsumo-joerarekin inbertsio-gehikuntzari legokiokeena baino maila handiagora sustatu—.

Argiago ikusteko zenbaki biribilak hartuta, egungo batezbesteko output-maila enplegu bete jarraiarekin izango litzatekeena baino ehuneko 15 gutxiago bada, eta ekoizpen horren ehuneko 10ek inbertsio netoa adieraziko balu, eta ehuneko 90ek kontsumoa; are gehiago, inbertsio netoak egungo kontsumitzeko joerarekin enplegu betea lortu ahal izateko ehuneko 50 igo beharko balu, eta enplegu bete horrekin outputa 100etik 115era igoko balitz, kontsumoa 90etik 100era eta inbertsio netoa 10etik 15era, agian, kontsumitzeko joera aldatzea pro-

posa genezake, enplegu betearekin kontsumoa 90etik 103ra eta inbertsio netoa 10etik 12ra igo daitezen.

V

Pentsamoldearen beste eskola batek ziklo ekonomikoaren irtenbidea ez du kontsumoaren edo inbertsioaren gehikuntzan bilatzen, enplegu bila dabilen eskulanaren gutxikuntzan baizik; hau da, oraingo enplegu-bolumenaren birbanaketa eginez, enplegua edo outputa handiagotu gabe.

Nire ustez hau politika goiztiarra da —kontsumoa handiagotzeko plana baino askoz ere argiago—. Norbanako orok asti gehiago edo sarrera handiagoak izatearen arteko abantailak konparatzen dituen unea iristen da. Baina uste dut gaur egun oso argi dagoela norbanako gehienek asti gehiago baino, sarrera handiagoak nahiago dituztela, eta ez dut aski arrazoi ikusten sarrera handiagoak nahiago dituzten horiek asti gehiago onartzera behartzeko.

VI

Harrigarria izan daiteke pentsamoldearen eskola batentzat ziklo ekonomikoaren irtenbidea interes-tasa altuaren bidez goraldia lehen etapetan galgatzea izatea. Politika hau justifikatzeko erabil daitekeen argudio bakarra D.H. Robertson jaunak adierazitakoa da; honek dioenez, egia da enplegu betea ideal guazaezina dela, eta itxaron dezakegun onena egungoa baino enplegu-maila egonkorragoa, eta agian, batezbeste zertxobait handiagoa izatea da.

Inbertsioen kontrolari nahiz kontsumitzeko joerari eragiten dieten politika-aldaketa handiak alde batera utzita, eta, oro har, oraingo egoerak iraun egingo duela suposatzen badugu, nire iritziz, ondo baino hobeto argudia daiteke okerren bideratutako baikortasuna ere gelditzeko nahikoa litzatekeen interes-tasaren bidez hasi berria den goraldia beti jaioberritan akatuko lukeen banku-politikarekin, aurrei-

kuspenen batezbesteko egoera abantailatsuagoa gerta litekeela. Aurreikuspenei buruzko zapuzketak (beheraldiaren ezaugarria da), galera eta zarrastelkeria ugari sorraz dezake, ondorioz inbertsio erabilgarrien batez besteko maila atzera eragiteko metodoren bat aplikatuko balitz handiagoa izan litekeelarik. Zaila da teoria hau zuzena ala okerra ote den ziurtatzen, bere hipotesiak berak oinarritzat hartuz; froga zehatzak falta diren epai praktikoaren arazoa da. Agian ez ditu kontuan hartzen guztiz desbideratutako inbertsioekin batera izan den kontsumo-gehikuntzak eragindako gizarte-abantailak, inbertsio horiek inolako inbertsiorik ez izatea baino onuragarriagoak izan baitaitezke. Dena den, maila goreneko diru-kontrolak zailtasunak izango lituzke Estatu Batuetako 1929. urteko goraldiarekin, eta Erreserba Federalaren Sistemak garai hartan zituen arma hutsez hornitua; eta bere esku dituen alternatiba batek ere ezingo lituzke emaitzak asko aldatu. Nolanahi ere, iritzi hau arriskutsua eta behar ez bezain etsigarria dela iruditzen zait. Egungo sistema ekonomikoak gauza oker gehiegi dituela gomendatzen du, edota, gutxienez, suposatzen, iraunkorki onartzeko.

Ikuspuntu zorrotza, enplegu-mailak aurreko hamarkadaren batezbestekoa (esaterako) baino nabarmen gehiago igotzeko joera berehala gelditzeko interes-tasa garaia erabiliko lukeena, buru-nahasketak sortzeaz at, beste inolako funtsik ez duten argudioetan oinarritzen da. Batzuetan, goraldian inbertsioak aurrezkia gainditzeko joera izaten duela eta interes-tasa handiagoak, batetik inbertsioa eragotziz eta bestetik aurrezkiak suspertuz, oreka berreskuratuko duelako usteetik sortzen da. Honek aurrezkia eta inbertsioa desberdinak izan daitezkeela esan nahi du, eta beraz, ez du zentzurik, termino hauek zentzu berezi batean definitu artean. Batzuetan iradoki izan da goranzko inbertsioarekin batera izaten den aurrezkiaren gehikuntza nahi ez izateko modukoa eta bidezkoa ez dela ere, normalean prezio-igoerak jarraitzen baitio. Baina hori horrela balitz, oraingo output edo enplegu-mailan izandako goranzko *edozein* aldaketaren aurka hasi beharko genuke, prezio-igoera ez baita, funtsean, inbertsio-gehikuntzaren ondoriozkoa —epe laburretan eskaintza-prezioa, normalean outputa handiagotuta igotzen denaren ondoriozkoa da, beheranzko errendimenduen eraginez edota outputa handiagotuta kostu-unitateak diru-mailan igotzeko duen joeraren eraginez—. Egoera eskaintza-prezio

konstantea delako bereiziko balitz, jakina, ez litzateke prezio-igoerarik egongo; dena den, goranzko aurrezkiak inbersio-gehikuntzari jarraituko lioke. Outputa handiagotzeak eragiten du aurrezkiaren gehikuntza; eta prezio-igoera produktu-gehikuntzaren azpiemaitza besterik ez da, eta gauza bera gertatuko da aurrezki gehiago ez bada-go eta horren ordeztu, kontsumitzeko joera handiagoa badago. Inork ez du berezko interesik prezio baxuetan erosteko, prezio baxu hauek outputa txikia izatearen ondoriozkoak baino ez badira.

Edota, berriz ere, okerra diru-kantitatearen gehikuntzak interes-tasaren jaitsiera eragin eta honen ondorioz, inbertsio-gehikuntza sortu denean agertzen dela suposatzen da. Dena den, lehenago zegoen interes-tasak ez du aparteko bertuterik, eta inor ez da diru berria hartzera behartzen; interes-tasa txikiagoari edo eragiketa-bolumen handiagoari dagokion likideziagatik lehentasun handiagoa asetzeko sortu da, eta tasa baxuagoan maileguan ematea baino dirua gordetzea *nahiago* duten norbanakoei mantentzen dute. Edota, are gehiago, goraldiaren ezaugarria «kapital-kontsumoa» dela iradokitzen da, eta honek seguraski inbertsio neto negatiboa adierazi nahiko du, hau da, kontsumitzeko joera handiegia. Ziklo ekonomikoko fenomenoak eta diru-ihesarenak —gerraosteko Europako diru-kolapsoetan gertatutakoen antzera —nahastu ezean, errealtateak guztiz kontrakoa adierazten du. Gainera, hala balitz ere, azpi-inbertsioaren baldintzetarako irtenbide egokiagoa litzateke interes-tasaren murrizketa, igoera baino. Nik pentsamoldearen eskola hauetako bati ere ezin diot zentzurik aurkitu, outputa, oro har, aldaezina delako suposizio tazituan oinarritzen ez bada. Baina argi dago outputa konstantetzat hartzen duen teoria bat ez dela oso lagungarria ziklo ekonomikoa azaltzeko.

VII

Ziklo ekonomikoari buruzko lehen azterketetan, batez ere Jevons-enetan, nekazaritzako gorabeherak urtaroei industriarekin baino zerikusi handiagoa zutela ikusi zen. Aurreko teoriaren argitan, honek arazoari heltzeko oso era logikoa dirudi; izan ere, urte batetik bestera nekazaritza-produktuen stockean gaur egun izaten den gora-

behera, elementu indibidual garrantzitsuenetakoa da, inbertsio-tasa arruntaren aldaketarako arrazoietan; baina Jevons-ek idatzi zuenean —batez ere, bere estatistika gehienei dagokien garaian—, faktore honek, seguraski. Gainerakoak baino garrantzia handiagoa izango zuen.

Ziklo ekonomikoa, batez ere, uzten ugaritasun ezberdinen araberakoa zela zioen Jevonsen teoria, horrela azal daiteke: ohiz kanpoko uzta ugaria lortzen denean, normalean jadanik gordetakoari kopuru handia gehitzen zaio hurrengo urteetarako. Gehitze honen produktuak nekazarien sarrera arruntei gehitzen zaie, eta hauek sarrera gisa hartzen dituzte; alabaina, stock gehitze honek gizarteko beste sektore batzuek beren sarreretatik egindako gastuei ez die zulorik uzten, aurrezkietatik datozen fondoekin finantzatzen direlarik. Beraz, stockaren gehikuntza inbertsio arruntaren gehikuntza dela esan dezakegu. Ondorio hau ez da aldatzen prezioak asko jaitsi arren. Era berean, uzta gutxi dagoenean stockera jotzen da kontsumo arruntari erantzuteko, eta beraz, kontsumitzaileek beren sarreretatik egiten dituzten gastuei dagokien zati bat ez da sarrera arrunta izango nekazarientzat. Beraz, honek stocketik hartutakoak inbertsio arruntari murrizketa eragiten diola esan nahi du. Hortaz, beste norabide batzuetan egiten den inbertsioa konstantetzat jotzen bada, inbertsio osoan diferentzia handia egon daiteke stockari gehitzen zaion urtearen eta stocketik asko hartzen den beste urte baten artean; eta nekazaritza sektore nagusia den gizartean, diferentzia hori izugarri handia izango da, inbertsioaren gorabeherak eragin ohi dituen beste edozein arrazoirekin alderatuta. Horregatik, oso normala da inflexio-puntu gorena uzta oparoek ematea, eta puntu beherena uzta txiroek. Uzta on eta txarren ziklo erregulatzaileek kausa fisikoak dituela dioten beste teoria, jakina, bestelako kontua da, hemen inolako zerikusirik ez duena.

Berrikiago, merkataritzarentzat uzta oparoak ez eta uzta txiroak hobeak direlako teoria zabaldu da, eta hori bi arrazoigatik izan daiteke: uzta txiroek jendeak lana ordainketa erreal txikiagoaren truke egitea eragiteagatik, edota uzta txiroaren ondoriozko erosahaltenaren birbanaketa kontsumoarentzat aldeko faktorea dela irizteagatik. Esan beharrik ez dago ez direla hauek, hots, ziklo ekonomikoaren azalpen gisa uzten fenomenoei buruzko aurreko deskribapena egitea, nik buruan ditudan teoriak.

Dena den, nekazaritzako gorabeheren kausek askoz ere garrantzi gutxiago dute mundu modernoan, bi arrazoi direla medio: lehenik, nekazaritzako outputa output osoaren askoz ere proportzio txikiagoa da gaur egun. Eta bigarrenik, nekazaritza-produktu gehienentzat mundu-mailako merkatua garatu izanak —bi hemisferioetan—, batez beste, urtaro txar eta onen ondorioak elkar orekatzea eragin du, eta mundu-mailako uzten bolumenean gorabeheren portzentaia askoz ere txikiagoa da herrialde bakoitzari banan-banan dagokiona baino. Baina antzina, herrialde bat nagusiki bere uztetatik bizi zenean, zaila da orduan inbertsioan izan zitezkeen gorabeheren arrazoirik bilatzea, gerra izan ezik, garrantziari dagokionez nekazaritza-produktuen stockean gertatutako gorabeherekin aldera baitaiteke.

Gaur egun, oraindik ere arreta handiz aztertu behar da lehen-gaien stockean —nekazaritzakoan nahiz mineraletakoan— izandako aldaketek inbertsio-tasa arrunta finkatzen duten zereginari. Nire ustez, inflexio-puntura heldu ondoren, beheraldiak errekupeartzeko duen moteltasuna, batez ere stocka bere bolumen normalera itzultzeko murrizketaren eraginez izaten den deflazioaren ondoriozkoa da. Hasieran, goraldiaren amaieran izaten den stockaren metaketak gain-beheraren abiadura samurtu egiten du. Baina ondoren, samurtze hori suspertzeak, era berean, hartzen duen abiadura motelaren bidez ordaindu beharko dugu. Batzuetan, gainera, stockaren murrizketa guztiz amaitu arte ez da hobekuntza-arrastorik antzematen. Izan ere, beste norabide batzuetan izandako inbertsio-tasa guztiz desagokia izan daiteke desinbertsio horrek iraun artean, nahiz eta tasa hori goranzko mugimendua sortzeko nahikoa izan (stockean mugimendu hori neutralizatuko duen egungo inbertsiorik ez dagoenean).

Nire iritziz honen adibide zehatza Estatu Batuetako «New Deal» deritzonaren lehen faseetan ikusi dugu. Roosevelt presidentearekin gastuetarako mailegu handiak ematen hasi zirenean, mota guztietako stockek —batez ere nekazaritza-produktuenek— artean bolumen handia zuten. «New Deal» delakoak, hein batean, stock hauek murrizteko ahalegin handia egin zuen —output arrunta murriztuz eta era guztietako bideak erabiliz—. Stocka maila normalera murriztea nahitaezko prozesua zen, jasan beharreko fasea. Baina honek iraun zuen bitartean, hau da, bi urte inguru bitartean, beste helburu batzuetarako egiten ziren maileguak konpentsatzeko eragin handia izan

zuen. Guztiz burutu zenean baino ez zuen utzi nabarmen suspertzeko bidea irekita.

Estatu Batuetako esperientzia berriak ere adibide bikainak eman ditu amaitutako eta amaigabeko ondasunen stocketan —«inbentarioak» deitzen ari zaie gero eta geihago— gorabeherek duten zereginari buruz, ziklo ekonomikoaren mugimendu nagusian gorabehera txikiak sorrarazi dituztelarik. Ekoizleek, industria martxan jartzean hilabete batzuk geroago arte iraungo duela espero den kontsumo-eskalari begiratzen diotenez, kalkulu-akats txikiak egiteko arriskua dute, normalean errealitatea baino zertxobait aurrerago joateagatik. Beren akatsa ikusten dutenean epe labur batez kontsumo arrunta baino maila baxuagoan ibili behar dute, inbentarioko soberakinak zurga daitezen; eta zertxobait aurreratu eta berriz ere atzeratzearen arteko erritmo-aldaaketak nahikoa eragina du inbertsioaren tasa arruntan, gaur egun Estatu Batuetan dituzten estatistika bikain eta osatuetan hain argi ikusteko moduan.

XXIII. KAPITULUA

Merkantilismo, lukurreri lege, diru zigilatu eta azpikontsumoaren teoriari buruzko oharrak

I

Berrehun urtetan, bai ekonomiaren teorianak eta bai gizaki praktikoez ez zuten zalantzan jarri herrialde batentzat aldeko merkataritza-balantzak abantaila berezia duela, eta kontrako balantzak arrisku larria duela, batez ere metal bitxien kanporantzko fluxuari badagokio. Baina azken ehun urtetan iritzi-aldaketa nabarmena izan da. Ia herrialde guztietako estatista eta gizaki praktikoko gehienak, eta Britainia Handiko —aurkako ikuspuntuaren habiako— erdiak ere, doktrina zaharrekiko leial mantendu badira ere, ia ekonomialari teorianak gehienek baieztatu egin dute arazo horientzako kezkak ez duela oinarririk, oso ikuspuntu laburra hartzea salbu, kanpo-merkataritzaren mekanismoak doikuntza automatikoa baitu eta hori zuzentzeko saiok hutsalak izateaz gain, burutzen dituztenak txirotu egiten dituzte, lanaren nazioarteko zatiketaren abantailak ezabatzen baitituzte. Tradizioari jarraituz, kome-niko litzateke iritzi zaharrari *merkantilismoa* deitzea, eta berriari *libre-kanbismoa*, termino hauek testuinguruaren arabera interpretatu behar badira ere (horietako bakoitzak esanahi zabala eta beste hertsia baititu).

Oro har hitz eginez, ekonomialari modernoek honakoa adierazi izan dute: lanaren nazioarteko zatiketaren bidez, normalean, praktika merkantilistak eskura ditzakeenak baino irabazi gehiago lortu ahal izateaz gain, argudio merkantilistak, hasieratik bukaerara, nahaste intelektualean oinarritzen direla.

Marshall-ek,¹⁴² esaterako, merkantilismoari buruz dituen aipamenak guztiz desatseginak ez badira ere, ezin du ikusi ere egin teoria orokorra, bere horretan, eta teoriak esateko asmoa duenetik egia dena —geroago aztertuko dut hori—¹⁴³ ez du aipatu ere egiten. Era berean, librekanbismoaren aldeko ekonomialariek egungo eztabaidetan onartu dituzten amore emate teorikoak, esaterako, sortu berriko industrien pizgarriei edo elkartrukearen harremanak hobetzeari buruzkoak, ez dagozkie argudio merkantilistaren benetako funtsari. Mende honetako lehen mende-laurdeneko eztabaida fiskalean zehar ez naiz oroitzen ekonomialariek inola ere amor eman dutenik babesak nazio-enplegua hobe lezakeela dioen printzipioari buruz. Agian, zuzenena, adibide gisa nik neuk idatzitakoa aipatzea izan daiteke. 1923. urtean, artean eskola klasikoaren jarraitzaile leiala eta sinestuna nintzela, irakatsi zidatenaz inolako zalantzarik egin gabe eta arlo honetan ezer aldatu nahi izan gabe, ondorengo idatzi nuen: «Protektionismoak egin *ez* dezakeen ezer baldin badago, hori langabezia sendatzea da... Babesaren alde erantzun errazik ez duten hainbat argudio dago, eta abantaila posibleak baina gertagaitzak lor ditzakeenean oinarritzen dira. Baina langabezia sendatu nahi izatea protektionismoaren gezurrik oker eta handiena da».¹⁴⁴ Lehenagoko teoria merkantilistari dago-kionez, ez zegoen azalpen argirik, eta ia zentzurik ez zuen zerbait zela sinestarazi nahi izan ziguten. Eskola klasikoaren menperakuntza horren handia eta erabatekoa izan baita.

II

Lehenik eta behin, doktrina merkantilistan dagoela iruditzen zaidan egia zientifikoa azalduko dut. Ondoren hau eta merkantilisten argudio errealak alderatuko ditugu. Kontuan izan behar da doktrinari leporatzen zaizkion abantailek nazio-izaera dutela eta mundua, oro har, nekez onduko dutela.

Herrialde baten aberastasuna nahikoa azkar handitzen ari denean, gauzen egoera atsegin horri segitzen dion aurrerapena eten egin daiteke, *laissez faire*-ren egoeran, inbertsio gehiagorentzako suspertzailerik ezean. Kontsumitzeko joera finkatzen duten ingurune sozial

eta politikoa eta nazio-ezaugarriak jakinda, estatu aurrerakoiaren ongizatea, batez ere, adierazitako arrazoiak direla eta, suspertzaille horien nahikoa izatearen araberakoa da. Suspertzaille horiek barne-nahiz kanpo-inbertsioan (metal bitxien metaketa barne) egon daitezke, bietan batera, inbertsio osoa osatuz. Inbertsio osoaren bolumena finkatzen duen bakarra irabazi nahia denean, barne-inbertsioaren aukerak, epe luzera, nazioaren interes-tasak gobernatuko ditu, eta kanpo-inbertsioaren magnitudea, merkataritzako aldeko balantzaren bolumenak finkatuko du. Beraz, agintaritza publikoaren babespean zuzeneko inbertsioaren arazorik ez duen gizartearen, gobernuaren kezkatuko duten helburu ekonomikoak barneko interes-tasa eta kanpo-merkataritzaren balantza dira.

Dena den, alokairu-unitatea nahikoa egonkorra bada eta magnitude handiko bat-bateko aldaketen menpe ez badago (ia beti betetzen den baldintza), likideziagatik lehentasunaren egoera nahikoa finkoa bada —batez besteko gisa epe laburreko gora-beherak hartuta—, eta banku-konbentzionalismoak ere iraunkorrak badira, gizartearen likidez nahia asetzeko eskura dagoen metal bitxien kantitateak gobernatuko du interes-tasa, kantitate hori alokairu-unitateetan neurtuta. Aldi berean, kanporako funtsezko maileguak eta kanpoan kokatutako aberastasunaren zuzeneko jabetza nekez gauza daitezkeenean, metal bitxien kantitatearen igoerak eta jaitsierak, batez ere, merkataritza-balantza aldekoa ala kontrakoa izatearen araberakoak izango dira.

Horregatik, agintaritzek aldeko merkataritza-balantzarekiko zuten kezka *bi* helbururi erantzuten zien; gainera, horiek sustatzeko eskura zuten bide bakarra izan zen. Agintaritzek barneko interes-tasan edo nazio-inbertsioaren gainerako suspertzailleetan zuzeneko kontrolik ez zuten garai batean, aldeko merkataritza-balantza handiagotzeko neurriak atzerriko merkataritza indartzeko zuten bide *zuzen* bakarra ziren; eta, era berean, aldeko merkataritza-balantzak metal bitxien sarean zuen eragina *zeharkako* bide bakarra zen barneko interes-tasa murrizteko eta, horrela, herrialde-barnean inbertitzeko pizgarria handiagotzeko.

Politika honen arrakastak, hala ere, gogoan izan beharreko muga bi ditu. Nazioko interes-tasa asko jaisteagatik inbertsio-bolumena nahikoa suspertzen bada (enplegua igoarazteko adina, alokairu-unitatea igotzen deneko puntu kritiko batzuk gainditzen dituen maila-

raino), barneko kostu-mailaren gehikuntza kanpoko merkataritza-balantzan aurka erreakzionatzen hasiko da eta, beraz, balantza hau handiagotzeko indarra gehiegizkoa izango da eta bere burua neutralizatu egingo du. Bestalde, barneko interes-tasa, beste edonongo interes-tasen aldean, oso behera erortzen bada eta honek atzerriko mailegu-bolumena suspertzen badu (bolumen hau aldeko balantzarekiko proportzioz kanpoko izanik), ondorioz, aldez aurretik lortutako abantailak okertzeko adinako metal bitxien kanporantzako fluxua etor daiteke. Muga horietako bata edo besteak ekiteko arriskua igo egiten da herrialdea handia eta nazioarteko garrantzia duenean, zeren eta meategietako metal bitxien ohizko ekoizpena nahikoa maila txikikoa denean, herrialde batera datorren diruaren barneranzko fluxuak beste baten kanporanzko fluxua adierazten baitu; eta, beraz, herrialde-barneko goranzko kostuen eta beheranzko interes-tasen kontrako ondorioak indartu egin daitezke (politika merkantilista urrutiegi eramaten bada) kanpoko beheranzko kostu eta goranzko interes-tasen bidez.

XV. mende bukaerako eta XVI. mendeko Espainiaren historia ekonomikoa, alokairu-unitateen gain gehiegizko metal bitxi izatearen ondorioz kanpoko merkataritza suntsitu zuen herrialdearen adibide bikaina dugu. Britainia Handia, XX. mendeko gerra aurreko urteetan, kanpoko maileguak emateko erraztasun handiegiek eta atzerriko jabetza-erosketek, sarritan, barnean enplegu bete ziurtatzeko beharrezkoa zen interes-tasaren jaitsiera eragotzi zuten herrialdearen adibidea dugu. Garai guztietako Indiaren historia, likideziarekiko lehentasun itzelaren historia dugu, eta nahi handi horrek herria guztiz txirotu du, zeren eta, ez eta Indiarantzeko metal bitxiaren fluxu izugarri eta amai ezina ere nahikoa ez baitzen izan interes-tasa jaitsierazteko, eta beraz, aberastasun erreala hazkundera lortzeko beharrezkoa den interes-tasaren maila gerta zitezen.

Dena den, gizarte batek alokairu-unitatea nahikoa egonkorra badu, kontsumitzeko joera eta likideziagatik lehentasuna finkatutako nazio-ezaugarriak baditu, eta diru-kantitatea eta metal bitxiak zorrotz lotzen dituen diru-sistema badu, oparotasuna mantendu ahal izateko, agintariek asko arduratu beharko dute merkataritza-balantzaz; zeren eta aldeko balantza guztiz suspergarria izango baita, handiegia ez den bitartean; eta kontrako balantzak etengabeko beheraldi-egoera sorraz dezake berehala.

Hemendik ezin ondoriozta daiteke inportazioak mugatzeko maila maximoak aldeko merkataritza-balantzaren maximoa sustatuko duenik. Lehen merkantilistek hau guztia oso ondo azpimarratu zuten eta, sarritan, merkataritzaren muga aurka jartzen ikus ditzakegu, muga horiek epe luzera aldeko balantzaren kontra eragin baitzezaketen. Jakina, eztabaidagarria da Britainia Handian XIX. mendearen erdialdeko egoera berezian merkataritzak zuen ia erabateko askatasunaren politika aldeko balantza garatzeko bide zuzenena ote zen. Gerraosteko European merkataritzari jarri zitzaizkion mugen egungo esperientziak askatasunaren aurka gaizki ulertutako mugen hainbat adibide erakusten dizkigu, muga horiek aldeko balantza hobetzeraz bideraturik, berez, kontrako ondorioa izan baitzuten.

Arrazoi hauek eta beste batzuk direla eta, irakurleak ez ditu ondorioak azkarregi atera behar gure arrazoiketarik eramaten gaituen politika *praktikoari* buruz. Merkataritzako mugen aurkako susmo orokor handiak daude, argudio berezien bidez zurutu ezin direnean. Lanaren nazioarteko zatiketaren abantailak errealek eta sendoak dira, eskola klasikoak behar baino gehiago puztu baditu ere. Gure herrialdearentzat aldekoa den balantza batetik eratorritako abantailak beste herrialde batentzat maila bereko desabantailatzat hartu ahal izateak (merkantilistak honetaz guztiz jabetu ziren), herrialde batek beretzat metal bitxien bidezko eta arrazoizko stock zatia baino gehiago gorde ez dezan oso neurritsu izan behar dela esan nahi du, baina, horrez gain, neurririk gabeko politikak zentzugabeko nazioarteko lehiara eraman dezakeela adierazten du, guztiak maila berean kaltetuko dituen aldeko balantzaren bidez.¹⁴⁵ Eta, azkenik, merkataritza-mugen politika bide engainagarria da baita bere lehen helburua lortzeko ere, interes pribatuak, administrazioaren gaitasun ezak eta egitekoaren zailtasunak berak helburua desbidera baitezakete, eta hasierako asmoen guztiz kontrakoak lortu.

Beraz, nire kritika ni hezi ninduten eta urte askotan irakatsi nuen *laissez faire* doktrinaren oinarri *teorikoen* desegokitasunaren aurka bideratuko dut —interes-tasa eta inbertsio-bolumena automatikoki maila optimoan doitzen direla eta, beraz, merkataritza-balantzaz kezkatzea denbora galtze hutsa dela dioen nozioaren aurka—. Izan ere, gu, ekonomialarien fakultatea, harrokeriaren ondoriozko okerraren errudunak izan gara mendeetan zehar gobernatzeko arte praktikoen xede nagusia izan dena obsesio hutsal baten gisa hartzeagatik.

Teoria oker honen eraginpean, Londresko bankariek oreka mantentzeko sekula pentsa litekeen teknikarik arriskutsuena garatu zuten, hau da, birdeskontu-tasak aldaraztearekin batera ganbio-pare-lotasun zorrotzak inposatzea; zeren eta, honen arabera, barneko interes-tasa sendoa eta enplegu betea bat etortzeko egoera mantentzearen helburua erabat bertan behera utzi baitzen. Praktikan ordainketa-balantza albo batera ezin utz zitekeen unetik, hori kontrolatzeko bidea ezarri zen, eta honek barneko interes-tasa babestu beharrean, indar itsuen ekingizapean jarri zuen. Berriki, Londresko bankari praktikoek asko ikasi dute eta ia espero daiteke Britainia Handian birdeskontu-tasaren teknika ez dela kanpoko balantza babesteko sekula gehiago erabiliko, barnean langabezia sortzeko arriskua dagoenean.

Enpresa indibidualaren eta baliabide-kantitate jakin baten enpleguaren emaitzaren teoria gisa hartuta, teoria klasikoak pentsamendu ekonomikoari aurka ezin egin dakioken ekarpena egin dio. Ezinezkoa da gaiari buruz argi eta garbi pentsatzea teoria hau gure buru-mekanismoaren osagai izan gabe. Beren aurrekoek baliagarri zutena ahaztu zutela salatuta, ez pentsa beren alde ona zalantzan jartzzen dudarik. Dena den, sistema oso gisara hartzen duten eta sistemako baliabide guztien enplegu optimoa bilatzen duten gobernuen ekingizetarako ekarpen gisa, XVI. eta XVII. mendeetako pentsamendu ekonomikoaren aitzindariak agian jakituria praktikoaren zatiak beregana zitzaketen; Ricardoren burutapen irrealek lehenik ahaztu eta ondoren suntsitu zituztenak, hain zuzen. Lukurreri legeen bidez (kapitulu honetan, geroago berriz helduko diegu) interes-tasa murriztuta mantentzeko kezka larria zentzuzkoa zen oso, diruzko stock nazionalak sustengatuz eta alokairu-unitatearen igoerak zapuztuz; baita, azken bide gisa, diru stockak baliogaleraren bidez eraberritzeko joeran, stock horiek zinez baliogabe bihurtzen zirenean bai kanpoko fluxu saihetsezinaren ondorioz, bai alokairu-unitatearen igoeraren¹⁴⁶ nahiz bestelako edozeren ondorioz).

III

Agian, pentsamendu ekonomikoaren lehen aitzindariak azpiko oinarri teorikoak oso ondo ezagutu gabe aurkituko zituzten jakituria

praktikoaren arauak. Beraz, laburki azter ditzagun hauek emandako arrazoiak, baita gomendatu zutena ere. Heckscher irakaslearen *Mercantilism* lan handira jotzen badugu, aurreko hori erraztea lortuko dugu; bertan ekonomi irakurlearen esku uzten dira, lehen aldiz, bi mendetako epealdian zeharreko pentsamendu ekonomikoaren oinarritzko ezaugarriak. Ondorengo aipamenak lan honetatik hartu dira gehienbat.¹⁴⁷

1) Pentsamendu merkantilistak sekula ez zuen uste izan interes-tasa maila egokira automatikoki doi zitekeeneko joera zegoenik. Aitzitik, behar ez bezalako tasa altuegia aberastasunaren hazkuntzarako oztoporik handiena zela azpimarratu zuen; eta merkantilistak ohartu egin ziren interes-tasa likideziagatiko lehentasunaren eta diru-kantitatearen baitakoa zela ere. Lehentasun hori murriztu eta diru-kantitatea handiagotzeaz arduratzen ziren, eta batzuek adierazi zutenez, diru-kantitatea handiagotzeko kezka hori interes-tasa txikiagotzeko nahiak eragina zen. Heckscher irakasleak honela laburtu zuen bere teoriaren alderdi hau:

Merkantilista zolienen jarrera, beste kontu askotan bezalaxe honetan ere, muga batzuen barruan, nahikoa argia zen. Dirua, berentzat —terminologia modernoa erabiliz— ekoizpen-faktore bat zen, lurraren parekoa, eta batzuetan aberastasun «artifizial» gisa izendatzen zuten «naturaletik» bereizteko; eta kapitalaren interes gisa diruak emandako errenta hartzen zen, lurragatik ordaintzen zen lurzoru-errentaren tankerakoa zelarik. Interes-tasaren zenbatekoa azaltzeko helburu-oinarriak aztertuz joan ziren heinean —gero eta maizago egin zen, merkantilismoaren garaian—, oinarri horiek diru-kantitatearen zenbatekoan aurkitu ziren. Material eskuragarri ugari honetatik, adibiderik tipikoenak baizik ez dira hautatuko, ezer baino lehen nozio hau zeinen iraunkorra izan zen, zeinen sustraitua eta kontsiderazio praktikoetatik bereizia izan zen, frogatu nahian.

1620.eko hamarkadako lehen urteetan diru-politikari buruzko eta Ekialdeko Indiei buruzko borrokaren Ingalaterrako protagonista biak bat etorri ziren puntu honetan.

Gerard Malynes-ek adierazi zuenez, bere baieztapena

xeheki arrazoituz, «Diru-ugaritasunak prezioan edo interes-tasan lukurreria murriztu egiten duela» (*Les Mercatoria et Maintenance of Free Trade*, 1622). Edward Misselden-ek, bere arerio izugarri eta batere kezkarik gabekoak, erantzun zuenez «Lukurreriarentzako irtenbidea diru-ugaritasunak izan beharko luke» (*Free Trade or The Meanes to make Trade Flourish*, urte berekoa). Mende-erdia geroago, idazle nagusietan, Child-ek, Ekialdeko Indietako Konpainien zuzendari guztiz ahalduak eta aurrekoaren abokaturik trebeenak, bere indar guztiz aldarrikatutako legezko interes-tasa maximoak Holandako dirua Ingalaterratik kanporatzea eragingo ote lukeen eztabaidatu zuen (1688). Hori ez gertatzeko irtenbidea diru gisa erabilitako ganbio-letrak transferitzeko erraztasun handiagoak ematean bilatu zuen, Child-en esanetan, horrek «nazioan zirkulatzen duen diru erabilgarri guztitik falta den erdia, gutxienez, ordeztuko baitu». Petty, interesen borroka batere eragin ez zion beste idazlea, gainerakoarekin bat etorri zen, diru-kantitatea handiagotzearen ondorioz interes-tasa ehuneko 10etik ehuneko 6ra murrizteko jaitsiera «naturala» azalduz (*Political arithmetic*, 1676), eta interesdun maileguak ematea gomendatu zuen «moneta» gehiegi zuen herrialdearentzako irtenbide egoki gisa (*Quantulum cunque concerning Money*, 1682).

Jakina, arrazoiketa hori ez zen, inola ere, Ingalaterran gelditu. Urte batzuk geroago (1701 eta 1706an), esaterako, Frantziako merkataria eta estatistek herrialdeko «moneta eskasia» interes-tasa handiaren kausa zelako kexu ziren (*disette des espèces*), eta diru-zirkulazioa handiagotuz lukurreri tasa jaisten saiatu ziren.¹⁴⁸

Agian Locke handia izan zen interes-tasa eta diru-kantitatearen arteko erlazioa termino abstraktuetan adierazten lehena, Petty-rekin izandako eztabaidan.¹⁴⁹ Pettyk interes-tasa maximorako egindako proposamenaren aurka zegoen, lurrarentzat errenta maximoa finkatzea bezain gauzaezina zela argudiatuz, «diruaren balio naturala, interes gisa urteko sarrera eman dezakeenez, erresuman dagoen diru zirkulatzailerako kopuru guztiaren arabera delako, bertako merkataritza osoaren proportzioan (hau da, ondasun guztien Salmenta osoarenean)».¹⁵⁰ Lockek diruak bi balio dituela azaldu zuen: 1) bere erabil-

balioa, interes-tasak mugatzen duena «eta honetan lurraren izaera du, baten sarrerari errenta eta bestearenari erabilera deituz»,¹⁵¹ eta 2) bere ganbio-balioa «eta honetan ondasunaren izaera du», «bere ganbio-balioa, soilik, diru-ugaritasun edo -urritasunaren eta gauza horien ugaritasun edo urritasunaren arteko proportzioaren arabera izanik (eta ez interesaren arabera)». Beraz, Locke teoria koantitatibo antzekoen aita izan zen. Lehenik eta behin interes-tasa diru-kantitatearen (zirkulazio-abiadura kontuan hartuta) eta merkataritzako balio osoaren arteko proportzioaren arabera zela adierazi zuen. Bigarrenik, diruaren ganbio-balioa diru-kantitatearen eta merkaturako ondasun-bolumen osoaren arteko proportzioaren arabera zela baieztatu zuen. Baina —hanka bat mundu merkantilistan eta bestea klasikoan zuela—¹⁵² bi proportzio hauen arteko erlazioari dagokionez oker zebilen, eta alde batera utzi zituen guztiz likideziagatiko lehentasunaren *gorabeherak*. Dena den, berebiziko gogoia zuen interes-tasaren jaitsierak prezio-mailan zuzeneko eraginik ez duela azaltzeko, eta «prezioei merkataritzako interes-aldaketak dirua edo ondasunak ekarri edo eramatea ondorioztatzen duen neurrian besterik ez diela eragiten azaltzeko, eta, horrela, bere garaian, hemen Ingalaterran lehen zuen proportzioa aldatuz», hau da, interes-tasaren murrizketak esku-diruaren esportazioa edo outputaren gehikuntza eragiten duen. Baina, nire iritziz, ez da sekula jatorrizko sintesi iristen.¹⁵³

Mentalitate merkantilistak interes-tasa eta kapitalaren eragin-kortasun marjinala bereizteko zuen erraztasuna argi geratzen da Locke-k *A Letter to a Friend concerning Usury*-ko (1621. urtean argitaratuko) pasarte batetik hartutako aipamenean: «Interes handiak merkataritza zapuzten du. Interesaren abantailak merkataritzako irabaziak baino handiagoak dira, eta honek merkataria aberatsak merkatutik kanporatu eta beren aberastasunak interes handiak eman dakizkien jartze-ramaten ditu, eta garrantzi gutxiagoko merkataria porrotera». Fortrey-k (*England's Interest and Improvement*, 1663) aberastasuna handiagotzeko bide gisa interes-tasa murriztuan jarritako indarraren beste adibide bat eskaintzen digu.

Merkantilistek ez zuten ahaztu likideziagatiko gehiegizko lehentasunak metal bitxien sarrera altxortegirantz desbideratuko balu, interes-tasaren abantailak galduko egingo lirakeela. Zenbait kasutan (Mun, esaterako) estatuaren boterea gehitzeko helburuak, hala ere,

estatuko altxortegiaren metaketa defendatzera eraman zituen. Baina beste batzuk politika honen aurka jarri ziren guztiz:

Scrötter-ek, esaterako, kolore bizitan marrazten zuen, ohizko argudio merkantilisten bidez, herri barruko zirkulazioak diru guztia nola galduko lukeen Altxortegi publikoa gehiegi handiagotuz gero... Ondorioz, Scrötter, oso normala denez, paralelotasuna ezarri zuen monastegiek gordetako altxortegi eta metal bitxien soberakinen esportazioen artean, eta hura zen berak pentsa zezakeen okerreana. Davenant-ek ekialdeko herrialde askotako —non munduko beste inon baino urte eta zilar gehiago zegoela uste baitzen— miseria gorria azaldu zuen, horren errua metal bitxiak «printzeen altxorretan geldirik gorde ahal izateak» zuela esanez.¹⁵⁴

Estatuaren altxorketa, gehienez ere, goraldi zalantzarri eta, sarritan, arrisku handi gisa hartu bazen, esan beharrik ez dago altxorketa pribatua izurria bailitzan saihestu egin zela. Hau idazle merkantilista ugarik kontra egindako joeretako izan zen, eta ez dut uste aurkakoa esango duen ahots bakar bat ere topa daitekeenik.

2) Merkantilistak merketasunaren gezurraz eta gehiegizko lehiakidetasunak truke-erlazioa herrialde baten kontra bihurtzeko arriskuaz ohartu ziren. Horregatik, Malynes-ek *Lex-Mercatoria* lanean (1622) honakoa idatzi zuen: «Ez zaitezela saia komunitatearen kalterako besteak baino merkeago saltzen, merkataritza hobetzeko aitzakiaz; zeren eta merkataritza ez baita handiagotzen ondasunak oso merkeak direnean, merketasuna eskari urriaren eta gauzak merkearazten dituen diru-eskasiaren ondoriozkoa baita; kontrakoak handiagotzen du merkataritza, diru-ugaritasunak eta ondasunen eskariaren ondoriozko haien garestitzeak.»¹⁵⁵

Heckscher irakasleak honela laburbildu zuen pentsamendu merkantilistaren atal hau:

Mende eta erdi bitartean ikuspuntu hau behin eta berriz adierazi zuten, beste herrialdeekin alderatuz diru gutxiago zuen herriak, nahitaez, «merke saldu eta garesti erosi» beharra zuela, alegia...

Ikuspuntu hau jasotzen da, jada, *Discourse of the Common Wealth*-en lehen argitalpenean, hau da, XVI. mende erdialdean. Hales-ek zioenez, atzerritarrentzat gure merkatalgaiak beren merkatalgaien truke hartzea aski izango balitz, zerk eragotziko lieke beste gauza batzuen prezioak igotzen (besteak beste, guk erosten dizkiegunak barne), guk saltzen dizkiegunak oso merkeak izan arren? Horrela, guk saltzen jarraituko genuke eta haiek gailendu egingo gintuzkete, berena garesti salduz eta geurea merke erosiz, eta, beraz, haiek gero eta aberatsagoak eta gu gero eta txiroagoak izango ginatke. Horregatik, nik nahiago nuke guk gure salgaien prezioak haiek beraienak igotzen dituzten moduan igotzea, hain zuzen, gaur egun egiten dugun gauza bera, nahiz eta horrela zenbaitzuk galtzen atera, baina bestela galduko luketenen kopurura sekula iritsi gabe.» Eta puntu honetan Hales-ek bere argitaratzailearen onarpen osoa izan zuen hamarkada batzuk geroago (1581ean). XVII. mendean ikuspuntu hau azaleratu zen oster, indar berdintsua izanik. Horregatik, Malynes-ek jarrera hau gauza guztietan beldur handiena ematen zionaren emaitza gisa hartu zuen, hau da, ganbio-tasa ingelesaren atzerriko azpibalazioa... hain zuzen, behin eta berriz errepikatu den irizpidea. *Verbum Sapienti* lanean (1665ean idatzi eta 1691n argitaratua), Petty-k honakoa adierazi zuen diru-kantitatea handiagotzeko egiten ziren indar bortitzak ez liratekeela beharrezkoak izango «ziurtasun osoz, gure Auzoko Estatuak (hauek oso txikiak izan arren) baino diru gehiago badugu, proportzio aritmetikoan nahiz geometrikoan». Eta liburu hau idatzi eta argitaratu artean pasa ziren urteetan, Coke-k honakoa esan zuen: «Gure altxorra gure auzoko herrialdeena baino handiagoa balitz, ez nintzateke horretaz kezkatuko, nahiz eta egun dugun altxorraren bostena besterik izan ez» (1675).¹⁵⁶

3) Merkantilistak «ondasunekiko beldurra» eta diru-eskasia langabeziaren arrazoi zirela esan zuten lehenak izan ziren, eta bi mende ondoren klasikoek zentzugabetzat jo zuten hori:

Inportazioak debekatzeko arrazoi gisa derrigorrezko langabezia enplegatzearen adibide zaharrenetako bat

Florentzian dugu, 1426. urtean... ingeles legerian ere, gutxienez, 1455. urtera arte badugu honen berri... ia haren garaikidea izan zen 1466. urteko ordenantza frantses batek, Lyon-go zeta-industria sonatuaren oinarriak finkatu zituenak, interes gutxiago du, benetan ez baitzen atzerriko merkatalgaietarako. Dena den, azken honetan ere langabezian zeuden milaka eta milaka gizon-emakumeei enplegua emateko aukera agertzen zen. Eta horrek argudio hori giro hartan bazegoela erakusten digu...

Arazo honi buruzko lehen eztabaida, gizarte- eta ekonomi arloko ia arazo guztiak bezala, Ingalaterran izan zen XVI. mende erdialdean edo zertxobait lehenago, Enrike VIII.aren eta bere seme Eduardo VI.aren erregealdietan. Berezikidazki-bilduma bat aipatu beharra dago. Dirudienez, eta asko jota ere, 1530. urtean idatzi ziren, horietako bi, gutxienez, Clement Armstrong-en izenpean zeudelarik... Honek, esaterako, honela adierazi zuen gaia: Ingalaterrak urtero inportatzen dituen atzerriko produktu eta merkatalgaien itzelezko ugaritasunak diru-ekaskia handia sorrarazteaz gain, bertan behera utzi du herri xeheko jende ugari lana emango zion industria osoa, eta lan horretatik beren elikagaiak eta edariak ordaintzeko dirua aterako zuten, gaur egun alferkerian, eskaletza eta lapurretatik bizi beharra izan gabe.»¹⁵⁷

Gai honi buruz, nik ezagutzen dudana eztabaida merkan-tilista tipikoaren adibiderik bikainena Ingalaterrako Komunen Ganberan gertatu zen, 1621. urtean, «diru-eskasiari» buruz, batez ere ehunen esportazioari eragiten zion beheraldi larria gertatu zenean. Egoera hau grafikoki deskribatu zuen parlamentuan eragin handiena zuen gizon batek, Sir Edwin Sandys-ek: Nekazari eta artisauen egoera zaila zen ia nonahi, ehundegiak geldirik zeuden herrialde barruko diru-eskasiaren ondorioz, eta nekazariak beren kontratuak bertan behera utzi beharra zuten, «diru-eskasia zela eta, eta ez (jainkoari eskerrak) nekazaritza-produktuen eskasiagatik». Egoera honek, horren eskasia larria sortu zuen diru falta hori non zegoen aurkitzera bideratutako azterketa zorrotzak eragin zituen. Eta metal bitxiaren esportazioa (inportazioarekin konpentsatu gabeko esportazio-superabita) bultzatu zuela edo, herrialdean bertan,

gaizki erabiltzeagatik desagerrarazi zituela susmatzen zen ororen aurka mota guztitako erasoak egin ziren.¹⁵⁸

Merkantilistak ohartu egin ziren beren politikak, Heckscher irakasleak esandako moduan, «bide batez bi mandatu egiten zituela». «Batetik, herrialdeak desio ez zuen salgai-soberakini amaiera ematen zitzaion, hain zuzen, derrigorrezko langabeziaren arrazoitzat jotzen zenari; eta, bestetik, herrialdean zegoen diru-kantitatea handiagotu egiten zen»,¹⁵⁹ ondorioz, interes-tasa jaistearen abantaila izanik.

Ezinezkoa da merkantilistak beren esperientzia errealek eraman zituzteneko nozioak aztertzea, gizateriaren historian aurrezteko joerak inbertitzeko pizgarria baino handiagoa izateko joera iraunkorra izan duela ohartu gabe. Inbertitzeko pizgarriaren ahultasuna izan da garai guztietan arazo ekonomikoaren gakoa. Ahultasun hori azaltzeko gaur egungo arrazoiak, egungo pilaketen tamaina dateke, batez ere, eta antzina, mota guztietako arrisku eta ezustekoek zeregin garrantzitsua izan zezaketen. Baina emaitza bera da. Norbanakoek kontsumoari muzin egin eta beren aberastasun pertsonala handiagotzeko gogoak, normalean, enpresarioak ondasun iraunkorren ekoizpenean lana enplegatzearen bidez nazio-aberastasuna handiagotzeko izan duen joerak baino indar handiagoa izan du.

4) Merkantilistek ez zuten inolako ilusio faltsurik egin beren politiken nazio-izaerari eta gerra sustatzeko hauen joerari buruz. *Nazio*-abantaila eta indar *erlatiboa* zen, argi eta garbi, lortu nahi zutena.¹⁶⁰

Nazioarteko diru-sistemaren ondorio saihestezin hori, itxuraz behintzat, indiferentziaz onartzeagatik kritika ditzakegu. Baina intelektualki askoz hobea da beren errealismoa, nazioarteko urre-estandar finkoaren gaur egungo defendatzaileen pentsamendu nahasia edo nazioarteko kreditu-arloko *laissez faire*-a baino (hauek bakea ongien sustatzen dutenak politika hauek direla uste dute, hain zuzen).

Izan ere, nahikoa denboraldi luzean zehar, diru-kontratuak eta ohitura finko samarrak dituen ekonomian, non barneko zirkulazio-bolumena eta interes-tasa, batez ere, ordainketa-balantzaren menpekoak diren (gerra aurreko Britainia Handiaren egoera, kasu), agintaritzek ez dute bide ortodoxorik etxeko langabeziari aurre egiteko, gehiegizko esportazioa eta beren auzokoen konturako diru-metalaren

inportazioa izan ezik. Historiak ez du nazioarteko urre-estandarra (edo, antzina, zilarrena) bezain metodo eraginkorrik ezagutu herrialde batek bere auzokoekiko abantaila lor dezan. Izan ere, estandar honen barne-oparotasuna, zuzenean, merkatua lortzeko lehiaren eta metal bitxiak eskuratzeko lehia-gosearen menpe egoteak eragin baitzuen. Zorionezko istripuaren bidez, urre eta zilarren hornikuntza berriak nahikoa ugaltu zirenean, borroka maila batean apal zitekeen. Baina aberastasunaren hazkuntzarekin eta murriztuz zihotan kontsumitzeko joera marjinalarekin, etenik gabeko borroka izatera jo du. Ekonomialari ortodoxoek betetako eginkizuna, beren sen ona beren logika eskasa orekatzeko nahikoa izan ez delarik, zorigaiztokoa izan da guztiz; zeren eta, ihesbidea aurkitzeko borroka itsuan, herrialde batzuek aldeztu aurretik interes-tasa autonomoa ezinezko egiten zuten eginbeharrak bertan behera utzi baitituzte. Ekonomialari hauek antzinako kateak berreskuratzea berreskurapen orokorra gerta dadin nahitaezko lehen urratsa dela erakutsi dute.

Egia esan, guztiz kontrakoa gertatzen da. Nazioarteko kezkek trabatu gabeko interes-tasa autonomoaren politika eta barne-enpleguaren maila optimora zuzendutako nazio-inbertsioaren programa dira bedeinkapen bikoitza dei genezakeena, aldi berean, bai guretzat eta bai gure auzokoentzat, lagungarria baita. Eta herrialde guztiek batera politika hauek aldi berean lortzea da, nazioarte-mailan, osasun eta indar ekonomikoak osatzeko gai dena, nazio-enpleguaren mailaren bidez nahiz nazioarteko merkataritza-bolumenaren bidez neurtuta ere.¹⁶¹

IV

Merkantilistak arazoaz ohartu arren, ez ziren konponbidea bilatu arteko azterketa egiteko gai izan. Baina eskola klasikoak ez zion arazoari jaramonik egin, beren premisetan arazoa ezabatzen zuten baldintzak sartu baitzituzten eta, ondorioz, teoria ekonomikoaren eta sen onaren artean hutsune bat sortu baitzuten. Teoria klasikoaren lorpen harrigarria «gizaki arruntaren» sineskeren gainetik jarri eta, era berean, oker egotea izan zen.

Heckscher irakasleak honela adierazi zuen:

Beraz, diruari eta honen osagaiei buruzko oinarritzko kontzeptua Gurutzadetatik XVIII. mendera bitartean aldaketarik ez izateak frogatu egiten digu gai honi buruzko ideiek sokeneko sustraiak zituztela. Eta, agian, ideia hauek aipatu bostehun urte horiek baino luzeago biziko ziren, nahiz eta, «salgaiekiko beldurraren» ideia iritsi zeneko indar bera ez eduki, ezta gutxiago ere... Liberalismo ekonomikoaz aparte, baliteke inolako epe historikorik pentsamolde honetatik at ez egotea. Printzipio-arloan liberalismoak izan zuen egoskorkeria izan zen, denboraldi batez eta gai honi dagokionez, «gizaki arruntaren» ideien gainetik egoteko gai». ¹⁶²

Liberalismoaren doktrinazko fanatismo osoa beharrezkoa zen «salgaiekiko beldurra» pikotara bidaltzeko... diru-ekonomian, «gizaki arruntak» har dezakeen jarrera azalgarriena da. Librekanbismoak gauzatuak ziruditen errealitateak ukatzen zituen eta, nahitaez, sinesgarriak izateari utzi egin behar zioten liberalismoak izpirituak bere ideietara lotura mantentzeko gai izango ez zen unetik aurrera. ¹⁶³

Gogoan dut Bonar Law-k ekonomialarien aurrean adierazitako amorrua, ekonomialariek argi zegoena ukatu egiten zutelako. Azalpena aurkitzeko behar larria zuen. Teoria ekonomikoaren eskola klasikoko eta hainbat erlijiotako nagusitasunen arteko antzekotasunera jo zuen; izan ere, ideia baten potentzia askoz ere hobeto erakusten du argi dagoena azaltzeak, gizakiaren nozio arruntetan ezkutukoa eta urrutikoa zaiona sartzeak baino.

V

Honekin lotuta, ezberdina bada ere, mendeetan eta baita milaka urtetan ere, iritziak egiazkotzat eta argitzat jotako doktrina jantzi zuen, eta gerora eskola klasikoak doktrina hau umekeriatzat hartu eta baztertu egin badu ere, hona ekartzea eta behar dituen ohoreak ematea merezi du. Hain zuzen ere, interes-tasa gizarte-komenientziarako

maila egokira berez ez dela doitzen dioen doktrinaz ari naiz, etengabe gehiegi igotzeko joera duenaz eta, beraz, gobernu zuhurrak lege eta ohituraren bidez, baita arau moralak zigortuz ere, interes-tasa hori txikiagotzea eragiten duenaz.

Lukurreriaren aurkako borroka gogora ekar ditzakegun praktika ekonomiko zaharrenenetakoa da. Inbertitzeko pizgarria likideziaztatiko gehiegizko lehentasunaren alde egiteko baztertzeara. Antzinatean nahiz Erdi Aroan, zoritxar nagusia izan zen aberastasuna handiagotzeko lehen oztopoa. Eta berdin gertatzen da, jakina, bizitza ekonomiko hainbat arrisku eta gorabeherak kapitalaren eraginkortasun marjinala murrizten dutenez gero, beste batzuek likideziaztatiko lehentasuna handiagotzeko balio dutenean. Beraz, inork segurutzat hartzen ez zuen munduan, gizartearen esku zegoen bide oro erabilita interes-tasa murrizten ez bazen, ezinbestean gehiegi igoko zen inbertitzeko pizgarri egokia egoteko.

Niri sinestarazi egin zidaten Erdi Aroko Elizak interes-tasarekiko zuen jarrera zentzugabea zela eta diru-maileguen errendimendua eta inbertsio aktiboen errendimendua bereizteko helburua zuten azterketa xeheak teoria txepel bati ihesbidea emateko jesuiten saio hutsak zirela. Baina, orain, azterketa horiek irakurrita, teoria klasikoak modu ulertezinean nahastu duena bereiz mantentzeko ahalegin intelektual zintzoak direla ikusten dut, hau da, interes-tasa eta kapitalaren eraginkortasun marjinala bereizteko ahalegina; izan ere, orain argi eta garbi ikus daiteke eskolagizon jakitunen burutapenen helburua, interes-tasa txikia mantentzeko araudiak, ohiturak eta lege moralak aplikatzen zituzten bitartean, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba garaia izateko formula bilatzea zela.

Adam Smith bera ere guztiz apala zen lukurreriari buruzko legeekiko, zeren eta oso ondo ulertzen baitzuen inbertsioek nahiz zorrek norbanakoaren aurrezkiak zurga ditzaketela, eta inbertsioan irtenbidea topatzeko ziurtasunik ez dagoela. Horrez gain, aurrezkiek irtenbidea zorretan ez eta, inbertsioetan topa zezaten interes-tasaren jaitziera berezia bultzatu zuen; eta arrazoi hau dela eta, Bentham-en gaitzespen zorrotza jaso zuen pasarte batean¹⁶⁴ lukurreriari buruzko legeen aplikazio apala defendatu zuen.¹⁶⁵ Are gehiago, Adam Smith-en kezka eskoziarra «aitzindarientzat» zorrotzegia zela eta interes-tasa maximoak sozialki gomendatutako berezko arriskuak estaltzeko

oso tarte txiki uztea zen, batez ere, Bentham-en kritiken oinarria; izan ere, Bentham-ek *aitzindari* gisa zituen «aberastasuna edota beste edozer lortzeko bidean, aberastasun horren laguntzaz edozein asmakizun-bidetan sartzeko saiatzen direnak... beren asmoetako edozeini jarraituz, *hobekuntza* izan daitekeen edozer lortu nahi dutenak... Azken batean, ideia giza ahalmenen aplikazio orori buruzkoa da, non inje-niotasunak aberastasunaren beharra duen». Jakina, Bentham zuzen dabil berezko arriskuak kontuan hartu nahi ez dituzten legeen kontra eginda. «Gizaki zuhurrak ez ditu, baldintza hauetan, proiektu onak eta txarrak bereiziko, ez baita inolako proiektuz kezkatuko». ¹⁶⁶

Agian, zalantzan jar daiteke aurreko hori, benetan, Adam Smith-ek adierazi nahi izan zuena ote izan zen. Edota, ez al da izango Bentham-engan (1787ko martxoan *Crichoff in White Russia*-n idatzia bada ere) XIX. mendeko Ingalaterra XVIII.ekoari hitz egiten entzuten ari garela? Izan ere, urre-garaiko inbertitzeko pizgarriaren joritasunaz aparte, beste ezerk ez luke bere eskastasunaren aukera teorikoa begi-bistatik galtzeko bidea eskainiko.

VI

Beharbada komeniko litzateke Silvio Gesell (1862-1930) profeta arrotza eta zoritxarrez ahaztua hona ekartzea; honen lanak oso izpi sakonak ditu eta ia-ia gaiaren funtsa ulertzera iritsi zen. Gerraostean haren jarraitzaileek bere lanen kopiekin bonbardatu ninduten; dena den, bere argudioen hainbat akats nabarmenen ondorioz, ezin izan nituen, inola ere, bere merituak zeintzuk izan ziren jakin. Behar ez bezala aztertutako susmoekin sarritan gertatu ohi den moduan, ez zitzaidan honen garrantziari buruzko azalpenik eman nik, neure erara, neure ondorioak atera nituen arte. Bien bitartean, beste ekonomialari akademiko batzuen gisara, bere indar guztiz orijinalak eroarenak bailiran hartu nituen. Gesell-en garrantziaren berri liburu honen irakurle gutxi izango dutenez, bestela neurriz gainekoa irudi lezakeen tokia eskainiko diot Gesell-i.

Gesell Buenos Airesko arrakasta handiko merkatari alemaniarra izan zen,¹⁶⁷ eta Argentinan oso bortitza izandako laurogeigarren

hamarkada bukaerako krisiaren ondorioz diru-arazoak aztertzeari ekin zion, eta bere lehen lana, *Die Reformation im Münzwesen als Brücke zum sozialen Staat*, Buenos Airesen argitaratu zuen 1891. urtean. Diruari buruzko bere oinarritzko ideiak urte horretan bertan argitaratu zituen Bueno Airesen, *Nervus rerum* izenburupean, eta honen ondoren liburu eta foileto ugarik eman zioten segida, 1906. urtean Suitzara erretiratu zen arte. Bere bizitzako azken urteak lan egin behar ez dutenen eskura dauden bi lanbide zoragarrienei heltzera joan zen: idazle eta nekazari esperimental izatera, alegia.

Bere obra ezagunenaren lehen zatia 1906. urtean argitaratu zen Les Hauts Geneveys-en, Suitzan, *Die Verwirklichung des Rechtes auf dem vollen Arbeitsertrag* izenburupean, eta bigarrena, *Die Neue Lehre vom Zins*, Berlinen, 1911. urtean. Gerra-garaian (1916) bi zatiak batera argitaratu ziren Berlinen eta Suitzan, eta egilea bizi zela seigarren argitalpenera iritsi ziren, *Die natürliche Wirtschaftsordnung durch Freiland und Freigeld* izenburupean; ingeleseko bertsioa (Philip Pyeren itzulpena) *The Natural Economic Order* izenburuarekin kaleratu zen. 1919ko apirilean Gesell oso iraupen laburreko Bavariako sobietar gabineteko partaide izan zen, Ogasuneko Ministro gisa, eta honen ondorioz geroago Gerra Kontseiluan epaitu egin zuten. Bere bizitzako azken hamarkada Berlinen eta Suitzan pasa zituen, azken urte hauek propagandari eskaini zizkiolarik. Gesell-ek lehenago Henry George-k izandako mirespen erdi-erlijiosoa bereganatu zuen eta munduan zehar milaka eta milaka jarraitzaile zituen doktrinaren profeta laudatua izatera iritsi zen. Freiland-Freigeld Bund suitzar eta alemaniarren eta beste herrialde askotako antzeko erakundeen nazioarteko lehen biltzarra Basilean burutu zen 1923. urtean. 1930. urtean hil ondoren, tankera honetako doktrinek suspertu ohi dituzten mirespenaren zati handi bat beste profeta batzuegana desbideratu da (bera bezain bikainak ez direnengana, nire ustetan). Büchi doktorea mugimenduaren burua da Ingalaterran, baina bere literatura San Antoniotik, Texastik, banatzen dela dirudi, gaur egun indar handiena Estatu Batuetan duelarik (non Irving Fisher irakasleak, ekonomialari akademikoetan berak bakarrik, mugimenduaren garrantzia aintzatetsi duen).

Bere jarraitzaileek profeten mailako dohainez apaindu badute ere, Gesellek bere liburu garrantzitsuena hizkera zuhur eta zientifikoan idatzi zuen, nahiz eta, askoren ustetan, zientzialariari legokiokkeen

baino justizia sozialarekiko debozio gartsu eta hunkigarri handiegiez beteta dagoen. Henry Georgerengandik¹⁶⁸ eratorritako zatia (inolako zalantzarik gabe, mugimenduaren indarraren arrazoi garrantzitsua izanik ere), oro har bigarren mailan geratzen da. Liburuaren helburua, oro har, marxismoaren aurkako sozialismo ezartze gisa deskriba daiteke; *laissez faire*-ren aurkako erreakzioa, Marxen guztiz bestelako oinarri teorikoetan eraikia; hipotesi klasikoak onartu baino, baztertu egiten baititu, eta lehia aske uzten baitu, suntsitu beharrean. Nire usteetan, etorkizunak gehiago ikasiko du Gesellengandik, Marxengandik baino. *The Natural Economic Order*-en hitzaurrea irakurtzen duena Gesellen kalitate moralaz jabetuko da. Nire iritziz marxismoarekiko erantzuna hitzaurre honen ildoari jarraituz aurkitu ahal izango dira.

Gesellek diru eta interesaren teoriari egiten dion ekarpen zehatza ondoren adierazitakoa da. Lehenik eta behin interes-tasa eta kapitalaren eraginkortasun marjinalaren arteko bereizketa nabarmena egiten du, eta baieztatu egiten du kapital errearen hazkunde-tasari muga jartzen diona interes-tasa dela. Ondoren, interes-tasa guztiz diru-fenomenoa dela adierazten du, eta diruaren ezaugarri nagusia dela —zeinak diruaren interes-tasaren garrantzia ematen duen—, aberastasuna pilatzeko gaitasunak haren jabe denari mantenu-gastu hutsalak sorrazten dizkiola eta gastu horiek ez dituzten ondasun-edukitzaren eta antzeko aberastasunek, berez, diruak ezarritako ereduaren araberrako errendimendua ematen dutela. Denboran zehar interes-tasak izandako konparaziozko egonkortasuna ezaugarri fisiko hutsen menpekota ezin izan daitekeela frogatzeko aipatzen du, jarraian dau den bi garaien artean ezaugarri fisiko horiek izandako aldaketak askoz ere handiagoak izango baitira interes-tasan izandako aldaketak baino; hau da, (nire terminologian), ezaugarri psikologiko konstanteen araberrakoa den tasa egonkorra mantendu da eta, bien bitartean, kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba nagusiki finkatzen duten gorabehera handiko ezaugarriek ez dute tasa hura finkatu, emandako interes-tasa (gutxi gorabehera) kapital errearen izakinak handiagotzea ahalbidetzen duen proportzioa baizik.

Baina Gesellen teorian funtsezko hutsegitea dago. Salgaien stock-mailegutik errendimendua eskuratzea ahalbidetzen duena diruaren interes-tasa egotea besterik ez dela adierazten du. Robinson Crusoe eta atzeritar baten arteko elkarriketa¹⁶⁹ puntu hau frogatzeko

parabola ekonomiko hoberenetakoa da —idatzi den tankera honetako beste edozein bezain ona—. Baina ondasunen interes-tasa gehient-suak ez bezala, diruaren interes-tasa negatiboa ezin izateko arrazoiak azaldu ondoren, positiboa izateko arrazoiak zeintzuk diren azaltzeko beharra ahaztu egiten zaio erabat, eta azaltzeke uzten du kapital produktiboaren errendimenduak ezarritako mailaren arabera arautua ez egoteko arrazoia. Honen zergatia likideziagatiko lehentasunaren nozioak ihes egin izana da. Interes-tasaren teoriaren erdia besterik ez zuen garatu.

Bere teoriaren osotasunik ezak, zalantzarik gabe, bere lanak mundu akademikoan interesik zergatik sortu ez zuen adierazten digu. Dena den, bere teoria gomendio praktiko batera iristea ahalbidetzeko adina bezain urrun eraman zuen, eta honek beharrezkoa denaren funtsa izan dezake, nahiz eta berak proposatutako moduan bideragarria izan ez. Diruaren interes-tasak kapital errealearen hazkuntza galgatu egiten duela dio, eta galga hori kenduz gero, mundu modernoan kapital errealearen hazkundeak sekulako abiadura hartuko luke eta seguraski zeroaren pareko tasa justifikatu egingo litzateke; jakina, berehalakoan ez, baina nahikoa epe laburrean bai. Horrela, lehen mailako beharra diruaren interes-tasa murriztea da, eta berak adierazi zuenez, hori lortzeko modua diruak gainerako ondasun antzuen antzera mantenu-kostuak izan ditzan eragitea da. Honek diru «zigilatu» deituriko izendapen ospetsua sorrarazi zuen, Gesellen izena batez ere honekin lotzen delarik eta Irving Fisher irakaslearen onarpena jaso duelarik. Proposamen honen arabera, zirkulazioan dauden bileteak (nahiz eta, argi dagoenez, gutxienez, banku-diruzko forma batzuei gauza bera aplikatu beharko litzaikeen) hileru zigilatu beharko lirateke beren balioa gordetzekotan (gizarte-aseguruko txartelak bailiran, postetxean erositako zigiluen bidez). Zigilu horien kostua, jakina, egoki finkatu ahal izango litzateke. Nire teoriaren arabera, oro har hitz eginda, kostu hori eta enplegu betearekin bat datorren inbertsio berrien tasari dago-kion kapitalaren eraginkortasun marjinalaz gain diruaren interes-tasak (zigiluetatik kanpo) duen soberakina berdinak izango lirateke. Gesellek iradokitako zerga erreala asteko milako batekoa litzateke, urteko ehuneko 5,2 aren baliokidea. Hori altuegia litzateke gaur egungo egoeran, baina noizbehinka moldatu beharko litzatekeen kopuru egokia haztamuz baino ezingo litzateke lortu.

Diru zigilatuaren oinarritzko ideia sendoa da. Benetan posible da praktikan neurri txikian aplikatzeko bideak aurkitu ahal izatea; baina Gesellek aurre egin ez zien oztopo ugari dago. Batez ere, ez zen ohartu dirua likidezi sariaren ezaugarria bere baitan duen ondasun bakarra ez dela, diruaren eta gainerako ondasunen artean graduaren araberako diferentzia besterik ez dagoela, eta, beraz, bere garrantzia beste edozein ondasun baino likidezi sari *handiagoa* izatean datzala. Horrela, zirkulazioko bileteei zigilatzeke sistemaren bidez sari hori kendu behar balitzaie, horren atzetik beste ordezeko piloa etorriko litzateke —banku-dirua, ageriko zorrak, atzerriko dirua, bitxiak eta metal bitxiak, oro har, eta abar—. Lehenago esan nuenez, garai batean lurra edukitzeko egarri aseztina izan zitekeen (eta ez bere errendimendua) interes-tasa eutsi ziona —Gesellen sistemaren arabera, lurra nazionalizatuta aukera hau bazterturik geratuko litzakeen arren—.

VII

Lehenago aztertutako teoriak, funtsean, inbertitzeko pizgarria aski izatearen menpekkoa den benetako eskaria osatzen duen elementuari dagozkio. Dena den, ez da gauza berria langabeziaren okerrak beste elementu osatzailea aski ez izateari leporatzea, hau da, kontsumitzeko joeraren urritasunari leporatzea. Baina gaur egungo samin ekonomikoen —ekonomialari klasikoentzat ere batere atseginak ez zirenak— azalpen alternatibo honen zereginak askoz ere garrantzi gutxiago izan zuen XVI eta XVII. mendeetako pentsamenduan, eta duela gutxira arte ez du indarrrik hartu.

Pentsamendu merkantilistan azpikontsumoari buruzko kexuak bigarren mailan geratzen baziren ere, Heckscher irakasleak «oparotasunaren erabilkortasunari eta aurrezkiaren kalteari buruzko sakoneko ideia deitzen duenaren adibide ugari aipatzen du. Berez, aurrezkoa langabeziaren kausa gisa hartzen zen, eta uste hori bi faktoreren ondoriozkoa zen: batetik, ganbioan sartzen ez zen diru-kopuruak errenta erreala murriztu egiten zuela uste zen; bestetik, aurrezkiak aurreztutako dirua zirkulaziotik kendu egiten zuela uste zen».¹⁷⁰ 1598. urtean Laffemas-ek (*Les Trésors et richesses pour mettre l'Etat en esplen -*

deur) zeta frantziarrak erabiltzearen aurkakoak salatu zituen, luxuzko artikulu frantziarrak erosten zituztenek txiroei ogibidea ematen zieten eta zekenek miseria gorrian hilarazten zituztela esanez.¹⁷¹ 1662. urtean Petty-k «dibertsioak, ikuskizun itzelak, garaipen-arkuak, etab.» zuritu zituen, hauen kostuak tabernari, okin, jostun, zapatari eta beste hainbaten patriketan sartzen zirela argudiatuz. Fortrey-k «jantzi gehiegi izatea» zuritu zuen. Von Schrötter-ek (1686) luxuaren aurkako arauak eraso zien, eta are eta soineko-erakusketa handiagoa egotea nahiko lukeela adierazi zuen. Barbon-ek (1690) honakoa esan zuen: «Oparotasuna gizakiarentzat bizioa da, baina ez merkataritzarentzat... zekenkeria bai gizaki eta bai merkataritzarentzat bizioa da».¹⁷² 1695. urtean Cary-k baieztatu egin zuen jende guztiak gastu handiagoak izango balitu, guztiek sarrera handiagoak izango lituzketela eta, beraz, hobeto bizi ahal izango lirakeela».¹⁷³

Baina Barbon-en iritzia, Bernard Mandeville-ren *Erleen alegia* izenekoaren bidez zabaldu zen gehienbat herritarren artean, Middlesex-ko epaimahai nagusiak 1723. urtean gaitzetsi egin zuen, eta giza hezibideari buruzko zientzietan bere ospe eskandalagarria dela eta nabarmendu da. Liburu honi buruz ondo hitz egin duen gizon bakarraren berri dugu: Johnson doktorearen berri. Honek, harritzen ez zuela ez ezik, «begiak errealtatera nabarmen irekitzen zizkiola» adierazi zuen. Liburuko gaiztakeri maila hobeto antzeman daiteke Leslie Stephen-ek *Dictionary of National Biography*-n eginiko laburpenean:

Liburu honen bidez Mandeville-k sekulako iraina egin zuen, paradoxa injeniotsuen bidez moraltasunaren sistema zini-koa erakargarri bihurtu zuelarik... Oparotasuna aurrezkiek beharrean gastuek handiagotzen zutela zioen doktrina, oraindik ere herritarren artean desagertu ez diren gezur ekonomiko askoren ondoan jarri zen.¹⁷⁴ Aszetekin batera, giza desioak, berez, txarrak direla eta, beraz, «bizio pribatuak» sortzen zituztela, eta iritzi orokorrarekin bat, aberastasuna «onura publikoa» zela suposatuz, erraz asko frogatu zuen gizateria osoak zuela bere barne-jarrera biziotsuak garatzeko joera...

Erleen alegia delako testua poema alegorikoa da, «Erlauntza zurrunbilotsua, edo Bihurriak zintzo bihurtzea», eta bertan komunitate oparoaren izugarrizko estutasuna adierazten da, bat-batean eta

aurrezkiari begira, hiritar guztiei luxuzko bizimodua eta estatuari
armagintza alde batera uztea bururatzen zaielarik:

Erleen alegia

*Aitonen semerik ezin pozik inolaz
bizi eta zorra kitatu xahaturikoaz
morroi jantziak mailegari saltokietan
gurdiak kanta baten truke emanetan
salduta sortan odol oneko zaldiak
eta etxaldeak zor kitagarriak.
Gastu alferra bertute aizunaren parean
gudarosterik ez erbestean
barregarri atzerritarren oniritzia
guden bitartez ospe mirria
izan ezean borroka aberriaren aldekoa
zuzena edo askatasuna arriskuan direnekoa.*

Kloe harroa

*Agintzen du menu garestirik
eta urte osoan soineko latza jantzirik.*

Eta ondorioz zer?

*Gogoratu erlauntza ohoretsua eta ikusirik
nola diharduten zintzo eta gordinik
alferra kanpora, handik egotzi
eta bestelako itxura erakutsi,
horra hor non joandakoak
xahutzen ari urteko dirutzak
eta beren lepotik bizi ziren aldrak
horiek ere berdin joanak
alferrik beste negozioen bila hega
denak zirelako larregizko karga.
Etxe-lurren sariak erreka joak
jauregi harrigarrietako hormak
Tebasen legez alaitsu eraikiak
bertan behera eginda aurriak
Merkatarien Baita sutsitu erabat
etxegileak langabezirat*

*ederzaleak ospegabeturik
hargin-eskultoreak itzal ezik.*

Horra hor ikasbidea:

*Herririk ezin bizi du birtute onberak
esne mamitan. Berpiztuko direla
Urrezko Aroan, izanik eskua
ezkur hala zintzotasun hautua.*

Alegiaren ondorengo azalpenaren bi zati hartu ditugu aurreko horrek oinarri teorikoen gabeziarik ez zuela frogatzeko:

Hainbat gizakik aurrezkia deritzon ekonomia zuhur hau familia pribatuen ondarea handiagotzeko metodorik ziurrena denez, era berean, batzuek herrialde antzu nahiz oparoan metodo honek berak (beren ustez gauzagarria izanik) nazio osoan erabat betez gero ondorio berberak izango dituela uste dute; eta, esaterako, ingelesak orain direna baino askoz ere aberatsagoak izan litezkeela beren ondoko herrialdeetako batzuen tankerako urritasunean biziko balira. Nire ustez, hori erabateko hutsa da.¹⁷⁵

Aitzitik, Mandeville-k honela amaitu zuen:

Nazio osoa zoriontsu eta oparo bihurtarazteko, guztiei eta bakoitzari lan egiteko aukera eman behar zaie; eta, hori lortzeko, izan bedi gobernuaren lehen ardura giza adimena asmatzeko gai den hainbat eskulan, arte eta lanbideen aniztasun handia sustatzea; eta bigarrena, nekazaritza eta arrantza beren adar guztietan bultzatzea, lur eta gizaki guztiek ahal duten guztia eman dezaten. Etortzekotan, nazioen handitasuna eta zoriona politika honetatik etorriko dira, eta ez ugaritasun eta urritasunari buruzko erregulazio arinetatik; zeren eta urrearen eta zilarraren balioa igo edo jaisten utzita ere, gizarte ororen ongizatea, beti, lurraren, lanaren eta jendearen fruituen baitakoa izango baita; guztiak ere, elkarrekin, Brasilgo urrea edo Potosiko zilarra baino altxor egiazkoagoa, amaitezinagoa eta errealagoa baitira.

Ez da harritzekoa horren sentimendu gaiztoek bi mendetan zehar moralista eta ekonomialarien kontrako iritzia izatea, hain zuzen, beren doktrina zorrotzean bertutetsuagoak sentitzen ziren horiena, eta urritasun eta ekonomia handiagoan izan ezik, ezin zen beste inon norbanako nahiz estatuaren irtenbide eraginkorrik aurkitu. Petty-ren «dibertsioak, ikuskizun ikaragarriak, garaipen-arkuak, etab. delakoak » finantza gladstondarren txanponaren jakituriari utzi zion leku, baita «ezin ordain» zitekeen estatu-sistemari ere, hala nola ospitale, parke publiko, eraikin ikusgarri edota monumentu zaharren mantenimendua, are gutxiago musika eta antzerkiaren ikusgarritasuna, hau guztia karitate pribatuaren edo norbanako ezustekoen eskuzabaltasunaren bizkar geratzen zelarik.

Mende oso batez ez zen doktrina jende errespetagarrien mailan ostera agertu, Malthus-en azken fasean eskari efektiboaren aski ez izatearen kontzeptua langabeziaren azalpen zientifiko gisa definitu zen arte. Malthusi buruzko saiakeran¹⁷⁶ gai honi nahiko zabal heldu diodanez jada, oraingo honetan aski izango da saiakera horretan aipatutako pasarte adierazgarri pare bat ekartzea:

Ia mundu guztian zehar ikus ditzakegu martxan ari ez diren itzelezko ahalmen produktiboak, eta fenomeno hau azaldu nahian, ekoizpen errearen behar bezalako banaketa ezagatik ez dagoela horrela jarraitzeko arrazoi egokirik esan dezaket... Irmoki diot oso azkar metatzeko saioan, ekoizpena mugiarazten duten ohizko zioak arras trabatuz, nahitaez, kontsumo ez-produktiboa nabarmen murrizten duelarik aberastasunaren aurrerakuntza, behar baino lehenago geldiarazi behar duela... Baina oso azkar metatzeko saioak lana eta aberastasunen artean bereizketa eragiteagatik, etorkizuneko metaketak egiteko gaitasunaren arrazoia suntsitzen duela egia balitz, eta beraz, baita hazkundean dagoen populazioa mantendu eta enplegatzeko ahalmena ere, ez ote litzateke onartu behar metatzeko tankera horretako saioa, edota gehiegi aurrezte, herrialde batentzat benetan kaltegarria izan daitekeela?¹⁷⁷

Arazoaren gakoa, ordea, kapitalaren gelditze hau, eta honen ondorioz, lurraren jabeek eta kapitalistek kontsumo ez-produktiboaren maila egokiaren ekoizpenaren gehikuntzatik

eratorritako eskulan-eskaria, ea bi horiek herrialdea kaltetu gabe eta zoriontasun eta aberastasunean eragindako murrizketa, lurraren jabeen eta kapitalisten kontsumo ez-produktiboa gizartearen soberakin naturalekiko horren proportzionatua izanik, ekoizpenaren zioak jarraitasunean mantendu eta, lehenik, lanaren eskari ez-naturala eta, bigarrenik, eskari horren beharrezko eta bat-bateko jaitsiera saihestuko litzatekeen. Baina hori horrela balitz, nola esan liteke, benetan, gastazeko zuhurtzia, ekoizleentzat seguraski kaltegarria izan arren, estatuarentzat ezin daitekeela kaltegarria izan; edota lurraren jabeen eta kapitalisten kontsumo ez-produktiboaren gehikuntza batzuetan agian ekoizpena bultzatzen duten arrazoiek huts egiten dutenerako ez dela konponbide egokia izango?¹⁷⁸

Adam Smith-ek ziurtatu egin du kapitalek gastatzeko zuhurtzia handiagotu egiten dutela, urritasunean bizi den gizaki oro ongile publikoa dela eta aberastasunaren hazkuntza ekoizpenak kontsumoaz gain duen soberakinaren arabera dela. Ezin uka daiteke baieztapen hauek, hein batean, egiazkoak direla... Baina erabat argi dago, bestalde, ez direla mugagabeki egiazkoak, eta aurrezkiari eusten dioten printzipioek, muturrera eramanda, ekoizpenaren pizgarriak suntsituko lituzketela. Gizaki oro elikagai arruntenekin, jantzi txiroenekin eta etxebizitza umilenekin aseko balitz, seguraski ez litzateke bestelako elikagai, jantzi edo etxebizitzarik egongo... Bi muturrak begi-bistakoak dira eta, beraz, aberastasuna bultzatzeko pizgarri handienak erdibideko batek izan beharko duela ondoriozta dezakegu, horretarako bai ekoizteko ahalmena eta bai kontsumitzeko nahia kontuan hartuz, nahiz eta ekonomia politikoak egun dituen baliabideak agian hau egiaztatzeko aski izango ez diren.¹⁷⁹

Aurkitu izan ditudan gizaki azkar eta adituek adierazitako iritzi guztien artetik, *un produit consommé ou détruit est un débouché fermé* (I, 1, 15. kap.) dioen Say-rena iruditzen zait teoria zuzenarekiko aurkakoena eta esperientziak gehien kontraesaten duena. Dena den, doktrina berriaren ondorio zuzena honakoa da: ondasunak elkarrekiko —eta ez kontsumitzaileekiko— zuzeneko harremanetan besterik ezin direla aintzat

hartu. Hona hemen zer galdetuko nukeen: zer gertatuko litzateke ondasunen eskariarekin kontsumo guztia, ogia eta ura izan ezik, hurrengo mende-erdia bitartean bertan behera utziko balitz? A zer nolako salgaien metaketa! *Quels débouchés!* A zer nolako merkatu oparoa sorraraziko lukeen horrek!¹⁸⁰

Ricardok, hala ere, Malthus-ek esaten zuenari muzin egin zion. Eztabaidaren azken oihartzuna John Stuart Mill-ek alokairu-fondoa-ren teoriari buruz egindako adierazpena da,¹⁸¹ berak Malthus-en azken fasea baztertzeko orduan ezinbestekotzat jotzen zuena, jakina, bera hezia izan zen eztabaiden erdian. Mill-en jarraitzaileek alokairu-fondoari buruzko teoria gaitzetsi egin zuten, baina ahaztu egin zuten Malthus-en ospea horren ondoriozkoa zela. Hauen metodoa ekonomia-ren *corpus*aren arazoa alde batera uztea zen, erantzunik eman gabe, aipatzeko utziz. Eztabaidatik desagertu egin zen guztiz. Cairncross jauna, garai viktoriarreko ezezagunen arteko arrastoari jarraituz,¹⁸² itxaron zitekeena baino gutxiago aurkitu du.¹⁸³ Azpikontsumoari buruzko teoriak ezkutuan mantendu ziren 1889an J.A. Hobson eta A.F. Mummery-ren *The Physiology of Industry* agertu artean. Liburu ugariren artean lehena eta garrantzitsuena izan zen, zeinetan, berrogeita hamar urtetan zehar, Hobson irakaslea ortodoxiaren ezaugarrien aurka sekulako (baina, ia alferrikako) adorez eta trebeziak mintzatu den. Gaur egun guztiz ahaztuta dagoen arren, liburu honen argitalpenak pentsamendu ekonomikoan nolabait-teko nagusitasuna izan zuen.¹⁸⁴

The Physiology of Industry A.F. Mummery-rekin elkarlanean idatzi zuen. Hobsonek liburua idaztera nola iritsi ziren adierazten du:¹⁸⁵

Laurogeigarreneko hamarkadaren erdi aldera arte ez zen nire heterodoxia ekonomikoa gorputza hartzen joan. Henry George-k lurraren baloreen aurka burututako kanpainak eta hainbat talde sozialistak langile-klaseen zapalketa nabarmenaren aurka egindako mobilizazio goiztiarrek, Booths biek Londresen txirotasunari buruz egindako adierazpenekin batera, nire sentimenduengan eragin handia izan bazuten ere, ez zuten ekonomia politikoarengan nuen fedea hautsi. Ustekabe hutsa izan zen hau: Exeter-eko eskola batean irakasten ari nintzela,

Mummary izeneko negozio-gizon batekin harremanetan hasi nintzen; Mummary delako hau, orduan, eta gerora ere, Matterhorn-erako bide berria zabaldu zuelako mendizale eza-guna zen, eta 1895. urtean hil zen, Himalaiako Nanga Parbat mendira igotzeko saioan. Jakina, gure arteko harremanak ez ziren zaletasun honen ingurukoak; baina Mummaryk mendian erakutsi zuen abilezia bera zuen buruari eragin behar zionean ere, eta bere bidea aurkitzeko ikusmena nahikoa zuelarik, aginte intelektualarekiko erabateko axolagabekeria zuen. Gizon honek gehiegizko aurrezkiari buruzko eztabaidan sartu ninduen, bere ustetan merkataritza garai txarretan zegoenean kapitala eta lana gutxiegi erabiltzearen eragilea zelarik. Luzez egon nintzen bere arrazoiak arma ekonomiko ortodoxoen bidez bertan behera utzi nahian; baina azkenean bere eremura eraman ninduen eta elkarrekin jardun genuen gehiegizko aurrezkiari buruzko argudioa jorratzen, 1889. urtean argitaratu zen *The Physiology of Industry* izeneko liburuan. Hau izan zen nire ibilbide heretikoan eman nuen lehen urratsa, eta ez nintzen, inola ere, honek ekarriko zizkidan ondorio larriez ohartu; izan ere, garai hartantxe eskolako lanari utzi berria nion eta Ekonomia eta Literaturaren Unibertsitate Hedakuntzan hizlari gisa hastera nindoan. Lehen arazoa Londresko Hedakuntza Batzordeak ekonomia politikoari buruzko ikastaroak eman nitzan igorri zuen debekua izan zen. Jakin nuenez, nire liburua irakurri zuen ekonomiako irakasle baten eskuhartzearen ondoriozkoa izan zen debeku hau, irakasle honek nire lana, ikuspuntu razionaletik, lurra laua dela frogatzeko saioaren baliokidetzat hartu baitzuen. Aurrezki erabilgarriak nola izan zezakeen mugarik honen partida bakoitzak kapitalaren egitura eta alokairuak ordaintzeko fondoa gehitzen bazuen? Ekonomialari zuhurrek izugarrikeriaz beterik ikusten zuten industri aurrerakuntza ororen iturria ixteko asmoa zuen argudioa.¹⁸⁶ Beste esperientzia pertsonal interesgarri batek nire bidegabekeriak ohartzen lagundu zidan. Londresen ekonomia azaltzea eragotzi bazitzaidan ere, Oxfordeko Unibertsitate Hedakuntzarako Mugimenduaren askatasun handiagoari esker probintzietan hitzaldiak ematea onartu zidaten, langile-klasearen bizitzari buruzko arazo praktikoetara mugatuz. Orduan, Charity

Organization Society gai ekonomikoei buruzko hitzaldi-kanpaina prestatzen ari zen, eta ikastaro bat emateko gonbitea egin zidaten. Lan berri horri ekiteko prest nengoela esana nuelarik, ordea, bat-batean eta inolako azalpenik gabe gonbitea kendu egin zidaten. Orduan artean ere zaila izan zitzaidan mugagabe-ko urritasunaren bertutea zalantzan jarrita barkaezinezko hutsegitea egin nuela ulertzea.

Lehen lan honetan Hobson jaunak, bere laguntzailearekin batera, geroagoko izkribuetan baino aipamen zuzenagoa egin zion ekonomia klasikoari (bera hezia izan zeneko doktrinari); arrazoi hau dela eta, batetik, eta bere teoriaren lehen adierazpena delako, bestetik, lan horren aipuak ekarri ditut hona, idazleen kritika eta intuizioak zeinen garrantzitsuak ziren eta zer nolako oinarri sendoa zuten frogatzeko. Aitzin solasean aurka jartzen dituzten ondorioen izaera adierazten dute, honela:

Aurrezkiek komunitatea nahiz norbanakoak aberastu eta gastuek txirotu egiten dituzte, eta adierazpentzat jo daiteke diru-nahi efektiboa dela ongizate ekonomiko ororen sustraia. Norbanako aurrezlea aberasteaz gain, bere soldata handiagotzen du, langabetuei lana ematen die eta bere etekinak nonahi zabaltzen ditu. Egunkarietatik hasi eta azken ekonomi trataturaino, pulpitotik Komunen Ganberaraino, ondorio hau berretsi egiten dute guztiek, eta berari buruzko zalantza-izpirik ezin gera daitekeen arte errepikatu egiten dira. Dena den, mundu heziak, pentsalari ekonomiko gehiengoaren sustengua zuela, doktrina hau bere indar guztiarekin ukatu egin zuen Ricardoren lana argitaratu zen arte, eta azkenik onartu egin bazen, gaur egun bazter geratu den alokairu-fondoari buruzko doktrinari aurre egiteko gaitasun ezagatik onartu zen azken batean eta eskusiboki. Ondorioak bere oinarri zen argudioa baino luzeago iraun izana, argudio hori azaldu zuteneko gizon handien agintaritza itzelari esker izan zelako hipotesiak besterik ezin digu azaldu. Kritika ekonomikoak teoriari bere xehetasunetan erasotzen saiatu da, baina ondorio garrantzitsuenetara heldu aurretik atzera jo du, izaturik. Gure asmoa honakoa da: ondorio hauek ezin mantentzen daitezkeela frogatzea, aurrezkiaren ohi-

tura behar ez bezala buru daitekeela, eta honek komunitatea txirotu, langileak langabe utzi, alokairuak murriztu eta merkataritza guztian zehar negozioen beheraldi gisa ezaguna den malenkonía eta ezkortasuna hedatzen duela...

Ekoizpenaren helburua kontsumitzaileei «baliagarritasunak eta erosotasunak» eskaintzea da, eta prozesua jarraia da lehengaiaren lehen manipulazioetatik hasi eta baliagarritasun nahiz erosotasun gisa kontsumitzen den arte. Kapitalaren erabilera bakarra baliagarritasun eta erosotasun hauek ekoizten laguntzea izanik, guztira erabiltzen dena, nahitaez, egunero edo astero kontsumitzen diren guztien arabera izango da. Nolanahi ere, aurrezkiak, kapitalaren existentzia osoa handitzearekin batera, kontsumitutako baliagarritasun eta erosotasunen bolumena murriztu egiten du; ohitura honen behar ez bezalako erabilera bakoitzak, beraz, beharrezkoa denaz gaineko kapital-metaketa eragingo du, eta soberakina gainekoizpen orokor gisa agerraraziko da.¹⁸⁷

Pasarte honen azken fasean Hobson-en hutsegitearen sustraia agertzen da, hau da, gehiegizko aurrezkia dela kapitalaren metaketa *erreal*a eragiten duena, beharrezkoa denaren gainetik, eta hau, berez, bigarren mailako okerra da, aurreikuspen-hutsegiteengatik besterik sortzen ez dena; baina eragozpen nagusia, enplegu bete dagoenean, beharrezkoa den kapital-baliokidea baino gehiago aurrezteko joera da, horrela enplegu betearen egoerara iristea eragotziz (aurreikuspenetan okerrak daudenean izan ezik). Dena den, orrialde bat edo bi aurrerago, nire irudikoz, arazoaren erdia oso zehatz azaltzen du, interes-tasaren aldaketek eta negozioen konfiantza-egoeraren gainekoek izan dezaketen zeregina ahaztu egiten baditu ere (seguraski bi faktore hauek jakintzat jo dituelako):

Horrela, Adam Smith-ez geroztik irakaskuntza ekonomiko oro mantendu deneko oinarriak oker daudela ondorioztatu dugu, hau da, urtero ekoiztutako kantitatea izangai natural, kapital eta lan eskuragarrien bolumen osoek mugatzen dutela diotenak; eta, aitzitik, ekoiztutako kantitatea sekula gehigarri hauek ezarritako mugak gainditzea ezin gerta badaiteke ere, kantitate hori murrizgarria da, eta, berez, murriztu egiten da, maximo hau

baino askoz ere harantzago, behar ez bezalako aurrezkiak eta honen ondoriozko eskaintza-soberakinen metaketek ekoizpenean eragiten duten galgatzearen ondorioz; hau da, industri komunitate modernoan egoera normalean, kontsumoak ekoizpena mugatu egiten du, eta ez ekoizpenak kontsumoa.¹⁸⁸

Azkenik, bere teoriak Librekanbismo ortodoxoaren argudioen baliotasunarekin duen erlazioa adierazten du:

Era berean, honako hau ikus dezakegu: horrenbestetan ekonomialari ortodoxoek gure lehengusu amerikarrei eta bestelako komunitate protekzionistei egiten dieten merkataritza-erregelariaren kargua ezin dela orain arte adierazitako Librekanbismoaren aldeko argudio bat berarekin ere luzeago mantendu, horiek guztiak eskaintza-soberakinaren balizko ezi-nezkotasunean oinarritzen direnez gero.¹⁸⁹

Adierazten duen argudioa, argi eta garbi, osatugabea da; baina lehen aldiz azaltzen du, esplizituki, kapitala ez duela aurrezteko jorak eratzen, egungo kontsumoak eta kontsumo probableak eragindako eskariaren erantzun gisa baizik. Sakabanatutako zatiak bilduz osatu den ondorengo aipamenak ideiaaren zentzua adierazten digu:

Argi egon beharko luke komunitate baten kapitala ezin dela abantailaz handiagotu, horrekin batera merkatalgaien kontsumoa hazten ez bada... Aurrezkiaren eta kapitalaren hazkuntza bakoitzak, etorkizun hurbileko kontsumoan dagokion igoera egon dadila eskatzen du, eraginkorra izango bada...¹⁹⁰ Eta etorkizuneko kontsumoa diogunean, ez dugu esan nahi hamar, hoge edo berrogeita hamar urte barruko etorkizuna, orainalditik hurbil dagoen etorkizuna baizik... Urritasunaren edo zurtziaren gehikuntzak jendea orainaldian gehiago aurrettera bultzatzen badu, etorkizunean gehiago kontsumituko duela onartu beharko du...¹⁹¹ Ekoizpen-prozesuaren edozein unetan ezin daiteteke, ekonomikoki, egungo kontsumo-erritmoak eskatutako ondasunak eskaintzeko beharrezkoa dena baino kapital gehiago egon...¹⁹² Argi dago nire urritasunak ez diola, inola ere, komunitatearen urritasun ekonomiko osoari eragiten, eta urritasun osoaren zati zehatz bat nire edo beste baten esku egongo

dela besterik ez du finkatzen. Orain komunitate zati baten urritasunak beste zatia beren sarrerek ahalbidetzen dietena baino gehiago gastatzen bizitzera nola derrigortu dezakeen ikusiko dugu...¹⁹³ Ekonomialari moderno gehienek ukatu egiten dute kontsumoak nahikoa ez izateko inolako aukerarik duenik. Komunitatea gehiegikeria honetara bultzatzeko gai izango den inolako indar ekonomikoren ekintzarik aipa al dezakegu? Eta indarren bat egotekotan, ez al du merkataritzaren mekanismoak galga eraginkorrik eskaintzen? Lehenik eta behin, ondo antolatutako gizarte industrial orotan gehiegizko urritasunera bultzatzen duen indarrak etenik gabe ekiten duela frogatuko da; bigarrenik, merkataritzaren mekanismoak ezartzen omen dituen oztopoek, merkataritza-kalte larriak sorraraztea saihesteko inolako eraginkortasunik edo egokitasunik ez dutela...¹⁹⁴ Dirudienez, Ricardok Malthus eta Chalmers-en argudioei egingako erantzun laburra geroko ekonomialari gehienentzat nahikoa izan da. «Ekoizpena beti ekoizpenarekin edo zerbitzuekin erosten da; dirua truke gisa balio duen bitartekoa besterik ez da. Ondorioz, diruaren hazkuntza, beti, erosteko eta kontsumitzeko dagokion gaitasun handiagoaz lagunduta azaltzen denez, ez dago gainekoizpenerako inolako aukerarik.» (Ricardo, *Prin. of Pol. Econ.*, 362. or.)¹⁹⁵

Hobson eta Mummery interesa diru-erabileragatik ordainketa besterik ez zela jabetu ziren.¹⁹⁶ Era berean, bazekiten beren aurkariak honakoa argudiatuko zutela: «interes-tasan (edo irabazian) jaitsiera egongo zela eta horrek aurrezkia geldiarazi egingo zuela eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko berezko erlazioa eraberritu egingo zuela».¹⁹⁷ Honi erantzunez, ondoko hau esan zuten: «irabaziaren jaitsierak jendea gutxiago aurreztera bultza dezan, bi era hauetako batean eragin behar du: gehiago gastatzera bultzatuz edo gutxiago ekoiztera bultzatuz».¹⁹⁸ Lehenengoari dagokionez, irabaziak jaitsita, komunitatearen sarrera osoa murriztu egiten dela diote, eta «ezin suposa dezakegula sarreren batez besteko tasa beherantz doanean, norbana-koek beren kontsumo-erritmoa azkartzeko pizgarririk izango dutenik, urritasun-sariak proportzio berean murrizte hutsagatik»; bigarren aukerari dagokionez, berriz, «eskaintza soberakinaren ondoriozko irabaziaren jaitsierak ekoizpena galgatuko duela ukatzea gure gogotik

horren ur run geratzen da, ezen galga honen eragina onartzeak berak gure argudioaren funtsa osatzen baitu». ¹⁹⁹ Dena den, bere doktrina ez zen osoa, batez ere interes-tasarekiko teoria independentea ez izatea-gatik; ondorioz, Hobson jaunak gehiegizko indarra jarri zuen (bere azken liburuetan, batik bat) azpikontsumoan (gaininbertsioaren kausa gisa, irabazirik gabeko inbertsioaren zentzuan), horren ordeztu kontsumitzeko joera nahikoa ahulak langabezia sortzen laguntzen duela azaldu beharrean, inbertsio berrien bolumen konpentsatzailearen laguntza exigitu bai, baina lortu egiten ez duelako, eta horrek, nahiz eta batzuetan, baikortasun-hutsegiteen ondorio gisa, aldizka baino gertatu ez, normalean, irabazi probableak interes-tasak ezarritako mailaz azpira jaisteak gutziz eragozten du.

Gerraz geroztik azpikontsumoari buruzko teoria heretiko ugari egon da, eta hauetan ospetsuenak Douglas majorearenak dira. Douglas majorearen tesien garrantzia, hein handi batean, bere kritika suntsitzailearen zati handi batentzat ortodoxiak erantzunik ez edukitzearen araberakoa izan da, jakina. Bestetik, bere diagnostiko zehatzak, batez ere $A + B$ teorema izenekoak, mistifikazio ugari du. Douglas majoreak bere B kontuak ordezkapen- eta berrikuntza-gastuen beharrik ez duten enpresarioen finantza-erreserbetara mugatu izan balitu, egia hurbilago egongo litzateke. Baina, kasu horretan ere, nolabaiteko tartea utzi beharra dago erreserba horiek beste norantza bateko inbertsio berriei orekatuak egoteko aukerari begira, baita kontsumo-gastuen igoera kontuan hartuz ere. Douglas majoreak esku-bidea du, bere arerio ortodoxoetako batzuen aurka, gutxienez, gure sistema ekonomikoaren arazo nagusia erabat ez duela ahaztu esateko. Baina ez du Mandeville, Malthus, Gesell eta Hobsonen maila berean jartzeko eskubiderik —agian soldadu hutsa izan daiteke, baina ez majorea, herexeen armada ausartean—, lau gizon hauek, beren intuitzioei jarraituz, egia modu ilunean eta perfekziorik gabe ikustea nahia-go izan baitute, hutsegite bat mantendu beharrean, hutsegite horretara, benetan, argi eta garbi eta tinko eta logika xehearen bidez iritsi bazen ere, egintzekin bat ez zetozen hipotesiak erabili baitziren.

XXIV. KAPITULUA

Teoria orokorrak ekar lezakeen gizarte-filosofiari buruzko azken oharrak

I

Bizi garen gizarte ekonomikoaren eragozpen handienetakoak enplegu bete sortzeko ahalmenik eza eta aberastasun nahiz sarreraren banaketa arbitrario eta ezberdina dira. Arestian azaldutako teoriak enplegu bete sortzeko duen ahalmenik eza begi-bistakoa da; baina, horrez gain, bigarren puntuari dagokionez ere garrantzitsua da, bi alderditan batez ere.

XIX. mende bukaeraz gero nahikoa aurreratu da, aberastasun eta sarreraren arteko ezberdintasun handiak zuzeneko zergapetzearen bidez ezabatuta —sarreraren gaineko zergak eta oinordetzen gaineko zergak ezarrita—, Britainia Handian batik bat. Askok prozesu hau askoz ere urrutirago eramanez nahiko lukete, baina bi oztopo topatu dituzte: diru-ihesa negozio erakargarritasun bihurtzea, eta arriskuei aurre egiteko pizgarria behar ez bezala murriztea; baina, batez ere, nire iritziz, kapitalaren hazkuntza norbanakoa aurreztera bultzatzen duten arrazoien indarraren araberakoa dela eta hazkuntza horren ekoizpen handi bat aberatsek sobera dutenarekin aurrezten dutenaren araberakoa dela sinestea da oztopo nagusia. Gure arrazoiketarik ez dio hausnarketa hauetako lehenari eragiten, baina bigarrenarekiko geureganatzen dugun jarrera nabarmen aldaraz dezake, zeren eta, ikusi dugunez, enplegu beteak dirauen bitartean, kapitalaren hazkuntza ez baita, inola ere, kontsumitzeko joera urriaren araberakoa. Aitzitik, hau

oztopo zaio, eta enplegu beteko egoeran baino ez dezake, kontsumitzeko joera txikiak, kapitala handiagotu. Bestalde, esperientziak, egungo egoeran, erakunde eta erreserba-fondoen bitartezko aurrezkia guztiz egokia dela iradokitzen du, eta kontsumitzeko joera handiarazteko aukera duten sarrerak berriz banatzeko neurriak kapitalaren hazkundearen aldekoak izan daitezkeela ere bai.

Jendeak honi guztiari buruz duen nahasketaren adibide da oinordetzen gaineko zergak herrialde baten kapital-aberastasuna murriztearen erantzule omen direlako ustea. Estatuak zerga hauen emaitzak bere gastu arruntei aplikatzen badizkie, horrela sarrera eta kontsumoaren gaineko zergak proportzio berean murriztuz edo saihestuz, argi dago oinordetzen gaineko zerga handiak dituen fiskalitate-politikak komunitatearen kontsumitzeko joera handiagotzeko ondorioa izango duela. Baina kontsumitzeko ohizko joeraren hazkuntzak, oro har (hau da, enplegu beteko egoeran izan ezik) aldi berean inbertitzeko pizgarria handiagotzeko balio duenez, normalean, benetan gertatzen denaren aurkako ondorioa atera ohi da.

Horregatik, gure arrazoiketak ondorioztarazten digunez, gaur egungo egoeran, aberastasunaren hazkuntza, normalean uste den bezala, aberatsen kontsumitze ezaren arabera ez izateaz gain, horretarako oztopoa izan daiteke. Beraz, aberastasunaren ezberdintasun handiaren gizarte-justifikazioetako bat bertan behera utzi dugu. Ez dut esango egoera jakin batzuetan eta gure teoriak hartara bultzatuta, nolabaiteko ezberdintasuna justifika dezaketen arrazoi gehiago ez dagoenik. Baina orain arte kontuz ibiltzeko zuhurtziarekin pentsatzera eramán gaituen arrazoi nagusia ezabatu du. Honek, batez ere, oinordetzen gaineko zergekiko gure jarrerari eragiten dio; izan ere, sarreretan ezberdintasunak egotea justifikatzen duten arrazoi batzuk ezin zaizkie oinordetzei aplikatu.

Nire aldetik, sarrera eta aberastasunean ezberdintasun handiak egoteko justifikazio sozial eta psikologikoak badirela uste dut, baina ez gaur egun dauden ezberdintasun izugarrietarako. Hainbat giza jarduera baliotsu garatuko badira, ezinbestekoa da dirua egiteko pizgarria eta aberastasunaren jabetza pribatuaren giroa egotea. Horrez gain, zenbait giza joera asrискutsu nahikoa bide lasaietatik bidera daiteke dirua egiteko eta aberastasun pribatuaz jabetzeko aukerak badaude, eta horrela aseko ez balira, krudeltasunaren, botere eta agintearen

nahikeria arriskutsu eta norbere burua handitzeko beste modu batzue-
tatik bidera liteke. Hobe da gizaki batek bere agintekeria bankuan
duen diru-kopuruan erakus dezan, bere herritarrengan beharrean; eta,
batzuetan lehenak bigarrena ekartzen duela esan arren, beste batzue-
tan, gutxienez, aukera izan daiteke. Baina jarduera hauek eta joera
hauen poza pizteko ez da beharrezkoa jokoa gaur egungo apustu eta
arrisku handiekin burutzea. Askoz ere apustu eta arrisku txikiagoek
berdin-berdin balio dezakete, emaitza berak lortuz, jokalaria horieta-
ra ohitu bezain laster. Ez dira nahastu behar giza izaera aldatzea eta
giza izaera hori maneiatzea; eta gizarte idealean gizakiak apustu
horiekiko interesik ez izateko irakatsi edo hezi ahal izan badira ere,
estatu-politikariarentzat, oraindik ere, zuhurra izan daiteke jokoa
aurrera eramatea ahalbidetzea, beti ere arau eta muga batzuen barne-
an burutuz, gizakiek, oro har, edota, gutxienez, gizartearen zati handi
bat, dirua egiteko grina horretara indar handiz atxiki dadin.

II

Dena den, argudio horretatik funts handiagoko beste ondorio
bat atera daiteke; etorkizuneko aberastasun-ezberdintasunekin zeri-
kusia duena; hots, gure interes-tasaren teoria. Orain arte nahikoa
interes-tasa handia justifikatu izan dugu, aurrezkiak behar bezalako
pizgarria izan dezan; baina frogatu egin dugu aurrezki efektiboaren
hedakuntza, nahitaez, inbertsio-bolumenaren menpekkoa dela, eta
hori interes-tasa *txikiaren* bidez sustatzen dela, enplegu betearen
maila baino harantzago bultzatu nahi ez dugun bitartean. Beraz,
gehien komeni zaiguna interes-tasa murriztea da (kapitalaren era-
ginkortasun marjinalaren kurbarekiko proportzionalki, enplegu
betea dagoen mailaraino).

Ezin daiteke zalantzan jarri irizpide honek interes-tasa orain
arte nagusi izan dena baino askoz ere beherago jaisteko balio izango
duela; eta, kapitalaren gehikuntza-zenbatekoei dagokien kapitalaren
eraginkortasun marjinalaren kurba ezberdinak suposa ditzakegun hei-
nean, baita interes-tasa erregulariki jaisteko ere, baldin eta finkotasun
handiagoz edo txikiagoz enplegu beteko egoera mantendu ahal izango

balitz –jakina, kontsumitzeko joera osoan aldaketa handiegia gertatzea salbu (estatua barne)—.

Ziur nago kapitalaren eskaria zentzu batean zorrotz mugatuta dagoela; alegia, ez litzatekeela bere eraginkortasun marjinala oso maila txikira jaitsi arte kapital-stocka gehitzea zaila izango. Honekin ez litzateke ulertu behar kapital-tresnen erabilerak ia ezer kostako ez litzatekeenik, baizik eta bere errendimenduak higadura eta zaharkitzeagatik ahitzea pixka batean besterik ez lukeela estali beharko, arriskua eta trebetasun nahiz adimenaren jarduna estaltzeko marjina gehituta. Labur esan, ondasun iraunkorren errendimendu osoak, epe laburrekoen antzera, beren bizi osoan zehar ekoizpenaren lan-kostuak *eta* arriskua eta trebetasun nahiz ikuskaritzarako kostuetarako marjina estaliko litzuzke.

Baina, egoera hau indibidualismo-maila batekin guztiz bat etorriko balitz ere, errentatzailearen eutanasia izango litzateke, eta, ondorioz, kapitalistaren zanpaketa-botere pilatuarena, kapitalaren urritasun-balioa ustiatzeko. Gaur egun, interesak ez du inolako jatorrizko sakrifizioarik saritzen, eta lurraren errentak ere ez. Kapitalaren jabeak interesa eskura dezake kapitala urria delako, lurraren jabeak errenta jasotzen badu, lurraren hornikuntza mugatua izatearen ondoriozkoa den bezalaxe; baina, lurra urri izateko arrazoi intrintsekoak egon badaitezke ere, kapitalarekin ez da gauza bera gertatzen. Muga horretarako arrazoi intrintseko bat, interes moduko sari-eskaintzak baino sorraraz ez lezakeen jatorrizko sakrifizioaren zentzuan, kontsumitzeko joera indibiduala mota batekoa izanik, luzera eta enplegu beteko egoeran, aurrezki netoa kapitala nahikoa ugaria izatera heldu baino lehen bukatuko litzatekeenean besterik ez litzateke egongo. Baina, orduan ere, gerta liteke estatuen eskuhartzearen bidez aurrezki kolektiboa kapitalaren hazkunde eskasa izateari uzteko aukera emango lukeen mailan mantendu ahal izatea.

Beraz, kapitalismoaren errenta-alderdia, bere helburua bete bezain laster desagertuko den fase iragankorraren gisa ikusten dut, eta errenta-alderdi hori desagertzearekin batera, bere barne dauden beste hainbat gauzak goitik beherako aldaketa jasango dute. Gainera, abantaila handia izango da nik defendatzen ditudan gertakariei begira, hau da, errentatzaileen eutanasia, inolako eginkizunik ez duen inbertitzailearena, ez dela bat-bateko ezer izango, berriki Britainia Handian

ikusi dugunaren jarraipen mailakatua eta luzea baizik, eta ez du mugimendu iraultzailearen beharrik izango.

Beraz, praktikan saia gintezke (eta ez da batere ezinezkoa) kapital-bolumenean hazkuntza lortzen (honek eskasa izateari utzi arte), funtziorik gabeko inbertitzaileak inolako hobaririk ez jasotzeko moduan; eta zuzeneko zergatzearen plana landu, adimenari, erabakigarritasunari, finantzarioaren trebetasun exekutiboari, enpresarioari *et hoc genus omne* (seguraski, beren betekizunaz guztiz harro egonik, beren lana orain baino askoz ere merkeago egingo luketenei) komunitateari ordainsari egokien truke aktiboki zerbitzatzen uzteko.

Aldi berean, onartu beharra dugu esperientziak baino ezin duela erakutsi estatuaren politikari atxikitako herriaren borondatea noraino gidatu beharko litzatekeen inbertitzeko pizgarria hazi eta sustatzera; eta noraino den zuhurra kontsumitzeko batez besteko joera piztea, bi belaunalditan kapitalari bere eskastasun-balioa kentzeko gure helburuari utzi gabe. Gerta daiteke beheranzko interes-tasaren ondorioz, kontsumitzeko joera oso erraz sendotzea, eta horrela, oraingoa baino metaketa-tasa zertxobait handiagoarekin enplegu betea lortu ahal izatea. Orduan, sarrera eta oinordetza handiei zerga handiagoak ezartzeko planari, agian, aurpegira lekioke oraingo metaketa-tasa baino nahikoa maila txikiagoan eramango lukeela enplegu betera. Ez da pentsatu behar nik emaitza honen aukera, edota probabilitatea, ukatzen dudarik; izan ere, tankera honetako gaitan arriskutsua da ingurunearen alaketaren aurrean gizaki gehienek nola erreakzionatuko duten aurrez esatea. Dena den, oraingoa baino askoz ere handiagoa ez litzatekeen metaketa-tasaren bidez enplegu betera inguratzea erraza izango balitz, gutxienez, arazo nabari bat konponduko litzateke; eta bereiziki erabakitzeko geldituko litzateke egungo belaunaldiari bere kontsumoa murrizt dezan zein proportziotan eta zein biderekin deitu beharko litzaiokeen, denboraren poderioz, beren ondorengoez inbertsio osoaren egoera lortu ahal izateko.

III

Azaldutako teoriaren ondorioak zertxobait kontserbadoreak dira bere eraginei dagokienez. Izan ere, gaur egun ia erabat ekimen pri-

batuaren esku uzten diren gaietan nolabaiteko kontrol zentralak ezartzeak berebiziko garrantzia duela adierazten badu ere, jarduera-arlo askori ez die eragiten. Estatuak kontsumitzeko joeran eragin orientatzailea burutu beharko du, bere zerga-sistemaren bidez, interes-tasa finkatuz eta, agian, baita beste era batzuen bidez ere. Bestalde, nahikoa gertaezina dirudi inbertsio-tasa optimoa ezartzeko banku-politikaren interes-tasaren gaineko eragina, berez, nahikoa izango denik. Beraz, uste dut inbertsioen sozializazio oso samarra izan daitekeela enplegu betera gerturatzeko bide bakarra; baina horrek ez du agintaritzaren publikoak ekimen pribatuarekin jarduten dueneko edozein modu, transakzio edo bide baztertu behar denik adierazi nahi. Baina honetaz aparte, ez da, zinez, komunitatearen bizitza ekonomiko gehiena hartuko duen Estatu Sozialismoaren alde jotzen. Estatuari ez zaio komeni ekoizpen-bitartekoen ezaugarria bereganatzea. Estatu bide horiek handitzeko baliabideen zenbateko osoa eta horien jabe direnen oinarritzko ordainketa-tasa erabakitzeke gai bada, berari dagokion guztiarekin burutuko du. Horrez gain, sozializaziorako nahitaezko neurriak gradualki sar daitezke, gizartearen ohitura orokorrak hautsi beharrik gabe.

Onartutako teoria ekonomiko klasikoari egin diogun kritika, bere azterketaren akats logikoak bilatzea baino, oinarritzat hartzen dituen suposizio taktikoak gutxitan betetzen direla, ala inoiz ez, adieraztea izan da eta, ondorioz, ezin dituela mundu errealeko arazo ekonomikoak konpondu. Baina gure kontrol zentralekin enplegu beteari dagokion ekoizpen-bolumen osoa, ahal bezain gertuen, ezartzea lortuko balute, hemendik aurrera teoria klasikoak indar hartuko luke berriz ere. Ekoizpenaren bolumena emantzat jotzen badugu, hau da, pentsamenduaren eskema klasikoaz kanpoko indarrek finkatzen dutela, bere analisiari zer kontrajarririk ez dago eta, beraz, interes pertsonalak erabakiko du zer ekoiztu, ekoizpen-faktoreak helburu horrekin zein proportziotan konbinatuko diren, eta azken produktuaren balioa beren artean nola banatuko den. Berriz ere diogu, urritasunaren arazoari desberdin heldu badiogu, ez dago teoria klasiko modernoari zer eragotzirik, abantaila publiko eta pribatuaren artean bat datozen graduari dagokionez, lehiakortasun perfektu eta ez-perfektuaren egoeran, hurrenez hurren. Horregatik, kontsumitzeko joeraren eta inbertitzeko pizgarriaren arteko doikuntza lortzeko kontrol zentralen beharrik gabe, bizitza ekonomikoa sozializatzeko lehen zegoen arrazoi berbera besterik ez dago.

Ez dut arrazoirik ikusten egungo sistemak ekoizpen-faktoreak gaizki erabiltzen dituela esateko. Jakina, aurreikuspen-akatsak badaude, baina hauek ez lirateke saihestuko erabakiak zentralizatuz. Lan egin nahian eta horretarako prestaturik dauden hamar milioi gizakietatik bederatzi milioi enplegaturik badaude, ezin esan dezakegu, inola ere, bederatzi milioi hauen lana gaizki enplegaturik dagoenik. Egungo sistemaren aurkako kexua ez da bederatzi milioi hauek beste egiteko batzuetan enplegatu behar direnik, baizik eta gainerako milioiarentzat nahikoa lanpostu egon beharko lukeela. Egungo sistemak enplegu efektiboaren bolumena finkatzen erratu du, eta ez enplegua norabidetzen.

Horregatik, Gesell-ekin bat eginez, teoria klasikoaren hutsu-neak beteta ez da «Manchester sistema» bertan behera uzten; aitzitik, ekoizpenaren gaitasun osoa ahal den gehiena burutzeko indar ekonomikoen joko librearen behar duen ingurunearen izaera adierazten da. Enplegu betearen lortzeko beharrezkoak diren kontrol zentralak, jakina, gobernuaren ohizko funtzioen zati handi bat dute beren gain. Are gehiago, teoria klasiko modernoak berak oharrarazi du indar ekonomikoaren joko librearen gidatu edo biratzeko behar izan ditzakeen hainbat baldintzari buruz. Baina, oraindik ere, nahikoa esparrua geratuko da ekimen eta ardura pribatuek jardun dezaten. Esparru horren barruan ere baliagarriak izango dira indibidualismoaren ohizko abantailak.

Geldi gaitzen, une batez, abantaila hauek zeintzuk diren gogoratzera. Hein batean eraginkortasunari dagozkionak dira —deszentralizazioa eta interes pertsonalaren jokoak—. Eraginkortasunaren ikuspegitik, erabakien deszentralizazioaren eta erantzukizun indibidualarenak, XIX. mendeak izandakoa baino are handiagoak dira; eta interes pertsonalera eginiko deialdiaren aurkako erreakzioa, agian, urrunegi iritsi da. Baina, guztia gainetik, indibidualismoa askatasun pertsonalaren babesik onena da (bere akats eta gehiegikeriak alde batera utz badaitezke) beste edozein sistemaren aldean, hautamen pertsonalerako ahalmena adieraz daitekeeneko esparrua nahikoa hedatzen duenaren zentzuan. Halaber, hautatzeko ahalmenaren esparru zabal horretatik ernatzen den bizi-aniztasunaren babesik onena da, horren galera estatu homogeneo edo totalitarioaren zoritxarrik handiena delarik; zeren eta aniztasun horrek aurreko belaunaldiek ziu-

rrentzat eta hoberentzat hautatutakoa gordetzen duten tradizioak babesten baititu, orainaldia irudimenaren aniztasunekin koloreztatuz, eta, esperientziaren nahiz tradizio edo irudimenaren menpeko bereiztezina izanik, etorkizuna hobetzeko tresna indartsuena da.

Ondorioz, kontsumitzeko joera inbertitzeko pizgarriarekin doitzeak duen gobernuaren funtzio-zabaltze horrek XIX. mendeko publizistari edo gaur egungo ipar amerikako finantzarioari indibidualismo-arekiko muga izugarria irudituko balitzaioke ere, nik defendatu egiten dut, bai egungo forma ekonomikoen suntsipen osoa saihesteko bide bakarra delako eta bai ekimen indibidualak arrakastaz funtzionatzeko baldintza delako.

Izan ere, eskari efektiboa eskasa bada, xahututako baliabideen eskandalu publikoa jasangaitza izateaz gain, baliabide horiek ekinean jarri nahi dituen enpresario indibidualak kontrako indar guztien aurka egoera okerrean jardutearen ondoriozkoa da. Jokutzen duen ausazko jokoa zeroz beteta dago eta, beraz, jokalariek, *oro har*, galdu egingo dute karta guztiak jokatzeko nahikoa energia eta fedea badute. Orain arte, mundu-mailako aberastasunaren hazkuntza norbanakoen aurrezki positibo guztiak baino txikiagoa izan da, eta bien arteko tartea, beren balio edo ekimena aparteko trebetasunez edo ohiz kanpoko zoriz osatu ez den horien galerekin bete da. Baina eskari efektiboa egokia bada, ohiko trebetasun eta zoriarekin nahikoa izango da.

Egungo estatu totalitarioen sistemek langabeziaren arazoa eraginkortasun eta askatasunaren kontura konpondu bide dute. Berez, munduak ez du langabezia luzez jasango, zeina, poztasun-une laburrak alde batera utzita, gure garaiko kapitalismo indibidualistarekin lotuta dagoen —ezinbestean, nire iritziz—; baina arazoa egoki aztertuz gaixotasuna sendatzeko aukera egon daiteke, aldi berean eragin-kortasuna eta askatasuna gordez.

IV

Bidenabar aipatu dut sistema berria bakearentzat zaharra izan dena baino egokiagoa izan daitekeela. Alderdi hau errepikatu eta azpimarratzea merezi du.

Gerrak hainbat kausa ditu. Diktadore eta antzekoentzat, zeintzuei gerrak atseginezko poztasuna eskaintzen dien —itxaropen gisa, gutxienik—, erraza da beren herrien berezko gerra-grina sustatzea; baina, honen guztiaren gainetik, herriarenugarra handiagotzeko lanak erraztuz, gerraren arrazoi ekonomikoak egon ohi dira, hau da, biztanleen bulkada eta merkatuen arteko lehia. Oraingo eztabaidarako bigarren faktorea interesatzen zaigu, hain zuzen, XIX. mendean zeregin nagusia bete zuena, eta berriz ere halaxe bete lezakeena.

Aurreko kapituluan adierazi nuenez, nazio barruko *laissez faire* eta nazio arteko urre-patroiaren sistemapean (alegia, XIX. mendean bigarren erdian ortodoxoa izan zenean), gobernuak ez zuen inolako biderik barnean miseria ekonomikoa txikiagotzeko, merkatuengatiko lehia izan ezik; izan ere, langabezia iraunkorra edo azpienplegu etena zuen estatuari lagungarri izan zekizkion neurri guztiak bazter uzten ziren, sarreren bidez kanpo-balantza hobetzeko balio zezaketenak izan ezik.

Horregatik, ekonomialariak indarrean zegoen nazioarteko sistema goraiatzeko ohituta zeuden bitartean (esaterako, nazioarteko lanbanaketaren fruituak eman eta, aldi berean, hainbat nazioen interesak uztartzen zituen sistema) horren onuragarria ez zen eragina zegoen ezkutuan; herrialde zahar eta aberats batek bere merkatuengatiko borroka zaintzen ez bazuen, bere oparotasuna erori eta galdu egingo zela uste zuten estatu-politikariak sen onaren eta gertakarien benetako bidea zuzen ulertzearen eraginpean zeuden. Baina nazioek beren barne-politikaren bidez enplegu bete bereganatzen ikas badezakete ere (eta, gehi dezagun, beren biztanleriaren joeraren oreka lor badezakete ere), ez da beharrezkoa herrialde baten interesa eta bere auzokoa aurrez aurre jarriko dituzten indar ekonomiko garrantzitsuak egotea. Oraindik ere lanaren nazioarteko banaketarentzat tokia egongo litzateke, baita nazioarteko kredituarentzat ere, baldintza egokietan; baina ez litzateke arrazoi handirik izango herrialde batek bere salgaiak beste bati inposatzeko edota bere auzokoen eskaintzak ukatzeko. Eta ez hori erosi nahi zuena ordaindu ahal izateko beharrezkoa izango litzatekeelako, baizik eta ordainketa-balantzaren oreka aldatzeko helburu zehatzarekin, merkataritza-balantza bere alde makur zedin. Nazioarteko merkataritzak orain denari utzi egingo lioke, hau da, barnean enplegua mantentzeko etsipenezko espedientea izateari,

kanpo-merkatuetan salmentak indartuz eta erosketak murriztuz, eta honek arrakasta izanez gero, langabezia, besterik gabe, borrokarako okerrago prestatua legokeen auzoko herrialdeari pasako lioke eta elkarrentzako abantailatsua litzatekeen ondasun eta zerbitzuen elkartruke librea bihurtuko litzateke.

V

Idea hauen gauzatzea ametsezko itxaropena ote da? Gizarte-politikaren bilakaera gobernatzen duten arrazoietan ez ote daude nahikoa sustraiturik? Ideia hauek baztertzen dituzten interesak bultzatzen dituztenak baino indartsuagoak eta argiagoak al dira?

Ez dut hemen erantzunik emateko asmorik. Oraingo hau ez bezalako idazlana beharko litzateke ideia hauek gorputz litzaketen neurri praktikoak aipatzeko, eskematikoki besterik ez balitz ere; baina, ideiak zuzenak badira —egileak berak idazten duena, nahitaez, oinarritu behar dueneko hipotesia—, aurrez esan dezaket okerra litzatekeela epe jakin batean izango lukeen indarrari buruz eztabaidatzea. Une honetan, jendeak diagnostiko funtsezkoagoaren ohiz kanpoko gogoia du; hori jasotzeko bereziki prestatuago dago; frogatzeko irrikitan dago, gutxienez sinesgarria izate hutsarekin. Baina gaur egungo joera hori bazter utziz, ekonomialari eta filosofo politikoen ideiak, zuzenak nahiz okerrak direla ere, uste ohi dena baino askoz ere boteretsuagoak dira. Berez, hau baino ezer gutxi gehiago da mundua gobernatzen duena. Edozein eragin intelektualez kanpo daudela uste duten gizaki praktikoak, normalean, jadanik zendutako ekonomialariren baten esklabo izan ohi dira. Airean ahotsak entzuten dituzten agintedun eroek urte batzuk lehenagoko idazle akademiko kaskar baten buruan sortutako utopiak distilatzen dituzte. Ideiak poliki-poliki hedatzearekin konparatuz gero, ziur nago sortutako interesen boterea arras exageratzen dela. Berez, berehala ez, baina bai denboraldi baten ostean; izan ere, filosofia ekonomiko eta politikoaren esparruan, hogeita bost edo hogeita hamar urtetik gorako gutxi egoten da teoria berrien eraginpean, eta beraz, funtzionario publiko eta politikariek, eta baita nahastaileek ere, egungo gertakariei aplikatzen dizkietan ideiak, ez

dira, seguraski, berrienak izango. Baina, lehentxeago edo geroxeago, ideiak dira (eta ez sortutako interesak) arriskutsuak, onerako nahiz txarrerako.

Oharrak

¹ «Ekonomialari klasikoak» delako izena Marx-ek asmatu zuen, Ricardo, James Mill eta bere *aurre-koei* buruz hitz egiteko, hau da, Ricardoren teoria ekonomikoaren bidez gailurra jo zuen teoriaren sortzaileei buruz hitz egiteko. Agian solezismoa egingo dut, baina dagoe-nekoz ohitu naiz «eskola klasikoan» Ricardoren *jarraitzaileak* sartzen, hau da, Ricardoren ekonomiaren teoria hartu eta hobetu zutenak, besteak beste, J.S. Mill, Marshall, Edgeworth eta Pigou irakaslea.

² Hau, gauzak horrela ikustea, Ricardoren tradizioan dago, zeren eta Ricardok ez baitzuen sekula nazio-sarreraren *kopuruaz* interes nimiñoena ere erakutsi, kopuru hori sarrera beraren banaketatik bereizirik. Honen bidez, zuzen finkatu zuen bere teoria propioaren izaera. Baina bere ondorengoek, ideiak horren argi ez zituztelarik, aberastasanaren zioei buruzko eztabaidetan teoria klasikoa erabili izan dute. *Ikus* Ricardok Malthus-i 1820ko urriaren 9an igorritako gutuna: «Ekonomia Politikoa aberastasunaren izate eta zioei buruzko ikerketa dela pentsatzen duzu; nire ustez, berriz, industriekoizpenaren eraketan parte hartzen

duten klaseen arteko banaketa mugatzen duten legeei buruzko ikerketa gisa hartu beharko litzateke. Ekoizten diren ondasunen kantitate-ekiko legerik ezin da sortu. Bai, ordea, ondasunen proportzioarekiko nahikoa lege zehatza. Egunetik egunera, gero eta seguruago nago lehenbiziko ikerketa-mota alferrekoa eta ametsetakoa dela, eta bigarrena dela zientziaren egiazko xede bakarra.»

³ Esaterako, Pigou irakasleak *Economics of Welfare* lanean (4. argit., 127. or.) honakoa idatzi zuen (letra etzana nirea da): «Eztabaida honetan, aurkakoa zehazten denean izan ezik, ez da kontuan hartzen baliabide batzuk beren jabeen borondatearen aurka enplegatu gabe egotea. *Honek ez dio argudioaren funtsari eragiten* eta azalpena erraztu egiten du». Beraz, Ricardok nazio-dibidendua oso bat bailitzan hartzeko saio oro espreski arbuaiatu zuen bitartean, Pigou irakasleak, nazio-dibidenduaren arazoa bereziki jorratzen duen liburuan, teoria hori baliagarria dela adierazten du, bai nahigabeko langabezia dagoenean, eta bai enplegu beta dagoenean.

⁴ Benetako alokairuaren baliagarritasuna eta lanaren baliagarritasun

ezaren arteko berdintasuna (Itz. oharra).

⁵ Pigou irakaslearen *Theory of Unemployment* lana sakonago aztertuko da 19. kapituluko gehigarrian.

⁶ Cf. Pigou irakaslearen aurreko aipamena, kapitulu honetako 2. oinoharrean.

⁷ Jatorrizko testuan «ez» hori ez dago idatzita. Gure iritziz akatsa da, lerro batzuk aurrerago ondorengo idatzi baitu, eta bere argudioan funtsezkoa dena, hots, «alokairu errealak lan-eskaintza azaltzeko aldagai bakarra ez badira, bere argudioa guztiz erortzen da...». Huts hau berau Jean de Largentaye-k ikusi du frantsesez egindako itzulpenean, baina ez du ikusi edo, behintzat, ez du ezer idatzi honetaz, Eduardo Hornedo-k gaztelaniaz egindakoa. (Itz. oharra).

⁸ Nire ustez, arrazonamendu honek egiatik asko du, alokairu nominalen aldaketaren emaitza osoak, 19. kapituluaren ikusiko dugunez, konplexuagoak badira ere.

⁹ Cf. 19. kapituluaren eranskina

¹⁰ Arrazonamendua honela egiten da: n langile enplegatuta daude, n -garren langileak eguneko kintal bat eranstean dio uztari, eta alokairuek eguneko kintal bat erosteko ahalmena dute. Hala ere, $n+1$ garren pertsonak 0,9 kintal besterik ez lituzke erantsiko eguneko; beraz, ezin da enplegua $n+1$ langileetara zabaldu, alokairuekiko gariaren prezioa eguneko alokairuaren erosahalmenarekin parekatu arte behintzat, hots, 0,9 kintalera jaitsi arte. Alokairu osoak 0,9 ($n+1$) kintal izango lirateke orduan, eta lehenago n kintalekoak

ziren. Ondorioz, langile bat gehiago enplegatzen bada, lehen enpleguak zeudenengandik enpresarioenganako sarreren-transferentzia eragingo du.

¹¹ *Principles of Political Economy*, III. Lib., XIV. kap. § 2.

¹² 34. or.

¹³ J. A. Hobson-ek bere *Physiology of Industry* (102. or.) lanean Mill-en goiko pasartea aipatu eta gero, honakoa adierazten du, hots, Marshall-ek, *Economics of Industry* idazten ari zen garaian, pasarte hori honela aipatzen zuela (154. or.): «Gizakiak erosteko ahalmena badu ere, beharbada ahalmen hori ez erabiltzea aukeratuko du.» «Baina» segitzen du Hobson-ek «ekintza horren garrantzi kritikoa ulertzerik ez du lortzen eta bere ondorioak «krisialdietara» mugatzen dituela dirudi». Nire ustetan, Marshallen geroko lanak ikusita, aipamen hori egokia da.

¹⁴ Cf. Alfred eta Mary Marshall, *Economics of Industry*, 17. or.: «Ez da ona merkataritzaarentzat azkar urratzen diren jantziak edukitzea, zeren eta, jendeak bere baliabideak jantzi berriak erosten gastatuko ez balitu, eskulanari beste bide batetik enplegua ematen gastatuko bailituzke.» Irakurlea ohartuko denez, hasierako Marshall hura aipatzen ari naiz berriz ere. *Principles*-en Marshall nahikoa zalantzakor bihurtua zen, zuhur eta iheskor. Baina ez zituen sekula bere ideia zaharrak arbuiazu edo bere pentsamenduaren oinarritzko hipotesien sustraietatik kendu.

¹⁵ Robbins irakasleak berzitasun hau du: bera ia bakarra da pentsamendu-

eskema koherentea edukitzen segitzen duena, bere gomendio praktikoak bere teoriaren sistema berberean barneraturik daudelako.

¹⁶ 6. kapituluan *erabil-kostuaren* definizio zehatza emango da.

¹⁷ Ez dadila hau (ikus beheago) produkzio-unitate baten eskaintza-prezioarekin nahas; termino horren esanahi arruntarekin, alegia.

¹⁸ Irakurlea ohartuko denez, erabil-kostua bai *ekoizpenetik*, eta bai output-bolumen jakinaren *eskaintza-prezio osoik* ondorioztatzen ari naiz, eta beraz, bi termino horiek erabil-kostutik *garbi* baileuden ulertu behar dira; bien bitartean, erosleek ordaindutako kantitate osoek *beren baitan* dute erabil-kostua, jakina. Horrela jokatzeko arrazoiak 6. Kapituluaren emango dira. Funtsezkoena, ekoizpen osoa eta eskaintza-prezio osoa, erabil-kostutik *garbi* daudela, era bakar batez eta nahaste-ko aukerarik gabe definitu ahal izatea da; aitzitik, erabil-kostua industriaren integrazio-mailaren eta enpresarioek elkarri egiten dizkioten erosketen garrantziaren menpe dagoela begi-bistakoa denez, ezin da egon erosleek ordaindutako kantitate osoen definiziorik erabil-kostua barne hartuta, azken hau faktore horietatik independentea delako. Antzeko zailtasuna dago ekoizle individual batentzako eskaintza-prezioaren (bere esanahi arruntaren) definizioan; eta eskaintza-prezio osoaren kasuan, *outputa or ohar*, bikoizteko arrisku handiak daude, beti kontuan hartu ez direnak. Terminoa erabil-kostua barne bailegoen ulertzen bada, arriskuak enpre-

sarioen integrazioarako suposizio bereziak eginez, kontsumo-ondasunak edo kapital-ondasunak produzituko dituztenaren arabera taldetan sailkatuz, baino ez dira arriskuak gaudituko, baina hori iluna eta nahasia da berez, eta ez dator erreallitatearekin bat. Baldin eta, eskaintza-prezio osoa, arestian legez, erabil-kostutik *garbi* bailegoen definitu bada, arrisku hauek ez daude. Nolanahi ere, irakurleari 6. kapituluaren eta bere eranskinean egingo den eztabaidara arte itxaron dezala aholkatuko nioke.

¹⁹ Enpresario batek bere ekoizpen-eskalari buruzko erabaki praktikoa hartu behar badu, ez du seguru-seguru ekoizpen bakarra esperoko, jakina, output-bolumen bakoitzagatik salmentaren probabilitateei buruz, baizik eta aurreikuspen hipotetiko batzuk egingo ditu probabilitate- eta zehaztasun-maila desberdinetan oinarriturik. Bere ekoizpen-aurreikuspenarekin honakoa esan nahi dut, beraz: enpresarioak duen ekoizpen-aurreikuspena egia izanez gero, erabakia hartzeko orduan bere aurreikuspen-egoera osatzen duten probabilitate ilun eta ezberdinek eragingo lioketen portaera berbera sorraraziko liokeena dela.

²⁰ 20. kapituluaren arestiko funtzioarekin harreman estua duen funtzio bati enplegu-funtzioa deituko zaio.

²¹ 10. kapituluaren definitua.

²² Ikus Pigou, *Economics of Welfare*, eta bereziki I. zatia, 3. kapitulua.

²³ Nahiz eta, komenigarritasunagatik, Dibidendu Nazionalean osatzen

duten sarrera errealak, normalean, diruarekin eros daitezkeen ondasun eta zerbitzueta mugatzen diren.

²⁴ *Economics of Welfare*, I. zatia, V. kapitulua: «Kapitala ukitzeke gordetzeaz ulertzen dena»; egin berri den artikulua bateko zuzenketak kontuan harturik: *Economic Journal*, 1931ko ekaina, 225. or.

²⁵ Ikus Hayek irakaslearen kritikak, *Economica*, 1935eko abuztua, 247. or.

²⁶ Baldin X moneta-unitatetan neuritutako edozein kantitate bada, egokia izango litzateke alokairu-unitatetan neurtutako kantitate berbera X_a gisa adieraztea.

²⁷ Arrazoi hau dela eta igotzen da, batez ere, eskaintza-prezioa eskaria gorakorra denean, nahiz eta erabiltzen ari den ekipamendu-mota bere bereko ekipamendu-soberakina eduki. Soberako lan-eskaintza enpresario guztientzat era berdinean erabiltzeko gordailua dela suposatzen badugu, eta eginkizun jakin batean enplegatzen den eskulana, hein batean behintzat, ahalegin-unitatearen arabera ordaintzen bada, eta ez, derrigor, enplegu konkretuetan duen eraginkortasunaren arabera (nahiz eta gehienetan egin behar den suposamendu errealista hau izan), eskaintza-prezio gorakorra ekoizpen-gehikuntzari batzen zaion berebiziko adibidea da eskulan enplegatuaren eraginkortasun beherakorra, horretan enpresaren barne-ekonomiaren gainbeherak zerikusirik ez dutelarik.

²⁸ Ezingo nuke esan nola egiten dion aurre eskaintza-kurbak, bere ohizko forman, arestiko zailtasuna-

ri, kurba hori erabiltzen dutenek ez baitituzte oso argi ipini bere suposamenduak. Seguru aski, eginkizun jakin batean enplegatutako eskulana, eginkizun horretan duen eraginkortasunaren araberrako proportzio zehatzean ordaindu ohi dela suposatzen ari dira. Baina errealtatean ez da hori gertatzen. Eskulanaren eraginkortasunaren gorabeherak ekipamenduari egozteko arrazoi nagusia, agian, honakoa izan daiteke: ekoizpena handiagotu ahala agerrazten diren gero eta soberakin handiagoak ekipamenduaren jabeek sorraraziak direlako izatea, eta ez langile eraginkorrenek (nahiz eta azken hauek, enpleguan erregularitate handiagoa lortuz, enpresa barnean azkarrago promozionatuz, eta abar abantailarik lor dezaketen); hau da, eraginkortasun desberdineko pertsonak lan berdinean aritzen direnean, gutxitan jasotzen dituzte beren eraginkortasunaren araberrako tasa proportzionalak. Hala ere, eraginkortasuna handiagotzen denean, ordainsaria ere neurri berean hazten denean, nire metodoak kontuan hartzen du, zeren eta enplegatutako lan-unitateen kopurua kalkulatzeko, unitate bakoitza proportzionalki haztatzen baita bere ordainsariaren arabera. Argi dagoenez, nire hipotesietan zailtasun interesgarriak sortzen dira eskaintza-kurba bereziekin ari garelarik, beren forma beste sektoreetako eskulan koalifikatuaren eskariaren menpe dagoelako. Zailtasun hauek alde batera utziz gero, arestian esan bezela, errealtetetik kanpo geratuko ginateke. Baina enplegua bere oro har aztertzen dugunean ez dugu zailtasun

horiek kontuan hartu beharrik, baldin eta eskari efektiboaren bolumen jakin bat eskari honen produktu desberdinen arteko banaketa bakar bati dagokiola suposatzen badugu. Baliteke, hala ere, eskariaren aldatketen zioak aldatzearekin batera, banaketa hau ere aldatzea. Esaterako, eskari efektiboaren gehikuntza jakin batek eskaintza osoaren kurba desberdinekin topo egin dezake, eskariaren gehikuntza kontsumitzeko joeraren hazkuntzaren edo inbertitzeko pizgarriaren gehikuntzaren ondoriozkoa izatearen arabera. Hau guztia, bestalde, orain azaltzen hastera ez noan ideia orokorren azterketa zehatzari dagokio.

²⁹ Aurreikuspen hauen baliokidea, salmenten emaitza gisa adierazia lortzeko metodoari buruz, ikus III. kapituluko 19. oharra.

³⁰ Hemen, «eguneroko» hitzak, enpresak eskaini nahi duen enplegu-mailari buruz duen erabakia askatasunez berriz aztertzeko behar den denboraldi laburrena esan nahi du. Denboraldi hori, nolabait esan, denbora ekonomikoaren unitate eraginkor txikiena da.

³¹ Epe luzeko enpleguaren mailak ez du zertan *konstantea* izan behar, hau da, epe luzeko baldintzek ez dute nahitanahiez estatiko iraun beharrik. Esaterako, aberastasunaren edota populazioaren hazkunde erregularra, aurreikuspen egonkorren zati izan daiteke. Baldintza bakarra, egindako aurreikuspenak askoz ere lehenagotik egindakoak izatea da.

³² Ekoiztuko dena erabakitzean egi-ten diren aurreikuspenetan horren-

beste indar egiteak, nire ustez, Hawtrey jaunaren ikuspuntuaren antza dauka, alegia, inputa eta enplegua stock-metaketa-aren eragin-pean daudela prezioak erori *aurretik* edo outputari buruzko etsipena aurreikuspenen araberrako galeran islatzen da, zeren eta saldu gabeko stockaren metaketa (edo etorkizunerrako eskarien beherakada) bailitza-teke aurreko outputaren salmenten emaitzei buruzko estatistiken eta inputaren arteko urrunarazle nagusia, baldin eta estatistikek adierazitako zifra horiek hurrengo ekitaldian berriz ere aztertu gabe erabiliko balira.

³³ Ikus kapitulu honen eranskinean erabil-kostuari buruzko zehaztasun gehiago.

³⁴ Lehenkostua sarritan kostu aldakor gisa erabiltzen da, nahiz eta lehenkostua hori baino kontzeptu zabalagoa izan. (Itz. oharra)

³⁵ Sarrera hau eta geroago definituko dugun *sarreranetoa* desberdinak dira.

³⁶ *Eskaintza-prezioa*, nire ustez, goitik behera definitu gabeko terminoa da, zeren eta erabil-kostuaren definitzioak sorrarazitako arazoa alde batera uzten baitu. Kapituluaren eranskinean luzeago arituko naiz horretaz, eta orduan azalduko dudanez, eskaintza osoaren preziotik batzuetan erabil-kostua alde batera utz badaiteke ere, metodo hau ez litzateke aplikagarria enpresa indibidual bateko output-unitate baten eskaintza-prezioarentzat.

³⁷ Demagun $Z = (N)$ edota $Z = W \cdot (N)$, eskaintza osoaren

funtzioa dela (non W alokairu-unitatea den eta $W \cdot Z_w = Z$). Beraz, produktu marjinalaren emaitza faktore-kostu marjinalaren berdina denez, eskaintza osoaren kurbaren edozein puntutan, ondorengoa dugu:

$$N = A_w - U_w = Z_w = (N)$$

hau da, $'(N) = 1$, baldin eta faktore-kostuak alokairu-kostuarekin zuzeneko erlazioa badu, eta enpresa bakoitzaren (hauen kopurua konstantetzat hartzen da) eskaintza osoaren funtzioa beste industrietan enplegaturiko langile-kopuruaren menpe ez badago, eta hortaz, enpresa indibidual bakoitzarentzat baliagarri diren aurreko ekuazioko terminoak, enpresa guztiak batera hartuta ere aplikagarriak izango dira. Honek ondokoa esan nahi du: alokairuak konstanteak badira eta gainerako faktore-kostuak alokairu-masarekiko proportzionalak, eskaintza osoaren funtzioa lineala izango dela, eta funtzio honen malda alokairu nominalen alderantzizkoa dela

³⁸ Kostu gehigarria, garai batean kostu finkoa esateko erabiltzen zen terminoa da. (Itz. oharra)

³⁹ Britainia Handiko barne-zergak biltzearen ardura duen agintaritza fiskala. (Itz. oharra)

⁴⁰ Zergapetzeko sarreraren zenbatekoa finkatzen duten funtzionarioak. (Itz. oharra)

⁴¹ *Economic Journal*, 1935eko ekaina, 235. orria.

⁴² *The Maintenance of Capital*, *Economica*, 1935eko abuztua, 241. orria eta hurrengoak.

⁴³ Azalpen hau egin daiteke, baldin eta lehenkostu marjinalaren kurba

bere luzera guztian eta ekoizpen-aldaketentzat jarraia dela suposatzen badugu. Baina berez, hipotesi hori ez da beti betetzen; etenaldi bat edo gehiago egon daitezke, batez ere ekipamenduaren gaitasun tekniko osoari dagokion ekoizpen-bolumenera iritsitakoan. Halakoetan, azterketa marjinalak zati batzuetan porrot egiten du eta prezioa lehenkostu marjinala baino *handiagoa* izan daiteke, azken hori ekoizpenaren *murritzeta* txiki baten kasuan kalkulaturik denean. (Halaber, beheranzko etenaldia ere gerta daiteke, hau da, ekoizpena maila jakin baten *azpira* etortzen denean.) Honek garrantzia du epealdi laburrentzako eskaintza-prezioa epealdi luzeentzako orekan aztertzen dugunean, halakoetan kontuan hartu behar baita ahalmen produktibo tekniko betearen puntu bati dagokion etenaldiak prozesuan bere eragina izan dezakeela. Horregatik, eta epealdi luzeentzako oreka-egoeran, epealdi laburrentzako eskaintza-prezioak, epe luzeoko oreka-egoeran, lehenkostu marjinala gaindi dezake (lehenkostu marjinala, ekoizpenaren murritzeta txiki baten kasuan kalkulaturik).

⁴⁴ Erabil-kostua, hein batean, etorkizuneko alokairu-mailaren aurreikuspenen menpe dagoenez, iraupen laburrekoa izatea espero den alokairu-unitatearen murritzetak faktore-kostua eta erabil-kostua proportzio desberdinetan aldaaz ditzake, eta beraz, zein ekipamendu erabiltzearen erabakian eragina izango du, eta ziur aski, eskari efektiboan ere bai, zeren eta faktore-kostuak parte har baitezake eskari efektibo-

aren determinazioan erabil-kostuak egiten duen moduan, baina era desberdinez.

⁴⁵ Lehendabizikoz erabilitako ekipamenduaren erabil-kostua ez du, nahitaez, ekoizpenaren output-bolumenarekiko independente izan behar (ikus aurrerago); hau da, outputaren bolumen osoaren aldaketak goitik behera eragin diezaioke erabil-kostuari.

⁴⁶ Handiagoa izango da baldin eta etorkizuneko epealdi batean norma-baino errendimendu handiagoa lor daitekeela uste badugu, eta gainera, epealdi hori ekipamendu berriaren ekoizpena justifikatzeko bezain luzea izatea espero ez bada. Gaur egungo erabil-kostua, etorkizuneko edozein datatan espero daitezkeen errendimenduetatik deskontaturiko balioen maximoa da.

⁴⁷ Hawtrey jauna (*Economica*, 1934ko maiatza, 145. or.) ez dago ados Pigou irakasleak eskaintza-prezioa eta eskulanaren kostu marjinalaren artean egindako identifikazioarekin eta Pigou jaunaren argudioa, beraz, oso oker dagoela adierazi digu.

⁴⁸ Liburu horretan erabili nuen metodoaren arabera, benetan lortutako irabazi arruntek finkatuko lituzkete irabaziei beraiei buruzko aurreikuspen arruntak.

⁴⁹ Ikus Robertson jaunaren «Saving and Hoarding» artikulua (*Economic Journal*, 1933ko iraila, 399. or.), eta Robertson, Hawtrey eta Nire arteko eztabaida (*Economic Journal*, 1933ko abendua, 658. or.)

⁵⁰ *Quartely Journal of Economics*, 1932ko azaroa, 123. or.

⁵¹ *Op. Cit.* 125. or.

⁵² Cf. 14. kapitulua.

⁵³ Bide batez, politika fiskalak aberastasuna sortzeko duen eragina oker ulertu izan dela adieraz dezagun; baina ezin diogu oker hau aztertzeari ekin, IV. liburuan azalduko den interes-tasari buruzko teoriaren laguntzarik gabe.

⁵⁴ Cf. 257. or.

⁵⁵ Benetako zifrei horren garrantzi gutxi ematen zaienez, bi urte edo gehiagoko atzerapenaz argitaratzen dituzte.

⁵⁶ 1930eko martxoaren 31n amaitu zen ekitaldian, udal-agintariak 87.000.000 £ gastatu zituzten kapital-ondasunetan, eta horietatik 37.000.000 £ aurreko kapital-gastuei zegozkien amortizazio-fondo eta abarretatik lortu ziren; 1933ko martxoaren 31n amaitu zen ekitaldian, zifra hauek 81.000.000 £ eta 46.000.000 £-koak izan ziren, hurrenez hurren.

⁵⁷ *Op. Cit.* 117 eta 138. or.

⁵⁸ Aipu hauek National Bureau of Economic Research-en buletinetik (52. zk.) hartu dira, non Kuznets jaunak prestatzen ziharduen liburuaren aurretiazko ondorioak ematen diren.

⁵⁹ Datu berriei esker, Keynes jaunak lehen zutabeko zifrak bigarren zutabekoak baino kapital-maila hedatua goei dagozkiela egiaztatu ahal izan zuen. Honek balio galeraren urteroko nahikoa ez den hazkuntzari buruz ondoren egindako adierazpena adierazten du. Horregatik, taulatik ateratuko ondorioak are sendotuago daude. *Economic Journal*, 1936ko iraila. (Itz. oharra)

⁶⁰ Atal honen hainbat pasartetan aurreratu ditugun zenbait ideia IV. liburuan azalduko dira.

⁶¹ Gehiago zehaztuz, e_e eta e_e' , hurrenez hurren industria orokorran eta inbertsio-industrien enplegumalgutasunak badira, eta N eta N_2 -k hurrenez hurren industria orokorrean eta inbertsio-industrietan enplegatutako langileak adierazten badi-tuzte, honakoa dugu:

$$Y_w = (Y_w / e_e \cdot N) \quad N$$

eta

$$I_w = (I / e_e' \cdot N_2) \quad N_2$$

eta ondorioz,

$$N = (e_e' / e_e) (I_w / N_2) (N / Y_w) k \quad N_2$$

hau da,

$$k' = (I_w / e_e' \cdot N_2) \cdot (e_e \cdot N / Y_w) k$$

Dena den, zati batean industria orokorrari eta beste batean inbertsio-industriei dagozkien eskaintza osoen kurbetatik interesatzen zaizki-gun zatietan forma-desberdintasun nabarmenak daudela uste izateko arrazoirik ez badugu, eta beraz $I_w / e_e' \cdot N_2 = Y_w / e_e \cdot N$ bada, $Y_w / N = I_w / N_2$ eta ondorioz $k = k'$.

⁶² Arrazoiketa guztietan kantitateak alokairu-unitateetan neurtuko dira.

⁶³ Dena den, kasurik orokorrean inbertsiorako eta kontsumorako, hurrenez hurren, lan egiten duten industrietako ekoizpenaren baldin-tza fisikoen arabera ere bada.

⁶⁴ Cf. 21. kapitulua, 303. or.

⁶⁵ Ikus, hala ere, (144. or.), Estatu Batuentzako balioespena.

⁶⁶ Inbertitutako sarreraren propor-tzioa, benetan,

$$1+2+3+\dots+n / 50+n = n(n+1) / 2(50+n).$$

(Itz. oharra)

⁶⁷ Jatorrizko testuan 6.400.000 eta % 23 jartzen du, baina oker dagoela-koan gaude. (Itz. oharra)

⁶⁸ Hemen inbertsio-bolumena, hori burtzeko enplegatutako langile-kopuruaren arabera neurtu da. Enplegu-unitateko errendimenduak enpleguak gora egin ahala jaitsi egiten badira, hemen erabilitako eskalaren arabera kopuru bikoitza dena, eskala fisikoaren arabera neurtuta bikoitza baino txikiagoa izango da (eskala fisiko hori bade-la suposatuz).

⁶⁹ Oro har, eskari osoaren aldaketa erlatiboaren eta inbertsioaren alda-keta erlatiboaren arteko erlazioa ondorengoa da:

$$(Y) : (I) = (Y) \cdot (Y - C) / (I - C) = (I - C) : (I - dC)$$

Sarrerak gehitu ahala, dC/dY txikia-gotu egingo da, baina C/Y ere txikia-gotu egingo da.

Beraz, emaitza handiagotu edo txi-kiagotu egingo da, kontsumoaren gehikuntza erlatiboa sarrerarena baino handiagoa edo txikiagoa iza-tearen arabera.

⁷⁰ Ebatzi beharreko ekuazioa hau da:

$$100.000 = [(3 + 4 + \dots + n) / 100] \times 100.000$$

$$\text{hau da, } 100 = 3 + 4 + \dots + n$$

Erraz asko egiaztatu ahal izango dugunez, emaitza 14 ingurukoa da. Enplegu betea, beraz, 6.400.000koa izango da gutxi gorabehera. (Itz. oharra)

⁷¹ Sarritan erosoagoa da «mailegue-tako fondoek gastua» terminoa era-

biltzea, bai maileguen bidez partikularrei finantzatutako inbertsio publikoa izendatzeko eta bai modu berdinez finantzatutako beste edozein gastu publiko arruntetarako ere. Zentzu hertsian, azken gastu hauek aurrezki negatibotzat hartu beharko lirateke, baina honi dagokionez, agintarien politika ez dator bat aurrezki pribatua gobernatzan dutenen arrazoi psikologikoekin. Beraz, «maileguetako fondoek gastua» terminoa agintari publikoen mota guztietako mailegu netoak izendatzeko eroso da, nahiz kapital-kontzeptu baterako, nahiz aurrekontuaren defizita estaltzeko izan. Lehenengo kasuan maileguetako fondoek gastuak inbertsioa handiagotzen du, eta bigarrenean kontsumitzeko joera.

⁷² Definizioak erraztearren, alde batera utzi dut ondasunaren errendimendu probableak eskuratu baino lehen igaro behar diren epeei dagozkien interes- eta deskontu-tasez ari garela. Baina ez da zaila puntu hau kontuan hartuz argudioa berriz adieraztea.

⁷³ Baina ez al zegoen oker alokairuen produktibitate marjinalaren teoria, era berean, zirkularra dela suposatuta?

⁷⁴ Op. cit., 168. or.

⁷⁵ Op. cit., 159. or.

⁷⁶ Op. cit., 155. or.

⁷⁷ Cf. Robertson jaunaren artikulua, «Industrial Fluctuations and the Natural Rate of Interest», *Economic Journal*, 1934ko abendua.

⁷⁸ Ez guztiz; izan ere, bere balioak neurri batean etorkizunarekiko ezja -

kintasuna islatzen baitu. Are gehiago, epe desberdinetarako interes-tasen arteko erlazioa aurreikuspenen araberrakoa da.

⁷⁹ «Oso ziurtasun gutxikoak» honekin ez dut esan nahi «oso gertaezinak» direnik. Cf nire *Treatise on Probability*, VI. kap., «The Weigh of Arguments», argudioen garrantziari buruzkoa.

⁸⁰ *Treatise on Money* liburuan (II. Lib., 195. or.) oharrarazi nuen konpainia baten akzioak oso goitik kotizatzen direnean, eta beraz, baldintza egokiez akzio gehiago jaulkiz kapital gehiago eskura badaiteke, maileguak interes-tasa baxuan eskuratu ahal izatearen ondorio berdina izango lukeela. Orain hauxe bera deskribatzeko honakoa esango nuke: egun dauden balorentzako kotizazio altuak dagokion kapital-motaren eraginkortasun marjinalaren igoera eragiten duela, eta beraz, interes-tasa murriztearen ondorio bera duela (inbertsioa kapitalaren eraginkortasun marjinalaren eta interes-tasaren arteko konparazioaren araberrakoa denez gerozik).

⁸¹ Jakina, hau ezin zaie aplikatu erraz komertzializatzeko aukerarik ez duten enpresei, edota, estu atxikitako balore negoziagarriak ez dago kienei. Lehen salbuespen honen barenan enpresa-mota ugari zeuden, baina enpresa hauek inbertsio berrien guztizkoarekiko duten proportzioa kontuan hartuz, azkar ari dira garrantzia galtzen.

⁸² Inbertsio-trustek edo aseguru-etxeek normalean zuhurtzat hartzen duten praktika, beren inbertsio-kar-

teraz gain, merkatuan duten kapitalaren balorazioa ere sarritan kalkulatzeko da, eta horrek ere eragin dezake epe laburreko gorabeheren arreta gehiegi eskaintzea.

⁸³ Esan ohi denez Wall Street merkatuan ari denean, gutxienez inbertsioen salmenta edo erosketen erdiak, espekulatuazalearen aldetik, *egun berean* berriz desegiteko asmoz egiten dira. Hauxe bera sarri aplikatu daiteke, halaber, salgaien transakzioetan.

⁸⁴ Azterketa orokorrak egitean, zorraren epea espreski zehazten den eragiketetan ez bezala, komeni da interes-tasak epe desberdinetarako oraingo interes-tasen multzoa adieraztea, hau da, epealdi desberdinetarako zorrei dagozkienak.

⁸⁵ Definizio hau eraldatu gabe, «dirua» eta «zorren» arteko mugalerroa arazo baten aurrean jarduteko egokia izan daitekeen edozein unetan marraz dezakegu. Esaterako, *dirutzat* har dezakegu erosketa baten ahalmenaren gaineko edozein jabetza, horren jabeak hiru hilabete baino epe luzeagoaz uzten ez badu, eta *zortzat* hartuko dugu hori baino epe luzeagoan baizik berreskuratu ezin daitekeena; «hiru hilabeteak» ere hilabete edo hiru egun edo hiru ordu edo beste edozein eperekin ordezkatu ditzakegu; edota dirua begibistan dagoen moneta arruntari bakarrik esan diezaiokegu. Sarritan, egokia izan ohi da diruan bankuetaiko eperako gordailuak barne sartzeko, eta batzuetan baita altxortegiko egiaztagiria ere (adibidez). Arau orokor gisa, nire *Treatise on Money* liburuan bezala, banku-gordailuak

ere diruaren kontzeptuan barne hartuko ditut.

⁸⁶ Puntu hauxe bera aztertu nuen *Treatise on Money* liburuan, bi ikuspegi eta «gorantza» eta «beherantza-ko» jarrera izenburuekin

⁸⁷ Era berean, honakoa pentsa liteke: norbanako batek inbertsioen errendimendu probalea merkatuak aurreikusitakoaren azpitik egongo litzatekeela uste izango balu, nahikoa arrazoi izango luke diru likidoa gordetzeko; baina hori ez da betetzen. Nahikoa arrazoi badu, akzioak ez eta, eskudirua edo zorrak gordetzeko; baina zorrak erostea eskudirua gordetzea baino aukera hobea izango da, etorkizuneko interes-tasa merkatuak pentsatzen duenaren gainetik egongo dela uste izatea salbu.

⁸⁸ Ikus, kapitulu honen eranskinean, honi buruz aurkitu ahal izan dudaren laburpena.

⁸⁹ Cf. 171. Or. pasarte hau sakonkiago aztertzeko.

⁹⁰ Carver irakasleak interesari buruz egiten duen azterketari jarraitzea zaila da 1) «kapitalaren produktibitate marjinalarekin» esan nahi duenaren zehaztasun ezagatik, hau da, produktu marjinalaren kantitatea ala produktu marjinalaren balioa den, eta 2) kapitalaren kantitatea definitzen saiatzen ez delako.

⁹¹ Arazo hauei buruz duela gutxi egindako azterketa batean («Capital, Time and the Interest Rate», F.H. Knight irakaslearen eskutik, *Economica*, 1932ko abuztua) -non kapitalaren izaerari buruzko oharrazpen sakonak eta interesgarriak

egiten diren, eta Marshall-en tradizioaren sendotasuna baiesten duen Böhm-Bawerk-en analisiaren erabilerari buruz-, interesaren teoria, teoria klasiko tradizionalari jarraituz adierazi da. Kapitalaren ekoizpenaren arloan, Knight irakaslearen arabera, orekak honakoa adierazten du: «aurrezkiek merkaturantz jotzen dutela, inbertsioetarantz egiten duten erritmo edo abiadura berean, horrela errendimendu netoaren tasa eta aurrezleek hori erabiltzeagatik ordaintzen dutena berdina izatea eraginez».

⁹² Diagrama hau R.F. Harrod jaunak iradoki zidan. Cf. ere hein batean antzekoa den eskema D.H. Robertson jaunaren eskutik. *Economic Journal*, 1934ko abendua. 652. or.

⁹³ Cf 17. kapitulu.

⁹⁴ Ekonomialeari garaikideen interes-tasa «neutrala», Böhm-Bawerk-en tasa «naturalarekiko» nahiz Wicksell-en tasa «naturalarekiko» ezberdina da.

⁹⁵ Ikus kapitulu honen eranskina.

⁹⁶ Oharrarazi beharra dugu Marshallek ez duela »dirua« hitza erabiltzen, «kapital» hitza baizik, eta «mailegua» beharrean, «stock» hitza; dena den, interesa dirua maileguan uzteagatik ordainketa da, eta testuinguru honetan «kapital-eskariaren» esanahiak «kapital-ondasunak erosteko helburua duten diru-maileguen eskaria» izan behar luke. Baina eskaintzen diren kapital-ondasunen eta eskatzen diren bolumenaren arteko berdintasuna kapital-ondasunen prezioen bidez

gauzatuko da, eta ez interes-tasaren bidez. Interes-tasak, benetan, diru-maileguen (hau da, zorren) eskaintza eta eskaria berdintzen ditu.

⁹⁷ Honek sarrera ez dela konstantea esan nahi du; baina ez da argi ikusten ze dela eta interes-tasaren igoerak «aparteko lana» eragingo duen. Edota interes-tasaren igoera alokairu errealean gehikuntza-mota bat bailitzan hartu behar dela iradokitzen ari ote da, honek ekoizpen-faktoreak alokairu txikiagoaren truke lan egitera, lana aurrezteko bide gisa erakargarriagoa delako, bultzatuko dituelarik? Nire ustez hau da Robertson-ek antzeko testuinguruan esan nahi duena. Egia da honek «epe laburrean ez lukeela gauza handirik eragingo»; eta inbertsioaren bolumenaren gorabehera errealak faktore honen bidez azaldu nahi izatea ez litzateke batere zuzena izango; zentzugabea, baizik. Esaldiaren bigarren zati hori nik honela berridatziko nuke: «eta kapital-eskariaren gehikuntza nabarmen bat, oro har, interes-tasaren igoerarekin orekatua ez badago, aparteko lanak eta sarre-ra-maila handiagoak, zeintzuk kapital-ondasunen ekoizpen-gehikuntzaren ondoriozkoak izango diren, aparteko itxarote handiagoa eragingo dute, eta moneta-terminoetan itxarote hau kapital-ondasunen gehikuntza arruntaren balio berdinekoa izango da, eta beraz, itxarotea aseptzeko adinakoa izango da.

⁹⁸ Eta zergatik ez kapital-ondasunen eskaintza-prezioaren igoerarekin? Demagun «kapital-eskariaren gehikuntza bortitz hori, oro har,» interes-tasaren jaitsieraren ondoriozkoa

dela. Nik esaldia honela berridaztea iradokiko nuke: «Beraz, kapital-ondasunen eskarian izandako igoera nabarmen horri berehala stock osoaren gehikuntzak segitzen ez badio, kapital-ondasunen eskaintza-prezioaren igoerarekin eutsi beharko dio, eta honek inbertsio-eskalan funtsezko aldaketarik izan gabe, kapitalaren eraginkortasun marjinala interes-tasarekin orekan mantentzeko adina-koa izan beharko du; bien bitartean (beti bezala), kapital-ondasunak ekoizteko egokitutako ekoizpen-faktoreak egoera berrian eraginkortasun marjinal handiena duten kapital-ondasunak ekoizteko erabiliko dira».

⁹⁹ Berez, inola ere ezin da horri buruz hitz egin. Kapital-inbertsio zahar nahiz berriak erosteko asmoz (edo beste edozertarako) maileguz utzitako diruaren interes-tasaz besterik ezingo dugu hitz egin.

¹⁰⁰ Hemen ez da argi uzten ea kontsumoa atzeratzeak *nahitaez* ondorio hau duen, edota, besterik gabe, baliabideak uzten dituen (kasu honetan, egoeren arabera erabili gabe geratzen direnak edo inbertsio-etarako erabiltzen direnak) ondorioztatu behar dugun.

¹⁰¹ Eta ez, ohar bedi, sarrera jasotzen duenak kontsumoan gasta lezakeena eta gastatzen ez duen diru-zenbatekoa; beraz, itxarote-saria ez da interesa, ia-errenta baizik. Badirudi esaldi honek aske utzitako baliabideak *derrigorrez* erabiltzen direla esan nahi duela. Izan ere, zein da itxarotearen saria, baliabideak erabiltzen ez badira?

¹⁰² Pasarte honetan ez digute esaten aurrezki netoak eta kapital-gehikun-

tza berdinak izango liratekeen ala ez, baldin eta gaizki bideratutako inbertsioa kontuan hartuko ez bage-nu, eta «banku-diru gisa zerbitzuetarako ez erabilitako eskubideen aldi-bateko metaketak» kontuan hartu arren. Baina *Industrial Fluctuations* liburuan (22. or.) Pigou irakasleak argi uzten du metaketa horiek ez dutela berak «aurrezki efektiboa» deitzen duenean eraginik.

¹⁰³ Erreferentzi honek (op. cit., 129-134 orr.) Pigou irakaslearen ikuspuntua hartzen du, bankuek emandako kreditu berria sortzeak enpresarioentzat kapital erreal eskuragarriaren zenbatekoa handiagotzeari buruz. Berez, berak «kreditu-sorren bidez negoziozaleei emandako kreditu flotatzaitetik, bankuek parte hartu izan ez balute beste bide batzuetatik emango litzatekeen kapital flotatzailea» ondorioztatu nahi du. Ondorio hauek atera ondoren, argudioa iluna da guztiz. Lehenbizi, errentatzaileek 1.500eko sarrera dute eta horretatik 500 kontsumitu eta 1.000 aurrezten dituzte; kreditua sortzeko ekintzak bere sarrera 1.300era murrizten du, eta bertatik 500-x kontsumitu eta 800+x aurrezten dituzte; eta x-k, dio bukatzeko Pigou irakasleak, kredituaren sorreraren bidez eskuragarri geratu den kapitalaren igoera netoa adierazten du. Beraz, bankuetatik maileguan hartzen den zenbatekoarekin (aurreko kenkariak egin ondoren) enpresarioaren *sarrera* puztu egiten dela suposatu behar al da? Edota errentatzaileen sarrera murrizten deneko kopurua gehitu egiten da, hau dela, 200 gehitzen dela? Nolanahi ere, kopu-

ru hori guztia aurrezten dutela suposatzen al da? Inbertsioaren gehikuntza kredituaren sorrerari kenkariak kenduta geratzen denaren berdina al da? Edota x-ren berdina al da? Badirudi argudioa hasi beharko litzatekeen tokian bukatzen dela.

¹⁰⁴ *The Theory of Money and Credit*, 339. or., eta beste batzuk, batez ere 363. or.

¹⁰⁵ Epe luzeko orekan jartzen bagara, hau justifika lezaketen suposizio bereziak finka litezke; baina prezio-ek beheraldietan mantentzen direnak badira, enpresarioak bere aurreikuspenak egitean prezio hauek iraunkorrak izango direla uste izango duela suposatuz, sinplifikazioa hau seguraski oker egongo da. Are gehiago, horrela eginez gero, ekoizpen-ondasunen jadaneko hornikuntzaren prezioak eta kontsumo-ondasunenak maila berean jaitsiko dira.

¹⁰⁶ *Economic Reconstruction*, 233. or.

¹⁰⁷ V. liburua arte atzeratu beharra dugu oreka berriaren izaera zehazten duen gaia.

¹⁰⁸ $\forall YM$ -en berdina bailitzan definitu badugu, eta ez Y/M_1 -en berdina bailitzan, jakina, teoria koantitatiboa edozein egoeratan betetzen den egia nabarmena da, inolako garrantzirik ez badu ere.

¹⁰⁹ Puntu hau 21. kapituluaren garatuko dugu zabalago.

¹¹⁰ Cf. Marshall-en oharra Böhm-Bawerk-i buruz, *Principles*, 583. or.

¹¹¹ Sraffa irakaslea izan zen erlazio hau lehen aldiz adierazi zuena,

1932ko martxoko *Economic Journal*ean, 50. or.

¹¹² Ikus 20. kapitulua.

¹¹³ Gai hau 19. kapituluaren jorratuko dugu sakonago.

¹¹⁴ Alokairuak (eta kontratuak) gari-tan finkatuko balira, gerta liteke gariak diruaren likidezi sariaren zati bat eskuratzeari; hurrengo pasartean helduko diogu berriz ere gai honi.

¹¹⁵ Ikus 181-182. orr.

¹¹⁶ *Zero* malgutasuna, normalean behar izaten dena baino baldintza zorrotzagoa da.

¹¹⁷ Cf. 79. oin-oharra.

¹¹⁸ «Likideziaren» ezaugarria ez da, inola ere, bi ezaugarri hauetatik kanpo geratzen. Izan ere, nahikoa zaila da ondasun batek, zeinaren eskaintza erraz asko handiago daitekeen, edota bera edukitzeko desioa erraztasun berdinez desbidera daitekeen, prezio erlatiboan izandako aldaketagatik aberastasunen jabeen buruan «likideziaren» ezaugarria izan dezan. Diruak berak ere berehala galtzen du «likideziaren» ezaugarria bere etorkizuneko eskaintzak aldaketa bortitzak izatea espero bada.

¹¹⁹ Benetan, bertan adierazitako hipoteka eta bere interesa dirutan finkatu dira. Baina hipotekatzen duenak lurra bera bere zorra kitatzeko aukera izateak —eta hala egin beharko du eskatzen zaionean dirurik ez badu—, etorkizunean entregatzeko lur-kontratua berehala entregatzeko lurraren kontrakora gertatu du hipoteka-sistema. Gertatu izan da lurak lantzen dituztenei lurak saltzea beraiek egindako hipoteken

kontra, eta berez, oso gerturutzen dira honelako transakzioetara.

¹²⁰ Definizio hau ez dator bat idazle berriek diru neutralari buruz egindako batekin ere, baina, agian, nola-baiteko zerikusia izan dezake idazle hauek buruan zuten helburuarekin.

¹²¹ Cf. 20. kapitulua

¹²² Oraingoz alde batera utziko ditugu gai ezberdinen enplegu-funtzioek dagozkien enplegu-mailen kurbatura ezberdinak dituztenean sortzen diren hainbat oztipo.

¹²³ 20. kapituluaren adieraziaz.

¹²⁴ Alokairu-unitateen aldaketen eraginak 19. kapituluaren aztertutako dira zehatz-mehatz.

¹²⁵ Kapitulu honen eranskinean zehatz kritikatzen da Pigou irakaslearen *Theory of Unemployment*

¹²⁶ Alokairuaren kostu marjinala eta lehenkostu marjinala berdintzeko praktika okerraren jatorria, agian, *alokairuaren kostu marjinalaren* en esanahiak duen anbiguitatean egon daiteke. Izen horrekin honakoa adieraz genezake: output-unitate bat gehiagoren kostua, bestelako kostu gehigarriak ez dagoenean (alokairuei dagokienez izan ezik); baina baita beste output-unitate bat gehitzeak alokairuetan eskatzen duen kostu gehigarria ere (modurik merkeenean ekoiztuta, jadaneko ekipamendua eta erabili gabeko beste fak-

¹³⁰ Izan ere, P_{wr} alokairu-unitatetan neurtutako output-unitate baten aurreikusitako prezioa bada,

$$D_{wr} = (p_{wr} O_r) = p_{wr} \Delta O_r + O_r \quad p_{wr} = D_{wr} / O_r \cdot O_r + O_r \quad p_{wr}$$

beraz,

$$O_r \quad p_{wr} = D_{wr}(1 - e_{or})$$

tore batzuen laguntzarekin). Lehen kasuan ezin diogu lan gehigarriari enpresarioaren partehartzerik txikiena ere gehitu; ezta eragiteko kapitalik ere, eta ezta kostuari gehitzeko lanaz kanpoko beste ezer ere; eta lan horri ezin diogu, lan-indarrik txikiak ekipamendua narriatuko lukeena baino gehiago narriatzen utzi ere. Lehen kasuan lanaz kanpoko beste edozein kosturi lehenkostu marjinala sartzeko utzi ez diogunez geroztik, alokairuaren kostu marjinala eta lehenkostu marjinala berdina direla ondorioztatzen da, jakina. Baina premisa hauen arabera burututako analisiaren emaitzek ez dute ia aplikaziorik, oinarrituta dagoeneko suposizioa praktikan gutxitan gauzatzen baita; izan ere, errealitatean ez gara lan gehigarria beste faktore batzuei dagozkien kopuruekin ez lotzeko bezain traketsak, beste faktore horiek eskura ditugun heinean, eta, beraz, hipotesia, lanaz kanpoko faktore guztiak jadanik eman dezaketenez guztia ematen erabiltzen ari direla baino ez da aplikatuko.

¹²⁷ *Op. cit.*, 252. or.

¹²⁸ Ez dago inolako aipamen edo iradokizunik esandakoa interes-tasan izandako erreakzioen bidez gerta daitekeenari buruz.

¹²⁹ Algebra atsegin ez dutenek (arrazoi osoa dute), ezer gutxi galduko dute kapitulu honen lehen atala alde batera utziz gero.

edo,

$$D_{wr} = O_r \cdot p_{wr} / 1 - e_{or}$$

Baina

$O_r \cdot p_{wr} = D_{wr} \cdot p_{wr}$ $O_r = D_{wr}$ -(lehenkostu marjinala) $O_r = P_r$
eta hortaz,

$$D_{wr} = 1 / 1 - e_{or} \cdot P_r'$$

¹³¹ Izan ere, $D_{wr} = p_{wr} \cdot O_r$ denez, honakoa izango dugu:

$$1 = p_{wr} \cdot dO_r / dD_{wr} + O_r \cdot dp_{wr} / dD_{wr} = e_{or} - N_r F''(N_r) / (F'(N_r))^2 \cdot e_{er} / p_{wr}$$

¹³² Izan ere, $p = p_w \cdot W$ eta $D = D_w \cdot W$ direnez gero,

$$p = W \cdot p_w + p_w' \cdot W' \quad W = W \cdot e_p' \cdot p_w / D_w \quad D_w + p_w' \cdot W' \quad W = e_p' \cdot p_w / D_w \quad D_w + p_w' \cdot W' \quad W = e_p' \cdot p / D \quad D + W \cdot p / W (1 - e_p')$$

eta beraz,

$$p = D \cdot p / p \quad D = e_p' + D \cdot p' \quad D \cdot W \cdot W' (1 - e_p') = e_p' + e_w (1 - e_p') = 1 - e_o (1 - e_w)$$

¹³³ Hau ez da ohiko definizioaren berdin-berdina, baina ideia nagusia adierazten duela iruditzen zait.

¹³⁴ Aurreko gaiari buruzko azterketa sakonagoa aurki daiteke nire *Treatise on Money* lanean, IV. lib.

¹³⁵ Cf. 17. kapitulua

¹³⁶ Cf. XIX. mendeko esaera, Bagehot-ek aipatutakoa: «John Bull-ek gauza ugari jasan ditzake, baina ez %2.

¹³⁷ Sarritan komeni izaten da, oker interpretatu ezin den testuinguruetan, «kapitalaren eraginkortasun marjinala» idaztea, «kapitalaren eraginkortasun marjinalaren kurba» esan nahi delarik.

¹³⁸ Lehenago frogatu dut (12. kapitulu-
luan) inbertsore pribatua inbertsio berrien zuzeneko erantzulea gutxitan bada ere, zuzeneko erantzule diren enpresarioei finantzarioki abantailatsuagoa eta, sarritan, saihestezina irudituko zaie merkatuaren ideiek harrapa ditzaten,

bakoitzak informazio hobia duen arren.

¹³⁹ *Treatise on Money*, IV. liburuko argudioaren zati bat gai honen ingurukoa da.

¹⁴⁰ Dena den, kontsumitzeko joera denboran zehar nola banatzen denari buruzko hainbat suposiziotan, errendimendu negatiboa izaten duten inbertsioak abantailatsuak izan litezke, gizarteari, oro har, asebetetze-maila gorena emango bailiokete.

¹⁴¹ Ikus geroago (322-323. orr.) bes-tetik sor daitezkeen beste argudioak; izan ere, gure oraingo metodoetan aldaketa handiak egiten uzten ez badigu ere, interes-tasaren igoera goraldian egoera ulergarrietan, gaitzerdi izatearekin bat etorriko nintzateke.

¹⁴² Ikus bere *Industry and Trade*, D eranskina; *Money, Credit and Commerce*, 130. or.; eta *Principles of Economics*, I. eranskina.

¹⁴³ Horiei buruz duen ikuspuntua ongi jasotzen da bere *Principles* liburuko lehen argitalpenaren 51. orrialdean egiten duen oin ohar batean: «Bai Ingalaterran eta bai Alemanian, asko arduratu dira diruak nazio-aberastasunarekin duen erlazioari buruzko Erdi Aroko iritziez. Normalean iritzi nahasi gisa hartu behar dira, diruaren funtzioei buruzko ideia argirik ez baitago, eta ez iritzi oker gisa, nazio baten aberastasun netoaren hazkuntza, soilik, nazioan metal bitxien hornikuntza handiagotuta egin daitekeela dioen suposizioaren ondorioz».

¹⁴⁴ *The Nation and the Athenaeum*, 1923ko azaroaren 24a.

¹⁴⁵ Alokairu-unitate malguaren irten-bidea deritzonak beheraldia alokairu-jaitzieraren bidez orekatzen duen heinean, arrazoi beragatik gure auzokoen kontura aberasteko balio dezake.

¹⁴⁶ Solon-en garaiaz gero, gutxienez, eta estatistikak izango bagenitu seguraski bera baino askoz ere lehenagotik ere bai, esperientziak giza izaeraren ezagutzak pentsarazi beharko ligukeena adierazten digu, hau da, goranzko alokairu-unitatearen joera sendoa dagoela epe luzee-tan zehar, eta hori gizarte ekonomikoaren gainbehera- eta ezabatze-egoeran besterik ezin dela murriztu. Beraz, populazioaren hazkundearekin eta teknikaren aurrerakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, diru-stocka gradualki handiagotzea ezinbestekoa da.

¹⁴⁷ Nire ustez guztiz egokiak dira, zeren eta Heckscher irakaslea bera, oro har, teoria klasikoaren aldekoa

baita eta nik baino gutxiago atsegin ditu teoria merkantilistak. Beraz, zalantzarik gabe, aipamenak hautatzeko orduan ez da partziala izan, inola ere, bere jakituria erakusteko nahiarekin.

¹⁴⁸ Heckscher, *Mercantilism*, II. lib., 200-201 orr., zertxobait laburtuta.

¹⁴⁹ *Some considerations of the Consequences of the Lowering of Interest and Raising the Value of Money*, 1962, baino urte batzuk geroago idatzia.

¹⁵⁰ Eta berak honakoa gehitzen du: «diru-kopuruarenaz gain, baita ziklazio-abiaduraren araberrakoa ere bai».

¹⁵¹ «Erabil» termino hori, jakina, «interesa» izendatzeko era ingeles zaharra izanik.

¹⁵² Zertxobait geroago Hume-k hanka eta erdi mundu klasikoan zuen, ekonomialariengan oreka-egoeraren garrantzia indartzeko praktikari hasiera eman baitzion, betiereko orekaranzko trantsizio aldakorrarekin alderatuta, nahiz eta artean ere gure benetako izatea trantsizioan dagoela ez ahazteko nahikoa merkantilista izan: «Diru-eskuratze eta prezio-igoeraren bitarteko epe edo egoera honetan besterik ez da industriaren aldekoa izango urte eta zilarren igoera... Estatuaren zorionari begira, batere garrantzirik ez du diru gehiago ala gutxiago egoteak. Magistratuaren politika ona diru hori, ahal dela, oraindik igoeran mantentzea besterik ez da; horrela nazioan industri izpiritua bizirik mantentzen du eta lanaren egoera igoarazi egiten du.

Hain zuzen, botere eta aberastasun osoaren adierazgarria horixe da. Bere dirua urritu egiten duen nazioa, benetan, eta une horretan, diru gutxiago izan arren dirua ugaltzeko bidean dagoen beste nazio bat baino ahul eta txiroagoa da». (*On Money* -ko saiakera, 1752)

¹⁵³ Interesa, diruaren gaineko interesa *adierazten* duen ikuspuntu merkantilista noraino desagertu den azaltzeko (ikuspuntu hori, orain, guztiz zuzen dagoela iruditzen zaidalarik), Heckscher irakasleak, ekonomialari klasiko gisa, Locke-ren teoriaren deskribapena laburbiltzen duen aipamena gogora dezagun: «bere argudioa guztiz zuzen egongo litzateke, benetan, interesa maileguan utzitako diruaren prezioa izango balitz». (*Op. cit.*, 649. or.).

¹⁵⁴ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 210-211 orr.

¹⁵⁵ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 228. or.

¹⁵⁶ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 235. or.

¹⁵⁷ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 231. or.

¹⁵⁸ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 231 orr.

¹⁵⁹ Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 178. or.

¹⁶⁰ «Nazioaren *barnean* merkantilistak helburu dinamikoen atzetik zebiltzan. Baina garrantzitsuena honakoa da: jarrera hori munduko baliabide ekonomiko guztien ideia estatikoarekin lotzen zela; eta hortik sortu da amaigabeko merkataritza-gatazken oinarri den funtsezko desadostasuna... Hori izan zen merkantilismoaren tragedia. Erdi aroak, bere ideal unibertsal estatikoaren bidez, eta *laissez-faire* -ak, bere ideal unibertsal dinamikoaren bidez, biek ere ondo-

rio hau saihestu zuten» (Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 25-26. orr.).

¹⁶¹ Lanaren Nazioarteko Bulegoak, lehenik Albert Thomas-en zuzendaritzapean eta ondoren H.B. Butler jaunarenean egondakoak, egia honi buruz aintzatespen sendoa eginda, gerra osteko hainbat nazioarteko elkarteren aitortpenetan nabarmendu egin da.

¹⁶² Heckscher, *op. cit.*, II. lib., 176-177. orr.

¹⁶³ *Op. cit.*, II. lib., 335. or.

¹⁶⁴ *Defense of Usury* lanari erantsitako *Letter to Adam Smith* gutunean.

¹⁶⁵ *Wealth of Nations*, II. lib., 4. kap.

¹⁶⁶ Bentham testuinguru honetan aipatzen hasita, irakurleari bere aipamenik onena gogorarazi behar diot: «Artearen karrera, aitzindarien urratsak jasotzen dituen bide zabala, Curtis irentsi zutenaren tankerako ahutzez beteriko lautada itzel eta, agian, mugagabea bailitzan har daiteske. Ahutzetako bakoitzak itxi aurretik giza biktima bat nahi izango du, baina itxi ostean sekula gehiago ez da zabalduko, eta beraz, bidearen zati handi bat ondorengoentzat segurua izango da.»

¹⁶⁷ Luxemburgeko mugatik gertu jaio zen, aita alemana eta ama frantziarra izanik.

¹⁶⁸ Gesell ez zetorren bat Georgerekin azken honek lurra nazionalizatutakoan konpentsazioa ordaindu egin behar dela gomendatzen zuenean.

¹⁶⁹ *The Natural Economic Order*, 297. or. eta hurrengoak.

¹⁷⁰ Heckscher, *op cit* , II. lib., 208. or.

¹⁷¹ *Op. cit.*, II. lib., 290. or.

¹⁷² *Op. cit.*, II. lib., 291. or.

¹⁷³ *Op. cit.*, II. lib., 209. or.

¹⁷⁴ *History of English Thought in the Eighteenth Century* liburuan, «Mandeville-k ospetsu bihurtutako gezurraz» hitz egitean, Stephen-ek honakoa idatzi egin (297. or.): «hori gezurztatzen duen guztia, ondasunen eskaria lan-eskaria ez dela dioen doktrinan —horren modu arraroan ulertuta dago, ezen erabat ulertzea agian, ekonomialariarentzat proba onena baita— datza»

¹⁷⁵ Eskola klasikoaren aitzindari izan zen Adam Smith-ekin aldera bedi, honen ondoko idatzian: «Familia pribatu ororen jarreraren zuhurtasuna dena, erresuma handi bati dagokionez nekez izan daiteke zuhurgabeke-ria»; seguraski, Mandeville-ren aurreko pasarte hori izango zuen buruan.

¹⁷⁶ *Essay in Biography*, 139-147. orr.

¹⁷⁷ Malthusek Ricardori igorritako gutuna, 1821eko uztailaren 7koa

¹⁷⁸ Malthusek Ricardori igorritako gutuna, 1821eko uztailaren 16koa

¹⁷⁹ Malthusen *Principles of Political Economy*-ren aitzin solasa, 8, 9. orr.

¹⁸⁰ Malthusen *Principles of Political Economy* 363. or.ko oin-oharra.

¹⁸¹ J.S. Mill, *Political Economy*, I. lib., V. kapitulua. Mill-en teoriaren alderdi honi buruzko eztabaida garrantzitsu eta sakonagoa dago Mummery eta Hobsonen *Physiology of Industry* liburuan, 38. or. eta hurrengoak, bereziki, «ondasun-eskaria lan-eskaria ez dela» dioen

bere doktrinari dagokionez (hain zuzen, Marshall, Alokairu Fondo- en Teoriari buruzko eztabaida desatse- ginean azaltzen saiatu zenari dago- kionez).

¹⁸² «The Victorian and Investment», *Economic History*, 1936.

¹⁸³ Fullarton-en *On the Regulation of Currency* foiletoa (1844), bere erre- ferentzietako interesgarriena da.

¹⁸⁴ 1892. urtean argitaratutako J.M. Robertson-en *The Fallacy of Saving* idazlanak Mummery eta Hobsonen herexiari eutsi zion. Hala ere, ez da balio edo garrantzi handiko liburua, eta *The Physiology of Industry* -k dituen intuizio sakonen erabateko gabezia du.

¹⁸⁵ *Confessions of an Economic Heretic* izeneko hitzaldian, Londresko Sozietate Etikoan, Conway Hall-ean emana, 1935eko uztailaren 14an. Hobson jaunaren baimenarekin ekarri dut hona.

¹⁸⁶ Hobson-ek ondorengoa idatzi zuen, batere adeitasunik gabe, *The Physiology of Industry* -n, 26. or: «Gastatzeko zuhurtzia da nazio- aberastasunaren iturria, eta nazio bat zenbat eta urritasun handiagoz bizi, hainbat eta aberatsago bihur- tuko da. Hau da ia ekonomialari gehienek irakatsi ohi dutena; horie- tako askok duintasun etikoaren tonua hartzen dute urritasunaren mugagabeko balioa defendatzean; hau da beren kantu guztien artetik, jendearen belarria bereganatu duen nota bakarra».

¹⁸⁷ Hobson eta Mummery, *Physiology of Industry*, 3-5. orr.

¹⁸⁸ *Op. cit.*, 6. or.

¹⁸⁹ *Op. cit.*, 9. or.

¹⁹⁰ *Op. cit.*, 27. or.

¹⁹¹ *Op. cit.*, 50-51. orr.

¹⁹² *Op. cit.*, 69. or.

¹⁹³ *Op. cit.*, 113. or.

¹⁹⁴ *Op. cit.*, 100. or.

¹⁹⁵ *Op. cit.*, 101. or.

¹⁹⁶ *Op. cit.*, 79. or.

¹⁹⁷ *Op. cit.*, 117. or.

¹⁹⁸ *Op. cit.*, 130. or.

¹⁹⁹ *Op. cit.*, 131. or.

Aurkibidea

HITZAURREA	7
OHARRAK.....	23
BIBLIOGRAFIA	25
EGILEAREN HITZAURREA.....	27
LEHENENGO LIBURUA - SARRERA.....	31
I. <i>Teoria orokorra.</i>	33
II. <i>Ekonomia klasikaren postulatuak</i>	35
III. <i>Eskari efektiboaren printzipioa.</i>	51
BIGARREN LIBURUA - DEFINIZIOAK ETA IDEIAK	61
IV. <i>Unitateen aukeraketa.</i>	63
V. <i>Aurreikuspena, outputaren eta enpleguaren finkatzaile gisa</i>	71
VI. <i>Diru-sarrera, aurrezki, eta inbertsioaren definizioa</i>	77
<i>Erabil-kostuari buruzko eranskina</i>	89
VII. <i>Aurrezki eta inbertsioaren esanahietan sakonduz</i>	99
HIRUGARREN LIBURUA - KONTSUMITZEKO JOERA.....	109
IV. <i>Kontsumitzeko joera: I. Faktore objektiboak.</i>	111
V. <i>Kontsumitzeko joera: II. Faktore subjektiboak</i>	127
VI. <i>Kontsumitzeko joera marjinala eta biderkatzailea.</i>	133

BIGARREN LIBURUA - DEFINIZIOAK ETA IDEIAK	149
XI. <i>Kapitalaren eraginkortasun marjinala</i>	151
XII. <i>Epe luzeko aurreikuspenen egoerak</i>	161
XIII. <i>Interes-tasaren teoria orokorra</i>	177
XIV. <i>Interes-tasaren teoria klasikoa</i>	185
Eranskina: Marshallen Principles of economics, Ricardoren Principles of political economy eta beste lan batzuetako interes-tasari buruzkoa.....	193
XV. <i>Likideziarako pizgarri psikologikoak eta negoziozkoak</i>	201
XVI. <i>Kapitalaren izerari buruzko hainbat ohar</i>	215
XVII. <i>Interesaren eta diruaren oinarrizko ezaugarriak</i>	227
XVIII. <i>Enpleguaren teoria orokorrari buruzko azalpen berria</i>	247
 BOSGARREN LIBURUA. ALOKAIRU NOMINALAK ETA PREZIOAK ..	257
XIX. <i>Alokairu nominaletako aldaketak</i>	259
Eranskina: Pigou irakaslearen "Langabeziaren teoria".....	273
XX. <i>Enplegu-funtzioa</i>	283
XXI. <i>Prezioen teoria</i>	293
 SEIGARREN LIBURUA. TEORIA OROKORRAK IRADOKITAKO OHAR LABURRAK	309
XXII. <i>Ziklo ekonomikoari buruzko oharra</i>	311
XXIII. <i>Merkantilismo, lukurreri lege, diru zigilatu eta azpikontsumoaren teoriari buruzko oharra</i>	329
XIV. <i>Teoria orokorrak ekar lezakeen gizarte-filosofiari buruzko azken oharra</i>	363
 OHARRAK	375

